



IV EBONY

2876

DEPT. OF STATE

LIBRARY

2876

LIBRARY

2876

LIBRARY

2876

LIBRARY

2876



N - 10009  
R - 6408

A.T.V.  
1426





1  
J

L  
LAUR EBANYELIOAC

ETA

APOSTOLUEN EGUINTZAC.

LAUR  
EBRAEALIOAE

ATA

APOSTOLIÆ ECLIPSIÆ

JESUS-CHRISTO

GURE JAUNAREN

LAUR EBANYELIOAC

SAN MATHIUREN, SAN MARKEN, SAN LUKEN,

YONDONI JOANEREN ARABERA;

R.T.A.

APOSTOLU SAINDUEN

ÉGUINTCEN LIBURUA.

LAPURDICO ESCUARABAT ITZULIA.

« Iarurit eague arthosqui Iariturare,  
» ecen onesten dueue jeaitea hetaz be-  
» thirreco hicia , eta hec dire ekhar-  
» cen datena lekheotassuna nitaz. »  
Y. JOANEREN ERAN. Cap. v, b. 39.



BAYONAN,  
LAMAIGNEREN IMPRIMERIAN,  
BOURNEUFECO CARRICAN N° 66.

1828.

ESSE-CURSUS

ИДЛЮБ, ЭДИСОН

# MUR·HABANHILOG

*WILLIAM KELLY THE YOUNGER*

ARMADA VENDE AOS TRONZOS

## WOSTOCHI SINDUEN

第3回 おわきのひ

Autodesk Technical Training CONSULTANT

—  
—  
—  
—  
—



140/143

· 前言 · 第一章 从“新”到“旧”的技术 · 第二章 从“旧”到“新”的技术 · 第三章 从“新”到“新”的技术 · 第四章 从“旧”到“旧”的技术

（二）“统一”与“多样”的关系：对“统一性”与“多样性”的辩证统一

## LAUR EBANYELIOAC.

	PLAMAC.	PLAMAC.
Ebanyelioa San Mathiuren arabera..	1	Ebanyelioa San Luken arabera.....
Ebanyelioa San Marken arabera....	74	Ebanyelios yondoni Joaneren arabera. 200

---

APOSTOLUEN EGUINTZAC..... 255

the first time in the history of the world, that  
the people of the United States have been  
able to elect a President by a majority of their  
representatives in Congress, and that they  
have done so in a manner which will give  
them a President who will be popular with  
the whole country, and who will be able to  
carry out his policy in a manner which will  
be satisfactory to all the people. This  
is a great victory for the people of the  
United States, and it is a victory which  
will be remembered for many years to come.

EBANYELIO SAINDUA,

# S. MATHIUREN

## ARABERA.

### I CAPITULUA.

*Jesus-Christoren yenealogia eta sortcea.*

1. Jesus-Christo Davitenseime, Abrahamen semearen yenealogiaco liburua.

2. Abrahamec enyendratu çuen Isaac; eta Isaakec enyendratu çuen Jacob; eta Jacobec enyendratu cituen Juda eta haren anakay;

3. Eta Judae enyendratu cituen Phares eta Zara Thamarganic; eta Pharezec enyendratu çuen Esrom; eta Esromec enyendratu çuen Aram;

4. Eta Aramec enyendratu çuen Aminadab; eta Aminadabec enyendratu çuen Naasson; eta Naassonec enyendratu çuen Salmon;

5. Eta Salmonec enyendratu çuen Booz Rachabganic; eta Boozec enyendratu çuen Obed

Ruthganic; eta Obedec enyendratu çuen Jesse;

6. Eta Jessec enyendratu çuen David Erreguea; eta David Erregueac enyendratu çuen Salomon, Uriasen emazteaganic.

7. Eta Salomenc enyendratu çuen Roboam; eta Roboamec enyendratu çuen Abia; eta Abiac engendratu çuen Asa;

8. Eta Asac enyendratu çuen Josaphat; eta Josaphatec enyendratu çuen Joram; eta Joramec enyendratu çuen Ozias;

9. Eta Oziasec enyendratu çuen Joatham; eta Joathamec enyendratu çuen Achas; eta Achasec enyendratu çuen Ezechias;

10. Eta Ezechiasec enyendratu çuen Manasses; eta Manassesec enyendratu çuen Amon; eta Amonec enyendratu çuen Josias;

11. Eta Josiasec enyendratu çuen Jakim; eta Jakimec enyen-

dratu cituen Jechonias eta haren anayac Babylonerat eramanac içan ciren demboraxuan.

12. Eta Babylonerat eramanac içan ciren ondoan, Jechionasec enyendratu çuen Salathiel; eta Salathielec enyendratu çuen Zorobabel;

13. Eta Zorobabelee enyendratu çuen Abiud; eta Abiudec enyendratu çuen Eliakim; eta Eliakimec enyendratu çuen Azor;

14. Eta Azorec enyendratu çuen Sadoc; eta Sadokec enyendratu çuen Achim; eta Achimec enyendratu çuen Eliud;

15. Eta Eliudec enyendratu çuen Eleazar; eta Eleazarec enyendratu çuen Matthan; eta Matthanec enyendratu çuen Jacob;

16. Eta Jacobec enyendratu çuen Josephi Mariaren senharra, cein *Mariaganic* sorthu içan baita Jesus, CHRISTO deitcendena.

17. Bada Abrahamanic David ganainoco yeneracione guciac dira hamalaur yeneracione; eta Davidganic Babylonerat eramanac içan ciren arterainocoac, hamalaur yeneracione; eta Babylonerat eramanac içan cirenetic Christo ganainocoac hamalaur yeneracione.

18. Bada Jesus - Christoren sortcea manera huntan içan da:

Ecen Maria haren ama Josephi ezkontçaz hitzemana içan cen, elkhargana gabe, esperanteetan cen Izpiritu Sainduaganic.

19. Orduan bere senhar sephec, ceren justo baitcen, eta ez baitçuen hura desohoratu nahi, secretuki utci nahi ukhan çuen.

20. Bainan gauça hauc gogoa cerabiltçala huna, Jaunaren Aingerua aguertu citçayon ames batian, cioela: Joseph, Daviter semea ez-çaitela beldur çure emaste Mariaren hartcera; ecen hartin concebituadena Izpiritu Sainduaganic da.

21. Eta erdiren da Seme batez, eta deithucoduğu haren ice na JESUS; ecen harrec salbaturen du bere populua beren bekhatuetaric.

22. Bada hauc guciae ethorri dira, Jaunac prophetaz erran ukhan çuena compli çadintçat cioela:

23. Hana biryinabat esperantetan içanen dena, eta erdiren da seme batez, eta deithuren duçu haren icena EMMANUEL, ceina erran nahi baita, JAINCOS GUREQUIN.

24. Beraz lotaric atçarri eanean Joseph, egun çuen Aingeruac manatu cion beçala, eta harti çuen bere emaztea.

25. Bainan etçuen batere eça-

gutu bere lehen semeaz erdiar-  
teraino; eta deithu cuen haren  
icena JESUS.

## II CAPITULUA.

*Christo Bethlehenem sorthu —  
Eta Orientetic ethortcendira  
Magoac adoratcera. — Her-  
odesen bihotzgogortassuna. —  
Jesus Egyptoan guero Na-  
zarethean.*

1. Sorthu cenean bada Jesus Bethlehenem Judeaco, Erregue Herodesen demboran, huna Magoac Orientetic ethorteen dira Jerusalemerat.

2. Ciotela: non da Juduen Erregue sorthu dena? ecen ikhussi dugu horren içarra Orienten, eta ethorri gare haren adoratcera.

3. Erregue Herodesec adituric hori, içantcen hortaz ikeratua, eta Jerusaleme gacia harequin.

4. Eta bilduric Sacrificatçale aitcindari guciak eta populuaren Scribac informatucen hetaric, pon Christo sorthu beharcen.

5. Eta heyec erran cioten: Bethlehenem Judeaco hirian, ecen hunela, scribatua da propheta batez:

6. Eta hi, Bethlehem Judeaco lurra, ez hais Judeaco gober-  
nadoren arteco thiienza, ecen  
hireganic atheraco duc Israel

ene populua pazcatuco duen go-  
bernadorea.

7. Orduan Herodes secretuqui Magoac deithuric, informatu cen hetaric arthosqui içarra aguertu içan çayen demboraz.

8. Eta hec Bethlehemerat i-  
gortcen cituelaric, erran cioten;  
yoanic informa çaitenze arthos-  
qui haurtchoaz: eta ediren du-  
quequenean yaquin araz deça-  
daçuye, nic ere ethorriric hura  
adora deçadantçat.

9. Hec beraz Erregue entçu-  
nic yoan ciren: eta huna beñaz  
Orienten ikhussi ukhançuten i-  
çarra heyen aintcinean yoaiten  
cen, haurtchoa cen lekhuaren  
gainera ethorriric guelditu ce-  
neraino.

10. Eta içarra ikhussi çute-  
nean, boscario handi batez be-  
theciren.

11. Eta etchein sarthuric,  
ediren çuten haurtchoa ama Ma-  
riarequin, eta ahospez adoratu  
çuten hura, eta bere tresorac  
desplegaturic presentatu cielço-  
ten estreinac, urrhea, issenxua,  
eta myrrha.

12. Eta dibinoqui abertituac  
içanic amex batean, ez batere  
bihurtceco Herodesen alderat,  
erretiratu ciren beren herrira  
bertce bide batez.

13. Bada hec erretiratu eta,

huna Jaunaren Ainguerua aguer  
guertean çayo Josephi, cioela,  
yaiquiric har eçatçu haurtchoa  
eta haren ama eta ihes eguien  
Egyptora : eta egon çaité han  
nic erran arteraino : ecen Her-  
desec bilhatuco du haurtchoa  
hilaraztea.

14. Josephec beraz iratgarri  
cenean, hartu quen haurtchoa  
eta haren ama gabaz, eta erre-  
tiratucen Egyptora.

15. Eta egon cen han Herodesen heriotceraino, Jaunac pro-  
phetaz erran çuena compli çadintçat, cioela : Egyptotic deithu  
ukhan dut neure Semea.

16. Orduan Herodesec ikhus-  
sirc Magoeç hartaz trufatu ei-  
rela, hassarecen hainitz; eta bere  
yendiac igorri cituen hil citça-  
ten Bethlehemen eta haren lur  
gucietan ciren haur bi urthetaco  
eta beheragoco guciac, Magoe-  
taric hartarequin informatu içan  
cen demboraren araura.

17. Orduan complitu cen Jau-  
nac Jeremia Prophetaz erran  
çuena, cioela :

18. Entçun içanda Ramanem  
garrasiabat lamentacionebat,  
pleinuae, eta marrasca handibat  
Rachel nigarretan bere haurrez:  
eta ezta consolatu nahi içan,  
ceren ezdiren guehiago.

19. Bainan Herodes hil eta,

huna Jaunaren Ainguerua ague-  
tuda amex batian Josephi Egyp-  
toan,

20. Cioela : yeiquiric har eçat-  
çu haurtchoa eta haren ama, e-  
çoassi Israeleco lurrerat, ecer  
haurtchoari biciaren khentce-  
bilhatcen çutenac hil içan dira.

21. Josephec beraz iratzar-  
ric, hartu quen haurtchoa eti-  
haren ama; eta ethorricen Is-  
raeleco lurrera.

22. Bainan entçunic Archis-  
lausec regnateen çuela Judean  
bere aita Herodesen lekhuan,  
beldur çuen hara yoitera; eti  
amex batean dibinoqui abertitua  
içanic erretiratu cen Galilearat.

23. Eta ethorri cenean, bici  
içan cen Nazareth deitcen den-  
hirian ; Prophetez erran içan  
cena compli çadintçat, Nazar-  
riendarra deithucoda.

### III CAPITULUA.

*Yondoni — Baptistac predi-  
caten du desertuan, eta bat-  
hayatcen Jesus.*

1. Bada dembora harthan  
ethorricen Yondoni - Baptista,  
predicatcen çuela Judeaco de-  
sertuan :

2. Eta cioela : Comberti çai-  
tezte, ecen Ceruetaco Erresuma  
harbil da.

3. Ecen hemenda aiphatuys

ican dena Esaia prophetaz cioela: desertuan oihuz dagoenaren boça da; apphain çaque Jaunaren bidea, bardintçatçuc bidezcac.

4. Joannes hunec bada çuen bere beztimenda camelu ilez, eta larruzco guerricobat bere guerruncearen inguruan : eta miren yanhangia cen othea eta bassa eztia.

5. Orduan ethorri ciren harengana Jerusalemeco eta Judea guciaco, eta Jordanaren inguruco herri gucietaco habitantao.

6. Eta batheyatuac ciren hartaz Jordanean, beren bekhatnac confessatzen cituztela.

7. Ikhussiric bada hainitz Pharisauetaric eta Sadducenetaric ethorcen cirela haren bathayora; erran cioten: bipera casta, norc abertitu çaituzte hassaradura ethorcecoari ihes eguiteco?

8. Eguin tçatçue bada urriquimenduari combeni diren frutuac :

9. Eta uste ukhan çuen baithan erraitea Abraham dugu aita: ecen erraiten dautuet Jaincoac harri hautaric beretaric sor araz ditçuela haurrac Abrahami.

10. Bada, ya haizcora arbolen errorra eçarriada: hortacotz arbola fruitu onic eguiten ezduen gicia beharda içan picatua eta sura botatua.

11. Eguia da, nic bathayaten çaituztet urez urriquimenduco seinalean, bainan ene ondoan ethortcen dena ni baino botherexuago da, ceinen çapaten ekhartceco ez painaiz digne : harc bathayatuco çaituzte Izpiritu Sainduaz eta suz.

12. Bere bahea bere escuan du, eta garbituco du bere larraina : eta bilduren du bere oguibihia granierera : bainan lastoa choil erreco du behinere hilcen ezten suan.

13. Orduan ethorri cen Jesus Galileatic Jordanera Joannesengana hartaz bathayatua içaiteco.

14. Baino Joannesec hainitz debekhatzen çuen hora, cioela : nic behar dut içan çutaz bathayatua, eta çu ethortcen çare ene gana.

15. Eta ibardesten çuela Jesussec erran cion utznaçagu eguitera oraicoan, ecen hunela çaietu combeni complitcca yusticia gicia, orduan utçi çuen eguitera.

16. Eta Jesus bathayathu cenean berehala atheracen uretic : eta horra idequi içan çazcon cerruac eta Joannesec ikhussi çuen Jaincoaren Izpiritua usso colomba baten guissan yausten, tae haren gainera ethortcen.

17. Eta horra boz bat cerutic cioela : hauda ene Seine ongi

maitea, ceinetan hartu baitut neure axeguin ona.

#### IV CAPITULUA.

*Christo Debruaz tentatua. —*

*Pierres eta Andres, Jacques eta Joannes deithuric.*

1. Orduan Jesus eramana içan een Izpirituaaz desertura, Debruaz tentatuya içan çadintçat.

2. Eta barurtu cituenean berrogoi egun eta berrogoi gau, finean gossetu cen.

3. Eta ethoriric harengana Tentatçaila erran cion : baldin Jaincoaren semea bacira, erraçu harri hauc yen diten ogui.

4. Bainan Jesusec ihardexi çuen eta erran çuen : scribatua da: eztela guicona oguitic choilqui bicico, bainan Jaincoaren ahotic atheratcen diren hitcetaric.

5. Orduan hura du eramaiten Deabruac hiri saindura, eta eçari çuen templu gainean;

6. Eta erraiten dio, Jaincoaren semea bacira, aurthic çaité berherera; ecen scribatua da, ecen ordenatua du bere ainguerey, beren escuetan eraman citçatela çure oinez cembeit harrietan behaztopa esçaitentçat.

7. Erran cion Jesusec : scribatua da ere: eztuçu tentatuco çure Jainco Jauna.

8. Berriz hura du eramaiten

Debruac mendi gora batetara, eta eratcutxi cion munduko eresuma guciac eta hetaco gloria.

9. Eta erraiten dio, hauc guciac emanen derauzquier, baldin ahospez adorateen banuço.

10. Orduan erran cion Jesusec; habil Satan, ecen scribatuaduc, çuen Jainco Jauna adoratuco duçuye, eta hura bera cebitçatuco.

11. Orduan utciçuen Debruac eta una, ainguerauc hurbilduz ciren eta cerbitçatu çuten.

12. Eta Jesusec adituric erraiten Joannes presoner cela, erretiratu cen Galileara.

13. Eta utciric Nazareth, yoan içantzen egoitera Capernaume raitxas aldeco hiri, Zabulongo et Nephtalico bazterretan cenera.

14. Compli cedinçat Esaïa prophetaz erran içan çuena cioela.

15. Zabulongo lurra eta Nephtalingo lurra, ixasoco bidean Jordanaz berce aldetic, Genti len Galilea.

16. Populu ilhumbetan yari cen horrec, argui handi bat i khussi ukandu, eta herioarre regionean eta itçalean yarriac ereney arguia alchatu içan çaiotz.

17. Ordudanic bassi cen Jesus predicateen, eta erraiten comberti çaitenze, ecen hubi da Ceruetaco Erresuma.

18. Eta Jesusec Galileaco ixas aldean çabilaric, ikhussi cituyen bi anaya; Simon, Pierres deithua içan dena, eta Andres haren anaya, botatcen çutela beren sarea ixasora, (ecen arraintçariac ciren.)

19. Eta erran cioten : çatozte eue oudotie, eta eguiuen çaituztet guïcon arrainçari.

20. Eta hec berehala uteiric beren sareac yarrai qui içan çazicon.

21. Eta handic aitcinago yoanic, ikhussi cituen bertee bi anaya, Jacques Zebedeoren semea, eta Joannes haren anaya, untei batetan, bere aita Zebedearequin, bere sare antolateen hari cirela : eta deithu cituen.

22. Eta hec berehala unteia eta bere aita, uteiric yarrai qui içan çazicon.

23. Eta ingurateen çuen Galilea gacia Jesusec, hayen synagoguetan iracasten aricela, eta Erresumaco Evanyelio predicaten çuela; eta sendateen cituela eritassun suerte guciаc, eta languitassun suerte guciаc populuan artean.

24. Orduan yo çuyen haren famac Syria gucian, eta presentatcen ciotçaten gaisqui ciren gujac, eritassun ascos tormentatuac cirenac, demoniatuac,

lunaticoac, paralyticoac, eta sendateen cituen.

25. Eta yende hainitz yarraiqui citçayon Galileatic, Decapolistic, Jerusalemetic, Judeatic, eta Jordanaz berce aldetic.

## V CAPITULUA.

*Jaunac predicacen du mendi gainbatean.*

1. Jesusec ikhussiric yende horiec guciаc, igan cen mendi batetara eta yarri cenean : hurbilda içan çazicon bere discipuluac.

2. Eta hasiric mintçatcen iracasten cioten guisa huntas :

3. Dohatxu dira izpirituz pobre direnac ; ceren hayençat da Ceruetaco Errestuma.

4. Dohatxu dira nigar eguiten dutenac ; ceren hec consolatuac içanen baitira :

5. Dohatxu dira eztiac ; ceren hec lurreco premu içanen baitira :

6. Dohatxu dira yusticiaz gosse eta egarri direnac ; ceren hec asseco baitira :

7. Dohatxu dira misericordiasac ; ceren misericordia eguna içanen baitçaiote.

8. Dohatxu dira bihotcez cha hu direnac ; ceren heyec ikhussico baitute Jaincoa.

9. Dohatxu dira baquea procurateen dutenac, ceren hec

Jaincoaren haur deithuac içanen baitira.

10. Dohatxu dira yusticia delacotz persecutatuac direnac; ceren heyentçat baita Ceruetaco Erresuma.

11. Dohatxu içanen çarete inyuriatuac eta persecutatuac çaituzquetencan, eta gauça gaisto guciac erraiten tustenean çuen contra gueçurrez enegatic :

12. Bozcaria eta aleguera çatesta, ceren çuen errecompenxa handia baita ceruetan; ecen hala persecutatu ukhan dituzte çuen aitzineco prophetac.

13. Cuec çarete lurreco gatza bainan baldin gatzac galteen badu bere gacitasuna; certaz gacitucoda? Ezdu guehiago deus balió, camporat botatceco baicic, eta guçonez osticatua içaiteco baicen.

14. Cuec çarete munduko arguia; hiri bat mendi gainean eçarria, ez daite içan gordea.

15. Eta eduzte pitzen argizaguia hura eçartceco gaitzcerupean, bainan candelerean, eta argui eguiteco etcheco guciei.

16. Hala argui deçala çuen arguiac guçonen aitcinean; çuen obra onac ikhus diten, eta glorifica deçaten çuen Aita ceruetan dena.

17. Ez içan uste leguearen edo

propheten deus eztalcera ethorn naicela : eznaiz ethorri deus ez talcera, haicen complitcera.

18. Ecen eguiaz diotçuet, pasatu direno cerua eta lurra, itabat edo punetu echoil bat-edo iraganen, gauça guciac noez diren eguinac.

19. Norc-ere beraz hauxi içanen baitu manamendu thipi hatarie bat, eta iracatxico baitu nola guçonei thiapien atchiqui içanenda hura Ceruetaco Erresuman; bainan norc-ere eguiñebaititu eta iracatxico hura atchquia içanenda Ceruetaco Erresuman.

20. Ecen erraiten derautçun baldin çuen yusticiac ezpadaindurateen Scribena eta Pli risauena cuec etçaretela sarthe co Ceruetaco Erresuman.

21. Aditu duçue errana iç dela lehenagocoei eztuçuhilen eta norc-ere hilien baitu hura içanen dela punigarri yuyamendua.

22. Bainan nic erraiten derautçuet, ecen norc-ere emaitza baita coleran causa gabe benayaren contra; içanen dela punigarri yuyamendua : eta norc-ere erranen baitu bere anaya Raka, içanen da conxeiluan punigarri ; eta norc-ere errane baitio : erhoa, suzco gehien punigarri içauendela.

23. Beraz, baldin çure ofrenda eramaiten baduçu aldarera, eta han orhoitcen bacine çure anayac huela cerbeit çure contra;

24. Utçaçu han çure ofrenda aldarre aitcinean, eta çoatci lehenic erreconciliatcerat çure anaarequin, guero ethorçaite eta presenta çagu çure ofrenda.

25. İçançaita laster acort çure partida contrarioarequin, harrequin bidean çareno, beldurez çure partida contrarioac libra çaitçan yuyeari, eta yuyeac libra çaitçan saryantari, eta presondeguian ecar çaitçaten.

26. Eguiaz erraiten derautçut, etçarela atheraco handic pagatua ukhanen duçun artio azquen cornadoa.

27. Aditu duçue lehenagocoey erran içan çayela; ez-duçu adulterioric eguien :

28. Bainan nic erraiten derautçut, norc-ere behatcen baitu emaztebatı hura guthicia deçantçat eguiñ duela yadanic bere bihotcean adultera haraquin.

29. Bada baldin çure begui esquinac trebuca, arazten baçaitu, atheraçaçu eta hotaçaçu cureganic urrun : ecen hobe da çuretçat galadın çure membroetaric bat, eta eztadin çure gorputz gücia aurdie gehennarat.

30. Eta baldin çure escu escuinac trebuca, arazten baçaitu, trencaçaçu hura, eta hotaçaçu çureganic urrun : ecen hobe da çuretçat galadın çure membroetaric bat, eta ez dadin çure gorputz gücia aurdie gehennarat.

31. İçanda oraino errana, baldin norbaitec uzten badu bere emaztea, eman deçon separacioneco letra :

32. Bainan nic erraiten derautçut, norc-ere utcico baitu bere emaztea, salbu adulterioco causaz, adulterio eguiñ arazten du, eta norc-ere utciarequin ezcondudo baitsa harc adulterio eguiten duela.

33. Yaquin duçue ere lehenagocoey errana içan çayotela adultuçue yuramentua hauxiren, bainan errendatuco dioçue Jaunari promesatua ukhanen duçuena yuramentuz :

34. Bainan nic erraiten derautçut; ezteçaçuela yuramenturic eguiñ manera bateretan; ez cerruaz, ecen Jaincoaren tronoa da;

35. Ezeta lurratz, ecen haren oinetaco alkchia da; ezeta Jerusalemez, ecen Erregue handiaren hiria da.

36. Halaber çure burnaz ezduçu yuramenturic eguiñen, ecen ilebat churia ez beltcha ecin eguiñ deçaqueçuque.

37. Bainan çuen hitça içanda-dila , bay, bay; ez, ez : eta hau-taz guchiagocoa gaistoa da.

38. Ikhassi duçue errana içan dela : beguia beguiaren , hortça hortçaren.

39. Bainan nic erraiten deraut-çuet : ezteçaçuela resista gaiz-quiari ; bainan baldin norbaitec yoiten baçaitu çure escuineco mathelan itçul çoco bertcea-ere.

40. Eta baldin norbaitec nahi badu pleteyatu çure contra , eta çuri çure yacca idequi, utz-çoco orobat çure capa ere.

41. Eta baldin norbaitec nahi baçaitu bortchatu yoaitera ha-requin lecoabat , çoaci biga.

42. Galdeguiten dautçunari emoço, eta çureganic maillegatu nahi duenari etçaitela urrunt.

43. Ikhassi duçue errana i-çandela; maitatuco duçue lagun proximoa , eta hastiatuco çure exaya.

44. Bainan nic erraiten de-rautçuet : maitatçatçue çuen ex-ayac, benedicatçatçue madari-çateen çaituztenac ; gaitz nahi-dautçuenei ongi eguiçue, eta othoitz eguiçue gaizqui tratat-çen eta persecutatçen çaituzte-nentçat.

45. Çuen Aita ceruetan denar-en haur içan çaitestentçat; ecen hare athera arazten du bere iguz-

quia gaistoen , eta yende on-gainera , eta igortcen du beuria yustuen eta inyustuen ga-nera.

46. Ecen baldin choilqui ma-baduçue çuec maite çaituztena-cer sari ukhanen duçue? publ-canoeç beresc ez othe dute ha-rembertce eguiten ?

47. Eta baldin çuen anayeis-lamente beguitharte eguiten duçue , cer eguiten duçue gu-biago bercec baino? publicano-beresc ez othe dute hori eguite-

48. İçan çaiteste bada çu-perfet , çuen Aita ceruetan de-perfet den beçala.

## VI CAPITULUA.

*Predicuaren seguida mendi ganean.*

1. Goardia emaçu çure amoia-ez eguiteaz guiconen aitcineat-hetaz ikhussia içaitecotçat : be-cenaz errecompenxa ez-duçu-i-khanen çuen Aita ceruetan des-ganic.

2. Bada amoina eguiten duçunean , ezte çäçuela trompe-yoaraz çure aitcinean hypocrite eguiten duten beçala synagogu-tan eta carriquetan , guicon-ohoratuac içaiteagatic ; egui-erraiten dautçuet , errecebites dutcla beren errecompenxa.

3. Bainan çure amoina eguite-

6 Cap.

duçunean, ezteçala ezquerreco escuac yaquin cer eguiten duen çure escu escuinac.

4. Çure amoina secretuan içan dadintçat; eta çure Aita secretuān eguiten dena ikhusten duepacbihurtuco derautçu aguerian errecompenxa.

5. Eta othoitz eguienen duçunean etcitela içan hypocritac beçala : ecic maitedute chutic daudelaric synagoguetan, eta Carrica cantoinetan othoitz eguita, guiconez ikhussiac içaitecotçat : eguiaz erraiten derautçet, errecebiteen dutela beren errecompenxa.

6. Bainan othoitz eguiten duçunean, sarçaité çure khambaran, eta çure bortha hertxiric, othoitz eguiçu çure Aita secretuān denari; eta çure Aita secretuān denac, bihurtuco derautçu errecompenxa publicoqui.

7. Bada othoitz eguiten duçunean, ezteçaçula hainitz eras paganoec beçala; ecen imaginacen dute ongul adituac direla hainitz mintçatuz.

8. Ez-çaitestela beraz heyen idurico içan : ecen badaqui çuen Aitac ceren behar çareten galdeguin baino lehen.

9. Hunela beraz çuec othoitz eguiçue : Gure Aita ceruetan çarena, santifica bedi çure icena.

10. Ethor bedi çure Erresuma; eguin bedi çure borondatea ceruan beçala lurreanere.

11. Iguçu egun gure eguneco ognia.

12. Eta quitta detçagutçu gure corrac, nola quittatcen ditugun beçala çordornei.

13. Eta ez gaitçatçula sararaci tentaeionetan; bainan beira gaitçatçu gaiztotic. Ecen çurea da erreguinua, eta puehancia, eta gloria seculacotz. Amen.

14. Ecen baldin barkhatcen badioçue guiconei beren ofenxae, barkhatuco deraitçue çuenac ere, çuen Aita cerucoac.

15. Bainan baldin ez badiotçue barkhatcen guiconei beren ofenxae, çuen Aitac-ere ez-de-rautçue barkhatuco çuen ofenxae.

16. Barurtuco çaretenean ezteçaçuela har aire tristeric hypocritec eguiten duten beçala; ecen paratcen dira arras dese-guinac begnithartez, agueri içan dadintçat guiconei barurtcen direla : eguiaz erraiten derautçet, errecebiteen dutela bere errecompenxa.

17. Bainan çuc barurteen duçunean, gantçu çacn çure burua, eta garbiçaçu çure bisaya.

18. Guiçonei barur cirela agueri ezdadintçat, bainan çure

Aita present denari çure secretuco lekhuan ; eta çure Aita lekhu secretuan ikhusten çaituenac, errecompenxatuco çaitu publicoqui.

19. Ezteçaçula [tresorie bil lurrean, çoinac harrec eta herdoillac conxomitcen baitituzte, eta çoinac ohoinec chilateen eta ebasten baitituzte.

20. Bainan biltçaçu tresorac ceruan, non ez harrec, ez herdoillac ezhaitute conxomitcen deus, eta non ohoinec ezpaitute chilatecen ez ebasten.

21. Ecen non baita çuen tressora, han içanen da çuen bihotça-ere.

22. Beguia da gorputceco arguia ; baldin beraz çure beguia garbibada, çure gorputz gucia içanenda arguitua.

23. Bainan baldin çure beguia gaizqui disposatua bada, çure gorputz gucia içanenda ilhumbeco, baldin beraz çure bait-handen arguia ez bada ilhumbe baicie çoin handiac içanen dira ilhumbeac berae !

24. Ne horc eztetçaque cerbitça bi naussi, ecen edo bat hastiatuco du eta bertcea mai-thatuco du ; edo estecatuco du batari, eta mespresatuco du bertcea, eztetçaquetçu cerbitça Jaincoa eta aberastasunac.

25. Hortacotz erraiten derrauçuet : ez çaitcztela içan anxian çuen biciarentçat, yanen duçuenaz, eta edanen duçuenaz ; ez eta çuen gorputçarentçat, certaz beztituac içanen cireten; bicia ez dea gnehiago hazgarria baino, eta gorputça beztimenda baino ?

26. Conxideratçue ceruco choriac; ecic ez-dute erraiten ez biltcen, ez bilkhacacen graniertan, eta bizquitartean çure Aita cerueoac hantzenditu ; etciretea çuec hainitz excellentago hec baino ?

27. Eta çoinda çuen artean bere anxiaz emendatecen ahal duena besobat bere thailari ?

28. Eta certaco çarete anxian beztimedaz ? ikhas çaque nola handitcen diren landetaco liliac; ez dira lanian hartcen eta ezdute iruten ;

29. Bizquitartean erraiten darotçuet, Salomon bera, bere gloria gucian ez dela beztitua hetaric bat beçala.

30. Baldin Jaincoac bestitcen badu hola landetaco belharra, egun çangou gainean dena, eta bihar aurthiquia içanen dena laberat : ezçaitu beztituko hainitz preferatuquiago, ô yende fedc thipicoac ?

31. Eztetçaiztela içan beraz ba-

6. 7 Cap.

tere anxian , dioçuelaric ; cer yanen dugu? edo cer edanen dugu , edo certaz içanen gara beztituac?

32. Ikhussiric Paganoec bilatcen tuztela gauça horiec gujac; cergatic çuen Aita ceruac eçaguteen du baduçuela beharra gauça horien gucien.

33. Bainan bilha çaque lehenic Jaincoaren erresuina , eta haren yusticia , eta gauça horiec emanac içanen çazquitçue gainetic.

34. Ez içan beraz anxian biharamunecotçaz : ecen biharamunac hartuco du artha behatcen çaconaz ; egun bakhotchac asquidu bere nekhea.

## VII CAPITULUA.

*Predicuaren akhabantça men-di gainean.*

1. Ez-deçaçula yuya , amore-gatic ez citen içan yuyatua ;

2. Ecen yuyatuco duçun halaco yuyamenduz , içanen çare yuyatua ; eta içartueo duçun halaco mésuraz içartuco çaituzte ordinez.

3. Eta certaco behatcen dioçure anayaren beguian den lastoari , eta eztuço casu eguiten çure beguian den ernayari ?

4. Edo , nola erraiten dioçure anayari : permetiçaçu khen-

deçadan çure beguian den lastea , eta horra , ceronec baduçu ernay bat çure beguian ?

5. Hypocrita , khentçatçu lehenic ernaya çure beguitic , eta guero ikhussico duçu nola khen-duco duçun çure anayaren beguico lastoa.

6. Ezteçaçula eman chakurrey gauça sainduac ; eta ez-titçatçula aurthic çure perlac acında beltcen aintcinera , beldurres ostica-deçaten sangon azpian eta guero ,bihurtcen direlaric ezticaten porrosca.

7. Galdeguin çacı emana içanen çaitçu ; bilhaçacı , eta surquithuco duçu ; yo çacı , eta idequia içanen çaiçu.

8. Ecen norc - ere galdeguin baitu , errecebitcen du ; eta norcere bilhatcen baitu , atcemaiten du ; eta idequia içanen da yoiten duenari .

9. Bainan çoin içanen da çuyen artheço guicôna emanen duena harri bat bere semeari , galdeguiten badio oguia ?

10. Eta galdeguiten badio arrain bat , emanen dio sugue bat ?

11. Beraz gaisto ciretenac , çuec baldin badaquique emaiten gauça onen çuen haurrei , cembat guehiago çuen Aita ceruetandénac emanen du onthasunetaric galdeguiten diostenei .

12. Guiçonec çuri eguitea nahi duçun gauça guciac, eguin diotçute çucere guisa berean, cergicatic leguea da, eta prophetac.

13. Sar çaité bortha herchitic, cergicatic bortha largoa da eta bide çabala eramaiten thuen a galtcera, eta bada hainitz handic sartcen denic.

14. Ecen bortha hertchia da, eta bide hertchia da, eramaiten duena bicira; hainitz guthi da hateemaiten dutenic.

15. Bada guarda çaité prophetta falsoetaric, çoinac çu ganat ethortcen baitira ardi beztimendan, bainan çoinac barnean oxo errebiatu batçu baitire.

16. Eçaguthuco tutçu bere fruituetaric. Mahatxac biltcen direa elhorrietaryc, edo picoac khardoetaryc?

17. Beraz arbola onac eguiten du fruitu ona; bainan arbola gaistoac eguiten du fruitu gaistoa.

18. Arbolac onac ezteçaque eguin fruitu gaistoric, ez eta arbola gaistoac fruitu onic.

19. Fruitu onie ekhartcen ezduen arbola picatua da, eta surat aurthiquia.

20. Eçaguthuco tutçu beraz bere fruituetaric.

21. Jauna! Jauna! erraiten derauten guciac ez-dira sarthu-

co ceructaco Erresuman; bainene Aita ceruetan denaren bionatea eguiten duena.

22. Egun hartan erranen d'autet hainitzee : Jauna! Jauna! ez-duguya prophetiçatu çure icanean? eta ez-duguya casatu de bruac çure icenean, eta ez-duguya eguin hainitz miraculu çu icenean?

23. Bainan erranen diot orduan arras idequiric : ez citutet bchinere eçaguthu; erretiçaste ene ganic, çuec gaistaqueriari emanac cireztenac.

24. Norc-erè aditcen baitilberaz hitz hauc, eta praticuta ematen baititu, comparatu dut, guiçon prudent etchia harrocaren gainean egui duena.

25. Eta noiz-ere uria ero baita, eta urausinac ethorri baitira, eta haiciec buhatu baitute eta eman etche horren contrazezta hori erori, cergicatic fundtua baiteen harrocaren gainea.

26. Bainan norc-ere aditec baititu erraiten ditudan hitz hauc eta ez baititu emaiten praticutan, iduri içanen du guiçon setxu gabe etchia sabliaren gainea egui duena;

27. Eta noiz-ere uria ero baita, eta urausinac ethorri baitira, eta haiciec buhatu baitute eta eman etche horren contra-

erori eta destruicionea handia  
içan da.

. 28. Arribatucen beraz, Jesu-  
sec solas hori finitu çuenean,  
tropac estonatuac içan ciren,  
aren dotrinaz;

29. Cergatic erakhusten cio-  
len autoritate içanic beçala, eta  
ez Scribuec beçala.

### VIII CAPITULUA.

*Jesus - Christoc sendatcen du  
lepradun bat, eta Capitain  
baten schia, eta San Pier-  
ressen amainarreba. — Ger-  
geseniens.*

1. Eta noiz-ere yauxi içan  
baitcen menditic; tropa handiec  
seguitu çuten;

2. Eta huna lepradun bat  
yencen, eta belhaunicatucen ha-  
ren aintcinean, erraiten cioelaric : Jauna, nahi baduçu garbi  
çartcen ahal nuçu;

3. Eta Jesusec hedatu çuen  
escua, hunquitu çuen, erraiten  
cioelaric; nahi dut hori garbi  
içan dadin; eta berehala haren  
lepra sendatu içan cen.

4. Guero Jesusec erran cion,  
guardia emaçu nihori erraitetic;  
bainan çoaci eta sacrificatçaleari  
erakux çaitet, eta ofriçaçu Mo-  
sec ordenatu duen presenta,  
hori lekhucotasun cerbitça da-  
quiotençat.

5. Eta Jesus sarthu cenean  
Capernaura, Capitain bat ethor-  
ri citçayon, othoisten çuelaric,

6. Erraiten cioela; Jauna,  
ene sehia paralyticoda ene et-  
chian, eta sofriteen du hai-  
nitz.

7. Jesusec erran cion; yoanen  
naiz eta sendatuco dut.

8. Bainan Capitainac ihardet-  
si cion : Jauna, ez-naiz digne  
sar çaiten ene teilaren azpian,  
bainan erraçu choilqui hitça,  
eta ene sehia sendatua içanen  
da :

9. Ecen ni neroni bertceren  
nausitasunaren azpian emana  
naicena, baditut nere azpian  
guerletaco yendeac, eta erraiten  
diot batari : çoaçi, eta yoaiten  
da; eta berte bati, çato eta  
yeiten da, eta enc sehiari eguiçu  
hori, eta eguiten du.

10. Jesusec hori aditu çue-  
nean estonatu cen, eta erran  
cioten seguitcen çutenei : Egui-  
azqui erraiten dautçet ez du-  
dala aurkhitu, Israelen ere ho-  
laco sede handibat.

11. Bainan erraiten dautçet  
cembeit ethorrico direla Orient-  
etic, eta Occidentetic, eta ma-  
hainian içanen direla ceruetaco  
Erresuman, Abraham, Isaac,  
eta Jacobequin.

12. Eta Erresumaco haurraco,

aurthiquiac içanen dira campoco ilhumbetarat , nun içanen baitira nigarrac eta hortz carrascac.

13. Orduan Jesusec erran cion capitainari, çoaçι, eta egun bequicu sinhetzi duçun beçala, eta oren berian haren sehia içan cen sendatua.

14. Guero Jesus ethorri cenean Pierressen etchera, ikhussi çuen Pierressen amainarreba o-hian, eta sucarrac hartua.

15. Hunquitu cion escua, eta sucarrac quitalu çuen; guero yei-qui cen, eta cerbitçatu cituen.

16. Eta arraxa ethorri cencan, presentatu cioten hainitz debrustatu, ceinac ganic cassatu baitcituen bere hitçaz izpiritua gaista guinae, eta sendatu cituen gaisqui ciren guciac.

17. Complitua içan çadinçat Esaia prophetaz erran çuena ,cioelaric: hartuditu gure languidurac , eta eraman ditu gure eritassunac.

18. Jesusec ikhussiric tropa handiac bere inguruetañ, manatu çuen passatceco bertce urbazzerrerat.

19. Eta Scriba bat turbilduric, erran cion ; nagussia , seguituco çaitut yoaiten ciren leku gucietara.

20. Eta Jesusec erran cion ; acheriec baituzte chiloac, eta cc-

ruco choriec ohantciac : bainaguiçonaren Semeac ezdu buruaren pausatceco lekhuric.

21. Guero bere discipulu etaric batec erran cion : Jauna permeti deçadaçu yoan nadineure aitaren chorstera.

22. Eta Jesusec erran cion : seguineçaçu, eta utzquitçu hilac bere hilen chorstera.

23. Eta sarthu cenean untcian, bere discipulu ec seguitu çuten,

24. Eta huna alchatu ce ixasoan tempesta bat hain handia, nun untcia bethea baitcen baguez : eta Jesus lo çagon.

25. Eta bere discipulu ac yin çitezazcon , eta iratçarri çuten, erraiten ciotellaric : Jauna , salbaguiçatçu , peritcen guira.

26. Eta erran cioten ; certau duçue beldurric, yende sede thipicoac , orduan yequiric, mintçatucen bortizqui haicer eta ixsosari ; eta calme handi bat egun cen.

27. Eta han ciren yendia harritu ciren, eta erran çuten nor da hau, haicec berec , eti ixasoac obeditcen diote ?

28. Eta noiz-ere passatu baitcen Gergesenengo herrias berce alderat, bi debrustatu atheraric hobietaric , ethorri cirearen errencontratcera , eta hain lanyerosac ciren , nihor ez bait-

ceu passateen ahal bide hartaric.

29. Eta huna, oihu egun  
çuten, erraiten çutelaric : cerda  
çure eta gure artian, Jesus Jain-  
coaren Semea ≠ ethorri cireya  
hunat gure tormentateera dem-  
bora baino lehen ?

30. Bada bacen urruntchago  
acinda beltz tropa handibat paz-  
çateen hari cirenac.

31. Eta debruec othoizten,  
çuten, erraiten çutelarie : aur-  
thiuiteen baguitutu camporat,  
periöeti deçağunu yoan gaiten  
acinda beltz mulço hartarat.

32. Eta erran cioten : çoazte;  
eta hauc atherarie, yoan ciren  
acinda beltz mulçora; eta huna,  
acinda beltz tropa hori gucia  
yoan cen ixasorat, eta hil ciren  
guciak uretan.

33. Eta guardiatcen citusten-  
nac escapatu ciren; eta yin ci-  
renean hirirat, condatu cituz-  
ten gauça hauc guciac, eta cer  
arribatu cen debrustatuyer.

34. Eta huna hiri gucia yoan  
cen Jesusen aintcinerat, eta ik-  
hussi çutunean othoistu çuten  
errétira çadim heyen herritic.

## IX CAPITULUA.

*Jesus - Christoc sendatcen du  
asco eritassun; — eta pitza-  
razten du nescatcha hil bat.*

1. Orduan sarthuric barkhuan,

passatu çuen ixasoa, eta ethorri  
cen bere hirirat.

2. Eta huna, ekharri cioten  
aintcimerat paraliticobat ohe ba-  
tean etçana : eta Jesusec ikuhs-  
siric heyen fedea, erran cion  
paraliticoari; içan çagu curaye  
ona ene semea ! çure bekhatuac  
barkhatuac çaisquitçu.

3. Eta huna, Scribuetaric cem-  
baitec erraiten çuten berenbai-  
than hunec blasphemateen du.

4. Bainan Jesusec eçaguturic  
heyen penxamendua, erran ci-  
oten; certaco pensatcen duçue  
gaisqui çuen bihotetan ?

5. Ecic çoin da errechago,  
edo erraitea : çure bekhatuac  
barkhatuac çaisquitçu, edo er-  
raitea : yaiqui çaita, eta ibil  
çaita ?

6. Bada yaquin çäçuen amo-  
reagatic Jaincoaren Semeac ba-  
duela botherea lurraren ginean  
bekhatuen barkhatceco, erran  
çuen orduan paraliticoari : yai-  
qui çaita, eta harturic çure ohea  
eta çoaci çure etcherat.

7. Eta yaiqui cen eta yoau-  
bere etcherat.

8. Yendec ikuhsiric hori,  
harritu ciren, eta glorificatu  
çuten Jaincoa ceren eman çuen  
holaco indarra guiconer.

9. Guero Jesus aintcinerat  
iragaiten celaric, ikuhsı çuen

guiçon bat Mathiu deitceu cena, yarria pagarazteco lekhuan, eta erran cion : ethor çaité ene ondotic; yaiqui cen, eta yoan cen haren ondotic.

10. Eta nola Jesus mahainian baiteen Mathiuren etchean, eta huna cembait yende pagaraztale eta bici gaistoetacoac ethorri ciren harat, eta yarri ciren Jesusquin eta haren discipuluequin mahainian.

11. Pharisagoeckikhussiric hori, erran çuten haren discipuler; certaco çuen nagussiac yaten du pagaraztelequin eta yende bici gaistocoequin?

12. Bainan Jesusec adituric hori, erran cioten; ossagarrian direnee eztute behar midicuric, bainan eri direnec.

13. Bainan çoazte, eta ikhas caque cer erran nahi duten hitz hauiec; misericordia nahidut, eta ez sacrificioa; cergatic ez naiz ethorria yustuen urriquiradeiteerat, bainan bekhatoreen.

14. Orduan Joannesen discipuluac ethorri ciren harenganat, eta erran cioten; certaco gue eta Pharisagoecc barureen-dugu maiz, eta cure discipuluucc esdute barureen?

15. Eta Jesusecihardetsi cioten; ezcondu berriaren khambaraco yendeac affigaitcen ahal

diraya, ezcondu berria heyequin deno? Bainan eguna ethorri da ezcondu berria khenduya içanen baitçayote eta orduan haurtuco dute.

16. Guisaberean nihorc ezdu eçarteen oyhal peça berribat, abitu chahar batean; cergatic bethececo eçarria denac, era maiten du abitutic, eta hauxi dura handiago da.

17. Ezda ere eçarteen arno berria, untcı chaharretan; berenaz untciae çapartateen dira, eta arnoa ichurtzen da; eta unciac funditzen dira; bainan eçarcen da arno berria untcı berriestan; eta bat eta bertcea conxebateen dira.

18. Nola erraiten baitciotçate gauça horieç, huna ethortzen da yaun bat eta belhauricatzen da haren aiatcinean, erraiten diilaric: ene allaha yadanic hila da bainan çato, eta eçar diotçogüre escua gainean, eta piztu coda.

19. Eta Jesusec yaiquiric, seguitu çuen bere discipuluequin

20. Eta huna, emazto bat atsekhabeztatua hamabi urthe hastan odol galtee batez, ethorri guibeletic, eta hunquitu çuen haren beztimendaren ezquina.

21. Cergatic erraiten çue bere baithan; baldin choilqu

hunquitcen ahal badut haren  
beztimenda , sendatua içanen  
naiz.

22. Eta Jesusec, itçuliric, eta  
behaturic, erran cion : Curaye  
ona içan çاقу ene alaba! çure  
fedeac salbatu çaitu, eta ordu-  
berean emaztequia sendatua içan  
cen.

23. Jesus ethorri cenean yaun  
haren etcherat, eta ikhussi ci-  
tuenean instrument yotçaleac ,  
eta yende oste batec haro han-  
dibat eguiten çuela,

24. Erran cioten : yoan çai-  
tezte , ezcic nescatcha gastea eza  
hila, bainan lo dago; eta hartaz  
trufatcen ciren.

25. Atheraaraci çuten ondoan  
beraz mulzo hori gucia, Jesus  
sarthucen eta hartu çuen nes-  
catcha gastearen escua, eta nes-  
catcha hori yaiquicen.

26. Eta fama hedatu cen herri  
hetan gucietan.

27. Eta Jesus iragaiten celaric  
urrunago, bi ixuc seguitu çuten  
oihuz eta erraiten çutelarie : Da-  
viten semea , urrical çaité gutaz!

28. Eta ethorri cenean etche-  
rat , ixu horiec yin ciren haren  
ganat, eta erran cioten, uste  
duçue eguiten ahal dudala çuec  
galdeguiten duçuena? Ihardetsi  
cioten, bai eguiaz qui Jauna.

29. Orduan hunquitu cituen

heyen beguiac, erraiten çuela-  
ric : Eguina içan bequique çuen  
fedearen arabera.

30. Eta heyen beguiac idequi-  
ac içan circen; eta Jesusec de-  
bekhatu cioten mehatchuequin ,  
erraiten ciotelaric: Guardia ema-  
çue ni horc yaquitetic.

31. Bainan hec partitu cire-  
nean, barrayatu çuten haren fa-  
ma herri hetan gucietan .

32. Eta atherateen cirelaric,  
huna , ekharri cioten aintcinerat  
guiçon bat mutua , eta debruz-  
tattua.

33. Eta debrua khendua içan  
cenean camporat, mitua mintça-  
tueen , eta tropac harritu ciren ,  
erraiten çutelarie : Ezda egun-  
daino holacoric ikhussi Israelen.

34. Bainan Pharisagoec er-  
raiten çuten ; cassatcen ditu de-  
bruac debruen printceaz.

35. Jesus yoaiten cen hiri eta  
herri gucietara eracusten çuela-  
ric hequien synagogoctan , eta  
predicatcen çuelaric erresumaco  
Ebanyelioa , eta sendateen citue-  
laric critassun eta insirmitate su-  
erte guiac populuaren artean ;

36. Eta ikhustean tropac, hun-  
quitua içan cen urrikhalmenduz,  
cergatic barrayatuac baitciren  
alde orotarat, çabilçala ardi ar-  
çain gabeac beçala ;

37. Eta erran çuen bere dis-

cipuluer; segurqui sasoina han-dia da, bainan languile guti da.

38. Othoitz eguięne beraz yaunari sasoinaz, egorditçan lan-guileac bere sasoinera.

## X CAPITULUA.

*Hamabi apostoluac galdegui-nac.*

1. Orduan Jesusec deithurie bere hamabi discipuluac, eman cioten ahala Izpiritu gaistoen gainean hequien cassatceco de-bruztauetaric, eta sendatececo eritassun eta infirmitate suerte guciac.

2. Eta hemen dira hamabi apostoluen icenac; lehena da, Simon, Pierres deithua, eta Andries haren anaya; Jacques, Zebedeen seimea, eta Joannes ha-ren anaya;

3. Philippe eta Barthelemy; Thomas eta Mathiu pagaraztalea, Jacques Alpheeren seimea, eta Lebbea, Thaddea deithua;

4. Simon Cananeoa, eta Ju-das Iscariot, noun harc berac trahitu baitcen.

5. Eta Jesusec igorri cituen hamabi horiec, eta manatu cioten, erraiten ciotlaric: ez yoan Gentilletarat, eta ez-çaitzetzela sar Samaritaneco hirietaric bat-teretan;

6. Bainan çoazte lehenago

Israelgo etcheco ardi galdue rat;

7. Eta partitu cirestenean, predicaçue erraiten duçue ric; Cernetaco Erresuma huri da.

8. Sendaçatçue eriac, garraz çaitçue leprastatuac, piçaraz çaitçue hilac, cassa çaitçue demonioac debrustatuetari camporat; errecebitu duçue urririç, eta eman eçaue urritie.

9. Ez egui provisioneric eturrhez, ez cilharrez, ez eta munedaz çuen guerricoetan.

10. Ez çacuric piyayaco, a bi beztimenda, ez çapataric, eta maquilaric; cergatic langulea gay da bere yanhariarençat

11. Eta çoin nahi hiritan ederritan sar ciresten, informaçitezte çoin den gay çuen alos ceço, eta egon çitezte hare etchean handie partitu artaino.

12. Eta sartcen cirezenean cembait etchetan, agur çacue

13. Eta etche hura gay bada, çuen baquea ethor dadila hare gainerat; bainan hartaco gay etada, çuyen baquea bihur bed çuen ganat.

14. Bainan norbeitec errecebitcen ez-çaitztenean, eta behatuco ez denean çuen hitcer, inhaurrex çacue çuen oinetac

hérrauxa , etche hartaric edo hiri hartaric partiteean.

15. Erraiten dautçuet, egiazqui , Sodomeco eta Gomorrhaco herritacoac estiquiago tratatuac içanen direla yuyamenduco e-gunean , hiri hora baino.

16. Huna igortzen çaituztet ardiae beçala oxoen artera ; içan çaitetze beraz çuhur sugueac beçala , eta simple usoac beçala,

17. Eta guardia emaçne güconetaric ; cergatic libratuco çaituzte conseilluetara , eta açotatuco beren synagoguetan.

18. Eta eramanae içanen çarete gobernadoren aintcinerat , eta orebat Erreguen aintcinerat enegatic , nitaz lecucotassunaren heyerbihurtceco , guisa berean nola nacioner.

19. Bainan libratcen citustenean , ez içan batere penetan cer içanen duçuen erraiteco , ez eta nola mintçatuco çareten , cergatic emana içanen baitçautçue ordu berean erraiteco içanen duçuena;

20. Cergatic ez - çarete quec mintçatuco çaretenac , bainan çuen Aitaren Izpiritua içanen da mintçatuco dena çuencat.

21. Bizquitartean , anayac libratuco du bere anaya heriotcera , eta aitac bere haurra ; eta haurrac alehatuco dira bere

aita eta amen contra , eta hilazcico dituzte.

22. Eta higunduac içanen çarete guciataric , ene içenagatic ; bainan nore - ere sustengatuco baitu akhabantçaraino , salbatua içanen da.

23. Bizquitartean ; persecutacen çaituztenean hiri batean , ihes eguiçue bertce batetara ; cergatic , egiazqui erraiten dautçuet ez - dituçuela currituac içanen Israeleco hiri guciac , güconaren Semea ethorri gabe.

24. Discipulua ezda nagussia baino guehiago , ez eta cerbitçaria bere Jauna baino gorago.

25. Asqui du discipuluac içaitea bere nagussia beçala , eta cerbitçariac bere Jauna beçala ; deithu badute familiaco aita Belzebul , cembañ guehiago deithuco dituzte haren sehiac !

26. Ez-deçaçuela beraz hetaz beldurric içan. Bizquitartean , ezda deus gorderic aguerteen cz - denic , ez eta secreturic eça gutua içatera yeiten ez - denic.

27. Ilhumbetan erraiten dautçuedana , erraque arguian ; eta beharrira erraiten dautçuedana , predicaçue etchen gainean.

28. Eta ez beldur içan gorputça hiltcen dutenez , eta arima hil ahal ez deçaquetenez ; bainan lehenago beldur çaitetzte

gorputza eta arima galtzen ahal detçaquenaren botatzen tuelaric gehennarat.

29. Ez - direa saltzen soz battean bi chori? eta bizquitartean hetaric batere ezda erortzen lurralera çuen Aitaren borondatea gabe.

30. Eta çuen buruco iliac berac guciac khondatuac dira.

31. Ez beraz beldur içan, baino dñçue chori hainitsec baino guehiago.

32. Norc-ere beraz eçagutuco bainan guionen aintcinean, eçagutuco dut nic-ere enc Aita ceruetan denaren aintcinean.

33. Bainan norc-ere ukhatuco bainu guionen aintcinean, ukhatuco dut nic-ere, ene Aita ceruetan denaren aintcinean.

34. Ez uste içan ethorri nai-cela lurrerat baquearen ekhartcerat; ez niz, ethorri baquearen ekhartcerera, bainan ez-pataren.

35. Cergatic ethorrinaiz guerlean eçartcerat semea aitaren contra, eta allaba bere amaren contra, eta erreina bere ama inarrebaren contra.

36. Eta guion baten sehi propiac haren exayac içanen dira.

37. Norc-ere maite baitu bere aita edo ama ni baino guehiago, ezda enetçat gay; eta norc - ere maite baitu bere semea edo alaba

ni baino guehiago, ezda enetçat gay.

38. Eta norc-ere ez baitu harcen bere khurutcea, eta ez baitethorteen enc ondotic, ezda enetçat gay.

39. Norc - ere conserbatuoc baitu bicia, galdueo du; bainan norc-ere galduco baitu bere bicia enegatic atcemanen du.

40. Çuec errecebitcen çastus tenac, errecebitcen nau; eta errecebitcen nauenac, errecebitcen du ni igorri nauena.

41. Prophetabat errecebitcer duenac, propheta calitatean errecebituco du prophetaren errecompenxa; eta yustubat errecebitcen duenac, yustu calitatean errecebitucodu yustu baten errecompenxa.

42. Eta norc-ere emanen bait basso bat ur hotz choilqui edatera, thipi horietaric bati discipulu calitatean, erraiten dauçuet eguiazqui ezduela galduo berc errecompenxa.

## XI CAPITULUA.

*Jesus - Christoren ihardetse*

*Yondoni Baptistaren discipuluei — Corazin, Bethsaida, Capernaueu mehatchatuac.*

1. Eta guerthatucen Jesus akhabatu çueanean bere ordre emaitea hamabi discipuluer, pa-

titutcen handic eracusteco eta  
predicatcecotçat heyen hirietan.

2. Beraz Joannesec adituric  
miatçatcen Christoc egun ci-  
tuen, gauzez igorri cituen bere  
discipulu hari erraiterat :

3. Ethor behardena cirea, alla  
iduri qui behardugu bertce bat?

4. Eta Jesusec ihardestean,  
erran cioten : çoazte, eraman  
diotçoçue Joannesi aditcen di-  
tuçuen gauçac eta ikhusten di-  
tuçuenac.

5. Ixuec atcemaiten dute biz-  
ta, mainkhuc badabilça, lepra-  
dunac garbituac dira, goorrec  
aditcen dute, hilac piztuac dira,  
eta Ebanyelioa adiaracia da po-  
brer.

6. Bainan dohatxu içanen da  
escandalisatua içanen ez dena  
ene baithan!

7. Eta yoaiten cirelaric, Je-  
sus hassi cen erraiten Joanneses  
yender; ceren ikhusten içan çare-  
te desertuan? canaberabat hai-  
ciac inharrosten duena?

8. Bainan ceren ikhusten içan  
çarete? guion bat arropa hau-  
tatuez beztituaren? huna, arropa  
hautatuac ekhartcen dituztenac  
erreguen etchetan dira.

9. Bainan ceren ikhusten içan  
çarete? prophetabaten? bai, er-  
raiten dautçuet, eta prophetabat  
baino guehiago;

10. Ecic hora da, ceintaz hula  
izeribatua içan baita: huna, igort-  
cen dut ene meçularia çure aint-  
cinera, ceinac aphainduco baitu  
çure bidea, çure aintcinean.

11. Eguiazqui, erraiten daut-  
çuet emaztequietaric sorthu di-  
renetaric; ezdela bat athera  
Yondonni Baptista baino han-  
diagoric; bizquitartean Cerue-  
taco Erresuman den thiienza,  
hora baino handiago da.

12. Bizquitartean Yondonni  
Baptistaren egunetaric orai ar-  
teraino, Ceruetaco Erresuma  
borthatua da, eta borthitsec  
idabazten dute.

13. Ecen propheta guciec eta  
Joannes ganeraineco legueac,  
prophetizatu dute.

14. Eta errecebiku nahi bai-  
tutceu *ene hitçac*, hora da Elias  
ethori beharcena.

15. Norc-ere baititu beharriae  
entçuteco, adi deçala.

16. Bainan nori comparatuco  
dut yeneracione hau? hunec i-  
duri du haurchipi merkhatuetan  
yarriae daudenac, eta coinee  
oihu eguiten baitute beren la-  
guner,

17. Eta erraiten baitiotz :  
soinu egnin dugu fluitaz, eta ez  
çarete dantçatu; cantatu de-  
ranzquitceu aire tristeac, eta  
ez çarete nahecabetu.

18. Ecen Joannes ethorri da ez dulearic ez yaten ez edaten; eta erraiten dute; badu debru bat.

19. Guiçonaren Semea ethorri da yaten eta edaten dulearic; eta erraiten dute; horra yale eta edale bat, yende pagaraztalen eta gaizqui bicidiren adisquide bat; bainan prestutassuna yustificatua içan da hacen haurrez.

20. Orduan abiatu cen mehatchatzcen miraculu hainitz eguin çuen hirien, etcirela batere urriquitan, erraiten ciotela:

21. Çorigaitz hiri, Corazin! çorigaitz hiri, Bethsaida! cergatic çuen erdian eguin diren miraculuac eguin içau balira Tyrren eta Sidonen, aspaldi içanen ciren urriquituac saecuarequin eta hautçarequin.

22. Hortacotz erraiten dautçuet Tyr eta Sidon quec baino eztiquago tratatuac içanen direla yuyamenduco egunean.

23. Eta hi, Capernaüm, eerruraino alchatua içan hicena, ifernuraino aphaldua içanen haiz; ezcic hire erdian eguinac içan diren miraculuac, eguiu içan balira Sodomen oraino atelic leçaquete.

24. Hortacotz erraiten dautçuet, Sodomecas eztiquago tra-

tatuac içanen direla; ence bain yuyamenduco egunean.

25. Dembora hartan Jesus harturic hitça erran çnec : celebratzen çaitut, ô ene Aita ceru eta lurreco Jauna, gauça hau gorde tutçulacotz preztuer adimendu dntener, eta eçagutraci haur thipier!

26. Hola da, ô ene Aita! ergatic hola içan baita çure borodea.

27. Gauça guciac eman içan çaisquit ene Aitas; baina nihorc ezdu eçagutzen Seme Aitac baicic, eta nihorc ezdu çagutzen Aita, Semeac baicic eta Semeac eçagutaraci nah dioenari baicic.

28. Çatoste ene ganat cargtuac eta akhituac çareten güün eta lagunduco çaituztet.

29. Garga çaque ene uztarr çuen gainera, eta yaquin çaque ene ganie eärgatic humil eta eabinaiz bihotces, eta ateemau duque arimetaco errepausa.

30. Çeren ene uztarria erricha da, eta ene cargo arina.

## XII CAPITULUA.

*Errepausuko eguna — Jesus Christoren miraculuac — Ipiritu Sainduaren contrabekhatuaz.*

1. Dembora hartan Jesus bas-

12 Cap. han oguietan gaindi errepausuko egun batez, eta haren discipuluac gosse içanes hassi ciren ogui buruetaric atheratzen, eta hetaric yaten.

2. Eta Pharisauec ikhussiric, erran cioten : horra, çure discipuluec eguiten dute haiquezden gauça bat errepausuko egunean.

3. Bainan erran cioten : ezduçue iracurtu cer eguin çuen Davitec gosse içan çuenean, harc eta barequin cirene?

4. Nola sarthucen Jaincoaren etehean, eta yan cituen propozitioneco oguiac, ceinac ez baiticitçazeon haiçu yatea, ez eta barequin cirener, bainan Sacrificatçaler choilqui?

5. Edo ezduçueya iracurtu leguean, errepausuko egunetan Sacrificatçalec hausten dutela errepausuko eguna templuetan, eta ez-direla batere hobendun?

6. Beraz, erraiten dautçuet badela hemen norbeit templua baino handiago dena.

7. Bainan bacinaquite cer erran nahi duten hitz horiec : misericordia nahi dut, eta ez sacrificioa; ez-cinituzten condensatuco hobenic ez dutenac.

8. Çergatic/guiçonaren Semea, errepausuko egunaren Jauna berada.

9. Guero handic partituriç, ethorricen heyen synagogara.

10. Eta hona, han bacen guicon bat escubat secatua çuena; eta accusatceco suyetaren içai-teco, interroatuçuten, erraiten ciotelaric : haiçu dea sendatcea errepausuko egunean?

11. Eta erran cioten : çoin içanen da çuen arthean, balin badu ardi bat, eta heldu bada erortecera cilho bathera errepausuko egunean, bartu eta alchaturuco ez-duena?

12. Bada cembañ da baliossago guicon bat ardi bat baino? Haiçu da beraz ongi eguitea errepausuko egunetan.

13. Orduan erran cion guicon hari : hedâçaçu çure escua; hedatu çuen, eta içan çayon eçarria berteea bescen sanho.

14 Beraz, Pharisauac atheraric, consultatu çuten haren contra nola eguinen çuten hora galteecotçat;

15. Bainan Jesusec eçaguturic hori, partitucen handic, eta yendeoste handiec segitu çuten; eta guciac sendatu cituen.

16. Eta debekhatu cioten, mehiatçurequin, eçagutçera emaitea;

17. İçan çadintçat complitura Esaia prophetaz errana cena, cielaric :

18. Huna ene cerbitçaria hau-tatu duana, ene ongvi maitea, ene amodioaren objeta dena; horren baitan eçantrico dut ene Izpiritua, eta adiaracico du yu-yamendua nacioner.

19. Ezdu contestatuco, ezdu oihu eguiñen, eta nihorez ezdu aditueo haren boça carriquetan.

20. Ezdu porroscatuko cana-bera haaxia, eta ez iraunguico argui eguiten duen mitcha, yusticia triompharaci duen artegai-no;

21. Eta nacioneez esperant-çatueo date haren icenean.

22. Orduan presentatua icançayon guicon bat debrubatez tolleatua ixua eta mutua, eta sendatu cuen, nun ixu eta mutu ican cenac solas eguiten eta ik-husten baitzen;

23. Eta yende guciac harri-tuac ican ciren, eta erraiten çuten; han ez-deya Daviten Semea?

24. Bainan Pharisauec adi-turic hori, erraiten çuten: hu-nec ezdu cassatcen debruac, Beelzebut, debruen printcearen medioz baicen.

25. Bainan Jesusec eçagutu-ric heyen goguetac, erran cioten: bere contra divisatua den erresuma, desertu bilhacatuco da; eta hiri edo etche, bere contra divisatçen denac, ezdu iraunen.

26. Beraz, Satenec aurki quiteen badu Satan campora divisatua da bere contra; beraz haren erresumac igaune du?

27. Eta cassateen baditut debruac Beelzebuten medioz, no-taz cassatcen tuzte cuen seime-hortacotz hec berac içanen diçuen yuye.

28. Bainan cassatcen baitz-debruac Jaincoaren Izpirituare medioz, eguiazqui Jaincoaren erresuma ethorri da cuen gaino.

29. Beraz, nola norbeit sareen ahalda guicon hazcar haren etchean, eta ebasten ahalde haren onthassuna, lehenic ebadu estecatu guicon hascarra eta orduan arroatuco du haren etchea.

30. Enequin ez-dena, em contra da; eta enequin biltzer ez-duenac, barrayatecendu.

31. Horlacoitz erraiten daut çuet bekhatu eta blasfemio guciac barkhatuac icanen direk guionei; bainan Izpirituare contraco blasfemioa ez çaye barkhatua icanen.

32. Eta norbeit mintçatu bida guiconaren Semearen contra barkhatua icanen çayo; baina norbeit mintçtu bida Izpiritu Sainduaren contra, ez-çayo ba-

khatua içanen, ez mende huntas, ez ethorri behardenean.

33. Edo eguiçu arbola ona, eta fruitua ona içanen da, edo eguiçu arbola gaistoa, eta haren fruitua gaistoa içanen da; ezcic arbola eçagutua da frutatic.

34. Bipera arraçacoac, nola mintçatcen ahal cirezte ongi, gaistoac çaretelaric? ezcic bihotceco abundantziatic ahoa mintço da.

35. Guiçon önecoac atheratcen tu gauça onae bihotceco tresor onetic, eta guiçon gaistoac atheratcen tu gauça gaistoac bihotceco tresor gaistotic.

36. Beraz, erraiten dautuet guiçonec condu errendatuco dutela, yuyamenduco egunean, erran tuzten hitz bano gueiez.

37. Cergatic yustificatua içanen cira çure hitcez, eta condensatua içanen cira çure hitcez.

38. Orduan Scriban eta Pharisau cembaitec erran cioten: Nagussia, nahi guinuque ontxa ikhussi çuc eguiten cembait miraculu.

39. Bainan ihardetsi cioten, eta erran çuen: nacione gaisto eta adulterioac bilhatcen du miraculu bat, bainan ezçayo emana içanen bertce miraculuric Jonas prophetarena baicen;

40. Cergatic nola Jonas balenaren tripan egon baitzen hirur egun eta hirur gau, orobat guiçonaren Semea lurraren barnean içanen da, hirur egun eta hirur gau.

41. Ninivitarrac yaiquico dira yuyamenduco egunean nacione horren contra, eta condenatuco dute, cergatic urriquitunc içanen baitira Jonasen predicacionean; eta huna, bida hemen Jonas baino gnehiago.

42. Egordico erreaguina altchatucoda yuyamenduco egunean nacione horren contra, eta condenatucodu, cergatic ethorri baitzen lurreco bazter batetaric Salomonen prestuntaçunaren aditeco; eta huna, bida hemen Salomon baino guehiago.

43. Beraz, izpiritu impura atheratu denean guiçon baten ganié, badoha leklu chucoetaric, errepausa bilatcen duela, bainan ezdu causiteen:

44. Eta orduan erraiten du; bihurtuco naiz enie etcherat, ceintarie athera bainaiz; eta ethorri denean, causiteen du, huxa, garbitua eta aphaindua.

45. Guero badoha, eta hartzen tu bertce çazpi izpiritu, bera baino gaistoagoac, sarthu diren ondoan, egoiten dira han, eta hola guiçon haren akhabant-

ça baino areagocoa da; gauça bera guertatuco da nacione barhayatu horri.

46. Eta nola mintço baitcen oraino troper, huna, haren ama eta anayac campoan ciren, bilhatcen çutela haren mintçatcea.

47. Eta norbaitec erran cion: borra, çure ama eta anayac campoan dira bilhatcen dutenac çure mintçatcea.

48. Bainan ihardetsi cion hori erran cionari: Nor da ene ama, eta nor dira ene anayac?

49. Eta hedatecen çuelaric bere escna bere discipulueta, erran çuen: huna ene ama eta ene anayac;

50. Cergatic norc-ere eguiñen baitu ene Aita ceruetan deñaren horondatea, hura da ene anaya, eta ene arreba, eta ene ama.

### XIII CAPITULUA.

*Haci erailearen parabolac, belhar gaistoadaz, mustarda haclaz, levamiaz, eta bertce cembaitez.*

1. Egun hartan berean Jesus atheraric, yarricen ixaso ondoan.

2. Eta yendetce handia bildu cen haren ingurnetara; hortacotz igan cen barkhu batetara, eta yarricen, eta mulço gucia egoien cen ixaz bazterrean.

3. Eta mintçatu çacoten gauça hainitzez, comparaciones, erraiten ciotela: huna, haci erailebat, atheracen eraiteco;

4. Eta nola eraiten baitçuen, haci partebat eroricen bidean eta choriac ethorri ciren eta yançuten.

5. Eta bertce partebat eroricen lekhu harrixu batçuetara, non ez baitcen lur hambatic, eta berehala alchatu cen, cergatic ez baitcen sartcen lurrean barna;

6. Eta igusquia yaiqui eñean erre çuen, eta erroric ez çuelaçotz, secatucen.

7. Eta bertce partebat eroricen elhorrien artera, eta elhorriac alchatu ciren, eta itho çuten.

8. Eta bertce partebat eroricen lur on batetara, eta ekharri çuen fruitua, bihibatec ekharri çuen chun, bertce hategi hirue hogoi; eta bertce hategi hogoi-eta-hamar.

9. Aditceco beharriac dituenac, entçun beça.

10. Orduan discipuluac hurbilduric erran cioten: Certaco mintçatcen çaicote comparaciones?

11. Ihardetsi çuen, eta erran cioten: Cergatic emana baitçaucue eçagutcea Ceruco Erresu-

13 Cap.

máco myzterioac, eta horiez denaz ezbaitçayote eman heyen egagutcea.

12. Cergatic duenari, emana içanen da, eta içanen du oraino guehiago; bainan deus ez dueñari, duena ere khendua içanen çayo.

13. Hortacotz mintçatcen natçayote comparaciones, cergatic ikhustean ez deçaten ikuhs, eta aditcean ez deçaten endelga.

14. Eta hola complitucen hetan Esaien prophetça, erran baitçuen: aditcean ezduçue endelgatuco, eta ikhustean ikuhsico duçue, eta ez-duçue apercebituco.

15. Ecic populu haren bihotça, guicendua da, beharriac gorrac dituzte, eta fietsi tuzte beguiac, beldurrez ikuhs deçaten beguiez, eta adideçaten beharriez eta en delga deçaten bihotçaz, eta comberti diten, eta senda ditçadan.

16. Bainan quen dohatxuac hurrusac dira, ecen ikhusten dute, eta çuen beharriac dohatxuac dira, ecen aditcen dute.

17. Ecen eguiazqui erraiten dautuet hainitz prophetac eta hainitz yustuc desiratu dutela ikhustea, çuec ikhusten dituçuen gauçac, eta ez dituzte ikuSSI; eta entçutea çuec aditcen ditu-

çuen gauçac, eta ez-dituzte entçun.

18. Çuec beraz ençun çacue haci erailearen comparacionesco senxua.

19. Guiçon batec ençuten dueñean erresumaco hitça, eta ez dueñean endelgatcen, gaistaina ethortcen da, eta hatce maiten du haren bihotcean eraina dena; eta handa bide ondoan hacia errecepitu duena.

20. Eta lekhu harrixuan hacia errecepitu duen hora da, hitça ençuten duena, eta errecepitcen duena bozcariorequin.

21. Bainan ezdu erroric bere baithan, hortacotçat, ezda demboracotz baicen; guisa hortaz affixionea edo persecucionea alchatcen direnean hitça dela causa berehala scandalisatua da.

22. Eta hacia elhorrien artean errecepitu duen hora da Jaincoaren hitça ençuten duena; bainan mundu huntaco gaucetaco inquietadurac, eta aberatzassuneo tromperiäc ithotcen dute hitça, eta ethortcen da balio gabe.

23. Bainan nore-ere errecepitu baitu hacia lur on batean, hora da hitça ençuten duena, eta endelgatcen duena; eta ekhartcen duena fruitua, eta emaiten duena batec ehun, bertceac hi-

rur-hogoi, eta bertceac hogoi eta-hamar.

24. Proposatu cioten bertce comparacionebat, erraiten que laric: Ceruco Erresumac iduridu haei onetie bere landan erain duen guicona.

25. Bainan guiconae lo cauden demboran, haren exaya et horri da, erain duena hiraca o-guiaren artcan, eta guero yoanda.

26. Eta haeia ethorricenean belharretan, eta ekbarri cuenean fruitua, orduan ere aguertucen hiraca.

27. Eta aita familiacoaren cerbitcarriac ethorricireq haren ganat, eta erran cioten: Jauna, eztuuya erain haci ona çure landan? nundic heldu da beraz hiraquen içaitea?

28. Bainan erran cioten: exayac egui du hori; eta cerbitcarriez erran cioten: nahi duçuya beraz yoan guiten, eta bil deca gun hiraca?

29. Erran cioten: Ez, beldurrez eta arriba dadin hiraca biltcean, athera decaçuen ogua dembora berean.

30. Utcitquebiac elkarrequin handitcera biltceco demboraino; eta biltceco demboran, erranen dut biltçaller lehenic hiraca, eta estecca çäcuc çametan erretce-

cotçat; bainan biltçaque oguene granerera.

31. Proposatu cioten bertce comparacione bat, erraiten que laric: Ceruco Errresumac iduridu, mustarda hacia hartu erain duena bere landan.

32. Coina baita haci gucieta den thiapiena; bainan handeanean, bertce landareac hain handiagoda, eta eguiten da bola bat, nun ceruco chor ethorteen baitira, eta eguita baitituzte beren ohantceac haren adarretan.

33. Erran cioten bertce comparacione bat: Ceruco Errresum bardin da emazte batec haren duen eta hirur negurri intan hura altchateeraino emaitzen duen alchagarriarequin.

34. Jesusec erran cituen gaça hauc guciæ yender comparacionetan, eta ez çitçayoten mitatecen comparacioneric gabe.

35. Amoreagatic compli p din mintçatua içan cena phetaz, erraitean: idequico dene ahoa comparacionetan; klaratueotut munduaren fondionetic gordeac içan diren gaçac.

36. Orduan Jesusec utein tropac, yoan cen etcherat, etaren discipuluac ethorri circa hura ganat, eta erran cioten

13 Cap. esplicadieçaguçu landaco hiracaren comparacionea.

37. Eta ihardetsi cioten, eta erran çuen : haci ona eraiten duena guiconaren semeada ;

38. Eta landa, mundua da ; haci ona, Errusuinaco haurraca dira, eta hiraca gaistainaren haurraca dira ;

39. Eta erain duen exaya, debrua da; biltcea, munduaren finiteca da ; eta biltçaleaac, ainguerauc dira.

40. Nola ere biltcen baita hiraca, eta erreteen suan, orobat içanen da munduaren akhabantçan.

41. Guiçonaren semeac igorricotu bere ainguerauc, ceinec hilduco baituzte haren erresumatic ezcandalaguciac, eta gaisataqueria eguiten dituzten guciac ;

42. Eta aurthiquico dituzte Jabe suztatura ; han içanen da nigar eta horz carrasca.

43. Orduan yustuec arguituko dute iguzqniac beçala beren Aitaren Erresuman. Norc-ere haitu beharric entçnteco adibeça.

44. Ceruco Erresumac oraino iduridu landa batean gordea den tresor bat, ceina guicon batec atceman duenean gordetzen baitu ; guero bozcalenciarequin ,

badoha, eta saltcen tu dituen guciak, eta erosten du landa hura.

45. Ceruco Erresumac iduri du oraino marchant bat perla onac bilhateen tuena ,

46. Eta atceman duenean precio bandico perlabat, yoan da, eta saldu ditu cituen guciak, eta erosi du.

47. Ceruco Erresuma oraino bardin da sare ixasorat aurthiqui eta gauça suerte guciataric hatcemaiten dituen batequin.

48. Ceina bethea denean, arrançaleec goititcen baitute ixasondorat ; guero yarri direnean, emaiten tuzte beretchiqui ondirenæ beren untietan eta aurthiquitcen deus balio ez-dutenac.

49. Orobat içanen da munduaren akhabantçan ; ainguerauc ethorrico dira, eta berechico tuzte gaistuac yusten ganic.

50. Eta aurthiquico tuzte labeco sura ; han içanen da nigar eta horz carrasca.

51. Jeşusec erran eioten : comprehenitu tutçue gauça horiec guciæ ? Ihardetsi cioten : Bai, Jaunna.

52. Eta erran cioten : hortacotz Ceruco Erresumac ongi instruituac diren Scribau guciak, aita familiaco bere tresoretic gauça berriac eta gauça chabarreac

atheratcen dituenarequin bardindira.

53. Eta Jesusecakhabatu cituean comparacione horiec partitucen handic,

54. Eta ethorri cenean bere herrirat, eracusten cioten beren synagoguetan halaco guisaz non estonatuac baitciren, eta erraiten çuten : Nundic heldu dira hunen ganat yaquitate eta bothere horieec?

55. Hau ez-dea çurguinaren semea? horren ama ez-dea Maria deitcen? eta horren anayac ez-direa bada deitcen Jacques, Joses, Simon, eta Jude?

56. Eta horren arrebac ez-direa guciad gure artean? Nundic heldu dira beraz hunen ganat gauça horiec guciad?

57. Horrembertcetaraino ez-candalisatuac ciren haren baithan. Bainan Jesusec erran cioten: Prophetabat ezda oihoreric gabe bere herrian; eta bere etchean baicen.

58. Eta ez-çuen eguin hambat miraculu han, heyen sinheste gabetassuna celacotz.

#### XIV CAPITULUA.

*Yondoni Baptista hila, Jesus-Christoren miraculuac.*

1. Dembora hartan Herode Tetrarquecaditu çuen Jesusen fama,

a. Eta errai çuen bere cerbitçarier: Yondoni Baptista da, hiletaric piztu da, hortacotz miraculuen eguiteco botherea hari da puchantqui haren baithan.

3. Ecen Herodesec harraraci çuen Joannes, estecaraci eta Presondeguian eman arasi çuen Herodias, bere anaya Philiperen emazteagatic.

4. Ceren Joannesec erraiten baitcion: ez-çaiteu haiçu emaztetçat içaitea.

5. Eta nahico çuen onxa hilarrassi; bainan populuaren beldurreen, cergatic atchiquitces çuten prophetatçat.

6. Heroderen sortecoco bazcarico egunean, Herodiassen alaba dantçatucen sala batean, eta Herode agradatucen.

7. Hortacotz hitz eman eion, yuramentuequin; emanen ciotçala galdeguiten cituen gueiac.

8. Hura beraz berotua baitcen lehenago bere amaz, errancion: Indaçu hemen Yondoni Baptistaren burua plat batean.

9. Eta hortaz hasarratucca Erreguca; bainan bere yuramentuen gatic, eta mahaineza cireneng gatic, comendatu çuen eman ceçotela.

10. Eta igorri çuen Joannesen buruaren kbentcera presondeguirat;

11. Eta haren burua ekharria içan cen plat batean; eta emana alabari, ceinac presentatu baitçuen amari.

12. Guero haren discipuluac ethorri ciren, eta eraman çuten haren gorputça, ehortci çuten, eta ethorri ciren Jesusi adiarazterat.

13. Eta Jesusec aditu çuenean, erretiratucen barkhu batean desertuco lekhu batetara, bakharric içaitecotçat; tropes aditu çuenean; athera ciren hauço birietaric, eta seguitu çuten oinez.

14. Eta Jesus athera eeneau, ikhussi çuen mundu handibat, eta compaciones hunquitua içan cen, eta sendatu cituen heyen eriac.

15. Eta nola berant baitcen, bere discipuluac ethorri çazcon eta erran cioten: lekhu hau desertua da; eta orena yadanic iragana da; emocute conyita troapa hanquier, amoreagatic eta yoanditen herrisquetara, eta erozditçaten yateconc.

16. Bainan Jesusec erran cioten: ezdute yoan beharric emocue cihaurec yatera:

17. Eta erran cioten: ezdugu hemen bortz ogui eta bi arrain baicen.

18. Eta erran cioten: ekharçatçue hunat.

19. Eta manatu ondoan troper yar citela belharraren gai-nean, hartu cituen bortz oguiac eta bi arrainac, eta beguiac al-chaturic cerura, benedicatu çuen Jaincoa; guero hauxiric oguiac, eman cituen discipuluer, eta discipuluec troper.

20. Eta guciec yan çuten, asse ciren; eta ekharri çuten soberatuetaric hamabi sasqui betheac.

21. Bizquitartean yan çutenac baciren bortz mila guiconen ingurua, condatu gabe emazteac eta haur thipiac.

22. Berehala guero, Jesusec obligatu cituen bere discipuluac igaitera barkhura, eta iragaitera bera baino lehen hertce alderat, troper conyita, emanen çuen artean.

23. Eta eman çuenean conyita, igan cen mendi batetara, bakharric içaiteco, othoitz egnitècotçat; eta arraxa ethorrice-nean, bakharric cen han.

24. Barkua yadanic ixasoaren erdian cen, baguec yoiten cutela; cergatic haitcea contrario cen.

25. Eta laugarren gaueco beilan, Jesus ethorti çayoten hec gana, ixasoaren gainean ibiliz.

26. Eta bere discipuluec ikhussiric ixasoaren gainean çabi-

lala, ikharan çauden, eta erran çuten: mamu bat da, eta ukhan çuten beldurraet, oihuac botharaci ciotçaten.

27. Bainan bererahalar Jesus mintçatu çaicoten, eta erran cioten: segurta çaitsezte ni naiz, ez ukhan batere belurriric.

28. Eta Pierresee ihardestean, erran cion: Jauna, cu bacira, mannaçeu yoan nadin cu ganat uren gainean.

29. Eta erran cion: çato, eta Pierresec yauxiric barkhutie, ibiliz een uren gainean Jesus ganat yoaiteco.

30. Bainan ikhussiric haicea borthitz ecla, beldur içan çuen, eta nola hassi baiteen barnera yoaiten, oihu egun çuen, erraiten çuela: Jauna salba neçaçu!

31. Eta berehala Jesusce hedatu çuen bere escua, eta hartu çuen erraiten cioela; guiconfede thipecoa, certaco dudatu duçut?

32. Eta igan cirenean barkhra, haicea eztiltu een.

33. Orduan barkhuan cireñac ethorri cirep, et adoratu çuten, erraiten çutela: seurqui Jaincoaren Semea cira.

34. Guero iragan cenean isaszoz haindirat, ethorri ciren Genezaretbeco bazterretara.

35. Eta lekhu hartaco yendeeec

eaçagutu cutenean,igorri çuten adiarasterat inguru hetaco bazter gucieta, eta presentatu ciotçaten eri cirén guciac.

36. Eta othoizten çuten permeti ceçala hunqui ceçaten choilqui haren arrobaco bazterra; eta hunquitu çuten guciac sendatu ciren.

## XV CAPITULUA.

*Pharisauen disputatcea Jesus-Christorequin—Cananeana-Jesus-Christoren miraculuac,*

1. Orduan Scribauac eta Pharisauac ethorri ciren Jerusalmetic Jesusganat, eta erran cioten:

2. Certaco çure discipuluec hausten dute çaharren tradiciona, ecen ezdute beren eskuac gathiteen, yateracoan?

3. Bainan ihardetsi cioten, eta erran: eta çuec, certaco hausten tutçue Jaincoaren manamenduac çuen tradicioneaz?

4. Cergatik Jaincoac manatu du, erraitean: ohora çaitçu çure aita eta ama. Erran du ere: noro-ere-madaricatuco baitu bere aita edo ama: hil dadila hiltzez.

5. Bainan çuec erraiten duque: noro-ere erranen baitu bere aitari edo amari: nitaz ofrituac içarten diren emantça güciac içanea dira çure progotchaco?

6. Oraino ohoratcen ez-duenac bere aita edo ama, ezda saltadun icanen; beraz ez-deus bilhacaraci ditutque Jaincoaren manamenduac cuen tradicio-neaz.

7. Hypocritae, Esaiac ongi prophetisatu du cuetas, erraitean;

8. Populu hau hurbiltzen da niganat bere ahoz, eta ohotacen nau bere ezpainez; baiman beren bihotçac arraz urrun tuzte nitaric.

9. Bainan alferrean ohoratcen nute, erakutsiz doctrinac, guiconen manamenduac baieic ez-direnac.

10. Guero tropac deithuric, lieyer erran cioten; entcun, eta endelga caque hau:

11. Ezdu ahotic sartcen denac ciquintcen guicona; bainan ahotic atheratcen denac, harc ciquintzen du guicona.

12. Hortan discipuliac hurbilduric, erran cioten; ezduñey a eçagutu escandalisatu direla Pharisauac aditu dutenean solaz hori?

13. Eta ihardetsi cioten, eta erran; Ene Aita Cerucoac plantatu ez-dituen landare guiac errotic atherac icanen dira.

14. Utzcitque ixu batzen dira, ixuen guidariac; ixu batec gu-

datzen badu bertee ixubat, biae erorico dira errekaratz aho jatub.

15. Orduan Pierresec harturie hitzi, erran cioten Esplica dacu, ga comparacione hori.

16. Eta Jesussec erran cuen oraino gutec etc, eçagutçaric gabe çaretea? hots ahoz. Ce

17. Ezduñey a oraino aditzen, ahoan sartcen diren guiac yansten direla estomacara eta gueno aurthiquiac direla lekhu berechirat?

18. Bainan ahotic atheratcen diren gauçac bihotcetic partitzen dira, eta gauça leyeic lohits cen dute guicona.

19. Eeen bihotcetic atheratcen dira gogoeta gaistoac, adulterioae, lohiqueriac, hilceac, ohoinqueriae, lecuçotassun falsoac, medisentciae,

20. Han dira guicona Jolitzen duten gauçac; bainan yatea es, cuac garbitu gabe, harrec ezdu guicona Jolitzen.

21. Orduan Jesus handic partitcean, egretiratucea Tyreco eta Sidonoco lupretara.

22. Eta huna, Cananeeneko emaztebat, ceina partitu baitzen lekhu hetaric, oihu egnin cién, erraiten ciolaric: Jauna Davitten Semea, pietate ican catu nitaz! Ene alaba hainitz gaizqui tormentatua da debgu-hatz,

23. Bainan etcion hitz bat ihar-detsi, eta bere discipuluac hurbil-duric othoiztu çuten, erranic : igor çäçu, ecen guri oihuz dago.

24. Eta ihardetsi çuen, eta erran : ez naiz igorría Israeleco etchetic galdu ardien baicen.

25. Bainan ethorricen, eta adoratu çuen, erraiten çuela : Jauna, lagun neçaçu!

26. Eta ihardetsi cion, eta erran : ezda combeni hartcea haur-ren ognia, eta aurthiquitcea, chakhur thipier.

27. Bainan erran çuen : hori egua da, Jauna; bizquitartean chakhur thipie yaten tuzte beren nagusien mahainetaric eroren diren ogui pochiac.

28. Orduan Jesus ecce ihardesten cioletarie, erran cion : ó emaz-tea! çurc fedea handia da; egun bequitçu desiratcen duçun beçala; eta orduberetic haren alaba sendatua içan cen.

29. Eta Jesus liandic partit-cean ethorricen Galileaco ixaso ondora; guero igan cen mendi batetara, eta han yarricen.

30. Eta yende tropa hainitz ethorri ciren harenganat, berequin cituztela mainguac, ixuac, mutuac, manchotac, eta bertce hainitz, ceinac ecarri baitcituzten Jesusen sangoetan, eta sendatu cituen.

31. Guisa hortan nun tropa horiec estonatu baitciren ikhusteaz mintçatcen mutuac, mantchotac sendatuac, mainguac ibiltzen, eta ixuac ikhusten; eta glorificatu çuten Israeleco Jaincoa.

32. Orduan Jesus ecce oihu egunic bere discipuluer, erran çuen : hartua-naiz compasionez yende multeo torrenteat; cergatic badu yadanic hitur egun ezdirela higuiteen eneganic, eta ezdute deus yateco; eta ezditut igorri nahi harurae, heldurrés indarres falta eguin deçoten bidean.

33. Eta bere discipuluec erran cioten : nundic atherateen ahal guinquec desertu huntas oguiric asqui holaco multeo handibaten assetceco?

34. Eta Jesus ecce erran cioten : cembañoguitutçue? erran cioten : çazpi, eta cembait arrain thipi.

35. Orduan manatu çuen troper yarcitela lurrean :

36. Eta hatturic çazpi oguiac eta arrainac, hauxi cituen, Jaincoa benedicatu ondoan, eta eman cituen bere discipuluer, eta discipuluec populuari ;

37. Eta guciec yan çuten, eta asse ciren ; eta ekharri cituzten hondarrefaric çazpi sasqui betheogui puska.

38. Bisquitartean, yan çute-

nac baciren laur mila guicon, khondatu gabe emazteac eta haur thiapiac.

39. Eta Jesusec conyta emanic troper, igan cen barkhu batetara eta ethorricen Magdalaco Jurretarat:

## XVI CAPITULUA.

*Jesus-Christoren solasa Pharisaequin eta Sadduceenequin. Jesus-Christoc eçagutu çuen bere hiltcea.*

1. Orduan Pharisauetarie eta Sadduceenetarie ethorri ciren harenganat, eta frogatcecotçat, galdeguin cioten, erakutz ceço-ten cembait miraculu ceruan.

2. Bainan ihardetsi cioten, eta erran cioten: arratxa ethorri de- nean, erraiten duçue: dembora ona egunen du, cergatic cerua gorri da.

3. Eta goicean erraiten du- que: egun calerna içanen da, ezcic cerua gorri da eta sombre. Hypocritac, badaquiçue ongi yuyatcen ceruco apariantziatic, eta ezdeçaqueçue yuya sasoine-taco seinaltarie!

4. Nacione gaistoac eta adul- terioac bilhatcen du miraculu bat; bainan ez-çayo emana içanen bertce miraculurie Jonas prophetarena baicen; eta hec ut- ciric, yoan oen,

5. Eta haren discipuluac et- horri cirenean hango ur bazter- rera, ahantel çuten ogui hart- cea;

6. Eta Jesusec erran cioten: ikhnsçaçue, eta guardia emaçue Pharisauen eta Sadduceenen al- chagarriaz.

7. Penxatcen çuten beren baithan, eta erraiten çuten; oguiric harts ezdugulacotz da hori.

8. Eta Jesusec eçaguturie he- yen penxamendua, erran cioten: yende sede thipicoac, cer pen- xatcen duçue çuen baithan ogui- ric ezduçuelaco suyetaren gai- nean?

9. Ezduçue oraino endelgat- cen, eta ez cirezte guehiago or- hoitzen borz oguiiez, borz mila guiconez, eta cemba sasqui biltu cinuzten?

10. Ez eta çazpi oguiiez lau mila guicones, eta cemba sas- qui bildu cinuzten?

11. Nola ezduçue endelgatzen bathere ezdudala oguiaz erraiten casu egun deçaçuela Pharisauen eta Sadduceenen aleha garriaz?

12. Orduan comprenitu çuten etciotela oguiaren alchagarriaz erran guardia emaiteaz; bainan Pharisauen eta Sadduceenen doc- trinaz.

13. Eta Jesus ethorri cenean Cesarea Philippeco Jurretarat

galdeguin quen bere discipuluer, erraiten quelaric : nor erraiten dute guionee naicela, ni guionaren Semea ?

14. Eta ihardetsi cioten : cembaitee erran dute Xondoni Baptista cirela; bertee batuec, Elia, eta bertee, Jeremia, edo prophetaric bat.

15. Eta erran cioten : eta quee, nor erraiten duque naicela ?

16. Simon Pierresec ihardetsi cion, eta erran : Christo cira, Jainco biciaren Semea.

17. Eta Jesusuc ihardetsi cion, eta erran : ongi dohatxu cira, Simon, Jonaren semea; een haraguiac ez odolae ezderantute adiaraci hori, bainan cne Aita ceruetan denac;

18. Eta erraiten dautcut-ere Pierres carela, eta harri hortan alchatuco dut ene Eliza; eta isernuco atheac ez dira baliatuco harren contra;

19. Eta emanen derauzquiunt eruko erresumaço gakboac; eta euc lurrean estecatnco dituenac, estecatnac içanen dira ceruan; eta lurrean lachatuco ditucun guiac, lachatuac içanen dira ceruan.

20. Orduan manatu quen borthisqui bere discipuluer ez nihori erraiteaz Jesus - Christo cela.

21. Ordutie Jesus hassicen de-

claratcen bere discipuluer; Je-rusalamerat yoan beharcela, eta pairatu behar quela hainitz. Ca-haren partetic, eta Sacrificatçale aitcindarietaric, eta Scribauetaric; eta hilcerat emana içan behar cela, eta piztu behar cela hirur garren egunean.

22. Bainan Pierresec bazterrerat cramanic hasi citçayon erreprenitcen, erraiten ciuela : Jauna, pietate içao çaguçutaz, hori ez-çauçeu guerthatuco.

23. Bainan itculiric, erran cion Pierresi : Yoan çaité ni ganic, Satan, ezeandala çaitut; ez cin ezduçu endelgatcen Jain-coaren gañie diren gañcac, bainan guionen ganic direnac.

24. Orduan Jesusuc erran quen bere discipuluer : nihorq nahi badu ethorri unequin, ukha eguin beça bere buruari, eta carga beça bere khurutcea eta yarraic bequit;

25. Ecin norc-ere nahiço baitu salbatu bere arima, galduo du; bainau norc-ere galduo baitu bere arima enc amodioa gatic, atcemanen du.

26. Bainan cer progotchu lu-que guion hateg irabaztea mun-du gocia, bere arima gaitseen badu? edo cer emanen du guionac bere arimaren trucadan?

27. Ecen guionaren Semea

ethorri beharda inguratua bere Aitaren gloriaz bere ainguruequin, eta orduanbihurtuoc du bakotchari bere eguiñeen arabera.

28. Eguiazqui, erraiten dautçuet badela hemen cembait present hillen ez direnac, ikhussi duteneraino guiçonaren Semea ethortcen bere erreguinuan.

## XVII CAPITULUA.

*Jesus-Christoren transfiguracionea, sendatu çuen guicon bat, eta pagatcen du didrachmac, edo cergac.*

1. Eta sei egunen burdan, Jesusec hartu çuen Pierres, eta Jacques, eta Joannes haren a-naya, eta craman cituen bazter mendi handi baten gainera.

2. Eta transfiguratu cen hayen aintezinean; eta haren bisayac iguzquiac beçala brillatu çuen, eta haren bestimendac argia becein churi eguin ciren.

3. Eta huna, ikhussi çuten Moises eta Elia barequin mintzacen cirola.

4. Orduan Pierresec hartzic hitça, erran çuen Jesusi : Jauna, on da hemen içan gaitzen; eguiñ deçagun, nahi bantu, hirur estalgui, bat çuretçat, bat Moisentçat, eta berice bat Eliarençat.

5. Eta nola mintço baitcen oraino, huna hedoi argui batec estali cituena bere itçalaz : gero huna boz bat ethorri cena hedoietic erraiten çuela : hauene Semea da ongi maitea, ceinetan hartu baitut ene atsegui ona; adi çaque.

6. Discipuluec aditu çutenean hori, erori ciren bisaya lurra-ren contra, eta beldur handi bat içan çuten.

7. Bainan Jesus hurbildurie lunquitu cituen, erraiten ciotela : yaiqui çaitetzte, eta ez beldur içan.

8. Eta hec alchaturic beren beguiac, ez çuten ikhussi nihor Jesus hakharric baicen.

9. Eta nola yausten baitciren menditic, Jesusec manatu cituen, erraitean : ez erran nihori visionea, guiçonaren Semea piztu arteraino hiletaric.

10. Eta bere discipuluec interroatu çuten, erraitean : Certaco bada Scribauec erraiten dute Elia ethorri behar dela lehenic?

11. Eta Jesusec ihardestean, erran çuen; egua da Elia ethorrico dela lehenic, eta erreparatuco tuela gaúca guciak;

12. Bainan erraiten dautçuet Elia yadanic ethorri dela, eta ezdute eçagutu; bainan eguiñ

diote nahi içan tuzten guciak: orobat guionaren Semeac pairatu behardu hayen partetic.

13. Orduan discipuluec comprehenitu çuten Yondoni Baptizaz mintçatu citçacotela.

14. Eta ethorri cirencan tropen ganat guion bat hurbildu cen, eta belhaurico eman cen haren aitcinean.

15. Eta erran cion: Jauna pietate içan çäcu ene semeaz, ceina lunatica baita eta gaizqui atchelchabetua; ecen maiz surrat erortzen da, eta maiz urerat;

16. Eta presentatu dot çure discipuluer, bainan ezcin sendatu dute.

17. Eta Jesusec ihardestean, erran çuen: ô arraça sinheste gabea eta gaistoa, noiz arteraino içanen naiz çurequin? noiz arteraino yessanen çaituztet? Ekar dautaçue hunat.

18. Eta Jesusec condenatu çuen borthizqui debrua athera baitzen haur hartaric camporat; eta oren berean haurra sendatzen.

19. Orduan bere discipuluac ethorri ciren berechiqui Jesus ganat, eta erran cioten certaco guc ezcin aurthiqui dugu hori camporat?

20. Eta Jesusec ihardetsi cioten; çuen sinheste gabea gatic;

ecic eguiazqui, erraiten dautçuet mustarda hacia becen handi bacinute feda, erran cineço quete mendi horri: çoaci hemendic harat; yoan laiteque, eta deus ez litçaquetçue impossible.

21. Bainan debru suerte hori ezda atheratzen ohoitçaz eta baruraz baicen.

22. Eta nola Galilean caussitzen baitciren, Jesusec errau cioten: guerthatuco da guionaren Semea libratua içanen baita guionen escuetara,

23. Eta hilaracico dute; bainan hirurgaren egunean piztuda. Eta discipuluac hainitz tristatu ciren.

24. Eta noiz-ere ethorri baitzen Capernaum, cergac pagerazten çutenae adreçatu ciren Pierresi, eta erran cioten: çure nagiüiac ezduya pagatzen cergac?

25. Erran çuen: bai, eta noiz-ere etebean sarthu baitzen, Jesusec preventu çuen, erraiten ciolaric: cer iduritzen çaiçü Simon? lurreco erreguec noren ganic harteen tuzte cergac? bere haurren ganic, ala arrotsetaric?

26. Pierresec erran çuen: arrosettaric. Jesusec ihardetsi cion: haurrac exant dira beraz.

27. Bainan amoregatic escandaliza ezditçagun batere, çoaci ixasora eta aurthie çäcu amua,

eta hartçaçu lehenbicico iganen den arraina, eta idequi dacoçunean ahoa , atcemenan dioçu staterbat (*diru peça bat*) ; hartçaçu , eta emocute çuretçat eta enetçat.

### XVIII CAPITULUA.

*Humilitatearen iduria — Artçainaren parabola eta çorduruarena.*

1. Oren harten berean discipuluac ethorri ciren Jesusganat erraiten ciotela : Çoinda handiena ceruco erresuman ?

2. Eta Jesusec deithuric haur thipi bat , eçarri çuen heyen erdian ,

3. Eta erran cioten : Eguiazqui , erraiten dautçuet ez bacirezte cambiatcen , eta ethortcen haur thiapiac beçala , ez cirezte sarthuko ceruco erresuman .

4. Hortacotz norc - ere eginnen baita humil haur thipi horiden beçala , hura da handiena ceruco erresuman :

5. Eta norc-ere errecebitcen baitu hólaco haur thipi bat ene icinean , erreccibiteen nau ;

6. Bainan norc - ere escandaliseeen baitu thipi hautaric bat sinhesten dutena ene baithan , hobe luque estecatu baliote asto errotabat lephotic , eta aurthiqui balutè ixaso çolarat .

7. Corigaiz munduari escandalac direla causa , cergatic ecin faltatua da escandala ethortcea ! gucia gatic ere çorigaiz escandala ethorarasten duen/guiçonari !

8. Çure escuac edo zangoac cordocarazten baçaitu , picaçaçu , eta aurthic çure ganic urrun ; cergatic hobe duçu maingu edo mantchot sarçaiten bician , ez-cen ez içatea bi zango eta bi escu , eta aurthiquia içatea eternitateco surat .

9. Eta çure beguiac cordocarazten baçaitu , atheraçaçu , eta aurthic çure ganic urrun ; ecen hobe duçu sar çaiten bician begui bat baicie gabe , ez-cen ez bi begui ukhaitea eta aurthiquia içatea suco tormentara .

10. Guardia emaçue nihor ez arbuyatcea thipi hotaric ; ecen erraiten dautçuet ceruetan horien aingueruec behatcen dutela bethi ene Aita ceruetan denaren bisayari .

11. Ecen guiçonaren Semea ethorri da galduac cirenен salbatcera .

12. Cer iduriteen çaiçue ? Guiçon batec balin baitu ehun ardi , eta balin badu bat errebelatua dena , ezdituya uzten lauetan hogoi eta hemeretciac , yoaicetçat mendirat errebelatua denaren bilhatcerat ?

13. Eta guerthatcen bada at-cemaitera, eguiazqui, erraiten dautuet baduela bozcario gue-hiago bertce lauetan hogoi eta hemeretci errebelatuac içan ez direnez baino.

14. Beraz, çnen Aita ceruetan denaren borondatea ezda thi-pi horietaric bat peri dadin,

15. Çure anayac bekhatu e-guin badu çure contra, çoaci, eta errepreniçaçu çure eta haren artean bakharric; aditcen bacitu, irabaci duçu çure anaya;

16. Bainan aditcen ez bacitu batere, har çaitçu çurequin bat edo bi presuna, amoregatic bi edo hirur lecucoen ahoetaric hitz guciæ fermu içan diten.

17. Eta ez balin badu aditcen, erran coçu eliciari; eta ez badu aditcen elica, içan bequicu paganobat beçala eta pagaraztalebat beçala.

18. Eguiazqui erraiten dautuet estecatuco tutçuen guciæ lurrean, eztecatuac içanen dira ceruan; eta lachatuco tutçuen guciæ lurrean, ceruan lachatuac içanen dira.

19. Erraiten dautuet ere çuetaric biga accordatcen badira lurrean, galdeguiten duten gucia emana içanen çayote ene Aita ceruetan denaz.

20. Ecen nun ere baitira biga

edo hirur bilduac ene icenea han naiz heyen erdian.

21. Orduan Pierresec hurbil duric, erran cion: Jauna cer-bateraino ene anayac bekhatu egüinen du ene contra, eta bekhatuco diot? Çazpi alditaraiu içanen dea?

22. Jesuscc ihardetsi cion: ederautçut erraiten çazpi alditaraino, bainan çazpi aldis hiru hogoi eta hamar içanarthean.

23. Hortaeotz ceruco erresumae iduridu erregue bere cerbitçariarequin condatu nahi duena;

24. Eta hassi cenean condacen, presentatu cioten bat çorcioena hamar mila talendu diru.

25. Eta ez çuelacotz pagateroric haren jaunac manatu çues saldua içan çadin, hura haren emaztea, eta haren haurrac, eta cituen guciæ, eta çorra pagatua içan çadila.

26. Bainan cerbitçari hura aurthiquitcen celaric haren zangoetara othoizten çuen, erraiten çuela: Jauna, hartçaçu pacientzia eta bihurtuco dautçut guciæ.

27. Orduan cerbitçari haren jauna, compasionez hunquiturie libratu çuen, eta quittatu cion corra.

28. Bainan cerbitçari hura atheratu cenean, errecontratu çuen bere lagun cerbitçuco bat,

çorcioena ehun cornado; eta harturie ithotcen çuen erraiten cioela: Paganeçaü çor darotacuna.

29. Bainan haren cerbitçari laguna, aurthiquirie bere burua haren zangotara, othoizten çuen, erraiten cioela: hartçaü pacientzia etabihurtuco dautçut gucia.

30. Bainan ez çuen aditu nahi jean, eta yoan cen, eta ecarri çuen presondeguian, pagatu çuen arteraino corra.

31. Bertee cerbitçari lagunec ikhussiric cer guerthatu cen, hainitzqui lunquituac içan ciren, eta ethorrri ciren, eta declaratu çuten beren jaunari itagancengucia.

32. Orduan bere jaunac ekharraraci çuen, eta erran cion cerbitçari gaistoa, quittatu dautçut çor hau gucia, cergatic othoiztu bainuę;

33. Ez-cinuena çuc ere pietate behar içan çure cerbitçari lagunaz, nic çutaz içan nuen beçala?

34. Eta haren jauna hassaratric, libratu çnen saryanter çor citçaiscon guciae pagatu arteaino.

35. Hola eguin denautçue ene Aita ceruetacoac, barkhatcen ez baitutçue çuen bihotz guciaz, çuen anayer beren huxac.

## XIX CAPITULUA.

*Jesus-Christoren doctrina diborsaz eta aberastassunetz.*

1. Eta arribatu cen Jesuseefinitu çuenean solaz horiec, partitucen Galiletie, eta ethorriceen Judeaco mugarietara, eta Jordainaz bertee alderat;

2. Eta tropa handiec yaraiquçaizacón, eta han sendatu cituenheyen eriae.

3. Orduan Pharisauc ethorrıçaizeon frogatceco, eta erranz cioten: Haię dea guiçon batibere emaztearen uztea cer nahıgauça gatic?

4. Eta ihardetsi eioten, eta erran: ezduçueya iracurtu hastetic eguiñ cituenae, eguiñ cituelas, guiçon bat eta emaztebat?

5. Eta erran quela: hori dela causa, guiçonac utcico du bere aita eta bere ama, eta bilduoda bere emazteari, eta biac ezdira haragui hat baicic içanen?

6. Hortacotz ez dira goéhiago biga, bainan haragui bakhar bat. Beraz Jaincoac yuntatu duena, guiçonac, ez beça separa.

7. Eta erran cioten: eertaco beraz Moisec manatu du, emaiteco diborxaco letra, eta aizteco bere emaztea?

8. Erran cioten: çuen bihotz gogortassuna gatic, Moisec per-

misionea eman dautçue çuen emazten uzteco; bainan hastean eztcen hola.

9. Eta nic erraiten dautçuet norc-ere utcico baitu bere emaztea, ez balin bada adulterioa dela causa, eta ezcontcen bada bertce bateqñin, adulterio bat eguiten du; eta norc-ere ezconduso baita utcia denarequin, adulterio bat eguiten du.

10. Bere discipuluec erran cioten: Hola balin bada guijo-parren condicionea emaztearen alderat, ezda combeni ezcontcea.

11. Bainan erran cioten: guiac ez dira gay hartaco, bainan choilqui emana çayotenac.

12. Cergatic badira unucoac alheratuac beren amen sabelitec; eta badira unucoac, guijo-nec halacatuac; eta badira unu-coac berac eguijac ceruco erresumaco. Hau comprenitcen ahal tuenac, comprenibetça.

13. Orduan presentatu ciotçaten haúr thiapiac amoreagatic eçar çatçoten escuac gainean, eta othoitz eguiç ceçan heyentçat; bainan discipuluec erreprenitcen oizuzten.

14. Eta Jesusec erran cioten: utciçue ethortcera ene ganat haúr thiapiac, eta ez-citçuela batere debekha, ecen Ceruco

erresuma hec iduri dutenentçat da:

15. Guero escuac gainean eçarri ciotçatenean, händic partitu cen.

16. Eta huna, norbeit hurbijdurie, erran cion: Nagusi ona çarena, cer ongi eguiñen dut bici eternalaren içaiteco?

17. Ihardetsi cion: certaco deitcen nuçu ona? Jaincoa baharric da ona, sarthu nahi bacira bician, beira çaitou Jaincoaren manamendua.

18. Erran cion: Çoin? eta Jesusec ihardetsi cion: Ezduç hilien. Ezduç adulterioric eguiñen. Ezduç ebatxico. Ezduç lecuco falsutassunic erranen.

19. Ohoraçaitçu çure aita eta çure ama; eta maithatuco duçu çure lagun proximoa ceroni beçala.

20. Guiçon gazteac erran cion: beguiratu ditut gauça horiec guiac ene gaztetasunetic, cer eseasten çaut oraino.

21. Jesusec erran cion: perfet nahi bacira, çoaci salçaitçu dituçunac, eta eman pobre; eta içanen duçu tresor bat ceruan; guero çato, eta segui neçagu.

22. Bainan guiçon gazte hac aditu çuenean hitz hura, yoancen arras triseric, cergatic on-thassun handiac baitcituen.

23. Orduan Jesusec erran cioten bere discipuluer : eguiazqui, erraiten dautquet; aberax bat nekhez sarthuco dela Ceruco erresuman.

24. Erraiten dautquet oraino : errechago da camelu baten passatcia orrattz baten chilhotic ezzen ez aberaxa sartcea Jaincoaren erresuma.

25. Haren discipuluec aditu citutzenean gauça horiec, hainitz estonatu ciren; eta erran çuten : nor beraz salba ditaque?

26. Eta Jesusec behatcen ciotlarie, erran cioten : Guiçonerenaz, hori impossible çayote; bainan Jaincoari gauça gueiac ahal çaiocco.

27. Orduan Pierresec harturie hitça, erran cion : Huna guciac utcitugu, eta seguitu çaitugu : cer guerthatuco çaiçu beraz?

28. Eta Jesusec erran cioten : Eguiazqui erraiten dautquet, guiçonaren Semea yarria içaiten denean bere gloriaco tronuan, berritçapencan, quec seguitu nauçuenac yarriac içanen çarete hamabi tronuetan, yuyatcen tutçuela Israeleco hamabi tribusac.

29. Eta nore - ere utcitugu içanen baitu, edo etcheac, edo anayac, edo arrebac, edo aita,

edo ama, edo emaztea edo haurrac, edo landac ene icena gatic, errecebbituco du ehun aldis hain bertce, eta goçatuco da bici eternalaz;

30. Bainan hainitz lehenac direnac azquenac içanen dira; eta azquenac lehen içanen dira.

## XX CAPITULUA.

*Aita familiacoaren parabola,  
Zebedeen semen ama. Jesus-  
Christoc sendatcen tu bi ixu.*

1. Ceruco erresumae iduri du aita familiaco bat, ceina athera baitcen argui hastetic, ukhaitecotçat languileac bere mahastico ;

2. Eta noiz-ere accordatu baitcen langtulequin cornado bana eguneeco,igorri cituen bere mahastira.

3. Guero atheracenean hirur orenetan, ikhussi cituen bertce cembeit merkhatuau cirenac deus eguin gabe,

4. Ceiner erran baitçuen : Coazte-ere ene mahastira, eta emanen dautquet çucen dena.

5. Eta yoan ciren. Guero atheracen oraino sei orenetaco inguruau, eta bederatci orenetan, eta orobat eguin çuen.

6. Eta atheracenean haimeca orenetan, atceman cituen bertce ceusbeit dens eguin gabe çauden.

cela, ceiner erran baitcioten : certaco çaudete hemen egun gucia deus eguin gabe.

7. Ihardetsi cioten : cergatic nihorc ez baiçaitu galdeguin. Eta erran cioten : Coazte çuec ere ene mahastirat, eta errecebituco duçue çucen deña.

8. Eta arraxa ethorri cenean, mahastico nagusiac erran cion haren aferez cargatua cenari : deit çaiteu languilcac, eta paga dioçute beren yornala, hassiric azquenetic leheneraino.

9. Orduan hameca orenetan lanian hassi eirenac ethorri eiren, errecebitu çuten cornado bana.

10. Lehenbicicoac ethorri eirenean, uste çuten errecebitu guehiago, bainan errecebitu çuten heyec ere bacotchac cornado bat.

11. Eta errecebitu çutenean, murmuratu çuten aita familia-coaren contra.

12. Erraiten çutela : azquen horiec ezdira trabailatu oren bat baicen, eta bardin egun tutçu gurequin, çoinec eguneco canga eta berotassuna ekharri baititu-gu:

13. Eta ihardetsi cion hetaric bat, eta erran cion : Ene adisquidea, ez dautçut eguiten calteric; ezduçuya acordatu ene quin cornado batean?

14. Hartçaçu çurea dena, eta çoaici; bainan eman nahi badu ondarreco hauquier çuri becenbat,

15. Ez çaita haiçu eguitea nabi duana ene onthassunez? çure beguia gaisto dea oua naicelacotz?

16. Beraaz azquenac içanen dira lehenac, eta lehenac içanen dira asquenac; ecen bada hanitz deithurie, bainan guti haturic.

17. Eta Jesus igatean Jerusalamera, hartu cituen basterrerat bidean bere hamabi discipuluac, eta erran cioten :

18. Huna igaiten guira Jerusalemera, eta guiçonaren Seine libratua içanen da Sacrificatçale aiteindarier eta Scribauer, eta condonatuco dute hilteerat.

19. Libratuco dute paganoet trufacecotçat, açotatcecotçat eta khurutcefciateecotçat ; bainan hirur garren egunean piztuco da.

20. Orduan Zebedeen semen ama, ethorri çitçayon bere se mequin, belhaunicaturic, galdeguiten cioela gauça bat,

21. Eta erran cion : cer nabi duçu? Erran cion: manaçaçu enbi seme, hemen direnac, yarriaç içan diten bat çure escuneko aldean, eta bertçea esquerrean çare erresumana.

22. Eta Jesusec ihardetsi cion, eta erran : ezdaquicu cer galdeguiten duçun; edaten ahal duçuya nic edan bebar dudan khalitcean, eta içan ahal citazqueya bathayatua ni bathayatua içan behar naicen bathayoaz? Eta ihardetsi cioten : içaiten ahal guira.

23. Eta erran cioten : eguiada edaten ahal duçuela ene khalitcean, eta bathayatuac içanen ciretela ni bathayatua içan nai cen bathayoaz; bainan yartcea ene ezcuinean edo ene esquerrean, ezda niri emaitea; bainan emana içanen da hura nori-ere deztinatua içanen baita ene Aitas.

24. Bertce hamar discipuluec adituric hori, samurthuac içan ciren bi anayen contra;

25. Bainan Jesusec deithuric, erran cioten: Badaquique nacionen princec dominateen dutela, eta handiec usaya eguiten dutela autoritatez hequin gainean;

26. Bainan ezda hola içanen çuen artean; contrala, norc-ere nahico baitu handi içan çuen artean, içan bedi çuen cerbitçari;

27. Eta norc-ere nahico baitu içan lehena çuen artean içan bedi çuen cerbitçari;

28. Guiçonaren Semea ezta ethorri den beçala, cerbitçatua içaileco, bainan cerbitçatcera;

eta emaiteco bere bicia bertce hainitcen erosteco.

29. Eta nola partitzen baitci- ren Jericotie, tropa handi hatec seguitu çuen.

30. Huna, bi iku yarriac ci- renac bide bazterrean, adituric Jesus iragaiten cela; oihu eguin çuten, erraiten çutela : Jauna, Daviten Semea, pietate içan çä- çu gutaz!

31. Eta tropac erreprenitu cituen, ichil citen; bainan oihu bortizquiago eguiten çuten oraino : Jauna, Daviten Semea, pie- tate içan çä- çu gutaz!

32. Eta Jesus guelditzen ce- larin deithu cituen, eta erran cioten : cer nahi duçue eguin deçaquedan?

33. Eta erran cioten : Jauna, guere beguiac idequiac içan di- ten.

34. Eta Jesus compasiones beheric, hunquitu cituen he- quien beguiac, eta berehala he- yen beguiiec idequi çuten bizta; eta yarrai qui çazcon.

## XXI CAPITULUA.

*Jesus - Christoren Jerusalemen sartcea; haren autoritatea templuan, bi seme cituen gi- çon baten parabola.*

1. Noiz - ere Jerusalemeco hurbilean haitciren, eta ethorri

baitciren Betphagerat Olibetaco mendira Jesusec igorri cituen orduan bi discipulu.

2. Erraiten cioetela : Coazte cuen parrean den herri hortara , eta berehala ateemanen duçue asto urricha bat estacatua , eta bere umea berequin ; libraçatçue , eta erakhar dazquidaçue ;

3. Eta nor baitec erraiten badautçue cerbait , erranen duçu Jaunae beharra baduela , eta orduan utcicotu yoaiterat .

4. Horiec guiac eguin ciren compli çadintçat , prophetaz mintçatua içan cena , erraiten çuenean :

5. Errocoçue Sionen allabari : Huna , çure erreguea helduda çu ganat , estiqui , eta igana asto urricha , eta haren umearen gai-nean .

6. Discipuluac beraz yoan ciren , eta eguin çuten Jesusec erran ciotena ;

7. Eta ekharri çuten astoa eta bere umea , eta eman cituzten beren beztimendac gainean , eta yarraraci çuten .

8. Orduan tropa handiec hedatu cituzten beren beztimendac bidean , eta bertcec hausten cituzten çuhatz adarrac , eta hedatecen cituzten bidean .

9. Eta aintcinean yoaiten ciren tropac , eta yarraiquitcen çazco-

nat , oihu eguiten çuten , erraiten çutela : Hosanna Daviten Semeari ! benedicatua içan bed Jaunaren icenean heldu dena hosanna arras goraco lekhuetan

10. Eta sarthu cenean Jersalemen , hiri gucia hunquitor içan cen , erraiten çutelarie Nor da hau ?

11. Eta yendec erraiten çuten Jesus propheta da , ceina bait Nazareth Galileaco .

12. Eta Jesus sartihucen Ja coaren templuan , eta khendituen camporat saltcen hari cren guiac , eta erozten hari cire guiae ; eta aurthiqui cituen satyatçalen mahainac , eta uso salcen hariciren alkhiac ;

13. Eta erran cioten : Iscri batua da : Ene etchea othoitzcem etchebat deithua içanen da ; bainan ohoin chilo bat eguin daçue .

14. Orduan ixiuac eta mai-khuac ethorri ciren haren gam templurat , eta sendatu cituen .

15. Bainan Sacrificatçale aicindariec eta Scribauéc ikhuss cituztenean eguin cituen mireculuac , eta haurrac oihuz templuan , erraiten çutela : Hosanna Daviten Semeari ! eta içen ciren indignatuac ;

16. Eta erran cioten : aditzen duçuya haurrec erraiten dutena

Eta Jesusec erran cioten : Bai ; bainan ezduçue behinere iracurtu hitz hauc : Eçari duçu gaindura çure laudorioari haurren ahotic eta bulharra edaten dutenetaric?

17. Eta hec utzeiric, atheracen hiritic Bethaniarat yoaiteco, eta han iragan çuen gana.

18. Goicean nola bihurtcen baitcen hirirat, gosse içan çuen ;

19. Eta ikhussiric pico ondo bat bidean cena, hurbilducen, bainan etçuen hostoric baicen, eta erran cion : Fruituric ez bedi hitaric seculan sor, eta berrehala pico ondoa eihartucen.

20. Discipuluec hori ikhussiric harritu ciren, erraiten çutela : nola pico ondoa eihartuda memento batez ?

21. Eta Jesusec ihardetsi cioten, erraiten dautçuet : baldin baduçue federic, eta ez bacinate dudateen, ez choilqui egninen duçue pico ondoari egnina içan dena bainan erraiten baduçue mendi horri : utzçac hire lekhua, eta aurthic hadi ixasora ; hura eguinén da ;

22. Eta uahiz galdeguin cineçaqueten Jaincoari othoitz eguiñic, sinhesten baduçue, errecebítuco duçue.

23. Guero ethorri cenean templurat, Sacrificatçale aitcindariac

eta Çaharrac ethorri ciren haren ganat eracusten hari celaric, eta erran cioten : Cer nagusitassunez eguiten tutçu gauça horiec, eta nore eman dautçeu autoritate hori ?

24. Jesusec ibardetsi cioten, eta erran : Galdeguinen dautçuet-ere gauça bat, eta erraiten badantaçue, erranen dautçuet nic-ere noren autoritatez egniten ditudan gauça hauc.

25. Joannessen bathayoa nundic cen? cerutic, ala guïconetaric? Bada, disputateen ciren beren artean, erraiten çutela : Erraiten badugu, cerutic, erranen deraucu : Certaco beraz ezduçue sinhetsi ?

26. Eta erraiten badugu, guïconetaric, heldurguira yenden, ecen guciec Joannes prophetat-çat atchiquitcen dute.

27. Orduan ihardetsi çuten Jesusi, erraiten ciotela ; ezdaquigu ; eta erran cioten : Ez dautçuet erranen nic-ere noren autoritatez eguiten ditudan gauça hauc.

28. Bainan cer iduriteen çaitçue? Guiçon batec bacituen bi sema, eta ethorriric lehenbici-coari, erran cion : Ene semca çoaci, eta arçaite lanean egun ene mahastian.

29. Ceinac ihardetsi cion,

eta erran : Ezdu batere yoan nahi ; bainan guero urriquituric, yoan cen.

30. Guero ethorri cen bertcearen ganat, eta erran cion gauça bera ; eta hunec ihardetsi cion, eta erran : banoha, Jauna; bainan elcen yoan batere.

31. Bietaric çoinec egun çuen aitaren borondatea ? Idardetsi cioten : lehenac. Eta Jesusec erran cioten : Eguiazqui, erraiten dautquet pagaraztalec eta bici gaistoco einaztec aintcintzen caitztete Jaincoaren errestumarat;

32. Eoen Joannes ethorri da çuen ganat yusticiaco bidez, eta ezduçue sinhexi; bainan pagaraztalec eta einazte galduec sinhexi dute; eta quec ikhussiric, ezçaitçue guero urriquitu sinhesteco.

33. Encun çaque bertce comparacione bat : bacen aita familiaco bat landatu çnena mahasti bat, eta ingiwatu çuen hesi batet, eta egun çuen laco bat, eta dorre bat alçhatu çuen; guero arrandan eman çuen mahasti çainer, eta camporat yoan cen;

34. Eta fruiten sasoina hurbil cenean, igorri cituen bere sehiac mahastietarat hetaric frutuac içaiteco;

35. Bainan mahasti harturic karen sehiac açoñatu çuten bat,

hil bertcea, eta harricatu çuten bertce bat.

36. Igorri cituen oraino bertce sehiac lehen bicicoac baino nombre handiagoan, eta orobat eguin cioten.

37. Azquenean igorri çuen hec ganat bere Seme propia, erraiten çuela; errespetu içanen dute ene Seinearentçat.

38. Bainan mahasti çainec ikhussi çutenean Semea, erran çuten beren artean; hau premuda; çatozte, hil deçagun, eta sesigaiten haren onthassunaz.

39. Hartu eta beraz, aurthi qui çuten mahastiaz camporat, eta hil çuten.

40. Mahastico Jauna bernaz ethortzen denean, cer egunen du mahasti çain horier ?

41. Erran cioten : Gaizqui galarracico ditu gaisto batçu beçala, eta arrandan emanen du bere mahastia, bertee mahasti çainer, çoinec bihurtuco baitiote fruitua bere sasoinean.

42. Eta Jesusec erran cioten : Ezduçue behinere irakhurtu izcrituretan; etchea eguiten dutenec aurthiqui duten harria egun içan da ezquineco harri burnaçgui hori; eguna içan du Jan-nac, eta gaucha espantagarri bat da gure beguietan.

43. Hortacotz erraiten daut-

çuet Jaincoaren erresuma khen-dua içanen çaitçuela, eta emana içanen dela bertce nacione frui-tuac ekharrico dituenbati.

44. Harri horren gainera erorico dena phorrosatua içanen da, eta harc lehertuco du hori gainera erorico çayona.

45. Eta noiz-ere Sacrificatçale aitcindariec, eta Pharisauec aditu baitçuten comparacione hori, eçagutu çuten hetaz minço cela.

46. Eta bilhatcen çuten har-taz sesitcea; bainan tropen bel-dur ciren, cergatic prophetaba-tençat atchiquitcen baitçuten.

## XXII CAPITULUA.

*Ezteyetaco parabola, Herodie-nac — Sadduceenac.*

1. Orduan Jesusec hitça har-turic, mintçatu cilçayoten com-paracionez erraiten çuela :

2. Ceruco erresumae iduridu erregue bat, egun cituena bere semearen ezteyac;

3. Eta igorri cituen bere se-hiac deitceco esteyetarat deit-huac içan cirenac; bainan ez çu-ten ethorri nahi içan.

4. Igorri cituen oraino bertce sehiataric, erraiten çuela : Erro-coque comitatuac cirenay : Hu-na, prestatu dut ene bazcaria; ene cecenac eta ene animale gu-

cenac hilac dira, eta guciāc prest dira; çatozte ezteyetarat.

5. Bainan hec acholaric ez eguinic, yoan ciren bat bere bordara eta bertcea bere trafieura.

6. Eta berteeç harta cituzten haren sehiac, eta laidatu çituz-ten, eta hil cituzten.

7. Erreguee ençun çuenean, haşsaratu cen, eta igorriric bere tropac, periaraci cituen hiltçaille hee, eta erre çuen heyen hiria;

8. Guero erran çuen bere se-hier; beraz, ezteyac prestatuac dira; bainan deithuac cirenac ez ciren digne.

9. Coazte beraz bide khurut-cetarar, eta cembaç ere yende-causitaco baituçue eomitā çait-çue hec ezteyetara.

10. Orduan haren sehiac yoan ciren bidetarat, eta bildu cituz-ten atoeman guciāc, nahiz gaisto-ala on, hain bertce taraino ezte-yetaco lekhua bethe içan baitcen mahainian ciren yendez.

11. Eta erregue sarthu cenean ikhustecotçat mahainian cirenae, ikhussi çuen guiçon bat bestitua ez cena ezteyetaco arropaz.

12. Eta erran cion : Ene adis-quidea, nola sarthu cira hemen içan gabe ezteyetaco arropa? Eta içan çuen ahoa cerratua.

13. Orduan erreguec erran çuen sehier : Esteca diotçaque

zangoac eta escuac, eraman caque eta aurthic caque campoco tenebretarat; han içanen da nagar eta horts carrasca;

14. Ecen bada hainitz deithuric, bainan guti hautaturic.

15. Orduan Pharisauc handic yoanic, consultatu çuten elkharrequin nola harrapatuço çuten hitcetan;

16. Eta igorri cioten beren discipuluac Herodienequin, erraiten çutela : Nagusia, badaquigu eguiaszcoa cirela, erakhusten duçula Jaincoa ganaco bidea eguiazqui, eta ez duçula nihor behateen; ecen ezduçu batere behateen guionaren iduriari.

17. Erran deçaguçu cer iduritzen çaiçu huntaz : Haiçu dea cergaren pagatcea Cesarri, ala ez?

18. Eta Jesusec eçaguturic heyen gaistaqueria, erran cioten : Hypocritac, certaco tentacen nauque?

19. Eracux deçadaue cergaco dirua; eta presentatu cioten cornade bat.

20. Eta erran cioten : Norenda ichura bau eta inscripcione han?

21. Ihardetsi cioten : Cesarrena. Orduan erran cioten : bihur caque heraz Cesarri, Cesarren gauçac, eta Jaincoari, Jaincoarenac direnac.

22. Eta hori adituric, estons, tuac içan ciren, eta utciric, yon ciren.

23. Egun bercan Sadducees, nac, erraiten dutenac esdela beris pisteric, ethorri ciren haren ganat, eta interroatu çuten.

24. Erraiten ciotela : Nagusia, Moisec erran du : Norbeit hiltcerat ethorteen bada haurric gabe, haren anaya har deçala haren emaztea, eta emanen tu haurrae bere anayari.

25. Baciren gure artean çazpi anaya, çaharrena ezcondu ondoan hiltcen, haurric içan gabe, utciçuen emaztea bere anayari.

26. Guisa bercan bigarrena, guero hirurgarrena, çazpigarre, neraino;

27. Eta heyen guciondotic, emaztea ere hiltcen.

28. Pizteco egunean heraz çazpi hetaric coinena içanen da emazte ecen guciec ukhan dute?

29. Bainan Jesusec ihardesten ciotela, erran cioten : Trumpaten çarete eçagutu gabe ez eseritura, ez Jaincoaren puchantassuna;

30. Ecen pizteco egunean ezda hartzen ez emaiten emazteric ezconteas, bainan Jaincoaren aingueruac beçala dira ceruan.

31. Eta hilien pizteaz denaz,

ezduçu, irakhurtu Jaincoa mint-  
çatu çautçunena, erraitean :

32. Abrahamen Jaincoa naiz,  
eta Izaaquer Jaincoa, eta Jacoben  
Jaincoa; Jaincoa ezda hilen  
Jaincoa, bainan biciena.

33. Yendec adituric hori, ad-  
miratu çuten haren doctrina.

34. Eta Pharisauec aditu çu-  
tenean tapatu ciotela ahoa Sad-  
duceenei, bildu ciren lekhu ba-  
tetara;

35. Eta hetaric batec, ceina  
baitcen legueco doctorra inter-  
roatu çuen phoroatceco, erraiten  
cioela :

36. Nagusia, çoin da leguea-  
ren manamendu handiena?

37. Eta Jesusec erran cioten :  
Maithatuco duçu çure Jainco  
Jauna çure bihotz guciaz, eta  
çure arima guciaz, eta çure go-  
goeta guciaz;

38. Hauda lehena eta ma-  
namendu handiena;

39. Eta bigarrena, hura iduria  
da: maithatuco duçu çure lagun  
proximoa ceroni beçala.

40. Bi manamendu hautan  
aurkhitcen dira legue gucia eta  
prophetac.

41. Eta Pharisanac bilduaoc  
cirelaric, Jesusec interroatu ci-  
tuen,

42. Erraiten ciotela : Cer i-  
duritcen çaitçue Christos? no-

ren Semea da? Ihardetsi cioten :  
Davitena.

43. Eta erran cioten : Nola  
bada Davitec, Izpirituaz mint-  
çacean, deitcen du bere Jauna,  
erraiten duenean :

44. Jaunac erran du ene Jau-  
nari : yar çaité ene escuineco al-  
dean, çure exayac ecarri tudan  
arteraino çure zangoen azpitcot-  
tat?

45. Davitec beraz deitcen ba-  
du bere Jauna, nola da haren  
Semea?

46. Eta nihore ezcín ibardes  
cioten hitz bakhar bat, ez nihor  
ezcín atrebitu ceu guehiago ha-  
ren interroatceria.

## XXIII CAPITULUA.

*Scribau hypocritac.*

1. Orduan Jesus mintçatu cit-  
çayoten troper eta bere discipu-  
luer.

2. Erraiten ciotela : Seribauac  
eta Pharisanac yarriac dira Moi-  
sen alkhan.

3. Erranen darozquiçuen gau-  
ça guciаc beraz beguiratceco,  
beguiracaitçue, eta eguiн, çait-  
çue; bainan ez heyen obrac,  
cergatic erraiten baitute, eta ez  
baitute eguiten;

4. Ecen estecatecen tuzte el-  
kharrequin carga pissu batçu e-  
cin yassanac, eta emaiten tuzte

guiçonen espalden gainean; bainan ezduzte batere higuitu nahi beren erhiez.

5. Eta eguiten tuzte beren obra guciac, guiçonez behatuac içaiteco; ecen eçartcen tuzte beren arropetan banda largoac *nun baitcen Legue iscribatua*, eta franya luceac.

6. Eta maite tuzte lehenbicico plaçac bestetan, eta lehenbicico alkhiac synagoguetan;

7. Eta agurrac merkhatuetan; eta içatea guiçonez deithuac: **Gure nagusia! gure nagusia!**

8. Bainan çuetaz denaz, ez citeztela deithuac içan gure nagusia, ecen Christo da choilqui çuen doctorra; eta çuetaz denaz, guciac anayac carete.

9. Eta ez nihor deith lurrean çuen Aita; ecen bakharbat da çuen Aita, ceina baita ceruetan.

10. Eta ez çaitetzela deithuac içan doetorrac; ecen Christo da bakharra çuen doctorra.

11. Bainan çuen artean den handiena içan bedi çure sebia.

12. Ecen norc-ere alchatueo baita, aphaldua içanen da; eta norc-ere aphalduco baita, alchataua içanen da.

13. Bainan çorigaitz çuer, Scribau eta Pharisau hypocritac, cerratcen duçuenac guiçonei ceruetaco erresuma; ecen

çuhorec ez çarete sartcen, eta ez duçue sofritcen sarthu nahi direnac sar diten.

14. Çorigaitz çuer, Scribau eta Pharisau hypocritac! ecen irezten tutçue alhargunen etcheac, othoitz lucen eguiteco estacuruuan ere; hortacotz erre cebituco duçue condenacione handiago bat.

15. Çorigaitz çuer Scribau eta Pharisau hypocritac! ecen curritcen tutçue ixasoa eta lurra proselita baten eguiteco, eta eguidenean, errendatzen duçue ifer nuco seme çuec baino bi aldiz guehiago.

16. Çorigaitz çuer, guidari ixiuac, erraiten duçuenac: Nore-ere yuramentu eguiñ içanen baitu templaaz, ezda deus, bainan yuramentu eguiñ içanen duena templauco urrheaz, obligatua da.

17. Errho eta ixiuac! ecen çoin da handiena, ala urrhea, ala templa urrhea santificatcen duena?

18. Eta norc-ere *erraiten duçue*, yuramentu eguiñ ukhanen baitu aldareaz, ezda deus; bainan yuramentu eguiña ukhanen duena aldarean den ofrendaz, obligatua da.

19. Errho eta ixiuac! ecen çoin da handiena, ala ofrenda, ala ofrenda santificatcen duen aldarea?

20. Aldareaz beraz yuramentu eguiten duenac, yuramentu eguiten du aldareaz, eta haren gainean diren gauça guciez;

21. Eta norc-ere yuramentu eguiten baitu templaaz, yuramentu eguiten du templaaz, eta han egoiten denaz;

22. Eta norc-ere yuramentu eguiten baitu Ceruaz, yuramentu eguiten du Jinfoaren tronuaz, eta han yarria denaz.

23. Corigaitz quer Scribau eta Pharisau hypocritac! ecen pagatcen duçue mantharen, anetaren, eta cuminen detchima, eta uzten tutçue legueco gauça beharrenac, erran nahi da, yu-yamendua, misericordia eta fidelitatea; eguin behar ciren gauça haue, eta ez utci batere horiec.

24. Guidatçale ixuac, beldur duçue irestea ulitchac, eta iresten tutçue cameluac.

25. Corigaitz quer Scribau eta Pharisau hypocritac! ecen cocaren campoa garbiteen duçue eta platarena; bainan barnea arrobantçaz, eta gaistaqueriaz bethea da.

26. Pharisau ixuac, garbiçue lehembicoric cocaren eta plataren barnea, campoa ere bardin içan dadin.

27. Corigaitz quer Scribau

eta Pharisau hypocritac! ecen iduri duçue hobi garbitu batçu, ederrac iduri dutenac campotic, bainan barnean betheac baitira hil heçurrez, eta usaingueria guciez.

28. Hola aguertcen çarete yustu iduri duçuela campotic guiçoner, bainan barnean hypocriciaz eta gaistaqueriaz betheac çarete.

29. Corigaitz quer Scribau eta Pharisau hypocritac! ecen propheten hobiak eguiten tutçue, eta aphaintcen tutçue yustuen hobiak;

30. Eta erraiten duçne: İçan baguine gure aiten demboraco, ez guinuen parteric hartuço propheten hiltcean.

31. Hola lekhuço çarete ceronen contra, prophetac hilazciz tuztenen haurrac çaretela;

32. Eta finitcen duçue bethetcen çuen aiten negurria,

33. Sugue biperen arraçacoac nola eguiñen duçue ihes ifernuco suplicioei?

34. Ecen huna, igortcen daiz guitçuet prophetac, eta perestuac, eta scribauac; hilen tutçue hetaric, khurutceficatuco tutçue, açotatuco tutçue çuen synagoguetan, eta persecutatuco tutçue hiritic hirira.

35. Ethor dadintçat çuen gai-

nera lurrean hedatua içan den yustuen odola, Abel yustuaren odoletic, Barachién seme Zacharien odoleneraino, ceina hil baitüce aldarearen eta templuaren artean.

36. Eguiazqui erraiten dautçuet gauça hauc guciac ethorrico direla yeneracione horren gainera.

37. Jerusalem, Jerusalem, prophetac hiltcen tuena, eta egorriac çazquianac harricatsen dituiana, cembañaldiz nahi içan dut bildu hire haurrac, oiloac chitoac bere hegaletara biltcen tuen beçala? eta ez-duçue nahi içatu.

38. Huna, quen etchea desertu bilhacatu behar da;

39. Ecen erraiten dautçuet hemendic harat, ez nuçue guehiago ikhussico, erraiten duçuen arteraino: Benedicatua içan bedi Jaunaren icenean heldu dena!

#### XXIV CAPITULUA.

*Menaçuac Jerusalermen eta Yudea guciaren contra. Exortacionea pietatera.*

1. Eta nola Jesus atheratzen baitzen, eta yoaiten templutie, haren discipuluac hurbildu eiren haren ganat erremarecaraztecotçat templuko edificioen.

2. Eta Jesusec erran cioten:

Ikhusten tutçue ongi gauça horiec guciac? Eguiazqui erraiten dautçuet hemen ezdela utca içanen harria harriaren gainean barrayatua içan gabe.

3. Guero yarri cenean Oliba taceo mendian, bere discipulug ethorri çazcon bakharrean; erran cioten: Erran daucuet gauça horiec noiz ethorrico ñaren, eta cer seinale içanen dure ethortcecoa eta munduaren akhabantçacoa.

4. Eta Jesusec ihardesten, erran cioten: Guardia emaçunihorc galaraz ez-citçaten;

5. Ecen hainitz ethorrico dinene icenean, erraiten dutela Christo naiz; eta galaratcio dute hainitz,

6. Eta adituco tutçue guerla eta guerletaco arraboxac; bainan emaçue guardia ez citezten ici; cergatic gauça horiec ethori behar dira; bainan ezda orain akhabantça içanen;

7. Cergatic nacione bat aldituco da bertee baten contra, erresuma bat bertee erresumabaten contra; eta içanen dimosseteac eta içurriteac, eta ikharac cembait lekhutan.

8. Bainan gauça horiec guci ezdira doloren hastapena baices

9. Órduan libratuco çaituztatzekhabetaco, eta hilen çaituz-

te; eta hastiatuac içanen çarete nacione guciez ene icena dela causa.

10. Eta orduan cembait es scandalisatuac içanen dira, eta elkhar trahituko dute, eta elkhar hastiatuco dute.

11. Eta alchatuco dira cembait propheta falxu galarazcico tuztenac cembait.

12. Eta gaistaqueria emendatua içanen baita, cembaiten caritatea hoztuco da.

13. Bainan norc-ere iraunen baitu azqueneraino, hora salbatutuac içanen da.

14. Eta erresumaco ebanyelio hori predicatua içanen da yenden egoitça den lekhu gucietan; lekhuco cerbitçacecotçat nacione gucier, eta orduan et horrico da akhabatcea.

15. Ikhusten duquenean desolationearen abominacionea, Daniel prophetaz aintzinetic anoncatua içan dena, ecarria lekhu sainduan, (irakhurtzen duenac casu egun beça.)

16. Orduan Judean içanen direnac, ihes egun beça mendietarat;

17. Eta etchearen gainean dena ez bedi yaux eremaitecotçat cernahi, nahiz den bere etchelic.

18. Eta landan dena ez bedi

bihur etcherat hartcecotçat bero arropen.

19. Bainan çorigaitz emazte empachu direnei, eta egun har tan esneztatuco dutenei!

20. Othoitz eguiçue çuen ihessa ez dadin içan neguan, ez eta errepausuco egun batean;

21. Cergatic orduan affixione handi bat içanen da, ceina ez baita içan hora iduriric munduaren hastetic orai artean, ez eta içanen guchiago hora becelacoric.

22. Eta egun hec içan ez ballira laburtuac, ezcen içanen nihor salbaturic; bainan hautatuac gatic, egun hec laburtuac içanen dira.

23. Orduan norbeitec erraiten badautçue: Huna, Christo hemen da; edo, han da; ez sinhex batere;

24. Cergatic Christo falsuac alchatuco dira eta propheta falsuac miraculu handiac egunen tuztenac galaraztecotçat hautatuac ere ahal balitz.

25. Huna, erran dautçuet.

26. Erraiten badautçue: Huna, desertuan da; ez athera batere: Huna, etchean den lekhubric barnenean da, ez çäçuela sinhex batere.

27. Ecen nola chimizta atheisteen baita Orientetic, eta ik-

husten baita Occidenteau, orobat içanenda guiconaren Semearen ethortcea.

28. Cergatic nun içanen baita gorphutz hila, harat bilduco dira arranoac.

29. Egun hetaco affixionearen ondoan berehala iguzquia belztuco da, eta ilharguiac ezdu batera emanen bere arguia, eta içarrac erorico dira cerutic, eta ceruco berthuteac cordocatuac içanen dira;

30. Eta orduan guiconaren Semearen seinalea aguertuco da ceruan; orduan berehala lurreco yende guiac marrascaz hasico dira yoiten tuztela bulharrac, eta ikhussico dute guiconaren Semea ethortcen ceruco lanhoeitan; puchantcia handi batequin eta gloria handi batean.

31. Eta igorrico tu bere ainguerauc; ceinec trompeta soinu batequin bilduco baitituzte lau haicetako haren hautatuac, ceruetaco buru batetaric bertce bururaino.

32. Bada ikhas çaque comparacione hau hartua pico hondotic: Haren adarrac icerdian direnean, eta hoztoac pussatcen tuenean, çagutcen duçne uda hurbil dela.

33. Orobak ikhussico tutçueñean gauça horiec guiac, yaquin

çaque guiconaren Semea hurbil dela, eta borthan dela.

34. Eguiazqui erraiten dauquet yeneracione hau ezdela ingatuco, gança guiac nun ezren ethorriac içaiten.

35. Cerua eta lurra iraganen dira, bainan ene hitçac ez din iraganen.

36. Egun hartaz denaz, orenaz, nihorc ezdaqui; ez ceruco aingueruec ere, bainan ene Aitac choilqui.

37. Bainan Nooren eguntancen beçala, orobat içaneñüü guiconaren Semearen ethortcea.

38. Cergatic iholdearen ateneo egunetan beçala, guicon yaten çuten eta edaten, ezkontem ciren, eta emaiten çuten ezcomçaz Noe arkhan sarthu cen egneraino;

39. Eta ez çuten eçagutu iholdea ethorrico cela, ethorri et guiac eraman cituen eraino; orobat içanen da guiconaren Semearen ethortcea.

40. Orduan bi guicon lanbatean içanen dira; bat hartz içanen da, eta bertcea utcia.

41. Bi emazte bihi chotet harico dira errötan; bat hartz içanen da, eta bertcea utcia.

42. Caudete beraz iratçariastecen eztaquique çoin orenez ethorri beharden quen Jaun:

43. Bainan yaquin çaque hau, aita familiaco batec balaqui çoin gauez ethorri beharden ohoina, beilla leçaque, eta ez leçaque cilazteria utz bere etchea.

44. Hortacotz beraz çuec ere prest çaudete, cergicat guionaren Semea ethorrico da pent-satcen ezduçuen orenean.

45. Çoin da beraz sehi fidel eta çuhurra bere nagusia eçarri duena hertce sehien gainean, emaitecotçat yatera beharden demboretan?

46. Ongni dohatxu da sehi hura bere nagusiac ethortcen de-nean causituko duena guisa har-tan hari dela!

47. Eguiazqui erraiten daut-çuet eçarriko duela bere onthas-sun gucien aitcindari.

48. Bainan sehi gaisto bat balin bada, erran beça bere baithan: Ene nagusiac berantcen du ethortcea;

49. Eta eman bedi yoiten be-re cerhitçari lagunen, eta yaten eta edaten hordiequin.

50. Schi haren nagusia ethor-rico da iduriquitzen ez duen e-gunean, eta ezdaquien orenean;

51. Eta berechico du, eta eçar-rico du hypocriten herroncan; han içanen da nigar eta bortz-carrasca.

## XXV CAPITULUA.

*Biryinen parabola, eta diruac, hondarreco yuyamenduaren esplicacionea.*

1. Orduan ceruco erresumac-idurieo du hamar biryiner, cei-nec harturic beren lampac, yoan baitciren esposaren iduriquit-cera.

2. Bacien borz çuhur, eta borz errho.

3. Errhoecc hartcean beren ar-guizaguiac, ez çuten hartu olio-ric berequin;

4. Bainan çuhurrecc hartu çu-ten beren untcieta olioia beren arguizaguiequin.

5. Eta nola esposac luçatcen baitçuen ethortcea, lo suiman sarthu ciren guciac, eta lokhartu ciren.

6. Gauerditan oihu bat egui-nen, erraiten çuela : Huna, es-posa heldu da, athera çaitetzte haren aintincerat.

7. Orduan biryina hec guciae alchatu ciren, eta preparatu ci-tuzten beren arguizaguiac.

8. Eta errhoecc erran cioten çuhurrei : iguçue oljotic, ecen gure arguizaguiac iraunguitzen dira.

9. Bainan çuhurrecc ibardetsi cioten, erraiten ciotela : Ez-de-çaquçuegu eman heldurrez ez deçagun asqui içan guretcat eta

quentçat; bainan lehenago coazte salteen dutenetara, eros çaque quentçat.

10. Erostera yoaiten ciren demboran, espresa ethorricen; eta prest cirehac sarthu ciren harquin ezteyetaco sallan, guero athea hetsia içan cen.

11. Horren ondoan, bertce biryinac ere ethorri ciren, eta erran çuten: Jauna, Jauna! idec deraucuçu.

12. Bainan ihardetsi cioten, eta erran: Egiazqui, ez çaituztet eçaguteen.

13. Caudete beraz, ecen ezdaquique ez eguna ez orëna ceinetan guionaren Semea ethorrico dena.

14. Ecen hartaz da nola guion batez coinac camporat yoaitean, deithu baitciuen bere sehiac eta eman baitciotçaten bere onthassunac.

15. Eta eman cituen batiborz talentu eta bertceari biga, eta bertce batibat; bakhotchari here ahalaoren arabera; eta guero berehala partitucen.

16. Beraz, borz talentu içan cituena yoan cen, eta trasificatu cituen, eta irabaci cituen bertce borz talentu.

17. Manera beraz bi talentu erreccbitu cituenac, irabaci cituen-are bertce biga.

18. Bainan bat baicie erreccbitu ez çuena yoan cen, eta ehortci çuen lurrean, eta gorde çuen bere nagusiaren dirua.

19. Dembora hainitzen odoan, sehi horien nagusia ethorricen, eta conduac egun cituen heyequin.

20. Orduan borz talentu errecebitu cituena, ethorricen, eta ekharri cioten, bertce borz talentu, erraiten cioela: Jauna, consiatu darozquidañu borz talentu; huna, irabacitut bertce borz gainetic.

21. Eta bere Jaunac erracion: Hori ongwi doha sehi eta fidela; fidel içan cira gauna gutitan, eçarrico çaitut hainitzen gainean; çato çure Jaunaren bozcarioaren partayatcerat.

22. Guero bi talentu erreccbitu cituena, ethorricen, eta erran: Jauna, consiatu darozquidañu bi talentu; huna, irabacitut bertce biga gainetic.

23. Eta bere Jaunac erracion: Hori ongwi doha sehi eta fidela; fidel içan cira gauna gutitan, eçarrico çaitut hainitzen gainean; çato çure Jaunaren bozcarioaren partayatcerat.

24. Bainan talentu bat baicen erreccbitu ez-çuena, ethorricen, eta erran çuen: Jauna, bannquieren guion gogorbat cinba

25. Cap.

errecoltateen duçuna erain ez  
duçun lekhuan; eta biltcen du-  
çuna hedatu ez duçun lekhuan,

25. Hortacotz beldurrez gal-  
çure talentua, yoan naiz gordet-  
cera lurrean; huna, hemen duçu-  
çuri behatzen çaitçuna.

26. Eta bere Jaunac ihardes-  
tean, erran cion: sehi alfer eta  
gaistoa, bacinaquien errecoltat-  
cen nuela erain ez dudan lek-  
huan, eta biltcen nuela hedatu  
ez dudan lekhuan.

27. Eman behar cinuen beraz  
ene dirua banquierei, eta ene  
arribadan errecebítuco nuen in-  
tresarequim.

28. Idec dioçaue beraz ta-  
lentua, eta eman hamar talentu  
tuenari.

29. Cergatic duenari emana  
içanen çayo, eta içanen du orai-  
no guehiago; bainan deus ez  
duenari, hora bera ere khendua  
içanen çayo.

30. Aurthie çaque beraz cer-  
bitçari inutila campoco tenebre-  
tarat; han içanen da nigar eta  
horz carrasca.

31. Guiçonaren Semea ethort-  
cen denean inguratua bere glo-  
riaz eta lagundua ainguera sain-  
duez, orduan yarrico da bere  
gloriaco tronuan;

32. Etanacione guciac bilduac  
içinen dira haren aiteinean; eta

berechico tu batçu bertcetaric,  
nola arçainac separatcen baititu  
ardiac akherretaric.

33. Eta emanen tu ardiac bere  
escuinean, eta akherrac ezquer-  
rean.

34. Orduan erreguec erranen  
du escuinean içanen direnei: Çat-  
tozte ene Aitac benedicatuac,  
goça çaque primantçaz ceruco  
erresumac munduaren hastape-  
netic preparatua içan çaitçuena:

35. Cergatic gosse içan dut,  
eta yatera eman dautaçue; egarrí  
içan dut, eta edatera eman dau-  
taçue; arrotça nintçen, eta er-  
recebitu nauçue;

36. Bulucia nintçan, eta bes-  
titu nauçue; eri nintçan, eta  
bisitatu nauçue; presondeguian  
nintçan, eta ethorri çarete ni  
ganat.

37. Orduan yustuec ihardet-  
sico diote, erraiten diotela: Jau-  
na, noiz ikhussiçaitugu ukhainen  
gossea, eta eman dautçugu ya-  
tera; edo ukhainen egarria, eta  
eman dautçugu edatera?

38. Eta noiz ikhussi çaitugu  
arrotça, eta errecebítu çaitugu;  
edo bulucia, eta bestitü çaitugu?

39. Edo noiz ikhussi çaitugu  
eri, edo presondeguian, eta et-  
horri gara çure ganat?

40. Eta erreguec ihardestean,  
erranen diote: Eguiazqui errai-

ten dautquet, gauça horiec ene anaya thipienetaric bati egui tutquen becenbatean neroniri egui derauzquidatçue.

41. Orduan erranen du ere harren ezquerrean direnei : Madari catuac, urrun çaitete ni ganic, eta coazte su eternalerat, coina baita preparatua debruari eta haren ainguueruei.

42. Cergatic gosse içan dut, eta ez darotaçue eman yatera; egarri içan dut, eta ez darotaçue edatera eman;

43. Arrotça nintçan, eta ez nauçue errecebitu, bulucia içan naiz, eta ez nauçue bestitu; içan naiz eri, eta presondeguian, eta ez nauçue bisitatu.

44. Orduan heyec-ere ihardetsico diote, erraiten diotela : Jauna, noiz ikhussi çaitugu gosse içaiten, edo egarri içaiten, edo arrotça içaiten, edo bulucia, edo presondeguian, eta ez çaitugu lagundi?

45. Orduan ihardetsico diote, erraiten diotela : Eguiiazqui, erraiten dautquet eztuquelacotz egui gauça horiec, thipienetaric bati ezdaisquidatçue egui guisa berean.

46. Eta hauc yoanen dira pena eternalerat; bainan yustuac yoanen dira goçatcerat bici eternalaz.

## XXVI CAPITULUA.

*Jesus-Christo hiltcerat destino tua, — emazte batez gantçutua, — Judasses trahitua, — Pazcoen eguitea. — Cena Sainduaren institucionea. — Erretiratcen eta sofritcen Getsemanen, — hartua eta eramana Caiphacen etchera, — ukhatua Pierreses.*

1. Eta guerthatu cen Jesuseo akhabatu cituenean solas horiec guciac, erran çuen bere discipuluei :

2. Badaquique Pazcoco besta bi egunen buruan dela; eta guiconaren Semea libratura içan behar dela khurutceficatua içai-téco.

3. Orduan Sacrificatçaille aitcindariac, eta Scribauac eta populoco Caharrac, bildu ciren Sacrificatçaille nagusi Caiphas deithuaren salara.

4. Eta atchiqui çuten elkharrequin conseilua amarruz hartceco Jesuses, hau hilaraztecotçat.

5. Bainan erraiten çuten : Ez bedi içan bezta demboran, bel durrez egui deçan cerbeit asaldura populuaren artean.

6. Eta nola Jesus Bethanian baitcen Simon leprosaren elchean.

7. Ethorricen haren ganat emaztebat, coinac baituen albatrazco basobat bethea unguentu precio handico batez, eta coina ichuri baituen haren buruaren gainera, mahainean celaric.

8. Bainan haren discipuluec hori ikhussiric samurtuac içan ciren, eta erran çuten : Certaco galtce hori?

9. Ecen unguentu hori saldua içaiten ahalcen khario, eta emana pobre.

10. Bainan Jesusec hori eçaguturic, erran cioten : Certaco emaiten dioçue axecaberic emazte huni? ecen egunza on bat eguin du ene alderat.

11. Cergatic içanen tutque bethi pobreac çuyequin, bainan ez nauque ni içanen bethi,

12. Ceren hedatu duen unguentua ene gorputçaren gainera, eginden du ene ehorste-cotçat.

13. Eguiazqui, erraiten dautçet, Ebanyelio hau predicatuia içanen den munduko lekhu gucietan horrec egun duena ai-phatua içanen da horren orboitçapenetan.

14. Orduan hamabietaric bat, deithuac Judas Iscariot, yoan cen Sacrificatçaire aitcindarietara.

15. Eta erran cioten : Cer eman nahi dautaçue, eta libratuco

dautçet hora? Eta conda tu ciotçaten hogoi eta hamar diru peça.

16. Eta ordutic bilhatseen çuen estacuru batharen librategötçat.

17. Oguiec alchagarri gabeco lehenbicico egunean, discipuluac ethorri ciren Jesusganat, erraiten ciotela : nun nahi duçu presta deçagun Pazcoa?

18. Eta ihardetsi cioten : çoazte hirirat hulacoaganat, eta errocoçue : Nagusiac erraiten du: Ene dembora hurbil da, eginden dut Pazcoa çure etchean ene discipuluequin.

19. Eta discipuluec egun çuten Jesusec manatu cioten beçala, eta preparatu çuten Pazcoa.

20. Arrexa, ethorri cenean, eman cen mahainean hamabiequin;

21. Eta yaten haricirclaric, erran cioten : Eguiazqui erraiten dautçet çuetaric batec trahituco nuela.

22. Eta tristatuac içan ciren, eta hetaric bakhotcha hassicen hari erraiten : Jauna, ni naiça?

23. Bainan ihardetsi cioten, eta erran : Coinec-ere eçarrlico baitu bere escua platean enequin, harc trahituco nau.

24. Guiçonaren Semea badoha hartaz escribatua den beçala;

bainan çorigaitz guicon hari ceipaz guiconaren Semea trahitua baita ! hobe içanen cen guicon harenteat sorthu ez balitz.

25. Eta Judasec trahitzen queñac, ihardestean, erran cion : Nagusia ni naiça ? Jesusec erran cion : Erran duçu.

26. Eta yaten hari baitciren, Jesusec hartu çuen oguia, eta Jaincoa benedicatu çuen ondoan, hauxi çuen eta eman discipuluei, eta erran cioten : Har çaque, yantçaque, hau ene gorputça da ;

27. Guero hartu çuenean arnoa, eta Jaincoa benedicatu, eman cioten, erraiten ciotela : Edan çaque guciec,

28. Ecen hau ene odola da, testamen berrico odola, isuria dena hainicentat bekhatuen barkhamendutan.

29. Erraiten dautçuet, ez dudala edanen batero mahastico fruitu huntarie orai danic, ene Aitaren erresuman quequin berrian edanen dudan egun artaraino.

30. Eta cantatu çutenean cantica, yoan ciren olibetaco mendirat.

31. Orduan Jesusec erran cioten : Gau hantan gucion escandalisatuac içanen çarete enegatuc; ecen escribatua da ; yocodut

arçaina, eta artaldeco ardiac barayatuaç içanen dira.

32. Bainan pizten nicenean, yoanen naiz çuen aintcinean Galileraç.

33. Eta Pierresec harturie hitça, erran cion : Guciac es. candalisatuac balira ere çure gatic, ez naiz seculan hala içanen.

34. Jesusec erran cion : Eguiaz qui erraiten dautçut gau huntas berean, oilarrac cantatuco dueñ baino leben, ukhatuco nauçu hirur aldiz.

35. Pierresec erran cion : Hil behar banintz ere çuerequin, ex çaitnt ukhatuco, eta discipulus guciec orobat erraten çuten.

36. Orduan Jesus ethorriçen heyequin Gethsemane deitcea çuen lekhu batetara, eta erran cioten bere discipuluei : yar çaitze hemen othoitz eguin dudan arteraino nohan lekhuan.

37. Eta hartu çuen berequin Pierres eta Zebedeen bi semeac, eta hassicen tristatcon, eta hainitz khechatucen.

38. Orduan erran cioten : Ene arima pharte guciataric sesituda tristeciaz hiltceraino ; egon çaitze hemen, eta beillaçaque enequin.

39. Guero yoancen aintcincago, ahuzpez eman cen bisaya lurraren contra, othoitzi

guiten çuela, erraiten çuelaric: Ene Aita possible bada eguiçu khalitz hau urrunt dadin eneganie; gucia gatic-ere ez nic nahi dudan beçala, bainan çuc nahi duçun beçala.

40. Guero ethorricen bere discipuluetara, eta atceman cituen lo çaudela, eta erran cion Pierresi: Possible dea ezcin beillatu duçuen oren bat enequin?

41. Beillaçaue, eta othoitz eguiñ çaque ez çaitezten tentacionetan sar; ecen izpiritua erneada, bainan haraguia flacoada.

42. Yoan cen oraino bigarren aldico, eta othoitz eguiñ çuen, erraiten çuela: Ene Aita, ez bada possible khalitz hau iragan dadin urrun ene ganie, nic edan gabe, çure borondatea eguiñ bedi.

43. Eta ethorricen guero, eta atceman cituen lo çaudela; ecen heyen beguiac pissatuac ciren;

44. Eta hec uteiric, yoan cen oraino, eta othoitz eguiñ çuen hirurgaren aldico, erraiten ci-tuela hitz berac.

45. Orduan ethorricen bere discipuluetarat, eta erran cioten: lo eguiñ çaque hemendic harat, eta pauza çaitezte: huna, orena hurbil da, eta guiconaren Semea librateerat doha gajstoen escuetat.

46. Yaiqui çaitezte, goacen; huna, trahitcen nuena hurbiltcenda.

47. Eta oraino mintço celaric, huna, Judas, hamabictaric bat, ethoricen, eta harequin tropa handi bat, ezpatequin eta makhlilequin, igorriac Sacrificatçaille aitcindariee eta populueo Çaharrec.

48. Trahitcen çuenac eman cioten seinale bat, erraiten ciotela: musu emanen diotana, hura da, sessi çaque.

49. Eta berehala hurbilduric Jesusganat, erran cion: Agur, Nagusia, eta musu eman cion.

50. Eta Jesusec erran cion: Ene adisquidea, certaco çare hemen? Orduan hurbilduric, eçarri cituzten escuac Jesusen gainean, eta hartu çuten.

51. Eta huna, Jesusequin cennetaric batec, eçarriric escuan bere ezpata, athera çuen, eta hartaz yo çuen Sacrificatçaille nagusi baten sehia, eta ebaqui cion beharri bat.

52. Orduan Jesusec erran cion:bihur çäçü çure ezpata bere lekhura; ecen ezpata hartu içanen duten guciak, galduco dira ezpataz.

53. Uste duçu ezdeçaquetala othoitz orai ene Aita, ceinac c-

man baileçaquet hamabi legione  
ainguero?

54. Bainan nola litazque complituac iscriturac, ceinec erraiten baitute hola guerthatu behar dela?

55. Ordu bercan Jesusuc erran cioten troper: atheratu çarete ezpatequin eta makhilequin, ohin baten ondotic beçala, ene hartceco; yarria mintçan egunguciez çuyequin, erakhuzten nuela templuan, eta ez nauçue bartu;

56. Bainan hauc guciæc guerthatu dira, propheten iscribuac complituac içan diten. Orduan discipulu guciæc abandonatu çuten, eta ihes eguin çuten.

57. Eta Jesus hartu çutenee eraman çuten Caïphas Sacrifiçatçaile soberanoaren gana ceinaren etchean Seribauac eta Çaharrac bilduac baitciren.

58. Eta Pierresec seguiteen cituen urrundanic Sacrifiçatçaile soberanoaren gorteraino; eta barnerat sarthuric, yarricen etcheco yendequin iklusteco ceriçanen cen ithurburua.

59. Sacrifiçatçaile aitcindaricec eta Çaharrec, eta conseilu guciæc, bilhatcen cituzten Jesusen contra lekhiucotassun falsuac harren hilarazteco;

60. Bainan ez çuten atcemai-

ten; eta nabiz ethorri ciren lekhuko falsuac; ez çuten atcemabatere asquicenic; bainan azque nean bi lekhuko falsu hurbildu ciren.

61. Ceinec erran baitçuten: Hunee erran du; arrassadeçaquet Jaincoaren templua, eta berriñ alcha deçaquet birur egunez.

62. Orduan Sacrifiçatçaile soberanoa yeiquicen, eta errancion: Ezduçu deus ihardesten? Cerlekhucostassun erraiten dute hauyee çure contra?

63. Bainan Jesus ichilducen, eta Saerifiçatçaile soberanoac harturic hitça, erran cion: Arraiquitcen çaitut Jainco biciaz, guri erraitea Christo çarenez, Jaincoaren Semea?

64. Jesusec erran cion: Erranduçu guehiago, erraiten dautçuet hemendic harat ikhussio duçue guiçonaren Semea yartia Jainco puchantaren escuineau, eta ethorcen ceruco lanhoenguilean.

65. Sacrifiçatçaile soberanoac uratu cituen bere arropac, erraiten çuela; blasphematu du; certaco behar dugu guehiago lekhukoac? Huna, ençun duçue orai horren blasphemia, ceriduriteen çaitçue?

66. Ihardetsi çuten: heriotceaz hobendun da.

67. Orduan thu eguin cioten bisayara, eta batuec emaiten ciotçaten beharondocoac, eta berceec yoiten çuten beren cihorrez.

68. Erraiten ciotela : Christo, prophetica guitçac, coinec yo huen.

69. Pierres yarria cen bassa-cortean, eta nescatcha sehibat harbilducen haren ganat, eta erran cian : Jesus Galileacoarequin ciren çu-ere.

70. Bainan ukhatu çuen guien aintcinean, erraiten çuela : Ezdaquit cer erraiten duçun.

71. Eta nola athera baitcen athe heguira, bertee nescatcha sehi batec ikhussi çuen, eta erran çuen han cirenei : Hauere Jesus Nasarengoarequien cen.

72. Eta ukhatu çuen oraino yuramentuequin, erraiten çuela : Ezdut eçagutcen guïçon hori.

73. Eta dembora labur baten buruan cauxitcen cirenac hurbildu ciren, eta erran çuten Pierssi : Segurqui yende hetaric cira-ere, ecen çure mintçayac eracustera emaiten du.

74. Orduan hassicen madariatsen ; eta yuramentuequin erraiten çuela : Ezdut eçagutcen guïçon hori, eta berehala oilarrac cantatu çuen.

75. Eta Pierres' orhoitucen

Jesusen hitçaz, ceinac erran baitcion : Oilarrac cantatuco duen baino lehen, ukhatuco nauçu hirur aldiz ; eta camporat atheraric nigar eguin çuen garazqui.

## XXVII CAPITULUA.

*Jesus-Christo eramana Pilatussen aintcinerat. — Judassen etsimendua. — Jesus-Christoc pâratcen tu hainitz indignitate, khurutceficatu, hila, hobian eçarria Josephez.*

1. Guero goiça ethorri eenean, Sacrificatçaire aiteindari guciec, eta populuco Çaharrec conseilu atchigui çuten Jesusen contra harren hilaraztecotçat ;

2. Eta estecaturic, eraman çuten, eta libratu çuten Poncio Pilatusi, ceina baitcen gobernadorea.

3. Orduan Judas trahitu çuenac, ikhussiric condenatua cela, dolutu citçayon, eta bihurtu cituen hogoi eta hamar diru peçac, Sacrificatçaire aiteindarier eta Çaharrer.

4. Erraiten ciotela : Bekhatu eguin dut trahitcean odol falta-gabea. Bainan erran cioten : guri cer çaicu? Behatcen cautçu curi.

5. Eta aurthiqui cituen ondoan diru peçac templuan, erre-

tiratucen, eta yoancen ondoan, bere burua urkhatu çuen.

6. Bainan Sacrificatçiale aitcindariec harturic diru peçac, erran çuten : Ezda haiçu hauquien emaitea tresorean, cergatic odolaren precio bat da.

7. Eta consultatu ciren ondoan ekharrequin, crossi çuten elce eguiile haten landa, arrotcen hil hobitçat.

8. Hortacotz landa hora dei-thua içan da egun arteraino, odolaren landa.

9. Orduan complitucen Jeremi prophetaz mintçatua içan cena, erraiten çunenean : Eta hartu du-te hogoi eta hamar diru peça, estimatua içan denaren balioa, ceina Izraeleco haurren artete-coec eztimatu baitute.

10. Eta eman tuzte erostecot-çat elce eguiile baten landa, eta Jaunac manatu çaudan.

11. Jesus presentatua içan cen gobernadorearen aintcinean, eta gobernadoreac interroatu çuen, erraiten cioela : Juduen errengue çare? Jesusec ihardetsi cion : Erraiten duçu.

12. Eta accusatua cenean Sa-crificatçiale aitcindariez eta Çaharrez, czuen deus ihardes-ten.

13. Orduan Pilatusec erran cion : Ezduçu aditcen cembañ le-

khucotassun ekhartcen duten çure contra?

14. Bainan ez cion ihardetsi hitz bat, cer nahiren gainean ; hortaz gobernadorea hainizqui estonatcen baitcen.

15. Gobernadoreac ohitcen cen libratceco populuari besta egunean, presuner bat çoin nahi galdeguin ceçaten.

16. Eta orduan bacen presuner famatu bat, deitcen cena Barrabas.

17. Bildu ciren ondoan beraz, Pilatusec erran cioten : Çoin nahi duçue libra deçaçuyetan, Barrabas, ala Jesus deitcen dutena Christo?

18. Cergatic baçaquien nahi-cundez eraman ciotela.

19. Eta nola yarria baitcen yusticiaeo cadiran, bere emazteacigorri cion erraitera : Ez çaitela sar yustu horren aferan, ecen egun hainitz sofritu dut horren gainean ametsetan.

20. Eta Sacrificatçiale aitcindariec, eta Çaharrec segurtatu çuten populu ostea galdeguite-co Barrabas, eta Jesus hilaraz-teco.

21. Eta gobernadoreac hitça harturic, erran cioten : Bietaric çoin nahi duçue libra dieçaçuedan? Erran çuten : Barrabas.

22. Pilatusec erran cioten :

27 Cap.

Cer eguin en dut beraz Jesusez Christo deithuaz? Erran cioten guiee : khurutceficatu içan bedi!

23. Eta gobernadoreac erran cioten: Bainan cer gaizqui egui du? eta oihu egui çuten gorago, erraiten çutela : khurutceficatu içan bedi!

24. Orduan Pilatusec iksus-siric ez çuela deus irabazten, bainan ostea emendatcen cela, hartu çuen ura, eta garbitu ci-tuen escuac populuaren aintcinean, erraiten ciotela : faltagabe naiz yustu hunen odolaz, quer behatcen çautçue.

25. Eta populu gueiac ihar-detsi cioten, eta erran: Horren odola içan bedi gure gainean eta gure haurren gainean!

26. Orduan libratu cioten Bar-rabas; eta Jesus açotaraci on-doan, libratu cioten khurutceficatu içaiteco.

27. Eta gobernadorearen sol-dadoec eramen çuten Jesus pa-lacionat, eta bildu çuten haren ainteinera tropa gucia.

28. Eta buluci çuten ondoan, ecarri çuten haren gainean capa cscarla bat;

29. Eta egunie elhorri khurut-çatuzco khorobat, ecarri çuten haren buruaren gainean, khana-be-abat haren escuineco escuan;

guero belhauricatcen cirelaric haren aintcinean, trufatcen ci-ren hartaz, erraiten çutela : salutatcen çaitugu, Juduen Er-reguea!

30. Eta thu egui ondoan ha-ren contra, hartu cioten khana-bera, eta hartaz yoiten çuten haren burua.

31. Eta hartaz trufatu ciren ondoan khendu cioten capa, eta beztitu çuten bere arropez, eta eraman çuten khurutceficatce-cotçat.

32. Eta nola atheratcen bait-ciren, errecontratu çuten Cyrenien bat, deithua Simon, ceina obliatu baitçuten eramaitera Je-susen khurutcea.

33. Eta ethorri cirenean Gol-gotha deithua den lekhura, erran nahi da, Calvarioco lekhura,

34. Eman cioten edatera arno mindua khederrarequin nahas-tecatua; bainan yastatu çuen on-doan, ez çuen edan nahi içan.

35. Eta kburutceficatu çuten ondoan phartitu cituzten haren arropac, aurthiquiteen cituzte-larie çortera, propheta batez errana compli çadin: Phartitu dituzte beren artean ene ar-ro-pac, eta aurthiqui dute ene ar-roba çortera.

36. Guero yarriric çaintcen çuten han.

37. Eçarri çuten ere haren buruaren gainean izeribu bat, nun haren yuyamendua markatua baitcen hitz hautaz : Hau da Jesus Juduen Erreguea.

38. Eta bi ohoin khurutceficatuac içen ciren harequin, bat haren escuinean, eta bertcea ezquerrean.

39. Eta handic iragaiten cireneç erraiten çiotçaten ahopaldi gaistoac liguiteen çutelaric burua.

40. Erraiten ciotela : Hi templa arrasateen duiana eta hirur egunez alchateen duiana, salba hadi heroni : Jaincoaren Semeabahiz, yauts hadi khurutcetic.

41. Orobate ere Sacrificatçiale aitcindariec, Scribauequin eta Caharrequin trufatcen cirelaric, erraiten cioten :

42. Salbatu ditu berteeac, daiteque bera salba; Israeleco Erregue bada, yauts bedi orai khurutcetic, eta sinhexico dugu horren baithan.

43. Confiatcen da Jaincoaren baithan, bainan Jaineac maite badu, libra beça orai; ecen erran du : Jaincoaren Semea naiz.

44. Harequin khurutceficatuac ciren gaistaguinec ere, erreprochatcen cioten gauça bera.

45. Bada sei orenetaric gnerostic ilhumbelça egun çuen

herri gucietan; bederatci orenae arteraino.

46. Eta bederatci orenen inguruau, Jesusec oihu egun çuen gora, erraiten çuela : Eli, Eli, lamma sabachtani? Erran uahi da : Ene Jaincoa! Ene Jaincoa! certaco abandonatu nauçu?

47. Eta han present cirenetaric cembaitec, adituric hori, erraiten çuten : Oihu eguiten dio Eliari.

48. Eta berehala heyetaric batec laster egun çuen, eta hartu çuen esponya bat; eta betheric arno minduz, eçarri çuen sesca baten puntan, eta emancion edatera.

49. Bainan berteeç erraiten çuten : utçatçue, ikhus deçagun heya Elia ethorrico den horren salbatcera.

50. Orduan Jesusec oihu egunic oraino goraqni, aurthiqui çuen azquen hatsa.

51. Eta huna, templuco bela urratucen bi phartetan gainetaric behereraino; eta lurra ikharatu-  
een, eta harriac arraildu ciren.

52. Eta hobiac idequi ciren, eta sainduen gorputz hainitz hilac cirenac, piztu ciren;

53. Eta atheraric hobietaric haren piztearen ondoan; sarthu ciren hiri sainduan, eta agueritu ciren hainitci.

54. Beraz Jesus çaintcen çuten capitaina eta barequilacoec, ikhussiric lur ikhara, eta ethorri ciren, guciec içan çuten beldur handi bat, eta erran çuten : Segurqui hau Jancoaren Semeacen.

55. Bacen ere han emazte hainitz urrundanic behatcen çutenac, eta Jesus seguitu çutenac Galileatic, cerbitçateen çutela,

56. Ceinen artean baitciren Maria Magdalena, eta Maria Josen eta Jacquessen ama, eta Zebedeen semeen ama.

57. Eta arraxa ethorri cenean, Arimatheeco guiçon aberax bat, Joseph deithua, ceina ere içan baitcen Jesusen discipulu,

58. Ethorricen Pilatusganat, eta galdeguin eion Jesusen gorphutça; eta dembora berean Pilatusec manatu çuen gorphutça errenda çaqiola.

59. Hola Josephec hartu çuen gorphutça, eta inguratu çuen mihisce garbi batez;

60. Eta ecarri çuen bere hobierrian, ceina egun baitçuen harrocan; eta harri handi bat ecarri ondoan hebico sarbidean, yoancen.

61. Eta han ciren Maria Magdalena, eta bertee Maria, yarriac hobiaren aintcinean.

62. Beraz,biharamunean,cei-

na baita *errepausuco egunaren* preparacionearen ondoan, Sacrifiatçaila aitcindariac eta Pharisauac bildu ciren Pilatus baitara,

63. Eta erran cioten : Jauna, orhoitcen gare bilçale harrec erraiten çuela, oraino bici cenean : hirur egunen buruan piztuconaiz.

64. Manaçaçu beraz hobia çaimdua içan dadin segurqui hurgarren eguneraingo, beldurrez haren discipuluac ethorditen gauaz, eta eraman deçaten, eta erran deçaten populuari : hiletaric piztu da; ceren hondarreco gueçur hori lehenbicicoa baino gaiztoagoa litaque.

65. Bainan Pilatusec erran cioten : Badituçue ceinçaleac; çoazte, eta segurta çaque, aditcen duçuen beçala.

66. Yoan ciren beraz, eta segurtatu çuten hobia, mareaturic harria, eta han emanic ceinçaleac.

## XXVIII CAPITULUA.

*Jesus - Christoren hiletaric piztea, eta haren aguertcea.*

1. Beraz, errepausuco eguna arraxean, argitu behartcen asteco lehen egunean, Maria Magdalena, eta bertee Maria, ethorri ciren hobiaren ikhustera.

2. Eta huna, eguin cen lur ikhara handi bat; cergatic Jau-naren ainguerua yauxicen ceru-tic, eta ethorricen, eta hobiaren sartceco ondoan ecarri çuen har-ria herrestatu çuen eta yarricen haren gainean.

3. Eta haren bisaya chimista bat beçala cen, eta haren bes-timenda elhurra becein churi.

4. Eta ceinçaleac hain bertce-teraino laztuac içan ciren ikha-ras, hilac beçala eguin baitciren.

5. Bainan aingueruac hitça harturic, erran çuen emazter : Quec, ez içan beldurric; cergat-ic badaquit bilhatcen duçuela Jesus khurutcesficiatua içan dena.

6. Ezda hemen, cergatic piztu da erran çuen beçala; çatozte, eta ikuhs çaque Jauna etçana cen lekhua;

7. Eta çozte berehala, eta erran deçoçue haren discipuluei, hiletarie piztu dela. Eta huna, badoha çuen aintcinean Galile-rat, han ikhussico duçue; huna, erraiten dautçuet.

8. Orduan athera ciren here-hala hobitic beldurrez eta boz-carlo handiarequin, eta laster eguin çuten anonçatecerat haren discipuluei.

9. Bainan nola yoaiten baitei-ren anonçatecerat haren discipu-luei, huna, Jesus aguertu cen

heyen aintcinean, eta erran ci-ten: Agurteen çaituztet. Eta buñ bildu ciren, eta bessarcatu ci-ten haren zangoac, eta adoratu çuten.

10. Orduan Jesusec erran ci-ten : Ez içan beldur : çozte, eta errocoçue ene anayer yoaiteo Galilerat, eta han ikhussico nau-tela.

11. Beraz, partitu cirenean, huna, guardiac o cembait ethom ciren hirirat, eta khondatu ei-çaten Sacrificateile aitcindarie guerthatu ciren gauça guciac.

12. Ceinen gainean *Sacrifi-catçailac* bildu ciren Çaharre-quín, eta consultatu ondoan, eman çuten diru oste on bat sa-dadoei ;

13. Erraiten ciotela : Erraçne, haren discipuluac ethorri din gauaz, eta ebaxi dute gu lo ga-delaric ;

14. Eta gobernadorea heldu bada hortaz mintçateen aditcer, segurtatuco dugu, eta penetarie campoan ecarrico çaituztega.

15. Heyec beraz dirua hartu-ric, egelin çuten irakhasti eioten beçala; eta fama hori hedatu da Juduen artean egun arteraino.

16. Bainan hameca discipu-luac yoan ciren Galilerat Jesusec cautziteeco manatu cioten men-diaren gainera ;

17. Eta ikhussi çutenean, adoratu çuten; baiuan cembaitec dudatu çuten.

18. Eta Jesus hurbilduric, mintçatu çayoten, erraiten ciotela: Puchantcia gacia emana çait ceruan eta lurrean.

19. Coazte beraz, eta erakhutz çäue nacione gucer, ba-

thayaçcen tutçuelarie Aitären, eta Semearen, eta Izpiritu Sainduaren icenean;

20. Eta erakhuzten diotçetçuelarie manatu daizguitçuedan guciac; eta huna, quequin naiz bethi munduaren akhabantçaraino. Halabiz.

## EBANYELIO SAINDUA,

## S. MARKEN

## ARABERA.

## I CAPITULUA.

*Jesus - Christo bathayatua eta satanez tentatua; predicacen hasten da. Guero Pierres eta Andres, Jacques eta Joannes deitcen ditu bere ganat; eta sendatcen ditu debruztatu batçu eta lepradun bat.*

1. Jesus - Christo Jaincoaren semearen Ebanyelioaren hasta pena;

2. Profetetan escribatua den arabera: huna, egorcen diat encimezu egualea hire aitcinearat, ceinac aphainduco baitu hire bidea, hire aitcinean.

3. Desertuan oihu eguiten duenaren boça *da*: aphain çaque Jaunaren bidea, chuchen çaitçue haren bidescac.

4. Joanneseo bathayatcen çuen desertuan, eta predicacen çuen urriquizco bathayoa, bekhatu-

en barkhamenduen ardiesteco.

5. Eta ethortcen ciren hura ganat Judea gucico eta Jerusalemeco habitantac, eta guciac bathayatuac ciren hartaz Jordaneo ibayan, beren bekhatuac confesatzen cituztela.

6. Bada Joannes beztitua cen camelu ilez, eta baçuen larruzco uhal bat guerrian, eta yaten ci-tuen othiac eta bassa eztia.

7. Eta predicacen çuen, cioèlaric: heldu da bat ene ondotio, ni baino botherexuago dena, ceinaren aitcinean ez bainaiz gayaphalceco haren çapaten soquen lachatceco.

8. Nitazdenaz, bathayatu çaituztet urean; bainan harc bathayatuco çaituzte Izpiritu Sainduan.

9. Bada, egun hetan guerthatu cen Jesus ethorcerat Nazareth Galileaco hiritic, eta bathayatu

içan cen Joannesez Jordanean.

10. Eta uretic atheratcen celaric, Joannesc ikhussi cituen ceruac idequitcen, eta Izpiritu Saindua uso colomba bat beçala haren gainerat yausten.

11. Eta içan cen boz bat cerutic, *cioela*: hi haiz ene seme ongi maitea, ceinetan ecarribaitut neure atseguin gucia.

12. Eta ordu berean Izpiritnac *yoan* araci çuen desertu batearat.

13. Eta han egotu cen deser-tuan berrogoi egunez, satanez tentatua, eta animale salbayerquin cen, eta Aingueruec cerbit-çatcen çuten.

14. Bada presondeguian ecarria içan cenean Joannes, Jesus ethorricen Galilerat, predicaten çuelaric Jaincoaren erresumaco Ebanyelioa,

15. Eta cioelaric: dembora complitu da, eta Jaincoaren erresuma hurbildua da: eonberti çaitenze, eta sinhets çaque Ebanyelioa.

16. Galileaco ixas aldean çabilaric, ikhussi cituen Simon eta haren anaya Andres, botatcen etutzela beren sareac ixasorat, ecen arrainçaleac ciren.

17. Eta Jesusec erran cioten: segui neçaçue, eta eguiñen çaituztet guionen arrainçale.

18. Eta berehala beren sareac utciric, seguitu çuten.

19. Guero handie aitcinago-chago iraganic, ikhussi cituen Jacques Zebedeen semea eta Joannes haren anaya, beren sare antolatcen hari circela barkhuan.

20. Eta berehala deithu ci-tuen; eta hec beren aita Zebedea barkhuan utciric, languilequin, yarrai qui çaizeon.

21. Handic sarthu ciren Ca-pernaumen; eta berehala erre-pausuco egunean, Synagoguan sarthuric, irakhasten çuen.

22. Eta estonatcen ciren haren doctrinaz; een irakhasten cituen nagusitasuna içanez beçala, eta ez Scribauec beçala.

23. Bada guerthatu cen heyen Synagoguan guion bat izpiritu gaistaguin bat çuena, ceinac oihu egum baitüen,

24. Cioelaric: ha! cer da çura eta gure artean, Jesus Nazare-neo? ethorri çarea gure dese-guiterat? bidaquit nor çaren, Jaincoaren Saindua çare.

25. Bainan Jesus mintçatu cion borthizqui, eta erran cion; ago ichilic, eta yalgui hadi guion hortaric.

26. Orduan izpiritu gaista guina toleateen çuelaric, eta heyagoraca, yalgui cen guion har taric.

27. Eta guciac estonatua içan ciren, halaco guisaz nun elgarri galdeguiten baitçuten, eta erraiten; cer da hau? manatcen du nagusitasunequin, izpiritu gaistaguiner ere, eta obeditcen diote.

28. Eta ordu herean yo çuen baren omenac Galileaco inguruna gucion.

29. Eta berehala atherarie Synagoguatic, yoan ciren Jacques eta Joannesequin Simonen eta Andreen etcherat.

30. Bada Simonen amainarreba ohean cen eri sukharraquin; eta lehenic minçatu çaiçcon hartaz.

31. Eta hurbildurie, alchatu çuen harturie escutie; eta ordu beretie sukharrac utci çuen; eta cerbitçatu cituen.

32. Bada arrexa ethorri ceñean, nola iguzquia sartcen baitcen ekharri cioten eri guciae, eta debrustatuac.

33. Eta hiri gacia bildua cen athe aitcinean.

34. Eta sendatu cituen hainitz eri asco eritasunetarie; eta cassatu cituen hainitz demonio, eta ez çuen haidu utci demonioei erran ceçaten eçagutcen çutela.

35. Guero goicean, oraino il-kun belça celarie, yaiquirie,

athera cen, eta yoan lekhu desertu batetara, eta han othoiçetan çagon.

36. Eta Simonec, eta liarequin cireneç, seguitu çuten.

37. Eta aurquiturie, errancioten, guciec bilhatcen çaituzte;

38. Eta erran cioten: goacen auço herritarat, predica deçadan han ere; euen hortacotz ethorri naiz.

39. Predicatcen çuen beraz lieyen Synagoguetan Galilca gucion, eta khencen cituen democioac.

40. Eta lepradun bat ethorri cen hura ganat, othoizten çuela eta ahuzpecatuz haren aitcinean, eta erraiten cioela; nahi baduç, garbi neçaqueçu.

41. Eta Jesus urricaldurie hedatu çuen bere escua, eta hunquitu çuen, erraiten ciolarie; nahi dut, içan çaité garbi.

42. Eta hori erran çueñean lepra ordu herean urrundu een güiçon hartarie, eta garbi içan cen.

43. Guero mehatchaturie, igorri çuen berehala,

44. Eta erran cion: guardia emaçu ez nihori erraiteaz; bainan çoaci, eta esquein çaiten çure garbitasunarentçat Moisec manatu dituen gauçac, lek-

hucotasuntçat heyer cerbitçat-  
ceco.

45. Bainan hura partituric has-  
si cen gauça hainitcen banatcen  
eta iragan ciren gaucen hedat-  
cen; halaco guisaz nun Jesus ez  
cin sar baitçaitequen guehiago  
clarqui hirian; bainan campoan  
egoten cen lekhu desertuetan;  
eta alde gueietaric ethorcen ci-  
ren haren ganat.

## II CAPITULUA.

*Jesus - Christoc sendatcen du  
paralytico bat, deitcen ditu  
bekhatoreac urriquirat; irak-  
hasten du baruraren eta erre-  
pausuco egunaren gainean.*

1. Cembait egunen buruan it-  
çuli cen Capernaurat; eta aditu  
çuten erraiten etchean cela.

2. Eta berchala yendetce han-  
dibat bilducen, nun athe ondoan  
ez baitcitzquen coka, eta adia-  
razten cioten hitça.

3. Eta cembait ethorriciren  
haren ganat, ekharteen çutela  
paralytico bat laur giçonez ya-  
sana.

4. Bainan nola ez baitcitz  
quen haren ganat hurbil yendea-  
ren borchaz, aguertu çuten hura  
cen teiatua; eta cilhaturic, yan-  
xiçuten paralytiçoa etçana çagon  
ohe thipia.

5. Eta Jesusec ikhussiric he-

yen fedea, erran çuen paralyti-  
coari; nere semea! çure bekha-  
tuac barkhatuac çaitçu.

6. Eta Scribauetaric cembait  
han yarriac cireneç arraçoinat-  
cen çuten hola beren baithan.

7. Cergatic hunec blasfemati-  
cen du guisa hortau? norc bar-  
kha ditçazque bekhatuac, Jain-  
coac berac baicen?

8. Eta Jesusec bere izpirituaç  
eçaguturic beren baithan guisa  
hortan mintço cirela, erran ci-  
ten: cergatic eguiten ditutçue  
arraçoinamendu horiec çuen bi-  
hotcetan?

9. Ecen cer da errechago ala  
erraitea paralyticoari, çure be-  
khatuac barkhatuac çaiçquitçu;  
ala erraitea; yaic çaité, eta çure  
ohe thipia harturic bizcarrian,  
ibil çaité?

10. Bainan amoregatic yaquin  
deçaçuen Jaincoaren semeac ba-  
duela botherea lurraren gainean  
bekhatuen barkhatceco, erran-  
cion paralyticoari;

11. Erraiten dautçut: yaic  
çaité, harçaçu bizcarrian çure  
ohe thipia, eta çoaci çure et-  
cherat.

12. Eta ordu berean yaiquir-  
cen, eta bizcarrian harturic bere  
ohe thipia, athera cen oroen  
bistan; nun guciæ harrituac e-  
gon baitciren, eta lorificatu çu-

ten Jaincoa, erraiten çutelaric: ez guinuen egundaiño ikhussi holaco gauça bat.

13. Eta Jesus athera cen berriz ixaso alderat, eta populugucia hura ganat ethorcen cen, eta irakhasten cituen.

14. Eta iragaitean, ikhussi quen Levi Alfearen *semea*, yarría çagola pagarazteco lekhuan, eta erran cion: segui neçaçu; eta *Levic* chutituric, seguitu quen.

15. Bada guerthatu cen, Jesus mahainian celaric Leviren etchean, hainitz pagaraztaile eta bici gaistoco yende mahainian eman cirela orobat Jesusquin eta hunen discipuluequin; cergicic han baciren hainitz yende hura seguitu çutenac.

16. Bainan Scribauec eta Pharisauec ikhussiric yaten quela pagaraztailequin eta yende bici gaistocoequin, erraiten çuten haren discipuluei: cergicic yaten eta edaten du pagaraztailequin eta yende bici gaistocoequin?

17. Eta Jesus ecce hori adituric, erran cioten: ossagarrian direnec ez dute behar medicuric; bainan bai eri direnec; ez naiz ethorri yustuen urriquirat deitcerat, bainan bai bekhatoreen.

18. Bada Joannesen eta Pha-

risauen discipuluec barrurcen çuten; eta ethorri ciren Jesus ganat eta erran cioten: cergicic Joannesen discipuluec, eta Pharisauenec barureen dute, eta çure Discipuluec ez dute baruren?

19. Eta Jesusec ihardetsi cioten: esposaren adisquidec barur deçaquetea, espresa heyequin deno? espresa heyequin deno, ea deçaquete barur.

20. Bainan egunac ethorriko dira ezcondu berria khendua içanen baitçayote, eta orduna barurtuero dute egun hetan.

21. Orobak nihorc ezdu yosten oihal peça berribat abitu chahar batetan; bertzenaz oihal peça berriac eramaiten du chaharretic, eta hauxidura handiago da.

22. Eta nihorc ezdu eçarcen arno berria untci chaharretan; bertzenaz untciac çapartatzen dira, eta arnea ichurcen da, eta untciac funditzen dira; bainan arno berria untci berrietañ eçarri behar da.

23. Eta guerthatu cen, iraigaiten celaric ogui landa batean errepausuko *egun* batez, haren Discipuluac ibilcean hassi cirela ogui ondoen hondotic aثارا cen.

24. Eta Pharisauec erran ci-

2. 3 Cap.  
ten beha, cergatic eguiten dute  
cilhegui ez dena errepausuko  
egunetan?

25. Bainan erran cioten : ez  
duque behinere irakhurtu Davi-  
tec cer eguien çuen behar orduan  
icatu cenean, eta gosetu cela  
hura eta harequin cirenac?

26. Nola sartu cen Jaincoa-  
ren etchean, Abiathar Sacrifi-  
catçaille buruçaguiaren dembo-  
ran, eta nola yan cituen propo-  
sitioneco oguiac; ceinen yatera  
ez baiteiren haiçu Sacrificatçai-  
leac baicen; eta eman çuen ere  
hetarie harequin cirenei.

27. Guero erran cioten : er-  
repausuko eguna eguna da gu-  
çonarençat, eta ez guçona er-  
repausuko egunarençat.

28. Nun Jaincoaren semea  
errepausu eguneco ere Jauna  
baita.

### III CAPITULUA.

*Jesus-Christoc sendatcen ditu  
eriac errepausuko egunean.  
Hamabi bere discipulu etaric  
manatcen ditu predicatione  
eta sendatçeco; urruncen du  
Scribauen calomnia; eta ez  
ditu eçagutzen bereetçat Jain-  
coaren borondatea eguiten  
dutena baicen.*

1. Guero berriz sartu cen  
Synagoguan, eta han bacen gu-

çon bat, ceinac baitçnen escu  
bat eihartua;

2. Eta behatcen cioten, ikhus-  
teco sendatuco çuenez errepa-  
suco egunean, haren acusatceco  
guearen içaiteco.

3. Eta Jesusec erran cion güi-  
çon escu eihartuari : alcha çaitie  
eta eçar erdian.

4. Guero erran cioten : cilhe-  
gui othe da ongiaren eguitea  
errepausuko egunetan, ala gaiz-  
quiaren eguitea? norbaiten sal-  
batcea, ala hilcea? bainan ichildu  
ciren.

5. Orduan alde gucietara be-  
hatce muthiribat eguinic heyen  
gainerat, eta dembora berean  
atsekabetua heyen bihotcen go-  
gortasunaz, erran cion güiçon  
hari; hedatçaçu çure escua; eta  
hedatu çuen, eta haren escua  
eguina içan cen bertcea becen  
sendo.

6. Orduan Pharisauac athera-  
ric, conseilu hartu çuten haren  
contra Herodioenequin, nola e-  
guinen çuten haren galceco.

7. Bainan Jesus hurbildu cen  
ixaso alderat bere Discipulu-  
quin; eta yende mulço handi-  
batec seguitu çuen Galileatic,  
eta Judeatic, eta Jerusalemetic,  
eta Idumeatic, eta Jordanez hain-  
ditic.

8. Eta Tyreco eta Sidoneco

ingurunacoec adituric eguiten cituen gauça handiac, ethorri ciren hura ganat nombre han-ditan.

9. Eta erran çuen bere Discipuluei, untei thihi bat ez çadila handic higui haren cerbit-çatececo, yenden gatic, amore-a-gatic ez ceçaten herst.

10. Cergatic hainitz sendatu cituen; nun cembait çorigaitcez hartuac ciren guiaic, lehiateen baitciren hura ganat, haren hun-quitececo.

11. Eta izpiritu gaistoece, hura ikhusten çutenean, ahuzpecat-ten ciren haren aitcinean, eta oihu eguiten çuten, ciotelaric: Jaincoaren semea care.

12. Bainan debekatu cioten mehatchu handirequin haren e-çaguztaratea.

13. Guero igan cen mendi bat-en gainerat, eta deithu cituen nahi cituenac, eta ethorri ciren hura ganat.

14. Eta hetaric hamabi manatu cituen berequin içaiteco, eta predicateerat egorceco;

15. Eta içan ceçaten botherea eritasunen sendatceco eta demonioen cassatceco.

16. Eta hemen dira hamabi heyen icenac, Simon ceina icen goitiu baitçuen Pierres;

17. Eta Jacques Zebedeen se-

mea, eta Joannes Jacquesen a-naya, ceinac deithu baitcituen Boanerges, erran nahi baita, e-hurciriaren semeac.

18. Eta Andres, eta Philippe, eta Barthelemy, eta Mathieu, eta Thomas, eta Jacques Alpheen semea, eta Thadea, eta Simon Cananeena.

19. Eta Judas Iscariota, ce-nac trahitu baitçuen ere.

20. Guero ethorri ciren etche-rat; eta bildu cen harat oraino bain bertee yende, nun ezin har baiceçaqueten yateco asti-ric.

21. Eta haren ahaidec ençun çuteneau hori, atheraciren ha-ren sesitceco, cergatic cioten bu-rna galdu çuela.

22. Eta Jerusalemetic yautsi ciren Scribauec erraiten çuten: Beelzebul badu, eta demonioac cassatcen ditu demonioen prin-ceaz.

23. Bainan Jesusec deithuric, erran cioten comparacionez; no-la satanec khendeçaque satan camporat?

24. Ecen baldin erresuma bat makhortua bada bere contra, erresuma harc ez deçaque iraun.

25. Eta baldin etche bat makhortua bada bere contra, etche harc ez deçaque iraun.

26. Beraz satan alchateen ba-

3. 4 Cap.

da bere contra, eta makhurtua  
bada, ez deçaque iraun, bainan  
bere akhabançarat doha.

27. Nihor ez daiteque sar gui-  
çon hazear baten etchean, eta  
haren onthasuna arroba, ez badu  
lehenic estecatcen guiçon haz-  
carra; bainan orduan arrobatuco  
du haren etchea.

28. Eguiazqui erraiten daut-  
çuet bekhatu suerte gueiac bar-  
khatuac içanen direla guiçonen  
haurrei, eta gauça bera blasfe-  
mio suerte guiac, ceinetaz blas-  
fematu baituquete.

29. Bainan norc-ere blasfe-  
matu baituque Izpiritu Sain-  
duaren contra, ez du behinere  
içanen barkhamenduric, bainan  
bethicotz damnatua içanen da.

30. Bada hori cen erraiten çu-  
telacotz; izpiritu gaistaguin ba-  
tez hartua da.

31. Haren anayac eta ama  
ethorri ciren beraz harat, eta  
campoan çaudelaric egorri cio-  
ten galdea; eta yendeac yarriac  
çauden haren ingurunean.

32. Eta erran cioten: çure aita  
eta çure ama han dira campoan,  
çure galdez.

33. Bainan ihardetsi cioten  
cioelaric: nor daene am, eta  
nor dira ene anayac?

34. Alde gucieta so eguinic  
bere inguruau yarilac cirenei, er-

ran çuen: huna ene ama eta ene  
anayac.

35. Ecen Jaincoaren boronda-  
tea eguiten duena, hora da ene  
anaya, eta ene arreba, eta ene  
ama.

#### IV CAPITULUA.

*Jesus-Christoren parabola haci  
eraileaz, haciaz, eta mus-  
tarda haciaz; ixasorat bo-  
tatcen da eta eztilcen du  
çuperna.*

1. Guero eman cen berriz ira-  
khasten ixaso ondoan, eta yen-  
detce handiac bildu ciren hora  
ganat, nun igan baiteen barkhu  
batetara, eta yarriric *barkhuan*  
ixasoan, populu gucia guelditu  
cen leihorrean ixas bazterrean.

2. Eta hainitz gauça irakhas-  
ten cioten comparacionez; eta  
erraiten cioten bere irakhasun-  
cetan:

3. Adi çaque: huna, haci es-  
railebat athera cen eraiteco;

4. Eta guerthatu cen, erai-  
tean, *haci* alde bat erori cela  
bide gainean, eta ceruko choriac  
ethorri ciren, eta yan çuten gu-  
cia.

5. Eta bertce parte bat érori  
cen lekhu harrixu batçuetara,  
nun ez baitçuten lur hambatic,  
etaberehala alchatu cen, cergatic  
ez baitcen sarcen lurrean harua.

6. Bainan iguzquia yalgui ce-  
nean, erre cen, eta erroric ez  
cuelacotz, eihartu cen.

7. Eta bertee parte bat erori  
cen elhorrien artera, eta elhor-  
riac alchatu ciren, eta ithoçu-  
ten, eta ez çuen fruituric ek-  
barri.

8. Eta bertee parte bat erori  
cen lur on batetara , eta ekharri  
çuen fruitua , goratuz eta han-  
dituz ; haloco guisaz nun bihi  
batee ekharri baitçuen hogoi eta  
hamar, bertce batec hirur hogoi ,  
eta bertee batec chun.

9. Eta erran cioten : aditeko beharriac dituenak , encun beca!

10. Eta bakharrie içatu ce-nean, haren ingurunetan cirenece hamabiequin, interroatu çuten parabola hunen gainean.

11. Eta erran cioten : emanat  
çautçue eçagutcea Jaincoaren  
Erresumaco mysterioa ; bainan  
campoan direnei , gauça guiac  
parabolez erraiten dira ,

12. Amoreagatic ikhustean i-khus deçaten, obartu gabe, eta aditcean adi deçaten, eta ez deçaten endelga; heldurrez comberti diten eta heyen bekhatuac barkhatuac ican diten.

13. Guero erran cioten : ez du-  
gue endelgatcen parabola hau?  
eta nola eçagutuko ditutçue pa-  
rabola guciac?

14. Haci crailea hitça eraiten  
duena da.

15. Hitça eraina den bide gai-  
nean direnac , hec dira , ceinec  
ençun duten becen laster, Satan  
ethorcen baita eta khencen bai-  
tiote heyen bihotcetan eraina cen  
hitça.

16. Gauça bera , lekhu harri-xuan hacia errecebitcen dutenac, hec dira , hitça aditu ondoan, berehala errecebitcen dutenac bozeariozqui ;

17. Bainan ez dute erroric beren baithan, eta ez dira dembora baten daco baicen, halako guisaz nun, atsekhabea eta persecuzionea alchaccen direnean hitxa gatic, berehala escandali-satuac baitira.

18. Eta hacia el horri en artean  
errecebitzen dutenac, hec dira  
hitza ençuten dutenac.

19. Bainan mundu huntaco khechacundeac, eta aberaxtasuneco enganamenduaç eta bertcegaucen guticia liçunac guertatcean, ithotcen dute hitça, eta agorcen da.

20. Bainan hacia lur on batean errecebitecen dutenac, hec dira hitça ençuten dutenac, eta errecebitecen, eta fruitua ekhar- cen dutenac; batec hogoi eta ha- mar, eta bertceac hirur hogoi, eta bertceac Egun.

21. Orobate erraiten cioten : arguizaguia ekharcen dea gait-  
ceruean emaiteco , edo ohepe-  
an ? eza , canadelerean eçarceco ?

22. Ecen ez da secreturic a-  
guercen ez denic , eta ez da deus  
estaliric , clareen ez denic .

23. Baldin norbaitec badu be-  
harriric , ençun beça .

24. Erran cioten oraino : guar-  
dia emaçue cer ençuten duçuen ;  
içaurtuco daçuen neurriaz , i-  
çaurtuco çaituzte ; bainan quer  
ençuten duçuenci guehiago ema-  
na içanen çautçue .

25. Ecen duenari , emana içanen  
çayo ; bainan deusic ez due-  
nari , duena ere khendua içanen  
çayo .

26. Erraiten çuen orobat ;  
Jaincoaren Erresuma/guiçon ba-  
tec hacia hurrerat aurthiqui on-  
doan , lo eguiten balu beçala da ,  
eta yaquitzen baliz beçala ga-  
baz eta egunañ ;

27. Eta hacia sorcen eta han-  
ditzen baliz beçala , hanc yaquin  
gabe nola .

28. Ecen lurrac bere baitha-  
ric emaiten du belhárre lehenic ,  
guero ogui burua , azquenian  
ogui bihia beta ogui buruan ;

29. Eta bihia onthu denean ,  
berehalal ebaquiten dute segaz ,  
ergatic uztaila ethorri baita .

30. Eta erraiten çuen oraino :

ceri bardincatuco dugu Jaincoa-  
ren Erresuma , edo cer compa-  
racionez erakhusico dugu ?

31. Mustarda hacinz beçala  
da , ecina , noiz ere erraiten hai-  
tute lurrean , hainitz thiagi go  
baita lurrerat aurthiquiac diren  
haci guciac baino .

32. Bainan erain ondoan , ab-  
chateen da eta bertze handare  
guciac baino handiago eguiten  
da , eta çuhatz-adar handiac gora  
alhatzen ditu , nun ceraco cho-  
rice haren itçalean eguiten ahal  
baititzte beren ohanceac .

33. Hula hainitz compara-  
cionez adiarazten cioten Jain-  
coaren hitça , ençun ceçaqueten  
arabera ;

34. Eta ez çayoten mintzat-  
cen comparançaz baicen : bainan  
bakhartasunean guciac explicat-  
cen cituen bere Discipuluei .

35. Bada egun berean , arrexa  
ethorri cenean , errah cioten  
iragain gaiten bertze alderat .

36. Eta tropaz utciz , eraman  
çuten *barequin* , hura ya bark-  
huan celaric ; eta bacen bertze  
cembait barkhu thiipi barequin .

37. Eta alchatu cen ichqui idu  
bat hain handia , nun bagac e-  
rorcen baitiren barkhura , eta  
yadanic betheteen hari cen .

38. Bada untci guibelean cen  
burnquita baten gainean lo ; eta

iratçarraraci çuten, ciotelaric : Nagusia, ez duçua gure galceaz acholaric?

39. Bainan hura iratçartu ondoan, larderiatu çuen haicea, eta erran ixasoari; ichil hadi, ago descansu; eta haicea guelditu cen; eta ugualdi handibat egun cen.

40. Guero erran cioten : certaco carete hola beldurti? nola ez duçue sinhexterie?

41. Eta ikhara handi batez sesituac içau ciren; eta erraiten çuten elgarri : bainan nor da hau, haiceac ere eta ixasoac obeitzen baitiote.

## V CAPITULUA.

*Jesus - Christoc libratcen du debrustatu bat, sendatcen emazte eri bat, eta pizten Jairusen alaba.*

1. Eta ethorri cen ixasos hertce alderat, Gadarenienen lurreretarat.

2. Eta athera cenean barkhutie, guiçon bat izpiritu gaistaguin bat çuena, athera cen lehenie hobietaric, eta ethorricen haren aitcinerat.

3. Guiçon harc eguiten çuen bere egoitça hobietan, eta nihore ezcin atchic ceçaquen estecatua; ez eta gathequin ere.

4. Cergatic ardura, estecatua

içan cenean burdinez eta gathetz hautsi cituen gatheac, eta porrosatu burdinac, eta nihore ezein hez ceçaquen.

5. Eta bethi gabaz eta eguna mendietan cen, eta hobietan, oihu, eta bere burnari harrica,

6. Bainan ikhussi çuenean urrundanic Jesus, laster egun çuen eta haren aitcinean ahuz pe catu cen.

7. Eta oihu marrascaz, erran çuen : cer da gure artean, Jesus Oroetako Jaincoaren Semca? hoizten çaitut Jaincoaren partez, ez ni tormentatceaz.

8. Cergatic Jesusec erran cion athera hadi guiçon hortaric, ipiru gaista guina.

9. Orduan galdeguin cion nola deitzen haiz? ihardetsi cion eta erran : Araldea dut icena; cergatic hainitz gare.

10. Eta arracaritzen çuen, othoi ez herri hetaric campo igorceaz.

11. Bada bacen han mendi inguruetañan hacinda belz mulgo handi bat pazcateen hari cena;

12. Eta demonio hec guicie othoizten çuten, ciotelaric :igor gaiten hacında helcetara, sargaiten hetan; eta berehala Jesusec haiçu utci cituen.

13. Orduan izpiritu gaisto dunac yalguiric, sarthu cireñ

hacinda belcetan, eta arthaldea, ceina baitcen bi millen inguruna, gainbehera aurthiqui ciren ixasora; eta itho ciren ixasoan.

14. Eta hacinda belzen pazcateen hari cirenece ihes egun euten, eta ekharri cituzten berriac hirirat eta herrietarat.

15. Eta *hiricoac* athera ciren yaquiteco cer guerthatu cen, eta ethorri ciren Jesusganat; eta ikhussi çuten debrustatua, araldea içan çuena, yarria eta besitua eta bere baithan; eta harritu ciren.

16. Eta miraculua ikhussi çutenece condatu cioten cer guerthatu cen debrustatuari, eta hacinda belzei.

17. Orduan othoizten hassi ciren erretira çadin heyen lurretaric.

18. Eta barkhuan sartu ceanean, debrustatua içan cenac othoiztu çuen harequin içaiteco ahala eman ceçon.

19. Bainan Jesusec ez cion permetitu, eta erran cion: habil hira etcherat hiren ganat, eta alpha çotec Jaunac egun daizquidan gauça handiac, eta nola içan duen urriqui hitaz.

20. Yoan cen beraz, eta hedatcen hassi cen Decapolisen Jesusec egun çavezcon gauça handiac; eta guciac harritcen ciren.

21. Eta Jesus bertce alderat berriz iragan cenean barkhu batetan, yendetce handia bildu cen hora ganat, eta ixasotic hurbil cen.

22. Eta huna Synagoguaco lehen aitcindarietaric bat Jairus icena çuena, ethorri çayon, eta hora ikhustean belhauricatu cen haren oinetan.

23. Eta garqui othoizten çuen, cioelaric: nere alaba thipia azquen hatsetan da; othoizten caitut; çauri, eta eseuac pauza diotçoğu gainean, sendatua içan dadin eta bici dadin.

24. Jesus yoan cen beraz harrequin; eta yende tropa handieo seguitcen çuten, eta hersten.

25. Bada hamabi urte hartan odol galcebatur çuen emazte batec,

26. Eta ceinac hainitz yassan baitçuen hainitz medicuen *escuetan*, eta bere onthassun gucia chahutu, batere baliatu gabe, bainan lehenago gaizquituz yoan baitcen;

27. Ençunicie Jesusez minçatcen, ethorricen mulçorat guibeletic, eta hunquitu çuen haren beztimenda.

28. Eoen erraiten çuen: hunquitcen baditut choilqui haren arropac, sendatua içanen naiz.

29. Eta ordu berean odol galcea guelditu cen; eta eçagutu

çuen bere gorphutcean sendatua cela bere çorigaitcetic.

30. Eta berehala Jesusec eça-gutcen baitçuen bere baithan bere ganic athera cen berthutea, itçuli cen mulçorat; cioèlaric : norc hunquitu ditu eue arropac?

31. Eta bere Discipuluec erran cioten : ikhusten duçu yendez herstua çarela, eta dioçu norc hunquitu nau?

32. Bainan alde orotarat behateen çuen, ikhusteco hunquitu çuena.

33. Orduan emaztea beldurrez sesitua eta ikharan, baitçaiquien cer egnina içan cen bere gainean, ethorricen eta aurthi-qui çuen bere burua haren oinetara, eta aithortu cion eguiagucia.

34. Eta erran cion : nere alaba! çure fedeac salbatu çaitu; çoaci bakean, eta içan çaiten sendatua çure çorigaitcetic.

35. Nola mintço baitcen oraino, ikhussi cituen Synagoguaco aiteindariaren yendetaric cembait, ceinec erran baitcioten : çure alaba hila da; certaco nekharazten duçu oraino Nagusia.

36. Bainan Jesusec ordu berean ençuniecer erraiten çuten, erran cion Synagoguaco Aitein-

dariari : ez içan beldurric, choilqui sinhexçaçu.

37. Eta cz çuen nahi içan nihor yarraic çaquion, Pierres, eta Jacques, eta Joannes, Jacquesen anaya baicen.

38. Handic ethorri cen Synagoguaco Aiteindariaren etcherat; eta ikhussi çuen biahorea, erran nahi baita, nigarrez eta oihuç çaudenac.

39. Eta sarthuric, erran cioten : cergatic eguiten duçue hain berce harrabots, eta cergatio eguiten duçue nigar? hanr chumea ez da hila, bainan lo dago.

40. Eta hartaz trufateen ci-ren. Bainan Jesusec yalguiaraciri guciak, hartu cituen haur chumearen aita eta ama, eta berrequin cirenac, eta sarthu cen alaba chumea etçana cen le-khuan;

41. Eta harturic haurraren es-cua, erran cion : Talitha cumi; erran nahi baita; nescatcha chumea ( erraiten dayat ) alcha hadi.

42. Eta berchala nescatcha chumea yaiqui cen eta ibili; ecen hamabi urte cituen, eta hainitz estonatu ciren.

43. Eta manatu cioten arthoz-qui nihorc ez ceçan yaquin; guero erran çuen eman ceçoten yatera.

## VI CAPITULUA.

*Jesus-Christo arbuyatua Nazarethen, Judearat igorcen ditu bere Discipuluac; Yondoni Baptista piztutçat harcen du-te, bortz ogui eta bi arrainequin assetcen ditu bortz milla arima, ixasoaren gainean dabila, eta hainitz eri sendatcen ditu.*

1. Guero yoan cen handie, eta ethorricen bere herrirat, eta bere Discipuluec seguitu çuten.

2. Eta errepausuko eguna e thorri cenean, hassi cen irak-hasten Synagoguan; eta hura ençuten çuten hainitçac, esto-natuac ciren, eta erraiten çuten: nundic heldu çazco huni gauça hauc? eta cer da emana çayon çuhurcia hau; eta hulaco miraculuac ere eguinac içan diten hunen escuez?

3. Hau ez dea zurguina, Mariaren semea, Jacquesen anaya, eta Josesen, eta Judaren, eta Simonena; eta hunen arrebac ez direa hemen gure artean? eta scandalisatuac ciren hura gatic.

4. Bainan Jesusec erran cioten: Profeta bat ez da oihoreric gabe, bere herrian, eta bere a-baiden, eta etcheco yenden artean baicen.

5. Eta ezcin eguin çuen bertee

miraculuric, cembait eri bak-harren sendatua baicen, escuac heyen gainean pausatuz.

6. Eta harritcen cen heyen sinhexgabetasunaz, eta herriz herri çabilan ingurunetan, irak-hasten çuela.

7. Orduan deithu cituen hamabiak; eta bassi cen birazca igorceen, eta eman cioten izpi-ritu gaistoen gainean botherea;

8. Eta manatu cioten densic ez harceaz bideco, makhila bat baicen, eta ez ekharceaz ez sacurie, ez oguiric, ez diruric beren guerricoan.

9. Bainan oinetan çapatac e çarceaz, eta ez bi arropa ekharceaz.

10. Eta orobat erraiten cioten: nun nahi sar çaitetzen etche batean, han egon çaitetze, handie abiatu artino.

11. Eta errecebitcen eta ençuten ez cituzten guciac, handic abiateean, inhaurrex çaque çuen oinetaco herrauxa, lekhucota-sun bat içan dadin heyen contra. Eguiazqui erraiten dautçuet Sodomeacoac eta Gomorrheacoac ez direla içanen hain garrazqui eraunsiac yuyamenduco egune-an, nola hiri hura.

12. Beraz partituric, predi-catu çuten oneratceaz.

13. Eta khendu cituzten hai-

nitz demonio , eta olioz gantçetu hainitz eri , eta sendatu cituzten.

14. Bada Herodes Erreguec ençun çuen hetaz mintçatcen ; ecen Jesusen icena hainitz aiphataua eguin cen ; eta erran çuen : bathayatcen çuen Joannes hora , piztu da hiletaric ; hartacotz miraculuen eguiteco indarra hari da puchantqui hora baithan.

15. Berteece erraiten çuten : Elia da ; eta bertee batçuec erraiten çuten : Profeta bat da , edo Profetataric bat beçala.

16. Beraz hori aditu çuenean Herodesec , erran çuen : burua motzaraci dacodan Joannes da , hiletaric piztu da.

17. Ecen Herodesec egorri çuen Joannesen harcera eta estacaraci çuen presondegui batetan , Herodias haren anaya Philippe-ren emaztea gatic , cergatic har- tu çuen hora ezconçaz.

18. Ecen Joannesec erraiten cion Herodesi : ez çautçu cilhe-gui içaitea çure anayaren emaz-tea.

19. Hortaeotz Herodiasec nahi cion , eta atseguin içanen çuen haren hilarazteaz , bainan ez ce-çaquen.

20. Ecen Herodes Joannesen beldu cen , baitçaquien guïçon yustu eta saindu bat eela , eta baquen harendaco errespetu , eta

ençun çuen ondoan , hainitz ga-ça eguiten çuen Joannesec egui-teaz erranac , ecen gogotic en-çuten çuen .

21. Bainan egun bat ethor- riric guisaqui , Herodesec emai- ten baitçuen bere sor eguneko bazcari bat Jaun handiei eta ar- madaco eta Galileaco Aitcinda- riei ,

22. Herodiasen alaba sarthu cen eta dançatu cen , eta atseguin eguinic Herodesi eta harequin mahainean cirenei ; Erreguec erran cion nescatcha gazteari : galda deçadaçu nahi duçuna eta emanen dautçut.

23. Eta cin eguin cion , er- raiten çuelariec : galdeguiten daiz- quidaçun guciac emanen daitçut , ene erresumaren erdia ere.

24. Eta hora yalguiric , erran cion bere amari : cer galdegu- nen dut ? eta amac , erran cion : Yondoni Baptistaren burua.

25. Guero berriz itçulicen Erregue ganat lehiarequin , eta eguin cion bere galdea ; erraiten çuelariec : nahi nuque emaiten bacinaut berehala Yondoni Bap- tistaren burua.

26. Eta hainitz dolatu çayon Erregueari ; bainan ez çuen nahi içan errefusatu cinarengatic , eta harequin mahainean cireneng ga- tic ;

27. Eta egorri çuen berehala bere çainçaletaric bat, eta manatu cion ekharceaz Joannesen burua : *çainçalea* yoan cen eta burua moztu çuen Joannesi presondeguian ;

28. Eta haren burua ekharri çuen plat batetan, eta entan nescatcha gazteari, eta hunec eman cion bere amari.

29. Hori ençtin çutenean *Joannesen* discipuluac, ethorri ciren eta etaman çuten haren gorputça; eta egarri çuten hobian.

30. Bada Apostoluac bildu ciren Jesusganat, eta aiphatu cioten egnin eta irakhatsi cituzten gauça guiac.

31. Eta erran cioten : ethor çaiteteze lekhu berechi eta bakhartasun batera, eta hatsa harçague; ecen bacen hainitz yende yohan eta heldu cirenaç, nun ez baitçuten yateco astiric ere.

32. Yoan ciren beraz barkhu batean lekhu berechi batetara, bakharric içaiteco.

33. Bainan populuac ikhussi cituen yoaiten, eta hainitcec hura eçaguturic, laster eguin çuten oinez hiri guciataric eta ethorri ciren harat hec baino lehen eta bildu ciren haren ondorat.

34. Eta Jesus atheraric, ikhussi cituen han hainitz yende mulço, eta hunquitua içan cen

urrialçapenez, cergatic ciren ardiaoz beçala arçainic gabe; eta hassi cen heyer irakhasten hainitz gauça.

35. Eta nola ya berandua baiten, haren Discipuluac hurbildu çazcon, ciotelaric : lekhu hau desertua da, eta ya berandua.

36. Igor çaiteu, yoan diten ingurunaco herri eta herrisque-tara, eta eros ditçaten oguiac bérrendaco; ecen deusie ez dute yateco.

37. Eta ibardetsi cioten, eta erran : yoan guinitazqueya bi chun cornadoren ogui eroстра, heyer yatera emaiteco?

38. Eta erran cioten : cembatogui ditutcue? çoazte eta beha çague; eta yaquin ondoan, erran çuten : bortz eta bi errain.

39. Orduan manatu cioten guciac yar arazteaz mulçoca belhar pherdearen gainean.

40. Eta yarri ciren mulçoca, batçu ehun, eta bertceac berrogoi eta hamarrecoac.

41. Eta hartu cituenean bortzoguiac eta bi arrainac, beguiac alchatuz cerura benedicatu çuen eta hauxi oguiac, guero emau bere Discipuluai, emau citçaten heyen aitcinean, eta bi arrainac puscatu cituen guciei.

42. Eta guciec yan çuten hetaric eta asse ciren;

43. Eta ekharri çuten ogui pusquetarie hamabi sasqui bethac, eta cembait arrain soberratuac.

44. Bada, oguaia yan çutenac baciren bortz milla guiconen ingurina.

45. Eta guero herehala borchatu cituen bere Discipulnac igaiterat harkhura, eta yoaiteraf bere aitcinean bertze aldera, Bethsaidaco ingurunara, yendei conyita emanen çuen artean.

46. Eta igorri cituenean, igan cen mendirat, othoitz egniteco.

47. Eta arrexa ethorri cenean, barkhua ixasoaren erdian een, eta hura bera leihorream :

48. Eta ikhussi çuen arrabatzen hainitz nekhateen cirela, hacea contra çutelacotz; eta gabazco laur garren beillaren inguruan, ethorri cen hec ganat, ixasoaren gainean ibiliz, eta aitendu nahi çuen.

49. Bainan ikhussi çutengan ixasoaren gainean çabilala, uste içan çuten mamu bat ecila; eta eihu eguiñ çuten.

50. Ecen ikhussi çuten guciec, eta assaldatu ciren; bainan herehala minçatu cioten eta erran: descansa çaitenze, ni naiz, ez içan beldurrie.

51. Eta igan cen hec ganat barhura, eta liaicea guelditueen;

ceinac hainitz guehiago estonatu eta espantaraci baitcituen.

52. Ecen ez çuten oraino ongi casu eguin oguien *miraculuari*; cergatze heyen bihotza tapatua baitcen.

53. Eta haindirat iragan cirnean, ethorri ciren Geneza retheco lurrerat, nun leihorra hunquitu baitçuten.

54. Eta athera cirnean barkhutic, herrico yendee eçagutu çuten berehala.

55. Eta inguru hetaco herri gucietan başabilçan han hemena, eta hassi cioten eri ekhareen ohe thiipi batçuetan, nun ere ençuten baitçuten cela.

56. Eta sarthu cen herri edo hiri gucietan, edo herrisquetan, eriac ekhareen cituzten placentara, eta othoizten çuten haiçutu çitçala choilqui haren arropaco bazterraren hunquiteera; eta hura hunquitu cituzten guciac, sendatuac ciren.

## VII CAPITULUA.

*Jesus-Christoc condensatzen ditu Pharisauac hypocrisiaz, atchiquiz beren tradicionea Jaincoaren hitçaren plaçan. Sendatzen du ere nescatcha debrustatu bat, eta gor mutu een bat.*

1. Orduan Pharisau eta Seri-

7. Cap.

bait cembait Jerusalemetic et horri cirenac, bildu ciren haren ondora.

2. Eta ikhussiric haren Discipulu cembaitec yaten çutela escu lohiequin, erran nahi da, ikuciac içan gabe, erreprenitu cituzten.

3. ( Cergatic Pharisauec eta Judu guciec ez dute yaten, maiz ikhussi gabe escuac, çaharren erranac atchiquiz.

4. Eta plaçatic itçuli direnean, ez dute yaten ikhussi gabe : bertece hainitz eguin bide badire, ceinetaz cargatu baitire, hala nola gopeac ikhustea, pitcherrac eta alambrezco untiac eta oheac ).

5. Horren gainean Pharisauec eta Seribauec galdeguin cioten, eta erran : cergatic çure Discipuluac ez dira guidatcen Caharen erranaren arabera, bainan dute yaten, escua ikhussi gabe.

6. Eta ihardetsi cioten, eta erran : segurqui Esaiac ongi profetisatu du çuetaz, hypocritac, escribatua den arabera; populu hunec horateen nau ez painez; bainan heyen bihotça hainitz urrundua da ni ganic.

7. Bainan alferretan horatcen naute, irakhassiz doctrinac guiconen manamenduac *baicen* ez direnac.

8. Ecen Jaincoáren manamen-dua utciz, beguiratcen duçue guiconen tradicionea, hala nola pitcherren eta gopeen ikhustea, eta holaco bertee hainitz gauça eguiten duçue.

9. Eta erran cioten orobat: ongi ez deus bilhacarazten duçue Jaincoaren manamendua, çuen tradicionearen beguiratceco.

10. Ecen Moisec erran du: ohora çaitçu çure aita eta çure ama; eta nore-ere madaricatuco baitu bere aita edo bere ama, hil bedi heriotceaz.

11. Bainan çuec erraiten duçue: nore-ere erraiten baitu bere aitari edo bere amari; certaz ere lagondú ahaleo baiteitztet; corban da, ( erran nahi da emaitza *sacratura* ), ez diote guehiago deusic gor.

12. Eta ez dioçue guehiago haiçu uzten deusic eguiteco bere aitaren edo bere amarençat,

13. Ez deus bilhacatuhol Jaincoaren hitza, biteçarri duçuen çuen tradicionearaz, eta hulaeo gauça hainitz eguiten duçue.

14. Guero yende guiac deithurio, erran cioten: ençun neçaque çuec guciec, eta adiçaque.

15. Deusic ez da guiconaren eampoan, haren barnean sarthuz, hora lohi deçaquenie; bainan haren ganic atheratcea di-

ren gauçac, hec dira guïçona lohitcen dutenac.

16. Beharriac dituenac ençun beça.

17. Guero etchean sart'hú ce-nean, yendetaric *urrunducene-an*, bere Discipuluec cherkhatu çuten comparacione horren gai-nean;

18. Eta erran cioten : eta quec ere eçagutçaric gabe çaretea? ez duçue endelgateen campotic sar- cen diren gauça guciac guïçonaren barnean, ez deçaquetela hura lohi?

19. Ceren ez baita haren bi-hotcean sarcen, bainan bai ha-ren estomakan, nundic guero aurthiquia baita lekhu herecirat yanharriec lohi duten guciequin.

20. Bainan erraiten cioten : guïçonaren ganic atheratcen de-nac, harc lohitcen du guïçona.

21. Ecen barnetjc, erran nahi da, guïçonen bihotcetic atherat- cen dira gogoeta gaistoac, adul- terioac, lohiqueriac, hilceac, oboinqueriac,

22. Lukurantçac, gaistaque- riac, enganioa, liçunfassuna, begui imbidiosa, medissencia, supertasuna, erhogueria.

23. Gaisqui horiec guciac barnetic yalguitcen dira, eta guïçona lohitcen dute.

24. Guero handic abiaturic,

yoan cen Tyreco eta Sidoneco mugarrietarat; eta etche batetan sarthuric, ez çuen nahi içan ni-horc yaquin ceçan; bainan ezcin egon içan cen gorderic.

25. Ecen emazte batec, ceinac baitçuen alaba chume bat izpi- ritu gaistaguin batez debruzta-tua, hartaz ençunic minçateen, ethorri cen eta belhauriçatu een haren oinetan;

26. Bada emazte hura greca cen ( eta sorteez Syrophenicea-coa ) eta otboiztu çuen igorceaz debrua alabaren ganic.

27. Bainan Jesusec erran cion: utz çaitçu lehenic haurrac asset- cerat; ecen ez da ongi haurren ogua hartcea, eta chakħur thi- piei aurthiquitcea;

28. Eta ihardetsi cion, eta erran : Jauna, hori egua da! biz- quitardean chakhur thipec ma- hain azpian yaten dituzte haur- ren ogui porrosquetaric.

29. Orduan erran cion : hitz hori delacotz, çoaci: debrua yal- gui da çure alabatic.

30. Beraz yoan cenean bere etcherat, khaussitu cuen debrua yalguia cela, eta bere alaba o- hean etcana.

31. Guero Jesus partituric Syreco eta Sidoneco mugarrie- taric, ethorriee Galileaco ixas- sora Decapoliseco lurren erditic.

32. Eta ekharri cioten gor mutu bat, eta othoiztu çuten es-euac haren gainean pausatceaz.

33. Eta Jesusec berech era-manic, yendetaric campo, eçarri çazcon erhiac beharrietan; eta thu eguinic, hunqui cion mibia.

34. Guero cerurat alchaturic beguiac, auhendatu çuen, eta erran cion: Hephphatah, erran nahi da, idec hadi.

35. Eta berehala haren behariac idequi ciren, eta haren mihiaren lokharria lachatu cen, eta errechqui minçatu cen.

36. Eta Jesusec manatu cioten nihori ez erraiteaz; bainan guehiago debekhatcen çuen, eta guehiago otsancen çuten.

37. Eta hainitz estonatuac ciren, ciotelaric: gauça guciae ongi egui ditu; gorrei adiaraci du, eta mutuac minçaraci.

### VIII CAPITULUA.

*Jesus-Christoc çazpi oguiz assetcen ditu laur milla arima, erreprenitcen du Pharisauen sinhetz - gogortassuna, eta bere Discipulu en ansia, ixubat sendatcen du, minçatcen da bere buruaz eta bere pasmineaz, larderiatcen du Pierres, eta gomendatcen bereei gauça guciei ukho eguiteaz.*

1. Egun hetan nola han bait-

cen yende oste handibat, eta deusic ez yateco, Jesusec deithu cituen bere Discipuluac, eta erran cioten:

2. Urricalmenduz bethea naiz yende horien gainean; ecen hadu ya hirur egun ez direla higuitcen ni ganie, eta deus ez dute yateco.

3. Eta igorceen baditut baruric etcherat, flacatuco dire bidean, ecen hotaric cembait urrundanic ethorriac dira.

4. Eta bere Discipuluec ihardtetsi cioten, nundic asseco ahal ditugu oguiz hemen desertu basitan?

5. Eta galdeguin cioten: cem-bat ogui ditutçue? erran cioten: çazpi.

6. Orduan manatu çuen yendei lurrean yarceaz; eta hartu cituen çazpi oguiac, eta benedicatu ondoan, hauxi cituen eta eman bere Discipuluei, yenden aitcinean eçartceco, eta eçarri cituzten heyen aitcinean.

7. Bacituzten cembait arrain thiipi bakhar ere; eta benedictatu ondoan, manatu cioten hec ere heyen aitcinean emaitteaz.

8. Eta yan cituzten eta asse ciren; eta ekharri cituzten ogni hondar pusketarie çazpi sasqui.

9. (Bada hetaric yan çutenae

laur millaren inguruna ciren )  
eta berehalaigorri cituen.

10. Eta ordu berean igan cen  
barkhu batetara bere Discipu-  
luequin, eta yoau cen Dalma-  
nuthaco lurretarat.

11. Eta harat ethorri ciren  
Pharisauac harequin disputatce-  
ra, eta ceinec haren frogateco  
galdeguin baitcioten cembait mi-  
raculu.

12. Orduan Jesusec hatz be-  
herapen bat aurthiquiz bere iz-  
pirituan, erran quen : certaco  
ethorquia huncie galdeguiten du  
miraculu bat? eguiazqui, errai-  
ten derautquet ez çayola emana  
içanen.

13. Eta hec uteiz, berriz igan  
cen barkhurat, eta iragan cen  
bertee alderat.

14. Bada ahantei çuten oguien  
harcea, eta ez çuten berequin  
barkhuan bat baicen.

15. Eta manatu cioten, er-  
ranez: beha çaque, beguiria gai-  
tezte Pharisauen lemaniatic eta  
Herudesen lemaniatic.

16. Eta elgarren artean arra-  
çionateen çuten, erraiten çute-  
laric: hori da ceren ez dugun  
oguiric.

17. Eta Jesusec eçaguturic  
hori, erran cioten: cergatic ar-  
raçoinatcen duçue ez duçuela-  
gotz oguiric? ez duçue oraino

eçaguteen, eta ez duçue oraino  
endelgatcen? quen bihotça ta-  
patua duçue oraino?

18. Beguiac içan eta, duçue ez  
ikhusten? beharriac içan eta, ez  
duçue aditcen? eta ez duçue or-  
hoit çapenic?

19. Bortz oguiac puscatu ni-  
tuenean bortz milla guçonei;  
cembat sasqui bildu cinuten  
puska hondarretaric betheac? er-  
ran cioten : hamabi.

20. Eta puscatu nituenean  
çazpi oguiac laur milla guçonei,  
cembat bildu cinuten sasqui pus-  
ka hondarretaric betheac? erran  
cioten : cazpi.

21. Eta erran cioten : nola ez  
duçue adimenduric?

22. Gnero ethorricen Beth-  
saïdarat, eta ekharri cioten ixu-  
bat, othoizten çutelaric haren  
hunquitceaz.

23. Orduan hartu quen ixua-  
ren escua, eta craman quen her-  
ritic camporat; eta aho goçoa  
emanic haren beguien gainean,  
eta escuac pausaturic haren gai-  
nean, galdeguin cion nahi que-  
nez cerbait.

24. Eta guçon harc beha-  
turic, erran quen : ikhusten  
ditut guçonac dabilçala, eta  
iduritcen baitçait arbolac be-  
çala.

25. Jesusec eman çaiçon ber-

riz eskuac beguien gainean, eta manatu cion behatceaz; eta sendatu cen, eta guciae ikhusuen cituen ozenqui.

26. Guero igorri çuen bere etchera, cioelaric: ez çaité sar herrian, eta ez erran herrico nitorri.

27. Eta Jesus eta haren Discipuluac abiaturie handic, et horri cireu Philippe-Cesareaco Jurretarat, eta bidean interroatu cituen bere Discipuluac, erraiten ciotelaric: nor diote guionec naicela?

28. Ihardetsi çuteu: batçuee, Yondoni Baptista carela diote; bertcec, Elias; eta bertcec, Profetetaric bat.

29. Orduan erran cioten: eta çuec nor erraiten duçue naicela? Pierresec ihardetsiz erracion: cu çare Christo.

30. Eta mebatchuz debekhatu cioten nihori ez erraiteaz.

31. Eta hassi cen heyer irak-hasten guionaren Semeac behar çuela hainitz pairatu eta içan arbuyatua Çaharrez, eta Sacrifatçiale aitciñdariez etn Scribauez, eta heriotcerat eramana içan behar cela, eta hiletaric piztu hirur egunen buruan.

32. Eta solas horiec atchiquitzen cituen oroen aitcinean; herren gainean Pierresec hartu çuen

berech, eta hassi cen haren erreprenitzen:

33. Bainan harc guibelerat itçuliz, eta bere Discipulu ei so eguiñez, erreprenitu çuen Pierres, cioelaric: habil ene guibelerat, satan; ecen ez haiz ekharria Jaincoarenac direngaucençat; bainan guionenentçat.

34. Guero deithuric yendeac eta bere Discipuluac, erran cioten: nor ere ethorri nahi baita ene ondotic, bere buruari ukho eguiñ beça, eta ekhar beça bere khurutcea, eta yarraic bedit:

35. Ecen norc-ere salbatu nahieo baitu bere arima, galduco du; bainan norc-ere galduco baitu bere arima ene eta Eban-yelioaren amoreagatic, harc salbatuco du.

36. Ecen cer balialaque guion batii mundu guciaren idabaztea, baldin bere arima galcen badu?

37. Edo cen emanen du guionac bere ariman truc?

38. Ecen norc-ere içan baitu que ahalgue nitaz eta ene hitcez, ethorquia adultera eta bekhatoras hunen artean, guionaren Semeac ere hartaz ahalgue içanen du, ethorcen denean bere aitaren loriaz inguratua bere Aleguru sainduequin.

## IX CAPITULUA.

*Jesus - Christo transfiguratuat, aitcinetic adiarazten ditu bere hilcea, hiletaric piztea eta bere erreguna; anoncaren du Eliesen ethorçapena, sendatcen du debruztatu mutu bat, irakhasten du bere Discipuluei haurren humiltassuna, debruuen cassatceratuzten, eta escandalei paraden hauzten.*

1. Erraiten cioten ere: eguiazqui erraiten derautquet hemen aitcin huntan badirela cembait heriotcea goçatuko ez dutenac, ikhussi gabe Jaincoaren erresuma ethorcen puchanciarequin.

2. Eta sei egunen buruan, Jesusec berequin hartu cituen Pierres, eta Jacques, eta Joannes, eta eramān cituen hec berac lekhu berechibatetarat mendi gora baten gainerat, eta transfiguratu cen heyen aitcinean:

3. Eta haren arropac elhurra becen argui eta churi egun ciaren, halaco guisaz nun ez baita munduan churitçaileric hain ongi churi citçaquenie.

4. Dembora berean aguertu citçaizcon Elias eta Moisez Jesusquin minço cirela.

5. Orduan Pierresec hitça bartuz erran cion Jesusi: Na-

gusia; on da içan gaiten hemen; eguin ditçagun beraz hirur etchola, bat curetçat, bat Moisen, eta bat Eliesentçat.

6. Ecen ez çaquiten cer erraiten çuen, cergatic harrituac ciren.

7. Eta ethorri cen hodoy bat bere itçalaz estali cituena; eta hodoytic yalgui cen boz bat, erraiten çuena; hau da cne Sume ongi maitea, ençun çäue.

8. Ordu berean alde gucieta behaturie, ez çuten ikhussi guehiago nihor, choilqui Jesus berquin.

9. Eta nola menditic yausten baitciren, manatu cioten arthosqui es nihori erraiteaz cer ikhussi çuten guiconaren Semea hiletaric piztu ondoan baicen.

10. Eta atchiqui çuten hitz hau beren baithan, elgarri galdeguiten çutelaric cer cen hiletaric piztea.

11. Guero interroati çuten, ciotelaric: certaco erraiten dute Scribauec Elias ethorri behar dela lehenic?

12. Ihardetsi çuen eta erran cioten: egua da, Elias ethorriric, lehenic behar ditu gauça guciac errebegritu; eta guiconaren Semeaz escribatua den beçala; behar du hainitz pairatu eta laidos estalia içau behar da.

13. Bainan erraiten dautçuet Elias ere ethorri dela, eta egun diotela nahi içan dituzten guciac, hartaz eseribatua den arabera.

14. Guero itçuliric Discipulen ganat, ikhussi çuen heyen ingurunetan yende inilço handi bat, eta cembait Scribau heyequin disputan.

15. Eta yende hec ikhussi çuten becen laster, harritu ciren, eta laster egun çuten haren agurceco.

16. Eta galdeguin çuen Scribauei, erranez: certaz atraçoinatzen duçue hauyequiu.

17. Eta tropatic batec hitça harturic, erran çuen: Nagusia, eraman derautçut neure semea izpiritu mitu bat baitu.

18. Ceinac toleatcen baitu borthizqui khäussiteen duen lekhü gucietañ, hedarra dario, horçac kirriscaten ditu, eiharcen hari da; eta çure Discipuluac othoiztu ditut demonio horren cassatceaz; bainan ezcin egun dute.

19. Orduan Jesusec ihardetsi eion eta erran: ô, ethorquia sinheste gabea! noiz arteraino içanen uaiz çuen artean? noiz arteraino yassanen çaituztet erramadaue niri.

20. Eta erainan cioten; eta

ikhussi çuenean izpirituac inhaurretsi çuen borthizqui; halao guisaz nun *haurra* eroribaitcen lurrerat, eta alde gucietañ itçulcen baitcen hedarra çariola.

21. Eta Jesusec galdeguin cion haurraren aitari; cembañ du hauquerthatu çayola? eta erran çuen: haurretic.

22. Eta maiz aurthiqui du surrat eta urerat hilarazteco; bainan cerbait eguiten ahal baduçu, lagun gaitçañ, gutaz urricalduric.

23. Orduan Jesusec erran cion: sinhets ahal badioçu, gauça guciac possible dire sinhesten dueñari.

24. Berehala haurraren aitac nigarrez oihuca, erran çuen: sinhesten dut, Jauna! lagun neçañ eue sinhetgabetasunean.

25. Eta ikhussi çuenean Jesusec yendea laster eguiten popilka, minçatu cen garrazqui izpiritu gaistaguinari, erraiten ciolaric, izpiritu mutu eta gorra, matatzcen deat, atliera hadi *haur* hortaric, eta ez sar guehiago.

26. Eta *demonioa* yalgui cen oihuca, eta hainitz pairarazten çuelaric *haur hari*, ceina eguna baitcen hila beçala, nun hainitzec erraiten baitçuten, hila da.

27. Bainan Jesusec harturic

escutic, alchatu çuen, eta yaiquicen.

28. Guero Jesus sarturic etchean, bere Discipuluec galdeguin cioten bakhartsunean, cergatik guc ezcín khendu dugu?

29. Eta ihardetsi cioten : *demonio suerte* hori ez daiteque yalgui othoitçaz eta baruraz bai-

cen.

30. Eta handie partituri, Galiareñ erditik yoan ciren; bainan ez çuten nahi içan nihore yaquin ceçan.

31. Bada irakhasten ciñmen bere Discipuluac, eta erraiten cioten : guionaren semea libratua içaiterat doha guionen esuetara, eta hilaracico dute; bainan hilduten ondoan, piztuco da hirur garren egunean.

32. Bainan ez cuen endelgatzen solas hori, eta galdeguiteco beldur ciren.

33. Gauça horien ondoan, ethorricen Capernaum, eta sartu cen etchean galdeguin cioten : certaz cinuten disputa elgarrequin bidean?

34. Eta ichildu ciren : ecen bidean disputatu ciren cein cen beren artean handiena.

35. Eta yarri ondoan, deithu ciñmen hamabiak, eta errau cioten : norbait içan nahi bada cuen artean lehena, içanen da gucie-

taric azquena, eta gucien cerbitcarria.

36. Eta harturic haur chume bat, eçarri çuen heyen erdian, eta harturic hura bessuetan, erran cioten :

37. Norc-ere errecebituca baitu hulaco haur chumetaric bat ene icenean, errecebitcen nau; eta norc-ere errecebitcen bainau; ez nau ni errecebitcen, bainan bai ni egorri nauena.

38. Orduan Joannesec hartzuen hitça, eta erran : Nagusia, ikhussi dugu norbait demonioac cassatzen ciñmena çure icenean, eta bizquitartean ez baiçaitu seguiteen, eta debekhatu dugu, ez gaituelacotz seguiteen.

39. Bainan Jesussec erran cioten : ez deçaçue debekha; cergatik ez da nihor ene icenean miraculu bat eguiten duenik, nitaz ordu berean gaisqui minça daitequenik.

40. Ecen gure contra ez dena, gure alde da.

41. Eta norc-ere emanen bautaçue baso bat ur ene icenean, ceren Christauenac çaretan; eguiazqui erraiten derautçuet, ez duela galduco bere saria.

42. Bainan norc-ere escandalisatuco baitu ni baithan sinhesten duten haur chume hotaric bat; hobe luque eçar balecote

eyhera harribat lepotic, eta aurthic baleçate ixasorat.

43. Bada, baldin çure escuac trebucarazten baçaitu, pica çäçü; hobe da sar çaiten bician escu bat gabe, ecenez bi escu içaitea, eta gehennarat yoaitea, hilcen ez den surat.

44. Heyen harra hilcen, eta sua iraunguitcen ez den lekhurat.

45. Eta çure zangoac trebucarazten baçaitu, pica çäçü; hobe da sar çaiten mainga bician, ecenez bi zango içaitea, eta aurthiquia gehennarat, iraunguitcen ez den surat;

46. Heyen harra hilcen ez den; eta sua iraunguitcen ez den lekhurat.

47. Eta baldin çure beguiac trebucarazten baçaitu, athera çäçü; hobe da sar çaiten Jaincoaren Erresuman begui hatequin, ecenez bi beguiquin içaitea, eta suzco gehennarat aurthiquia içaitea.

48. Heyen harra hilcen ez den eta sua iraunguiteen ez den lekhurat.

49. Ecen bakhotcha suz içanen da gacitua; eta cein nahi bitima gateez gacitua içanen da.

50. Gatça gauça on bat da; bainan gatça eguiten bada gosturie gabe, certazbihurtueo çayo bere gostua?

51. İçan çäçue gatça çuen baithan, eta içan çaitetzte bakean çuen artean.

## X CAPITULUA.

*Jesus - Christoren doctrina diborsaz; haur chumeac errecebicen ditu, aberaxa nekhez salbatua; bere passioneaz minço da, eta bere seguidaoen nahicundearen contra; azquenean Bartimeoitzua sendatzen du.*

1. Guero handie abiaturic, ethorricen Judeaco mugarrierrat, Jordanez haindira, eta yendeac bilduric oraino haren ondorat, irakhasten cituen, ohitu beçala.

2. Orduan cembait Pharisau ethorri-çazcon, eta haren frogatceeo galdeguin cioten: haiçu çäçoya guiçou batı bere emaztearen igorecea?

3. Ihardetsi çuen eta errancioten: cer manatu dautçue Moiseo?

4. Erran çuten: Moiseec haiçu utci du diborsaco letraren esribatcea, eta *hola bere emaztea*. ren igorecea.

5. Eta Jesusec ihardestean erran cioten: manamendu hori eman derautçue çuen bilhetz go-gortassuna gatic;

6. Bainan creacionearen has-

tean, Jaincoac egun çuen giçon bat eta emazte bat.

7. Hortacotz giçonac utcico ditu bere aita eta bere ama, eta bilduko da bere emazteari;

8. Eta biac haragui bakhar bat içanen dira; halaco guisaz nun ez baitira guehiago biga, bainan haragui bakhar bat.

9. Beraz giçonac ez beça barraya Jaincoac bildu duena.

10. Guero bere Discipuluec interroatu çuten oraino etchean gauça horren beraren gajnean.

11. Eta erran cioten: noro-ere utcico baitu bere emaztea, eta ezconcen baita bertce batequin; adulterio bat eguiten du haren contra.

12. Gauça hera baldin emazteac uzten badu bere senharra, eta ezconcen bada bertce batequin, adulterio bat eguiten du.

13. Presentatu cioten cembait haur chume, amoreagatic hunqui citçan; bainan Discipuluec errepreñitzen cituzten ekharçialeac.

14. Eta Jesusec hori ikhustean khechatu cen, eta erran cioten: ntz çaitçue haur chumeac ethorcerat ni ganat, eta ez çatçue debeka; ecen Jaincoaren Erresuma hec iduri dutenençat da.

15. Eguiazqui erraiten daut-

çuet norc-ere ez baitu errecebitten Jaincoaren Erresuma haur chume batec beçala, ez dela han sarthuco.

16. Beraz harturic hec bere besuetan, benedicatu cituen, escuac pausatuz heyen gainean.

17. Eta nola atherateen baitzen abiatceco, giçon batec laster egun çuen, eta belhauricatu zen haren aitcinean, eta eguncion galde hau, Nagusia ona çarena, cer eguinene dut bethico biciaren ardiesteco?

18. Eta Jesusec ihardetsi cion: cergicatic dejceu nauçu ona? ni, hor ezda onic Jaincoa baicen.

19. Badaquitça manamen-duac: ez çاقу egun adulterio. Ez ebats. Ez lekħucotasun falsuric erran. Ez egun nihori bidegaberic. Ohora çaiten cure aita eta cure ama.

20. Ihardetsi çuen, eta erran cion: Nagusia, gauça hec guciac beguiratu ditut ene gazetasunetik.

21. Eta Jesusec behaturic haren gainera, maithatu çuen, eta erran cion: gauça bat escaz duçu; çoaci, sal çaitçeu ditutçun guciak, eta eman pobrei, eta içanen duçu onthasun bat eruan; guero ethor çaita, eta se-gui neçaju, khurutcea biscal-rean.

22. Bainan belçuri egun çuen solas horri, eta yoan cen hainitz triste, cergatik hacituen ontha-sun handiac.

23. Orduan Jesusec behaturic ingurueta, erran çuen bere Discipuluei: cein nekhez aberaxac sarthuco diren Jaincoaren Erresuman!

24. Eta haren Discipuluac harritu ciren hitz horiez; bainan oraino Jesusec hitça hartuz, erran cioten: neure haurrac, cein nekhe den onthasunetan direnei Jaincoaren Erresuman sarcea!

25. Errechago da camelu batzen iragaitea orratz baten chilotic, ezcen ez aberax baten Jaincoaren Erresuman sarcea.

26. Eta oraino guehiago harritu ciren, erraiten çutelaric elgarri: eta nor salba daite?

27. Bainan Jesusec behaturic, erran cioten: guioner denaz, hori impossible çayote; bainan ez Jaincoari denaz; ecen gauça guciak possible çazco.

28. Orduan Pierres hassi citçayon erraiten: huna, guciak utci ditugu, eta seguitu çaitugu.

29. Eta Jesusec ibardestan erran çuen: eguiazqui erraiten dautçuet, ez dela nihor utci dituenic edo etchea, edo anayac, edo arrebac, edo aita, edo ama, edo emaztea, edo haurrac, edo

landac, ene, edo Ebanyelioaren amodigatic,

30. Içaiten ez duenic orai mende huntan chun aldi bertce hain bertce etche, eta anaya, eta arreba, eta ama, eta haur, eta landa, nahi gabequin, eta bertce mendean, bicitee eter-nala.

31. Bainan hainitz lehen di-renac, azquenac içanen dira; eta azquenac, lehen içanen dira.

32. Bada bidean ciren, Jernalemerat igaiten, eta Jesus heyen aitcinean yoan cen; eta harrituac ciren, eta haren se-guitcean beldur ciren, ceren Jesusec berriz berech harturic hamabiak, hassi baitcen heyer adiarazten guerthatu behar ciren gaucen.

33. Erranez: huna Jerusalemerat igaiten gare, eta guiçonaren semea libratua içanen da Sacrificatçaille aitcindariei, eta Scribauei; eta heriotcerat con-denatua, eta libratuco dute Gentilei;

34. Ceinac trufatuco baitira hartaz, eta azotatuco baitute, eta thu egunen baitu haren contra, guero hilaracico dute; bainan piztuco da hirurgaren e-gunean.

35. Jacques eta Joannes Zebedeoen semeac ethorri ciren hâ-

ren ganat, eiotelaric : Nagusia, nahi guinuque eguiten bacinu guretaco galdeguinen dautçuguna.

36. Eta erran cioten : cer nahi duçue eguin deçadan çuen daco?

37. Eta erran cioten : eraguin deçaguçu çure lorian içan gaiten yarriac, bat çure escunean, eta bertcea çure ezquerrean.

38. Eta Jesusec erran cioten : ezdaquique cer galdeguiten duçuen : edan deçaqueçueya nic edan behar dudan khalitcean, eta içan ahal çaitetxetey bat-hayatuac ni içan behar naicen bathayoaz?

39. Ihardetsi cioten : içaiten ahal gare. Eta Jesusec erran cioten : egua da edaten ahal duçuela nic edan behar dudan khalitcean, eta bathayatuac içanen çaretela ni bathayatua içanen naicen bathayoaz;

40. Bainan ene escunean edo ene ezquerrean yarcea, ezçaut niri emaitea; bainan *emana içanen da* nori ere destinatua baita.

41. Bertce hamarrec adituric hori, hassarratu ciren Jacques eta Joannesen contra.

42. Eta Jesusec deithurie, erran cioten : badaquique nacionen gainean dominateen dute-nac, hetaz nagusitcen direla,

eta heyen handiac baliatcen direla nagusitassunaz hequier gai-nean;

43. Bainan ez da hola içanen çien artean ; bainan nor ere handi eguin nahico baita çuen artean, hora içanen da çuen cerbitçaria.

44. Eta nor ere eguin nahico baita lehen çuen artean, hora içanen da gucion cerbitçari.

45. Ecen ere guiconaren semea ezda ethorri cerbitçatua i-caiteco, bainan cerbitçatceco; eta bere bicia hainitcençat emaiteco pagamendutçat.

46. Guero ethorri ciren Jericorat; eta Jericotie partitzen celaric bere Discipuluequin etayendetce handi batequin, ixu bat Bartimeo *icena cuena*, erran nahi baita Timeen semea, bide gainean çagon yarria eta esque.

47. Eta ençunic Jesus Nazarenecoa cela, hassi een oihu, eta erraiten : Jesus Daviten semea, urrical çaitetxetey nitaz.

48. Eta hainitce larderiatcen çuten, ichil çadin amoreagatic; bainan oraino garrazquiago eguiten çuen oihu : Daviten semea, urrical çaitetxetey nitaz.

49. Eta Jesusec guelditurie, erran çuen ethoraraz ceçaten; ethoraraci çuten beraz, erraiten

ciotelaric : harçaçu curaye, alcha çaita, deiteen çaitu.

50. Eta aurthiquiric bere capa jurrera, alchatu cen, eta ethorri Jesusganat.

51. Eta Jesusec harturic hitxa, erran cion : cer nahi duçu eguin deçacudan? eta ixuac erran cion : Nagusia, ikhus deçadan.

52. Eta Jesusec erran cion : coaci, çure fedeac salbatu çaitu.

53. Eta berehala ikhussi çuten haren beguiec, eta seguitu çuen Jesus bidez.

## XI CAPITULUA.

*Jesu-Christoc eguiten du bere sarcea Jerusalemen, madaricatcen du pico ondo bat, igorcen dita templutic salça-leac eta erosleac. Fedeac ereman ditçazque beren lekhutic mendiac. Inyurioen barkhamenduaz. Scribauen galdeari ihardesten du; Joannesen Bathayoaz.*

1. Nola Jerusalemerat hurbilcen baitciren, Bethphagetic eta Bethaniatic hurbil, olibetaco mendiaren ingurunnetan, egorri cituen bere Discipuluetafic biga,

2. Eta erran cioten : çoazte çuen parrean den herrirat; eta han sarcean, khaussituco duçe

asto ume bat estecatua, ceinaren gainean ez baita behinere yarri guiconic; khen çaque este-cutic, eta eraman.

3. Eta baldin norbaitec galdeguiten badautçue : cergatic eguiten duçue hori? erran çaque Jaunac haren beharra duela; eta berehalaigorrico du hunat.

4. Abiatu ciren beraz, eta khaussitu çuten asto umea campoan, atharen ondoan estecatua, bi biden artean, eta deslokatu çuten.

5. Eta han cirenetaric cembaitee erran cioten : cergatic libratcen duçue asto ume hori?

6. Eta ihardetsi cioten Jesusec manatu çuen beçala; eta utci cituzten eguitarat.

7. Eraman çuten beraz asto umea Jesusi, eta egarri cituzten beren arropac haren gainean, eta gainerat igan cen.

8. Eta hainitce hedateen cituzten beren arropac bidean, eta bertce cembaitee hausten cituzten arbola adarrac, eta hedatcen cituzten bide gainean.

9. Eta aitcinean yoan cire-nac, eta ondotic heldu cirenac, oihu egijten çuten, ciotelaric : Hosanna! Benedicatua içan bedi Jaunaren icenean heldu dena!

10. Benedicatua içan bedi Davyid gure aitaren erreyriga, Jau-

naren icenean heldu den *errejnua*; Hosanna goren gorenetacon lekhuetan?

11. Sarthu cen hola Jerusalmen, eta Templuan, eta alde-gucietara behatu ondoan, nola ya berandua baitzen, athera cen Bethaniarat yoaitaco hamabiequin.

12. Etabiharamunean Bethaniatic iteuleean, gossetu cen.

13. Eta ikhussiric urrundanic pico ondo bat hostoac cituena, yoan cen ikharcera cerbait aurquituco, quenez han, bainan ethorri cenean, ez quen aurquitu hostoric baicen, cergatik ez baitzen pico dembora.

14. Eta Jesusec harturie hitça, erran quen pico ondoari: nihore ez beça behinere hire fruitutic yan. Eta bere Discipuluec ençun çuteu.

15. Beraz ethorricen Jerusalemerat, eta Jesus sarthu cenean Templuan, hassi cen camporat kheneen Templuan salcen eta erosten hari cirenac, eta aurthiqui cituensanyatçailen mahinae eta urzo salcen hari cirenren alkhiac.

16. Eta ez quen haiçu üzten nihori untcircic batere ekharerat Templura.

17. Eta irakhasten cituen, erraiten ciotelarie: ez dea escri-

batua: ene etchea deithua içanen da othoitcezco etchea yendaquia guciez? bainan hartaz eguin duçue ohointegui bat,

18. Scribau eta Sacrificateile aitcindariec hori adituric, bilhatzen çuten nola egunen çuten haren galceco; cergatic beldur ciren, populu guciac espartacen quelacotz haren doctrina.

19. Eta arrexa ethorri cenean, athera cen hiritik.

20. Etabiharamun golcean, iragaiten cirelaric pico ondoan gaindi, ikhussi çuten erroraino eihartu cela.

21. Eta Pierres orhoituric *cer iragan cen*, erran cion Jesusi Nagusia, huna, madaricatu, dçun pico ondoa, gueia eihartu da.

22. Eta Jesusec ihardestean, erran cioten: sinhex çaque Jam-coa baithan.

23. Ecen erraiten derautuet eguiazqui, norc-ere erranen baitu mendi huni, yalgui hadi hir lekhutik eta aurthie hadi ixasorat, eta ez baita khordocatuec bere bihotcean, bainan sinhet-sico baitur erraiten duena egunen dela, erran dituzquen guciac eguinac içanen dira.

24. Hortacotz erraiten dautçuet galdegiñiten ditutçuen guciac othoiztuz, sinhex çaque

içanen ditutçuela eta eguinac  
içanen çaitçuela.

25. Bainan aguertcen çarete-  
nean çuen othoitçaren eguitaco,  
balin baduçue norbaiten contra  
cerbait, barkha çoçue; amore-  
gatic çuen Aita ceruetan denac  
ere barkha ditçaçuen çuen hoguenac.

26. Bainan baldin ez baduçue  
barkhatcen, çuen Aita ceruetan  
denac ere ez dautçue barkha-  
tuco çuen hoguenac.

27. Berriz itçuli ciren Jeru-  
salemerat, eta Templuan çabiliaric,  
Sacrificatçaille aitcindariac eta Scribauac eta Ca-  
barrac ethorri ciren haren ganat.

28. Eta erran cioten: cer bo-  
therez eguiten ditutçu gauça  
hauc, eta norc eman derautçun  
eguiten ditutçun gaucen eguite-  
co boherea?

29. Eta Jesusec ihardestean  
erran cioten: nic ere galdegui-  
nen dautçuet gauça bat, eta  
ihardets çadaçuet; guero erran-  
nen derautçuet cer botherez,  
eguiten ditudan gauça hauc.

30. Joannesen bathayoa ceru-  
tic dea, ala guionetaric? ihar-  
dets deçaçuet.

31. Eta elgarren artean arra-  
çoinatcen çuten, ciotelaric; er-  
raiten badugu; cerutic; erranen

deraucu; cergatic beraz ez du-  
çue sinhetsi?

32. Eta erraiten badugu; gui-  
çonetaric, populuaren beldur  
içan behar gare; ecen gueiec  
uste çuten Joannes eguiazco Pro-  
feta bat içan cela.

33. Orduan ihardetsi cioten  
Jesusi, ciotelaric: ez daquigu;  
gu; eta Jesusec ihardestean erran  
cioten: nic ere ez dautçuet er-  
ranen cer botherez eguiten di-  
tudan gauça hauc.

## XII CAPITULUA.

*Mahastiçainaren parabola; har-  
ria equidatçaillec aurthiquia.  
Cerga Cesari corra. Saddu-  
ceenen galdea hiletaric piz-  
tearen gainean; cein den  
manamenduetaric handiena;  
Davitec eçagutu du Messias  
bere Jaunarençat; Scribaue-  
taric beguiratceaz; alhargun  
batec botatcen ditu bi ardit  
pobren truncora.*

1. Guero hassi cen heyer er-  
raiten comparantça batez; cioc-  
laric: guicon batec landatu çuen  
mahasti bat, eta inguratu çuen  
berro batez, eta han eguin çuen  
cilho handi bat laco batençat,  
eta dorre bat alchatu çuen:  
guero hora alogatu çuen ma-  
hastiçain batçuei, eta athera cen  
camporat.

2. Bada mahats sasoinean, egorri çuen sehi bat mahastiçainei, mahastico fruitutic içaiteco hetaric.

3. Bainan hora harturic, yo çuten eta hutsic igorri.

4. Berriz igorri cioten bertce bat; eta harricatu çuten hau, buruan colpatu çuten, eta igorri etcherat, gogorqui tratatu ondoan.

5. Egorri çuen oraino hirugarren bat, ceina hil baitçuten; eta bertce hainitz, ceinac yo baitcitzten batçu, eta hil bertceac.

6. Bainan seme bat baitçuen oraino, bere seme ongui maitea, egorri cioten hora azquenie, erraiten çuelaric: ene semea errespetatuco dute.

7. Bainan mahastiçainec erran çuten beren artean: primua da heinen; çatozte, hil deçagun, eta gurea içanen da primança.

8. Harturic beraz hora, hil çuten eta authiqui mahastiz camporat.

9. Cer eguienen du beraz mahastico nagusiac? ethorrico da eta galaracico ditu mahastiçain hec, eta berciei einanen du mahastia.

10. Eta ez duçue irakhurtu iscribu hau? equidatçailec authiqui duten harria, egum da esquinaco harri nagusia;

11. Jaunaz eguna içan da hau, eta gauça espantarri bat da gure beguietan.

12. Orduan enseyatü ciren haren harcera; bainan popularen beldur içan ciren; cergatic eşagutu çuten comparança hau eguiñ çuela heyen contra; hartacotz utciric hora, yoan ciren bandie.

13. Bainan egorri çayoten Pharisauetaric eta Herodienetaric cembait, haren bere solasetan atcemaiteco;

14. Ceinec ethorriric, erran baitcioten: Nagusia, badaquiga eguiasçea çarela, eta guciac bardin eguiten ditutçula; ecen ez duçu behateen guiconen iduriari; bainan irakhasten duçu Jaincoaren bidea eguiaren arabera: haiçu dea Cesari cerguen pagatcea, ala ez? pagatuco duguya, ala ez dugu pagatuco?

15. Bainan Jesusec eşaguturic heyen hypocrisy, erran cioten: cergatic tentatcen nauçue? ekhar çadaçuet diru peça bat, ikbus deçadan.

16. Eta ekharri cioten aitcinerat, orduan erran cioten: norena da itchura hau, eta iscribu hau? ihardetsi cioten: Cesarea.

17. Eta Jesusec ihardestan erran cioten:bihur çatçue Ce-

2. Bada mahats sasoinean, egorri çuen sehi bat mahastiçainei, mahastico fruitutic içaiteco hetaric.

3. Bainan hora harturic, yo çuten eta hutsic igorri.

4. Berriz igorri cioten bertce bat; eta harricatu çuten hau, buruan colpatu çuten, eta igorri etcherat, gogorqui tratatu ondoan.

5. Egorri çuen oraino hirugarren bat, ceina hil baitçuten; eta bertce hainitz, ceinac yo baitcitzten batçu, eta hil bertceac.

6. Bainan seme bat baitçuen oraino, bere seme ongi maitea, egorri cioten hora azquenie, erraiten çuelaric: ene semea errespetatuco dute.

7. Bainan mahastiçainec erran çuten beren artcan: primua da hemen; çatozte, hil deçagun, eta gurea içanen da primança.

8. Harturic beraz hora, hil çuten eta authiqui mahastiz camporat.

9. Cer eguienen du beraz mahastico nagusiac? ethorrico da eta galaracico ditu mahastiçain hec, eta berceei einanen du mahastia.

10. Eta ez duçue irakhurtu iscribu han? equidatçailec authiqui duten harria, egun da esquinaco harri nagusia;

11. Jaunaz eguna içan da hau, eta gauça espantagarri bat da gure beguietan.

12. Orduan enseyatü ciren haren harcera; bainan populuaren beldur içan ciren; cergatic eçagutu çuteti comparançâ hau eguin çuela heyen contra; hatacotz utciric hora, yoan ciren handie.

13. Bainan egorri çayoten Pharisauetaric eta Herodienetaric cembait, haren bere solasetan atcemaiteco;

14. Ceinec ethorriric, erran baitcioten: Nagusia, badaquigu eguiascoa çarela, eta guciac bardin eguiten ditutçula; ecen ez duçu behateen guiconen iduriari; bainan irakhasten duçu Jaincoaren bidea eguiaren arabera: haiçu dea Cesari cerguen pagatcea, ala ez? pagatuco duguya, ala ez dugu pagatuco?

15. Bainan Jesusec eçagüturic heyen hypocrisia, erran cioten: cergatic tentatcen nauçue? ekbar çadaçuet diru peça bat, ikhus deçadan.

16. Eta ekharri cioten aitcinerat, orduan erran cioten: porena da itchura hau, eta iscribu hau? ihardetsi cioten: Cesarea.

17. Eta Jesusec ihardesteian erran cioten;bihur çatçue Ce-

çala. Ezda bertce manamenduric hauc baino handiagoric.

32. Eta Scribauac erran cion : Nagusia , eguiaren arabera erran duçu , Jainco bakhar bat dela , eta ez dela bertce Jaincoric hura baicen.

33. Eta haren maithatcea bere hihotz guciaz , bere adimendu guciaz , bere arima guciaz , eta bere indar guciaz , eta proximo laguna bere burua beçala , bitima eta sacrificio guciæc baino guchiago dela.

34. Eta Jesusec ikhussiz *Scribauac* ihardetsi quela çuhurqui , erran cion : ez çare urrun Jaincoaren Erresumatic. Eta nihor ez cen guchiago atrebitcen hari galderic eguitera.

35. Eta nola Jesusec irakhas- ten baitçuen Templuan , hartu çuen hitça , eta erran : nola diote Scribauec Christo Daviten se- mea dela ?

36. Ecen Davitec berac erran du Izpiritn Sainduaz , Jaunac erran dio neure Jaunari ; yar çaitc eñe escunean , eçarri ditudan artean çure etsayac çure oinen alkitçat

37. Davitec beraz deitcen duenaz gueroz *bere* Jauna , nola da haren scmea ? eta yende mulço handiec atsegün çuten haren encuteaz.

38. Erraiten cioten orobat irak- hasten cituelaric , beguira çaitet- te Scribauetaric , ceinec atsegün harcen baitute arropa lucequin ibilceaz ; eta *maite baititzte* pla- cetan agurrac.

39. Eta lehen plaçac Synago- guetan , eta lehen toquiac gom- bidanzetan.

40. Ceinec ossoqui iresten baititzte alhargunen etcheac , othoitz lucen estacuruan ere. Hortacotz içanen dute gastigu handiago bat.

41. Eta Jesus truncoaren ait- cinean yarria , arthosqui behat- teen çuen nola populuac botateen çuen dirua.

42. Eta hainitz aberaxec emai- ten çuten hainitz ; eta alhargun errumes bat ethorricen , ceinac eman baitcituen bi moneda thi- pi , sos baten lauretaric bat egui- ten dutenac.

43. Eta Jesusec deithuric bere Discipuluac , erran cioten : e- guiazqui erraiten dautçuet , al- hargun errumes hunec hertcec eman duten baino guehiago e- man duela truncoan.

44. Ecen guciæc eman dute bere soberatutic ; bainan hunec eman du bere errumestassune- tic , çuen gucia , bere hazgarri gucia.

### XIII CAPITULUA.

*Jesus-Christoc annontçatcen ditu Templuaren deseguitea, eta bere azquen ethorçapena.*

1. Eta nola atheratcen baiten Templutic, bere Discipuluetaric batec erran cion : Nagusia, beha çäcu cer harriac eta nolaco goratasunac.

2. Eta Jesusec ihardetsi cion eta erran : ikhusten ditutçu goratasun espantagarri horiec? Ez da utcia içanen harriaren gaipean, barrayatua içan gabe.

3. Eta nola yarri baiteen olibetaco mendian Templuari betaz beta, Pierresec, eta Jacquesec, Joannesec eta Andresec galdeguin cioten berechiqui;

4. *Ciotelaric* : erran deçaguçu gauça horiec noiz guerthatuco diren, eta cer seinale içanen den gauça horiec complitu beharco direnean.

5. Eta Jesusec ihardetsi cioten : guardia emaue pihorc engana ez citçaten.

6. Ecen hainitz ethorrico dira ene icenean, diotelaric; ni *naiz Christo* naijena, eta hainitz enganatuco dituzte.

7. Bada ençuten ditutquenean gueriac eta guerletaco arrabaxac, ez çaitztele icit; ceren gauça horiec ethorri behar baitira; bai-

nan ez da oraino akhabanca içanen.

8. Ecen yendaquia bat alchatuco da bertce yendaquia batzen contra, eta erresuma bat bertce erresuma baten contra ; eta içanen dira lur iharac leku batetaric berteerat, eta gosseteac eta nahasqueriae; gauça hauez dira lehen oinhaceac baicen içanen.

9. Bainan guardia emaue çuen buruei ; ecen libratuco çaitztele Auzbaquidei eta Synagoguei ; açotatuac içanen çarete eta Gobernadoren eta Erreguen aitcinerat eremanac, ene gatic eta heyei lekhucotasunçat içaiteco.

10. Bainan lehenic Ehanye-liao predicatuă içan behar da yendaquia gucietan.

11. Eta cremaiten çaitztele-nean çuen libratceco, ez çaitztele eman penetan cer içanen duçuen erraiteco ; eta ez haren gainean gogoetaric egun ; bainan erraiteco emanac içanen çaitçuen guciac orduan, erran çatçue ; cergatic ez çarete quec minço, bainan bai Izpiritu Sain-dua.

12. Bada anayac igorrico du bere anaya heriotcera, eta aitac bere semea, eta haurrac alchatuco dira beren aiten eta amen

contra, eta hilaracico dituzte.

13. Eta guciez gaizetsiac içanen çarete ene icenaren gatic; bainan nore-ere iraunen baitu akhabançaraino, hora salbatua içanen da.

14. Bada ikhusten duquenean desolacionearen abominacionea Daniel Profetaz aiteinetic annontçatua içana dena, behar ez den lekhuan eçarria; (irakhuren dnenac, artha eguin beça!) orduan Judean dirence ihes eguin beçate mendietarat.

15. Eta etche gainean içaiten dena, ez bedi yaux etche barnera, eta ez bedi han sar, deusic eremaiteco bere etchetic.

16. Eta landa içaiten dena, ez bedi itçul guibelerat, bere arropen eremaiteco.

17. Bainan çorigaitz esperancetan içaiten direnençat, eta ama esnedunençat egun hetan.

18. Bainan othoitz eguiçue çuen ihesa ez dadin guertha ne-guan.

19. Ecen egun hetan atsekabobat içanen da, hain handia, nun ez baita içanen hora iduriric Jaincoac munduaren hastetio orai artean eguin dituen gaucez guerozlic, ez eta içanen guehiago hora beçalacoric.

20. Eta baldin ez balitu Jau-nac laburtu egun hec, ez cen-

içanen nihor salbaturie; bainan laburtu ditu egun hec, hautatu dituen berechien gatic.

21. Baldin orduan norbaitec erraiten badautçue; huna, Christo hemen da; edo horra, han da, ez hora sinhex;

22. Cergatic Christo falsuac alchatuco dira eta Profeta falsuac, miraculuac eta gaüca es-pantagarriac eginden dituztenac galarazteco hantatuac ere pos-sible baliz.

23. Bainan beguirea çaitetze hetaric; hunu, guciac erranen daitçuet aiteinetic.

24. Bada egun hetan, atsekabe horren ondotic, iguzquia belz-tuco da, eta ilharguiac ez du emanen bere arguia.

25. Eta ceruco içarrac erorico dira, eta ceruetan diren berthuteac khordocatuko dira.

26. Eta orduan ikhussieo dute guiçonaren semea hodoyen gainean ethorcen, bothere handi batequin eta loria bandi batean.

27. Orduan egorrico ditu bere Aingueruac, eta bilduco laurhaicetaco bere hautatuac, Jurreco buru batetaric ceruco bu-ruraino.

28. Bada ikhas çäue compa-racione hau hartua picotcetic; haren adarra icerditan denean, eta hostoac ékharcen dituenean,

egagutcen duçue uda hurbil dela.

29. Orobat, ikhusten duçue-nean gauça hauc ethorrico direla; yaquin çaque hurbil dela, eta atheau dela.

30. Eguiazqui erraiten daut-çuet yeneracione hau ez dela iraganen, nun ez diren gauça hauc guciac guerthatcen.

31. Cerua eta lurra iraganen dira, bainan ene hitçac ez dira iraganen.

32. Bada egun eta oren har-taz denaz; nihorc ez daqui; ez eta ceruan diren Aingueruec ere, ez eta Semeac ere, bainan *neure Aitac choilqui*.

33. Guardia emaque, egon çaitetzte iratçarriac; ecen ez daquique noiz ethorrico den dem-bora hura.

34. Hala nola guiçon batec camporat yoitean, eta etchea uztean, lana emaiten balu bere sehiei, eta bakhotchari bere e-guinbidea, eta manatcen balu atheçainari iratçarria egoiteaz.

35. Egon çaitetzte beraz iratçariac; ecen ez daquique noiz ethorrico den etcheeo Jauna, ala arraxean, ala gau erditan, ala oilarrac cantateen duen orenean, ala goicean.

36. Beldurrez ethoreen bada uste gabe, lo khaussi citçaten.

37. Bada erraiten daitçuedan

gauçae, erraiten ditut gaciei, çaudete iratçarriac.

#### XIV CAPITULUA.

*Jesus - Christo emazte batez gantçutua, manatcen du eta celebratcen Pazcoa. Cena saindua establitzen du; an-nontçatzen du bere Discipu-luei abandonatuco dutela, eta Gethsemaneco baratcean sartzen da; han hasten da haren pairacunza; guero har-tua, aucirat eramana eta Pierresez ukhatua.*

1. Bada Pazcoa eta alchagar-riric gabeco oguien besta bi egünen burnan cen, eta Sacrificat-çaire aitcindariec eta Scribauee bilhatzen çuten nola hâtceman ceçaqueten Jesus amarruz eta nola hilaracico çuten.

2. Bainan erraiten çuten, ez bestac diraueno, beldurrez içan dadin assaldura populuaren artean.

3. Eta nola Bethaniæn baitcen Simon lapradunaren etchean, eta mahainean baitcen, ethorri cen barat emazte bat, cimac baitçuen albatrazco yarrobat, unguentu berechi eta precio handico batez bethea, eta hauxi çuen hura, eta ichuri unguen-tua Jesusen buruaren gainerat.

4. Eta hetaric cembait gaitei-

tuac içan ciren beren baithan,  
eta erraiten çuten : cergatic hola  
gal ussain balios hau?

5. Ecen saldua içan çaitequen  
hirur ehun diru peça baino gue-  
hiago, eta emana pobrei. Guisa  
huntan errecurateen ciren e-  
mazte haren contra.

6. Bainan Jesusec erran cio-  
ten : utz çaque. Cergatic emaiten  
dioçue nahigaberic? eguinza on  
bat eguin duene alderat.

7. Ceren içanen ditutçue bethi  
pobreac çequin, eta ongria  
eguin ahal dioçoçue, nahi du-  
cuen aldi guciez; bainan ez nau-  
gue ni içanen bethi.

8. Eta eguin du ahal çuena ; ait-  
cinetic gantçetu duene gorput-  
ça ene ehorsteco preparuarençat.

9. Eguiazqui erraiten daut-  
çuet, Ebanyelio hau predicatu  
içaiten den lekhuguetan ; e-  
guin duen hau ere aiphatua iça-  
nen da hunen orhoitçapenetan.

10. Orduan hamabietaric bat,  
Judas Iscariota yoan cen Sacri-  
ficiatçaille Aitcindarietarat, hau  
heyei libratceco.

11. Hauc ençutean bozcariotu  
ciren, eta hitceman cioten diru  
emaiteco, eta bilhatcen çuen cer-  
guisaz libratuco cioten errech-  
qui.

12. Bada ogui alchagarriric  
gabeco lehen bicio egunean ,

ceintan sacrificatcen baitcen Paz-  
coa, bere Discipuluac ethorri  
çaizcon, nunnahi duçu presta  
deçagun Pazcoa?

13. Eta egorri cituen bere  
Discipuluetaric biga, eta erran  
cioten : çozte hirirat, eta et-  
horrico çautçue guicón bat bi-  
dera, pegar ur bat buruan, se-  
gui çaque.

14. Eta nun nahi sar dadin,  
erroçue etcheco Nagusiari; Na-  
gusiac dio nun da Pazcoa yanen  
dudan lekhua neure Discipulue-  
quin?

15. Eta erakhutsico dautçue  
gambarra handi bat edertua eta  
aphaindua; han prepara guçue  
Pazcoa.

16. Yoan ciren beraz haren  
Discipuluac; eta hirian sarthu-  
ric, khaussitu cituzten gauça  
guciak, erran cioten beçala, eta  
preparatu çuten Pazcoa.

17. Eta arrax apalean, Jesus  
ethorri cen bere hamabiequin.

18. Eta mahainean cirelaric  
eta yaten ari cirelaric, Jesusec  
erran cioten : eguiazqui, errai-  
ten dautçuet, çuetaric batec,  
enequin yaten duenac, trahituko  
nauela.

19. Eta tristatcen hassi ciren;  
eta hetaric bakhotchac erran  
cion; ni naiza? eta bertceac, ni  
naiza?

20. Bainan ihardetsi çuen, eta erran cioten : hamabietaric bat da enequin escua platean eçarcen duena.

21. Eguiaz, guiçonaren Semea yohan da, escribatua den arabera; bainan çorigaitz guiçonari, ceintaz guiçonaren Semea trahitua baita : hobe çaitequen guiçon harençat sorthu içan ez baliz.

22. Eta nola yaten hari baitciren, Jesusec hartu çuen ogua, eta Jaincoa benedicatu ondoan, hauxi çuen, eta eman cioten, eta erran : har çaque, yan çaque, hau ene gorphutça da.

23. Guero harturic khalitça, esquerrac bihurtu cituen, eta eman cioten : eta guciec edan çuten hartaric.

24. Eta erran cioten : hau ene odola da, Testament berrico odola, hainitcençat ichuria dena.

25. Eguiazqui erraiten dautçuet, ez dudala guehiago edanen mahastico fruitutic, Jaincoaren Erresuman berritan edanen du dan egnneraino.

26. Eta cantatu çutenean canticia, yoan ciren Olibetaco mendirat.

27. Jesusec erran cioten : guciac scandalisatuac içanen çarete gau huntan enegatic; ecen escribatua da : yocø dut arçaina,

eta ardiac barrayatuac içanen dira.

28. Bainan berriz pizten nai-cenean, çuen aitcinean yoanen naiz Galilearat.

29. Eta Pierresec erran cion : guciac scandalisatuac balire ere, ez naiz bada ni içanen.

30. Eta Jesusec erran cion : eguiazqui erraiten dautçuet, e-gun, gau huntan berean, oillarrac bi aldiz cantatuco duen baino lehen, ukhatuco nauçula hirur aldiz.

31. Bainan Pierresec erraiten çuen oraino borthizquiago : hil behar banitz ere çurequin, ez çaitut ukhatuco; eta guciec erran cioten gauça bera.

32. Handie ethorri ciren Gethsemane deitcen den lekhu batera, eta erran çuen bere Discipuluei; yar çaitezte hemen, othoit e-guin dodau artino.

33. Eta hartu cituen berequin Pierres eta Jacques eta Joannes, eta bassi cen lazten eta hainitz khechatcen;

34. Eta erran cioten : triste da ene arima heriotceraino, egon çaitezte hemen, iratçarriac.

35. Guero yoanic aiteinago, ahuzpecatu cen, eta othoit e-guiten çuen; baldin possible bacen, orena iragan çadin haren guibelerat.

36. Eta erraiten çuen : Abba, Aita, gauça guciac çuri possible çaitçu, eramaçu khalitz hau ene guibelerat ; guciagatic, ez nic nahi dudana, bainan çuc nahi duçuna.

37. Guero itçuli cen, eta khaussitu cituen lo; eta erran cion Pierresi : Simon lo çaudea? ezcin beilatu duçua oren bat?

38. Çaudete iratçarriac, eta othoitz eguiçue, ez çaitezten tentacionetan sar; ecen izpirituaz denaz, ernea da, bainan haraguia flacoa da.

39. Eta yoan cen oraino, eta othoitz eguin çuen, erraiten ci-tuelaric hitz berac.

40. Berriz itçuliric, hatceman cituen lo çaudela, ecen heyen beguiac pissatuaç ciren; eta ez çaquiten cer ihardets.

41. Ethorri cen oraino hirur garren aldico, eta erran cioten : eguiçue lo hemendic harat, eta pauza çaitzte; asqui da; orena ethorri da; huna, guïçouaren Semea libratua içaiterat doha gaistoen escuetara.

42. Yaic çaitzte, goacen, huna, trahitcen nauena, hurbilcen da.

43. Eta berehala, minço celaric oraino, Judas, hamabieta-ric bat ethorri cen, eta barequin yendetce handi bat ezpatequin

eta makhiilequin, Sacrificatçaille aiteindarien, eta Scribauen, eta Çaharren phartez.

44. Bada trahitcen çuenac e- man çuen seinale bat heyen ar-tean, cioelarie : mussu emanen diotana, hora da, har çaque, eta eramaçue segurqui.

45. Ethorri cenean beraz, hup bildu cen berehala haren ganat, eta erran cion : Nagusia, Nagusia, eta mussu eman cion.

46. Orduan eçarri cituzten es- cuac Jesusen gainean, eta hartu çuten.

47. Eta han cirenetaric batec athera çuen here ezpata, eta har- taz yo çuen Sacrificatçajle Na- gusiaren sehia, eta ebaqui cion beharri bat.

48. Orduan Jesusec hartu çu- en hitça, eta erran cioten : athe- ra çaretea ohoin baten ondotic beçala, ezpatequin eta makhi- lequin ene harcerat?

49. Egun guciez çuyequin nintçan, irakhasten nuela Tem- pluan, eta ez nuçue hartu; bai- nan haue guciac guerthatu dira, Escriturac içan diten compli- tuac.

50. Orduan *Discipulu* guciez abandonatu çuten, eta ihes e- guin.

51. Eta guïçon gazte batec seguitcen çuen, mihise batez

inguratua gorphutz buluciaren gainean, eta cembait guion gaztec hartu cuten hau.

52. Bainan utciz bere mihi-sea, hetaric ihes egun çuen bu-lucia.

53. Eta eraman cuten Jesus Saerificatçaire Nagusia ganat ; ceinaren etcherat bildu baitciren Saerificatçaire Aitcindari guiac, Caharrac eta Scribauac.

54. Eta Pierresec seguitcen çuen urrundanic Saerificatçaire Nagusiaren gorteraino ; eta yarri cen sehicquin, eta berotcen harri cen su ondoan.

55. Bada Saerificatçaire Aitcindariec eta Conxeilu guiac bil-hateen cuten cembait lekhucotasun Jesusen contra , hunen hilarazteco , bainan ez cuten khaussitcen.

56. Cergatic hainitcec lekhucotasun falsuac erraiten cituzten haren contra ; bainan lekhucotasunac ez ciren asquitsuac.

57. Orduan cembait alchatur ciren, eta ekharri cituzten lekhucotasun falsuac haren contra , ciotelaric :

58. Ençun dugu cioela : de-seguinen dut Templa escuz eguna den hau , eta hirur egunez alchatuco dut bertce bat, escuz eguna içanen ez dena.

59. Bainan oraino hec guiac-

gatic, heyen lekhucotasunac ez ciren asqui.

60. Orduan Saerificatçaire Nagusia alchaturic erdian, interroatu çuen Jesus ,cioelaric : ez duçu deusic ihardesten ? cer lekhucotasun erraiten dute hauyec çure contra ?

61. Bainan Jesus ichildu cen , eta ez çuen deusic ihardetsi. Saerificatçaire Nagusiac interroatu çuen oraino , eta erran cion : Christo çarea , Jainco benedictuaren Semea ?

62. Eta Jesusec erran cion : hura naiz ; eta ikhussico duçue guionaren Semea yarria Jaincoaren puchantziaren escuaean , eta ethorcea ceruco lanhoen gainean.

63. Orduan Saerificatçaire Nagusiac urratu cituen bere arropac , eta erran : certaco behar dugu guehiago lekhudori ?

64. Ençun duçue blasfemioa , cer iduriteen çautçue ? Orduan guiee condenuatu cuten heriotceaz hobendun.

65. Eta cembait hassi ciren thu eguiten haren gainerat, eta hari bisayaren estalceen , eta beharondoco emaiten ; eta erraiten cioten : profetisa çac ; eta sehic yoten cuten beren cihorrez.

66. Bada Pierres beherean ciolaric bassacortean , Saerificat-

çaille Nagusiaren nescatoeratic  
bat ethorri cen.

67. Eta ikhussi çuenean Pierres berotcen hari cela, behatu  
cion bisayarat, eta erran : eta  
ça, Jesus Nasarengoarequin ci-  
nen.

68. Bainan ukhatu çuen, cioe-  
laric : ez dut eçagutcen, eta ez  
daquit cer erraiten duçun; gue-  
ro yalgui cen camporat athe ar-  
terat, eta oilarrac cantatu çu-  
en.

69. Eta nescatoac berriz be-  
haturic, hassi cen han cirenei  
erraiten : hau yende hetaric  
da.

70. Bainan ukhatu çuen bi-  
garren aldian. Eta oraino, han-  
dic laster, han cirenec erran  
cioten Pierresi : segurqui, çu-  
yende hetaric çare; ein Gal-  
leacoa çare; eta çure minçayac  
heyena iduri du.

71. Orduan hassi cen bere bu-  
ruaren madaricatcen, eta cine-  
quin erraiten; ez dut eçagutcen  
minço nauçuen guion hori.

72. Eta oilarrac cantatu çuen  
bigarren aldico; eta Pierres or-  
hoitu cen Jesusec erran cion  
hitçaz: oilarrac bi aldiz cantatu-  
co duen baino lehen, ukhatuco  
nauçu hirur aldiz, eta camporat  
atherarie nigar eguiñ çuen.

## XV CAPITULUA.

*Jesus - Christoren accusacione-  
az, condenacioneaz, paira-  
cunçaz, heriotceaz eta ehors-  
teaz.*

1. Eta goiça ethorricen becen  
laster, Sacrificatçaire Aitcinda-  
rieç Çaharrequin eta Scribaus-  
quin, eta Auzbaquide guciare-  
quin, conxeilua atchiquiric, es-  
tecaraci çuten Jesus, età libratu  
Pilatusi.

2. Eta Pilatusec interroatu çu-  
en, cioelaric : Juduen Erreguea  
çarea? Eta Jesusec ihardetsi cion  
eta erran : çuc hala dioçu.

3. Bada Sacrificatçaire Aitein-  
darieç hainitz gaucez accusat-  
cen çuten, bainan ez çuen deusio  
ihardetsi.

4. Eta Pilatusec galdeguin cion  
oraino, cioelaric: ez duçu deusio  
ihardesten? behaçagu cembañ le-  
khucotasun ekharcen duten çure  
contra.

5. Bainan Jesusec ez çuen orai-  
no deusic ihardetsi; nun Pilatus  
estonateen baitcen.

6. Bada bestan libro uzten ci-  
oten presuner bat, cein nahi galda  
çeçaten.

7. Eta bacen bat Barrabas  
iceña çuena, présuner cena be-  
re gaistaquidéquin, nahasmen-  
du baten gatic, nun heriotce ba-

15 Cap.

tez hoguendun eguin baitciren.

8. Eta populua hassi cen oihua galdeguiten *Pilatusi eguin ceçan* bethi eguin cioten beçala.

9. Bainan Pilatusec ihardetsi cioten : nahi duçue libro igor deçautçu dan Juduen Erreguea?

10. ( Ecen ongui baçaquien Sacrificatçaire Aitcindariec becaiztasunez libratu çutela ).

11. Bainan Sacrificatçaire Aitcindariec populua berotu çuten galdeguiteco igor ceçan lehenago Barrabas.

12. Eta Pilatusec ihardetsiric erran cioten oraino : cer nahi duçue eguin deçadan Juduen Erreguea deitcen duçuenaz?

13. Eta berriz oihu eguin çuten : khurutcefsica çäu.

14. Orduan Pilatusec erran cioten : bainan cer gaisqui eguin du? eta oihu eguin çuten gorago : khurutcefsica çäu.

15. Pilatusec beraz nahiz atseguin eguin populuari , libro utci cion Barrabas , eta açotaraci ondoan Jesus , libratu çuen khurutcefsicatu içaiteco.

16. Orduan soldadoec eraman çuten gorterat , ceina baita hirico Aitcindariaren Palacioa ; eta tropa gucia harat bilduric ;

17. Eçarri cioten gainetic arropa bat purprezoa ; eta eguinie elhorriz beren artean khurutça-

tuzco korobat ; eçarri cioten buruan.

18. Guero hassi ciren haren salutatcen , ciotelaric : Agur , Juduen Erreguea :

19. Bainan yoten çuten buruan kanabera batez , eta thu eguiten çuten haren gainera , eta belhauricaturic , ahuzpecatcen ciren haren aitcinean.

20. Eta hartaz *guisa huntan* trufatu ondoan , buluci çuten purprezco arropetaric , eta beztitu çuten bere arropez , eta eraman çuten khurutcefsicatu icai-teco.

21. Eta borchatu çuten *guicon* bat , Simon *deitcen cena* , Cirenecoa , Alexandreen eta Rufusen aita , han *gaiudi* iragaiten cena , landetaric etcheracoan , haren khurutcearen ekharcera.

22. Eta eraman çuten Golgotha *icena duen* lekhurat , erran nahi da , calbariorat.

23. Eta eman cioten edaterat arnoa , myrrharequin nahastecatua ; bainan ez çuen edan.

24. Eta khurutcefsicatu çuten ondoan , erdizcatu cituzten haren arropac sorteau aurthiquiz , yaquiteco cer içanen çuen bakhotchac.

25. Bada hirur garren orena cen hura khurutcefsicatu çutean.

36. Eta condenacionearen arraçoina dauquitzen cuen iscribua, cen : JUDUEN ERREGUEA.

27. Harequin khurutceficatu cituzten bi ohoine, bat baren escunean, eta bertcea ezquerrean.

28. Eta hola complitu cen Escritura, erraiten duena; eta gaistaguinen artean eçarria içanda.

29. Eta hurbildanic iragaiten cirenec, escarniatcen çuten, ibilzen çutelaric burua, eta ciotellaric : he! hi Templa deseguiten ducana, eta berriz alchatzen hirur egunez,

30. Itçur hadi heroni, eta yauts khurrutcetic.

31. Orobate Sacrificalçile Aitcindariac trufatzen cirelaric Scribaequin, erraiten çuten elgarri: bertceac salbatu ditu, ez daiteque bera salba.

32. Christo Israeleco Erreguea yauts bedi orai khurutcetic, ikhus deçagun eta sinhex! haren khurutceficatuac cirenec ere escarniateen çuten.

33. Bainan seigarren orencan, ilhumbe egun çuen herri guietan bederatci garren oreneraino.

34. Eta bederatci orenetan Jesusec oihu egun çuen gora, erraiten çuelaric : Eloï, Eloï;

<sup>15 Cap.</sup>  
lamma sabachtani? erran nahi da : ene Jaincoa, ene Jaincoa! certaeo abandonatu nauçu?

35. Han aurquitzen cirenelic cembaltec ençunic hori, erran çuten : horra, oihu eguiten du Eliasi,

36. Eta batec laster egun çuen, eta esponya bat belhe çuen arno minduz, eta hura eçarriric sesta baten puntan, eman eion hartaric edaterat, erraiten çuelaric : utz çaque, ikhun deçagun Elias ethorrico denez, hunen khurutcetic khencerat:

37. Eta Jesusec oihu handi bat egüninc, aurthiqui çuen azquen hatsa.

38. Eta Templuco bela urrata cen eta bi çathi egun gainetik behereraino.

39. Eta haren aitcinean cen Capitainae, ikhussiz azquen hatsa aurthiqui çuela, guisa hartsa oihu egunez, erran çuen: segurqui guicon hori Jaincoaren se mea cen.

40. Baciren ere han emazte cembait urrundanic beha çaudenac, ceinen artean baitciren Maria Magdalena, eta Maria Jacques gaztenaren eta Josesen ama eta Salome.

41. Ceinec Galilean celaric seguitu bañutzen, eta cerbitçatu; bacen ere han bertee hainita

emazte harequin igan cirenac  
Jerusalemerat.

42. Eta arrexa ya ethorri ce-  
nean, errepausaitcineco aphain-  
dura baitcen;

43. Joseph Arimatheacoa,  
conxeiluco guiçon ohoratu bat,  
ceinac ere iduriquitcen baitœuen  
Jaineoaren Erresuma, atrebitu-  
ric, ethorricen Pilatusen ganat,  
eta galdeguin cion Jesusen gor-  
phutea.

44. Eta Pilatus estonatu cen  
hura ya hilic; eta deithuric Ca-  
pitaina, galdeguin cion baçue-  
nez dembora hainitz hila cela.

45. Hori yaquinic Capitaina  
ganic, eman cion gorputça  
Josephi.

46. Eta Josephec mihise bat  
erosiric, yautsi çuen khurutce-  
tic, eta mihiseaz inguratu, eta  
eçarri çuen hobi batean harro-  
can eguna, guero harri bat her-  
restatu çuen hobiaren sarcean.

47. Eta Maria Magdalena,  
eta Maria Josesen *ama* beha-  
çauden nun eçarcen çuten.

## XVI CAPITULUA.

*Jesus-Christoren hiletaric piz-  
tea, aguerçapena eta cerurat  
igaitea.*

1. Bada errepausuco eguna  
iragan cenean, Maria Magdale-  
na et Maria Jacquesen *ama*,

eta Salomec erosi çuten cembait  
licurta haren balsamutcerat et-  
horceco.

2. Eta hainitz goiz, astearen  
lehen egunean, ethorri ciren  
hobirat, iguzquia athera on-  
doan.

3. Eta erraiten çuten beren  
artean, nore pirriquitatuco de-  
raucu hobian sarceco harria?

4. Guero behaturic, ikhussi  
çuten harria, herrestatua cela;  
ecen hainitz cen handia.

5. Guero hobian sarthuric,  
ikhussi çuten guiçon gazte bat  
escuneco aldean yarria, arropa  
churi batez estalia, eta harritu  
ciren.

6. Bainan erran cioten: ez çai-  
teztela icit; Jesus Nazarenecoa  
khuruteficatuca içan dena bil-  
hatcen duçue; piztu da, ez da  
hemen; huna hura eçarri çuten  
lekhua.

7. Bainan çoazte, erroçue ha-  
ren Discipuluei, eta Pierresi;  
yoan dela çuen aitcinean Galile-  
rat; han ikhussico duçue; er-  
ran dautçuen arabera.

8. Ordu berean athera ciren,  
eta ihes egunin çuten hobitic;  
ecen ikharraceta beldurrac har-  
tu cituen, eta deusic ez çuten  
erran nihori, cergatic beldur  
baitciren.

9. Bada Jesus pizturic aste le-

hen egun goicean, aguertu cen lehenic Maria Magdalenari; ceinaren ganic khendu baitcituuen çazpi demonio.

10. Eta yoan cen, eta anontçatu çuen barequin içan cirenei, ceina doluan eta nigarretan baitcauden.

11. Bainan ençun çutenean erraiten bici cela, eta Maria Magdalenac ikhussi çuela, ez çuten sinhetsi.

12. Guero aguertu cen bertce itchura batetan hetaric bier, ceinac bidean baitciren landerat yohan.

13. Eta hauc itçuliric, anontçatu çuten bertcei; eta ez cituzten hec ere sinhetsi.

14. Azquenean aguertu cen hamequei, ceinac elgarrequin yarriac baitciren, eta erreprochatu cioten heyen sinhets gabetasuna eta heyen bihotz gogortasuna, ceren ez cituzten sinhetsi hura pizten ikhussi çutenad.

15. Eta erran cioten : çoazte

munduco lekhu guciatarat, eta adiarazçaue Ebanyelio creatura guciei.

16. Eta norc-ere sinhetsi içan baitu eta bathayatua içan baita, salbatua içanen da; bainan sinhetsi ez duena, damnatua içanen da.

17. Eta hunia sinhetsi dutenac lagunduaco dituzten miraculiac; demonioac cassatueo dituzte ene icenean; eta lenguaya berriez minçatuco dira;

18. Escuz hartuco dituzte sngueac, eta edan dutenean cerbait hilgarri, ez diote gaitz egunen; erien gainean pausatuco dituzte escuac, eta sendatuac içanen dira.

19. Bada *hola* minçatu ondoan Jauna heyei, goiti alchatura içan cen cerurat, eta yarri cen Jaincoaren escunean.

20. Eta yoanic, predicatu çuten lekhu guciatan, eta Jauna hari cen heyequin batean, eta fingatcen çuen hitça hau lagunen çuen miraculuez.

## EBANYELIO SAINDUA,

S. LUKE,  
ARABERA.

## I. CAPITULUA.

*Aingueraaren aguerçapena Zachariari, Mariaren Anunciacionea, Bisitacionea, eta Canticoa; Joannesen sorcea, eta Zachariaren Profecia.*

1. Ceren hainitzee artharequin ecarri baitute herronean gure artean ossoqui segurtatuac ian diren gaucen condu bat.

2. Guri adiaraci daucuten becala ikhussi dutenec berec hastetic, eta hitçaren ministro içan direnec;

3. Neroni ere iduri içan çaut ongi, gauça guciac artharequin ikhartu ondoan hastetic, gainditu Theofila, hetaz çuri escribatea herroncan.

4. Amoreagatic eçagut decaşun erranac içan çaltçun gaucen segurtantça.

5. Herodes Judeao Erreguearen demboran, baeen Saerifi-

catçaille bat Zacharias icena queña, Abiasen herroncacoa; eta haren emaztea Aaronen alabatric cen; eta haren icena Elizabeth cen.

6. Eta biac yustuac ciren Jaincoaren manamendu gucietan ibiliz, eta Jaunaren manacunza gucietan; eta estacururic gabe ciren.

7. Eta ez çuten haurric, ciren Elizabeth agorra baiteen, eta hainitz çahartuac baitciren.

8. Bada guerthatu cen Zachariac apeztassuna eguiten çuela ric, Jaunaren aitcinean, bere aldian;

9. Apeztassuneco costumaren arabera: chortean erori cela usain: goçoaren ofritceco, eta *halal* Jaunaren Templuan sartceco.

10. Eta yende guciac campoan ciren othoiteetan, usaingoçoa ofritcoen çuten orenean.

11. Eta Jaunaren Aingueraua aguertu çacon, usain goçoco al-darearen escuneco aldean çagola chutic.

12. Eta Zacharias trublatu cen, hora ikhussi çuenean, eta beldurrez laztu cen.

13. Bainan Ainguerauc erran cion : Zachariaz, ez içan beldur-ric, ecen çure othoitça ençuna da, eta Elizabeth çure emaztea erdico çautçu seme batez; eta deithuco duçu haren icena Joannes,

14. Eta çure bozcarioa eta çure allegrantcia içanen da; eta hainitçac bozciariatueo dira haren sortceaz :

15. Ecen handia içanen da Jaunaren aitcinean; eta ez du edanen ez arnoric, ez licurric; eta Izpiritu Sainduaz içanen da betheia amaren sabeletic beretic.

16. Eta hainitz Israeleco haur conbertitu ditu bere Jainco Jaunari.

17. Ecen yoanen da haren aitcinean Eliesen izpirtiuaz, eta berthuteaz : *indartua*, amoreagatio bihur ditçan aiten bihotçac haurren ganat, eta erreclatuac yustuen çuhurciarat, Jaunari preparateeco populu bat ongi dispositua.

18. Orduan Zachariasec erran cion Ainguerauri : nola eçagu-

tuco dut? ecen çaharra naiz, eta ene emazteac adin handia du.

19. Eta Ainguerauc ihardes, tean erran cion : Gabriel naiz Jaincoaren aitcinean chutic na-gona, eta çure mintçatcerat egorria içan naicena, eta berri on hoyen çuri adiarazterat:

20. Eta huna, içanen çare mintçatu gabe, eta ez çare mintçatuco ahal, gauça hauc elherico diren eguneraino : cergatic ez baititutçu ene hitçac sinhetzi, ceinac içan baitira complituac beron demboran.

21. Bada populuac iguriquitcen çuen Zacharias, eta estonatcen ciren, ceren hain bertce berancen çuen Templuan.

22. Bainan athera cenean, ez çaitequen heyci mintça, eta eçagutu çuten ikhussi çuela cembait itchurapen Templuan; ecen aditcerat emaiten cioten seinalez; eta guelditu cen hitça gabe.

23. Eta guerthatu en haren ministerioco egunac akhabatu cirenean, bere etcherat itçuli cela.

24. Eta egun heyen ondotic, Elizabeth haren emazteac concebitu çuen, eta gorde cen boriz hilabethez ; cioelaric :

25. Gero Jañae hola eguita baitu eneqsai behatu naucu e-

gunetan, neure laidoaren khen-  
tuco guiconen artetic.

26. Bada sei garren hilabet-  
hean, Ainguero Gabriel egorria  
içan cen Jaincoaz Galileaco,  
hiri batetarat, Nazareth deit-  
hua,

27. Biryina baten ganatescont-  
çaz hiteemana Joseph icena çuen  
guicon bati, ceina baitcen Da-  
viten familiatio, eta Biryinaren  
icena Maria cen.

28. Eta Ainguera sarthuric  
hura cen lekhuan, erran cion :  
ô, çu graciā errecebitua *carea-*  
*na*; Jauna da curequin : ben-  
dicatua çare emazte gucien ar-  
tean.

29. Eta *Mariac* ikhussi que-  
nian, assaldatu cen hitz hauyen-  
gatic : eta bere baithan betuzten  
çuen cer cen agur hau?

30. Eta Ainguerae erran  
cion : Maria, ez içan beldurri ;  
ecen aurqnitu duçu gracia Jain-  
coaren aitcinean.

31. Eta huna, concebituco  
duçu çure sabelean, eta içanen  
duçu somenhat, eta deithuko  
duçu haren içena Jesus.

32. Handia içanen da, eta  
Oroetacoaren Semea deithua,  
eta Jainco Jaunac emanen dio  
David here aitaren tronua.

33. Eta Jacoben etchearen  
gainean erreynatuco du bethi;

eta haren erreynuac ez du iça-  
nen akhabantçaric.

34. Orduan Mariac erran cion  
Ainguerueari : nola ethorrico da  
hau, ez dut eta eçagutœn gui-  
conic ?

35. Eta Ainguerae ihardes-  
tean erran cion : Izpiritu Sain-  
dúa guerthatuco da çu baithan ;  
eta Oroetacoaren indarrae uga-  
rituco çaitu ; hortacotz çure ga-  
nic sorthuko dena Saindúa, iça-  
nen da deithua Jaincoaren Se-  
mea.

36. Eta huna, Elisabeth, çuro  
ahaideac concebituco du orobat  
seme bat here çahartcean ; eta  
hemen da agorra deithua cena-  
ren esperancetaco seigarren hi-  
labethea.

37. Ecen dencic ezda ecin ahab  
içanen Jaincoari.

38. Eta *Mariac* erran çuen :  
huna Jaunaren nescatoa ; egun  
bedit çure hitçaren arabera ! eta  
Ainguera yoan cen haren ga-  
nic.

39. Bada egun hétan Maria  
alchatu cen, eta yoan cen lehiaca  
leku mendixu Judeaco hiri ba-  
tetarat.

40. Eta sarthu cen Zacharia-  
ren etchean, eta agurtu çuen  
Elizabeth.

41. Eta guerthatu cen Eliza-  
bethec ençün çuen becen laster

Mariaren agurteea, haurthoac yauci egun çuela haren sablean; eta Elizabeth bethea içan cen Izpiritu Sainduaz.

42. Eta oihu egun çuen gorraqui, eta erran: benedicatua çare emazien artean, eta benedicatua da çure sabeleco fruitua.

43. Eta nundie heldu çaut hau, Jaunaren ama ni ganat ethorteea?

44. Ecen huna, çure agurteeco boça ethogri den becen laster ene beharrietara, haurthoac yauci egun du bozcarioz ene sablean.

45. Bada ongui dohaxua da sinhetsi duena; ecen Jaunaz erranae içan diren gaucec içanen beren osandea.

46. Orduan Mariac erran çuen; ene arimae gorateen du Jauna.

47. Eta ene izpiritua allegueratu da Jaincoan, ceina baita neure Salbatçaillea.

48. Ecen behatu du bere nescatoaren beheratasunari; huna, eguiaz, hemendic aitcina adin guciec deithuco naute ongui dohaxua.

49. Ecen botherexuac gauça handiac egun deraizquit, eta haren icena Saindu da.

50. Eta haren misericordia ethorquitic ethorquia haren beldur direnençat da.

51. Botheresqui eraguin du

bere besnaz; herraustu ditu soberbios cirenac beren bihotcen gogoetan.

52. Botheretsuac aurthiqui ditu beren tronuetaric, eta alchatu ditu aphalac.

53. Onthasunez bethe ditu gose cirenac; aberaxac igorri ditu hutsic.

54. Lagundi du bere bothe, reaz Israel bere cerbitçarria, haren misericordiaz orhoit çadin;

55. (Huntaz mintçatu deo araberu gure aitei, *halā nola Abrashami* eta haren ondocoei) bethicotz:

56. Eta Maria egon cen harquin hirur hilabetheren insuruna; guero itçuli een bere etcherat.

57. Bada Elizabethen erditceco dembora bethe cen: eta seme batez erdi cen.

58. Eta haren auçoce, eta haren ahaidec adituric Jaunac goratu çuela bere misericordia haren alderat, bozciariateen ciren haretzin.

59. Eta guerthatu een çortei garren egunean ethorri cirela haur thiapiari Circoncisionearen eguiteco, eta Zacharia deitcen çuten, bere aitaren icenaz.

60. Bainan haren amae hartu çuen, hitça, eta erran: ez, bainan içanen da deithua Joannes.

1 Cap.

61. Bainan erran cioten : ezda  
nihor çure ahaidetan icen hori  
duenic.

62. Orduan kheinu egun ciot-  
ten haren aitari : erran ceçan no-  
la nahi çuen içan çadin deithna.

63. Eta Zachariasee galdegi-  
nic esribatceco mahainac es-  
ribatu çuen : Joannes da horren  
icena; eta guciac estonatu ciren.

64. Eta berehala haren ahoa  
idequi cen, eta haren mihia *cal-  
hutu*, halaco guisaz num mintço  
baitcen laudatceu çuela Jain-  
coa.

65. Eta auço guciac beldurrac  
hartu cituen ; eta gauça hauc  
guciac hedatuac içan ciren Ju-  
deaco mendi gucietan.

66. Eta hec ençun cituzten  
guciec, eman cituzten beren bi-  
hotcean, ciotelaric : cer içanen  
da haur thiipi huntaz ? eta Jau-  
naren escua hunequin cen.

67. Orduan Zacharias haren  
aita bethea içan een Izpiritu  
Sainduaz, eta profetisatu çuen,  
cioelaric :

68. Benedicatua içan bedi Jau-  
na Israeleco Jaincoa, ceren bi-  
sitatu duen eta eroşı bere po-  
palua ;

69. Eta ceren eman deraueun  
Salbatçaille botherexu bat David  
bere cerbitçariaren etchean.

70. Profeta saindu bethi danic

içan direnen ahoz erran çuen ara-  
bera.

71. Salbatuac içanen garela  
gure etsaien *escuz*, eta gu gait-  
cesten gaituzten gucien escuz ;

72. Haren misericordia gure  
aiten alderat ibilcatceco, eta  
haren legue sainduaren orhoit-  
çapena içaiteco ;

73. Abraham gure aitari egun  
dion cinaren *arabera*.

74. *Erran nahi baita*, egui-  
nen çuela, gure etsaien escutic  
gu libratu ondoan, cerbitçatueó  
guinuela beldurric gabe,

75. Saindutasunean eta çu-  
centasunean haren aitcinean,  
gure bicico egun gueiez.

76. Eta çu haurthoa, deithua  
içanen çare Oroetacoaren Pro-  
feta ; ecen Jaunaren aiteinean  
yoanen çare, haren biden ap-  
hainceco.

77. Eta salbamenduco eça-  
gutçaren emaiteco haren popu-  
luari ; beren bekhatuen barkha-  
mendutçat.

78. Gure Jaincoaren miseri-  
cordiaren bihotçaz, ceintan gai-  
neco iguzqui atheratceac bisitatu  
baicaitu.

79. Amoreagatic ilhumbetan  
eta hilceco itçalean direnac ar-  
gui ditçan, eta gure urlatsen  
guidatececo bakezeo bidean.

80. Eta haurthoa handitcen

cen eta borthizten' izpirituz ; eta desertuetan egon cen Israëli era-kutsia içan behar cen egunera ino.

## II CAPITULUA.

*Jesus-Christoren sortcea, anoniacionea eta Circoncisionea Bethlehemen, Jerusalemen presentatua Templuan, eta Simonez celebratua, etc. — Nazaretherat eramana, han-ditzen da prestutasunean.*

1. Bada guerthatu cen egun hetan manacunça bat hedatua içan cela Cesar-Augusteren phatez, ekharteen quena içan citen guciac iscribuz emanac.

2. Eta lehen iscribuz emaita hura eguna içan cen Cyreniusec Syriaco gobernuia quenean.

3. Hortacotz guciac yoaiten ciren iscribuz emanac içaiteco, bakhotcha bere hirian.

4. Eta Joseph igan cen Galileatic Judearat, erran nahi da, Nazaretheco hiritic Daviten hirirat, Bethlehem deithua, Daviten etchetic eta familiatio eelacotz;

5. Iscribuz emana içaiteco Maria esconteaz hitcemana içan cion emaztearequin, ceina esperantetan baitzen.

6. Bada guerthatu cen, han circlaric, haren erditceco dem-bora bethe cela.

7. Eta erdi cen bere seme le-henbicicoaz, eta toochatu çuen, eta etçan çuen othelaco batetan, cergicic ez baitzen heyençat lek-hurie ostatuan.

8. Bada baciren leku hetz arçainac landetan gaba iragaten çutenac eta gabazco orenetan beren arthaldea çaintzen çute-nac.

9. Eta huna Jaunaren Ainguerua ethorcerera guerthatu cen heganat, eta Jaunaren loriak dis-tiratu çuen heyen bazterretan, eta icialdura handi batez sesi-tuac içan ciren.

10. Bainan Ainguerruac erran cioten : ez çaitzete iot; ozen lu-na, ardiestan dautquet bozca-riozeo arraçoim handi bat, halacoa içanen dena populu gu-ciarentçat.

11. Cergicic Daviten hirian sorthu çautçuen Salbatçairen, ceina baita Christo Jauna.

12. Eta hau içanen çautçue seinaletçat, aurquitu duçuela haurthoa toochatua, eta othe-laco batean etçana.

13. Eta berehalala Ainguerruac requin içan cen ceruco armada handi bat, Jaineoa laudatzen quena eta erraiten :

14. Loria Jaineoari leku go-ren gorenetañ , bakea lurrcan eta gogo ona guiçonetañ !

15. Eta guerthatu een *heyeraric* igan cirenean cerorat, arçainec errançutela elgarri; goaçen beraz Bethlehemerat, eta ikuhs deçagun guerthatu den eta Jaunac erakutsi deraucun gauça hura.

16. Yoan ciren beraz lehia handirequin eta aurquitu çituzten Maria, eta Joseph, eta haurthoa othelacoan etçana.

17. Eta ikhussi çuten ondoan, hedatu çuten haurthoaren gai-nean errana içana ciotena.

18. Eta hauc aditu cituzten guciäc harritu ciren arçainec arran gaueez.

19. Eta Mariac beiratcen ci-tuen arthosqui gauça hauc guciäc, eta beregogoan ibilcen ci-tuen.

20. Guero arçainac içüli ci-ren lorificateen eta laudateen çutela Jaincoa ençün eta ikhussi cituzten gauça hetaz guciez, mintçatu ciozcaten arabera.

21. Eta çortci egunac bethe cirenean haurraren circoncisio-nea eguiteco, orduan haren içena deithua içan cen Jesus, ecinac ieendatua içan baitcen Ainguernaz, sabelean concebi-tua içan cen baino lehen.

22. Eta Marjaren garbitceco egunac bethe cirenean, Moisen legucaren arabera, eraman cu-

ten Jerusalemerat, Jaunari pre-sentatceco;

23. ( Jaunaren leguean iscri-batua den arabera ; muthilki lehen sorthu guciäc içanen di-rella ieendatuaç Sainduac Jau-nari ).

24. Eta Jaunaren leguean ma-natua den ofrendaren eskhint-ceco, ceina baita urço tortoil pare bat, eta bi urço ume.

25. Bada huna, Jerusalemen bacen guiçon bat Simeon icena çuena, eta guiçon hura çuceba cen eta Jaincoaren beldur, eta iguriquitcen çuen Israeleco at-seguida, eta Izpiritu Saindua hura baithan cen.

26. Eta abisatua içan cen ce-rrutic Izpiritu Sainduaz, ez cela hilien, nun ez çuen lehenic Jau-naren Christo ikhussi.

27. Hura beraz Izpirituaz era-mana ethorri cen Templurat, eta nola aitac eta amac ekhart-cen baitçuten Jesus haurra Tem-plurat, hartaz eguiteco legueco ohitçaren arabera.

28. Hartu çuen besuetan, eta benedicatu çuen Jaincoa eta er-ran :

29. Jauna, orai uzten duçun yoaitera çure cerbitçaria bakean, çure hitçaren arabera.

30. Ecen ene beguiec ikhussi dute çure salbamena;

31. Ceina preparatu baituçu populu gucien bekhokian ;
32. Argua yendayen arguitceco, eta çure Israeleco popluaren loria *içaiteco*.
33. Eta Joseph eta haren ama harritcen ciren hartaz erranae ciren gaucez.
34. Eta Simeonec benedicatu cituen, eta erran cion bere ama Mariari; huna, hau eçarria da hainitcei Israelen, erortceco eta berriz alchatceco aurguina bat *içaiteco*, eta seinale bat ceintan contra erranen baitute,
35. ( Eta orobat ezpata batec chilhatuco du çure arima ) amo reagatic hainitz bihotcen gogotae içan diten aguertuac.
36. Bacen ere Anna emazte Profeta bat, Phannel Asereco Tribucoaren alaba, ya adin handitan cena, eta çazpi urthez bere senharrarequin bici içan cena ;
37. Eta laur hogoi urthehartan hurbil alharguna, ezzen Templutic higitcen *Jauncoacerbitçatuz* barurez eta othoitcez, gabaz eta egunaz.
38. Hura beraz han guertaturic memento hartan berean, laudateen çuen ere Jauna, eta mintço cen hartaz erospena iguriquiteen çuten guciei Jerusalemen.
39. Eta complitu cituztenean

- Jaunaren legueaz manatuac di ren guciac, itçuli ciren Galilerat, beren hiri Nazaretherat.
40. Eta haurthoa handitcen cen eta azcartcen izpirituz, çuhurciaz bethea içanez ; eta Jaincoaren gracia haren gainean cen.
41. Bada haren aita eta haren ama yoaiten ciren urthe guciez Jerusalemerat *Bazco phestetan*.
42. Eta hamabi urthe bethe cituenean, Joseph eta Maria iganic Jerusalemerat phestaco ohitçaren arabera ,
43. Eta iteulcen cirelaric phestaco egunac bethe ondoan, Jesus haurra guelditu cen Jerusalemen ; eta Joseph eta haren amez ciren ohartu.
44. Bainan ustez bidayanten mulçoan cela, egun bat ibili ciren ; guero bilhatu çuten beren ahaiden eta beren eçagunen artean ;
45. Eta ez baitçuten aurquitcen, itçuli ciren Jerusalemerat, hura bilhatcen çutelarie.
46. Bada guerthatu cen hirugarren egunean aurquitu çutela Templuan, irakhastailen erdian yarria, ençuten eta yauquiten cituela.
47. Eta hura ençuten çuten guciac estonateen ciren haren çuhurciaz eta haren arrapostuez.
48. Eta ikhussi çutenean, es-

tonatnac ciren, eta erran cion amac : neure haurra, ergatic egun deraucu horrela? huna, gure aitac eta nie bilhatcen cintugun, ansia handitan guine-laric,

49. Eta erran cioten : certaco bilhatcen ninduçuen? ez daquique neure Aitaren eguitecoetan içan behar naicela?

50. Bainan ez çuten endelgatu cer erraiten cioten.

51. Orduan yautsi cen heye-quin, eta ethorri cen Nazaret-herat; eta heyer ethordun cen; eta haren amac hitz haue guciad beiratcen cituen bere bihotcean.

52. Eta Jesus aiteinatcen cen çuhurcian, eta gorputcean, eta gracian, Jaincoaren et guionen alderat.

### III CAPITULUA.

*Yondoni Baptistar predicatorum  
eta bathayatzen du; Jesus-  
Christo bathayatua, eta ha-  
ren sorterroa.*

1. Bada Tibera-Cesaren imperioaren hamabortz garren urtean, Ponceo-Pilatus Judeaco Gobernadore celaric, eta Herodes Tetrarka celaric Galilean, eta haren anaya Philippe Tetrarka Itureaco eta Trachonitaco lurretan, eta Lysanias Tetrarka Abilenian;

2. Annas eta Caifas apuez nagi cirelaric, Jaincoaren hitça adiaracia içan cen Joanues Zchariaren semeari, desertuan.

3. Eta ethorri cen Jordaneço inguruna guciatarat urriquizco bathayoa predicatorum quela, be-khatuen barkhamenduaren ardiesteco;

4. Esribatua den arabera E-saias Profetaren hitzen liburuan, dioela; desertuan oihu eguiten duenaren boça; aphain çaque Jaunaren bidea, chuchen çatçue haren bidescac.

5. Beheratasun guciabetheac içanen dira, eta mendi guciab eta bizcar guciab aphalduac içanen dira, eta bide maklur guciab chuchenduac içanen dira; eta bidesca gaitz gicia errech-tuac içanen dira.

6. Eta oroec ikhussico dute Jaincoaren salbamena.

7. Beraz erraiten çuen hartaz bathayatuac içaiterat ethortzen ciren yende tropei; bipera cas-tac, norc abisatu çaituzte güeroço hassarradura ihesquitea?

8. Eguitçue beraz urriquia-ren araberaeo fruituac; eta ez has erraiten çuen baithan; Abraham badugu aitatçat; ecen erraiten derautçuet, Jaincoac sor araz ahal detçaela, harri hotaric ere, Abrahami haurrac.

9. Bada aizcora yadanic eçarria da arbolen erroan; beraz fruitu onic ekhartcen ez duen arbola, picatua içaiterat doha, eta aurthiquia surat.

10. Orduan yendec galdeguin cioten, cioteleric : cer egunen dugu bada?

11. Eta ihardetsi çuen, eta erran cioten : bi arropa dituenac eman beça bat ez duenari; eta yateco duenac egun beçañguisa bera :

12. Eta ethorri çaincon pagaztaileac bathayatuac içaiteco, ceinec erran baitcioten, Nagusja, cer egunen dugu?

13. Eta erran cioten: ez galda manatua çautçuen baino guehia-go.

14. Guerlaco guïçonec galdeguin cioten orobat, cioteleric : eta gúc cer egunen dugu? erran cioten : ez egun borcharic, ez enganioric nihoren contra; bainan contenta çaitzete çuen soldatez.

15. Eta nola populuac iguri-quitcen baitçuen, eta arraçoinatcen baitçuen bere baithan Joannes ez othe cenez Christo,

16. Joannesec hartu çuen hitça, eta erran guciei; nitaz denaz, bathayatcen çaituztet urez; bainan heldu da ni baino botherekuago dena, ceinaren ez bainaiz

gai zapata korden lachatceo; harc bathayatuco çaituzte Izpiritu Sainduaz eta suz.

17. Bere bahea escuan du, eta ossoqui garbituco du bere larraina, eta bilduko du oguribihia bere biliteguirat, bainan lastea erreco du iraunguitcen ez den suan.

18. Eta bertce hainitz exorta eguinez, Ebanyelioa adiarazten çuen populuari.

19. Bainan Herodes Tetrarka hartaz mehatchatua içanic Herodias haren anaya Philipperen emaztea gatic, eta egun cituen gaizquier gatic,

20. Emendatu cituen oraino bertce guciak Joannes presondeguian eçarriz.

21. Bada guerthatu cen, nola populu gucia bathayatua baitcen, Jesus ere bathayatua celeric, eta ohoitcean çagolaric, cerua idequi cela.

22. Eta Izpiritu Saindua yantsi cen haren gainerat gorphutzezco itchurapenean, urço colomha batena beçalacoa; eta içan cen boz bat cerutic, erran cioena: çu çare neure Seme ongi mai-thatua, çu baithan hartu dut enc atseguin ona.

23. Eta Jesus hasten cen hogaia eta hamar urthe hurbil içaiten, Josephen (uste çuten ar-

bera) semea celaric, cein Joseph  
Heliena baitcen;

24. Mathatena, Leviena, Mel-  
chiena, Jannaena,

25. Josephena, Mathatiaseña,  
Amosena, Nahumena, Heliena,  
Naggeena,

26. Mathena, Mathatiaseña,  
Semeiena, Josephena, Judarena,

27. Johannarena, Rhesarena,  
Zorohabelena, Salathielena, Ne-  
riena,

28. Melchiena, Addiena, Co-  
samena, Elmodamena, Herena,

29. Josarena, Eliezerena, Jo-  
rimena, Mathatena, Leviena,

30. Simeonena, Judarena, Jo-  
sephena, Jonanena, Eliakimena,

31. Melcarena, Maiñanena,  
Mathatarena, Nathanena, Davi-  
tena,

32. Jesseena, Obedena, Boo-  
zena, Salmonena, Naassonena,

33. Aminadabena, Aramena,  
Esromena, Pharesena, Judarena,

34. Jacobena, Isaakena, Abra-  
hamena, Tharaena, Nakorena,

35. Sarugena, Ragauenä, Pha-  
legena, Heberena, Salaena,

36. Cainanena, Arphaxadena,  
Semena, Noeena, Lamekena,

37. Mathusalaena, Henokena,  
Jaredena, Mahalaleelena, Cai-  
nanena,

38. Enosenä, Sethena, Ada-  
mena, Jaincoarena.

#### IV CAPITULUA.

*Jesus-Christo debruaz tentatua,  
eta arbuyatua Nazarethen,  
sendatcen ditu Capernaümen  
hainitz eri eta debrustatu.*

1. Bada Jesus Izpiritu Sain-  
duaz bethea, itçuli cen Jordaneo alderat, eta eramana içan  
cen deserturat izpirituaren bert-  
hutez.

2. Eta tentatua içan cen De-  
bruaz berrogoi egunez, eta ez  
quen deusic yan, egun hec ci-  
raueteno, bainan iragan cire-  
nean, gosetu cen azquenean.

3. Eta Debruac erran cion :  
baldin Jaincoaren Semea bacira,  
erroçu harri huni ogui bilhaka  
dadin.

4. Eta Jesusec ihardetsi cion,  
cioclaric : esribatua da ez dela  
choilqui egui bicico guionta ;  
bainan bai Jaincoaren hitz oroz.

5. Orduan Debruac eraman  
quen mendigora baten gainerat,  
eta erakhutsi ciotçan lipar batez  
munduco errestuna guciac.

6. Eta Debruac erran cion :  
emanen derautçut puchantzia  
hau gucia eta heyen loria ; ezen  
emana içan çaut niri, eta emai-  
ten dut nahi duanari.

7. Baldin nahi bacira beraz  
ahuzpecatu ene aitcinean, gu-  
ciac çureae içanen dira.

8. Bainan Jesusec ihardestean erran cion : habil ene guibelerat, Satan ; esribatua duc ; hire Jainco Jauna adoratuco duc, eta hora choila cerbitçatuko.

9. Debruac eraman çuen orobat Jerusalemerat, eta ecarri çuen Templuko lekhu gorenean, eta errau cion : Jaincoaren Semea bacira, qurthic qaité beheti.

10. Ecen esribatua da manatuco ducla bero Aingueruci çure beguiratzeaz :

11. Eta ekharriko çaituztela beren escuetan, beldurrez yo deçaçun çure zangoa eembait harrien contra.

12. Bainan Jesusec ihardestean, erran cion : errana içan da, ez duc tentatuco hire Jainco Jauna.

13. Eta akhabatu cenean tentacione gucia, Debrua yoan cen haren ganie ; bchingotçat.

14. Eta Jesus itçuli cen Galilera Berhutez Izpirituaren berhutez, eta haren aiphua hedatu cen ingurunetaco herri gucietan.

15. Ecen irakhasten çuen helyen Synagoguetan, eta guciez ohoratua cen.

16. Eta ethorri cen Nazaretherat, nun alchatu içan baitzen eta sarthu cen Synagoguan erre-pausuko egunean, ohitu cen

arabera ; guero alchatu cen ira, kurtceco.

17. Eta eman cioten Esaia profetaren liburna, eta çabaldu çuenean liburua, aurkliitu çuen esribatua den lekhua.

18. Jaunaren Izpiritua ege gainean da, ceren gantxetu bajnau, igorri nau Ebanyelioaren adiarastera pobrei, bihotça eos, catua dutenen sendatceco ;

19. Adiarazteco esclaboei li-branca, eta ixuei beguietaco bista ; çaphatuac direnac lichuan ecarteco ; eta Jaunaren urhe agradagarriaren adiarasteco.

20. Guero hetsiric liburua, etabihurturic cerbitçariari yarri cen eta Synagoguan ciren gucien beguiac haren gainean baratuae çauden.

21. Orduan hassi cioten errajten, egun escritura hau complitua da, çuec aditzen duçnelaric.

22. Eta gucieçlekhuotassuna bihurteen cioten, eta harriteen ciren haren ahotic yalguitzcen ciren dohinezco hitcez ; eta erraiten çuten : hau ez dea Josephen semea ?

23. Eta erran cioten : segurqui erranen dautçue errau comun hau, medicua senda hadi Ieroni ; eta eguiñ çac hemen hire herrian Capernaumen eguiñ di-

*Cap.*  
tucala ençun ditugun gauça gu-

gac.  
24. Bainan erran cioten : e-  
guiaz erraiten dautçet Profeta  
nibor ez dela *ongui ethorria* bere  
herrian.

25. Eta eguiaz erraiten daut-  
çet bacela hainitz emazte al-  
hargun Israélen, Eliasen dem-  
boran, cerua hetsi cenean hirur  
urthe eta sei hila bethoz; halaco  
guisaz nun gossete handi bat  
içan baitcen lur hartan gucion.

26. Eta halaric-ere Elias ez-  
cen igorria içan hetaric bateta-  
rat, bainan choilqui emazte al-  
hargun baten ganat Sidon Sarep-  
taco hirirat.

27. Bacen ere hainitz lepradun  
Israelen Elisea profetaren dem-  
boran, halaric-ere hetaric batere  
ez cen içan sändatua; bainan  
Naaman bakharric, Siriacoa ce-  
na.

28. Eta guciаc hassaratuac i-  
çan ciren Synagoguan, gauça  
hauc ençutean.

29. Eta chutituriс, cassatu-  
çuten hiriz camporat, eta era-  
man çuten ceinaren gainean he-  
yen hiria eguna cen mendi on-  
doraino, haren aurthiquitceco  
gaimetic beheiti.

30. Bainan iragan cen heyen  
erditie, eta yoan cen.

31. Eta yautsi cen Capernau-

merat, Galileaco hirirat; eta han  
irakhasten cituen errepausuko  
egunetan.

32. Eta estonatcen ciren ha-  
ren irakasteaz; ecen haren hitça  
nausitasunequin cen.

33. Bada Synagoguan bacen  
guiçon bat izpiritu lohi bátez  
debruztatua, ceinao oihu egui  
baitçuen gora,

34. Ciolarie : hal eer da gure  
eta çure artean, Jesus Nazare-  
neoa? ethorri çarea gure ecez-  
tateera? badaquit nor çaren,  
Jaincoaren Saindua çarela.

35. Eta Jesuseo mehatchatu  
çuen garrazqui, erraiten cioe-  
larie : ichil hadi, eta yalgui gui-  
çon hortarie, eta debruac aur-  
thiquiric hora *yenden* erdirat,  
yalgui cen guiçon hortarie, ba-  
tere minic egui gabe,

36. Eta harritu ciren guciаc,  
eta mintço ciren beren artean,  
eta erraiten çuten : cer solas da  
han, manatcen duela nausitasu-  
nequin eta botherezqui izpiritu  
gaistaguinei, eta yalquitcen di-  
ra?

37. Eta haren omena hedatu  
cen inguru hartaeo lekhu guci-  
tan.

38. Eta Jesus alchatu cenean  
Synagoguatic, sarthu cen Simo-  
nen etchean, eta Simonen amai-  
narreba sukhar handi batequin

çagon, eta othoiztu çuten haren  
çat.

39. Eta hurbilduric haren gainerat, larderiatu çuen sukharra; eta sukharrazc utci çuen; eta berrehala chutitu cen, eta cerbitçatu cituen.

40. Eta nola iguzquia etçaten baiteen, asco eritassunez eriac cituzten guciec ekharri çaizceten; eta eçarriz eseuac bakhotcharen gainean, sendateen ci-  
tuen.

41. Demonioac ere yalquitcen ciren hainitcetaric, oihuca eta ciotela: Christo, Jaincoaren Sema çare; bainan mehatchatcen cituen borthizqui, eta ez cioten haiçu uzten erraitea baçaquitela Christo cela.

42. Eta arguitu cen becen laster, abiatu cen eta yoan lekhu desertu batera, eta yendee bilhatcen çuten, eta haren ganat ethorriric, atchiquitcen çuten, amoreagatic ez çadin yoan hetaric.

43. Bainan erran cioten: adiaraci behardut bertee hirier ere Jaincoaren Erresumaco Ebanyelioa; ecen hortacotz igorria naiz.

44. Eta predicatcen çuen Galileaco Synagoguetan.

## V CAPITULUA.

*Jesus-Christoc deitcen du Pierres, sendatcen du lepradun bat eta paralitico bat eta justificatcen bere eta bercen egniteco moldea Pharisauen contra.*

1. Bada guerthatu cen, nola yendetce gucia haren gainerat aurthiquitcen baitcen Jaincoaren hitça aditceco, baçagola Genezarethen ur handiaren bazterrean.

2. Eta ikhussiric bi barkhu uraren bazterrean cirenac eta arainçaleac yautsiac handic eta saren garbiteeu hari; igan cen barkhu hectaric baterat, ceina baitcen Simonena.

3. Eta othoiztu çuen hau lurretic urrunsko eramaiteaz; guero yarri ondoan, irakhasten cituen yendeac barkhu gainetic.

4. Eta akhabatu çuelean mintçateen, erran cion Simoni: eramaçu erdirat, eta heda çure sareac arrainçatceco.

5. Eta Simonec ihardestean, erran cion: Nagusia, hari qan gare lanean gau gucian, eta ez dugu deusic ateeman; hargatik çure hitcean hedatuco ditut sareac.

5 Cap.

6. Hori eguinic, hain bertce  
bildu çuten arrain nun heyen  
sareac hauxten baitciren.

7. Eta kheinu eguin cioten  
bertce barkhuan ciren beren la-  
gunei, laguutcerat ethortceco;  
eta ethorriric, bethe cituzten bi  
barkhuac, halaco guisaz nun  
barnatcen baitciren.

8. Eta ikhussi çuenean hau Si-  
mon Pierresec, ahuzpecatu cen  
Jesusen oinetan: cioelaric: Jau-  
na, yoan çaité ni ganic; ecen  
guiçon bekhatoros bat naiz.

9. Ecen beldurrac hartu çuen  
hura eta harequin ciren guciac,  
eguitetic heldu ciren arraintça-  
ren gatic; hala nola Jacques eta  
Joannes Zebedeeren semea, Si-  
monen lagunac cirenac.

10. Orduan Jesussec erran cion  
Simoni: ez içan beldurric, he-  
mendic harat içanen çare guiçon  
bicien arraintçaille bat.

11. Eta ekharri citztenean  
barkhuac lurrerat, utci cituzten  
guciac, eta yarraiqui çazcon.

12. Bada guerthatu cen *lur*  
*hartaco* hiri batean celaric, hu-  
na, guiçon bat lepraz bethea  
Jesus ikhustean, aurthiqui çuela  
bere burua *lurrerat* aitcinez, eta  
othoitu cuen, cioela: Jauna na-  
hi baduçu, garbi eguiñ neça-  
queçu.

13. Eta Jesussec hedatu çuen

escua, eta hunquitu çuen, cioe-  
laric: nahi dut, içan çaité gar-  
bi, eta ordu berean leprac utci  
çuen.

14. Eta manatu cion nihori  
ez erraiteaz; bainan çoaci, er-  
ran cion, eta aguer çaité aphe-  
çari, eta eskein çacu çure gar-  
bitasunarentçat Moïsec manatu  
duena, lekhucotasuntçat heyer  
cerbitçatceco.

15. Eta haren aiphua hedat-  
cen cen guerotic guerora, ha-  
laco guisaz nuu yende oste han-  
diac bilcen baitciren haren en-  
çuteco, eta hartaz sendatuac  
içaiteco beren eritassunetaric.

16. Eta desertuetan sarthua  
çagon, eta othoitz eguiten çuen.

17. Bada guerthatu cen irak-  
hasten çuen egun batez, Phari-  
sau eta leguearen irakhastaileac,  
ceinac ethorri baitciren Galilea-  
co eta Judeaco herri guciataric,  
eta Jerusalemetic han cirela yar-  
riac, eta Jaunaren botherea *han*  
cen eritasunen sendatececo.

18. Eta huna guiçon batçuec  
ekhartcen çuten ohe batean gui-  
çon bat paraliticoa eta bilhatcen  
çuten etcherat ekhartceco bidea,  
eta haren aitcinean eçartceco.

19. Bainan ez aurquitcenez  
nundic sarraraz ahal çaquefen,  
yende ostearen gatic, igan ciren  
etche gainerat, eta yantsi cirea

teilatuetaric, ohe thiapiarequin, erdirat Jesusen aitcinerat.

20. Ceinac ikhussiz heyen se-dea, erran cion paraliticoari: guiçona, çure bekhatuac bark-hatuac çaitçu.

21. Orduan Seribauac eta Pharisauac hassi ciren beren artean arraçoinatcen, ciotelaric: nor da blasfemioac erraiten dituen hau? nore barkha ditçazque be-khatuac Jaincoac berac baicen?

22. Jesusec eçagutuz heyen gogoetac, hartu çuen hitça, eta erran cioten: certaco arraçoinatcen duçue horrela çuen baithan?

23. Cein da errechago, edo erraitea: çure bekhatuac bark-hatuac çaiquitçu; edo erraitea; chuti çaité, eta ibil?

24. Bada yaquin deçaquen giçonaren Semeac baduela lurrean bekhatuen barkhatceco bothe-re, erran cion paraliticoari; erraiten dautçut, chuti çaité, har-çaçu çure ohe thiapia bizcarrean, eta çoaci çure etcherat.

25. Eta berehala paraliticoa chutituricheyen aitcinean, hartu çuen bizcarrean, etçana cen o-hea, eta yoan cen bere etcherat, Jaincoa lorificatcen çuela.

26. Eta harritu ciren guciac, eta lorificatcen çuten Jaincoa, eta beldurrez betheac erraiten çuten, eguiazqui ikhussi dngu

seculan iguriquico ez guinititu gauçac.

27. Guero athera cen, eta ikhussi çuen pagaraztaile bat, Levi icena çuena, yarria pagarazteco lekhuan, eta erran cion: segui neçaçu.

28. Ceinac utciz guciac, ehu-titu cen, eta seguitu çuen.

29. Eta Levic egun cion gom-bidanza handi bat bere etchean, nun baitcen pagaraztaile mulço handi bat, eta cembait bertce yende heyequin mahainean cironac.

30. Eta lekhu hartaco Scriban eta Pharisauc arranguratcen ciren, certaco yaten duçu eta edaten pagaraztailequin eta bici gaistoco yendequin?

31. Bainan Jesusec hitça har-tuz, erran cioten: osagarrian direnec ez dute behar medie-ric, bainan bai eri direnec.

32. Ez naiz ethorri yustuac urriquirat deitcera, bainan bai bekhatoreac.

33. Erran cioten ere: certaco Joannesen Diseipuluec barureen dute maiz, eta eguiten othoitçac, orobat Pharisauenec ere; bainan çurrc yaten eta edaten dute?

34. Eta erran cioten: baru-raraz detçaqueçuya esposaren adisquideac, espresa heyequin deno? ..

35. Bainan ethorrico dira e-gunac espasa khendua içanen haitçayote, orduan barurtuko dute egun hetan.

36. Guero erran cioten comparacione haü : nihorc ez du e-particen arropa berri baten pheça bat bestimenda çahar batean, bertcenaz berriac urratcen du çaharra; eta berriaren pheça ez da moldateen çaharrarequin.

37. Guisa berean, nihorc ez du eçarteen arno berria untci çaharretan; bertcenaz arno berriac çapartaracico ditu untciac, eta ichurico da, eta untciac galduac içanen dire.

38. Bainan arno berrio behar da içan eçarria untei berrietan; eta guisa hortan beguiratcen dira bat eta bertcea.

39. Eta ezda nihor çaharra edaten duenic, berehala berria nahi duenic; eeñ erraiten du: çaharra hobea da.

## VI CAPITULUA.

*Jesus-Christoc yustificateen ditu bere Discipuluac, ogui ondoac Errepausuko egunen errotic a-theratcen dituztenac, eta sendatcen du guicon baten escu eihartua, icendatcen ditu hamabi Apostolu, eta emaiten du irakhascunza hainitz.*

1. Bada guerthatu cen erre-

pausuco egun bigarren lehenean, iragaiten cela oguietaric, eta haren Discipuluec errotic a-heratce cituztela ogui ondoac, eta beren escuetan çaphatuz, hetaric yaten çutela.

2. Eta Pharisauetaric cembai-tec errancioten: certaco eguiten duçue gauça bat eguitea haiçu ez dena errepausuko egunetan?

3. Eta Jesusec hitça hartuz, erran cioten: ez duçue irakhurtu cer egün çuen Davitec gossetu cenean, harc, eta harequin ci-renec.

4. Nola sarthu cen Jaincoaren etchean, eta hartu cituen propositioñeco oguiac, eta hetaric yan, eta eman ere harequin ci-renei; nahiz ezden haiçu sacrificatçailer baicen hetaric yatea.

5. Guero erran cioten: guionaren Semea errepausuko ere Jauna da.

6. Berce errepausuko egun batez ere Synagoguan sartcera guerthatu cen, eta irakhasten çuen; eta han bacen guicon bat ceinaren escu escuna eihartua baitcen.

7. Bada Scribauec eta Pharisaeuc guardia emaiten çuten sendatuco çuenez hora errepausuko egunean, aurkhitceco certaz hora acusa.

8. Bainan eçagutcen cituen

heyen gogoetac; eta erran cion guicon escua eihartua cuenari: alcha caite, eta egon chutic erdian. Eta hura alchaturic chutic egon cen.

9. Bainan Jesusec erran cioten: galdeguinen dautuet gauça bat; haiçu dea onguia eguitea errepausuko egunetan, edo gaizquia eguitea? norbaiten salbatcea, edo haren galcea?

10. Eta behatu cuenean guciei inguruan, erran cion guicon hari: heda caça cure escua; eguin cuen, eta haren escua eguin cen sendoa bertcea beçala.

11. Eta sumindu ciren, eta elgarren artean mintço ciren cer eguin ahal ceçaqueten Jesusi.

12. Bada mendibaten gainerat igaiterat guerthatu cen egun betan othoitz eguiteco; eta han iragaitera gañ gucia Jaincoa othoitzuz.

13. Eta eguna ethorri cenean, deithu cituen bere Discipuluac; eta hautatu cituen hetaric hamabi, ceinac icendatu ere baitcituen Apostoluac;

14. Hec dira: Simon, ceina icendatu baitquen orobat Pierres, eta Andres haren anaya, Jacques eta Joannes, Philippe eta Barthelemi:

15. Mathiu eta Thomas, Jac-

ques Alpheeren scmea, eta Si mon gaindicendatua Zelotes:

16. Jude Jacquesen anaya, eta Judas Iscariota, ceina içan baitcen traidorea ere.

17. Guero yauxiric heyequin, guelditu cen ordoqui batean bere Discipuluequin, eta yende molço handi batequin Judea gucitic, eta Jerusalemetic, eta Tyreco, eta Sidoneco ixasbazterretario ceinac ethorri baitciren haren ençuterat, eta sendatuac içateco beren eritassunetaric;

18. Eta toleatuac cirenac ere izpiritu gaiztaguinez; eta sendatuac içan ciren.

19. Eta guciec chereateen çuten haren ikhustea; ecen yalguiten cen haren ganic berthute bat guciae sendateen ci tuenä.

20. Orduan itçuliz beguiac bere Discipuluuen ganat, errai ten cioten: ongi dohaxuac çarete çuec pobreac; ecen Jaincoaren erressuma cuena da.

21. Ongi dohaxuac çarete, çuec orai gosse çaretenac; ecen asseco çarete. Ongi dohaxuac çarete orai nigarretan çaudetenac; ecen bozcarioan içanetü çarete.

22. Ongi dohaxuan içanen çarete guiconec hastiatuco çi tuztenean, eta escumicatuco çi

tuztenean, eta escarniatuco çai-  
tuztenean, eta arbuyatuco du-  
tenean çuen icena gaistoa heçala,  
guiçonaren Semea gatic.

23. Alaguera çaitetzte egun  
hartan eta bozearioz yauz; ecen  
huna, çuen saria handia da ce-  
ruan, ecen heyen aitec eguiten  
çuten orobat Profetei.

24. Bainan çorigaitz çuer abe-  
nxei; ecen kharreatcen duçue  
çuen atsequida.

25. Corigaitz betheac cirete-  
nei; ecen gosse içanen duçue.  
Corigaitz orai irri eguiten du-  
çunei; ecen auhendatuco duçue  
eta nigar eguinien.

26. Corigaitz çuei guiçon gü-  
ciec erran dutenean ongwi çutaz;  
ecen heyen aitec eguiten çuten  
orobat profeta falsuei.

27. Bainan çuei ençuten nu-  
çunei erraiten dautçuet; maitha  
çaitçue etsaiac, eguiçue onguia  
hastio çaituztenei.

28. Benedicàçaitçue madari-  
catcen çaituztenac, eta othoitz  
eguiçue eraunsten çaituztenen-  
çat.

29. Eta mathela batetan yoi-  
ten çaituenari, eskein eçoçu bert-  
cea ere; eta norbaitec khencen  
badautçu çure capa, ez debeca  
harcetic tunika ere.

30. Eta galdeguiten dautçun  
cein nahi guiçonni emoçu; eta

çurea khencen dautçunari ezber-  
riz galda.

31. Eta nabi duçun beçala güi-  
çonec eguin deçaçuten, egui-  
çue ere orobat.

32. Bainan maite badituçu  
*choilqui* çu maite çaituztenac,  
cer esker içanen dautçute; ecen  
bici gaistoco yendec ere maite  
dituzte hec maite dituztenac.

33. Eta ez baduçu onguia e-  
guiten onguia eguin dautçutenei  
baicen, cer esker içanen daut-  
çute? ecen bici gaistoco yendec  
eguiten dute gauça bera.

34. Eta ez baduçue prestatcen  
*noren* ganic uste baituçue erre-  
eebituco duçuela *baicen*, cer  
esker içanen dautçute? ecen bici  
gaistoco yendec bardiu prestat-  
cen dute bici gaistoco yendei;  
amoreagatic errecebi deçaten  
gauça bera.

35. Hortacotz maitha çaitçue  
çuen etsaiac, eta eguiçue on-  
guia, eta prestaçatié deus igu-  
riqui gabe, eta çucn saria içanen  
da handia, eta içanen çarete Oro-  
etacoaren semea, ecen onguilea  
da gaistoen eta esker gaben al-  
derat.

36. İçan çaitetzte beraz mis-  
ericordios, çuen Aita misericor-  
dios den beçala.

37. Eta ez çaque yuya, eta ez  
çarete içanen yuyatuac; ez çä-

que condena eta ez çarete içanen condenatuac; barkha çäue, eta barkhatua içanen çautçue.

38. Emaçue, eta emana içanen çautçue; emanen derautçute galzarren neuri ona, çapatua eta metatua, eta gaindituco dena; ecen içartuco dituçuen neurriaz, içartuac içanen çarete çuen al-dian.

39. Eta erraiten cioten ere comparacione *hau*: possible dea ixubatec guida ahal deçan *bertce* ixu bat? ez direa biac erorico cilhorat?

40. Icaslea ezda bere nagusia baino guehiago; bainan icasle perfeta, içanen da bere nagusiari beçala.

41. Certaco behateen duçu çure anayaren beguian den lastoari eta ez çare ohartcen çure beguian den ernayari.

42. Ëdo nola erran deçaqueçu çure anayari? ene anaya, permetiçaü khen deçadan çure beguian den lastoa, çuc ikhusten ez duçuna çure beguian den ernai bat. Hypocrita, khen çäue lehenic çure beguitic ernaya, eta guero ikhussico duçu nola khenduco duçun çure anayaren beguian den lastoa.

43. Eguiaz, arbola bat ezda ona, fruitu gaisto ekhartcen dueña; ez eta arbola bat ezda gais-

toa, fruitu ona eguiten duëna.

44. Eta arbola bakhotcha ega, gun da bere fruitutic; ecen pi-coac ere ez dira bilcen elhorriataric, eta ez dire mahatsac bilcen, berro elhorrian.

45. Guiçon prestuac atheratcen ditu gauça onac bere bihotceco muyan onetic; eta guiçon gaistoac atheratcen ditu gauça gaistoac bere bihotceco muyan gaistotic; ecen bihotceco frans quecian mintço da ahoa.

46. Bainan certaco deitcen nü-  
çue Jauna, Jauna, eta ez dueñe  
eguiten erraiten dudana?

47. Erakhutsico dautçuet nor  
iduri duen ni ganat ethorteen  
denac, eta ene hitçac ençutean  
hec eguiten dituenac.

48. Iduri du guiçon bat cei-  
nac etche bat eguitean, aitçur-  
tu eta cilhatu baitu barna, eta  
cimendua eçarri harrocaren gainean,  
halaco guisaz nun ur yal-  
quitce bat guerthaturic, ibaya  
yoan baita etche haren contra  
emaitera borthizqui, bainan ecin  
kordocatu du, ceren cimenda-  
tua baitcen harrocaren gainean.

49. Bainan, contrara, nor-  
ere ençun ondoan ene hitçac, ez  
baititu eman pratican, iduri du  
guiçon bat bere etchea lurraren  
gainean eguin duena, hari ci-  
menduric eguin gabe, *ecen iba-*

7 Cap.

yac emanic etche haren contra,  
erori da berehala, eta etche ha-  
ren lurreratcea handia içan da.

## VII CAPITULUA.

*Jesus - Christoc sendatzen du  
capitain baten sehia hiletaric  
pizten alhargun baten semea,  
emaiten du lekhucotassuna  
bere buruaz eta yondoni Bap-  
tistaz. Pharisaueen erreproto-  
chuen contra, eta barkhat-  
zen dio emazte bekhatorosari.*

1. Eta akhabatu çuenean solas  
hura gacia aditeen çuen popu-  
luaren aitcinean Capernaumen  
sarthu cen.

2. Bada Capitain baten sehia,  
ceinac hau hainitz maite bait-  
çuen, eri cen; eta hilcerat yean  
cen.

3. Eta Capitainac ençun çue-  
nean mintçatzen Jesusez, igorri  
cituen haren ganat cembait Ju-  
duen Caharretaric, haren othoiz-  
teco ethor çadin haren schiaren  
sendatcerat.

4. Eta ethorriric Jesusganat,  
othoiztu çuten arrekaika, errai-  
ten ciotelaric: gay eela hau ar-  
diesteco.

5. Ecen, cioten, maite du gu-  
re yendaquia, eta eguin deraaucu  
Synagogua.

6. Jesus yoan çen beraz he-  
yequin; eta nola ya ez baitzen

urrun etchetie, Capitainac igorri  
cituen bere adisquideac haren  
biderat, hari erraiteco, Jauna,  
ez çaitela akhit; ecen ez naiz  
gay sar çaiten ene teilatuaren  
azpian.

7. Hortacotz ere ez dut neure  
burna uste içan gay neroni yoai-  
teco çu ganat, hainan erraçu  
choilqui hitz bat; eta ene sehia  
sendatua içanen da.

8. Ecen neroni bertzen bothe-  
rearen azpico eçarri naicen guï-  
çon bat bainaiz, baditut ene az-  
pian guerlaco guïçonac, eta er-  
raiten dut bati, çoaci, eta yoaiten  
da; eta bertee bati, çauri, eta  
ethorteen da; eta neure sehiari;  
eguiçac hori, eta eguiten du.

9. Hori adituric Jesusec ad-  
miratu çuen; eta itçuliric, erran-  
cion seguitzen çuen mulçoari:  
erraiten dautçuet, ez dudala aur-  
quitu, Israclen ere, fede bat  
hain handia.

10. Eta igorriac içan cirenaç  
ethorri cirenean eta sarthu et-  
chean, aurquitu çuten eri içatu  
sehia, ongwi ekhartcen cela.

11. Etabiharamonean Jesus  
guerthatu cen yoaitera Nain ice-  
na duen hiri batera, eta bere  
Discipuluetaric hainitz eta yende  
oste handi bat yoan ciren hare-  
quin.

12. Eta hirico atherat hurbil-

cen celaric, huna, ekharteen çuten camporat hil bat, bere ama alhargunaren seme bakharra; eta hirico yendetce handi bat bacen harequin.

13. Eta Jaunac ikhussi que-nean urricalmenduz hunquitua içan cen haren alderat, eta erran cion: ez çacula eguin nigarrie.

14. Guero hurbildurie, hunquitu cuen hil khutcha; eta *gor-phutçaren* kharreatçailleac guelditu ciren, eta erran cuen: guicon gaztea, erraiten derauyat; yaiqui hadi.

15. Eta hila yaiquicen, eta bassi mintçateen, eta Jesusec bi-hurtu cion bere amari.

16. Eta guciacya heldurrez ikharatu ciren, eta lorificateen çuten Jaincoa, ciotelarie: segurqui profeta handi bat alchatu da gure artean; eta segurqui Jaincoac ikuiscatu du bere populua.

17. Eta *miraculu* hunen omena hedatu cen *Judea* gucian, eta ingurunaco lekhu gucietan.

18. Eta gauça hec guciacya aiphatuac içanic Joannes, bere Discipuluez.

19. Joannesec deithu cituen bere Discipuluetarie biga, etaigorri cituen Jesusganat, hari erraiteco; ethorri behar dena

çarea, ala behar dugu iguri qui bertcebat?

20. Eta ethorriric haren ganat, erran cioten: Yondoni Baptistaçigorri gaitu cu ganat, çuri erraiteco; ethorri behar dena çarea, ala iguri qui behar dugu bertce bat?

21. (Bada, oren hartan berean sendatu cituen hainitz yende eritassunetarie eta çorigaitcetarie eta izpiritu gaiztaguinetarie; eta eman cuen bista hainitz ixnei.)

22. Guero Jesusec ihardetsi cioten; eta erran cioten: çoazte, eta erroque Joannes cer ikhussi eta aditu duçuen, ixuec erreco-bratcen dutela bista; mainguac ibilcen direla; lepradunac garbituac direla; gorrec ençuten dutela, hilac pizten direla; Ebanyelioa predicatua dela errume-sci.

23. Eta ongui dohaxua dela ni gatic gaizbidetua içatu ez dena.

24. Guero Joannesen meçulariae partitu cirenean, bassi cen erraiten Joannesez yendei; cer içan çarete ikuisten desertuan? kanabera bat haiceaz higuitua?

25. Bainan cer içan çarete ikuisten? guicon bat arropa balisez aphaindua? huna, Erre-guén palacioetan aurquitzen dira hainitz ederqui aphainduac di-

7 Cap.

rehac, eta góçotassunetan bici direnac.

26. Bainan cer içan çarete ikhusten? profeta bat? bai, erraiten dautçuet, eta Profeta bat baino guehiago.

27. Hartaz da eseribatua : huna, igortcen dut ene meçularia çure aitcimerat, eta aphainduco du çure bidea çure aitcinean.

28. Eeen erraiten dautçuet emaztetik sorthu direnen, ez dela profetaric baterc Yondoni Baptista baino handiagoric; eta halaric ere gutiena Jaincoaren erresuman *hura* baino handiago da.

29. Eta *hura* ençün duen populu gucia, eta pagaraztailec ere yustificatu dute Jaincoa Joannesen Bathayoa errecebituz.

30. Bada Pharisauec eta legueco irakhastailec, ez içanez hartaz bathayatuac, egun çuten Jaincoaren chedea ez deus heyen aldera.

31. Orduan Jaunac erran çuen: nori beraz bardincatuco ditut ethorquiçun huntaco guïçonac; eta cer iduridute?

32. Iduridute placetan yarriac diren haurrac, eta batçu bercei oihā eguiten dutenac, eta erraiten : chirula yo dautçugu eta ez çarete danzatu.: cantatu daitçu-

gu aire dolamenac, eta ez duçue nigar eguin.

33. Ecen Yoandoni Baptista ethorri da oguiric ez yanez, eta arnoric ez edanez; eta erraiten duçue; demonio bat badu.

34. Guiçonaren Semea ethorri da yan eta edanez; eta erraiten duçue : huna yale eta edale bat, pagaraztailen eta bici gaistoco yenden adisquidea.

35. Bainan çuhurcia yustificatu içanda haren haur guciez.

36. Bada Pharisauetaric batec othoiztu çuen haren etchean yateco : eta sarthu cen Pharisau haren etchean, eta eman cer mahainian.

37. Eta huna, bacen hirian bici gaistoco emazte bat, ceinac yaquinic Jesus mahainian cela Pharisauaren etchean, ekharri baitçuen albatrasco unci bat olio usain goço batez bethea.

38. Eta egonez guibelean haren oinetan, eta nigarrez, hassi cen heyen bustitcen bere nigarrez, eta chukhatcen çituen bere biloez, eta bessarcatcen çazcon zangoac, eta gantzutcen cituen olio usain goço harçaz.

39. Bainan combidatu çuen Pharisauac ikhussiz hori, erran çuen bere baithan : hau profeta balitz, segurqui balaquique nor eta cer den unquitcen duen e-

mazte hori; eeen bici gaistoco emazte bat da.

40. Eta Jésusec hitça hartuz erraneion: Simon, badut cerbait çuri erraiteco; eta erran cuen: Nagusia, erraçu.

41. Harce dun batec bacituen biçordun; batec çorçaizcon bortz ehun libera eta bertceac berrogoi eta hamar.

42. Eta nola ez baitçuten certaz paga, barthatu cioten corra bati eta bertceari; erraçu beraz, hetaric ceinac maithatuco du hura guehiago?

43. Eta Simonec ihardestean erran cion: uste dut hura dela ceini ere barkhatu baitu guehiago, eta Jésusec erran cion: çuhurqui ynyatu duçu.

44. Orduan itçuliric emaztearen alderat, erran cion Simoni: ikhusten duçu emazte hori? Sarthu naiz çure etchean, eta ez dautaçu eman uric zangoen ikhusteco; bainan arragatu ditu ene zangoac bere nigarrez, eta chukatu ditu bere biloez.

45. Ez dautaçu eman musubat, bainan hura, sarthu naicen gueroztic, ezda guelditu enc zangoen bessarkhatcetic.

46. Ez duçu gantçetu ene burua oliaz, bainan harc gantçetu ditu ene zangoac olio uzin goço batez.

47. Hortacotz erraiten dautçut haren bekhatuac, handiac direnac, barkhatuac çaizeola, eeen hainitz maithatu du: bada gutiago barkhatua çaiconari, harc gutiago maite du.

48. Guero erran cion emazteari: çure bekhatuac barkhatuac caizquitçu.

49. Eta harequin mahainian cirenac hassi ciren erraiten beren artean; nor da hau bekhatuac ere barkhatcen baititu.

50. Bainan erran cion emazteari: çure fedeac salbatu çaitu, çoaci bakean.

## VIII CAPITULUA.

*Jesus-Christoc irakhastean berac erailearen parabolaz, eztitzen du tempesta, sendatzen debruztatu bat eta odol galce bat çuen emazte bat, eta pizten Jairusen alaba.*

1. Bada guerthatu cen hortiglandan, hiriz hiri çohala, eta herriz herri, predicatzen çuela ric eta adisrazten Jaunaren erresuma; eta hamabi Discipuluac harequin ciren.

2. Eta cembait emazte ere libratu cituenac izpiritu gaistiguinetaric, eta eritassunetaric, nola, Maria, Magdalena deithua, ceina gopic athera baitciren çazpi debru.

3. Eta Joapna, Chuzasen emaztea, cein *Chuzas* baitcen Herodesen monayanta; eta Suzanna, eta bertee hainitz beren onthassunez laguntzen çutenac.

4. Eta nola yendetce handi bat bilcen baitcen, eta hainitz yohan baitciren hora ganat hiri gucietaric, erran cioten parabola hau:

5. Eraile bat athera cen bere haciaren erraiteco; eta erraitean, *haciaren* araldebat erori cen bide gainean, eta zangoez çapatua içan cen, eta ceruco choriec yan çuteu gucia.

6. Eta bertee araldebat erori cen lekhu harrixu batetara; eta goratu cenean, eihartu een, ez quelacotz bustiroaric.

7. Eta bertee araldebat erori cen elhorrien arterat; eta elhorriac aliatu ciren harequin batean, eta itho çuten.

8. Eta bertee araldebat erori cen lur on bateria; eta goratu cenean, errendatu çuen fruitua ehun aldiz bertee hainberce. Gauça haue erraitean oihu eguiten çuen; beharriac dituenac ençuteco, ençun beça.

9. Eta bere Discipuluec interroatu çuten yaquiteco cer erran nahi çuen parabola hunec.

10. Eta ihardetsi çuen, eman çautçue Jaincoaren Erresumaco

mysterioac eşaguteea, bainan ez çayote bertcei aiphatura comparacionez baicen; amoreagatic ikhustean ez deçaten ihus, eta ençutean ez deçaten endelga.

11. Huna beraz cer erran nahi duen parabola hunec; hacia Jaincoaren hitça da.

12. Eta hacia errecebítu dutenac bide gainean, hitça ençuten dutenac dira; bainan guero ethorteen da demonioa, ceinac edequiteen baitu heyen bihotctic hitça, beldurrez sinhextean ez diten salba.

13. Eta lekhu harrixu batean errecebítu dutenac hacia, hec dira hitça ençun ondoan, bozcariorequin errecebítcen dutenac; bainan erroric ez dute; sinhexten dute behin; eta tentacioneo demboran urruntcen dira.

14. Eta elhorrien artera erori dena, hec dira hitça ençun ondoan, eta yoan ondoan, anxiez aberaxtassunez eta mundu huntaco guriqueriez ithoac direnac, eta ez dute ekhartcen fruitu onthuric.

15. Bainan lur on batean erori dena, hec dira hitça ençun ondoan, atchiquitcen dutenac bihotz onest eta on batean, eta fruitua ekhartcen dutenac paisrosqui.

16. Nihore arguizagui piztu

ondoan, ezdu hura estaloen untci batez ez eta ohe azpi batean ecarteen, bainan ecarteen du zutargui baten gainean, sarteen direnec ikhusteco argua.

17. Ecen ezda segreturic aguertcen ez denic; ez eta gaunca estaliric eçaguteen ez denic, eta ethortcen ez denic arguirat.

18. Beha çacue beraz nola ençuten duçuen; ecen duenari emana içanen çayo; bainan deus ez duenari, içan uste duena ere edequia içanen çayo.

19. Orduan bere ama eta bere anayac ethorri ciren haren ganat, bainan ecin hurbil çaitezquen yendengatic.

20. Eta kharriatu çuten, ciotelaric: çure ama eta çure anayac hor dira campoan, çure ikhusteco guticia dutenac.

21. Bainan ihardetsi çuen, eta erran cioten: ene ama eta ene anayac Jaincoaren hitça ençuten dutenac dira, eta hura pratican emaiten dutenac.

22. Bada egun batez barkhu batean igáitera guerthatu cen bere Discipuluequin, eta erran cioten: iragan gaiten uraz bertce alderat; eta partitu ciren.

23. Eta nola bogateen baitçuten, lokhartu cen, eta ichkuidu bat alchaturic uraren gainean,

barkhua urez bethetcen arieen, eta lanyer handitan ciren.

24. Orduan ethorri ciren hura ganat, eta iratçarraraci çuten, ciotelaric : Nagusia ! Nagusia ! galcerat goaci. Bainan hura chittaric, mintçatu cen nausitas sunequin haiceari eta baguer, eta eztitu ciren : eta ugualdia itculi cen.

25. Orduan erran cioten : nun da guen sedea? eta hec beldurrez eta mirestez sesituac, beren artean cioten : bainan nor da hau, manateen du haicer eta urari, eta obeditcen diote?

26. Guero arrabatu çuten Galdarenieneco lur ingurunetarat ceina baita Galilearen parrean.

27. Eta yautsi cenean lurrera, ethorri cen hari buruz hiri hartaco guion bat ceina aspaldian debrustatua baitcen, eta ez baitcen arropez estalia, eta ez baitçuen eguiten egoitça etchetan bainan bai hobietan.

28. Eta ikhussiric Jesus, oihu eguin çuen, eta ahuzpecatu cen haren aitcinean, cieleric oihu patarracaz, cerda ene eta çure artean, Jesus Oroetaco Jaincoaren *semea?* othoizten çaitut, ez ni tormenta.

29. Eta Jesusec manateen cion izpiritu lohiari yalquitceaz guion hartaric camporat : ceren

aspaldian hotsia atchiqui çuen, eta nahiz guicon hura estecatua cen gathetza eta burdineta atchiquia, porroscatzen cituen bere loharriac, eta eramana cen demonioaz desertuetan barna.

30. Eta Jesusec galdeguin cion: nola duzu icena? eta erran çuen: araldea; ecen bainitz demonio sarthu ciren hura baithan.

31. Bainan othoizten çuten Jesus ez ceçoten mana leicerat yoaitea.

32. Bada han bacen acinda belz mulço handi bat mendi gai-nean bazeatcen cirenac, eta othoizten çuten haietu utz citcan acinda belz hetan sartcea; eta atei cituen.

33. Eta demoniac atheraric guicon hartaric sarthu ciren acinda belcetan; eta acinda mulçoan urthiqui cen gain behera urerat; eta ithocen cen.

34. Eta hura bazcatçailec ikhussi çutenean cer guerthatu cen, ihes egun çuten, eta yoan ciren horren eguiztatecera hirrat eta landetan gaindi.

35. Eta yendeac yalgui ciren cer guerthatu cen ikhusteco, eta ethorri ciren Jesusganat, eta auquitu çuten ceineren ganic demoniac athera ciren guicona, bere Jesusen oinetan yarria beztia, eta çuhurtua, eta icitu ciren.

36. Eta hauc gueiac ikhussi cituztenec erran cioten nola de-bruztatua içan cen libratua.

37. Orduan yende hec gueiec ethorriac asco lekhu Gadarenien-nen auçotarie, othoiztu çuten urrun çadin hetarie, ecen ikharan çauden, berriz igan cen beraz barkurat, eta yoan cen handie.

38. Ceinaganic demonioac atheraciren guiconac othoizten çuen harequin içan çadin, baina Jesusec igorri çuen, cioletaric:

39. Itçul çaité çure etcherat, eta adiaraz çäcu cein gauça handiac egun daizquitçun Jaincoac. Yoan cen beraz adiaraciz hiri gueian Jesusec egun çai-zcon hauça gueiac.

40. Eta Jesusbihurtu cenean, yendec errocebitu çuten bozcariorequin; ecen gueiec iduriquit-ceten çuten.

41. Eta huna, guicon bat Jairus icena çuena, ceina baiteen Synagoguaco aitcindaria, ethori cien, eta ahuzpecaturic Jesusen oinetan, othoiztu çuen ethor çadin haren etcherat.

42. Eeen baçuen alaba bakhar bat, hamabi urthieren inguruna çuena, hilcera çohana, etu nola yohan baitcen, yendec hers-ten çuten.

43. Eta emazte bat odol gal-

cebat çuena hamabi urthe har-  
tan, eta bere onthassun gucia  
chahutu çuena medicuetan, ba-  
téz ere sendatua içan gabe;

44. Hurbilduz hura ganat gui-  
beletic, hunquitu çuen haren  
arroparen ezquina, eta ordu he-  
rean odol galcea guelditn cen.

45. Eta Jesusec erran çuen:  
norchunquitu nau? eta nola oroc  
ukhatcen baitçuten hec cirela,  
Pierresec erran cion, eta hare-  
quin cirenec ere : Nagusia, yen-  
dec hersten eta çapatcen çaituz-  
te, eta erraiten duçu : norc  
hunquitu nau?

46. Bainan Jesusec erran çuen:  
norbaitec hunquitu nau; ecen  
eçagutu dut berthute bat yalgui  
dela niganic.

47. Orduan emazteac iksus-  
siz hura ez çayola gordea içan,  
ethorri cen gucia ikharan, eta  
ahuzpecaturic haren oinetan,  
aithortu cion yendaya guciaren  
aitcinean cergatic hunquitu çu-  
en, eta cer guisaz içan cen  
sendatua berehala,

48. Eta erran cion: ene alaba,  
çande descansu, çure fedearc sen-  
datu çaitu; çoaci bakean.

49. Eta mintço celaric orai-  
no, norbait ethorri cen Syna-

goguaco aitcindaria ganic, cei-  
nac erran baitcion; çure alaba  
ezda hila, ez akhit Nagusia.

50. Bainan Jesusec hori adi-  
turic, ihardetsi cion nescatcha-  
ren aitari, ciolaric : ez içan  
beldur; sinhex çacu choilqui,  
eta sendatua içanen da.

51. Eta ethorri cenean etche-  
rat, ez çuen utci nihor sartcera  
Pierres, Jacques eta Joannes  
baicen, nescatcharen aita eta  
amarequin.

52. Bada nigar eguiten cioten  
gucieç, eta minez bolharrac yoi-  
ten cituzten; bainan erran cio-  
ten : ez egui nigarriç, ezda  
hila, bainan lo dago.

53. Eta hartaz trufatcen ci-  
ren, baitçaquiten segurqui hila  
cela.

54. Harbotaturic guciac cam-  
porat, eta harturic nescatcharen  
escua, oihu egui çuen, ciolaric :  
nescatcha, chuti çaitc.

55. Eta haren arima itçuli  
cen, eta nescatcha chutitu here-  
hala, eta manatu çuen eman  
çeçotela huni yatera.

56. Eta nescatcharen aita eta  
ama harritu ciren, bainan ma-  
natu cioten ez nihori erraitez  
cer egui içan cen.

## IX CAPITULUA.

*Jesus - Christoc igortcen ditu Apostoluac predicatceco eta sendatceco, assetcen ditu bortz oguiz mila guicon, irakasten ditu berceac; guero jitchuraz aldatua da, sendatzen du debruztatu bat, irakasten du humiltassuna berenei, uzten du halaco guicon bat debru en cassatcerat, pairatcen du egon lekhuaren eza, eta nahi du berec segui decazen behatu gabe guibelerat.*

1. Guero Jesusec bildurio bere hamabi Discipuluac, eman eioten bothere eta nausitassun debru gucien gainean; eta erien sendatceco *ahala*.

2. Eta egorri cituen predicatora Jaincoaren erresuma, eta erien sendatcera.

3. Eta erran cioten: ez ekhar deusic bidecotçat, ez makhilaric, ez çacuric, ez oguiric, ez diruric, eta ez içan bakhotchae bi arropa.

4. Eta cein nahi etehetan sarçaitezten, egon çaitezte han handic abiatu artino.

5. Eta errecebituco ez çaituzten lekhu orotan, hiri hartaric abiaticean, inhaurrex çaque çuen oinen hertauxa, lèkhucotassunean heyen contra.

6. Hec beraz partituric yoaiten ciren herriz herri, Eban-yelioa adiarazten çutelaric, eta orotan sendatcen.

7. Bada Herodes Tetrarkac ençun çuen mintçatcen Jesusec eguiten cituen gauça guciez; eta truble handian ciren ceren cembaitec erraiten çuten Joannes hiletaric piztu cela;

8. Eta cembaitec Elias aguerzu cela; eta bertce cembaitec, Profeta qaharretaric norbait piztu cela.

9. Eta Herodesco erran çuen: Joannesen burua motz araci dut; nor da beraz hau ceinetaz ditzen baititut erraiten horrelaco gauçac? eta haren ikhustea bilihateen çuen.

10. Guero Apostoluac ethori ondoan, condatu cioten egun cituzten gauça guciac. Eta Jesusec eramen cituen berequin, eta bildu cen lekhu desertu batera, Bethsaida icena duen ondorat.

11. Hori yaquinic yendec, yarrailqui çalzcon; eta errecebitu ciuen, eta aiphatcen cioten Jaincoaren erresumaz, eta sendatcen cituen sendaturic içan behar cirenac.

12. Bada eguna aphaleen hassi ondoan, hamabi *discipuluac* ethori çalzcon eta erran çayoten; egor çaitçu yende horiec, yoan

diten ingurunaco herri eta herrisquetara, harat bilceco, eta yatera aurquitceco; ecen hemen lekhu desertu batetan gare.

13. Bainan erran cioten: emocuete yaterat ceronec. Eta erran çuten: ez dugu bortz ogui eta bi arrain baino guehiago; ez baguira yoaiten yatecoen erostera yendaye hunen guciarençat.

14. Ecen laur mila guiconen inguruna ciren. Eta erran cioten bere Discipuluei: eçar çaitçu mulçoca, bakhotcha berrogoi eta hamarrecoa.

15. Eta eguin çuten horrela, eta herroncan eçararaci cituzten.

16. Guero hartu cituen bortz oguiac eta bi arrainac, eta cerrura behatuz, benedicatu cituen, eta hauxi, eta partitu cituen bere Discipuluei, eman citeaten yende horien aitcinean.

17. Eta hetaric yan çuten guciec, eta hasse eiren, eta eraman cituzten hamabi sasqui ogui puszca soberatutic betheac.

18. Bada guerthatu cen nola lekhu desertu batean baitzen ohoitz eguiteco, eta Discipuluac harequin baitciren, interroatu cituela, ciotelaric: nor diote yendec naicela?

19. Ihardetsi cioten: *batçuec diote yondoni Baptista carela; bertce Elias; eta bertcec, Pro-*

feta çaharretaric norbait piztu dela.

20. Orduan erran cioten: eta çuec nor, naicela dioçue? eta Pierresec ihardestean errancion: çu çare Jaincoaren Christo.

21. Bainan mehatchatzu matatu cioten ez nihori erraiteaz.

22. Cioelaric: ceren guiconaren semeac behar baitu hainitz pairatu, arbuyatua içan çaharez, Sacrificatçaille aiteindariez, eta Scribauez, eta heriotearat eramana, eta hirurgarren egunean piztu behar da.

23. Guero erran cioten guciei; norbait ethorri nahi badaene ondotic, ukho eguin beça bere buruari, eta kharrea beça egun guciez bere khurutcea, eta yarraic bedi.

24. Ecen norc-ere salbatu nahi baitu bere bicia, galduedo du; bainan norc-ere galduedo baitu bere bicia ene amoreagatic, haren salbatu du.

25. Eta cer progotchu du guicon batec mundu guciaren idabaztea, deseguiten badu bere burna, eta galcen bada?

26. Ecen nor ere ahalquetuco haita nitaz eta ene hitcez; guiconaren semea ahalquetuco da hartaz, ethortzen denean bere lorian, eta Ajtaren cta Ainguera Sainduenean.

27. Eta erraiten dautuet egiazqui hemen present direnen artean, badirela heriotcea goçatuko ezdutena Jaincoaren Erresuma ikhussi duten arteraino.

28. Bada guerthatu cen çortci egun hurbil hitz horien ondotic, hartu cituela berequin Pierres, eta Joannes, eta Jacques, eta mendi batera igan cela othoitz egniteco.

29. Othoitcean çagolaric, haren bisayaren itchura bertce bat eguin cen, eta haren arropa churi eguitu cen, eta arguitcen çuen ceruco argui batec beçala.

30. Eta huna, bi guïçon, Moïses eta Elias, mintço ciren harequin.

31. Eta aguertu ciren lorian eta mintço ciren haren akhabantxa Jerusalemen complitu behar çuenaz.

32. Bada Pierres eta harequin cirenac loao pizatuac ciren; eta iratçartu cirenean ikhussi çuten haren loria, eta harequin ciren bi guïçonac.

33. Eta guerthatu cen *guïçon* hec urrunteen cirelaric hura ganic, Pierresec erran cioela Jesusi: Nagusia, on da hemen içan gaiten, egun ditçagun hemen hirur etchola, bat çuretaco, bat Moisen eta bat Eliesen daco; yaquin gabe cer erraiten çuen.

34. Eta gauça hauc erraiten cituelaric, hodoi bat ethorri cen bere itçalaz estali cituena; eta nola sartcen baitciren hodoian, icitu ciren.

35. Eta boz bat ethorri cen hodoitie, cioela : hau da ene seme ongui maitea; hau ençun çaque.

36. Eta boza adiarazten celaric Jesus aurquitu cen bakharric. Eta ichildu ciren *guciae* eta ez çuten egun hetan nihori condatu ikhussi çutenetaric deusic.

37. Bada guerthatu cen biaramunean, hec yauxi ondoau menditic, yendetce handi bat ethorri cela haren biderat.

38. Eta huna, tropaco guïçon batec oihu egun çuen, cioelaric: Nagusia, othoizten çaitut, aurthic çaitçu beguiac ene se mearen gainerat; ecen ene bakharra da.

39. Eta huna, izpiritu batec hartu çuen, ceinac berehala oihu egun araci baitcion, eta inburrexi çuen borthizqui hederra ahotic atherarazten cioelaric, eta nekhez utci çuen; chehatu *beçala* ondoan.

40. Bada othoiztu ditut çure Discipuluac haren camporat botatceaz, eta ez dute egun ahal içan.

41. Eta Jesusec ihardesteau

erran çuen : o ethorquia siuhets gogora eta galdua, noiz artino içanen naiz çuequin, eta yassanen caituztet? ekhar çu hunat eure semea.

42. Eta hurbilcen celaric choiliqui, demonioac inhurrexi çuen borthizqui urratu nahi içan balu beçala; bainan Jesusec larderiatu çuen garrazqui izpirit u lohia, eta sendatu çuen haurra eta bihurtu aitari.

43. Eta guiac harritu ciren Jaincoaren indar espantagarriaz. Eta nola guiac estonatzen baitzen Jesusec eguiten cituen gauça oroez, erran cioten bere Discipuluei :

44. Quec ongi ençun çaitque solas hauc; ecen guerthatuco da guiconaren semea libratuco içanen baita guiconen escuetara.

45. Bainan ez çuten endelgatu solas hori; eta hain çayoten ilhuna, nun ez baitçuten endelgatzen; eta ez çaitezquen mentura haren interroateera solas horren gainean.

46. Guero solasean sarthu ci- ren cein cen hetaric handiena.

47. Bainan ikhussiz heyen bihotceco gogoeta, hartu çuen haur thipi bat; eta ecarri bere aldean;

48. Guero erran cioten: norcere errceebituco baitu haur thipi

hau ene iceneán, errecebitzen nau; eta norcere errceebituco bainau, errecebitzen du ni igorri nuena. Ecen çuen guien artean thiienza dena, handia içanen dena da.

49. Eta Joannesec hartuz litça, erran çuen : Nagusia, ikhussi dugu norbait cassatzen cituena demonioac çure icenean, eta debekhatu dugu, ceren ez caituen seguitzen gurequin.

50. Bainan Jesusec erran cions ez debekha; ecen gure contraez dena, gure alde da.

51. Bada guerthatu cen haren khurutcean igaiteco egunac be-thetzen cirelaric, goratu quela bere beguitartea Jerusalemerat yoaiteco arras desegobitua.

52. Eta igorri cituen bere aitcinean meçulariac, ceinac yoanic sarthu baitciren Samaritanoen herri batetan, hari egon lekhuan aphainceco.

53. Bainan Samaritanoec ez çuten erreceebitu ceren iduri baitçuen Jerusalemerat yohan cela.

54. Eta Jacquesec eta Joannesec; haren discipuluec ikhussi çutencan hori erran çuten : Juan! nahi duqua erran deçagun, Eliasec eguiñ çuen beçala, cerutic yaux bedi sua, eta eceztaditçan.

55. Bainan Jesus itçuliz larde-

riatu cituen borthizqui, errai-ten ciotelaric : ez da quiçue cein izpirituz çareten.

56. Ecen guiçonaren Semea ex da ethorri guiçonen arimen galarazteco, bainan salbatceco. Iloia yoan ciren bertce herri batetarat.

57. Eta guerthatu cen bidean yohan cirelaric, guiçon batec erran cioela : seguituco çaitut, Jauna, norat nahi yo han çaiten.

58. Bainan Jesusec ihardetsi cion : acheriec badituzte cilhoac, eta ceruco choriec badituzte hahiac, bainan guiçonaren Scmeac ex du nun pauza burua.

59. Guero erran cion bertce bat ; yarraic çaité niri ; eta hunc ihardetsi cion : utz neçaü lehenic neure aitaren ehorsterat yoaitera.

60. Eta Jesusec erran cion : utz çaitü hilac beren hilen ehorstera ; bainan çu, çoaci eta adiaraz çäü Jaincoaren Erresuma.

61. Bertce batec ere erran cion : Jauna seguituco çaitut, bainan utz neçaü lehenic con-yitaren hartcera ene etchean direnen ganic.

62. Bainan Jesusec ihardetsi cion : nihor goldenabarran escua emaiten duena, eta guibelerat

behatcen duena, ez da ongi ek-harrria Jaincoaren erresumao.

## X CAPITULUA.

*Jesus - Christoc egortcen ditu bere hirur hogoi eta hamar Discipuluac predicatione eta sendatceco, alegueratcen du izpirituz bereen dohaxtassunaz, legueco irakhastaile bati erakhusten du bere proximoa Samaritanoaren parabolam, eta irakhasten du Martha Mariaren hautaren gainean.*

1. Bada gauça hauyen ondotic icendatu cituen orobat bertce hirur hogoi eta hamar ; eta egorri cituen birazka bere aiteinean, yohan behar cen hiri eta lekhu gucietara.

2. Eta erraiten cioten : uztahandia da, bainan languile guti da ; othoitx çäue heraz uztaco Jauna, bota ditçan languileac bere uztarat.

3. Çoazte, huna, igorteen çaituztet bildotch batçu beçala otsoen erdira.

4. Ez ekhar, ez molsarie, ez çacurie, ez çapatarie, eta ez nihor agur bidean.

5. Eta cein nahi etchetan sar çaitozten, erraçu lehenic ; bakea içan bedi etche huni !

6. Baldin bada han bakezeço cembait haur, çuen bakea eraut-

sico da haren gainerat, bereela itçulico da çuen ganat.

7. Eta egon çaitezte etche har- tan, yan eta edanez çuen aitciue- rat ekharria içanen denaz; ecen languileac merechi du bere sa- ria. Ez iragan etchez etche.

8. Eta cein nahi hiritan sar çaitezten, eta errecebitcen ba- çaituzte; yan çaque çuen ait- cinean eçarria içanen denetic.

9. Eta senda çaitque han iça- nen diren eriac; eta errocoquete Jaincoaren Erresuma çuen ganat hurbildua da.

10. Bainan cein nahi hiritan sar çaitezten, ez baçaituzte er- recebitcen, yalgui çaitezte hango carriketara, eta erraque :

11. Inhaurrexten dugu çuen contra çuen hirico herrauxa gu- ri lothu caucuna; bizquitartean yaquin eçaque Jaincoaren Erre- suma çuec ganat hurbildua dela.

12. Eta erraiten dautquet : egun hartan Sodomocoençat ez- tiago içanen dela hiri harençat baino.

13. Çorigaitz çuri, Chorasin, çorigaitz çuri Bethsaida! ecen çuen erdian eguinac içatu diren miraculuac, eguinac içan balire Tyren eta Sidonen, aspaldi du urrikituco cirela, çacu batez estaliac, eta hauxaren gainean yarriac.

14. Hartacotz Tyren eta Sidon- ençat eztiaigo içanen da çuençat baino yuyamenduco *egunean*.

15. Eta çu Capernaum, ceru- raino alchatua içan çarena, be- heititua içanen çare ifernuraino.

16. Çuec ençuten çaituztenee, ençuten naute; eta arbuyateen çaituztenee, arbuyatzen naute; bada ni arbuyatzen nauenac, ar- buyatzen du ni egorri nauena.

17. Bada, hirur hogoi eta ha- marrac itçuli ciren bozcariora, quin ciotelaric : Jauna, demo- nioac ere yautsiac çaiçeu çure icenean.

18. Eta erran cioten : beha- nindagon Satani erortzen cela Cerutic chimista bat beçala.

19. Huna, emaiten dautçet botherea ibilceco sugen eta har- rubien gainean, eta etsaiaren in- dar guciaren gainean; eta dusec ez dautçue gaitz egunen.

20. Bizqnitartean ez bozcario- tan sar izpirituac yautsiac çai- çuelacotz, bainan lehenago als- guera çaitezte çuen icenac es- cribatuac direlacotz Ceruetan.

21. Orduberean Jesus bozca- riotu cen izpirituz, eta erran çuen : laudateen çaitut, ô Aita! Ceru eta lurreco Jauna, ceru gorde ditutçun gauça hauc çu- hurrei eta adituei, errebelatu haur thipiei; hola da, ô Aita!

ceren holacoa içatu baita çure ntsguin ona.

22. Gauça guciāc escurat emanac içan çait ene Aitaz ; eta nihorc ez du eçagutcen cein den Semea, Aitac baicen ; ez cein den Aita , Semeac baicen ; eta nori ere Semeac errebelatu içan nahi duenac baicen.

23. Guero itçuliz bere Discipuluen alderat , erran cioten berchiqui : öngui dohaxuac dire çuec ikhusten ditutquena ikhusten duten beguiac.

24. Ecen erraiten dantuet hainitz Profeta eta hainitz Erregue guticiatu direla ikhusten ditutquen gaucen ikhusteco , eta ez dituzte ikhussi eta ençuteco aditoen ditutquen gauçac , eta ez dituzte aditu.

25. Orduan huna legueco irakastaile bat chutituric haren frogatceco erran cion : Nagusia, cer egun behar dut bethico bisiteearen iqaiteco ?

26. Eta erran cion : cer da escribatua leguean ? cer irakurtzen duçu ?

27. Eta ihardetsi çuen , eta erran ; maithatuco duçu çure Jainco Janna çure bihotz guciāz , eta çure arima guciāz , eta çure indar guciāz , eta çure gogo guciāz ; eta çure proximo laguna eroni beçala .

28. Eta Jesusec erran cion : ongi ihardetsi duçu ; eguiçu hori , eta bicico çare .

29. Bainan harc bere burua garbitu nahiz , erran cion Jesusi ; eta nor da eue proximo laguna ?

30. Eta Jesusec ihardestean , erran cion : guiçon bat yausten cen Jerusalemetic Jericorat , eta erori cen ohoineh escuelarat , ceinec bulucı baitçuten , eta colpatu ondoan hainitz colpez , yoan ciren , uteiz hora erdi hila .

31. Bada , Sacrificatçiale bat yauxterat guerthatu cen bide beretic , eta hora ikhussi quencan , bertee alderat iragan cen .

32. Levita bat ere ethorricie lekhu hartarat eta ikhussiz guiçon hora , iragan cen orobat bertee alderat .

33. Bainan Samaritano bat bere bidean çabilarie ethorri cen hora ganat eta hora ikhustean hunquitua içan cen urricalmenduz .

34. Eta harbilduz , bere çaurriac lotbu çazcon , eta heyen gainerat ichuri olio eta arno ; guero eçarri çuen bere çaldiaren gainean , eta eraman çuen ostaturat , eta içan çuen hartaz artha .

35. Etabiharamunean abiatcean athera cituen bere molsatic bi diru peça , eta eman cituen

ostalerari, erraiten cioelaric: içan çäçü hortaz artha; eta cere gastuco baituçu guehiago, bihurtuco dautçut itçuleen nai-  
cenean.

36. Cein beraz hirur hetarie iduritcen çantçu içan dela oho-  
nen escuetara erori cenaren pro-  
ximo laguna?

37. Ihardetsi cion: haren al-  
derat urricalmendu içatu duena.  
Jesussec beraz erran cion: çoaci  
eta çuc ere eguiçu gauça bera.

38. Eta yoaiten cirelaric, herri  
batetan sartcerat guerthatu cen;  
eta emazte batec Martha icena  
çuenac errecebiku çuen bere et-  
chean.

39. Eta baçuen ahizpa bat  
Maria deithua, ceimac yarria çagolaric  
Jesusen oinetan, ençuten  
baitçuen haren hitça.

40. Bainan asco arthez era-  
bilia cen Martha; eta ethorriric  
Jesusganat, erran çuen: ez duçua  
ansiatic ene ahizpac utz neçan  
bakharric cerbitçatcera? erroçu  
beraz lagun neçan bere aldetic.

41. Eta Jesusec ihardestean,  
erran cion: Martha, Martha,  
kheebatcen çare eta muguitcen  
haimitz gauça gatic.

42. Bainan gauça bakhar bat  
da beharra, eta Mariac hautatu  
du alde ona, khendua içanen ez  
çayona.

## XI CAPITULUA.

*Jesus-Christoc irakhasten ditu  
bereac othoitz eguiten eta ez  
guelditcen, sendatcen du de-  
bruztatu bat, mintço da de-  
monio camporat aurthiquies  
eta berriz itçulcen direnez,  
fede hunen dohaxta sunaz  
eta gaisto barne lohien çori-  
gaitçaz, ceina maiz aiphat-  
cen baitu Scribau eta Pha-  
risau hypocritei.*

1. Eta guerthatu cen, othoit-  
cean çagolaric lekhu batean,  
guelditu cenean othoiteetic, bere  
Discipuluetarie batec erran cios-  
la: Jauna, irakhatz çaguçu ot-  
hoizten, Joannesec irakhatsi di-  
tuen beçala bere Discipuluac.

2. Eta erran cioten: othoiz-  
ten duçuenean; orraçue: Gure  
Aita, Ceruetan çarena, erabil  
bedi sainduqui çure icena; ethor  
bedi çure erresuma; eguin bedi  
çure borondatea Ceruan beçala  
lurrean ere.

3. Iguçu egunean gure egu-  
neco oguia.

4. Eta barkha dietçaguçu gure  
bekhatuac; ecen barkhatcen di-  
tugu orobat gure ganat çordun  
diren gaciei. Eta ez gaitçatçula  
tentacionetan sararaz; aitcitie,  
beguiria gaitçatçu gaiteetic.

5. Guero erran cioten: çuetarie

combaitec balu adisquide bat ethor laitequena haren ganat, gauardi gainean, eta erran decon : ene adisquidea, presta ditçadaçu hirur ogui.

6. Ecen adisquide bat uste gabe ethorri çaut iragaitean, eta ez dut deusic hari esqueintceco.

7. Eta barnean denac ihardex deçan eta erran : ez neçaçula nahas; ecen neure athea ya het-sia da, eta neure haur thiapiac ohean dire enequin; ez naiteque yaic çuri oguien emaiteco.

8. Erraiten dautçet, nahiz ez den yaiquitzen hari emaitera adisquidea delacotz, yaiquico dela bizquitartean haren galde bortchaz, eta emanen diocla beharco duen becenbat.

9. Hartacotz erraiten dautçet; galdeguiçue, eta emana içanen çautçue; bilha çaque, eta aurquituco duçue, yo çaque eta idequia içanen çautçue.

10. Ecen norc-ere galdeguiten baitu, ukhaiten du, norc-ere bilhatzen baitu, aurquitzen du; eta yoiten duenari idequia içanen çayo.

11. Baldin haur batec galdeguiten badu ogua çuen arteco norbaiti haren aita denari; emanen dioeya harri bat? edo galdeguiten badu arraina, emanen

dioeya arrainaren plaçan, suge bat?

12. Edo galdeguiten badu arrolce bat, emanen dioeya harrubi bat?

13. Beraz çuec gaistoac çaretenac, baldin badaquiçue çuen haurrei emaiten gauça onac, cembaç guehiago çuen Aita Ceructacoac emanen du Izpiritu Saindua galdeguiten diotenei?

14. Orduan cassatu çuen demonio bat mutu cena, eta guerthatu cen demonioa yalqui ceñean, mutua mintçatu cela; eta yendeac estonatu ciren.

15. Eta heyetaric cembaitec erran çuten : Beelzebut, demonioen aitcindariaz, cassatzen ditu demonioac.

16. Bainan bertcec haren frogatceco, galdeguiten cioten miraculu bat Cérutic.

17. Bainan haro eçagutuz heyen gogoetac, erran cioten : bere contra makhurtua den cein nahi erresuma desertu bilhacatuco da; eta cein nahi etche bere *contra makhurtua dena erorzen* da.

18. Baldin beraz Satan ere bere contra makhurtua bada, nola iraunen du haren erresumac? erraiten duçuenaz gueroz demonioac cassatzen ditudala Beelzebutez.

19. Baldin demonioac cassatcen baditut Beelzebutez çuen semec nortaz cassatcen dituzte? hartacotz berac içanen dire çuen yuye.

20. Bainan baldin cassatcen baditut demonioac Jaincoaren erhiaz, segurqui Jaincoaren erreynua ethorri da çuen ganat.

21. Guiçon hazcar eta ongi harmatu batec çainteen duenéan bere etchea, dituen gauçac bakiän dire.

22. Bainan guerthatcen bada bat hura baino hazcarragoa, hura garraiteen duena, khencen daizco bere harma guciäc ceinetan fidateen baitcen; eta partitcen du hari hartu dazconac.

23. Enequin ez dena, ene contra da; eta enequin bilcen ez duenac, barayatcen du.

24. Izpiritu lohia athera deñean guiçon batetic, yoaiten da lekhu idorretan gaindi, descansua bilhatuz; eta ez baitquen aurquitcen, erran çuen, itçuliconaiz ene etcherat, ceinatarie athera bainaiz.

25. Eta ethorriric, khaussitcen du erratzatua eta aphaindua.

26. Orduan yoaiten da, eta hartcen ditu berequin bertee çazpi izpiritu bera baino gaistoagoac, eta sartcen dira eta

han egoiten, halaco guisaz nun guiçon haren azquen estatua gaistoagoa baita lehenbicicosa baino.

27. Bada, guerthatu cen gaúca hauc erraiten cituclaric: yenden arteco emazte batec alchatu çuela bere boza, eta erran ciela: ongi dohaxua da çu ekharri cituen sabela, eta erosqui ditut, çun bulharrac.

28. Eta erran çuen: bainan ongi dohaxuago dira Jaincoaren hitça ençuten dutenac, eta hura beguiratcen.

29. Eta nola yendeac bilcen hari baitciren, hassi cen erraiten: ethorquia han gaistoa da; galdeguiten du miraculu bat, bainan ez du içanen hertee miraculuric, Jonas Profetaren miraculua baicen.

30. Ecen nola Jonas içan baitcen seinale bat Ninivtarrei, hala guiçonaren Semea içanen da bat ethorquia huni.

31. Eguedico erreguima alchantuco da yuyamenduco egunean ethorquia huntaco guiçonen contra, eta condenantuco ditu; ceren ethorri baitcen lurraren burutic Salomonen çulurcia aditceco; eta huna, bada hemen Salomon baino guehiago.

32. Niniveco yendeac alchantuco dira ethorquia hunen con-

tra, eta condenatuco dute; ceren urriquitu diren Jonasen predicationean; eta huna, bada hemen Jonas baino guehiago.

33. Bada, nihorc arguizaguia pizten duenic ez du eçarten leku gorde batean, edo berro azpi batean, bainan bai çutargui batzen gainean, amoreagatic sarzen direnec ikeras deçaten argua.

34. Gorphutceco arguia begua da; baldin beraz çure begua garbi bada, çure gorphutz gucia ere arguitua içanen da, bainan gaistoa bada, çure gorphutça ere ilhumbean içanen da.

35. Beha çäeu beraz çu bai-than den arguia ez dadin içan ilhumbea.

36. Baldin beraz çure gorphutça arguitua bada, alde ilbunic içan gabe, orotan arguitua içanen da, arguizaguiac arguiten cituenean beçala bere arguiaz.

37. Eta mintço celaric, Pharisau batec othoiztu çuen bere etchean bazcariteco; eta Jesus sarthu cen, eta mahainean yarri.

38. Bainan Pharisaua estonatu cen ikhusteaz ez cela lehenie garbitu bazcaldu aitcinean.

39. Bainan Jaunac erran cion: çuec Pharisauac garbitzen du-

que coparen eta plataren campoa; bainan çuen barnea ohointçaz eta gaistaqueriez bethea da.

40. Erhoac, campoa egun duena ez duya barnea ere egun?

41. Bainan lehenago emaçue amoina duçue netaric, eta huna, gauça guciac içanen çaitçue garbiac.

42. Bainan çorigaitz çuei, Pharisauac; ecen pagatcen duçue mentharen eta ruaren eta belhar suerte gucien detchema, eta deslayatcen ditutçue yusticia eta Jaincoaren amodioa; egun behar ciren gauça hauc eta ez utci hec.

43. Çorigaitz çuei, Pharisauac lehen toquiac maite ditutçuenac Synagoguetan, eta agurrac placentan.

44. Çorigaitz çuei, Scribau eta Pharisau hypocritac, ecen iduri duçue agueri ez diren hobiac, halaco guisaz nun gainetic iragaiten diren guïçonec, ez baitaquite.

45. Orduan legueco irakhas-tailetaric batec hartu çuen hitça eta erran cion: Nagusia, gauça horien erraitean escarnioac ere erraiten daicutçu.

46. Eta Jesus ecen cion: çorigaitz çuei ere legueco irak-hastalei, ecen guïçonac bethetzen dituçue ekhar ez ditçaque-

ten cargez ; bainan ceronec ez ditutçue çarga hec hunquitcen çuen erhi batez.

47. Corigaitz çuei ; ecen equidateen ditutçue çuen aitec hil dituzten profeten hobiac.

48. Eguiaz aditcerat emaiten duçue gogaquidatcen ditutçuela çuen aiten egunzac ; ecen heyec hil dituzte , eta çuec eguiten ditutçue heyen hobiac.

49. Hartacotz ere Jaincoaren çuhurciac erran du : egorrico de-raiztet Profetac eta Apostoluac , eta hetaric hilen eta cassatuco dituzte.

50. Amoreagatic Profeta gu-cien odola ichuria içandena munduaren hastetic , berriz galda-tua içan dadin ethorquia huni ,

51. Abelen odolaz gueroztic , Zachariasen odoleraino , ceina heriotcean emana içan baitcen aldarearen eta Templuaren artean ; bai , erraiten dautçuet , berriz galdatua içanen çayo et-horquia huni .

52. Corigaitz çuei leguéco irakhistaleei , ceren creman on-doan yaquintassuneco gakoa , ceronec ez baitçaitzte sarthu , eta sartcen cirenac debekhatu baititutçue .

53. Gauça hauc erraiten ciotelaric , Scribauac eta Pharisauc eman ciren oraino borthizquiago

haren hersten , eta ahotic athe-rarazten asco gauça

54. Sareac hari hedatuz , eta ensayatcen cirelaric haren aho-tic cerbait bilcerat enganioz , hura oguendun eguiteco .

## XII CAPITULUA.

*Jesus - Christoc irakhasten ditu bereac hypocrisiatic beguirat-ceaz , lukurançatic , etc ; beren eguin bidearen behatcea , Nagusia yin artean , ongi sasoina eçagutceaz , eta baketcera , prest içaiteaz .*

1. Bizquitartean yende mul-çoac bilduric milaka , halaco : guisaz nun elgar hersten baitçen-ten , hassi cen bere Discipulei erraiten : beguire çaitetzte gúciz Pharisauen lemaniatic , ceina baita hypocrisy .

2. Ecen deusic ezda gorderic , aguertu behar ez denic , ez eta hain ichilic yaquin beharco ez denic .

3. Hartacotz ilhumbean erran ditutçuen gauçac , içanen dire ençunac arguijan eta beharrira erran duçuena gamberetan , içanen da predictua etche gainetan .

4. Eta erraiten dautçuet çuei ene adisquideac ; ez içan beldur-ric gorphutça hilcen dutenez , eta guero deusic ez baileçaqueto eguin guehiago .

5. Bainan irakhutsico dautçuet nor behar duçuen beldurtu; beldur çaque boherca duena ; hil duen ondoan , igoreeco gehennarat ; bai, erraiten dautçuet, beldur çaque hura.

6. Ez dutea emaiten bortz murruchori thipi bi cornadoetan ? eta bizquitartean hetarie bat choila ez da ahancia Jaincoaren aitcinean.

7. Çure buruco bilo guciac ere condatuac dire ; ez içan beraz beldur ; guehiago balio duçue hainitz murruchoriec baino.

8. Bada erraiten dautçuet norcre aithortuco bainau guiçonen aitcinean , guiçonaren Semeac aithortuco duela ere hura Jaincoaren Ainguueruen aitcinean.

9. Bainan norc-ere arnegatuco bainau guiçonen aitcinean , arnegatua içanen da Jaincoaren Ainguueruen aitcinean.

10. Eta nor-ere mintçatuco baita guiçonaren Semearen contra; barkhatua içanen çayo ; bainan Izpiritu Sainduaren contra arnegatzen duenari , ez çayo barkhatua içanen.

11. Eta eramaiten çaituzte- nean Synagogueterat , hirico aitcindarietarat eta botherexuera- rat , ez içan penetan nola , edo cer ihardetsico duçuen , edo cer erraiteco içanen duçuen.

12. Ecen Izpiritu Sainduac irakhatsico dautçue orduberean cer erran behar den.

13. Eta tropatic norbaitec erran cion : Nagusia , erroçu ene anayari enequin parti deçan primantça.

14. Bainan ihardetsi cion : o guiçona ! norc eçarri nau çure gainean çure yuye eçaiteco , eta çure partimenen eguiteco ?

15. Guero erran cioten : beha çaque eta beguira çaitetzte lukhurançatic ; ecen nahiz onthassunac gainditcea çaiseon norbaiti ; ezdu bizquitartean bicia bere onthassunez.

16. Eta erran cioten parábola hau ; guiçon aberax baten landec ekharri çuten frangancian ;

17. Eta bere baitan gogoratzen çuen , ciolaric : cer egünen dut , ecen ez dut norat bil ahal neure fruituac ?

18. Guero erran çuen , buna cer egünen dudan ; aurthiquico ditut ene bihitoguiac , eta han-diagoac egünen ditut , eta harat bilduco ditut ene arranda eta ene onthassun guciac.

19. Guero erranen diot ene arimari ; neure arima , hainitz onthassun baduçu bilduric hainitz urtherençat , descancha çaitayan , edan çäçü eta aleguera çaitayan .

20. Bainan Jaincoac erran

cion : errhoa, gau huntan berean çure arima berriz galdatua içanen çautçu; eta aphaindu dituçun gauçac norendaco içanen dira.

21. Guisa bera da onthassun bilcen duenarençat beretaco, eta Jaincoaren eretcean aberax ez denaz.

22. Orduan erran çuen Discipuluei : horrelacotz erraiten dautçuet, ez çaitezte içanen ansian çuen biciaz, cer yanen duçen; ez eta çuen gorputçaz, certaz içanen çareten beztituac.

23. Bicia yanharia baino guehiago da, eta gorputça beztimenda baino guehiago.

24. Considera çaitçue beleac, ez dute eraiten, ez eta ebaquiten, eta ez dute arnoteguiric, ezbihiteguiric, bainan Jaincoac hazten ditu; cembat balio duçue choriec baino guehiago?

25. Eta nor da çuetaric bere ansiez beso batez bere tailla gora deçaquenic?

26. Beraz ezcin baduçue hainitz gutia dena, cergicatic çarete ansian gaineracoaz?

27. Beguira çaitçue nola lüçtecen diren liliac, ez dute lancatcen, ez eta iruten, eta erraiten dautçuet Salomon bera, bere loria guçian ez cela aphaindua hetaric bat beçala.

28. Bada Jaincoac beztitcen badu bola egutu landau den belharra, eta bihar labean eçartia dena, cembat guehiago *bezti-tuco* çaituzte, o fede thipico yendeac?

29. Ez deçaçue beraz errancer yanen dugu, edo cer edanen dugu? eta ez çaiteztela içanansian.

30. Ecen mundu huntaco yendeac ondotic dire gauça horiec gucienc bilhatcen; bainan çuen Aitac bidaqui gauça horien beharra duçuela.

31. Bainan lehenago bilha çaque Jaincoaren Erresuina, eta gauça hauc guciad emanac içanen çaitçue gaindica.

32. Ez içan beldur, arthalde thipia; ecen onetsi çayo çuen Aitari Erresumaren quei emaitza.

33. Sal çaitçue ditutçuenac, eta hetaric eman amoina; eguitçue çahartcen ez diren molsac, eta ceruetan tresor bat, behinere hutx eguinenz ez duena, ohoina hurbilduko ez çayona, eta nun tinae deusic gastatoen ez duena.

34. Ecen nun ere baita çuro tresora, han içanen da çure bihotça ere.

35. Çuen guerriac içan bite inguratuaç, eta çuen arguizaguiac piztuac.

12 Cap.

36. Eta iduritçaque nagusia igarquitcen duten sehiei, ezte-yelaric itçulcen denean, amo-reagatic ethortcen denean, eta athea yotcen duenean, idec de-goten berehala.

37. Ongui dohaxuac dire se-hi, nagusiac ethortcen denean, atçarriæ aurquituco dituen hec. Egiazqui erraiten dautquet guerricoa eçarrico duela, eta mahainean yarraracico dituela, eta aitcinatuz, cerbitçatuco ditu.

38. Baldin ethortcen bada bi-garren edo hirurgarren bellan, eta khaussiteen baditu hola atçarriæ, ongwi dohaxuac dire sehi hec.

39. Bada yaquin çaque hau, familiaco aitac balaqui cemba-orenetañ ethorri behar den ohoi-na, atçarria egon laitequela eta ez leqaquela utz chilhateerat be-re etchea.

40. Çuec ere egon çaitzete beraz prest; ecen guionaren Se-meia ethorrico da pensatcen ez duçuen orenean.

41. Eta Pierresec erran cion: Jauna, erraiten duçuya parabola hau guretaco, ala oroendaco ere?

42. Eta Jaunac erran çuen: cein da beraz menayant arthat-sua eta çuburra nagusiac eçarrien duena bere sehi gucien

gainean, heyei emaiteco beren lan ohitua beharden demboran?

43. Ongui dohaxua da sehi hura, bere nagusiac hola egui-ten khaussituco duena, ethort-cen denean.

44. Eguiazqui, erraiten daut-çut, biteçarrico duela hura di-tuen gucien gainean.

45. Bainan baldi sehi hac errai-ten badu bere bihotcean: neure nagusiac hainitz luçatcen du e-thortcea, eta hasten bada mu-thilen eta nescatoen yoiten, eta yaten, eta edaten, eta horditeen.

46. Sehi haren nagusia ethor-rico da igarquitcen ez duen egunean, eta ez daquien orenean, eta berechico du, eta emanen daco bere zucena leyal ez dire-nequin.

47. Bada bere nagusiaren go-goa eçagutu duen sehia, eta prest egon ez dena, eta haren gogoaren arabera egun ez duena; içanen da hainitz colpez yoa.

48. Bainan hura eçagutu ez duena, eta gastigua merechii du-ten gauçac egun dituena, colpe gutiagoz yoa içanen da; ecen ceinari hainitz emana içan baitçayo, hainitz galdatua içanen çayo; eta ceinari hainitz confia-tua içan baitçayo, guehiago gal-datua içanen çayo.

49. Ethorri naiz sua lurrean,

emaiterat; eta cer nahi dut, baldin ya piztua bada?

50. Bada bathayatua içan behar naiz bathayo batez; eta cembat orboitçapen hora arras egunie içan arteraino!

51. Uste ducea ethorri naicela bakea lurrean emaiterat? ez erraiten dautuet; bainan lehenago escatima.

52. Ecen hemendie harat içanen dira bortz etche batean, makhurtuac, hirur bien contra, eta biga hiruren contra.

53. Aita içanen da mukhurtua semcaren contra, eta semea aitaren contra; ama alabaren contra, eta alaba amaren contra, amainarreha bere erreinen contra, eta erreina bere amainarrebaren contra.

54. Guero erraiten cioten yendei: ikhusten duçuenean lanho bat alchatcen iguzquiaren sar lekhutic, erraiten duçue berehala; uria heldu da, eta hala guerthatseen da.

55. Eta *ikhusten duçuenean* haicea buhatseen eguerdico aldetic, erraiten duçue bero eguiñen ducla; eta hala guerthatseen da.

56. Hypocritac, badaquique ongi eçagutcen ceruco eta lurreco itchurac; eta nola ez duçue eçagutcen dembora hau?

57. Eta cergicte ere ez duçue eçagutcen çuen baitharic cer den zucena?

58. Bada yoaiten çarenean hirico aitcindaria ganat çure partida contracoarequin; harçaçu hartarie libratacea; beldurrez eraman citçan yuyearen aitcinerat, eta yuyeac libra citçan saryantari, eta saryantac eman citçan preso.

59. Erraiten dautçut ez çarela atheraco handic azquen cornadoabihurtu duçun arteraino.

### XIII CAPITULUA.

*Jesus - Christoc eaquincen du urriquirat Galileano massacratu en eta pico hondo ebaquiaren gainetic; sendatzen du emazte eri bai, errepausuco egunean, bardincen du Jaincoaren Erresuma bihari eta lemaniari, eaquinduz han sarcerat athe hersitic, eta oihu eginez çorigaitz Jerusalemen gainerat.*

1. Dembora bartan bercan han aurquitcen cirenetarie cembaitec aiphatu cioten *cer iragan een Galileanoen* gainean, ceinen odola Pilatusec nahassi baitcuen høyen sacrificioequin.

2. Eta Jesusec ihardestean erran cioten: uste duçueya Galileano hec bekhatorosagoac ci-

rela Galilenoa guciac baino, ceren pairatu dituzten holaco gauçac?

3. Ez, erraiten dautçuet; bainan ez baciezte urriquitcen, guciac fundituco çarete guisa berean.

4. Ala uste duçue hemeçortci hec ceinen gainerat erori baitcen Siloeco dorrea, eta lehertu baitcien, faltadunagoac cirela Jerusalemeco bicitiar guciac baino?

5. Ez, erraiten dautçuet, bainan ez baciezte urriquitcen, fundituco çarete guciac guisa berean.

6. Erraiten çuen parabola hau ere; norbaitec baçuen pico hondo bat bere mahastian landatua; eta ethorri cen fruitu bilhatcerat, bainan ez çuen aurquitu.

7. Eta erran çuen mahasti çainari; huna, badu hirur urthe ehorteen naicela fruitu bilhatcerat pico hondo huntan, eta ez dut khaussitcen, pica çäçu; cergatic pochelatcen du *alferretan lurra*?

8. Eta *mahatsi çainac* ihardestean, erran cion: Janna, utz çäçu oraino urthe huntan, aitçurtu dudan artino haren ingurunac eta ungarriztatu.

9. Eguiten badu fruituric, *utcico duçu*; bertcenaz picatuco duçu guero.

10. Bada, nola irakhasten bait-

çuen heyen Synagoguetan errepausuco egun batez;

11. Huna han bacen emazte bat debrustatua demonio batez, ceinac eritcen baitçuen hemeçortci urthe hartan, eta makhurtua cen, eta ez çaitequen neholere chuti.

12. Eta Jesusec ikhussi queñean, deithu çuen, eta errancion: emaztea sendatua çare çure eritasunetik.

13. Eta escuac pausatu ci-tuen haren gainean; eta ordu berean chuchendu cen, eta lorificatcen çuen Jaincoa.

14. Bainan Synagoguaco nagusia hassaratua, ceren Jesusec sendatu çuen errepausuco egunean, hitça hartuz, erran cion bilçarriari; badira sei egun, ceinetan hari behar baita lanean; çatozte beraz egun hetan, eta içan çaitequze sendatuac, eta ez errepausueo egunean.

15. Eta Jaunac ihardetsi cion, eta erran: hypocrita, çuetaric bakhotchac ez dua deslotcen bere idia edo bere astoa othelacotic errepausuco egunean, eta ez ditua edaterat eramaiten?

16. Eta ez cena behar lokharri hortaric deslotu errepausuco egunean hau Abrahamen alaba, ceina Satanec estecatu baitçuen duela ya hemeçortci urthe?

17. Gauça hauc erraiten ci-tuelaric, haren contrestaçiale guciac ahalguetuac ciren, bainan yende gueiac bozcariatcen ciren eguiten cituen gauça loriros guciez.

18. Erraiten çuen orobat; cer iduri du Jaincoaren Erresumac, eta ceri bardinduaco dut?

19. Iduridu du mustarda haciaren bihia guiçon batec hartu baitçuen, eta eçarri bere baratcean, ceina goratu baitcen, eta eguin arbole handi bat, halaco guisaz nun ceruco choriec eguiten baitcituzten beren habiac haren adarretan.

20. Erran çuen oraino : ceri bardinduaco dut Jaincoaren Erresuma?

21. Iduri dut emazte batec hartu çuen lemania, eta eçarri hirur gaitçuru irinen erdian, gucia alchatua içan artino.

22. Guero yoaiten cen hiri eta herrietan gaindi, irakhasten çuela, eta Jerusalemeco bidea atchiquitcen.

23. Eta norbaitee erran cion : Jauna, ez dea yende guti baicen salbatcen denic?

24. Eta erran cioten : borcha çaitetzte athe hersitic sartceco; ecen erraiten dautçuet hainitçac bilhatuco dutela sarteerat, eta ez dute ahal içanen.

25. Eta aita fainiliacoa yaiqui den ondoan, eta athea hetsi duen ondoan, eta quec campoan içanez hassico çaretenean atheistan yoca, erraiten duçuelaric: Jauna! Jauna! idecaguçu; eta ihardestean erranen dautçue-nean; ez daquit nungoac çareten;

26. Orduan hassico çarete erraiten; yan eta edan dugu çure aitcinean, eta irakhasti duçu gu-re carriketan.

27. Bainan erranen du; erraiten dautçuet ez daquidala nungoac çareten; urrun çaitetzte ni ganic, quec oro gaistaqueriac languileac.

28. Han içanen dire nigarrac eta hortz carrascac; ikhusten ditutçuelean Abraham, eta Izaac, eta Jacob, eta Profeta guciac Jaincoaren Erresuman, eta içanen çaretenean aurthiquiac camporat.

29. Ethorrico dire orobat iguzqui atheratcetic, eta iguzqui sartcetic, eta ipharretic, eta eguerditic, mahainean içanen direnac Jaincoaren Erresuman.

30. Eta huna, azquen direnac içanen dire lehenac, eta lehen direnac içanen dire azquenac.

31. Eta egun hartan berean Pharisau cembait ethorri ciren hura ganat eta erran cioten; urrun çaitet eti çoaci hemendie;

ecen Herodesec hil nahi çaitu.

32. Eta ihardetsi cioten : çanzte eta erroçue acheri horri ; huna, cassatcen ditut demonioac, eta akhabateen dut egun eta bihar sendateen, eta hirur garren egunean akhabatcen naiz.

33. Hartacotz ibili behar naiz egun eta bihar, eta etci ; ecen ez da guerthatcen Profeta bat hilcerat Jerusalemetic campo.

34. Jerusalem, Jerusalem, Profetac hilcen ditucanac, eta harricatcen hiri egorriac direnac ; cembañ aldiz nahi içan ditut bildu hire haurrac, oiloac bilcen dituen beçala bere umeac dere hegaleñ aspirat, eta ez duc nahi içan.

35. Huna, çuen etchea hutsa içaiterat döha ; eta erraiten daut-çuet eguiazqui ; ez nauçuela ik-hussico ethorrico den artino erranen duçuela : benedicatua içan bediJaunaren icenean heldu dena

#### XIV CAPITULUA.

*Jesus - Christoc sendatcen du ugueri bat errepausuco egunean, irakhasten ditu Pharisauac lehen urhatsaren gainean eta deitcen ditu mahainerat afari handiaren parabolaz, eta hainitz irakhasunce emaiten du bereei.*

1. Guerthatu cen orobat Je-

sus sarthu celaric errepausuco egun batez Pharisa aitcindarie- taric baten etcheaan, bere yan- harriaren eguiteco, celatatcen çutela.

a. Eta huna, guiçon ugieri bat han cen haren aitcinean.

3. Eta Jesusec hartuz hitça, mintçatu cen legueco irakhastai- lei eta Pharisaei, cioelaric : cil- hegui dea errepausuco egunean sendateea ?

4. Eta ez çuten erran hitça. Orduan harturic eria, sendatu çuen etaigorri.

5. Guero heyei buruz, erran cioten : nor içanen da çuen artean, baldin badu asto bat edo idi bat ceina çupurat erorcerat guerthatcen bada, ez duena berhala handic atheratcen erre- pausuco egunean ?

6. Eta ezcincin ihardets çaque- ten gauça hauyei.

7. Aiphatcen cioten orobat gombidatuei parabola bat, ohar- tuz nola hautatcen cituzten le- hen toquiac mahaineran, eta erraiten cioten :

8. Norbaitez içaiten çarenean deithua ezteyctarat, ez çaité ma- haineran yar lehenbicieo tokian, beldurrez guertha çu baino oho- ratuago bat içan dadin orobat deithua.

9. Eta beldurrez deithu çai-

tuena ethor dadin, eta erran decaun: emocu cure tokia huni; eta orduan has caiten yartcen ahalquerequin azquen tokian.

10. Bainan gombidatua caiten carenean, coaci, eta eman caite azquentokian, amoreagatic gombidatu. caituena ethorteen deunan, erran decaicun: adisquidea, igan caite gorago; eta orduan hori ohore içanen çautçu curequin mahainean diren guien aitcinean.

11. Ecen nor ere alchatcen baita, aphaldua içanen da; eta nor ere aphalcen baita, alchatua içanen da.

12. Erraiten cion orobat gombidatu çuenari; eguiten duçunean bazcari bat edo afari bat, ez ditçauela deithi cure adisquideac, ez cure anayac, ez cure ahaideac, ez cure auçoco aberraxac; beldurrez gombida caitaten beren aldian, eta ordaina bihurtua içan çaitçun.

13. Bainan eguiten duçunean gombidanza bat, gombida çaitçu errumesac, ecinduac, mainguac, eta ixuac;

14. Eta ongui çorionecka içanen çare ez dutelacotz ordaina ren bihurtcecoric; ecen ordaina bihurtua içanen çautçu yustuen berriz piztean.

15. Eta mahainean cirenataric

batec adituric hitz hauc, errancion: çorionecka içanen da oguiyanen duena Jaincoaren Erresuman.

16. Jesusec erran çuen: guicon batec egun çuen afari bandibat, eta gombidatu cituen hainitz yende.

17. Eta afariteco orenean egorri çuen bere sehia gombidatuei erraiterat; çatozte, guciæ ya prest dira.

18. Bainan hassi ciren guciæ batean beren buruen escusacen. Lehenbicicoac erran cion: erosi dut lur bat, eta baitezpada yoan behar naiz haren ikhusterrat; othoizten çaitut, escusa neçaçu.

19. Bertce batec erran çuen: erosi ditut bortz idi pare, eta heyen frogatcerat noha; othoizten çaitut, escusa neçaçu.

20. Eta bertce batec erran çuen, esposatu dut emazte bat; hartacotz ez naiteque yoan.

21. Guisa hartan sehia itxili cen, eta kharriatu çaiçon gauça hauc bere nagusiari. Orduan aita familiacoac hassarraturic, erran cion bere sehiari: habil berehala placetarat eta hirico carriquetarat, eta erakhar çac hunat errumesac, eta ecinduac, eta mainguac eta ixuac.

22. Guero sehiac erran çuen:

Nagusia çuc manatu duçun araber aequina içan da, báda oraino tokí.

23. Eta nagusiac erran cion sehiari : habil bidetarat eta berro bazterretarat, eta *aurquitcen diucanac*, bortcha *caic sartcerat*, ene etchea içan dadin betheia.

24. Ecen erraiten dautquet gombidatuac içan ciren guicon hetaric batec ere ez duela yastatuko ene afaritic.

25. Bada mulço handiac yohan ciren harequin; eta hura itçuliric, erran cioten :

26. Baldin norbait ethortcen báda ni ganat, eta ez baditu higuintcen bere aita eta bere ama, bere emaztea eta bere haurrac, eta bere anayac, eta bere arrebac, eta bere bicia ere, ezcin içan daite ene Discipulua.

27. Eta norc-ere ez baitu ekhartcen bere khurutcea, eta ez baitçaut yarraiquitcen, ez dai-teque içan ene Discipulua.

28. Bainan nor da çuen artean, nahi badu alchatu dorre bat, lehenic yarteen ez dena, eta ez duena gastua condatcen, heya baduen certaz akhaba?

29. Beldurrez cimendua aurti qui ondoan, eta ezcin akhabatu ahal ondoan, hura ikhus-

ten duten guciāc, ez diten has hartaz trufatcen.

30. Diotelaric : guicon hori alchatcen hässi da, eta ezdu akhabatu ahal içan.

31. Edo, cein de erreguca partitcen dena bertce erregue bati guerla emaiterat, lehenic yartcen ez dena, eta ez duena betuzten heya hamar mila guiconquin yoan ahalco denez harren contra hogoi milequin heldu denari buruz.

32. Bertcenaz, egorteen dio bialquinde bat, oraino urrun delaric, eta bakea galdatecen du.

33. Guisa berean beraz çuetaric norc - ere ez baitu ukho eguiten dituen guciēi, ez daite içan ene Discipulua.

34. Gatça onda, bainan baldin gatça eztitcen báda, certaz gacitueo dute?

35. Ezda on ez lurreco ez ungarricotçat, *bainan* camporat aurthiquitcen dute : beharriac dituenae encuteco, ençun beça.

## XV CAPITULUA.

*Jesús-Christoc justificatcen du bere comportamendua bekhatorosen alderat, ardiaren, adarmearen eta haur prodigodren parabolaz.*

1. Bada pagaraztaile eta bici

gaistoco yende guiac hurbilcen  
çaizcon haren ençuteco.

2. Baiuan Pharisauec eta Scri-  
bauec murmuratcen çuten, ci-  
telaric : hunec errecebitcen ditu  
bici gaistoco yendeac, eta yaten  
du heyequin.

3. Bainan aiphatu cioten pa-  
rabola hau ; ciotelaric :

4. Nor da çuen artean guiçona  
ehun ardi içan eta, hetaric bat  
galcen badu, uzten ez dituena  
laur hogoi eta hemeretciac ere-  
muan, eta abiatcen ez dena  
galdua denaren ondotic, hora  
atceman duen artino ;

5. Eta huna atceman ondoan,  
bizcarreaux ekhartcen ez duena  
bozario handitan.

6. Eta bere etcherat ethorri  
ondoan, deitcen ez dituena bere  
adisquideac eta bere auçoac, eta  
erraiten ez diotena ; aleguera  
çaitezte enequin ; ecen aurquitu  
dut galdua cen ardia ?

7. Erraiten dautçuet, guisa  
bercan içanen dela alegracia  
ceruan behkatoros bakhar urri-  
quitcerat yoiten den baten da-  
co, laur hogoi eta hemeretci yus-  
tuen daco baino guehiago, cei-  
nec ez baitute behar urriquirie.

8. Edo nor da emaztea hamar  
adarme (*diru peça*) dituelaric,  
baldin galcen badu adarme bat,  
argua pizten ez duena ; eta et-

chea garbiteen ez duena, eta  
hora bilhatcen ez duena arthos-  
qui, hora atceman arteraino?

9. Eta atceman ondoan, deit-  
cen ez dituena bere adisquideac  
eta bere auçoac ; erraiten diote-  
laric : aleguera çaitzete enequin,  
ecen aurquitu dut galdu nuen  
adarnea ?

10. Guisa berean erraiten  
dautçuet badela bozario Jain-  
coaren Aingueruen aitcinean be-  
khatoros bakhar urriquitcerat  
yoaiten den baten daco.

11. Erran cioten orobat : Gui-  
çon batec cituen bi seme ;

12. Eta gaztenac erran cion  
aitari ; aita, indaçu onthassune-  
tic niri helcen çautan partea ;  
eta partitu çaicoten bere on-  
thassunac.

13. Eta egun gutiren buruan,  
gaztenac bildu cituenean guiac,  
yoan cen camporat lekhu ur-  
run batetarat ; eta han chahutu  
çuen bere onthassuna debauch-  
querian bici içanez.

14. Eta chahutu cituenean  
gueiac, gosete handi bat guer-  
thatu cen lekhu hartan ; eta es-  
cassian içaiten hassi cen.

15. Orduan yoan cen handic,  
eta lur hartaco yaun baten cer-  
bitquan yarri cen ceinac egorri  
baitçuen bğre lurretarat urde  
pazcatceco.

16. Eta lehia baçuen urdec yaten çuten thequitaric assetceco; bainan nihorc ez cion emaiten.

17. Bada bere baithan sarthic, erran çuen: cembañ sehi ene aitaren otchean, ogua frangançian dutenac, eta ni gosseac hilcen liari nau?

18. Yaiquico naiz, eta yoanen naiz neure aita ganat, eta erranen diot: Aita! bekhatu eguin dut ceruaren contra eta çure aitcinean;

19. Eta ez naiz guehiago gay çure semea deithua içaiteco; eguin neçaçu çure sehietaric bat beçala.

20. Yaiqui cen beraz, ethorri cen bere aita ganat, eta hura oraino urrun celaric, aitac ikhussi çuen; eta urricalçapenez hunquitua içan cen, eta laster eguinic hura ganat, yauei eguin cion lephorat eta besarcatu çuen.

21. Bainan şemeac erran cion: ene aita, bekhatu eguin dut ceruaren contra eta çure aitcinean; eta ez naiz guehiago gay çure semea deithua içaiteco.

22. Eta aitac erran çuen here schiei; ekharçue arropa ederreña, eta yauntz çoque, emoque erhauztun bat erhian, eta çapatac oinetan;

23. Eta ekhar eçadaçue aratche guicena, eta hil çaque, eta eguin deçagun asse on bat hura yanez;

24. Ecen ene seme hau hilcen, bainan piztu da, galdu cen, bainan ediren da. Eta hassi cireu ongwi yaten.

25. Bada haren seme çaharrena landan cen, eta ethoreen celaric eta etcherat hurbilcen, ençün cituen cantu eta danzac.

26. Eta deithuric sehietaric bat, galdeguin cion cer cen?

27. Eta sehi harc erran cion: çure anaya ethorri da, eta çure aitac hildu aratche guicena, cereu osseric aurquitu duen.

28. Bainan bassaratu cen, eti ezeen sarthu nahi içan; eta bere aita ilkhiric othozten çuen sarçadin.

29. Bainan ihardetsi çuen, eta erran cion here aitari: huna, badu bainbertce urthe cerbitateen çatudala, eta ez dut behinere çure manuric iragan; eta bizquitartean ez dautaçu egundaino eman pittia bat ene adisquidequin atsegüin harceco.

30. Bainan çure seme hau, ceinac iretsi içan baitu çure onthassuna bici gaistoco emaztequin, ethorri içan denean, hil içan dacogu aratche guicena.

31. Eta aitac erran cion:

ene haurra , cu bethi enequin  
çare , eta ene onthassun guciac  
çureac dire.

32. Bada asse ona eguiñ be-  
har cen , eta alegueratu , ceren  
çure anaya hau hil baitcen ; eta  
piztu baita ; galdu baitcen , eta  
ediren baita.

## XVI CAPITULUA.

*Jesus - Christoc irakhasten du  
inyustuaren , Jaincoaren eta  
Mammonen cerbitçarien , a-  
berax eta Lazararen para-  
bolaz.*

1. Erraiten çuen ere bere Discipuluei , bacen guicon aberax  
bat quena menayant bat , ceina  
haren aitcinean accusatua içan  
baitcen haren onthassunen bar-  
rayatceaz.

2. Eta deithuric , erran cion :  
cer aditeen dut çutaz erraiten ?  
çure menayuaren contuac erren-  
da çaitçu ; ecen ez duen gue-  
hiago içanen ene onthassunen  
menayatceco ahala .

3. Orduan menayantac erran  
çuen here baithan ; cer eguiñen  
dut ; ene nagusiac khenteen  
dautanaz gueroz here onthassu-  
nen menayua ? ez deçaquet ait-  
çurt lurra ; eta esquatceco ahal-  
que naiz .

4. Badaquit cer eguiñen du-  
dan , amoreagatic ene menayant-

ça khendua içaiten çautaneau ,  
cembaltec har neçacen bere et-  
chetan .

5. Orduan deithu cituen he-  
derazka bere nagusiaren çordu-  
nac , eta erran çuen lehenbici-  
coari : cembat duçu çor ene  
nagusiari ?

6. Erran çuen : ehuniçari olio.  
Eta erran cion : har çäu çure  
çorra , eta yar çaité berchala ,  
eta ez escriba berrogoi eta ha-  
mar baicen .

7. Guero bertee batí erran  
cion : eta çuc cembat duçu çor  
eta erran çuen : ehun gaitçuru  
ogui . Eta erran cion : har çäu  
çure çorra , eta ez escriba laur  
hogoi baicen .

8. Eta nagusiac laudatu çuen  
menayant deleyala , çuhurqui  
eguiten çuelacotz . Halá , mendo  
huntaco umeac çuhurrago dira  
beren ethorquian , arguico umeac  
baino .

9. Eta nic ere erraiten daut-  
çuet ; eguitque adisquideac on-  
thassun gaisqui bilduez ; amoreag-  
atic akhabatoerat yeiten çare-  
tenean , erreccbi citçaten egoitça  
bethicoetan .

10. Gauça gutinoetan leyal  
dena , gauça handietan ere leyal  
da ; eta gauça gutinoetan deleyal  
dena deleyal da ere handietan .

11. Baldin beraz ez bacieste

içan leyal onthassun gaisqui bilduetan, norc fidatuco dautque eguiazco *onthassunac?*

12. Eta baldin bercerena denaz ez bacirete içan leyal, norc emanen dautque çuena dena?

13. Sehi batec ez ditçaque bi nagusi cerbitça; ecen higuinduko du bat, eta maithatuco bertcea; edo estecatuco da bati, eta arbuyatuco du bertcea; ez deçaqueçne cerbitça Jaincoa eta aberraxtasunac.

14. Bada Pharisauc ere, luhurariac haitciren, ençuten cituzten haue guciac, eta hartaz trufatcen ciren;

15. Eta erran cioten: çuen buruac garbitcen ditutque guiçonen aitcinean; bainan Jaincoao eçagutcen ditu çuen bihotçac; hartacotz guçonen aitcinean handi dena abominacionean da Jaincoaren aitcinean.

16. Legueac eta Profetec *israun dute Joannes arteraino*; handic hunat, Jaincoaren errësuma ebanyelisatua da, eta bakhoscha harat borthisqui deithuda.

17. Bada erretchago da cerua eta larra iragan diten, ecen ez legueco pondu bakharr baten errorcea.

18. Norc-ere igorcen baitu bere emaztea, eta bertce batequin ez-

conteen yauquiten du adulterioa, eta norc-ere harteen baitu bere senharraz utcia dena, yauquiten adulterioa.

19. Bada bacen guiçon aberax bat purprez eta liho finez aphainen oëna, eta egun guciez handizqui hazten cena.

20. Errumes bat *ere baceu*, Lazara icena çuena, aberaxaren athean etçana, eta çauriz estalia;

21. Eta guticia handia çuena aberaxaren mahainetic erorcen ciren porrosquetaric assetceeo; eta chakkurrac ere ethortcen ciren, eta milicatcen cioten bere çauriac.

22. Eta pobrea hilcerat yin cen, eta ekharria içan cen Aingeruez Abrahamen besuetarat; aberaxa ere lil cen, eta içan cen ehortzia.

23. Eta ifernuan celaric, eta beguiac alchatuz, nola auhenetan baitcen, ikhussi çuen urrun danic Abraham eta Lazara haren besuetan;

24. Eta oihu garracica, erran çuen: Aita Abraham, urrial çaité nitaz; igorraçu Lazara, ceina, erhi punta urean bustiz, ethor dadin ene mihiaren frescatcerat, ecen min garratcetan naiz su gar huntan.

25. Eta Abrahamec ihardetsi

çuen : ene semea, orhoit çaité  
çure bician içan ditutçula çure  
onthassunac, eta Lazarac han  
içan dituela bere çorigaitçae ;  
bainan orai bozariotan da, eta  
çu min garratetan çare.

26. Eta hortaz berce alde,  
leice handi bat eçarria da gure  
eta çure artean ; halacoa nun  
hemendie çu ganat iragan nahi  
direnac, ez baitiote ; ez eta hor-  
tic hunat iragan.

27. Eta erran çuen : otboiz-  
ten çaitut beraz, aita, egortceaz  
ene aitaren etcherat.

28. Ecen bortz anaya baditut,  
amoreagatic errenda deçoten *ni*  
*naicen estatuaz* condo ; bel-  
durrez hec ere yin diten auhe-  
nezeo lekhu huntarat.

29. Abrahamec ihardetsi cion :  
badituzte Moise eta Profetac ;  
ençün ditçaten bauc.

30. Bainan erran çuen : ez,  
Aita Abraham; bainan hiletaric  
norbait yoaiten bada hec ganat  
urriquituco dira.

31. Eta Abrahamec erran  
cion : ez badituzte ençuten Moi-  
ses eta Profetac, ez dute gue-  
hiago sinhetsico, hiletaric nor-  
bait pizturic ere.

## XVII CAPITULUA.

*Jesus-Christoc solas eguiten du  
bere Discipuluei gaizbideaz,  
barkhamenduaz, eta fedea-  
ren indarraz, cerbitçari ez  
deusez; hamar lepradun sen-  
datcen ditu, eta mintço Jain-  
coaren Erreynuaren ethorça-  
penaz, eta guiconaren semea-  
ren egunaz.*

1. Bada erran çuen bere Dis-  
cipuluei : ez daiteque içan bert-  
cenazgaizbideac guerthatcea bai-  
cen ; bainan çorigaitz ceinaz  
guerthatcen direnari.

2. Hobeago luque eçar bale-  
çote eihera harribat lephotic, eta  
ixasorat aurthiquia içaitea, ez-  
cenez gaizbidetcea haur hotario  
bakhar bat.

3. Guardia emaque çuen bu-  
ruei. Baldin beraz çure anayac  
hutz eguin badu çure contra,  
errepreni çäçü ; eta baldin urri-  
quitcen bada, barkhatuco dioçu.

4. Eta baldin çazpitän egü-  
nean hutz eguin badu çure con-  
tra, eta çazpitän egunean itçül-  
cen bada çu ganat, dioelario :  
urrikalcen naiz; barkhatuco dio-  
çu.

17 Cap.

5. Orduan Apostoluec erran cioten Jaunari: handi dieçaguçu fedea.

6. Eta Jaunac erran çuen; baldin bacinute federic mustarda haciaren bihi bat becen lodi, erran ahal cineçaquete martholça ondo huni, deserro çaitet, eta landa çaitet ixasoan; eta obedi cinitçazque.

7. Bainan nor da çuen artean, duelaric sehi bat laboranzan hari dena, edo arthaldearen pazcatzen, eta hura ikhustean landefarie itçulcen, erraiten duena berehala: aiteina hadi, eta yar mahainean.

8. Ez dioeya Ichenago erraiten: presta çadac afaritera, guerricoa egarçac, eta cerbitça neçac yan eta edan dudan artino; eta guero yan eta edanea duc.

9. Bainan badua hortacotz çorric cerbitçari hari cergatic egün duen manatu cioena? ez dut uste.

10. Çuec ere orobat, egün ditütçuenean manatuac çaitçuen gauça guciak, erraque: cerbitçari ez deusac garc; ceren ez baitugu egün, egün behar guinduena baicie.

11. Eta guerthatu cen Jerusalemerat yositean; iragaiten cela Samariaren eta Galilearen erditic.

12. Eta herri batean sartcen celaric, hamar guiçon lepradunez khaussitu çuten bidean, eta guelditu ciren urrundanic.

13. Eta beren boçac goratuz, erran cioten: Jesus, Nagusia, urrical çaquizquign.

14. Eta ikhussi cituenean, erran cioten: çoazte, aguer çaitetze Sacrificatçaili. Eta guerthatu cen bidean garbi egün cirola.

15. Eta hetaric batec ikhussiz sendatua cela, itçuli cen, lorificatecen çuela Jaincoa gora gora.

16. Eta lurrerat aurthiqui cen ahuzpez Jesuse oinetarat, esquerrac bihurtzen cioela. Bada Samaritano bat cen.

17. Orduan Jesuse hitça harutz, erran çuen: hamarrac ez direa içan garbituac? eta nun dira bederatciac?

18. Ez da arrotz hau baicen itçuli denic Jaincoari loria emai-teco.

19. Orduan erran cion: chuti çazte, çoaci çure fedeac salbatu çaitu.

20. Bada Pharisaez interroauta celaric, noiz ethorrico cen Jaincoaren Erresuma; ihardetsi çuen, eta erran cioten: Jaincoaren Erresuma. Ez da ethorrico itchurapenequin.

21. Eta ez dute erranen : huna, hemen da; edo han da; ecen huna, Jaincoaren Erresuma çuen barnean da.

22. Erran çuen orobat bere Discipuluei : egunac ethorrico dira guticiatuco baitçarete ik-hustera guiçonaren Semearen egunetaric bat, bainan ez duçue ikhussico.

23. Eta errauen dautçue : huna, hemen da, edo hara han da, *bainan* ez çaitetzela yoan, eta ez çaiquioye yarraic.

24. Ecen chimistae arguitcen duen beçala ceruaren azpico alde batetaric, eta berriz arguiteen ceruaren azpian den bertce alderaino, hala içanen da orobat guiçonaren Semea bere egunean.

25. Bainan behar du lehenic hainitz pairatu, eta arbuyatua içan ethorquia huntaz.

26. Eta nola ethorri baitcen Noeren egunetan, guisa berean ethorrico da guiçonaren Semearen egunetan.

27. Yaten eta edaten çuten, hartcen eta emaiten cituzten emazteac ezcontçaz Noe arcan sarthu cen eguneraino; eta uhaldea ethorri cen, guciac galaraci baitcituen.

28. Gauça bera guerthatu cen Loten egunetan, yaten eta edaten çuten, erosten, salcen, lan-

datcen, eta equidatcen çuten. 29. Bainan Lot Sodomitic atheracen egunean, uritu çuen suz eta ceruco sofrez, ceinac guciac galaraci baitcituen.

30. Guisa bera içanen da guiçonaren Semea aguertcen deean.

31. Egun hartan etche gainean dena, eta bere menayua etche barnean duena, ez bedi yeits haren eramaiteco; eta landetan dena, ez bedi orobat itçul, guibelean *utcia* denerat.

32. Orhoit çaitetzte Loten emazteaz.

33. Norc-ere bilhatuco baitu bere biciaren salbatcea, galduco du; eta norc-ere hora galduco baitu, salbatuco du.

34. Erraiten dautçuet, gauhartan, ohe berean içaiten diren biguetaric bat içanen dela hartua, eta bertcea utcia.

35. Emazte elgarrequin ehotcen duten biguetaric bat, içanen dela hartua, eta bertcea utcia.

36. Landa berean içaiten diren biguetaric bat içanen dela hartua, eta bertcea utcia.

37. Eta heyec ihardestean erran cioten : nun *içanen* da hora Jauna? eta erran cioten : cein nahi lekhutan içanen dena gorphutz *hilg* harat bilduko dira ere arranoac.

## XVIII CAPITULUA.

*Jesus-Christoc gomendatcen du iraupena oithoitcean yuye gaistoaren parabolaz; eaquinzen du pagaraztaile urriquituaren humiltasunerat, besarcatcen ditu haurrac, ikharatcen ditu aberaxac, bozcarriotcen guciac utci dituztenac haren amoreagatic, igaiten da Jerusalemerat bere pairacunza annonçatcen du, eta ixu bat sendatcen.*

1. Aiphatu cioten orobat parabola bat, adiarazterat emaiteco othoitz egun behar dela bethi, eta behinere onhatu gabe;

2. Cioelarie : hiri batetan bacen yuye bat, Jaincoareu beldur ez cena, eta nihor errespetatzen ez çuena.

3. Eta bacen hiri berean alhargunsa bat, maiz haren khaussitcera yoaiten cena, eta erraitera ; egunin eçadaçut yusticia ene contraco partidaz.

4. Dembora lucez ez çuen deusic egun nahi içan. Bainan guero erran çuen bere baithan : nahiz ez dudan Jaincoaren beldurric, eta ez dudan nihor erespetateen,

5. Bizquitartean ceren emazte alhargun horrecnekhatcen nuen, yusticia eginden diot, beldurrez

yein daquidan bethi buruaren hausteria.

6. Eta Jaunac erran çuen : ençun çaque cen erran çuen yuye gaistoac.

7. Eta Jaincoac ez dituya mendecatuco bere hautatuac gabaz eta egunaz hari oihuca daudenac, nahiz luçatcen duen heyen eretcerat ?

8. Erraiten dautçuet laster mendecatuco dituela. Bainan guiconaren Semea ethorteen deñean ; khaussituco du fedea lurrean ?

9. Erran çuen orobat parabola hau cembaiti ceinec uste baitçuten beren baithan içanyustu, eta bertceac atchiquitzen ez deusetçat.

10. Bi guicon igan ciren templurat othoitz eguiteco, bat Pharisaua ; etabertcea, pagaraztailea.

11. Pharisaua bazter batetan çagolarie othoitz eguiten çuen bere baithan cioelarie : o Jaincoa ! esquerrac behartcen daizquitçut ceren ez naicen hertce guiconac beçala, ceinac baitira hatcemaileac, inyustuac, adulterioac ; ez eta pagaraztaile hori beçala.

12. Astean bi aldiz barurcendut, eta emaitendut neure onthassun guien detchima.

13. Bainan pagaraiztailea ur-

run çagolaric, ez çaitequen mētura ere beguien cerurat alchatcerat, bainan bulharrac yoiten cituen, cioelaric : o Jaincoa ! içan çaité emaatua ene alderat bekhatorosa bainaiz !

14. Erraiten dautçet han yautsi cela bere etcherat garbitua, bertcea baino lehenago; ecen alchateen dena, aphaldua içanen da, eta aphaleen dena, alchatua içanen da.

15. Eta cembaitec aiteinerat ekharri çaizeoten haurthipi batçu, hunqui citçan : Discipuluec hori ikhussiric, gaizquiac erran cioten *ekharçulei*.

16. Bainan Jesusec ethoraracircic hec bere ganat, erran çuen: utz çaitçue ni ganat ethorcerat haurthipiæ, eta ez çaitçue traña; ecen Jaincoaren Erresuma horiee iduridutenentçat da.

17. Eguiazqui erraiten dautçet, nore-ere ez baitu errecebbituec Jaincoaren Erresumahaurbatec beçala, ez dela han sartthuec.

18. Eta yaun batee galdeguin cion, cioelaric : Nagusi ona, cer egünen dut bicitce eternalararen ardiesteco ?

19. Jesusec erran cion : ergatic deitcen nauçu ona? ezda nihor onic bat bakarra baicen, cein baita Jaincoa.

20. Badaquitçaetu manainen, duac : ez duçu egünen adulterioric. Ez duçu hilen. Ez duça ebatsico. Ezduçen erranen lekhuococatasun falsuric. Ohora çaitçu çure aita eta çure ama.

21. Eta erran cion : beguiratu ditut gauça haue guciac ene gaztetasunetic.

22. Eta Jesusec ençun çueñean erran cion : oraino gauça bat escas duçu ; sal çaitçu ditutçun guciac, eta eman pobreí, eta içanen duçu tresor bat eruan; guero ethor çaité eta niri yarraic çaité.

23. Bainan hura gauça hec ençun ondoan, hainitz tristatu cen, ceten hainitz aberaxa baitcen.

24. Eta Jesusec ikhussiz hainitz triste egüin cela, errançuen: gaitz dela onthassunae dituztenac sar diten Jaincoaren Eresuman !

25. Segurqui errechago da camelu baten iragaitea orratz baten chilotic, ecen ez aberax baten sartcea Jaincoaren Eresuman !

26. Eta hori ençun çutenec, erran cioten : eta nor salba daita beraz?

27. Eta erran cioten : guipo-nei ecen diren gauçac, Jaincoari ahal dira.

28. Eta Pierresec erran çuen :

hura, oro utci ditugu, eta seguitu çaitugu.

29. Eta errau cioten : egiazqui erraiten dautçuet, ez dela bat utci duenic bere etchea, edo bere ahaideae, edo bere haurri-deac, edo bere emaztea, edo bere haurrac, Jaincoaren Erresumaren amoreagatic,

30. Ez duenic hainitz guehiago errecebituco mende huntan, eta bertce munduan bicitce eternala.

31. Guero Jesusec hartu ci-tuen hamabiac, eta erran cioten : huna, igaiten guira Jerusalemerat, eta Profetez escribatuac içan diren gauça guciac guionaren Semearen gainean, complituac içanen dira.

32. Ecen paganoen escura emana içanen da; trufatua, eta escarniatua, eta thu eguinendiote bisayara.

33. Eta açotatu duten ondoan, hilaracico dute; bainan berriz piztuco da hirurgarren egunean.

34. Bainan ez çuten deusic endelgatu gauça horietaric, eta solas hori hain cen ilhuna beyençat nun ez baitçuten endelgatu cer erraiten cioten.

35. Bada guerthatu cen Jericorat hurbilcen celaric, han bacea ixu bat bide heguian yarria, eta escatcen çuena.

36. Eta encunic iragaiten cen

yendetcea, galdeguin çuen cer cen.

37. Eta erran cioten : Jesus Nazarenecoa iragaiten cela.

38. Orduan oihu egun çuen, erraiten çuelarie : Jesus, Daviten Semea, urrical naquicu!

39. Eta aitcinean yohan cireneç gaizquiac erraiten cioten : ichil çadin amoreagatic; bainan hainitz gorago oihu eguiten çuen: Daviten Semea, urrical naquicu!

40. Eta Jesus guelditurie manatu çuen eraman ceçoteu; eta hurbildu cenean, galdeguin cion;

41. Ciölarie: cer nahi duçu egun deçaçndan? ihardetsi çuen: Jauna, berriz ikhus deçadan.

42. Eta Jesusec erran cion : i-khussaçu; çure fdeac salbatu çaitu.

43. Eta ordu herean ikhussi çuen, eta seguitcen çuen Jesus, İorificatcen çuela Jaincoa. Eta populu guciac ikhussiz hori, laudatu çuen Jaincoa.

## XIX CAPITULUA.

*Jesus - Christoc deitcendu Zacheas, aiphatcen du hamas diru pecen parabola, eguiten du bere sarcea Jerusalemen, ceinaren deseguite hurbilaz nigar eguiten baitu, eta garbitcen du templua.*

I. Eta Jesus sarthurie Jeri-

coan, yohan cen *hirian* gaindi.

2. Eta huna guicon bat Zacheas deithua, ceina pagaraztaile aitcindaria baitcen, eta aberaxa,

3. Enseyatcen cen ikhustera cein cen Jesus, bainan ez cequen yenden gatic: ecen aphala cen.

4. Hartacotz laster egun çuen aitcinerat, eta igan cen marthotça-pico baten gainerat haren ikhusteco; ecen handic iragan behar çuen.

5. Eta ethorri cenean Jesus lekhu hartarat, goiti behatz, ikhussi çuen, eta erran cion: Zacheas, yaux çaito berehala; cergatic egun egon behar nuçure etchean.

6. Eta yauxi cen berehala, eta errecebiku çuen bozcariozqui.

7. Eta guciec ikhussiz hori murmuratcen çuten, ciotelario; sarthu cela bici gaistoco guicon baten etchean han ostattatceco.

8. Eta Zacheas han presentatuz, erran cion Jaunari: huna, Jauna, ene onthassunen erdia emaiten dut pobrei; eta baldin bidegaberic egun badut norbaiti cerbaitetan, bihurcen dut lauretan hain bertze.

9. Eta Jesusec erran cion: egun salbamendua sarthu da et-

che huntan; ceren hau ere Abrahamen semea baita.

10. Ecen guiconaren Semea ethorri da galdna cenaren bilhatcerat eta salbatcerat.

11. Eta nola aditcen baitcituzten gauça hec, Jesusec seguitu çuen *bere solasa*, eta aiphatu çuen parabola bat, ceren Jerusalemetic hurbil baitcen, eta nuste baitcuten berehala Jaincoaren orreynua aguertua içan behar cela.

12. Erran quen beraz; guicon aiturun seme bat yoan cen leku urrun batetara, Erresuma baten naussitasunean sarceco, bainan itçulceco chedez.

13. Eta bere sehiataric hamar deithuric, eman cioten hamar mark diru eta erran: baliaraz çatçue ni ethorri arteraino.

14. Bada, haren hiritarrec higuiocen çuten: hartacotz egorri cioten erraiterat, ez dogu nahi hunec erreyua deçan gure gai-nean.

15. Guerthatu cen beraz itçuli cepean, eta erresumaren gozamenan sarthu cen ondoan, manatu çuela ekharraraz citçoten sehi hec ceinei fidatu baitçuen *bere dirua*, yaquin ceçantçat, cembał baljaraci çuen bakhotchac.

16. Orduan ethorri cen lehen bieicoa , erraiten çuelaric : Jauna , çure mark diruac eraguin ditu bertce hamar mark.

17. Eta erran cion : ongi doha , sehi ona ; ceren leyal içan çaren gauça gutitan , içan çäçü bothere hamar hirien gainenan.

18. Eta bertce bat ethorri cen , cioela : Jauna , çure mark diruac eraguin ditu bertce bortz.

19. Eta erran cion orobat huni : eta çu içan çaito eçarria bortz hirien gainean.

20. Eta bertce bat ethorri cen , cioela : Jauna , huma çure mark dirua oihal batetan inguratua atchiqui dudana ;

21. Ecen beldur içan naiz , ceren guicon gogor bat baitcira ; harcen duçu eman ez duçuna , eta bilcen duçu erain ez duçuna .

22. Eta erran cion : sehi gais-toa , çure hitçaz beraz yuyatuco çaitut bacindaquien guicon gogor bat naicela , hartuz eman ez dudana , eta biñuz erain ez dudana ;

23. Cergatic beraz ez duçu eçarri ene dirua gambioan , eta ene itçulcean , hartuko nien intresarequin ?

24. Orduan erran çuen han cirenei ; khen çocue mark dirua

eta emoçue hamarrac dituenari :

25. Eta erran cioten : Jauna , baditu hamar mark.

26. Hortacotz erraiten daut-çuet : baduenari , emana içanen çayola ; eta deusic ez duenari , duena ere khendua içanen çayola .

27. Gaineracoan , eraman çat-çue hunat heyen gainean erreina neçan nahi ez çuten etsai hec , eta hilçatçue ene aitcinean .

28. Eta gauça hec erranic , heyen aitcinean yohan cen , Jerusalemerat igaitean .

29. Eta guerthatu cen Beth-phagerat eta Bethaniarat hurbil-cean , Olibeta deitcen den mendi ondorat , egorri cituela bere Discipuluetaric biga ,

30. Ciotelaric : çoazte çuen parrean den herrirat , eta han sarthu ondoan , khaussituco duçue asto ume bat estecatua , ceinaren gainean ez baita igan guiconic , lacha çaque , eta era-khar niri .

31. Baldin norbaitec galde-guiten badautçue certaco lachatcen duçuen ; erranen dioçue hunla : ceren Jaunac hunen beharra baitu .

32. Eta egorriac yoan ciren , eta khaussitu çuten asto umea , erran cioten beçala .

33. Eta astoaren lachatcen ha-

ri cirelaric, nagusiec erran cioten : certaco lachatcen duque asto ume hau?

34. Ihardetsi çuten : Jaunac hunen beharra du.

35. Eraman çuten beraz Jesusi, eta aurthiqui cituzten beren arropac asto umearen gainerat, guero ecarri çuten Jesus gainean.

36. Çabilan dembora berean, hedatcen cituzten beren arropac bidean.

37. Eta hurbil içatu cenean Olibetaco mendiaren yaustetic, Discipulu guciak alegueratuz, hassi ciren Jaincoaren laudateen goraqui, ikhussi cituzten miraculu guciendaeo :

38. Ciotelaric : benedicatua içan bedi Jaunaren icenean helduden Erreguea ; bakea içan bedi ceruan, eta loria gorenetao lekhuetan.

39. Mulçoco Pharisauetarie cembaitee erran cioten : Nagusia, larderia çaitçu çure Discipuluac.

40. Eta Jesusec ihardetsi cioten : erraiten dautuet baldin hauc ichilcen badira, harriez berre oihu eguin dutela.

41. Eta hurbildu cenean, hiria ikhuștean, nigar eguin çuen haren gainean, erraiten guelaric :

42. Ochala! eşagutu içan ba hitu hire egun huntan, hire bakiari dauqnitçaten gauçac! bainan orai estaliae dituc hire begnietan.

43. Ecen ethorrico ditut egunaç hire gainerat hire etsaieç inguratuco baihaute phegoiez, hetsico haute eta cerratuco alde guciataric.

44. Eta arrasatuco haute, hi eta hire barnean diren haurrak; eta ez die utcico hi baitan harria harriaren gainean, ceren ez baituc eşagutu hire bisitacioneco dembora.

45. Guero sarthuric Templuan, hassi cen camporat khenzen han salcen eta erosten hari cirenac.

46. Erraiten ciotelaric : escribatua da : ene etchea othoitceco etchea da ; bainan hartaz egun duque ohoiñ cilho bat.

47. Eta egun guciez irakasten çuen Templuan, eta Sacrificatçaille aitcindariac eta Scribauac eta populuco lehenac, enseyateen ciren haren hilarazteria

48. Bainan ez çuten deusie aurquitcen hari eguin ahal ceçaquetenic ; ecen populu gucia hainitz arthos cen haren ençuteco.

## XX CAPITULUA.

*Jesus - Christoc ihardesten du  
Scribauen galdei haren mis-  
sionearen gainean, galde ba-  
tez Yondoni Baptistaren mis-  
sionearen gainean, eta ma-  
hasti çainen parabolez, eta  
harri utciaz; onzaquidatzen  
du cerga Cesari corra, ira-  
khasten du Sadduceenei ber-  
riz piztca, eta Messias Da-  
viten seme eta Jauna, Scri-  
bauen hypocrisia condena-  
nuz.*

1. Eta guerbatu cen egun  
hetaric batez, irakhasten çuela-  
ric populua Templuan, eta Eban-  
yelioa predicateen çuelarie, Sa-  
crificatçaire aitcindariac eta Seri-  
bauae ethorri cirela Çaharrequin.

2. Eta mintçatu cioten; cio-  
telaric erran deqaguçu cer na-  
gusitasunez eguiten ditutçun  
gança hauo, edo nor den nagu-  
sitasun hau eman dautçuna?

3. Eta Jesusec ihardetsi ciot-  
ten: galdeguinen dautçuet ere  
gauça bat, eta ihardets çäquet.

4. Joannesen Bathayoa cerutic  
cena; ala guiçonetaric?

5. Bada elgarren artean arra-  
çionateen quten, ciotelaric: bal-  
din erraiten badugu; cerutic,  
erranen du: cergatic beraz ez  
duçue sinhexi?

6. Eta erraiten badugu, gui-  
çonetaric, populu guciæ harri-  
catuco gaitu; ecen seguratuac  
dira Joannes Profeta bat cela :

7. Hortacotz ihardetsi çuten :  
ez çquitela nundic *cen*.

8. Eta Jesusec erran cioten :  
ez dautçuet nic ere erranen cer  
nagusitasunez eguiten ditudan  
gauça hauc.

9. Bainan hassi cen populuari  
erraiten parabola hau; guiçon  
batec landatu çnen mahasti bat,  
eta alogatu çuen mahastiçain  
cembaiti, eta dembora hainitz  
egon cen campoan.

10. Eta fruituaren sasoinean,  
egorri çuen sehi bat mahastiçai-  
nen ganat, eman ceçoten ma-  
hastico fruitutic, bainan mahas-  
tiçainec yoric, egorri çuten hut-  
sic.

11. Egorri cioten berriz bertee  
sehi bat; bainan yo çuten on-  
doan, eta escarniatu egorri çu-  
ten hutsie.

12. Egorri çuen oraino hirur  
garren bat, bainan colpatu çu-  
ten hora ere, eta aurthiqui cam-  
porat.

13. Orduan mahastico Jaunac  
erran çuen, cer eguinen dut?  
egorrico dut ene seme, ongi  
maitea; behar bada hora ik-  
husten dutenean, errespetatuco  
dute.

14. Bainan bura ikhussi çutenean mahastiçainec, arraçoinatcen çuten elgarren artean; ciotelaric: hau primua da; çatotze, hil deçagun, primanca guretçat içan dadin.

15. Eta aurthiqui çuten mahastiz camporat, eta hil çuten. Cer eguien diote beraz mahastico nagusiac?

16. Ethorrico da, eta hilarecico ditu mahastiçain hec, eta emanen du mahastia bertcei. Hori ençun çutenean, erran çuten: aguiar ez.

17. Orduan behatu cioten, eta erran: cer nabi du beraz erran escribatua denac; equidatçailoc utei duten harria, eguiñ da ezquinaco harri nagusia.

18. Nor-ere erorico baita harri haren gainerat, çathicatua içannen da: eta lehertuco du ceinaren gainerat erorico baita.

19. Eta Sacrificatçaille sitcindariec eta Seribauec ordu berean billatu çuten escuac emaitza haren gainean; eeñ ongi eşagutu çuten parabola hau erran çuela heyen contra; bainan populuaren heldur ciren.

20. Eta çaindüz hura, egorri cituzten cembait celatatçaille, ceinec bezaguiten baitcituzten yende prestuac, solasetan ha-

ren hatcemaiteco, haren librategatice gobernadorearen yuamenduari eta bothereari,

21. Ceinec interroatu baitzen, ciotelaric: Nagusia, badarquigu minço çarela, eta irakhssten duçula zucentasunaren arabela, eta ez duçula behatzen yenden itchurari; bainan irakhssten duçula Jaincoaren bidea egiaz.

22. Cilhegui çaucua cergaren pagateea Cesari, ala ez?

23. Bainan hare eşaguturic heyen amarrua, erran cioten: cergatic tentatcen nauçue?

24. Irakhus çاقuet diru peçabat; norena du itchura eta esribua? ihardetsi cioten: Cesarena.

25. Eta erran cioten:bihurçaque beraz Cesari Cesarenac; eta Jaincoari Jaincoarepac.

26. Ez çuten beraz ahal içan deusic erraiteco haren arrapostuan populuaren aitcinean; bainan arras estonatuac haren arrapostuaz, ichildu ciren.

27. Orduan Sadduceenetaric cembait, ceinec ukhatcen baiitate berriz piztea, hurbildu ciren, eta galdeguin cioten,

28. Ciotelaric: Nagusia, Moissec utei deraucu esribuz; baldin norbaiten anaya hil bada emazte bat duclarie, eta hil bada

haurric gabe, haren anayac har  
beça haren emaztea, eta içan araz  
betça haurrac bere anayari;

29. Bada baciren çazpi ana-  
ya, ceinen lehenac hartu bait-  
çuen emazte bat, eta hil baitcen  
haurric utci gabe.

30. Eta bigarrenac hartu çuen  
hura, eta hil cen orobat haurric  
utci gabe.

31. Guero hirurgarrenac har-  
tu çuen hura bera, eta orobat  
çazpiec; eta hil ciren haurric  
utci gabe.

32. Eta oroen ondetic emaz-  
tea ere hil cen.

33. Hetaric norena içanen da  
beraz emaztea berriz piztean?  
ecen çazpiec içan dute emaztet-  
çat.

34. Eta Jesusec ihardestean  
erran cioten : mende huntaco  
haurrec harcen dute eta hartuac  
dira ezcontçaz.

35. Bainan mende haren eta  
hiletaric piztearen ardiesteco  
gay eçagutuac içanen direnec,  
ez dute hartuco eta ez dire iça-  
nen hartuac ezcontçaz.

36. Ecen ez dira guehiago hi-  
len ahal, ceren Aingueruei idu-  
riac içanen baitira, eta Jaincoa-  
ren semeac içanen baitira, berriz  
pizteco semeac içanez.

37. Bada hilac pizten direla,  
Moisec berac erakhutsi du berro

ondoan, Jauna deitcen duenean  
Abrahamen Jaincoa, eta Isaaken  
Jaincoa eta Jacoben Jaincoa.

38. Bada ezda hilen Jaincoa,  
bainan bai biciena; ecen guciac  
bici dira hura baithan.

39. Eta Scribauetaric cembai-  
tec hitça hartuz, erran çuten :  
Nagusia, ongui erran duçu.

40. Eta ez ciren menturatu  
guehiago deusic galdeguitera.

41. Bainan erran cioten : no-  
la diote Christo Daviten semea  
dela.

42. Ecen Davitec berac er-  
raiten du Psalmuetaco liburnan;  
Jaunac erran dio ene Jaunari :  
yar çaité ene escunean,

43. Çure etsaiac eçarri ditu-  
dan artean çure oinen azpicot-  
çat.

44. Davitec deitcen duenaz  
gueroz bere Jauna, nola da ha-  
ren semea?

45. Eta populu guciac ençu-  
ten çuelaric, erran çuen bere  
Discipuluei :

46. Guardia emaqüe Scribau-  
taric, ceinec passyatcea maite  
baitute arroba lucequin, eta a-  
gurrac maite baititzte place-  
tan, eta lehen alkhiac Synago-  
guetan, eta lehen plaçac gom-  
bidancetan ;

47. Eta ceinec iresten baititz-  
te alhargunen etcheac, othoitx-

lucen eguiteco estacurnan ere;  
ecen gaztigu handiagoa errecep-  
bituco dute.

## XXI CAPITULUA.

*Jesus - Christoc preçatcean al-  
hargunaren emaitça, annont-  
cateen du bereen nahi gabea,  
eta Jerusalemeco desolacio-  
nea, etc. exortatcen duelaric  
beilatceaz.*

1. Eta nola Jesus ec behateen  
baitçuen ikhussi cituen cembait  
aberax beren emaitçac eçartcen  
cituztela troncoan.

2. Ikhussi çuen ere emazte  
alhargun pobre bat han emaiten  
cituena bi diru chehe.

3. Eta erran çuen : eguiaz er-  
raiten dautçuet, alhargun pobre  
hunc eman duela *bertcec* baino  
guchiago.

4. Ecen hauc guciec eman  
dute Jaincoaren olatetan, beren  
soberatutie; bainan hunc eman  
du bere escasetic bicitceco çuen  
gucia.

5. Eta nola cembaitec erraiten  
baitçuten Templaaz, harri eder-  
rez eta emaitcez aphaindua cela,  
erran çuen :

6. Hori dea behateen duçue-  
na? ethorrico dira egunac ez  
baita utcia içanen harria har-  
riaren gainean, barrayatua içan  
gabe.

7. Eta interroatu çuten, di-  
telarie : Nagusia, noiz guertha-  
tuco dira beraz gauça hauc? eta  
cer seinale içanen da gauça hauc  
ethorrico direnean?

8. Eta erran çuen : guardia  
emaçue ez çaitezten içan enga-  
natuac; ecen ethorrico dira haj-  
nitz ene icenean, diotelarie ;  
ni naiz *Christo* naicena; eta  
dembora ere hurbilcen da; ez  
beraz yoan heyen ondotic.

9. Eta ençuten ditutçunean  
guerlac eta naliasqueriac, ez  
çaitezte harrit; ecen gauça hauc  
ethorri behar dira lehenic; bai-  
nan akhabança ezda içanen hain  
laster.

10. Orduan erran cioten : yen-  
daquia bat alchatuco da bertee  
yehdaquia baten contra, eta er-  
resuma bat bertee erresuma ba-  
teu contra.

11. Eta içanen dira lur ikhara  
handiac lekhu gucietan, eta go-  
seteac, eta içurriteac, eta ici-  
durac, eta seinale handiac ceru-  
tic.

12. Bainan gauça hauc guciac  
baino lehen eçarrico dituzte es-  
cuac çuen gainean eta nahiga-  
betuko çaituzte, çuec libratuz  
Synagoguei, eta presundeguijan  
eçarriz; eta eramanen çaituzte  
erreguen eta gobernadoren ait-  
cinerat, ene Icena gatic.

13. Eta hau içanen çautçue lekhincotasunçat.

14. Emaçue beraz çuen bihotcetan ez aitcinetic gogoetatecaz nola içanen duçnen ihardesteco;

15. Ecen emanen dautçuet shio bat eta çuhurcia bat, ceinari çuen contra içanen diren gucieec ezein ahalco baitute contra ez erran ez egui.

16. İçanen çarete orobat libratuac çuen aitez eta çuen amez eta çuen haurridez, eta çuen adisquidez; eta çuetaric hainitz hilaracico dituzte.

17. Eta guciez higuinduaç içanen çarete ene Ieena gatiz.

18. Bainan çnen burutic bilo bat ezda galdua içanen.

19. Atchic çaitçue çuen arimac çuen pacienciaz.

20. Eta ikhusten duçuencan Jerusalem armadez inguratua, yaqnin çaque orduan haren eremu-bilhacatea hurbil dela.

21. Orduan Judean direnec ihes egui beçate mendietarat; eta Jerusalemen direnac, handic yoan bite; eta landetan direnac ez bite han sar.

22. Ecen han içanen dira men-dequiozco egunaç, escribatuac diren gauçac complituac içan ditençat.

23. Bada çorigaitz esperantian içaiten direnentçat eta emaz-

te unhidentçat egun hetan; ecen çorigaitz handi bat içanen da herriaren gainean, eta hassara-dura handi bat populu haren contra.

24. Eta erorico dira ezpataren azpirat, eta içanen dira eramanac mempeco yendaquia gucietan; eta Jerusalem çapatua içanen da yendayez, yendayeu demborac betheac içaiten diren arteraino.

25. Eta içanen dira seinaleac iguzquian eta ilharguiian, eta içarretan; eta lurrean yendaquiaç içanen dira beharrean eta hersturan, ixasoac eta baguec habarrotz handia egninez.

26. Halaco guisaz nun guionac içanen baitira heren baithatic campo beldurrez, eta mundu gueian guerthatuco diren gauen iguriquitçapenez; ecen cerruco berlhuteac kordocatuac içanen dire.

27. Eta orduan ikhussico date guionaren Semea ethortcen hodoy baten gainean puchantzia-requin eta loria handirequin.

28. Bada gauça hauc ethortcen hasten direnecan, beha çaque goiti, eta alcha çuen buruac, ceren çuen erospena hurbilcen haita.

29. Eta aiphatu cioten parabola hau; ikhius çaque pico hon-

doa, eta *bertce* arbola guciāc.

30. Pussatcen hasten direnean, eçagutuco duçue ceronec behatuz, uda ya hurbil dela.

31. Çuec ere orobat, ikhus-ten ditutçuenean gauça hauc ethorteen, yaquin çacue Jaincoaren erreynua hurbil dela.

32. Egniazqui erraiten dant-çuet, ethorquia hau ez dela iraganen, nun ez diren gauça hauc guciāc ethorteen.

33. Cerua eta lurra iraganen dira; bainan ene hitçac ez dira iraganen.

34. Guardia emaçue beraz ceronei, beldurrez çuen bihotçac içan diten pissatiac yalequeriaz eta hordiqueriaz, eta bici huntao ansiez; eta egun harc arrapa ez çaitoeten, iguriquitcen ez duçuelarie.

35. Ecen ethorriço da sare bat beçala lurraren gainean bieci diren guciēn gainerat.

36. Iratçarriiac egon çaitetze beraz, dembora gucitan othoitz eguiñez, amoreagatic gay eçagutuac içan çaitetzen itçurtceco ethorri behar diren gauça hauc guciāc; eta bici ahal çaitetzen guionaren Semearen aitcinean.

37. Bada egunaz irakhasten çuen Templuan; eta yalquitcen cen eta egoiten gabaz Olibetacoa deithua den mendian.

38. Eta argui hatseco, populu gucia ethorteen cen hura ganat Templurat haren encuteco.

## XXII CAPITULUA.

*Judasen concertua Jesus-Chris-toren contra, ceina Bazcoaren eta Cena Sainduaren on-doan atherarirc, agonian baita, hartua eta erumana aphez handiari Pierreses uk-hatua, escarniatua, etc.*

1. Bada alchagarriric gabeco oguien Phesta Bazco deiteen dutena, hurbilcen cen.

2. Eta Sacrificatçaille aitcindariec, eta Scribanee bilhatseen çuten nola hilaracico ahal çuten ecen populuaren beldur ciren.

3. Bainan Satan sarthu een Judas baithan, Iscariot icengoititia, ceina baitcen hamabien nombreco.

4. Ceina yoan baitcen, eta mintçatu Sacrificatçaille aitcindariequin eta Capitainequin, cernuisaz libratueo cioten hura.

5. Eta bozcarios içan ciren, eta comundatu çuten emanea ciotela cembait diru.

6. Eta hitceman cioten: eta bilhatcen çuen dembora guisacoa haren libratececo assalduriric gabe.

7. Bada alchagarriric gabeco

oguien eguna ceintan sacrificatu behar baitcen Bazcoa, ethorri-en.

8. Eta *Jesusec* egorri cituen Pierres eta Joannes, erraiten ciotelaric : çoazte, eta prepara deçaguçue Bazcoa, yan deçagun.

9. Eta erran cioten : nun nahi duçu prepara deçagun ?

10. Eta erran ciotçaten : huna, noiz ere sarthuco baitçarete hirian, buruz buru eguien duçue guiçon batí pegar bat urburuan, segui çaque sarthuco den etcherat.

11. Eta erroçue etcheeo nagiari : Nagusiak egortzen daut-çu erraiterat, nun da Bazcoa yanen dudan etchea neure Discipuluequin.

12. Eta erakutsico dautçue guela handi gora bat, aphain-dua, han prepara çaque *Bazcoa*.

13. Beraz yoanic, khaussitu cituzten gañca guciac erran cioten beçala; eta preparatu çuten Bazcoa.

14. Eta orena ethorri cenean, eman cen mahainean eta hamabi Apostoluac harequin.

15. Eta erran cioten : hainitz guticiatu naiz Bazco hunen yatea cuyequin pairatu baino lehen.

16. Ecen erraiten dautçuet ez dudala huntaric yanen guehiago

complitua içanen den arteraino Jaincoaren Erresuman.

17. Eta khalitça harturic, esquerracbihurtu cituen, eta erran çuen har çaque, eta partiçaque çuen artean.

18. Ecen erraiten dautçuet, ez dudala guehiago mahastico fruitutic edanen, Jaincoaren erreynua ethorri den arteraino.

19. Guero hartuz ogua, eta esquerracbihurturic, hauxi çuen eta eman cioten, ciotelaric : hau ene gorputça da, çwendaco emana, dena ; eguiñ çaque hau ene orhoitçapenetan.

20. Orobate ere eman cioten khalitça afaldu ondoan, erraiten çuelarie : khalitça hau Testament berria da ene odolean, ceina ichuria baita çuentçat.

21. Bizquitartean huna ; ni trahitzen nauenaren escua encuin mahainean da.

22. Eta eguiaz guiçonaren Semea yohan da, debeditua den arabera ; bizquitartean corigaitz guiçon hari ceintaz trahitua baita.

23. Guero hassi ciren galdeguiten elgarri, nor içanen cen heyen artean ceinari guerthatuco baitçayon eguintça hunen eguitea.

24. Guerthatu cen ere leya bat heyen artean, yaquiteco nor

içanen cen heyen artean ustequidatua handiena.

25. Bainan erran cioten : yendaquien Erregueac nausitcen dira hetaz; eta heyen gainean nau-sitasuna equersiteen dutenac, deithuac dira onguileac.

26. Ezda içanen orobat çuetaz; bainan, çuen artean den handiena, içan bediçue thiapiena beçala; eta gobernatcen duena, cerbitçateen duena beçala.

27. Ecen cein da handiena, mahainean dena, ala cerbitçateen duena? ez othe da mahainean dena? bada çuen artean naiz cerbitçatcen duena beçala.

28. Bada cnequin ene tentacionetan iraun duçuenac çarete:

29. Hortacotz confiatcen dautçuet Erresuma ene Aitac confiatu dautan beçala.

30. Amoreagatic yan deçaçuen eta edan ene mahainean neure Erresunian; eta içan çaitetzten yarriac tronuen gainean yuyatcen ditutçuela Israeleco hamabi Tribuac.

31. Jaunac erran çuen orobat; Simon, Simon, huna, Satanec galdeguin du arraikiz çuen ctabetcea ognibihia beçala:

32. Bainan othoitz egun dutçuretaco çure fedea ez dadin fla-

ca; çu beraz, içaiten çarenean egun batez conbertitua, azcar çatçu çure anayac.

33. Eta Pierresec erran ciion: Jauna, prest naiz çurequin yoiteco, ala presundeguirat ala beriotcerat.

34. Bainan Jesusec erran ciion: Pierres, erraiten derauçut ez duela oilarrac cantatuco egun, nun ez nauçun lehenic hiruretan ukhatcen eçagutu nauçula.

35. Bainan erran cioten : egorri çaituztanean molsaric gabe, çacuric gabe, eta zapataric gabe, cerbaitec hutz egun dautçueya? ihardetsi çuten; deusec.

36. Eta erran cioten : bainan orai molsa bat duenac har beça hura; eta orobat çacu bat duena; eta ezpataric ez duenac sal beça bere arropa, eta eros beça ezpata bat.

37. Ecen erraiten dautçuet, hau escribatua dena ere, içan behar dela complitua ni baithan: Eta eçarria içan da gaistoen herroncan. Ecen eguiazqui nitaz *anticetic erranac* içan diren gauçae, complitcerat doatça.

38. Eta erran çuten : Jauna, huna bi ezpata. Eta erran cioten : asqui da.

39. Guero partitu cen, eta yoan cen, here ohitçaren araber, Olibetaco mendirat; eta

bere Discipuluec seguitu çuten.

40. Eta igan cenean leku hartarat, erran cioten : othoitz eguiçne ez çaitetzten tentacionetan sar.

41. Guero hetaric urrunduric harri aurthiquitce batez hurbil, eta belhaunicaturic, othoitz eguiten çuen;

42. Cioclaric : Aita, baldin nahi bacinu ni ganic khalitz hau urrundu; halaric ere, ene go-goa ez bedi eguna içan, bainan bai çurea.

43. Eta Aingueru bat aguertu cion cerutic, indarcen çuela.

44. Eta hora agonian celaric, othoitz eguiten çuen garrazquia-go, eta haren icerdia egun cen odol chortac beçala lurrerat i-churcen direnac.

45. Guero alchaturic bere othoitzetic, itçuli cen bere Discipuluetarat, ceinackhaussitu baitituen lo çaudela tristeciaz;

46. Eta erran cioten : cergatice çaudete lo? alcha çaitetzte, eta othoitz eguiçue ez çaitetzten sar tentacionetan.

47. Eta mintço celaric oraino, huna yende mulço bat, eta Judas icena çuena, hamabietaric bat, ethorri cen heyen aitcinerat, eta hurbildu cen Jesusganat huni musu emaiteco.

48. Eta Jesusec erran cion;

Judas, trahitcen duçu guiconaren Semea musu batez?

49. Orduan haren ingurutan cirenec, ikhussiz cer guerthatcerat çohan, erran cioten : Jauna, yoco duguya ezpataz?

50. Eta hetaric batec yo çuen Sacrificatçaille aitcindariaren se-hia, eta ebaqui cion beharri es-cuna.

51. Bainan Jesusec hartuz hitça erran çuen : utz çatçue *egui-terä* huna artino. Eta hunquituric hari beharría, sendatu çuen.

52. Guero Jesusec erran cioten Sacrificatçaille aitcindariei, eta Templuco aitcindariei, eta haren contra ethorri ciren Çaharrei; ethorri çaretea ohoi baten ondotic beçala ezpatequin eta makhilequin.

53. Nahiz egun guciez çuye-quín nintcen Templan, ez duçue eçarri escua ene gainean; bainan hemen da çuen orena, eta ilhumbetaco botherea.

54. Harturic beraz hora, era-man çuten, eta sararaci çuten Sacrificatçaille aitcindariaren etchean; eta Pierres yarraitzen cen urrundanic.

55. Bada *yende hauc* pizturic sua bassacortearen erdian, eta yariric elgarrequin, Pierres ere yarri cen heyen artean.

56. Eta nescato batec ikhussiz

hau su ondoan yarria, eta beguia guelditua hunen gainean, erran çuen : hau ere harequin cen;

57. Bainan ukhatu çuen, cioelaric : emaztea, ez dut eçagutcen.

58. Eta handic laster, bertee batec ikhussizic erran çuen : çu ere yende hetaric çare. Bainan Pierresec erran çuen: o guionna! ez naiz hetaric.

59. Eta handic oren baten buruan hurbil, berce batec segurtatcen çuen, eta erraiten çuen; segurqui hau ere harequin cen; ecen Galileacoa da.

60. Eta Pierresec erran çuen: o guionna! ez daquit cen erraiten duçun. Eta ordu berean, mintço celaric oraino, oilarrac cantatu çuen.

61. Eta Jaunac itçuliric, behatu çuen Pierresi, eta Pierres orhoitu cen Jaunaren hitçaz, ceinac erran baitcion; oilarrac cantatu baino lehen, ukhatuco nauçu hiruretan.

62. Orduan Pierres atheraric camporat, nigar eguin çuen saminqui.

63. Bada Jesus atchiquitcen çutenac trufatcen ciren, eta yoiten çuten.

64. Eta beguiac estaliric hari, yoiten çuten bisayan, eta inter-

roatcen çuten, ciotelaric : profetisa çac nor den yo hauena?

65. Eta bertee hainitz gauea erraiten çuten haren contra, es-carniatcen çutelaric hitcez.

66. Eta eguna ethorri cenean, populuko Caharrac eta Sacrifcatçaire aitcindariac, eta Scribanac bildu ciren, eta eraman çuten bilcurat;

67. Eta erran cioten : baldin Christo bacare, erraguçu. Eta ihardetsi cioten : baldin erraiten badautçuet, ez duçue sinhetsico.

68. Nic ere interroatcen baci-tuztet, ez dautaçne ihardetsico, eta ez nauçue utcico yoaiterat.

69. Hemendic harat guionna-ren Semea içanen da yarria Jaincoaren botherearen escunean.

70. Orduan erran çuten guciec : beraz Jaincoaren Semea çare? erran cioten : ceronec dioçue hala naicela.

71. Eta erran çuten, cer dugu guehiago lekhucotasun behar ric? ecen gueronec ençün dugu haren ahotic.

### XXIII CAPITULUA.

*Jesus-Christo eramana Pilatus sen eta Herodesen aitcinerat, condenatua, khurutcefica-tua, hila eta ehorcia.*

1. Guero chutitu ciren guiac eti eraman çuten Pilatusi.

2. Eta hassi ciren haren accusatcen, ciotelaric : khaussitu dugu guiçon hau bulgatecençuela yendaquia *nahasmendurat*, eta debekatcen Cesari cergaren emaitea, eta ciolaric bera cela Christo, Erreguea.

3. Eta Pilatusec galdeguin cion, ciolaric : Juduen Erreguea çare? eta *Jesusec ihardestean*, erran cion : hala dioçu.

4. Orduan Pilatusec erran cioten Sacrificatçaille aitcindariei eta yendei; ez dut aurquiteen hoguen batere guiçon hau baithan.

5. Bainan guehiago eguiten çuten oraino, ciotelaric : populu assaldatcen du, irakhasten duela Judea gucian, eta hassiric Galileatic hunáraimo.

6. Bada Pilatusec ençun queenan mintçatcen Galileaz, galdeguin çuen guiçon hura Galileacoa cenez.

7. Eta yaquinic Herodesen gobernuaren azpico cela,igorri çuen Herodesi, ceina ere egun hetan Jerusalemen baitcen.

8. Eta Herodesec ikhussi queenan Jesus, hainitz bozcarioz içan cen, ecen aspaldi çuen harren ikhusteco guticia çuela, ceren ençuten çuen hainitz gauça erraiten hartaz, eta uste çuen ikhussico çuela egiten cembait miraculu.

9. Interroatu çuen beraz asco solasez; bainan Jesusec ez cion deusic ihardetsi.

10. Eta Sacrificatçaille aitcindariac eta Scribauac aguertu ciren, accusateen çutela hainitz borthizqui.

11. Bainan Herodesec bere yendequin arbuyaturie hura, eta hartaz trufaturie, yauntz araci ondoan beztimenda churi bat, igorri çuen Pilatusi.

12. Eta egun hartan berean Pilatus eta Herodes adisquidetu ciren, ecen aitcinean etsai ciren.

13. Orduan Pilatusec deithuric Sacrificatçaille aitcindariac, eta Gobernadoreac, eta populu, erran cioten :

14. Yin araci derautaque guiçon hau populu alchateen que-la beçala; eta huna; interroatu dudan ondoan çuen aitcinean, ez dut khaussitu hau baithan accusatcen duçuen hoguen hetaric batere.

15. Ez eta Herodesec ere; ecen hari igorri çaituztet, eta huna, deusic ez çayo egun içan sinalatcen duenic heriotcea merechi duela.

16. Beraz açotaraci ondoan utcico dut lachoan.

17. Bada norbait utcí behar cioten lachorat phestan.

18. Eta yende oste guciāc oihu eguiñ çuen betan, ciotelaric; galçaçu hau, eta utz çaguçu Barrabas lachoan;

19. Ceina presondeguian eçarria içan baitcen cembait hititan guerthatu assalduraren eta hilcecaren gatic.

20. Pilatus beraz mintçatu cioten oraino, nahiz lachoan ecarri Jesus.

21. Bainan oihu eguiten çuten, ciotelaric : khurutceficā çagu, khurutceficā çagu.

22. Eta erran cioten hirurgaren aldicotçat, bainan cer gaizqui eguiñdu guiçon hunec? ez dut deusic aurquiteen hau baitan heriotcea merechi duenic; açotaraciric beraz, lachoan utcio dut.

23. Bainan oraino oihu eguiten çuten gorago, galdatuz khurutceficatua içan çadin, eta heyen'oihuac eta Sacrificatçaille aitciudarienenac azkhartuz çacin.

24. Orduan Pilatusec pronontçatu çuen galdeguiten çutena, eguna içan çadin.

25. Eta lachoan untei cioten, assalduraren eta hilcecaren gatic presondeguian eçarria içan cena; eta ceina galdateen baitçuten; eta largatu çuen Jesus heyen gogoari.

26. Eta eramaiten çutclaric,

hartu çuten Simon icena çuen bat Gireniacoa, landetarie heldu cena, eta cargatu çuten khurutceaz Jesusen ondotic ekharceco.

27. Bada populu eta emazte mulço handi batez seguitua cen, ceinec yoiten baitcituzten bulharrac eta nigar eguiten baitcien.

28. Bainan Jesus itçuliz heyen alderat, erran cioten : Jerusalemeco alabac, ez eguiñ nigarric ene gainean; bainan eguiçue nigarçuen gainean, eta çuen haurren gainean.

29. Ecen huna, ethorrico dira egunac nun erranen baitute; ongi dohaxuac dire emazte a-gorrac, eta haurric içan ez dutenac, eta haci ez duten bulharrac.

30. Orduan hassico dira erraiten mendiei; eror çaitetzte gure gainerat; eta bizearrei; estal gaitçatçue.

31. Ecen baldin eguiten badiutzte gauça hec çur pherdeari cer eguna içanen da çur idorrari?

32. Bertee biga ere gaizqui eguileac cirenac, içan ciren eramanac harequin, heriotcerat.

33. Eta ethorri cirenean Calbarioa deithua den lekhurat, khurutceficatu çuten han, eta gaistaguinaç ere, bat escunean, eta bertcea ezquerrean.

34. Bainan Jesuseo erraiten çuen : Aita, barkha dioçoçue, ecen ez daquite cer eguiten duten. Eguin çuten guero haren arropen partimena, eta aurthi-qui cituzten chortean.

35. Eta populua han çagon beha ; eta Gobernadoreac ere trufateen ciren hartaz heyequin, ciotelaric : bertceac salbatu ditu, salba bedi bera, baldin Christo bada, Jaincoaren hautatua.

36. Soldadoac ere trufatcen ciren hartaz, hurbilduz, eta arno mindua esqueiniz ;

37. Eta ciotelaric : baldin Juduen Erreguea bacira, salba çaitéceroni.

38. Bada baeen haren gai- nean iscribū bat letra grekez, eta romanoez, eta hebroez, *hitz hautaz* :

#### HAU JUDUEN ERREGUEA DA.

39. Eta urkhatuac ciren gais- taguinataric batec, escarniateen çuen, cioclaric : baldin Christo bahiz, salba hadi heroni, eta salba gütçac *gu ere*.

40. Bainan bertceac hartuz hitça, gaztigatu çuen borthiz- qui, cioclaric : ez duçu Jaincoa- ren beldurric, condenacione be- rean içan eta ?

41. Eta gutaz denaz, çucenqui gaituçu hemen ; ecen ardiesten dugu gure hobenec ekhartcen di-

tuzten gañçae ; bainan hunee ez du deusic egün behar ez cenie.

42. Guero erraiten cion Je- susi : Jauna! orhoitçaité nitaz ethorteen çarenean çure Erre- sumarat.

43. Eta Jesusec erran cion : eguiazqui erraiten dauçut, egun içanen çarela enequin parabi- suan.

44. Bada ya sei orenen inguru- runa oen, eta ilhumbelzu een lur hartan gnoiau bederatci ore- nac arteraino ;

45. Eta iguzquia belztu oen, eta Templuko bela urratu oen erditic.

46. Eta Jesusec oihu eginez gora erran çuen : Aita, çure es- cuetan eçarteen dutene izpiri- tua ! eta hori erranic aurthi- qui çuen azquen hatsa.

47. Bada Capitainac ikhussiz cer guerthatu oen, lorificatu çuen Jaincoa, cioclaric : eguiaz- guicon hau yustua oen.

48. Eta ikhusgarri hartarat bildu ciren yende mulço guciæc, ikhussiz guerthatu ciren gauça guciæc, itçulcen ciren bereu bul- harrac yoz.

49. Eta haren eçagun guciæc, eta Galileatic yarraiqui çaiçon emazteac, urrun çauden, gauça hauyei behatuz.

50. Eta huna guicon bat Jo-

seph deithua, conxeiluko membroa, guicon prestu eta cuenbat.

51. Bayatu ez cuena heyen bitezariari, ez eta heyen eguintzari, ceina Arimatheacoa baitzen Juduen hiricoa, eta ceinac iguriquitzen baitzen orobat Jaincoaren erreynna;

52. Ethorriric Pilatusen ganat, galdeguin cion Jesusen gorputza.

53. Eta erautsiric hura *khrutcetic*; inguratu cuen mihi batean, eta ecarri cuen hobi batean harrocan eguna, nun ez baitzen ecarria içan nihor orduraino.

54. Bada preparacioneco eguna cen, eta errepausuco *eguna* hastera çohan.

55. Eta Jesusequin Galileatic ethorri ciren emazteac, seguituric *Joseph*, behatu çuten hobia, eta nola cen han ecarria Jesusen gorputza.

56. Guero itçuliric, preparatu cituzten licurtze, eta usain gozoac; eta errepausuco egunean pausatu ciren *Legueco* manenduaren arabera.

## XXIV CAPITULUA.

*Jesus-Christoren hiletaric piztea, aguerçapena eta cerurat igaitea.*

1. Bainan asteko lehenbicico

egunean oraino goiz handia celeric, ethorri ciren hobirat, eta bertce cembait heyequin, ekhartzen cituztela preparatu cituzten licurtze.

2. Khaussitu çuten harria herrestatua hobiaren ondoan.

3. Eta sarthuric, ez çuten aurquitu Jesus Jaunaren gorputza.

4. Eta guerthatu cen duda handitan cirelaric horren gajean; huna, bi yende aguerdu cirela heyen aitcinean bestimenda distirantequin.

5. Eta nola harrituac baitzen, eta lurrerat aphalzen baitzen bisaya, erran cioten: cergatic bilhateen duque hilen artean, hicci dena?

6. Ezda hemen, bainan piztuda; orhoitçaitezte nola mintçatu çautzen oraino Galilean celeric,

7. Cioclaric: guiconaren Semea libratua içan behar cela bekhatoreen escuetara, eta khurntcesficiatua; eta hiletaric piztu behar cela hirurgarren egunean.

8. Eta orhoitu ciren haren hitcez.

9. Guero itçuliric hobitie, annontçatu cituzten gauça haue hameca *Discipuluei* eta bertce guciei.

10. Bada Maria Magdalena, eta Joanna, eta Maria Jacque-

24 Cap.

sen ama, eta hauyequin cirenae, ciren gauça hauc erran cituztenac Apostoluei.

11. Bainan emazte hauyen hitçae iduri içan çazcoten ametsac beçala, eta ez cituzten sinhetsi.

12. Bizquitartean Pierres chuituric laster egun çuen hobirat, eta makhurturic behatceco, ez çuen ikhussi miliiseac baicen aldaratuac; guero yoan cen, beje haithan espantatuz guerthatuena.

13. Bada huna, hetarie bigabidean ciren egun hartan, yoaiteco herri batetara Emmaüs icenä çuena, Jerusalemetic urrun, hirur hogoi bidarteren inguruna.

14. Eta elgarren artean aiphatcen cituzten guerthatu ciren gauça hauc guciak.

15. Eta guerthatu cen mintço cirelaric eta elgarren artean solas eguiten çutelaric, Jesus bera hurbilduric, heyequin bassi cela ibileen.

16. Bainan heyen beguiac atchiquiac ciren, nun ez baitçuten eçagutcen.

17. Eta erran cioten : cer dira çuen artean atchiquitcen ditutçuen solas horiec çabilçatlaric? eta cergatic çarete arras triste?

18. Eta hetaric batec, Cleopas iceua çuena, ihardetsi çuen, eta erran cion : çu bakharra çá-

rea Jerusalemen egun hautan guerthatu diren gauçac ez daquitçaçuna?

19. Eta erran cioten : cein? ihardetsi çuten : Jesus Nazarethenecoaren gainean, ceina Profeta bat baitcen, obrez eta hitcez botherexua Jaincoaren, eta populu guciaren aitcinean.

20. Nola Sacrificatçaille aitcindariec eta gure Gobernadorec largatu duten heriotterat condensatua içaiteco, eta khurutcesiatu duten.

21. Bada uste guinuen harc salbatuco çuela Israel; bainan halaric ere egun hirurgarren egunean guerthatu dira gauça hauc guciak.

22. Bizquitartean gure arteco cembait emaztec hainitz estonatu gaituze, ecen goiz goicetic içan dira hobian;

23. Eta ez aurquituric gorputça, itçuli dira, diotelaric; ikhussi çutela ere Ainguero aguerçapen bat, ciotela : bici dela.

24. Eta guretaric cembait yoan dire hobirat, eta khaussitu dute emaztec erran beçala; bainan hartaz denaz, ez dute ikhussi.

25. Orduan erran cioten : o yende sensu gabecoaç, eta hitcez berantarriac sinhesteco

Profetec aiphatu dituzten gauça  
guciac!

26. Ez cituena Christoc pa-  
ratu behar gauça hauc, eta ez  
cena sarthu behar bere lorian?

27. Guero hassiric Moisetic,  
eta *segituz* Profeta guciez, ex-  
plicatcen caizcoten Escritura gu-  
cietan behateen caizcon gañac.

28. Eta yohan ciren herrirat  
hurbil cen cirelaric aditeerat e-  
man çuen urrunago yoaiten cela.

29. Bainan borchatu çuten,  
erraiten ciotlaric : egon çaité  
gurequin, ecen arraxa hurbilcen  
da, eta eguna hasten da hehe-  
ratecen. Sarthu cen beraz heye-  
quin egoiteco.

30. Eta guerthatu een heye-  
quin mahainean celaric, hartu  
çuela ogua, eta benedicatu çuen;  
eta hauxiric, partitu cioten.

31. Orduan heyen beguiac  
çabaldu ciren, nun eçagutu bait-  
çuten; bainan desaguertu cen  
heyen aitcinetic.

32. Eta erran çuten beren  
arteian; gure bihotçac ez çuena  
erretcen gure barnean, mintço  
çaucularic bidean, eta explicat-  
cen çaucularic Escriturac?

33. Eta chuituric ordu be-  
rean, itçuli ciren Jerusalemerat,  
nun aurquitu baitcituzten ha-  
mecac bilduac, eta heyequin  
cirenac;

34. Ceinec erraiten baitçuten,  
Jauna eguiazqui piztu da, eta  
aguertu da Simoni.

35. Eta hauyec ere aiphatu  
cituzten bidean guerthatu çai-  
coten gañac, eta nola içan cen  
hetaz eçagutua ogua hauxtean.

36. Eta solas hauc atchiquit-  
cen cituztelaric, Jesus aguertu  
cen bera heyen erdian, eta er-  
ran cioten : hakea içan bedi cu-  
yequin!

37. Bainan hec arras trubla-  
tuac eta harrituac uste çuten  
ikhus izpiritu bat.

38. Eta erran cioten : certaco  
trublatcen çarete? eta certaco  
igaiten dira gogoetac çuen bi-  
hotcetan?

39. Ikhus çatçue ene escuac  
eta ene zangoac; ecen ni bera  
naiz: hunqui neçaçue, eta ongi  
beha; ecen izpiritu batec ez du  
ez haraguiric ez heçurrie; nic  
baduala ikhusten duçuen beçala.

40. Eta hori erraitean, erak-  
hutsi cituen heyzi here escuac  
eta bere zangoac.

41. Bainan nola oraino boz-  
carrioz ez baitçuten sinhesten,  
eta estonateen baitciren, erran  
cioten : baduçue hemen cerhait  
yateco?

42. Eta eskeini cioten arrain  
erre peça bat, eta erle orrake  
batetaric;

24 Cap.

43. Eta harturic hura, yan  
çuen heyen aitcinean.

44. Guero erran cioten : he-  
men dira atchiquitcen naitçuen  
solasac oraino çuyequin nintce-  
nean, nitaz escribatuac diren  
gauçac Moisen Leguean, eta  
Profetetan, eta Psalmuetan, içan  
citen betheac.

45. Orduan idequi cioten iz-  
piritua Escrituren endelgatceco.

46. Eta erran cioten : horrela  
escribatua da, eta horrela be-  
har çuen pairatu Christoc, eta  
hiletaric piztu behar cen hirur  
garren egunean.

47. Eta predicaceçaten haren  
icenean urriquia eta bekhatuen  
barkhamendua yendaya gucien  
arteau, Jerusalemetic hassiz.

48. Eta lekhuco çarete gauça  
horiez ; eta hunu, egortcerat  
noha çuen gainerat neure Aita-  
ren aguinza.

49. Çuec beraz egon çaitetzte  
Jerusalemcohirian gainecobert-  
huteaz beztituac içan arteraino.

50. Guero eraman cituen cam-  
porat Bethaniaraino, eta escuac  
goiti alchatuz, benedicatu cituen.

51. Eta guerthatu cen heye  
benedicionea emaitean, hetarie  
urrundu cela, eta cerurat alcha-  
tua içan cela.

52. Eta heyec adoraturic hura,  
itçuli ciren Jerusalemerat boz-  
cario handi batequin.

53. Eta bethi Templuan ciren,  
laudatcen eta benedicatcen çu-  
tela Jaincoa. Hala dela.

## EBANYELIO SAINDUA,

## YONDONI JOANNESEN

## ARABERA.

## I CAPITULUA.

*Jesus-Christo, Jaincoaren Hitça, haragui eguna, erakhutsia Joannescz, yarraiquia da Andresez eta Simonez, Philippez eta Nathanaelez.*

1. Hastean Hitça cen, eta Hitça Jaincoarequin cen, eta Hitz hau Jaincoa cen.

2. Hastean Jaincoarequin cen.

3. Gauça guciac egunic içan dire hartaz, eta hora gabe deus ezta egun içau, egun direnetaric.

4. Hartan cen bicia, eta bicia guiconen arguia cen.

5. Eta arguiac arguitcen du ilhumbetan, bainan ilhumbec ez dute errecebitu.

6. Bacen guicon bat icena quena Joannes; cein baitcen egorria Jaincoaz.

7. Ethorri cen lekhucotassu-

nean, bihurceco lekhucotassuna arguari, amoreagatic guciec sinhex ceçaten hartaz.

8. Hura ezcen arguia, bainan egorria cen lekhucotassunaren bihurceco arguari.

9. Argui hau eguiazcoa cen, arguitcen duena munduratethorcen diren guicon guciac.

10. Munduan cen, eta mundua egun içan da hartaz; bainan munduac ez du eçagutu.

11. Bererat ethorri cen, eta bereenec ez dute errecebitu.

12. Bainan errecebitu duten guciei, eman dei çucena Jaincoaren haur egunei içaiteco, erran nahi da haren Icenean sinhexten duenei.

13. Ceinac ez baitire sor-thuac odolez, ez haraguiaren borondateaz, ez guiconaren borondateaz; bainan sorthusdire Jaincoaz.

14. Eta Hitça eguin içan da haragui ; egotu da gurequin graciaz eta eguiaz bethea ; eta behondaztu dugu haren loria , Aitaren Seme bakharrari *daro-can* loria beçala.

15. Joannesec *beraz*bihurtu du lekhucotassuna hartaz , eta oihu eguin du , dioclaric : hau da ceintaz erraiten bainuen ; ene ondotic ethortcen dena lehenca-tua çaut , ecen ni bano lehen cen.

16. Eta guciec errecebiku du-gu haren bethetassunetic , do-haina dohainarentçat.

17. Ecen Leguea emana içan da Moiseren medioz ; dohaina eta eguiia ethorri da Jesus-Chris-toz.

18. Nihorc ez çuen seculan ikhussi Jaincoa ; Seme bakharra cein baita Aitaren galzarrean , eçagutaraci daucuna.

19. Eta hemen da Joannesen lekhucotassuna , noiz ere Juduec egorri baitçuten Jerusalemerat Sacrificatçailtaric eta Leviteta-ric hari galdeguiteco : nor cira çu ?

20. Aithortu çuen , eta ez çuen ukhatu , aithortu çuen , *cioelaric* : ezda ni Christo nai-cena.

21. Eta galdeguip cioten : cer çare beraz ? Elias çare ? eta er-

ran cioten : ez naiz hora . Pro-feta çare ? eta ihardetsi çuen , ez .

22. Erran cioten beraz : nor çare çu ? amoreagatic arrapustua eman deçagun egorri gaituzte-nei , cer dioçu çuhaurtz ?

23. Erran çuen : eremuian oi-hu eguiten duenaren boça naiz ; chuchen çaque Jaunaren bidea , Esaias Profetac erran duen be-çala.

24. Bada *haren ganat* egor-riac içan çarenac Pharisauneta-ric eiren .

25. Interroatu çuten oraino , eta erran cioten : certaco batha-yatcen duçu ez bacira Christo , ez Elias , ez Profeta ?

26. Joannesec ihardetsi cio-ten , eta erran : nic bathayatcen dut urean ; bainan bada bat çuen artean eçagutcen ez duçuena .

27. Hura da ene ondotic et-horteen dena , eta lehencatua çautana , eta ceinen çapataco locarrien lachatceco ez bainaiz gay .

28. Gauça haue guerthatu ci-ren Bethabarren Jordanen bertce aldean non Joannesec bathayat-cen baitçuen .

29. Biaramunean Joannesec ikhussi çuen Jesus ethortcen hu-ra ganat , eta erran çuen : huna Jaincoaren Bildotsa , munduko

bekhatuac atheratcen dituena.

30. Hura da ceinetaz bainion; ene ondotic ethorteen da guicon bat lehencatua çautana, ecen ni baino lehen cen.

31. Eta nic ez nuen eçagutcen; bainan eçaguturic içan daintçat Israelen, ethorri naiz bathayatcerat urean.

32. Joannesec bihurtu çuen ere lekhucotassuna; cioelaric; ikhussi dut Izpiritua yausten cerutic uso bat beçala, eta egon da haren gainean.

33. Eta nic ez nuen eçagutcen, bainan egorri darotanac ureanbathayatcerat, errançautan: çoinen gainera ere ikhussico baidu Izpiritua yausten, eta haren gainean egoiten, hora da Izpiritu Sainduan bathayatcen duena.

34. Eta ikhussi dut, eta bihurtu dat lekhucotassuna, hora dela Jaincoaren Seme dena.

35. Biharamuncan oraino Joannes baratu cen, eta harequin bere Discipuluetaric biga.

36. Eta behatcean Jesus ibilcen cela, erran çuen; huna Jaincoaren Bildotsa.

37. Eta bi Discipuluec aditu çuten atchiquitcen quela solas hau, eta yarraiqui çuten Jesus.

38. Eta Jesusec itçuliz eta ikhussiz yarraquitcen çutela, er-

ran cioten: eer bilhatcen duque? ihardetsi cioten: Rabbi, erran nahi baita, Nagusia, nun egoiten çare?

39. Erran cioten: çatozte, eta ikuhs eçaçue. Yohan ciren, eta ikhussi çuten nun çagon; eta egon ciren harequin egun haritan; ecen hamar garren orenen ingurumena cen.

40. Bada Andres, Simon-Pierresen anaya, Joannes minçatcen aditu çuten eta yarraiqui çuten bi hetaric bat cen.

41. Hunec aurkhitu çuen lehenic Simon bere anaya, eta erran cion: khaussitu dugu Messia, erran nahi baita Christo.

42. Eta eraman çuen Jesusen ganat, eta Jesusec aurthiquiz beguiac haren gainerat, erran çuen: Simon çare, Jonasen se mea, deithua içanen çare Cephas; erran nahi baita, Pierres.

43. Biharamunean Jesus nahi içan cen yoan Galilearat, eta ba thu çuen Philippe, ceini erran baitcion: yarraic neçaçu.

44. Bada Philippe Bethsadicen, Andresen eta Pierresen hiria.

45. Philippek khaussitu çuen Nathanael, eta erran cion: ba thu dugu Jesus, cein baita Nazaratheneco, Josephen se mea,

ceintaz Moisec iscribatu baitu leguean, eta *ceintaz* ere Profete *iscribatu baidute*.

46. Eta Nathanaelec errancion : cerbait onic ethorteen ahal dea Nazarethenetic? Philippec errancion : çato, eta ikuhsaçu.

47. Jesus ohartu cen Nathanael ethorteen haren gañat, eta erran çuen hartaz : huna eguiazqui Israelita bat ceinetan ez-baita enganioric.

48. Nathanaelec errancion : nundiceçagutcen nauçu? Jesusec ihardetsi çuen, eta errancion : Philippec oihu eguin çauçun baino lehen, pico hondoaren azpian cinelaric; ikhusten cinitudan.

49. Nathanaelec ihardetsi çuen, eta errancion : Nagusia, Jaincoaren Semea çare; Israeleko Erreguea çare.

50. Jesusec ihardetsi çuen, eta errancion : ceren eta erran dautçudan ikhusten cinitudala pico hondoaren azpian; sinhesten duçu; ikhussico duçu hau baino gauça handiagoric.

51. Errancion ere : eguiazqui, eguiazqui erraiten dautçut; hemendic aitcina ikhussico duçu cerua çabaldua, eta Jaincoaren ainguerauc iganez eta yautsiz guiconaren Semearen gainerat.

## II CAPITULUA.

*Jesus - Christoc cambiatcen du Cananeco ezteyetan ura arnora, casatcen tu salçaleac templutic, eta anontçatcen du bere hiletaric piztea, etc.*

1. Bada hirur egunen buruan eguiten çuten ezteyae Galileaco Cananen, eta Jesusen ama han cen.

2. Eta Jesus ere gombidaturic içan cen czteyetarat, bere Discepuluequin.

3. Eta arnoa faltatcerat yin baitcen, Jesusen amac errancion : ez dute arnoric.

4. Bainan Jesusec ihardetsi cion : cer da ene eta çure artean, emaztean? ene orena czda oraino éthorria.

5. Haren amac errancion sebiei : eguiçue erranen dautçen guiacio.

6. Bada han bacen sei harizco untei, ecarriiac Juduen garbitcean haziura cen beçala; ein bakhethac biga edo hirur neurri atchiquiteen haitçuen.

7. Eta Jesusec errancion : bethe çatçue urez untci haue eta bethe çuzten gaineraino.

8. Guero errancion ; har ecaçue orai, eta eraman festaco aitcindariari. Eta eraman cioten.

9. Noiz ere festaco aitcinda-

riac dastatu baitçuen ura gambiatua içan cena arnora, (bada ez çaquien nundic hori ethortcen cen, bainan ura ithurritic ethera çuten sehiac, baçaquiten) arrazatu cen esposari.

10. Eta erran cion : nore nahic cerbitçatcen du arno ona lehenic, eta guero charrena aussarqui edan duten ondoan; *bainan* çuc beguiratu duçu arno ona orai dino.

11. Jesusec lehen miraculu hau eguin çuen Galileaco Cananen, eta eçagutaraci çuen bere loria, eta bere Discipuluec sinhetsi çuten hartan.

12. Guero erautsi cen Caparnaumenerat bere amarequin, eta bere anayequin, eta bere Discipuluequin; bainan guti dembora han egon ciren.

13. Ecen Juduen Bazcoa hurbil cen; hortacotz Jesus igan cen Jerusalemerat.

14. Eta aurkhitu çuen Templuan yende saltzen baitçuten idi, eta ardi, eta uso, eta cambiaçalead yarririe çaudonac.

15. Eta soca thipi batçuez azote bat eguinie cassatu cituen guciak Templutie, ardiequin eta idiequin; eta barrayatu çuen cambiaçalen moneda, eta itçuli cituen mahainac.

16. Eta erran çuen usoac sal-

cen çuztenei; edec çatçue gaucia hauc hemendic, eta ez çäquela eguin ene. Aitaren etcheaz tratuco lekhu bat.

17. Orduan bere Discipuluac orhoitu ciren iscribaturio cela, çure etchearen kharrac yan nau.

18. Bainan Juduec hitça bartuz, erran cioten : cer miraculu erakhasten darocu, holaco gaucen egniteco.

19. Jesusec ihardetsi çuen, eta erran cioten : lurrerat çaque Templa hau, eta hirur egunen barnen berriz alchatuço dut.

20. Eta Juduec erran çuten : egon dira berrogoi eta sei urthe Templa hunen ombidateen, eta berriz alchatuço duçu hirur egunen barnen !

21. Bainan mintço een Templaaz *ceina baitzen* bere gorputça.

22. Hartacotz hiletaric piztua içan cenean, bere Discipuluac orhoitu ciren hori erran ciotela, eta sinhetsi çuten iserituran, eta Jesusec erran içan çuen hitcean,

23. Eta nola Jerusalemen baitzen Bazeoco festa *egunean*, hainiteec sinhetsi çuten haren ice-nenn, betustatcez eguiten çaituen miraculuac.

24. Bainan Jesus ez een fidateen heyei, ceren eta guciak eçagutzen baitcituen;

25. Eta ez baitzen beharriz  
nihore bihurcezten guiconari  
gaucon lekhucotassuna; ecen  
baconien berac cer cen guico-  
naren barnean.

### III CAPITULUA.

*Jesus-Christo mintzatzen da  
Nicodemerequin berriz sort-  
ceaz, etc. Joannes Baptista  
bihurcen dio lekhucotassu-  
na.*

1. Bada bacen guicon bat Pha-  
risaundarren artean; icena quena  
Nicodema; Juduen aitcindarie-  
taric bat.

2. Cein gabaz ethorri baitzen  
Jesusganat, eta erran cion: Na-  
gusia badaquigu irakhastaile bat  
carela ethorria Jaincoa ganic;  
ecen nihore ez du eguiten ahal  
gauca eguiten ditutun miraculu;  
hauc, ez bada Jaincoa harequin.

3. Jesusec ihardetsi quen, eta  
erran cion: eguiazqui, eguiazqui  
erraiten dautquet; nihore ez ba-  
da berriz sorthua, oz du ikhus-  
ten ahal Jaincoaren Erresuma.

4. Nicodemec erraiten dio:  
nola guicon bat berriz sorteet  
ahal da cahartua den ondoan?  
sarteen ahal dea berriz bere ama-  
ren sabelcan, eta berriz sortcen?

5. Jesusec ihardetsi quen:  
eguiazqui, eguiazqui erraiten  
dautquet; nihor sorthu ez dena

uraz eta Izpirituaz ezda sartceu  
ahal Jaincoaren Erresuman.

6. Haraguz sorthua dena, ha-  
ragui da, eta Izpirituz sorthua  
dena, izpiritua da.

7. Ez caitela harrit erraiten  
dautudanaz; behar duuc içan  
berriz sorthnac.

8. Haiceac buhatzen du nahi  
duen tokirat eta aditeen duen  
harrabotsa; bainan ez daquieu  
nundie heldu den, ez norat do-  
han, bala hala da Izpirituaz  
sorthu den guiconaz.

9. Nicodemec ihardetsi quen,  
eta erran cion: nola eguiten ahal  
dira gauca hauc.

10. Jesusec ihardetsi quen,  
eta erran cion: cu Israeleco ira-  
khastaile care, eta ez dituca  
eçaguteen gauca hauc!

11. Eguiazqui, eguiazqui er-  
raiten dautut; daquiguna er-  
raiten dugula; eta ikhussi du-  
gunen lekhucotassuna bihurcen  
dugula; bainan ez duçu erre-  
bitcen gure lekhucotassuna.

12. Lurreco gauca hauc er-  
ran badautut, eta ez dituclario  
sinhesten; nola sinhetsico duçu  
miutzatzen baniçautu ceruca  
gaucez?

13. Ecen nihor ezda cerurat  
igan, cerutic yautsi dena baicic,  
erran nahi da guiconaren Se-  
mea ceruan dena.

14. Bada nola Moisec alchatu baituen *cobrezco* sugaea cre-muan hala guionaren Semeac behar du içan alchatua,

15. Amoreagatic norc-ere sin-hesten baitu hora baithan ez dadin fundit, bainan içan deçan bethiereco bicia.

16. Ecen Jaincoac hain maite içan du mundua, nun eman baitu bere Seme bakarra, amoreaga-tia norc-ere sinhesten baitu hora baithan ez dadin fundit, bainan içan deçan bethiereco bicia.

17. Ecen Jaincoac ez du e-gorri bere Semea mundurat, munduaren condensatcerat, bai-nan mundua hartaz salbaturic içan dadintçat.

18. Sinhesten duena harten ezda içanen condensatua; bai-nan sinhesten ez duena ya con-denatua da; ceren eta ez baitu sinhetsi Jaincoaren Semebakhar-raren icenean.

19. Bada hemen da condenearen arraçoina, arguia ethorri dela mundurat, eta guionec maitiago içan dutela il-humbeac arguiac baino, eeren heyen obrac gaistoac baitciren.

20. Ecen gaizquiaeguiten due-nac higuintcen du arguia, eta ezda ethortcen argirat, bel-durrez bere obrac içan diten condensatuc.

21. Bainan eguiaren arabera eguiten duena, ethortcen da ar-guirat, bere obrac içan ditent-çat seinalatuac ceren eta egunic içan baitira Jaincoan.

22. Gauça haue ondoan Jesus ethorri cen bere Discipuluequin Judeaco lurretarat, eta han çag-on heyequin, eta bathayateen çuen.

23. Bada Joannesec ere ba-thayateen çuen Enonen, Salime-tic hurbil, ceren eta han ur hainitz baitcen, eta harat et-horcen ciren, eta bathayaturic ciren.

24. Ecen Joannes ez cen ema-na içan oraino presondeguijan.

25. Bada içan cen leya bat alchatua Joannesen Discipuluez Juduequin garbitassunaren gai-nean.

26. Eta ethorri ciren Joanne-sen ganat, eta erran cioten: Nagusia, çurequin cenac Jordai-nen berce aldean, eta ceini lek-hucotassuna bihurtu baideroçu, huna, bathayateen du, eta gu-iciac ethortcen dire haren ga-nat.

27. Joannesec ihardetsi çuen, eta erran: guionac ez du deus errecebitcen ahal, ez baçayo emana içan cerutic.

28. Çuhayriec lekhueo çauz-quiet erran dudala; ezda ni

Christo naicena, bainan egorria  
naiz haren aitcinean.

29. Espossa duena espossa da;  
bainan espossaren adisquidea  
hardena, eta aditcen duena, gu-  
cia bozcarioztua da, espossaren  
boçaz; hortacotz bozcario hau,  
ceina baita nurea bethea da.

30. Handitu behar du, eta  
gutitu behar dut.

31. Gainetic ethorri dena,  
guciæ baino handiago da; lur-  
retic ethorri dena lurrecoa da,  
eta lurretic mintço da; cerutic  
ethorri dena, guciac baino han-  
diago da.

32. Eta ikhussi eta aditu due-  
nac lekhucotassuna bihurteen  
du, bainan nihore ez du errece-  
bitcen haren lekhucotassuna.

33. Haren lekhucotassuna er-  
recebitu duenac seguratu du  
Jaincoa eguiazcoa cela.

34. Ecen Jaincoac egorri due-  
nac erraiten tu Jaincoaren hit-  
cac; ecen Jaincoac ez daico e-  
maiten Izpiritua neurrica.

35. Aitac maite du Semea;  
eta gauça guciac eman dazco  
escura.

36. Semean sinhesten duenac,  
badu bethiereco bicia; bainan  
sinhesten ez duenac Semean, ez  
du ikhussico bicia; bainan Jain-  
coaren assaradura egoiten da  
haren gainean.

#### IV CAPITULUA.

*Jesus-Christoc hitz eguiten du  
emazte Samaritanoarequin; hainitcec sinhesten dute har-  
tan, Jaun batec ere ceini  
sendatcen baitio semea.*

1. Bada Jaunac eçagutu çue-  
nean Pharisauec aditu çutela  
eguiten eta bathayatcen çuela  
Joannesec baino Discipulu gue-  
hiago,

2. Bizquitartean Jesusec ber-  
rac ez çuen bathayatcen, bainan  
bai haren Discipuluec.

3. Judea utci çuen, eta yohan  
cen oraino Galilearat.

4. Bada behar çuen iragan Sa-  
marian gaindic.

5. Ethorri cen beraz Samari-  
taco hiri batetarat, deithua Si-  
char, cein baita Jacobec bere  
seme Josephi eman çayon lur-  
raren ondoan.

6. Bada han bacen Jacoben  
ithurri bat, eta Jesus bideaz oin-  
haturic baitcen, han çagon yar-  
riric ithurriaren gainean; sei  
garren orenen igurumena cen.

7. *Eta emazte bat Samarita-  
noa ethorriric urca, Jesusec er-  
ran cion: indaçu edaterat.*

8. Ecen bere Discipuluac yo-  
han ciren hirirat yateco ero-  
terat.

9. Bainan emazte Samaritano

hunec erran cion : nola çu Ju-  
dua içan eta , galdeguiten daro-  
taçu edaterat , niri emazte Sama-  
ritano bat içan eta ? ecen Juduec  
ez dute elhantzaric Samarita-  
noequin .

10. Jesusec ihardetsi çuen ,  
eta erran cion : eçagut bacineça Jaincoaren dohaina , eta cein  
baita erraiten daulçuna ; indaçu  
edaterat , çuhaurrec galdegui-  
nen cinion ; eta emanen ceraut-  
çun ur bicitic .

11. Emazteac erran cion : Jau-  
na , ez duçu deusic *uraren* hart-  
ceco , eta çupua barna da ; nun-  
dic duçu beraz ur bici hau ?

12. Jacob gure aita baino  
handiago çare ? ceinae eman bai-  
taucu çupua , eta berac edan  
baitu , eta bere haurrec , eta bere  
acindec ?

13. Jesusec ihardetsi çuen ,  
eta erran cion : norc-ere edat-  
cen baitu ur huntaric , egarri  
içanen du oraino .

14. Bainan nic emanen du-  
dan uretic edaten duenac , ez du-  
seculan içanen egarriric ; bainan  
nic emanen diodan ura eguin en  
da hartan urezco ithurri bat  
helduko dena bethiereco bici-  
raino .

15. Emazteac erran cion : Jau-  
na , eman eçadaçu ur hortaric ,  
içan ez deçadantça guehiago e-

garriric , eta ez nadin guehiago  
ethor hunat urca .

16. Jesusec erran cion : çoaci ,  
eta oihu eguioçu çure senhar-  
rari , eta ethor çaité hunat .

17. Emazteac ihardetsi çuen ,  
eta erran cion : ez dut senhar-  
ric : Jesusec erran cion : ongi  
erran duçu , ez dut senharric .

18. Ecen içan duçu bortz sen-  
har , eta orai duçuna ; ezda çure  
senharra ; hortan egua erran  
duçu .

19. Emazteac erran cion : Jau-  
na ikhusten dut Profeta bat çä-  
rela .

20. Gure aitec adoratu dute  
mendi hunen gainean , eta çuec  
erraiten duçue Jerusaleim dela  
adoratu behar den tokia .

21. Jesusec erran cion : emaz-  
tea , sinhex neçaçu , orena et-  
hörtcen dela ez baituçue adora-  
tuco Aita , ez mendi huntan ez  
Jerusalem .

22. Adoratcen duçue eçagut-  
cen ez duçuena , adoratcen dugu  
eçagutcen duguna ; ecen salba-  
mendua ethortcen da Judueta-  
ric .

23. Bainan orena heldu da ,  
eta orai da , eguiazco adoraçailoc  
adoratuco dute Aita izpirituz eta  
eguiaz ; ecen Aitac halacuetaric  
galdeguiten du adora deçaten .

24. Jaincoa Izpiritua da ; eta

*4 Cap.*

behar dute adoratcen dutenec,  
adoratu izpirituz eta eguiaz.

25. Emazteac ihardetsi cion :  
badaquit Messiac, ( erran nahi  
da Christoc ) ethorri behar due-  
la ; noiz ere beraz ethorria iça-  
nen baita , anonçatuco daroz-  
cugu gauça guiac.

26. Jesusec erran cion : ni  
naiz, çurequin mintçatcen dena.

27. Horren gainean haren Dis-  
cipuluac yein ciren , eta harritu  
ciren mintçatcen celacotz emazte  
batequin ; bizquitartean nihorc  
ez çuen erran : cer galdeguiten  
duçu? edo certaco mintçatcen  
çare horrequin?

28. Emazteac beraz utci çu-  
en bere pegaria , eta yohan cen  
hirirat , eta erran çunu yendei :

29. Çatozte, ikhus çaque gu-  
çon bat erran dauztana eguiñ  
ditudanac guiac , hau ez dea  
Christo?

30. Athera ciren beraz hiritic,  
eta ethorri ciren haren ganat.

31. Bizquitartean Discipuluec  
othoizten çuten ciotela : Nagu-  
sia , yan çazu.

32. Bainan erran cioten : ba-  
dut yateco çuec ez daquiçuen  
yanhari batetaric.

33. Horren gainean Discipu-  
luec beren artean erraiten çuten:  
norbaitec *ekharri* othe derote  
yaterat?

34. Jesusec erran cioten : ene  
yanharia da eguiñ deçadan egor-  
ri nauenaren borondatea , eta  
bethe deçadan haren obra.

35. Ez ducea erraiten badela  
oraino laur hilabethe , eta uza  
yeinen dela? huna, erraiten daut-  
çuet , altcha çatçue çuen be-  
guiac , eta beha çaque campoer,  
ecen ya churiac dira uztaren e-  
guiteco.

36. Bada uza eguiten duenac  
errecebitcen du bere golardea  
eta biltcen du fruitua bethiereco  
biciarentçat ; amoreagatic erai-  
ten duena eta uza eguiten duena  
bozt diten elgarrequin.

37. Bada erraiten dutena *co-  
munqui* , batac eraiten duela ,  
eta bertceac uza eguiten , egui-  
da huntan ,

38. Egorri çaituztet uza egui-  
terat lancatu ez çareten lekhur-  
rat ; bertceec lancatu dute , eta  
sarthu çare heyen lanean.

39. Bada hiri hartaco hainitz  
Samaritanoec sinhetsi çuten har-  
tan , emaztearen hitçaz , ceimac  
bihurtu baitçuen lekhucotassu-  
na ; erran dauzcat eguiñ dituda-  
nac guiac.

40. Noiz ere beraz Samarita-  
noac heldu baitciren haren ga-  
nat , othoiztu çuten heyequin  
egoiteco ; eta han egon cen bi  
egun.

41. Eta hainitz guehiago yendec sinhetsi çuten haren hitçarendaco.

42. Eta erraiten çuten emazteari: ezda guehiago çuc errandau cuquenarendaco sinhesten dugu-la; ecen guhaurec aditu dugu, eta badaquigu hau eguiazqui Christo dela; munduaren Salbatçaillea.

43. Bada bi egunen buruan abiatu cen handic, eta yohan cen Galilearat.

44. Ecen Jesusec lekhucotas-suna bihurtu çuen Profeta bat ez dela ohoratua bere lurrean.

45. Noiz ere beraz ethorri baitcen Galilearat, Galileenetarrec errecebitu çuten, ikhussiric Jerusalemen festa egunean eguin çaituen gauça guciak; ecen hec ere ethorri ciren festarat.

46. Jesus beraz ethorri een oraino Galileco Cananerat, nun cambiatu haitçuen ura arnora, bada bacen Capernaumen corteco yaun bat, ceinaren semea eri baitcen.

47. Eta ceinac adituric Jesus ethorri cela Judeatic Galilearat, yohan cen haren ganat, eta othoiitzu çuen yausteaz haren semearen sendatceco; ecen hilcera çohan.

48. Bainan Jesusec erran cion: ez baduçue ikhusten gauça es-

pantagarriric eta miraculuric, ez duçue sinhesten.

49. Eta corteco Jaun huncerran cion: Jauna, yauts çaita ene semea hil baino lehen.

50. Jesusec erran cion: çoaci, çure semea bici da. Guiçon hunc sinhetsi çuen Jesusec erran cion hitcean, eta yohan cen.

51. Eta nola ya yausten baitcen, bere sehiac ethorri çaizeon aitcinerat, eta berriac ekharri çaizcoten, ciotelaric: çure semea bici da.

52. Eta galdeguin cioten cein orenetan hobequi khaussitu cen; eta erran cioten: atço çazpi orenen gaínean sukharrac utei çuen.

53. Aitac beraz eçagutu çuen oren hartan *berean* cela Jesusec erran cioena: çure semea bici da. Eta sinhetsi çuen harc eta bere etche guciak.

54. Jesusec egün çuen oraino bi garren miraculu hau, ethorri cenean Judeatic Galilearat.

## V CAPITULUA.

*Jesus - Christoc sendatzen du paralytico bat errepausuko egunean, solas eguiten du horren eta bere buruaren gaínean, etc.... Juduen contra.*

1. Gauça hoyen ondoan bacen Juduen festa bat, eta Jesus igaa cen Jerusalemerat.

2. Beraz bada Jerusalemen, ardiem merkhatuan, mainhu toqui bat Hebrauaz deithua Bethesda, baitzen bortz arkha azpi.

3. Ceintan baitcauden hainitz heri, ixu, maingu, eta alderdi idorrac czuzten yende, iguricatz-vez uraren iguidura.

4. Ecen Ainguéru bat yausten cen edo cein demboraz mainhu toquirat, eta ura cikhintzen quen; eta orduan lehenic yausten cena mainhu toquirat ura cikhindu cen ondoan, sendatua cen, cein nahi eritassunez içan çadin atchiquia.

5. Bada bacen han guion bat eri hogoi eta hemeçortei urthe hartan.

6. Eta Jesuséc ikhussiz etçana lurrean eta eçagutuz ya hainitz dembora hartan han çagoela erran cion: nahi duçu içan sendatua?

7. Eriac ihardetsi cion: Jau-na ez dut nihor mainhu toquirat aurthiquiteen nauenic ura cikhin deneau, eta yeiten niçan demboran, bertce bat yausten da ni baino lehen.

8. Jesusec erran cion: yaiqui çaitie, cargo çagu çure ohe chumea, eta ibil çaitie.

9. Eta ordu berean guion sendatua içan cen, eta cargatu quen beret ohe chumea, eta ibilt-

cen cen. Bada errepausuko egun bat cen,

10. Juduec beraz erran çuten sendatua içan cenari: errepausuko egun bat da, ez çautçu cilhegui çure ohe chumearen cargatcea.

11. Ihardetsi cioten: sendatu nuenac erran daut: cargo çagu çure ohe chumea, eta ibil çaitie.

12. Orduan galdeguin cioten: nor da erran dantçuna: cargo çagu çure ohe chumea eta ibil çaitie?

13. Bainan sendatua içan cenac ez çaquien nor cen; ecen Jesus lekhu hartan cen yende ostetic galdu cen.

14. Gueroztic, Jesusec khaus-situ quen Templuan, eta erran cion: huna, sendatua içan çare; ez guehiago bekhaturic egün, beldurrez gaistoago guertha da-quicun.

15. Guión hura yohan cen, eta kharriatu quen yuduer Jesus cela sendatu quena.

16. Hartacotz yuduec hersten çuten Jesus, eta bilhatcén çuten haren hilarazteco, ceren gauça hauc egün cituen erre-pausuko egunean.

17. Bainan Jesusec ihardetsi cioten: ene Aita lanean harí da orai arte, eta ni ere lanean hari naiz.

18. Eta hori dela casu yuduec bilhatcen çuten oraino guehiago hilaraztea, ceren ez choilqui errepausuco eguna hautsi çuen, bainan ere ceren erraiten çuen Jaincoa haren Aita eguiazcoa cela, bardinteen celaric Jaincoari.

19. Bainan Jesusec ihardetsi çuen, eta erran cioten : eguiazqui, eguiazqui erraiten dautquet, Semeac ez diola deus eguiten ahal berartaz, ez badu ikhusten Aitari eguiten; ecen cer nahi Aitac eguin decen, Semeac ere eguiten du guisa berean.

20. Ecen Aitac maite du Semea, eta erakhatsi dio eguiten dituen gauça guciad; eta irak-hasten dio hau baino obra handiagoric, amoreagatic miretsuan içan çaitzten.

21. Ecen nola Aitac hilac pizten baititu eta bicia emaiten guisa berean Semeac ere bicia emaiten du nahi duenei.

22. Ecen Aitac ez du nihor yuyatcen, bainan eman du yuyamendu gucia Semeari.

23. Amoreagatic guciec ohora deceten Semea Aita ohoratcen duten beçala; ohoratcen ez due-nac Semea, ez du ohoratcen Aita ceinac egorri baitu.

24. Eguiazqui, eguiazqui erraiten dautnet : ene hitça adit-

cen duenac, eta ni egorri nue-nean sinhesten, badu betboreobia, ez da condenacionean ero-rico, bainan iragana da hiletibieirat.

25. Eguiazqui, eguiazqui erraiten dautquet : orena ethortzen dela, eta ya ethorria da, hilec adituco dutela Jaincoaren Semearen boça, eta hora aditu içan dutenac, bicico dire.

26. Ecen nola Aitac berartan bicia baitu, hala eman du Semeari içatea bicia berartan.

27. Eta eman diot yuyatceco ahala ceren guionaren Semea baita.

28. Ez çaitetzela harrit hor-taz; ecen orena ethorrico da, ceintan hobietan diren guciec adituco baitute haren boça.

29. Eta atheraco dire, ongi eguin dutenac, berriz biciaren içaiteco, eta gaizqui eguin dutenac, berriz condenacionearen içaiteco.

30. Nihaurtaz ez deçaquet deus eguin; yuyatcen dut aditzen du-danaren arabera, eta ene yuya-mendua zucena da; ecen ez dut bilhatcen ene borondatea, bainan Aitaren borondatea ceinac egorri bainau.

31. Nihaurtaz lekhucotassuna bihurtzen badut, ene lekhucotassuna ez da iedearen gay.

32. Berce bat da nitaz lekhucotassunabihurteen duena, bahaquit nitaz bihurteen duen lekhucotassuna fedearen gay dela.

33. Egorri duue Joannesen ganat, eta bihurtu du lekhucotassuna eguiari.

34. Bada ez dut bilhatcen guionen lekhucotassuna; bainan erraiten ditut gauça hauc içan çaitetzentçat salbatuac.

35. Arguzagui gartu eta distjari bat cen; eta nahi içan çarete haren arguian bozcariotu dembora pochi batentçat.

36. Bainan nic badut lekhucotassun bat Joannesena baino handiagoa, ecen ene Aitac be-thetceco eman derauztan obrac, eguiten ditudan obra hec berac, lekhucotassuna bihurteen dute nitaz ene Aitac egorri nauela.

37. Eta egorri nauen Aitac, bihurtu du berac lekhucotassuna nitaz; seculan ez cinutep aditu haren boça, ez ikhussi haren beguitartea.

38. Eta haren hitça ez dago çuen baithan ez duçuenaz gueroz sinhesten harec egorri duenari.

39. Bilhaquint çaque iscriturac; ecen onesten duue içaitea hetaz bethiereco bicia, eta hec dire ekharteen dutena lekhucotassua nitaz.

40. Bainan ez duue nahi e-

thorri ene ganat, biciaren içai-teco.

41. Ez dut atheratcen ene loria guiconetaric.

42. Bainan eçagutcen dut on-gui ez duçuela Jaincoaren amo-dioa çuen baithan.

43. Ethorri naiz ene Aitaren icenean, eta ez nauçue errecebitten; berce bat ethorcen bada be-re icenean, errecebantuco duue.

44. Nola sinhesten ahal du-que, batac bercearen loria bil-hatcen duenaz gueroz, eta bilhatcen ez duçuenaz gueroz Jaincoa ganic choilqui ethortcen dena?

45. Ez deçaquela sinhets ac-cusatu behar çauztedala ene Ai-taren aitcinean; Moise ceintan condatcen baidutque, da accu-satuco çaituztena.

46. Ecen sinhets bacineçaque Moise, sinhets nindioçue ni ere; ceren iscribatu baitu nitaz.

47. Bainan ez bacineçaque sinhets haren iscribuetan, nola sinhets cineçaquete ene hitçetan?

## VI CAPITULUA.

*Jesus-Christoc asetcen tu bortz mila guicon bortz oguiz, ibil-cen da uraren gainean, eta mintçatcen da yendayare-quin Ceruco eguiazco ogua-ren gainen etc....*

1. Gauça hauc ondoan Jesus

yohan cen Galileaco ixasoaz berce alderat cein baita Tiberiadaco *ixasoa*,

2. Eta yende oste batec yarraitzen *çuen*, ikhusten çute-lacotz eri ciren gainen egutien cituen miraculuac.

3. Bainan Jesus igan cen mendi baten gainerat, eta han yarri cen bere Discipuluekin.

4. Bada Bazco *eguna*, cein baitzen Judduen festa, hurbil cen.

5. Eta Jesusec beguiac alchaturic, eta ikhussiz mulhoa ethortzen cela hora ganat, erran *çuen* Philipperi; nundic erosico ditugu oguiac, hoyec içan deçatentçat yaterat.

6. Bada hori erraiten *çuen* haren frogatceco; ecen ongui baçaquien cer egun behar *çuen*.

7. Philippec ihardetsi cion : *baldin baguinuere bi ehum dirupecen ogua*, hora ez luquete asqui, nahi bada bakhotchac ez lecen har gutigno bat baicen.

8. Eta bere Discipuluetaric batec, Andres, Simon Pierresen anayac, erran cion :

9. Bada hemen mutico bat bortz garagarrezco ogui baititu eta bi arrain; bainan cer da hori hain berce yenderentçat?

10. Orduan Jesusec erran *çuen* : yarraraz eçatçuc yendeac, (bada bacen lekhu hartan hai-

nitz belhar) yendeac beraz yarri ciren bortz miletaraino.

11. Eta Jesusec hartu cituen oguiac; eta graciae bilhurtu ondoan, eman cituen Discipuluei, eta Discipuluec yarriric çandenei, eta gauça bera arrainez, nahi çuten becenbat.

12. Eta asse ciren ondoan, erran *çuen* bere Discipuluei : bil çatçne pusca soberaquin direnac, deus içan ez dadin galdurie.

13. Bildu cituzten beraz, eta bortz garagarrezco ogui pusquez hamisasqui bethe cituzten, ceinac hondartu baitciren yan çutenei.

14. Bada yende haucikhussirie Jesusec egun *çuen* miraculua, erraiten çuten : hau da eguiazqui mundura ethorri behar cen Profeta.

15. Bainan Jesusec eçaguturic ethorri behar cirela haren alchateea Erregue eguitecotçat, itçuli cen oraino bakharric mendirat.

16. Eta noiz ere gaba yein baiteen, bere Discipuluac yantsi ciren ixasorat.

17. Eta iganic barkurat, iragaiten ciren ixasoaz berce alderat Capernaumeeo alderdirat, eta ya gaba cen, oraino Jesus ez baitzen ethorrria heyen ganat.

215.  
18. Eta ixasua goratu cen hai-  
ce handi batec buhatcez.

19. Bainan bogatu çuten on-  
doan hogoi eta bortz edo hogoi  
eta hamar bidarten ingurume-  
na, ikhussi çuten Jesus çohala  
ixasoaren gainean, eta hurbilcez  
barkhuari; eta icitu ciren.

20. Bainan erran cioten : ni  
baiz, ez beldurric içan.

21. Errecebitu çuten beraz  
atsequinequin barkhuan eta bar-  
khua leyhorreratu cen ordu be-  
rean yoaiten ciren *lekhuan*.

22. Biharamuncean ixasoaz  
berce aldean egon cen mulzoac,  
ikhussiz ez cela han berce bar-  
khuric Discipuluac sarthu ciren  
hura baicie, eta Jesus ez cela  
sarthu barkhuan bere Discipu-  
luequin bainan bere Discipuluac  
yohan cirela bakharri;

23. Eta berce barkhu batçu  
yeinic Thiberiatric ogua Jaunac  
graciac bihurtu cituen ondoan,  
yan çuten toqui haren hondorat;

24. Mulço hec beraz ikhusten  
baitçuten Jesus ez cela han, ez  
haren Discipuluac, ordu berean  
igan ciren barkhu hetarat, eta  
ethorri ciren Capernaumerat,  
bilhatcez Jesus.

25. Eta hura aurquituric ix-  
soaz berce aldean, erran cioten :  
Nagusia, noiz ethorri çare hu-  
nat?

26. Jesusec ihardetsi cioten,  
eta erran : eguiazqui, eguiaz-  
qui erraiten dautçuet, bilhatcen  
nautçue, ez miraculu ikhussi  
duçuelacotz, bainan ogui yan  
duçuelacotz, eta asse çaretela-  
cotz.

27. Çaitezte lanean, ez gal-  
cen hari den yanharriaren ondo-  
tic, bainan bethiereco biciraino  
iraunen duenaren ondotic, cein  
*yanhariguiçonaren Semeac eman*  
nen dautçue; ecen Aitac cein  
baita Jaincoa, laudamena eman  
dero bere markaz.

28. Erran cioten beraz : cer  
eguinen dugu Jaincoaren obrén  
eguiteco?

29. Jesusec ihardetsi çuen,  
eta erran cioten : hemen da Jain-  
coaren obra, sinhets deçaçuen  
barec egorrian.

30. Orduan erran cioten : cer  
miraculu eguiten duçu beraz,  
ikhus deçaçuntçat, eta sinhets  
çaitçagun? cer obra eguiten du-  
çu?

31. Gure aitec yan dute mana  
izcribaturic denaren arabera; e-  
man diote ceruco ogua yaterat.

32. Bainan Jesusec erran cioten : eguiazqui, eguiazqui errai-  
ten dautçuet : Moisec ez daut-  
çue eman ceruco ogua yaterat;  
bainan ene Aitac emaiten daut-  
çue eguiazeo Ceruco ogua.

33. Eeen Jaincoaren oguaia Cerutic yautsi dena da, eta emaiten duena bicia munduari.

34. Erran cioten beraz : Jauña, iguçu bethi ogui hartaric.

35. Eta Jesusec erran cioten : bicico oguaia naiz. Ene ganat ethortzen denac, ezdu içanen goseric; eta nitan sinhesten dueñac, ezdu içanen seculan egarriric.

36. Bainan erran dautçuet ikhussi nauçuela, eta bizquitaranean ez duçue sinhesten.

37. Ene Aitac emaiten dāuzquidan guciac, ethorrico dire ni ganat, eta ez dut neholere campoan eçarrico éne ganat ethortzen dena.

38. Ecen erautsi naiz cerutic ez ene borondatearen eguitecotçat, bainan bai egorri nauenaren borondatea.

39. Eta hemen da Aitaren borondatea çoinec egorri bainau, ez deçadan gal batere eman darotan guciataric, bainan pitzaraz ditçadan azquen egunean.

40. Eta hemen da egorri nueñaren borondatea, çoinec ere betustatzen baitu Semea, eta sinhesten harten, içan decen bethiereco bicia, hartacotz berriz pitzaracico dut azquen egunean.

41. Bada Juduac mintço ciren

haren contra erran çuelacotz, cerutic yautsi oguaia naiz.

42. Ecen erraiten çuten : ez dea hemen Jesus, Josephen semea, ceinaren aita eta ama eçagutzen baditugu? nola bada dio hunec; yautsi naiz cerutie?

43. Jesusec beraz ihardetsi çuen, eta erran cioten : ez çuela murmura çuen artean.

44. Nihor ez daiteque yein ene ganat, Aitac, egorri nauenac ez badu erakharrarazten; eta nic, berriz pitzaracico dut azquen egunean.

45. Profetetan izcribaturic da; eta içanen dire guciac irakhatziac Jaincoaz. Norc-ere beraz ençun baitu Aita, eta ikeria içan baita hartaz ethortzen da ni ganat.

46. Ez norbaiteç ikhussi dueñacotz Aita; Jaincoaganic dena da choilqui Aita ikhussi duena.

47. Egiazqui, egiazqui erraiten dautçuet, nitan sinhesten duenac badueli bethiereco bicia.

48. Bicico oguaia naiz.

49. Çuen aitec yan dute mana eremuān, eta hil ciren.

50. Hemen da cerutic yautsi da oguaia, amoreagatic norbaiteç hartaric yaten badu, ez dadin hil.

51. Pitzarasten duen oguaia

naiz cerutic yautsi naicena; nor-haitec yaten badu ogui huntaric, bethicotz bicico da, eta emanen dudan oguaia, ene haraguia da, cein emanen baitut munduco biciarentcat.

52. Juduac beraz arraçoinatzen çnten beren artean, eta cioten : nola huncemaitenahal deraucu bere haraguia yaterat.

53. Eta Jesusec erran cioten : eguiazqui, eguiazqui erraiten dautquet, ez baduçue yaten guionaren Semearen haraguia, eta edaten haren odola, ez duçue içanen bicia cihauretan.

54. Ene haraguia yaten due-nac, eti ene odola edaten, badu biceee bethierecoa; eta berriz pitzaracico dut azquen egunean.

55. Ecen ene haraguia egui-azeo hazeurri bat da, eta ene odola eguiazco edari hat.

56. Ene haraguia yaten dnena eta ene odola edaten, nitandago, eta mi hartan.

57. Nola bici den Aitac egorri bainau, eta bici bainaiz Aitzaz; guisa berean yaten nauena, bicico da ere nitaz.

58. Hemen da cerutic yautsi den oguaia; ezda çuen aitec mana yan duten beçala, eta lilac dire; bainan ogui hau yaten duena bicico da bethicotz.

59. Synagoguan erran cituen

gauça haue, irakhatsiz Capernamen.

60. Eta bere Discipuluetic hainitceh hura ençunic, erran çuten : hitz hau gogorada, nore aditeen ahal du?

61. Bainan Jesusec yaquinez bere baithian bere Discipuluac hortaz mintçö cirela, erran cioten : humec gaizcarteen çuste?

62. Cer içanen da beraz baldin ikhusten baduçue guionaren Semea igaiten lehen cer toquirat?

63. Izpiritua da biciarazten duena; baraguia ezda densetaco ere baliatcen; erraiten dautçudan hitçac izpiritu eta bici dire.

64. Bainan badire hainitçac çuen artean sinhesten ez nau-tenc; ecen Jesusec başaqüien hastetic cein içanen ciren sin-hetsiren ez çufenac, eta cein içanen cen trahituko çuena.

65. Erran cioten beraz : hor-relacotz erran dautçet, nihor ez dela ethortcep ahal ni ganat, baldin ez başaco emana ene Aitzaz.

66. Oren hartaric beretic bere Discipuluetic hainitcec utci çuten, eta ez ciren guehiago ibil-cen harequin.

67. Eta Jesusec erran çuen hamabier : eta çuec ere ez duçue nahi yohan?

68. Bainan Simon Pierresec ihardetsi cion : Jauna ! noren ganat yohanen gareñ baditutu bethierco biciaren hitçac ;

69. Sinhetsi dugu, eta ega-gatu dugu Christo çarela Jainco biciaren Semea.

70. Jesussee ihardetsi cioten : ez çaitutezte hautatu quec hamabiae ? bizquitartean çútaric bat, demonio bat da.

71. Bada Judas Iscariota, Simonen *semeaz* erraiten çuen hori ; ecen hora cen guerthatu behar çayona haren trahitcea, hamabietaric bat içana gatic.

## VII CAPITULUA.

*Jesus - Christo seguitees ichilic  
bere anayac Jerusalemerat,  
solas eguiten du Juduequin  
bere buruaren eta irakhasta  
penaren gainean.*

1. Gauça hauc ondoan Jesus Galilean çagon, ecen ez çuen nahi egon Judean, ceren Juduec bilhatcen baituten haren hilarraten,

2. Bada Juduen festa, deit-hua Tabernaclecoa, hurbil cen.

3. Eta bere anayec erran cioten : abia çaité hemendi eta coaci Judgearat, çure Discipuluec ere ikhus deçatentçat eguiten ditutun obrac.

4. Ecen nihor aguertu nahi

duenic ezda gordeca gauçac eguiten tuenic ; eguiten baditutu gauça hauc, aguert çaité çuhaur mundurat.

5. Ecen bere anayec ere ez cuten hartan sinhesten.

6. Eta Jesusec erran cioten : ene dembora ezda oraino ethoria, bainan çuena, bethi prest da.

7. Munduac ez çaitu higuint-çan ukhainen ahal, bainan higuintzen nau ; ceren bihurtcoen baitut haren contra lekhuncotas-suna haren obrac gaistoac diera,

8. Igan çaitetzte quec festa hūntarat, ni ez naiz oraino igai-ten festa hūntarat, ceren eta ene dembora ez baita oraino bethea.

9. Eta lieyer erranic gauça hauc, egon cen Galilean.

10. Bainan nola bere anayac igan baitciren, orduan igan cen ere festarat ez agueriaq, bainan, segueetuan beçala.

11. Bada Judgec bilhatcen çuten festan, eta erraiten çuten nun da ?

12. Eta elhatce handi bat bacen mulzuaren artean haren gainean. Batçuec cioten ; güiçen onguizcoa da ; eta bercec erraiten çuten ; ez, bainau yendaya enganatcen da.

13. Bizquitartean nihor ez een mintço hartaz aguerian Juduent-çat çuten beldurra *cela casu*.

14. Eta nola festa ya erditara baiteen, Jesus igan cen Templu-  
rat, eta irakhasten çuen.

15. Eta Juduac harritcen ci-  
ren, ciotelaric : nola hunec daz-  
qui Izcriturac, ez ikhassi eta?

16. Jesusec ihardetsi cioten;  
eta erran çuen : ene irakhas-  
cunça ezda neurea, bainan ni  
egorri nauenarena da.

17. Baldin norbaitec eguin na-  
hi badu baren borondatea, ya-  
quinen du ene irakhascuntçatic  
Jaincoa ganic denez, ala mintço  
naicen nihurtaz.

18. Berartaz mintço denac,  
bilhatcen du bere loria; bainan  
bilhatcen duenac egorri duena-  
ren loria, eguiazcoa da, ezda  
hartan inyusticiaric.

19. Moisec ez dautçue eman  
Leguea? eta bizquitartean çue-  
taric batec ero ez du beguierat  
cen Leguea. Certaco bilhatcen  
duçue ene hilaztea?

20. Mulzuac ihardetsi çuen :  
demonio bat badu; cein da  
çure hilaztea bilhatcen duena?

21. Jesusec ihardetsi çuen,  
eta erran cioten : obra bat egui-  
dut; eta guciac harritu çarete.

22. *Eta çuec*, Moisec eman  
dautçuelacotz circoncisionea,

( cein bizquitartean ez baitcen  
Moisen ganic, bainan aiten ga-  
nic,) circoncisatcen duçue ere  
guiçon bat errepausuco egunean.

23. Baldin beraz guiçonac er-  
recebitcen badu circoncisionea  
errepausuco egunean, Moisen  
Leguea ez dadintçat içan haut-  
sia, samur çarete ene contra  
sendateen dudalacotz guiçon bat  
oso osua errepausuco egunean?

24. Ez çäçuela yuya itchüren  
arabera, bainan yuya çäçue yus-  
toqui.

25. Orduan Jérusalemetar cem-  
baitec erraiten çuten; ez da hau  
bilbatcen dutena hilazteco?

26. Eta bizquitartean huna,  
mintço da aguerian, eta ez de-  
rote deusic erraiten, aitcinda-  
riec eçagutu othe dute segurqui  
hau dela eguiazqui Christo?

27. Bada badañigu ongi  
hau nungo den, bainan Christo  
ethorteen denean, nihorc ez da-  
quique nungo den.

28. Jesusec beraz oihu egui-  
ten çuen Templuan irakhatsiz  
eta ciuela : eçagutcen nauçue,  
eta badaquique nungoa naicen;  
eta ez naiz ethorri nihurtaz,  
bainan egorri nauena, eguiaz-  
coa da, eta ez duçue eçagutcen

29. Bainan nic, eçagutcen dut;  
ceen ethorri naiz hura ganic, eta  
hura da egorri nauena.

30. Orduan hartceh bilhatcen çuten, baiman nihorez ez çuen ecarri eseuac haren gainean, ceren haren orena ez baitcen oraino ethorria.

31. Eta mulzucoetarie hainitceh sinhetsi çuten hartan, eta erraiten çuten : Christo ethortzen denean, egunen du guehiago miraculu hunec eguin duen baino?

32. Pharisauec ençun çuten mulzua elhiatcen gauça hauc hartaz; eta Pharisauec Sacrificatçailen aitcindariequin egorri çuzten sehiac haren harcerat.

33. Eta Jesusec erran cioten : dembora pochi batentçat oraino quequin naiz, guero banoha egorri nauenaren ganat.

34. Bilhatuco nauçue, bainan ez nauçue causituco ; eta nun ere içanen bainaiz, ez çitezteque harat ethor.

35. Juduec beraz erran çuten beren artean : norat behar du yohan ez dugula causituco ? behar du yoan Greken artean barrayatuac direnetarat, eta Grekac irakhasti ?

36. Cein da atchiqui duen solas han ; bilhatuco nauçue, bainan ez nauçue causituco ; nun ere içanen bainaiz, ez aitezteque harat ethor ?

37. Eta festaco asquen eta e-

gun handien Jesus aurquitu een han, oihuz çagoela, eta cioela : nor bait egarri bada, ethor bedi ni ganat eta edan beça.

38. Nitan sinhesten duenac, Izcriturac erraiten duenaren araberan, ur bicizeo ibayac chorrotatuco dire haren barnetic.

39. ( Bada, hori erraiten çuen hartan sinhesten dutenec errecebiku behar duten Izpiritz ; ecen Izpiritu Saindua ez cen oraino emana, ceren eta Jesus ez baitcen oraino lorificatua.)

40. Mulzuco hainitceh adituri beraz solas hau, cioeten : hau eguiazqui Profeta da.

41. Berce batçuec erraiten çuten : hau Christo da ; eta berce erraiten çuten : bainan Christo ethorrico da Galileatic ?

42. Izcriturac ez du erraiten Christo ethorrico dela Daviten odoletic, eta Bethlehemengo hiri aurquitic, nun baitçagon David ?

43. Leya içan cen beraz yendayaren artean huru dela casu.

44. Eta heyetaric cembaitec atzi nahi çuten, bainan nihorez ez çuen ecarri eseuac haren gainean.

45. Beraz, sehiac içnli ciren Sacrificatçaille aitcindarijetarat eta Pharisaüterat, hauc erran çaitçoten ; certaco ez duçue era-kharri.

46. Sehiec ihardetsi çuten : seculan nihor ezda mintçatu guion hori beçala.

47. Bainan Pharisauec ihardetsi ceyeten : ez çarete içan engauatuac çuec ere?

48. Gobernarietaric edo Pharisauetaric batec ere sinhetsi du hartan?

49. Bainan yendayatçar hau , ceinac ez baitaqui cer den Leguea , maradicatua da.

50. Nicodemec ( gabaz Jesus-ganat ethorri cena , eta cein baitcen heyen artean ) erran cioten :

51. Gure Legueac yuyateen du guion bat ençuna içan baino lehen , eta eçagutu cer egun duen?

52. Ihardetsi çuten eta erran cioten : ez çare çu ere Galileaco ? bilhaquint çaita , eta yaquin çan Profetaric batere ez dela yalgui Galileatic.

53. Eta bakhotcha yohan cen bere etcherat.

### VIII CAPITULUA.

*Emazte aduletrioa. Jesus-Christoc solas eguiten du Juduequin.*

1. Bainan Jesus yohan cen Olibetaco mendirat;

2. Eta argui hatxean ethorri cen oraino Templurat, eta yendaye gucia yein cen hora ga-

nat , eta yarriric , irakhasten cituen.

3. Eta Scribauec eta Pharisauec erakharri çayoten emazte bat adulterioan atcemana ; eta eçarriric *heyen* erdian ,

4. Erran cioten : Nagusia emazte hau içan da arrapaturic adulterioa yanquitcen queila.

5. Bada Moisec Leguean manatu daucu harricatceaz suerte hortan direuac ; çuc cer dioçu?

6. Bada hori erraiten cioten haren frogatceco , içan ceçaten hora certaz acusa ; bainan Jesus makhurturic izeribateen çuen erhiaz lurrean.

7. Eta nola ez baitciren barateen interroatcetic , chuchen-duric , erran cioten : çuetaric bekhaturic gabe denac , aurthic deçala leben harria haren gainerat.

8. Eta oraino makhurturic , izeribateen çuen lurrean.

9. Bada hori aditu çuten ondoan , condenatuac içanez beren concienciaz , yalgui ciren banaca , hassiric çabarrenetic azqueneraino ; halaco guisaz nun Jesus baratu baitcen bakbarric han erdian cen emaztearequin.

10. Orduan Jesus yaiquiric , ez ikhussiz nihor emeztea baicic ; erran cion : emeztea , nun dire

acusatcen çaituztenac? batec ere  
ez çaitu condenatu?

11. Erran çuen : batcc ere,  
Jauna, eta Jesusec erran cion :  
ez çaitut condenatcen nic ere,  
çoaci, eta ez guehiago bekha-  
turic egui.

12. Eta Jesus mintçatn cioten  
oraino ciolaric : munduco ar-  
guia haiz : yarraiquitcen nauena  
ezda ibilico ilhumbetan, bainan  
içanen du bicico arguia.

13. Orduan Pharisauec erran  
cioten : çure buruaz lekhucotassuna  
bihurtzen duçu, çure lekhucotassuna  
ezda fedearen gay.

14. Jesusec ihardetsi çuen,  
eta erran cioten : nahi bada lekhucotassuna  
bihurteen dudan neure buruaz, ene lekhucotassuna  
fedearen gay da; ecen badaquit nundic ethorri naicen,  
eta norat nohan; bainan ez da-  
quique nundic ethortzen naicen,  
ez norat nohan.

15. Yuyatcen duçue haraguia-  
ren arabera; *bainan* nic, ez dut  
nihor yuyatcen.

16. Baldin yuyatcen badut  
ere, ene yuyamendua fedearen  
gay da; ecen ez naiz bakharric,  
bainan *bada* ni eta ni egorri  
nauena.

17. Cuen Leguean izcribatu-  
ric ere da, bi guiconen lekhucotassuna  
fedearen gay dela.

18. Lekhucotassuna bihurtzen  
dut neure buruaz, eta egorri  
nauen Aitac ere bihurtzen du  
lekhucotassuna ene gainean.

19. Orduan erran cioten : nun  
da çure Aita? Jesusec ihardetsi  
çuen : ez duçue eçagutzen ez ni,  
ez ene Aita, baldin eçagut hanindeçaue,  
eçagut cinioquete ere ene Aita.

20. Jesusec erran cituen hitz  
hauc tresora cen toquian irakatsiz  
templuan: bainan nihore  
ez çuen atzitu, ceren eta barean  
orena ez baitzen oraino ethoria.

21. Eta Jesusec erran cioten  
oraino ; banoha, eta bilhatuco  
nauçue; bainan hilen çarete çuen  
bekhatuan ; yoaiten naicen lekhurat  
ecin çaitetzte ethor.

22. Juduec beraz erraiten çuten :  
bere burua hilen du, erraiten  
duela : yoaiten naicen lekhurat,  
ecin çaitetzte ethor?

23. Orduan erran cioten : be-  
hereco çarete, *bainan* ni, gaine-  
co naiz; mundu huntaco çarete,  
*bainan* ni, ez naiz mundu hun-  
taco.

24. Hartacotz erran dautçuet;  
hilen çaretela çuen bekhatuetan;  
ecen ez baduçue sinhesten *Jain-*  
*coaz egorria* naicela, hilen çarete  
çuen bekhatuetan.

25. Orduan erran cioten : çu-

nor care, eta Jesusec erran cioten : erran dautçudadena hasta hastetic.

26. Badut hainitz gauça çetaz erraiteco eta çuetan condenatceco, bainan egorri nauena, eguiazcoa da, eta hartarie aditu ditudan gauçac, erraiten ditut munduari.

27. Ez çuten eçagutu mintçateen çaitçotela Aitaz.

28. Jesusec beraz erran cioten : alchatu duçuen ondoan guionaren Semea, orduan eçagutuco duçue Jaincoren egorria naicela, eta ez dudala deus eguiten nihaurtaz, bainan erraiten ditudala gauça hauc ene Aitac irakhatsi darotan beçala.

29. Ecen egorri nauenä ene quin da; Aitac ez nau utci bakharrir, ceren eta eguiten baitut bethi agrada çazcon gauçac.

30. Gauça hauc erraiten ciuten demboran hainiteec sinhetsi çuten harta.

31. Eta Jesusec erraiten çuen harta sinhetsi çuten Juduei : egoiten bacarete ene hitcean, içanen çarete eguiazqui ene Discipuluac.

32. Eta eçagutuco duçue egua, eta eguiac lachoan eçarico çaituzte.

33. Ihardetsi cioten : Abrahamen etkorquzuna gare, eta

egundaiño ez gare nihoren mempeco içan ; nola beraz dioçu : lachoan emanaç içaneñ çarete ?

34. Jesusec ihardetsi cioten : eguiazqui, eguiazqui erraiten dautçuet : nore-ere eguiten baitu bekhatna, bekhatuaren mempeco dela.

35. Bada mempeco dena ezda bethi egoiten etchean : semea egoiten da bethi.

36. Baldin beraz Semeac lachoan emaiten baçaitu, eguiazqui lachoan içanen çarete.

37. Badaquit Abrahamen ethorquia çaretela, bizquitartean bilhatcen duçue ene hilaraztea, ceren eta ene hitça ez baita sartcen çuen baithan.

38. Erraiten dautçuet ikhussi dudana ene Aita baithan, eta quec ere eguiten tuçue çuen aita baithan ikhussi ditutçuen gauçac.

39. Ihardetsi çuten, eta errain cioten : gure aita Abrahama da. Jesusec erran cioten : Abrahamen haurrac bacinate, egun cimeçazquete Abrahamen obrac.

40. Bainan orai bilhatcen duçue ene hilaraztea, ni guigon bat niçana egua erran dautçuedana, ceina Jaincoa ganic ençun baitut ; Abrahamec ez du egua hori.

41. Eguiten ditutçue çuen ai-

taren egunzac. Eta erran cioten : ez gare sorthuac lohique-riatic ; badugu Aita bat cein baita Jaincoa.

42. Bainan Jesusec erran cioten : baldin Jaincoa çuen Aita balitz, segurqui maitha nindio-que; sorthu naicenaz gueroz Jaincoa ganic, eta *hura ganic* heldu ; ecen ez naiz ethorri ni haurthaz, bainan hura da egorri nauena.

43. Certaco ez duçue endel-gatcen ene mintçaya ? ceren eta ez baituçue ençnten ahal ene hitça.

44. Aita ceintario sorthu bait-çarete debrua da, eta nabi ditu-çue egun çuen aitaren deseoac. Guiçeraile içan da hastetic ha-siric, eta ez du iraun eguiyan, ecen eguiia ezda hura baithan. Gueçurra erraiten duen aldi gu-ciez, bereaz mintçoda; ecen gueçurtaria da, eta gueçurraren aita.

45. Bainan ni, erraiten duda-laeatz eguiia, ez nauçue sinhesten.

46. Cein da çuetaric argui-tuco darotanic behaturic ? eta eguiia erraiten badut, cereu da-co ez nauçue sinhesten ?

47. Jaincoa ganic denac, adit-oen ditu Jaincoaren hitçac, bainan ez ditutçue ençuten, ceren ez baitçate Jaincoa ganic.

48. Orduan Juduec ihardetsi çuten, eta erran cioten : ez dugu ongi erraiten Samaritanò bat carela ; eta demonio bat badu-çula ?

49. Jesusec ihardetsi çuen : ez dut demonio bat, bainan ene Aita ohoratcen dut, eta deso-horatcen nauçue.

50. Nic ez dut bilhateen ene loria ; bada bat bilhateen duena, eta yuyateen duena.

51. Egiazqui, egiazqui er-raiten dautçuet, baldin norbai-tec beguiratcen badu ene hitça, ez dela bilen.

52. Juduec beraz erran cioten : orai eçagutzen dugu de-monio bat baduçula ; Abraham hila da, eta Profetac ere hai, eta erraiten duçu : norbaitec be-guiratcen badu ene hitça, ezda hilen.

53. Gure aita Abraham hila dena baino handiago çare ? Pro-fetac ere hilac dire, nor eguiten çare çuhaur ?

54. Jesuseç ihardetsi çuen : lorificateen banaiz nilaur, ene loria ezda deus ; ene Aita da lo-rificateen nauena, hura cein baidioçue çuen Jaincoa dela.

55. Bizquitartean ez duçue eçagutu, bainan nic eçagutzen dut ; eta errai baneca ez du-dala eçaguteen, gueçurti bat

ninteaiteqne, quec iduri; bainan eçagutcen dut, eta beguiratcen dut haren hitça.

56. Abraham çuen aitae guticiatu du artharequin ikhustea ene eguna; ikhussi du, eta bozcariotu da.

57. Horren gainean Juduec erran cioten: ez duçu oraino berrogoi eta hamar urthe, eta ikhussi duçu Abraham!

58. Eta Jesusec erran cioten: eguiazqui, eguiazqui erraiten dautçuet, Abraham cen baino lehen, naiz.

59. Orduan alchatu çuten harriac aurthiquitceco haren contra, bainan Jesus gorde cen, eta yalgui Templitic, iragan heyen artetic; eta guisa hortan yohan cen.

## IX CAPITULUA.

*Sortcez ixu cenaren sendatcea  
eta haren combersionea.*

1. Eta nola Jesus iragaiten baitcen, bathu çuen guicon bat sortcez ixu cena.

2. Eta bere Discipuluec interrogatu çuten, ciotela: Nagusia, norc egun du bekhatu, hunec, hala hunen burrasuec hola içti-sortcez ixu.

3. Jesusec ihardetsi çuen: ez hunec ez du bekhatu egun, ez hunen burrasuec; bainan Jain-

coaren obrac hartan seinalatuac içaitecotçat da.

4. Behar dut, eguna deno, egun egorri nauenaren obrac gaba ethorteen da ceintan nihore ez baitete laneanar.

5. Munduan naiceno, ni naiz munduko arguia.

6. Hitz hauc erranic, thu egun çuen lurrerat, eta bere aho-goçoaz egun çuen lohi, eta ecarri çuen lohi hartaric ixuren beguien gainen.

7. Eta erran cion: çoaci, eta garbi çaita Siloeco ithurria, (*Siloe erran nahi da egorria.*) Yohan cen beraz, eta garbitu cen eta itçuli bistarequin.

8. Bada, auçuec, eta lehen ixu cela ikhussi çutenec, erraiten çuten: ezda yarriric çagon hura; eskateen çuela?

9. Batçuec cioten: hura da; eta bertee: hura iduridu; bainan berac erraiten çuen: hura bera naiz.

10. Erran cioten beraz: nola çure beguiac içan dire çabalduac?

11. Ihardetsi çuen, eta erran: Jesus deitzen duten guicon harc, egun du lohi, eta ecarri du ene beguien gainen, eta erran daut: çoaci Siloeco ithurriat, eta garbi çaita, içan naicen ondoan beraz, eta garbitu nai-

cen ondoan, ardietsi dutista.

12. Orduan erran cioten : nun da guicon hura? erran quen, ez daquit.

13. Eraian çuten Pharisauerat lehen ixu içan cena.

14. Bada errepausuco egun bat cen Jesusec lohi eguin quena, eta ixuaren beguiac çabaldú.

15. Horrelacotz Pharisauec interroateen çuten oraino nola ardietsi quenista, eta erran cioten : ecarri du lohi enc beguien gainen, garbitu naiz, eta ikhusten dut.

16. Hortan gainen Pharisauen arteco cembaitec erran çuten : guicon hau ezda Jaincoaz egorria, ecen ez du beguirateen errepausuco eguna. Bainan berce batçuec erraiten çuten : nola guicon gaisto batec eguin ahal leçaque holaco gauça espantagarri? eta nahasqueria bacen heyen artean.

17. Erran çuten oraino ixuari : que cer dioçu hartaz, çure beguiac çabaldú darotçulacotz? ihardetsi quen : Profeta bat da.

18. Bainan Juduec ez çuten sinhetsi guicon hura ixu içan cela etaista ardietsi quela, huen burrasuac erakharri cituzten arteraino.

19. Eta interroateen cituzten,

ciotela : hau quen semea da, cein baidioque ixu sorthu dela? nola beraz ikhusten du orai?

20. Haren burrasuec ihardetsi cioten, eta erran : badaquigu hau dela gure semea, eta ixu sorthu dela.

21. Bainan nola ikhusten duen orai, edo norc çabaldú diotçon beguiac ez daquigu; badu adina, interroa çaque, mintçatuco da berari çaucon gauçaz.

22. Haren burrasuec erran çuten gauça hauc, ceren Juduec beldurcen baitçuzten; ecen Juduec erabaquitatu çuten, baldin norbaitee eçagutzen baçuen Christotçat, khendua içanen cela Synagoguatic.

23. Hortacotz haren burrasuec erran çuten : adina badu, interroaçaque bera.

24. Deithu çuten bigarren aldiarentçat guicon ixu içan cen hura, eta erran cioten : emoci loria Jaincoari, badaquigu guicon hura gaisto bat dela.

25. Ihardetsi quen, eta erran : ez daquit gaistoa denez; bainan ongi daquidan gauça da, ixu nainela, eta orai ikhusten du dala.

26. Erran cioten beraz oraino : cer eguin daatçu? nola çabaldú ditu çure beguiac?

27. Ihardetsi cioten : ya erran

dautçuet, eta ez duçue ençun, certaco nahi duçue oraino aditu? nahi duçue içan çuec ere haren Discipuluac?

28. Orduan arbuyatu çuten, eta erran cioten: gu içan çaita haren Discipulu; gu Moisen Discipuluac gare.

29. Badaquigu Jaincoa mintçatu dela Moisei bainan han, ez daquigu nungo den,

30. Guiçonac ihardetsi çuen, eta erran cioten: segurqui, hauche da gauça mirestecoa; ez deçaçuen yaquin nungo den; eta hizquitartean enc beguiac çabaldu ditu.

31. Bada badaquigu Jaincoac ez dituela iduquiteen gaistoac, bainan norbait Jaincoaren cerbitçaria bada, eta eguiten badu haren gogea, Jaincoac iduquiteen du.

32. Ez dute seculan ençun erraiten nihorc ixu sorthu den baten beguiac çabalduric.

33. Hau ez baliz Jaincoac egorri bat, holacoric deusere ez lioque eguin ahal.

34. Ihardetsi çuten, eta erran cioten: ossoqui bekhatuan sorthua çare, eta irakhasten derancu! eta khendu çuten camporat.

35. Jesussec yaquin çuen khen du çutela camporat; eta bidean

bathurie, erran cion: sinhesten duçu Jaincoaren Semea baithan?

36. Guiçon hunc ihardetsi cion, eta erran: nor da, Jauna, sinhets deçadan hartan?

37. Jesussec erran cion: ikhussi duçu, eta hura da çuri mintço çaitçuna.

38. Orduan erran çuen: sinhesten dut, Jauna, eta adoratu çuen.

39. Eta Jesussec erran çuen: ethorri naiz mundu hunkarat, yuyamendu hunentçat, ikhusten ez duenac, ikhus deçan, eta ikhusten dutenec, ixut dizeten.

40. Hori harequin cireo Pharisauteric cembaitec aditirie, erran cioten: eta gu, ixuaegare?

41. Jesussec ibardetsi cioten: ixu bacinate, ez cinuquete behkaturic; bainan orai erraiten duçue, ikhusten dugu, eta horatocotz da çuen behkatura egoiteu.

## X CAPITULUA.

*Jesus-Christoc eguiten du bere burua arçain on bakharra eta Jaincoaren Seme, ceintaz Juduec solas eguiten baidute harequin eta mehatchatzen.*

1. Egiazqui, egiazqui erraiten dautçuet, sarteen ez dena athistic arditeguian, bainan igai-

ten dena berce lekhuetaric, ohoina dela.

2. Bainan athetic sartean de-na, ardién arçaina da.

3. Athé cainac çabalcen du har-i, eta ardiec ençuten dute haren boça, eta deitcen ditu bere ar-diac beren icenaz, eta cramaïten ditu camporat.

4. Eta eçarri ditueæan bere ardiac campoan, badoha heyen aitcinean, eta ardiec yarraiqui-tcen dute, ceren eta eçagutren baidute haren boça.

5. Bainan ez dute yarraiquico arrotz bat, bainan ihessi yo-anen çazco; ceren eta ez bai-dute eçagutcen arrotzen boça.

6. Jesusec erran cein parabola hau; bainan ez çuten endelgatu cer erraiten çayoten.

7. Jesusec beraz erian cioten oraino; egniazqui, eguiazqui erraiten dautquet, ardién athea-nicela.

8. Ni baino lehen ethorri diren guciac, ohoinac dire; bainan ardiec ez dituzte en-çun.

9. Athéa naiz; norbait sareen báda nitaz, salbatua içanen da, eta sarthuco da eta yalguico, eta aurquituco du bazea.

10. Ohoina ezda ethorteen e-basteko baicic, eta hilceco eta deseguiteco; ethorri naiz bicia

içan deçatentçat, eta içan deca-ten ere franguecián.

11. Arçain ona naiz; arçain onac emaiten du bere bicia bere ardientçat.

12. Bainan alocairiarra, eta arçain ez dena, ceinenac ez bai-dire ardiac, ikhusten du yiten otxua, uzten tu ardiac, eta ihessi doha eta otxuac beretcen ditu ardiac eta barrayatcen.

13. Hola alocairiarra ihessi doha, cerea alocairiarra den, eta ez baidu anxiaric ardiez.

14. Arçain ona naiz, eta eça-gutcen ditut ene ardiac, eta ene ardiec eçagutcen naute.

15. Aitac eçagutcen nauen beçala, eçagutcen dut ere Aita, eta emaiten dut ene bicia ene ardientçat.

16. Badut oraino berce ardi-ric ez baidire arditegui hontaco; eta behar ditu ere eraman, eta endelgatuco dute ene boça, eta içanen da saldo bakhar bat, eta arçain bakhar bat.

17. Huna certaco Aitac maite nauen, ceren eta bicia uzten baidut, berriz harceco.

18. Nihorc ez deraut idequit-cen, bainan uzten dut nihaur-taz; badut nausitassuna uzteco, eta nausitassuna berriz hartceco, erreçebitu dut manu hau ene Aita ganic.

19. Nabasqueria içan cen o-raino Joduen artean solas hoyee cirela easu.

20. Ecen hainitcec erraiten çuten : demonio bat badu, eta centzua galdu du; certaco ençuten duęue?

21. Eta berceec erraiten çuten; hitz hauc ez dire demoniostatu batenac ; demonioac çabalcen ahal ditu ixu baten beguiae?

22. Bada consecracioneco fes-ta egun cen Jerusalemen, eta neguan cen.

23. Eta Jesus passeyatcen cen Templuan, Salomonen arkha az-pian.

24. Eta Juduec inguratu çuten, eta erfan cioten : noiz arte atchiquitcen duęu gure arima dudan? Christo bacira, erran egaueuęu gorde gabe.

25. Jesusec ihardetsi cioten: erran dautquet; eta ez duęue sinhesten; ene Aitaren icenean eguiten ditudan obrec, bihurtzen dute lekhueotassuna nitaz.

26. Baiman ez duęue sinhesten; ceren eta erran dautquet-dan beçala, ez baitçarete ene ardiataric.

27. Ene ardice ençuten dute ene boça, eta eçagutzen ditut, eta yarraiquiteen naute.

28. Eta nic, emajten dérotet bethiereco bicia, eta ez dire se-

culan fundituco; eta nihore ez dituzte beretuco ene escutic.

29. Ene Aita, ceinac eman bai-teranzquit, guciac baino han-diago da; eta nihore ez dituzte bereteen abal ene Aitaren es-cuetaric.

30. Ni eta ene Aita bat gare.

31. Orduan Juduec hartu çuz-ten harriac baren harricatceco.

32. *Bainan* Jesusec ihardetsi cioten : hainitz obra hun ikuhs-araci dautquet ene Aita ganie; hetaric çoinendaco harricatcen nauçue?

33. Juduec ihardetsi çuten, ciotelaric : ez çaitugu harricat-zen obra onaren daco, bainan bai blasfemio baten daco eta cer-en guiçon bat baicic ez içan eta Jainco eguiten çarelacotz.

34. Jesusec ihardetsi cioten : ezda escribaturic çuen leguean, erran dut : Jainco batçu çarete :

35. Baldin Jainco deithu batu beraz Jaincoaren hitça zucendua içan cerotenac; (eta escritura ez badaite içan ecereztatua).

36. Erraïten duęue blasfemat-zen dudala, ni Aitac santificatu nauena, eta egorri nauena mun-durat, ceren erran dudan; Jain-coaren Semea naiz?

37. Ez baditut eguiten ene Aitaren obrac, ez neçäuela siniets.

38. Bainan eguiten baditut,

eta ez bacinute nahi sinhetsi, sinhets eçaçue obra hoyei; eça-gut deçaçuentçat eta sinhets Aita nitan dela, eta ni hartan.

39. Hortacotz bilhatcen çuten oraino haren atzitcea; bainan escapatu cen heyen escuetaric.

40. Eta yohan cen oraino Jordanez berce alderat, Joannesec hastetic batbayatcen çuen lekhurat, eta han egon cen.

41. Eta hainitz ethorri ciren bura ganat, eta erraiten çuten: Joannesec ez du miraculuric batera egun; bainan Joannesec huntaz erran dituen gauça guiac eguiazcoac ciren.

42. Eta han hainiteec sinhetsi çuten hartan.

## XI CAPITULUA.

*Lazararen hiletaric piztea. Judentuen conseilua biltzen da.*

1. Bada bacen halaco guion bat eri, Lazara icena çuena, Bethaniaco cena, Maria eta Martha ahizpen hiri aurquea.

2. Eta Maria cen olio ussain goçoaz Jauna gaçantu çuena, eta chucatu çuena haren çangoac bere hiloez, eta Lazara eri cena, haren anaya cen.

3. Hunen arrebee beraz egori çuten *norbait* hora ganat, hari erraiteco: Jauna, hunia çuc mai-te duçana, eri da.

4. Eta Jesusec ençunie, erran çuen: eritassun hau ezda heriotcerat daramana, bainan Jaincoaren loriarentçat, Jaincoaren Semea içan dadintçat lorisificatua hartaz.

5. Bada Jesusec maite çuen Martha, eta haren ahizpa, eta Lazarra.

6. Eta aditu çuen ondoan Lazarra eri cela, egon cen bi egun orduan cen lekhu berean.

7. Eta guero erran çuen bere Discipuluei; itçul gaiten Judearat.

8. Discipuluec erran cioten: Nagusia, ez du dembora gutibaicic Juduec bilhatcen çutela çure harricatcea, eta berriz yoalten çare oraino!

9. Jesusec ihardetsi çuen: ezda hamabi oren egunean? nihor ibilcen bada egunaz, ezda behatztapatzen; eein ikhusten du mundu huntaco arguia.

10. Bainan nihor ibilcen bada gabaz, behatztapatzen da; ecen ezda arguiric harequin.

11. Gauça hauc erran ciulen, eta guero erran cioten: Lazara gure adisquidea lo dago, bainan banoha iratçarrarazterat.

12. Eta bere Discipuluec erran cioten: Jauna, lo badago sendaturic içanen da.

13. Bada Jesusec erran çuen

hori haren heriotceaz ; bainan gogoratcen çuten loaz mintço cela.

14. Orduan Jesusec erran cioten beraz clarqui ; Lazara hila da.

15. Eta atseguiñ dut çuen gatit ez naicelacotz han guerthatu ; sinhets deçaquentçat ; bainan goacen hura ganat.

16. Orduan Thomasec , deithua Didyma , erraiten du bere ikaslequider ; goacen gu ere , hil gaitentçat harequin.

17. Jesus beraz ethorriric , aurquitu çuen Lazara lau egun hartan ehortcia cela.

18. Bada Bethania ecen urrun Jerusalemetic hamabortz bidartein ingurumena baicic.

19. Eta Juduetaric hainitz ethorri ciren Martha eta Mariaren ganat consolatcerat beren anayaren heriotceaz.

20. Eta Marthac ençun çueñean Jesus ethorteen cela , yohan cen haren biderat ; bainan Maria egon cen yarriric etchean.

21. Eta Marthac erran cion Jesusi : Jauna , hemen içan bacina eñe anaya ez cen hila içanen.

22. Bainan orai badaquit Jaincoari galdeguiten derotzun guciac , Jaincoae emanen derautzula .

23. Jesusec erran eion : çure anaya berriz piztuco da.

24. Marthac erran cion : bidaquit berriz piztuco dela hiletaric pizteco azquen egunean.

25. Jesusec erran cion : ni naiz piztea eta bicia ; nitan sinhesten duena , nahiz hila den , bicico da.

26. Eta cein erë bici baita , eta sinhesten baitu nitan , ezda seculan hilen ; sinhesten duçu hori ?

27. Erran cion : bai , Jauna , sinhesten dut Christo çarela , Jaincoaren Semea , mundurat ethorri behar çuena.

28. Eta hori erran çueñean , yohan cen ichilic Maria bere ahizpari oihu eguiterat ,cioela : Nagusia hemen da , eta galdeguiten hau.

29. Eta hori aditu çuen beçain sarri , alchatu cen berehala eta bide eguin çuen hura ganat.

30. Bada Jesus ez cen oraino ethorria hiriaurquerat , bainan Marthac bathu çuen toquian cen.

31. Orduan Mariarequin etchean ciren Jiduec , eta ceinec consolatcen baitçuten , ikhussiric alchatu cela halaco lehiarequin eta yalgui , yarraiqui çuten , ciotelaric : badoha hobiarat , nigar eguiterat.

32. Noiz ere beraz Maria

heldu baitcen Jesus cen toquirat, eta hura ikhussiric, aurthi qui quen bere burua haren oinetarat, cioelaric : Jauna, hemen içan bacina, ene anaya ez cen hila içanen.

33. Eta Jesusec ikhussi queanean nigarrez, eta harat harequin ethorri ciren Juduac ere, icaratu cen, *bere izpirituan*, eta khechatu cen.

34. Eta erran quen : nun ecarri duçue? ihardetsi cioten : Jauna; çato, eta ikhusaçu.

35. Jesusec nigar egun quen.

36. Horren gainean Juduec erran çuten : ikhusaque nola maite quen.

37. Eta hetaric cembaitec erraiten çuten : hunec ixuaren beguiac çabaldu eta, ez cioena begira guicon hau hilcetie?

38. Orduan Jesus icarateez oraino bere baithan, yohan cen hobiarat, (bada harsulo bat cen, eta bacen harri bat ecarria gainenan.)

39. Jesusec erran quen : alcha çaque harria. Bainan Marthae, hilaren arrebac, erran cion : Jauna, ussaindua da; ecen hor da lau egun duela.

40. Jesusec erran cion : ez dauçut erran sinhesten bacinduen ikhussico cinduela Jaincoarena loria?

41. Alchatu çuten beraz harria, hila etçana cen *toquiarer gainetic*, eta Jesusec alchatuz bere beguiac cerurat, erran quen: Aita, esquerrac bihurtzen derauquitçut ceren iduqui nauçua.

42. Bada banaquien iduquitzen nauçula bethi; bainan erran dut *ene ingurumeuean denoste* gatic, sinhets deçatentçatuc egorri nauçula.

43. Eta hitz hauc erranic, oihu egun quen gorakui : Lazar, yalgni çaitie camporat.

44. Orduan hila yalgui cen escuac eta çangoac estecatua çaituela, eta bisaya estalia oihabatez. Jesusec erran cioten ; lacha çaque, eta utz yoiterat.

45. Hortacotz Mariaganat et horri ciren Juduetaric hainitceec eta ikhussi Jesusec cer egun quen, sinhetsi çuten hartan.

46. Bainan hetaric cembait yohan ciren Pharisauteat, eta erran cioten Jesusec cer eguiten quen.

47. Orduan Sacrificatçaila ait cindariee eta Pharisauec conseilua bildu çuten, eta erran çuten : cer eguiten dugu? ecer guicon hunec eguiten du hainitmiraculu.

48. Uzten badugu eguiferat bakhotchac ~~sinhetsico~~ du hant, eta Romanoac ethorrici

dire, mugatitueo baigauzte, gu, lekhua, eta yendaya.

49. Orduan hetarie batec Cai-phas icena çuenac, çoin baitcen Sacrificatçaire aitcindaria urthe hartan, erran cioten : ez daquique deus.

50. Ez duçue considerateen conbeniteen çaucula guïçon bat hil dadin popularentçat, eta yendaya gacia ez dadin fundit.

51. Bada ez çuen erran hori bere baitharic, bainan Sacrificatçaire aitcindaria içaitearequin urthe hartan, anontçatu çuen Jesusec hil behar çuela yendaquiarentçat.

52. Eta ez choilqui yendaquiarentçat, bainan ere Jaincoaren haurren biltceco cein baitciren barayatuac.

53. Egun hartaz gueroz beraz hitzeraquidateen çuten elgarrequin haren hilarazteco.

54. Hortacotz Jesus ez-een ibilcen aguerian Juduen artean, bainan handic yohan cen ere-muan cen bazter batetarat Ephraim deitcen cen hiri batetarat, eta han egon cen bere Discipuluequin.

55. Bada Juduen Bazcoa hurbil cen, eta lur hetaco hainitzac igan ciren Jerusalemerat Bazco baino lehen garbitcecotçat.

56. Eta bilhatcen çuten Jesus, eta elgarren artean erraiten çuten Templuan : cer iduri çautçu? uste duçu ez den ethorrico festarat.

57. Bada Sacrificatçaire aitcindariec eta Pharisauec eman çuten manua baldin norbaitec balin baçaquien nun cen, erran ceçan, hartaz yabet çaitecentçat.

## XII CAPITULUA.

*Jesus-Christo afariten Lazara berriz piztuaren etchean, gantzutua da Mariaz, eguiten du bere sartcea Jerusalemen, eta mintçatzen da bere buruaz etc.*

1. Beraz sei egun Bazco baino lehen, Jesus ethorri een Bethaniarat nun baitcen Lazara hila içan cena, eta berriz piztu çueña.

2. Eta han egun çayotenafari bat, eta Marthae cerbitçatzen çuen eta Lazara harequin mahinean cirenetarie bat cen.

3. Orduan Mariac harturic libera bat ussain goço eguiázco nardotic, gantzutu cituen Jesu-sen çangoac, eta chucatu bero biloez; eta etchea bethe cen ussain goço haren ussainaz.

4. Orduan Judas Iscariota, Simonen Semeac, ceinari guer-

thatu behar baitcion haren trahitcea, erran çuen :

5. Certaco ussain goço hori ezda içan saldua hirur ehun diru peça, emanac içaiteco pobrei?

6. Bada hori erran çuen, ez pobrez acholaric çuelacotz, bainan bai ohoin bat celacotz, eta mulsa çuelacotz, eta ekhartcen eçarteen ciotena.

7. Bainan Jesusec erran cion; utz çäcu egüiterat; beguiratu du ene ehorzteco prestamienen eguneecotçat.

8. Eeen içanen duçue bethi pobreac quequin; bainan ez nauçue içanen bethi.

9. Eta Judu oste handi batec yaquinic han cela, ethorri ciren, ez choilqui Jesus han celacotz, bainan Lazararen ikhusteagatic, cein pitzaraci baitçuen hiletaric.

10. Ceintan gainen Sacrificatçaille aitcindariec erabaqui çuten Lazararen ere hilaraztea.

11. Ecen Juduetaric hainitz yoaiten ciren hetaric haren caussaz, eta sinhesten çuten Jesus baithan.

12. Biharamunean yende oste handi batec ceina ethorri baitcen festarat, adituric Jesus heldu cela Jerusalemerat,

13. Hartu çuzten palma adar, eta yalgui ciren haren biderat, eta oihu eguiten çuten : hozan-

na! benedicatua içan bedi Israeleco Erreguea Jaunaren icenean heldu dena.

14. Eta Jesusec bathuric asto ume bat, yarri cen haren gainean, izcribaturic denaren araberan :

15. Ez içan beldurric, Sionen alaba, huna, çure Erreguca ethortcen da, yarriric asto ume baten gainean.

16. Bada Discipuluec ez çuzten ordu berean endelgatu gauça hauc; bainan Jesus lorificatua içan cen ondoan, orhoitu ciren gança hauc izcribaturic ci-rela hartaz eta egün çuztela gauça hauc haren eretcerat.

17. Eta harequin cen osteac, bihurtcen çuen lekhucotassuna deithu çuela Lazara hobitic camporat, eta hiletaric piztu çuela.

18. Hortacotz ere populua yohan cen haren biderat, ecen yaquin çuten miraculu hau egün çuela.

19. Horfan gainen Pharisauec erran çuten beren artean : ez duçue ikhusten ez duçuela deusere irabazten? huna, yendea badoha haren ondotic.

20. Bada bacen Grek cembait festa demboran Jaincoaren adoratcerat igan cirenetan.

21. Ceinac Philippe ganat ethorri baitciren, cein baitcen

Bethsaida Galileaco, eta otheiztu çuten, ciotela : Jauna ! Jesu-sen ikhustea deseateen dugu.

22. Philippe yein een, eta erran cion Andresi, eta Andresec eta Philippec erran cioten Jesusi.

23. Eta Jesusuc ihardetsi cioten, cioela : orena ethorria da guiconaren Semeac behar bainau lorificatu.

24. Eguiazqui, eguiazqui erraiten dautçuet, ogui bilia erorteearequin lurrerat ez bada hilcen, egoiten da bakharrie; bainan hilcen bada, ekharteen du fruitu hainitz.

25. Bere bicia maite duenac, galdueo du; eta bere bicia higuinteen duenac mundu huntan beguiratuko du bethicreco biciraino.

26. Norbaitec cerbitçateen banau, yarraiqui neçan; eta nun nahi içan nadin, han içanen da ere cerbitçatcen nauenia ; eta norbaitec cerbitçateen banau, ene Aitac ohoratuco du.

27. Orai ene arima laztua da; cer erranen dut? o Aita ! beguire neçaçu oren huntaric? bainan hortacotz ethorri naiz oren huntan.

28. Aita lorificaçaú çure içena orduan boz bat ethorricen cerutic *cioela* : lorificatu dut, eta lorificatuco dut oraino.

29. Eta han een osteac, adituric *bos hora*, erraiten çuen ihorciri bat cela seguin içan cena ; bercec erraiten çuten : Angueru bat mintçatu çayo.

30. Jesusuc hartu çuen hitça, eta erran, boz hau ezda ethorri enegatic, bainan bai çengatic.

31. Orai da ethorri mundueo yuyamendua ; orai mundu huntaco Princea aurthiquia içanen da camporat.

32. Eta nic lurretic alchatua içan naicen ondoan, guicon guiac erakharraracico tut ene ganat.

33. Bada erraiten çuen hori eçagutaraciz cer hariotcez behar çuen bil.

34. Mülçoaç ihardetsi cion, ikhassi dugu legueaz, Christo egoiten dela bethicotz, nola beraz erraiten duçu behar duela guiconaren Semeac alchatua içan? cein da guiconaren Seme hora?

35. Orduan Jesusuc erran cioten : arguia çequin da oraino dembora pochi batentçat : ibil çaitezte arguia duçueno, bel-durrez ilhumbee arrapa çaitetten ; een ilhumbetan ibilcen denac, ez daqui norat dohan.

36. Arguia duçueno sinlets eçaçue arguiyan, arguiaren haur içan çaiteztentçat. Jesusuc erran

cituen gauça hauc, guero yohan cen, eta galdu cen heyen bistatic.

37. Eta nahi bada egnin çuen hain berce miraculu heyen aitcinean, ez çuten sinhetsi hartan.

38. Hola Esaias Profetac erran çuen hitz hau, içan een cumplitura: Jauna, norc sinhetsi du gure hitcean, eta nori içanda eçagutua Jaunaren besua?

39. Hortacotz ez çuten sinhesten ahal, ceren Esaiasec erraiten duen oraino;

40. Heyen beguiac ixutu ditu, eta heyen bihotçac gogortu ditu, ikuhs ez deçatentçat beren begiez, eta ez deçaten endelga bihotcez, ez dizten içan conbertituac, eta ez ditzadan sendot.

41. Esaiasec erran cituen gauça haue ikhussi çuenean haren loria, eta hartaz miotçatu.

42. Bizquitartean buruzaguie taric ere hainitceec sinhetsi çuten hartan, bainan ez çuten aithorteen Pharisauec cirela casu, beldurrez içan synagoguatic campo cassatuae.

43. Ecen nahiago içan dute guionen loria, Jaincoaren loria baino.

44. Bada deadarca çagon, eta erran çuen: nitan sinhesten dueñac, ez du choilqui sinhesten nitan, bainan oraino ni egorri nauenean.

45. Eta betustateen nauenac, betustateen du egorri nauenac.

46. Ethorri naiz mundurat, haren argui içaiteco, amoreagatic norc-ere nitan sinhesten baitu ez dadin egon ilhumbetan.

47. Eta norbaiteo ençuten baitu ene hitzac, eta ez sinhesten, ez dut yuyateen, ecen ez naiz ethorri munduaren yuyatcerat, bainan bai munduaren salbatcerat.

48. Ustatcen nauenac, eta ez duenac errecebiteen ene hitça, badu norc yuya; anonçatu dudan hitça, içanen da yuyatuco duena azquen egunean.

49. Ecen ez naiz mintçatu nihaurtaz, bainan egorri nauen aitac irakhatsi daut cer dudan erraiteco eta certaz behar dudan mintçatu.

50. Eta badaquit haren maoua bethiereco bicia dela; beraz erraiten ditudan gauçac, erraiten ditut, ene Aitac erran derauzquidan beçala.

### XIII CAPITULUA.

*Jesus - Christoc ikhusten ditu Apostoluengangoac eta exortatzen ditu umilitatera etc... Berria emanez Judasec trahituco çuela eta Pierresec ukhatuco çuela.*

1. Bada ~~Pazcoco~~ festa baino

13 Cap.

lehen, Jesusee yaquinez haren muodu huntaric Aita ganat yo-aiteco orena ethorria cela, nola mundu nuntan ciren bereac mai-thatu baitcituen, maithatu ci-tuen akhabantçaraino.

2. Eta afariaren ondoan; Demonioac eçarriric ya Judas Iscariota, Simonen *semearen* bi-hotcean, haren trahitcea;

3. Eta Jesusec yaquinez Aitac eman çaizeola gañca guciak es-cuetarat, eta ethorri cela Jain-coa ganic, eta baçohala Jaincoa ganat;

4. Yaiqui cen afaritic, eta erantsi quen bere arropa, eta har-taric oihal bat, guerricatu-en.

5. Guero eçarri çuen ur tir-rina batean, eta yarri cen Dis-cipuluen çangoen ikhuzten, eta chucatcen guerricatua cen oiba-laz.

6. Orduan ethorri cen Simon Pierresen ganat; bainan Pierre-sec erran cion: Jauna, ikhuz-ten derauztatçu çangoac?

7. Jesusec ihardetsi çuen, eta erran cion: ez daquiçu orai cer eguiten dudan, bainan yaquinen duen guero.

8. Pierresec erran cion: ez de-rauztatçu seculan ikhucico çangoac. Jesusec ihardetsi cion: ez baçaitut ikhuzten, ez duçu par-teric içanen ~~enequin~~.

9. Simon Pierresc erran cion: Jauna, ez choilqui ene çangoac, bainan oraino escuac eta burua.

10. Jesusec erran cion: ikhu-cia denac, ez du beharric ikhuz deçaten çangoac baicic, eta or-duan gacia garbia da; bada çuec garbiac çarete, bainan guciak ez.

11. Ecen baçaquien cein cen trahitu behar çuena: hortacotz erran çuena: guciak ez çarete garbiac.

12. Heyen çangoac ikhuci ci-tuen ondoan beraz, berriz hartu cituen bere arropac, eta berriz yarribic mahainean, erran cio-tten: badoquiçue cer eguiñ daut-çuedan?

13. Deitcen nauçue Nagusia eta Jauna; eta ongi erraiten duçue; ecen hala naiz.

14. Baldin nic beraz, Jauna eta Nagusia içan eta, ikhuci bat-tut çuen çangoac, behar duçue çuec ere ikhuci çangoac batçuec bercer.

15. Ecen exemplu bat eman dautçuet, eguiñ dautçuedan be-çala eguiñ deçaquentçat.

16. Egiazqui, egiazqui erraiten dautçuet, sehia ez dela bere nagusia baino handiago, ez bialquindea egorri duena baino handiago.

17. Balin badazquitçue gauça

häuc, ongui dohaxuac çarete, eguin baditutçue.

18. Ez naiz mintço çuetaz gucietaz : badaquit cein diren hautatu ditudanac, bainan izcritura cumplitura içan dadintçat, enequin yaten duenac ogua, alchatu du bere aztala eñe contra.

19. Hau erraiten dautçuet orai danic, eta guerthatu den baino lehen, amoreagatic ethortcen denean, sinhets deçaçuen ni nai-cela *Aitac egorri duena*.

20. Eguiazqui, eguiazqui erraiten dautçuet : egorteen badut norbait, errecebitcen duenac, errecebitcen nau, eta errecebitcen nauenac, errecebitcen du egorri nauena.

21. Jesusec erran cituencan gauça hauc, khechatua içan cen bere izpirituan, eta lekhuttassuna bihurtu çuen, eta erran : eguiazqui, eguiazqui erraiten dautçuet, çuetaric batec trahituco nauela.

22. Orduan Discipuluec bat-çuec bertcer behatzen çuten, dudetan çaudela ceindaz mintço othe cen.

23. Bada Jesusec Discipulu bat, Jesusec maite çuena mahainean cen *makhurtu* haren bulharren gainean.

24. Eta Simon Pierresec khei-

nu egün cion galdeguiteco ceintaz mintço cen Jesus.

25. Beraz makhurtua cenac Jesusen bulharretan, erran cion : Jauna cein da?

26. Jesuseo ihardetsi çuen : hora da ceini ere emanen baitiot pochia bustiric; eta pochia bustiric, eman çuen Judas Iscariota, Simonen *semeari*.

27. Eta pochia hartu ondoan, Satan sarthu cen hora baithan; Jesusec beraz erran cion : eguiçulehen baino lehen eguiten duçuna

28. Bainan mahainean cirenetaric batec ere ez çuen endel-gatu certaco erraiten çuen hori.

29. Ecen cembaitec uste çuten Judasec molsa çuelacotz, Jesusec erran cioela : erosazu festaco behar duguna; edo eman ceçan cerbait pobrei.

30. *Judasec* pochia hartu çuen ondoan beraz, ordu berean abiatu cen, bada gaba cen.

31. Eta nola yalguí baiteen, Jesusec erran çuen : orai guiçonaren Semea lorificatua da; eta Jaincoa lorificatua da hartan.

32. Jaincoa lorificatua bada hartan, Jaincoac ere lorificatuco du berartan, eta laster lorificatuco du.

33. *Ene haur chumeac*, dem-bora laburrentçat oraino çue-

quin naiz ; bilhatuco nauçue , bainan Juduei erran dudan beçala , norat ere yoaiten bainaiz ez cirela ethortcen ahal , erraiten dautçet ere orai .

34. Emaiten dautçet manu berri bat , maitha deçaçuen batac bertcea , eta maithatu çarotetan beçala , maitha deçaçuen ere batac bertcea .

35. Huntan guciec eçagutuco dute ene Discipuluac çaretela , balin baduque amodioric batac bertcearentçat .

36. Simon Pierresec erran cion : Jauna , norat çoaci ? Jesussec ihardetsi cion : norat ere bainoha , ez nauçu orai yarraiquitcen ahal , bainan yarraiquico nauçu guero .

37. Pierresec erran cion : Jauna , certaco ez çaitut orai yarraiquiteen ahal ? emanen dut ene bicia çuretçat .

38. Jesussec ihardetsi cion : emanen duçu çure bicia enetçat ? eguiazqui , eguiazqui erraiten dautçut , ez duela oilarrac cantatuco , nun ez nauçun ukhatten hiruretan .

#### XIV CAPITULUA.

*Jesus - Christoren solasa bere Discipuluei*

1. Çuen bihotça ez bedi içan laztua ; sinhetçäue Jaincoa bai ,

than , eta sinhets çäçne nitan ere .

2. Bada hainitz egoitça ene Aitaren etchean ; ez baliz içan hala , erranen nautçuen , banoha çuei lekharen prestatcerat .

3. Eta yoana içan naicenean , eta lekhua prestatu dautçuen ondoan , itçulico naiz , eta hartuco çaituztet enequin , amoreagatic nun ere bainaiz , içan çaitezten çuec ere .

4. Eta badaquique norat , nohan , eta badaquique bidea .

5. Thomasec erran cion : Jau na ! ez daquigu norat çoacin , nola beraz yaquiten ahal dugu bidea ?

6. Jesussec erran cion : bidea naiz , eta eguaia , eta bicia ; nihorc ezda ethortcen Aita ganat nitaz baicic .

7. Eçagutcen baninduque , eçagut cineçaquete ene Aita ; bainan orai danic eçagutcen duçue , eta ikhussi duçue .

8. Philippec erran cion : Jau na ! erakhuts eçaguçu Aita , eta hori asqui dugu .

9. Jesussec ihardetsi cion : hain bertee dembora huntan çequin naiz , eta ez nauçu eçagutu ? Philippe , ikhussi nauenac , ikhussi du ene Aita ; eta nola erraiten duçu ; erakhuts eçaguçu Aita ?

10. Ez duçu sinhesten ene Aita baithan naicela , eta Aita ni baithan dela ? erraiten dautçue-

dan hitçac, ez dautçuet erraiten neure baitharic; bainan Aita ni baithan dagoena da, obrac eguiten dituena.

11. Sinhets neçaçue ene Aita baithan *naicela*, eta Aita ni baithan, bertcela, sinhets neçaçue obra hanc direla casu.

12. Eguiazqui, eguiazqui erraiten dautçuet, sinhesten dueñae ni baithan; eguinen tu eguiten ditudan obrac: eta eguinen du ere hauc baino handiagoric, ceren eta bainoha ene Aita ganat.

13. Eta cer nahi galdeguin deçaçuen ene icenean; eguinen dut; Aita loriscatua içan dadintçat Semeaz.

14. Galdeguiten baducue cerbait ene icenean, eguinen dut.

15. Maite banauçue, beguiratçue ene manamenduac.

16. Eta othoituco dut Aita, eta emanen dautçue berce Consolatçaire bat, egoitecotçat quequin bethicotz.

17. Cein baita eguiizco Izpiritua, cein munduac ez baitio errecebit; ceren ez baitu ikhusten, ez eta eçagutzen, bainan eçagutzen duçue, ecen quequin dago, eta içanen da çuen baithan.

18. Ez çaituztet utcico humezurtz; ethorrico naiz çuen ganat.

19. Oraino dembora pochi bat, eta munduac ez nau guehiago ikhussico, bainan ikhussico nauçue; eta ceren bici naicen, bicico çarete ere.

20. Egun hartan eçagutuoc duçue ene Aita baithan *naicela*, eta çuec ni baithan, eta ni çuen baithan.

21. Ene manuac dituena eta beguiratcen dituena da, maite nauena; eta maite nauena maihatua içanen da ene Aitaz; maithatuco dut, eta eçagutarcico nitzayo.

22. Judac (ez Iscariotac) erran cion: Jauna! nundic ahal da eçagutaracico çarela guri, eta ez munduari?

23. Jesusec ihardetsi çuen, eta erran cion: norc-ere maite bainau beguiratuco du ene hitça, eta ene Aitac maithatuco du, eta ethorrico gare hora ganat, eta gure egoitça eguinen dugu hora baithan.

24. Maite ez nauenac, ez tu beguiratcen ene hitçac. Eta aditcen duçuen hitça ezda ene hitça, bainan egorri nauen Aitarena da.

25. Erran dautçuet gauça hauc nagolaric quequin.

26. Bainan Consolatçaireac cein baita Izpiritu Saindua, Aitac ethorrico duena ene icenean,

irakhatsico dautçue gauça guciac, eta orhoitaracico dautçue erran dautçuedaden gauça guciac.

27. Uzten dautçuet bakhea, emaiten dautçuet ene bakhea, ez dautçuet emaiten munduac emaiten duen beçala; çuen bihotça ez bedi içan laztua ez beldurtua.

28. Aditu duçue erran dautçuedala, banoha, eta itçulcen naiz çuen ganat; maite baninduçue, içan cinazteque segurqui boztuac erran dudanaz: banoha Aita ganat; ecen Aita ni baino handiago da.

29. Eta orai erran dautçuet hori garthatu den baino lehen, guerthatcen denean, sinhets deçaquentçat.

30. Ez naiz hainitz guehiago mintçatuco quequin, ecen mundu huntaco Princea ethorteen da; bizquitartean ez du ahalic batere ene gainean.

31. Bainan amoreagatic munduac eçagut deçan Aita maite dudala, eta eguiten dudala Aitac manatu daudana, alcha çaitenze, goacen hemendic.

## XV CAPITULUA.

*Jesus-Christoren solasaren seguida.*

1. Egiazco Mahax hondoa

naiz, eta ene Aita bignia da.

2. Picatcen du nitan fruitu ekhartcen ez duen charmenta, eta garbitcen fruitu ekhartcen duen gucia, amoreagatic fruitu guehiago ekhar deçan.

3. Ya garbiac çarete irakhatsi darotçuedan hitçaz.

4. Egon çaitenze nitan, eta ni çuetan; nola charmantac ez baitu berartaz ekharteen ahal fruituric, ez bada mahax hondoan egoiten; gauça bera da çetaz, ez bacarete egoiten nitan.

5. Ni mahax ondoa naiz, eta çuec charmentac çarete; nitan egoiten denac eta ni hartan, ekhartcen du fruitu hainitz: ecen nitan campo, ez diroqueçue deus eguin.

6. Nor ere ez baita egoiten nitan, aurthiquia da camporat charmenta beçala, eta eyhartcen da; guero biltcen dute, eta eçartcen dute suan, eta erratcen da.

7. Egoiten bacarete nitan, eta ene hitçac egon dizten çuetan, galdeguin eçaçue nahi duçuena, eta eguinic içanen çautçue.

8. Huntan ene Aita lorificatuco da ekhar deçaquen fruitu hainitz; eta içanen çarete orduan ene Discipuluac.

9. Aitac maithatu nauen beçala, maithatu çaituztet, egon çaitenze ene amodioan.

10. Ene manamenduac beguirateen badituque, egonen çarete ene amodioan, Aitaren manamenduac beguiratu ditudan beçala, eta haren amodioan nago.

11. Erran dautçet gauça hauc ene bozcarioa egon dadintçat çuec baithau, eta çuen bozcarioa içan dadin bethea.

12. Hemen da ene manamendua, maitha deçaçue batac bertcea, maithatu çaituedan beçala.

13. Nihorc ez du amodio handiago bat hunee baino, noiz ere norbaitec emaiten baitu bere bicia bere adisquidentçat.

14. Içanen çarete ene adisquideac, eguiten badituque mananteen darotçuedanac.

15. Ez çaituztet guehiago deitcen cerbitçariac, ecen cerbitçariac ez daqui haren nagusiac cer eguiten duen; bainan deithu çaituztet adisquideac, ceren eta eçagutaraci baidautçet ene Aita ganic ençun ditudanac guciac.

16. Ez çarete çuec hautatu nauçuenac, bainan ni naiz hautatu çaituztedanac, eta establitu çaituztedanac, yohan çaiteztentçat eta ekhar deçaçuentçat frutu, eta çuen fruitua içan dadintçat irauncor; amoreagatic Aitari galdeguiten ditutçuen guciac ene icenean, eman deçaçutçuen.

17. Manatcen dautçet gau-

ça hauc, maitha deçaçuentçat batac bertcea.

18. Munduac higuintcen baçaituzte, yaquinçatçue higundua içan nauela çuec baino lehen.

19. Baldin munduco içan bacinzte, munduac maitha leçaque bera laitequena, bainan munducoac ez çaretelacotz eta munduaz hautatu çaituztedalacotz, munduac higuinteen çaituzte.

20. Orhoit çaitezte erran dantçuedan hitçaz, cerbitçaria ez dela bere nagusia baino handiago; herstu banaute, herstuco çaituzteere; celetatu badute ene hitça, celatatuco dute ere çuena.

21. Bainan gauça hauc guciаc egünen darotzute ene icena dela casu, ceren eta ez baidute eçagutcen ni egorri nauena.

22. Ez banitz ethorri, eta ez banintzeite mintçatu, ez luquete bekhaturic; bainan orai ez dute escusaric bere bekhatuez.

23. Higuintcen nauenac, higuintcen du ere ene Aita.

24. Ez banitu egün heyen artean nihorc egün ez dituen obrac, ez luquete bekhaturic: bainan orai ikhussi dituze, eta halaric ere higuindu gaituzte ni eta ene Aita. • - •

25. Bainan heyen leguean iz-  
cribaturic den hitça cumplitua  
içaitecotçat da : higuindu naute  
arraçoinic gabe.

26. Bainan Consolatçairea e-  
thorri denean, ceina egorrico  
baidautçet ene Aitaren phar-  
tez, cein baita eguiزو Izpiri-  
tua, ene Aitaz dabilana, harec  
bihurtuco du lekhucotassuna ni-  
taz.

27. Eta çuec ere lekhucotassuna  
bihurtuco duçue; ecen has-  
te hastetic enequin carete.

## XVI CAPITULUA.

*Jesus - Christoren solasaren  
akhabantça.*

1. Erran dautçet gauça hauc,  
ez çaitetzentçat içan gaizbide-  
tuac.

2. Casatuco çaituzte Syna-  
goguetarie; dembora ethortcen  
ere da nun ceinac ere hilarazten  
baiteitzte, usteco baitu Jain-  
coa cerbitçatcen duela.

3. Eta eguiñen derautçue gau-  
ça hauc, ceren eta ez baitute  
eçagutu Aita, ez ni.

4. Bainan erran dautçet gau-  
ça hauc, amoreagatic orena et-  
hortcen, denean orhoit çaitezten  
erran dautçuedala; eta ez daut-  
çet erran gauça hauc hastetic,  
ceren eta queqün bainain cen.

5. Bainan ~~orai~~ banoha egorri

nauenaren ganat, eta çuetaric  
batec ere ez daut galdeguiten;  
norat çoaci?

6. Bainan erran dauçuedala-  
cotz gauça hauc, çaurçapenac  
bethe tu çuen bihotzac.

7. Bizquitartean erraiten daut-  
çet egua, çuentçat abantailos  
da yoan nadin, ecen ez baniz  
yoaiten, Consolatçairea ezda et-  
horrico çuen ganat, bainan yo-  
aiten bainaiz egorrico deraut-  
çet.

8. Eta ethorri den ondoan,  
arguituco du mundua bekhatua-  
ren gainean, yusticiaren gai-  
nean eta yuyamenduaren gai-  
nean.

9. Bekhatuaren gainean, ce-  
ren eta ez baitute sinhesten ni-  
tan.

10. Yusticiaren gainean, ce-  
ren eta ene Aita ganat bainoha,  
eta ez bainauçue guehiago ik-  
hussico.

11. Yuyamenduaren gainean,  
ceren eta mundu huntaco Prin-  
cea ya yuyatua haita.

12. Badut oraino hainitz gau-  
ça çiei erraiteco, bainan oraino  
ez dirozquetçue ekhar.

13. Bainan noiz ere bura el-  
horri baita, eguiزو Izpiritua,  
guidatuco çaituzte guciz eguijan;  
ecen ezda mintçatuco berartaz,  
bainan erranen tu aditu dituz-

quen guciac, eta annontçatuco derautçue ethortceco gauçac.

14. Harec lorificatuco nau; ecen hartuco du enetic, eta annontçatuco dautçue.

15. Ene Aitac dituen guciac cneac dire; hartacotz erran dut, hartuco duela enetic, eta annontçatuco dautçuela.

16. Dembora laburric artean, ez nauçue ikhussico; eta dembora pochi baten ondoan, ikhussico nauçue; ecen banoha ene Aita ganat.

17. Eta haren Discipulueta ric cembaitec erran çuten beren artean: cer erraiten daucu, dembora laburric artean ez nauçue ikhussico; eta dembora pochi baten ondoan ikhussico nauçue, ecen Aita ganat banoha?

18. Erraiten çuten beraz; cer erran nahi dute hitz hauc; dembora pochi bat? ez dugu endelgatcen cer erraiten duen?

19. Eta Jesusec eçagutuz interroatu nahi çutela, erran cioten: galdeguiten duçue çuen artean nic erran dudanaren gai nean; dembora laburric artean, ez nauçue guehiago ikhussico, eta dembora pochi baten ondoan ikhussico nauçue.

20. Egiazqui, egiazqui erraiten dautçuet, nigar eguiñen duçuela eta auhencatuco çare-

tela, eta mundua bozcariotuco da; içanen çarete goibelduac; bainan çuen goibeldura bihurtua içanen da bozcariora.

21. Emazte batec erditcen denean, senditcen tu itasiac, ceren haren muga ethorria baita, bainan haur thiqui bat eguiñ duen ondoan, ezda guehiago orhoitcen bere minez, guion bat munduan eçarri duelacotz duen bozcarioa dela casu.

22. Çuec ere baduçue orai beraz goibeldura; bainan ikhussico çaituztet oraino, eta çuen bihotça bozcariotuco da, eta nihorc ez dautçue idequico çuen bozcarioa.

23. Eta egua hartan ez nauçue interroatuco deusetaz. Egiazqui, egiazqui erraiten dautçuet, Aitari galdeguiten ditutçuen gauça guciac ene icencan, emanen derauzquitçue.

24. Orai arteraino ez duçue deus galdatu ene icenean; galdeguiñ eçaçue, eta içanen duçue, çuen bozcarioa içan dadiçat bethea.

25. Erran dautçuet gauça hauc parabolaz, bainan heldu da ordua ez bainitçauçue mintçatuco parabolaz; bainan mintçatuco naiçautçue idoquiro ene Aitaz.

26. Eguna ~~hartan~~ galdeguinen

duçue ene icenean, eta ez daut-  
çuet erraiten othoiztuco dudala  
ene Aita cuentçat.

27. Ecen Aitac berac maite  
çaituzte, ceren eta maithatu  
bainauçue, eta sinhetsi baitu-  
çue Jaincoa ganic sorthua nai-  
cela.

28. Aitaganic sorthua naiz,  
eta ethorri naiz mundurat, eta  
oraino, uzten dut mundua, eta  
banoha Aita ganat.

29. Bere Discipuluec erran  
cioten: huna, orai mintço çare  
idoquiro, eta ez duçu erraiten  
parabolaric.

30. Orai eçagutcen dugu gau-  
ça gucijac badazquitçula, eta ez  
duçula beharric nihorc interroa  
çaitzaten; hori dela casu sinhes-  
ten dugu Jaincoa ganic sorthua  
çarela.

31. Jesusec ihardetsi cioten:  
sinhesten duçue orai.

32. Huna, ordua ethortcen  
da, eta ya ethorria da, barra-  
yatuc içanen baitçarete bakhott-  
cha bere alderat, eta utcico  
nauçue bakharric; bainan ez naiz  
bakharric, een Aita enequin  
da.

33. Erran dautçuec gauça  
hauc içan deçacuentçat bakhea  
nitan; antsia içanen duçue mun-  
du huntan, bañan içan çaque  
animo, garraitu qut mundua.

## XVII CAPITULUA.

*Jesus - Christoren Aphezcarico  
othoitza.*

1. Jesusec erran cituen gauça  
hauc; guero alchaturic bere be-  
guiac cerurat, erran çuen: Ai-  
ta, ordua ethorria da, lorifica-  
çaçu çure Semea, çure Semeae  
lorificaçaitçantçat.

2. Eman deroçun beçala aha-  
la guïçon gucien gainean; amo-  
reagatic bethiereco bicia eman  
deçan eman dioçun guciei.

3. Eta hemen da bethiereco  
bicia, eçagut çaitzaten çu e-  
guiazco Jainco bakharra, eta  
egorri duçuna, Jesus-Christo.

4. Lorificatu çaitut lurraren  
gainean, akhabatu dut eguitarat  
eman çaindautan obra.

5. Eta orai lorifica neçacı,  
çuc Aita, çure hondoan, çure  
etchean içan dudan loriaz, mun-  
dua egün içan cen baino lehen.

6. Eçagutaraci dut çure icena  
mundutic eman derautzatçun  
guiçonei; çureac ciren, eta e-  
man derautzatçu; eta beguiratu  
dute çure hitça.

7. Orai eçagutu dute eman  
derautaçun gacia, çure ganic  
ethoreen dela.

8. Ecen eman diotzatet çuc  
eman derautzatçun hitçac, eta  
errecebitu dituzte, eta eguiaz-

qui sinhetsi dute çure ganic sorthu naicela, eta sinhetsi dute çuc egorri nauçula.

9. Heyentçat othoitz eguiten dut, ez dut othoitz eguiten munduarentçat, bainan çuc eman derauztatçunentçat, ceren çureac baitire.

10. Eta enea den gueia çurea da, eta çurea dena enea da, eta hetan lorificatua naiz.

11. Eta orai ez naiz guehiago munduan, bainan hoyec munduan dire; eta ni banoha çure ganat. Aita Saindua, beguira çaitçu çure icenean, eman derauztatçunac, amoreagatic bat içan ditezten, gu *bat garen* beçala.

12. Hequin nainçanean munduan, beguirateen naituen çure icenean; beguiratu ditnt eman derauztatçunac, eta hetaric bat ezda galdu, galzapenaren Semea baicic, Izcritura cumplitua içan çadintçat.

13. Eta orai heldu naiz çu ganat, eta erraiten tut gauça hanc *oraino* munduan *naicelaric*, içan deçatentçat ene bozcarioa bethea beren baithan.

14. Eman diotet çure hitça, eta munduac higuindu ditu, ceren ez baitire munduacoac, hala nola ez bainiz ere munduacoa.

15. Ez dut othoizten athera

deçatçun mundutie, bainan gaitcetic beguira ditçatçun.

16. Ez dire munduacoac, hala nola ez bainiz ere munduacoa.

17. Santifica çaitçatçu çure egniaz, çure hitça da egua.

18. Nola egorri bainauçu mundurat, guisa berean egorri ditut mundurat.

19. Santificatcen naiz nihaur heyentçat, hec ere santificatuac içan daiztentçat eguijan.

20. Bada ez dut othoizten choilqui heyentçat, bainan oraino heyen hitçaz nitän sinhetsico dutenentçat.

21. İçan daiteztentçat guciac bat, hala nola çu, Aita, nitän baitçare, eta ni çutan; amoreagatic hec ere içan daizten bat gutan; eta munduac sinhets deçan çu çarela egorri nauçuna.

22. Eta eman deyet eman derauztatçun loria, içan diteztentçat bat, bat garen beçala.

23. Heyetan naiz, eta çu nitän, bat eguinac içan diteztentçat, eta munduac eçagut deçan çu çarela egorri nauçuna, eta maite ditutçula, maithatu nauçun beçala.

24. Aita, ene nahicuntza egorri derauztatçunen gainen da, nun ere içanen bainaiz, içan ditezten ere enequin, beondazt deçatentçat ene loria, ceina eman bai-

dautaçu , ceren eta maithatu bainauçu mundua creatu baino lehen.

25. Aita yustua, munduac ez çaitu eçagutu ; bainan nic eçagutu çaitut ; eta hoyec eçagutu dute çu çarela egorri nauçuna.

26. Eta eçagutaraci diotet çure icena , eta eçagutaracico diotet , amoreagatic amodioa ceintaz maithatu bainauçu , içan dadin heyetan eta ni heyetan.

### XVIII CAPITULUA.

*Jesus-Christo trahitua eta erran manaq aphez handiaren etcherat, nun Pierresec ukhatcen baitu, eta Pilatusen etcherat, nun Barrabas lehenca-tua baitçayo.*

1. Jesusec hitz hauc erran ciuen ondoan, yohan cen bere Discipuluequin Cedroneco erre-caz berce alderat , nun baitcen baratce bat , ceintan sarthu baitcen here Discipuluequin.

2. Bada Judasec , ceinac trahitcen baitçuen , eçagutceu çuen ere lekhu hura , ecen Jesus maiz bildu cen harat bere Discipuluequin.

3. Judasec beraz harturic soldado lagunquida bat , eta sariant batçu Sacrificatçaire buruza-guien eta Pharisauen phartez ,

ethorri cen harat gabarqui eta ezcusu batçuequin , eta harmequin.

4. Eta Jesusec yaquinez guer-thatu behar çazcon gauça guciac , aitcinaratu cen , eta erran cioten : nor bilhatcen duçue ?

5. Ihardetsi cioten : Jesus Nazaretenequa. Jesusec erran cioten : ni naiz. Eta Judas trahitcen çuena , heyequin cen ere.

6. Bada Jesusec erran ciote-nean; ni naiz , guibellaratu ciren , eta lurrerat erori.

7. Bigarren aldean galdeguin cioten : nor bilhatcen duçue ? eta ihardetsi cioten : Jesus Nazareteneco.

8. Jesusec ihardetsi çuen : erran dautçuet ni naicela ; bilhatcen banauçue beraz , utz çaitçue hauc yoiterat.

9. Erran çuen hitça complitua içan çadintçat cen' ; ez dut galdu batere eman derauztatçunetaric.

10. Bada Simon Pierresec içanez ezpata bat , idequi çuen , eta Sacrificatçaire buruzaguiaren sehi bat yo , eta ebaqui cion es-cuineco beharría ; eta sehi hura deitcen cen Malchus.

11. Bainan Jesusec erran çuen Pierresi : eçarraçu çure ezpata bere orraduran ; ez duta edanen Aitac eman derautan khalitça.

12. Orduan lagunquidac capitaina, eta Juduen sariantac atzitu ciren Jesusez, eta estecatu çuten.

13. Eta craman çuten lehenic Annaren ganat; ecen Caifasen aitinarreba cen; cein Sacrificatçaire buruzaguia baitcen urthe hartan.

14. Bada Caifas cen conseilu hau eman çuena Juduei combeni cela guiçon bat hil çadin populuarençat.

15. Bada Simon Pierresec berce Discipulu batequin yarraquitcen çuen Jesus, eta Discipulu hau eçagutua cen Sacrificatçaire buruzaguiaz, eta sarthu cen Jesusequin Sacrificatçaire buruzagiaren bassacortean.

16. Bainan Pierres campoan cen athean, eta herce Discipulu eçaguturic cena Sacrificatçaire buruzaguiaz athera cen camporat, eta *nescatchaz* atheçainari mintçatu çayon, ceinac sarraraci baitçuen Pierres.

17. Eta nescatoac ceina baitcen atheçaina, erran çuen Pierresi : ez çare çu ere guiçon huen Discipuluetaric? erran çuen : ez naiz hetaric.

18. Bada schiec eta sariantec eguinic sua, han ciren, ceren hotz eguiten baitçuen, eta berotcen ciren, Pierres ere heye-

quin cen, eta berotcen hari cen.

19. Eta Sacrificatçaire buruzaguia interroatu çuen Jesus bere Discipulu en etarikhas. cuntçaren gainen.

20. Jesusec ihardetsi cion : idoquiro mintçatu naiz munduari; bethi irakhatsi dut Synagogoa, eta Templan, nun bethi Juduac biltzen baitire, eta ez dut deusic erran guericean.

21. Certaco interroatcen nauçu? interroaçatçu nic erran ditudanac ençun dituztenac; horra, badaquite cer erran dudan.

22. Erran cituenean haue, han çagon sariantetaric batec, eman cion bere azoteaz ukhaldi bat, erraiten ciola : hola ihardesten duçu Sacrificatçaire buruzagiari?

23. Jesusec ihardetsi cion : gaizqui mintçatu banaiz, lekhucotassunabihurt çäçü gaizquiari; eta ongi mintçatu banaiz, certaco yoiten nauçu?

24. Bada Annac egorri çuen estecatua Caifas Sacrificatçaire buruzagiaren ganat.

25. Eta Simon Pierres han cen, eta berotcen hari cen; eta erran cioten : ez çare çu ere haren Discipuluetaric? ukhatu çuen, eta erran, ez naiz hetaric.

26. Eta Sacrificatçaire buruza-

guiaren schietaric batec, Pierresec beharria ebaqui cion haren ahaideac, erran cion : ez çaitut ikhiissi harequin barateean?

27. Bainan Pierresec ukhatu çuen oraino, eta dembora berean oilarrac cantatu çuen.

28. Guero Jesus eraman çuten Caifasen etchetic Pretoriorat; (bada goiça cen) bainan ez ci-ren sarthu Pretorioan, beldur-rez ciquint citezten, eta yan ahal ceçatentçat Bazcoa.

29. Hortacotz Pilatus ilqui cen hetarat, eta erran cioten : cer acusacione ekhartcen duque guicon hunen contra?

30. Ihardetsi çuten, eta erran cioten : ez baliz içan gniçon gaisto bat ez guinaucun largatuco.

31. Orduan Pilatusec erran cioten : har eçaçue çuhauriee, eta yuyaçaçue çuen leguearen arabera. Bainan Juduec erran cioten : ez çaucugu cilhegui ni-hori hilaraztea.

32. Eta hori hola guerthatu cen amoreagatic Jesusec erran çuen hitça, içan çadin cumpli-tua eçagutarazten çuela cer he-riotecz behar çuen hil.

33. Pilatus beraz sarthu cen oraino Pretorioan; eta Jesus dei-thirio, erran cion : Juduen Er-reguea çare?

34. Jesusec ihardetsi cion : çure burutic erraiten duçu hau, ala berceac dire erran deraute çuena nitaz?

35. Pilatusec ihardetsi çuen : Jüdua naiz? çure yendayac eta Sacrificatçaille aitçindariec largattu çaituzte ni garat, cer egui duçu?

36. Jesusec ihardetsi çuen : ene Erresuma ezda mundu hun-taco; ene Erresuma mundu hun-taco baliz, ene yendcac yazar laizteque içan ez nadin largatua Juduei; bainan orai ene Erre-suma ezda behere huntaco.

37. Orduan Pilatusec erran cion : Erregue çare beraz? Jesusec ihardetsi çuen : hala dioçu, Erregue naicela; hortaco sor-thuat naiz eta hortacotz ethorri naiz mundurat, lekhucotassuna bihurt deçadantçat eguiari; egui-tie denac, aditceu du ene boça.

38. Pilatusec erran cion : cer da eguiia? eta erran çuenean hori, athera cen oraino Judue-tarat, eta erran cioten : ez dut culparic causitzen hartan.

39. Bada nola aztura haita larga deçautçuedan *presoner* bat Bazcoco festan; nahi duque beraz larga deçautçuedan Juduen Erreguea?

40. Eta guciec deadarcatcea çuten oraino, ciotela : ez hau,

bainan bai Barrabas; bada Barrabas ohoin bat cen.

### XIX CAPITULUA.

*Jesus-Christo bidecaiztua, khurutceficatua, hila, eta ehortzia.*

1. Orduan beraz Pilatusec harrari ciuen Jesus, eta azotaraci.

2. Eta soldadoec egun çuten elhorrizco khoro bat cein eçarri baitçuten baren buruaren gainean, eta beztitu çuten purprezco beztimenda batez.

3. Guero erraiten cioten: agur Juduen Erreguea, eta emaiten cioten beharondoco batçu.

4. Eta Pilatus ilqui cen oraino camporat, eta erran cioten: huna, erakhartcen darotçuet camporat, yaquin deçaçuentçat ez dudala culparic causitcen hartan.

5. Jests beraz athera cen ekhartcen çuela elhorrizco khoroa, eta purprezco arropa; eta erran cioten: huna Guiçona.

6. Bainan Sacrificatçiale aitcindariec eta heyen sariantec ikhussi çutenean, deadarca hassi ciren, ciotela: khurutcefica çäçu, khurutcefica çäçu. Pilatusec erran cioten: har eçaçue çuhauriec, eta khurutcefica çäçue; ecen ez dut culparic causitcen hantau.

7. Juduec ihardetsi cioten: badugu legue bat, eta gure leguearen arabera hil behar du, ecen bere burua egun du Jaincoaren Seme.

8. Bada Pilatusec ençun çuen ondoan hitz hau, beldurtu cen oraino guehiago.

9. Eta berriz sarthu cen Pretorioan, eta erran çuen Jesusi: nungo çare? bainan Jesusec ez cion ihardetsi.

10. Eta Pilatusec erran cion: ez çare mintçatcen? ez daquicu badudala ahala çure khurutceficatececo, eta ahala çure largoan eçartceco?

11. Jesusec ihardetsi cion: ez cinuque ahalic batere ene gainean, gainetic emana ez balançu, hortacotz çure ganat largatu nauenac, egun du çuc baino behatu handiagoa.

12. Hortaric landan Pilatus emaiten cen haren lachoan eçarteeari; bainan Juduac deadareateen ciren, ciotela: largaten baduçu hau, ez çare Cesaren adisquide; ecen Erregue eguiten dena, Cesaren contra da.

13. Pilatusec ençun çueñean hitz hau, eraman çuen Jesus camporat, eta yarri cen tribunalean Pabatua deiteen den toquian, eta hebröez Gabbatha.

14. Bada Bañcoaren prepara-

cionea cen, eta seigarren ore-nen ingurumena; eta Pilatusec erran çuen Juduei horra çuen Erreguea.

15. Bainan deadarcatcen çu-ten : idecau, idecau, khurutce-sica cau. Pilatusec erran cuen : khurutceficatuco dut çuen Er-reguea ? Sacrificatçiale aitcindariec ihardetsi çuten : ez duguberce erregueric Cesar baicic.

16. Orduan beraz largatu cio-ten khurutceficaturic içaiteco. Hartu çuten beraz Jesus, eta eraman çuten.

17. Eta Jesus ekhartcen çuela bere khurutcea, ethorri cen Cal-barioa deitcen cen lekhurat, eta hebroez Golgotha.

18. Nun khurutceficatu bait-çuten, eta berce biga harequin, bat alde bakhotchean, eta Jesus erdian.

19. Bada Pilatusec egun çu-en izeribu bat, ecarri çuena khurutcearen gainean, ceintan izeribaturic baitciren hitz hauc : JESUS NAZARENECOA JUDUEN ER-REGUEA.

20. Eta Juduetaric hainitzec irakhurtu çuten izeribu hura, ce-ren eta Jesus khurutceficatua içan cen lekhua, hurbil baitcen hiritic; eta izeribu hura Hebroez, Grekez eta Latinez baitcen.

21. Hortacotz Juduen Sacri-

sicatçiale aitcindariec erran çu-ten Pilatusi; ez çacula izeriba, Juduen Erreguea; bainan, hu-nec erran duela, Juduen Erre-guea naiz.

22. Pilatusec ihardetsi çuen : izeribatu dudana, izeribatu dut.

23. Bada soldadoec khurutce-ficatu çuten ondoan Jesus, hartu çuzten haren arropac, eta egun cituzten laur pharte, soldado bakhotcharendaco pharte bat : hartu çuten ere tunica bainan ez çuen yosturaric, pheça osso chua cen gainetic behereraino.

24. Erran çuten beren artean ; ez deçagun urra, bainan aurthic deçagun zorterat, yaquiteco norentçat içanen den, eta hori hola guerthatu cen, amoreaga-tic izeritura içan çadim cumpli-tua, dioela : phartitu dituzte beren artean ene arropac, eta aur-thiqui dute ene tunica zorterat ; soldadoec beraz egun cituzten gauça hauc.

25. Bada Jesusen khurutcea-ren hondoan haren ama cen, eta haren amaren ahizpa Maria, Cleopasen emaztea, eta Maria Magdalena.

26. Eta Jesusec ikhussiz berc ama, eta haren hondoan maite çuen Discipulua, erran çuen bere amari : emaztea, horra çure semea.

27. Guero erran çuen Discipuluari : horra çure ama ; eta ordu hartaz gueroz Discipulu hare errecebitu çuen Maria bere etchean.

28. Hortaric landan Jesusec yaquinez gauça guciac ya cumplituac cirela , erran çuen , amo reagatic izeritura içan çadin cumplitua : egarri naiz.

29. Eta bacen han untci bat minagrez betheric , esponya bat busti çuten beraz minagrez , eta ecarri çuten urdingorri adar bat en phuntan , eta alderatu cioten ahorat.

30. Eta Jesusec harti çuen ondoan minagrea , erran çuen : gucia cumplitua da ; eta burua behituric , aurthiqui çuen , az quen hatsa.

31. Orduan Juduec , gorputçac egon ez çaitcentçat khurutcean errepausuco egunean , ceren eta preparacionea baitcen , ( bada errepausuco egun handi bat cen ) ohoiztu çuten Pilatus çangoac haux çaitçozten eta ahera citzaten.

32. Soldadoac beraz ethorri ciren eta hautsi çuzten çangoac lehenari , eta gauça bera harequin khurutcesfaturic cenari .

33. Guero ethorriric Jesus ganat , eta ikhussiz ya hila cela , ez çayoten hautsi çangoae :

34. Bainan soldadoetaric bat tec lança batez sayexa cilatu çayon , eta berehala athera cen odol eta ur.

35. Eta ikhussi duenac , erran du , eta haren lekhucotassuna fedearen gay da ; eta harec bidaqui egquia erraiten duela , sin hets deçaçuençat.

36. Ecen gauça hauc guenthatu dire izeritura cumplitua içan çadintçat : haren heçurrelaric bat ezda hauxiric içanen.

37. Eta oraino berce izeritura bat dioena : ikhussico dute cilatu dutena.

38. Bada gauça hauc ondoan , Joseph Arimathecoa ; cein baitcen Jesusen Discipulu , nahiz ichilic , ceren Juduec lotxatcen baitçuten , ohoiztu çuen Pilatus cilheguit cecon Jesusen gorputça atheratcez ; eta Pilatusec cilheguitaric , ethorri cen , eta harti çuen Jesusen gorputça.

39. Nicodeina ere , cein lehenago yohan baitcen gabaz Jesusen ganat , ethorri cen ekhartcen çuela chun liberaren ingurua myrrha eta zumintçä nahassiric.

40. Eta harti çuten Jesusen gorputça , estali çuten oihalez ussain onequin , Juduec ehorzeco aztura duten beçala.

41. Bada bacen khurutcesfatura içan cen lekhuan baratce bat ,

eta baratcearen barnean hobi  
herri bat, nun ez baitcen oraino  
nihorc eçarriric içan.

42. Eta han eçarri çuten Je-  
sus, Juduen preparacionea cela  
casu, ceren eta hobia hurbil  
baitcen.

## XX CAPITULUA.

*Jesus'- Christoren berriz piztea  
eta aguertçapena, eta Thom-  
masen sinhets gogorra.*

1. Bada asteco lehen egunean  
Maria Magdalena ethorri cen  
goicean hobirat, oraino ilhun  
cen; eta ikhussi çuen harria a-  
theratua cela hobitic.

2. Eta laster eguin çuen, eta  
ethorri cen Simon Pierresen ga-  
nat; eta berce Discipulu Jesusec  
maite çuenaren ganat, eta erran  
cioten: Jauna alchatu dute ho-  
bitic camporat, bainan ez da-  
quigu nun eçarri duten.

3. Orduan Pierres abiatu cen  
berce Discipuluarequin eta yo-  
han ciren hobirat.

4. Eta lasterca çohatein biac  
elgarrequin; bainan berce Dis-  
cipuluac laster guehiago eguiten  
çuen Pierresec baino, eta heldu  
cen lehenago hobirat.

5. Eta aphaldurie, ikhussi ci-  
tuen oihalac lurrean bainan ez  
cen sarthu.

6. Orduan Simon Pierresec

yarraquitcen baitçuen, ethorri  
cen, eta sarthu cen hobian, eta  
ikhussi cituen oihalac lurrean,

7. Eta Jesusen buruan içan  
cen hil mihisca, cein ez baitcen  
içan eçarria oihalequin, bainan  
bildua baitcen lekhu berechi ba-  
tean.

8. Orduan lehenic hobirat hel-  
du cen berce Discipulu ere sar-  
thu cen, eta ikhussi çuen eta  
sinhetsi.

9. Ecen ez çaquien oraino iz-  
critura, ceinac ekhartcen baitu  
beharçuela hiletaric berriz piztu.

10. Eta Discipuluac itçuli ci-  
ren beren etchetarat.

11. Bainan Maria campoan  
hobiaren hondoan çagon, nigar-  
rez, eta nola nigarrez hari bait-  
cen, aphaldu cen hobirat.

12. Eta ikhussi cituen bi Aïn-  
gueru churiz beztituac, yarriric  
bata buruan, eta bercea oine-  
tan, Jesusen gorputça etçana  
içan cen lekhuan.

13. Eta erran cioten emaz-  
tea, certaco nigar eguiten du-  
çu? erran cioten: ceren eta ene  
Jauna alchatu baitute; eta ez  
daquit nun eçarri duten.

14. Eta erran çuenean hori,  
itçuliz guibelerat, ikhussi çuen  
Jesus han çagola; bainan ez çä-  
quien Jesus cela.

15. Jesusec erran cion: emaz-

tea : certaco nigar eguiten duçu? nor bilhatcen duçu? eta harec ustez baratce çaina cen, erran cion : Jauna, eraman balin bahu, erran eçadaçu nun eçarri duçun, eta atheraco dut.

16. Jesusec erran cion : Maria! eta hura itçuliric, erran cion : Rabboni! erran nahi baita, ene Nagusia!

17. Jesusec erran cion : ez neçaçula unqui; ecen ez naiz oraino igan ene Aita ganat; bainan çoaci ene anayetarat, eta erran eceiçu : igaiten naiz ene Aita ganat, eta çuen Aita ganat, ene Jaincoa ganat eta çuen Jaincoa ganat.

18. Maria Magdalena yein cen Discipulei anontçatcerat ikhussi çuela Jauna, eta erran çaitçola gauça hauc.

19. Eta egun hartaco arraxa, cein baitcen asteco lehena, ethorri cenean, eta Discipuluac Jadiuentçat çuten beldurra cela easu bildu ciren toquico atheac hetsi cirenean; Jesus ethorri cen, eta yohan cen heyen erdirat, eta erran cioten : bakhea içan bedi quequin!

20. Eta hori erran cioten ondoan, erakhatsi cioten bere escuac eta bere sayhetsa; eta Discipuluac içan çuten bozcario handi bat, ikhussi çutenean Jauna!

21. Eta Jesusec erran cioten oraino : bakhea içan bedi quequin! ene Aitac egorri derautan beçala, egorten derautçuet.

22. Eta hori erran çuen ondoan, buhatu çuen heyen gainerat, eta erran cioten : errecebi çaque Izpiritu Saindua.

23. Barkhatcen diotçuenei bekhatuac, barkhatuac içanen dire; eta nori ere beguirateen baitdiotçue, beguiratuac içanen dire.

24. Bada Thomas, deithua Didyma, cein baitcen hamabietaric bat, ez cen heyequin Jesus ethorri cenean.

25. Eta berce Discipuluac erran cioten : ikhussi dugu Jauna. Bainan erran cioten : ez balinbadut ikhusten haren escuetan itcen seinaleac, eta ez badut eçarten ene erhia itceac ciren toquian, eta ez badut eçartea ene escua haren sayhetsean, ez dut sinhetsico.

26. Eta çortci egunen buruan oraino haren Discipuluac *toqui berean* ciren, eta Thomas heyequin, eta Jesus ethorri cen, atheac hetsiac cirelaric, eta harat yohan cen heyen erdirat, eta erran cioten : bakhea dela quequin!

27. Guero erran çuen Thomas : emaçu biemen çure erhia,

eta ikhus eçatçu ene escuac, hedâçaçu ere çure escua, eta eçar eçaçu ene sayhetsean; eta ez çaitela içan sinhets gogor, bainan bai sinhetscor.

28. Eta Thomasec ihardetsi çuen, eta erran cion : ene Jauna eta ene Jaincoa.

29. Jesusec erran cion : ikhussi baituçu, Thomas, sinhetsi duçu; dohaxuac dire ikhussi ez dutenac eta sinhetsi dutenac.

30. Jesusec egum çuen oraino berce hainitz miraculu Discipuluen aitcinean, ez baitire izcribatuac liburu huntan.

31. Bainan gauça hauc izcribaturic dire, sinhets deçacuentçat Jesus-Christo dela, Jaincoaren Semea, eta sinhestcarequin içan deçaquen bicia haren ice-nean.

## XXI CAPITULUA.

*Jesus-Christo aguertcen da bere Discipuluei arrainçan hari cirela; annontcatcen du martyria Pierresi, eta bicitce luce bat Joanesi.*

1. Horen ondoan Jesus aguertu cen oraino bere Discipuluei, Tiberiaco ixasuaren hondoan, eta aguertu cen guisa huntara.

2. Simon Pierres eta Thomas, deithua Didyma, eta Nathanael, ceinac baitciren Cananee Gali-

leaco, eta Zebedeein Semeac eta haren Discipuluetaric berce biga elgarrequin ciren.

3. Simon Pierresec erran cioten : banoha arrainzarat. Erran cioten yoaiten gare çurequin. Abiatu ciren beraz, eta igan ciren berehala barkhurat, bainan ez çuten deus arrapatu gau hartan.

4. Eta goiça ethorriric, Jesus causitu cen ur bazterrean; bainan Discipuluec ez çuten eçagutu Jesus cenez.

5. Eta Jesusec erran cioten : ene haurreac, baduçue arrain chiqui cembait yateco? ihardetsi cioten : ez.

6. Eta erran cioten : aurthic eçatçue sareac barkhuaren escuineco alderat, eta aurquituoc duçe. Aurthiqui cituzten beraz eta ez cituzten alchatzen ahal arrain mulçoa cela casu.

7. Hortacotz Jesusec maite çuen Discipuluac, erran çuen Pierresi : Jauna da. Eta Simon Pierresec aditu çuenean Jauna cela, estecatu çuen bere tunica, ceren eta buluz gorria baitcen, eta aurthiqui cen ixasorat.

8. Eta berce Discipuluac ethorri ciren barkhurat, ecen ez ciren lurretic urrun, bainan bi chun besoren ingurumena choil-

qui, herrestatcen cituztela arainzazco sareac.

9. Eta noiz ere yautsi baitcireñ lurrerat, ikhussi çuten brasa, eta arrain haren gainean eçarri-ric, eta ogui.

10. Jesusec erran cioten : ek- harraçue orai arrapatcetic hel du çareten arrainetaric.

11. Simon Pierres igan cen, eta tiratu çuen sarea lurrerat, ehun eta berrogoi eta hamahirur arrain handiz betheric, eta hain berce içana gatic, sarea ez cen içan urratua.

12. Jesusec erran cioten : çatozte eta barrazcal çaitezte. Eta Discipuluetaric batere ez cen menturatcen hari galdeguiterat; nor çare çu? ikhussiz ongui Jau-na cela.

13. Jesus beraz ethorri cen, eta hartu çuen ogui, eta eman cioten, eta arrain ere bai.

14. Ya hirurgarren aldia cen Jesus aguertu cela Discipuluei, hiletaric pitzuz gueroz.

15. Eta barazcaldu ciren ondoan, Jesusec erran çuen Simon Pierresi, Simon Jonasen *semea*, maite nauçu hoyec baino gue-hiago? ihardetsi cion : bai Jauna! badaquicu maite çaitudala. Erran cion : bazca çaitçu ene bildotsac.

16. Errancion oraino : Simon

Jonasen *semea*, maite nauçu? ihardetsi cion : bai, Jauna! badaquicu maite çaitudala. Erran cion : bazca çaitçu ene ardiac.

17. Erran cion hirurgarren aldiarentçat : Simon Jonasen *semea*, maite nauçu? Pierres dama- mutu cen hirurgarren aldiarent- çat galdeguin cerolacotz, maite nauçu? eta ihardetsi cion : Jau-na, badazquitçu gauça guciæ, badaquicu maite çaitudala. Je-susec erran cion : bazca çaitçu ene ardiac.

18. Eguiazqui, eguiazqui er- raiten dautçut, gazteago cine- nean guerricaceen cinen, eta yoaiten cinen nahi cinduen lek- hurat; bainan çahartua içanen çaren ondoan, hedatuco ditütçu çure eseuac, eta berce batec guerricatuco çaitu, eta crama- nen çaitu nahi ez duçun lekhu- rat.

19. Bada erran çuen hori eça- gutarazteco cer heriotcez behar çuen lorificatu Jaineoa; eta erran cituen ondoan gauça hauc, erran cion : yarraic neçaçu.

20. Eta Pierres itçuliric ik- hussi çuen Jesusec maite çuen Discipulua ethorceen heyen on- dotic, eta ceina afarian maklur- turic Jesusen bulharren gainerat erran çuena : Jauna, ceini guer- thatu behar çayo çure trahitœa?

21. Noiz etc beraz Pierresec ikhussi baitceu, erran çuen Jesusi : Jauna, eta honi, cer guerthatuco çayo?

22. Jesusec erran cion : cer çauçu, nahi badut egon dadin ni ethor arteraino? çuc, yarraic naçaçu.

23. Bada hitz hau ibili cen anayen artean, Discipulu hura ez cela hilen. Bizqnitartean Jesusec ez cion erran; ezda hilen; bainan, nahi badut egon dadin

ni ethor arteraino ; cer çauçu?

24. Discipulu hura da lekhucotassuna bihurteen duena gauça hantaz; eta izeribatu dituena gauça hauc, eta badaquigu harren lekhucotassuna fedearen gay dela.

25. Bada ere berce hainitz gauça Jesusec egun dituenac, ceinac bederaka izeribaturic ez dut uste mundusac itchic abal leçaquelä izcriba leçaqueten liburua. Hala dela!

# APOSTOLU

## SAINDUEN

### EGUINTZAC.

#### I CAPITULUA.

*Jesus-Christoc hitzemaiten du*

*Izpiritu Saindua, igaiten da cerurat. Mathias hautatu du Apostolu Judasen lekhuan.*

1. Bethe dugu lehen solasa, Theophila ! Jesusec eguin eta irakhatsi dituen gauça guciez;

2. *Cerurat alchatua içan cen eguneraíno; eman cituen ondoan hautatu cituen Apostoluei manuac Izpiritu Sainduaz.*

3. Ceinei ere, pairatu çuen ondoan, aguertu baitcen bera bieiric hainitz froganza segurequin, eta hetaz ikhussia içanez berrogoi egunez, mintçatcen ciotela Jaincoaren Erresumari derazcon gaucez.

4. Eta hec bilduric, manatu cituen ez yoaitez Jerusalemetic bainan iguricatzez Aitaren a-

guintza, ceina, cioen, aditu duçue ni ganic.

5. Ecen Joannesec bathayatu du urez, bainan içanen çarete bathayatuac, egun laburric artean, Izpiritu Sainduan.

6. Hec beraz bilduac içanez interroatu çuten, ciotela : Jauña, dembora huntan içanen da berriz establituko duçula Israeleco Erresuma ?

7. Bainan erran cioten : ezda çuei eçagutcea demborac edo mementoac, ceinac Aitac eçarri baititu bere bothere propiaren azpian.

8. Bainan errecebituko duçue botherea Izpiritu Sainduaz cein ethorrico baita çuen gainetarat; eta lekhuco içanen cerauzquitet hain ongui Jerusalemen, nola Judea gucian, eta Samarian, eta Iurraren hazterferaino.

*Cap.*

9. Eta gauça hauc erran ci-  
tuen ondoan, alchatua içan cen  
*cerurat*, hec beha çaitçola, he-  
doi batec sostengatcen çuela e-  
raman çuen heyen beguien ait-  
cinetic.

10. Eta nola baitçuzten be-  
guiac baratuac *cerurat*, yoaiten  
cen beçambat, huna, bi guiçon  
arropa churiequinaguertcen dire  
heyen aitcinerat,

11. Erran ciotenac : Galileen-  
dar guiçonac, certaco baratcen  
çarete *cerurat* behar? Jesus hau  
alchatua içan dena çuetaric ce-  
rurat yautsico da ceruracoan  
beondaztu duçuen guisa berean.

12. Orduan itçuli ciren olibe-  
taco *mendia* deitcen cen men-  
ditic Jerusalemerat, cein baita  
Jerusalemetic urrun, errepausu  
egunean *eguiten ahal den bi-*  
*deaz.*

13. Eta *hirian* sarthu ciren  
ondoan, igan ciren gambara gora  
batetarat; nun baitçauden Pier-  
res eta Jacobe, Joannes eta An-  
dres, Philippe eta Thomas,  
Bartheleimi eta Mathiu, eta Si-  
mon Zelotes, eta Juda Jacque-  
sen anaya.

14. Hoyec gueiec bihotz ba-  
tean irauten çuten othoitzetan  
eta oracionetan emaztequin, eta  
Maria Jesusen amarequin, eta  
haren anayequin.

15. Eta egun hartan Pierres  
yaiqui cen Discipuluen erdian,  
han cirenac bilduac seietan ho-  
goyen ingurumena, eta erran  
cioten.

16. Guiçon anayac, izeriba-  
turic içan denac behar çuen içan  
cumplitua, eta Izpiritu Sainduac  
annontçatu duena Daviten ahoz  
Judasez, cein içan baita Jesus  
hartu dutenen aitcindaria.

17. Ecen gutaric cen, eta er-  
recebitu çuen bere phartea cargu  
huntaric.

18. Bainan erosiric landa bat  
hobenaren errecompensaz, e-  
gotzi du bere burua, eta haren  
gorputza lehertu da erditic, eta  
haren errayaç içan dire isuriac,

19. Hori eçagutua içan da.  
Jerusalemeco bicitiar guciez,  
nun landa hora deithua içan  
baita beren mintçayeaz, Hace-  
dama, erran nahi baita, odola-  
ren landa.

20. Ecen Psalmuen liburuau  
izcribatua da; haren egoitza  
içan dadin eremu, eta ez dadin  
içan nihor han bici denic; eta,  
berce batec har deçan haren  
cargua.

21. Behar du beraz Jesus Jau-  
na gure artean bici içan den dem-  
bora gucion gurequin bildu di-  
ren guiçonetaric,

22. Hasiric Joannesen batha-

yotic, gutaric alchatua içan den eguneraino, cembaitec lekhuco içan gurequin haren hiletaric pizteaz.

23. Eta biga seinalatu ciren, Joseph, deithua Barsabas, icen goithitua cena Justua; eta Matthias.

24. Eta othoizten çutela erran çuten: çuc; Jauna eçagutzen ditutçuna gucien hihotzac, erakhuts çacu bi hotaric cein hautatu doçun;

25. Harcecotçat bere phartea cargo huntaric eta Apostoluen batzarre huntari, cein Judasec utei baitu, berc toquirat yoaitecotçat.

26. Guero zortean tiratu çuten; eta zortea erori cen Matthiasen ganierat, cein gucien bocez eçarrria içan baitcen hameca Apostoluequin.

## II CAPITULUA.

*Izpiritu Sainduaren yaustea, Pierresen predicua, eta hainitz mila arimen combersionea.*

1. Eta nola Mendecoste eguna ethorria baitcen, guciae bildu ciren toqui bererat.

2. Eta ceruko barrabotz bat eguin içan cen hetbetan, hala nola eguiten baitu haiciac buhateen duenean borthizqui, eta

bethe çuen etche gucia nun baitciren yarriric.

3. Eta aguertu ceitzoten sua beçalaco mihi batçu berediac, yarri cirenac hetaric bakhotchen gainean.

4. Eta guciac Izpiritu Sainduaz betheac içan ciren, eta hassi ciren mintçateen mintçaye arrotz batçuez Izpirituac mintçazten cituen beçala.

5. Bada bacen Jerusalemen Judu han bici cirenae ceruaren azpian cen yendaye guciatarie, guicon Jaincotiarac.

6. Eta harrabotxa egun içan cen ondoan, oste bat bildu cen, ceina aldandetu baitcen, bakhotchac ençutez mintçateen haren mintçayeaz.

7. Guciae harrituac çauden, eta miresten ciren, batac berceari cioela: hunia, mintçateen diren hoyec guciac ez dire Galileendarrac?

8. Nola bada gutaric bakhotchac ençuten dugu mintçateen sorthu garen lurreco mintçaya?

9. Parthes, Medes, Elamites, eta gu bici garenac, batçu Mesopotamian, berceac Judean, eta Capadocian, Ponteo lurrean, eta Azian,

10. Phrygian, Pamphilian, Egyptoan eta Cyreneein hurbil diren Libiaco aldirietan, eta

gu egoiten garenac Erruman,  
11. Hain ongi Juduec nola  
Proselytec, Cretoec, eta Ara-  
boec, ençuten ditugu mintçat-  
cen bakhotcha gure mintçayan,  
Jaincoaren handitassunac.

12. Guciac harrituac ciren  
beraz, eta trublatuac, ciotela,  
batac berceari : oer erran nahi  
du hunec?

13. Bainan berceac trufatcen  
cirela cioten : hori da ceren ar-  
no eztiz betheac baitire.

14. Bainan Pierres aguercear-  
requin hamequequin, alchatu  
quen bere boça, eta erran cio-  
ten : guiçon Juduac! eta quec  
guciac Jerusalemen bici çarete-  
nac, yaquin çaque hau, eta kha-  
su egunçue ene hitcei.

15. Eeen hauc ez dire mozcor  
uste ducen beçala, ez denaz gue-  
roz eguneco hirur garren orena  
baicic.

16. Bainan hemen da Joel Pro-  
fetaz errana içan dena :

17. Eta guerthatuco da az-  
quen egunetan, dio Jaincoac,  
hedatuco dudala ene Izpiritutic  
haragui guciengainetarat; eta  
quen semec eta quen alabec pro-  
fetisatuco dute; eta quen multil-  
gaztec ikhussico tuzte iduripe-  
nac, eta quen çaharrec içanen  
dituzte amexac.

18. Eta egun härtañ hedatuco

dut ere ene Izpiritutic ene mu-  
thilen gainetarat eta ene nesca-  
toen gainetarat, eta profetisa-  
tuco dute.

19. Eta eguin en dut gauça  
miragarriric gainean, ceruan eta  
espantagarriric beherean, lor-  
rean, odol, eta su, eta khezco  
bafadac.

20. Iguzquia biburtuco da il-  
humbe, eta ilhargua odol Jaun-  
aren egun handi eta seinalatua  
ethorri baino lehen.

21. Bainan guerthatuco da  
Jaunaren icena aiphatuco duena  
içanen baita salbatua.

22. Guiçon Israletarrac, be-  
ha çatçue hitz hauc! Jesus Naza-  
reindarra, guiçon Jaincoaz quei  
seinalatua miraculuez, gauça  
miragarriez, eta espantagarriez  
ceinac Jainocae egun baititu  
hartaz quen erdian, daquiçuen  
beçala.

23. Içanic largatua conseilu  
fixatuaz eta Jaincoaren probi-  
denciaz, hartu duçue, eta eçarri  
khurutcean, eta hilaraci duçue  
gaistaguinen escnez;

24. Bainan Jaincoac berriz  
piztu du, heriotcearen estecac  
hautsiric, ceren ez baitzen ahal  
egon çadin hartaz itchequia.

25. Ecen Davitec erraiten du  
hartaz : beondazten nuen bethi  
Jauna ene aitcinean; ecen ene

escuinean da, ez nadintçat içan cordocatua.

26. Hortacotz ene bihotça bozcariotu da, eta ene mihiabazcarioz icaratu; eta guehiagoden, ene haraguia triquiatuco da esperançan.

27. Ecen ez nauçu utcico hobian, eta ez duçu nahico çure Saindua ussain dadin.

28. Eçagutaraci derautaçu biciaren hidea, betheco nauçu bozcarioz çure aitcinean.

29. Guiçon anayac, erraiten ahal dautquet lagnoqui David Patriarchaz, hila dela, eta ehortcia, eta haren hobia guitardean dela egun huntaraino.

30. Bainan nola Profeta baitcen, eta baitçaquien Jaincoac hitz eman çayola cin eguinicharen odoletic sorthuko cela Christo haraguiaren arabera, haren yarrarazteco bere tronuarren gainean;

31. Erran du Christoren berriz pizteaz, ikhusten çuelaric e-thortcen, haren arima ez da utcia içan hobian, eta haren haraguiac ez du içan ussanic.

32. Jaincoac berriz piztu du Jesus hau, hortaz guciacy lekhuco gare.

33. Jaincoaren bothereaz *cerurat* albatua içan den ondoan,

beraz, eta errecebitu bere Aita ganic Izpiritu Sainduaren aguintza, hedatu du orai ikhusten eta aditcen duçuena.

34. Ecen David ezda igan cieruetarat, bainan berac erraiten du : Jaunac erran du ene Jaunari; yar çaité ene escuinean,

35. Çure exayac eçarri tudan arteraino çure çangoen alquitçat.

36. Beraz Israeleco etche guciac yaquin deçala segurtatuqui Janicoac egún duela Jaun, eta Christo, Jesus hau, khuruteficatu duçuena.

37. Adituric gauça hauc, içan çuzten dolumenez bihotçac uquituac, eta erran çuten Pierresi eta berce Apostoluei, guicon anayac, cer eguiñen dugu?

38. Eta Pierresec erran cioten : comberti çaitenze, eta çuetaric bakhotcha içan bedi bathayatua Jesus-Christoren Icenean, ardiesteco çuen bekhatuen bar-khamendua, eta errecebituco duçue Izpiritu Sainduaren dohaina.

39. Ecen aguintza eguna da çuei eta çuen haurrei, eta urrun diren guciei, gure Jainco Jaunac bereganat deithuko duen beçambat.

40. Eta berce hainitz solasez

hersatcen eta exortatcen cituen, cioela : escapa çaitzete casta gaisto huntarie.

41. Bihotz onez haren hitça errecebiku çutenac beraz, içan ciren bathayatuac; eta egun har- tan içan ciren *Eliçari* eratchi- quiac hirur mila arimen ingu- remena.

42. Eta irauten çuten guciec Apostoluen iracasdean, eta co- munionean eta oguiaren puscat- cean, eta othoitzetan.

43. Bada yende guiac bacuen heldur, eta hainitz miraculu eta gauça espantagarri eguiten cen Apostoluez.

44. Eta sinhesten çuten gu- ciaç elgarrequin ciren lekhu be- rean, eta gauça guiac comun cituzten.

45. Eta salcen cituzten beren goçamenac eta beren onthassu- nac, eta emasquidateen cituzten guciei, bakhocharen beharraren arabera.

46. Eta egun guciez irauten çuten guciec bihotz berean Tem- pluan; eta hautsiz ogua etchez etche, hartzen çuten bere yana bozcariorequin eta bihotzeco chahutassunequin.

47. Jaincoa laudateez, eta onetsaraciz beren buruac yén- dayaz. Eta Jaunac erachiquitzen çuen Eliçari yende salbatuac.

### III CAPITULUA.

Pierresec sendatcen du maingua, eta eaquidatcen ditu Juduac combertitcez Messiari.

1. Dembora hartan Pierres eta Joannes igaiten ciren elgar- requin Templurat othoitzeco ore- nean, ceina baitcen bederatci garren orena.

2. Eta guïçon bat sorcez main- gu cena, içan cen ekbarria, cein eçartcen baitçuten egun guciez Templuco athean, deithua *athe* ederra, amoyna galdetceco Tem- pluan sartcen cirenei.

3. Guiçon hunee ikhussiz Pier- res eta Joannes sartcera çoa- cela Templuan othoiztu cituen eman ceçoten amoyna.

4. Bainan Pierresec Joanne- sequin baraturic beguiac haren gainerat, erran cion : beha de- çaucuçu.

5. Eta behatu cioten arthas- qui, iguriquiz içaitea cerbait he- taric.

6. Bainan Pierresec erran cion : ez dut ez cilharric ez ur- rheric; bainan dudana, emaiten dautçut : Jesus-Christo Nazara- thacoaren icenean, alcha çaité, eta ibil.

7. Eta harturic escu escuin- netic, alchatu çuen; eta ordu berean haren çango çolac eta

aztal hechurrac azcar eguin ci-ren.

8. Eta salto bat eguiten çuela, chutic baratu cen, eta ibili cen, sartu cen hequin Templuan, ibilcez, saltoca eta Jaincoa laudatcen çuela.

9. Eta yendaye guciac ikhussi çuen ibilcez eta Jaincoa laudatcen çuela.

10. Eta eçagutuz Templuco athe ederrean amoinaren içaitecotçat yariric cen liura bera cela, miresunçaz eta harriduraz betheac içan ciren guerthatu çayonaz.

11. Eta nola sendatua içan cen mainguac escutic baitceraz, con Pierres eta Joannes, yendaye gucia harritua plasteratu cen hetarat Salomonena deitzen duten arkha azpirat.

12. Bainan Pierresec hori ikhussiz, erran çuen yendayari : guiçon Israletarrac, certaco harriteen çarete hunentçat? edo certaco duçue beguiac baratuac gure gainerat, gure bothereaz edo gure saindutassunaz ibilaraci baguindu beçala guiçon hau?

13. Abrahamen, eta Isaaken, eta Jacoben Jaincoac, eta gure aiten Jaincoac lorificatu du bere Seme Jesus, ceina largatu bai duçue, eta ukhattu Pilatusen

aitcinean, nahi bada hunez yu-yatzen çuen lachoa emana içan behar cela.

14. Bainan ukhatu duçue Sain-dua eta Justua, eta galdeguin duçue lacha eçaçueten guiçon hilçale bat.

15. Eçarri duçue heriotcerat biciaren Princea, cein Jaincoac hiletaric berriz piztu baitu; hor-taz lekhueo gare.

16. Eta fedeaz haren icenean da, haren icenac azcartu dituela ikhusten duçuen eta eçagutzen duçuen guiçon hunen çangoac; hartan dugun fedeac, eman dio huni bere alderdi gucien maneyu ossoa, çuen gucien aitcinean.

17. Eta orai, *ene* anayac, badaquit eguin duçuela yaquin gabetassunaz, hain ongi çuen Gobernadorec ere.

18. Bainan Jaincoac hola cumplitu du Profeta gucien ahoz annontçatu cituen gauçac; Christoc behar çuela pairatu.

19. Urriquit çaitetze beraz, eta combertit, çuen bekhatuac içan daiteztentçat borratuac:

20. Noiz ere arra freskateeco demborac ethorrico baitire Jau-naren presenciaz, eta egorri baitu que Jesus-Christo, annontça-tua içan çautçuena lehenago,

21. Ceinac égon behar baitu ceruan, Jaincoac munduaren

*hastetic* bere profeta saindu gucien ahoz erran dituen gauça gucien arra establitceco dembora arteraino.

22. Ecen Moisec berac erran du gure Aitei : çuen Jainco Jau-nac atheraracico du çuen anayen artetic Profeta bat ni beçalacoa ; ençunet duçue erraiten duen gucietan ;

23. Eta guerthatuco da nore-ere ez haiduque ençun Profeta hau , içanen baita funditua yendayaren artetic.

24. Eta guisa berean Samuel guerozticaco profeta guciec , eta haren ondoticacoe , içan den beçambat mintçatu denic , an-nontçatu dituzte ere egun hauc.

25. Profeten haurrac çarete , eta Jaincoac gure aitequin es-täblitu duen alientçatic ,cioelaric Abrahami : eta çure odolean içanen dire benedicatuac lurreco familia guiac.

26. Çuentçat da lehenbieicoric Jaincoac atheraturic bere seme Jesus , egorri duela çuen benedicateerat , çuetaric bakhotcha il-quiaraciz çuen gaistaquerietaric.

#### IV CAPITULUA.

*Apostuluac herstuac : fidelen ostea yosiac izpirituz eta caritatez.*

1. Bainan miñtço cirelaric yen-

dayarı , Sacrificatçailac , eta Templuco Capitaina , eta Saducenuac han guerthatu ciren ,

2. Antsietan çaudela irakhas-ten çutelacotz yendaya , eta an-nontçatcen çutelacotz hilen ber-riz piztea Jesusen icenean ;

3. Eta hetaz yabeturic , eçarri cituzten presondeguian bihara-mun arteraino , ceren ya beran-dua baitçen .

4. Eta hitça ençun çuteneta-ric hainitcec , sinhetsi çuten , eta yenden ostea içan cen borz milaren ingurumena .

5. Bada guerthatu cen biha-ramunean Gobernadoreac , Ça-harrac , eta Scribauac bildu ci-rela Jerusalemen ,

6. Anna Sacrificatçailie burn-zugariarequin , eta Caiphas , eta Joannes , eta Alexandres , eta aphezgoaco familiatic ciren gu-ciequin ;

7. Eta aguerrraraciric heyen aitcinerat Pierres eta Joannes , galdeguin cioten : cer botherez , edo noren icenean egun duçu sendatce hura ?

8. Orduan Pierresec Izpiritu Sainduaz betheric içanez , erran cioten : yendayaren Gobernatçai-leac , eta çuec Israeleco Çahar-rac ;

9. Bilhatuac guirenaz gainean egun alderditu batean eguinic

içan den ongiarentçat, yaquiteco nola içan den sendatua;

10. Yaquin çaque quec guciec, eta Israeleco yendaye guciac, hori içan dela Jesus-Christo Nazarianoaren icenean, cein khrutceficatu baituque, eta Jaincoac hiletaric piztu baitu; haren icenean, çuen aitcinean agueri den guicon hau, içan da sendatua.

11. Harri hau da, quec equidatcen duçuenec utzia, egun içan dena harcantoin.

12. Eta ezda salbamenduric batere beree batean; ecen ere ezda ceruaren azpian berce ice-nic emana denic guicon ei ceintaz içan behar baitugu salbatuac.

13. Hec ikhussiz Pierresen eta Joannesen ausarcia, eta yaquinez ere escola gabeco guicon batçu cirela eta yende chehetaric, harritcen ciren, eta eçagutzen cituzten ongi Jesusequin içan cirela.

14. Eta ikhussiz sendaturic içan cen guicona han cela hequin, ez cirozqueten deusetan ere contraesan.

15. Orduan hec manaturic yalguitez conseilutic camporat, hitzeraquidatcen çuten beren artean;

16. Ciotela: cer eguiñen dugu

yende hoyei? ecen eçagutua da Jerusalemeco bicitiar gaciez, miraculu bat eguna içan dela hoyetaz, eta hori hain beguerri da, nun ez baideçaquegu ukha.

17. Bainan guehiago otsanda ez dadinteat yendayaren artean, debeca dietzagun mehatchurequin, hemendic aitcina ez dizten icen hortan guehiago mintça nihori.

18. Deithuric beraz, manatu cioten ez guehiago mintçatcez ez irakhastez niholareco guisan Jésusen icenean.

19. Bainan Pierresec eta Joannesec ihardestearquin, erran cioten: yuya çaque zucen denez Jaincoaren aitcinean Jaincoari baino lehen quei obeditcea.

20. Ecen gu, ez gaisteque ichilt ikhussi eta ençun ditugun gauen gainean.

21. Orduan largatu cituzten mehatchurequin, ez causitz hec nola gaztiga, yendayaren beldurrez, ceren guciec lorisificateen baitçuten Jaincoa, egunic içan cenaz.

22. Ecen guiconac, ceintan gainen sendatce miraculos hori eguinic içan baiteen, baçuen berrogoi urthe baino guehiago.

23. Bada yoaiterat utci cituzten ondoan, ethorrri ciren bere-enetarat, condatu cioten çahar-

rec eta Sacrificatçiale aitcinda-  
riez erran cerozten guciac.

24. Hori aditurie, alehatu çuten  
guciec izpirituz berean boza  
Jaincoari, eta erran çuten : Ja-  
una, cerua eta lurra, ixasoa, eta  
hetan diren gauça guciac egui-  
dituen Jaincoa çare;

25. Eta erran duçuna David  
gure cerbitçariaren ahoz; cer-  
taeo alchatu dire yendayac, eta  
cerfaco populuac gogoratu ditu  
gauça alferrac?

26. Lurreco erregueac ere al-  
chatu dire, eta princeac yuntatu  
dire elgarrequin Jaunaren con-  
tra, eta haren Christoren contra.

27. Eeen Jesus çure Seme  
Sainduaren contra; eein gançetu  
baituçu, bildu dire Herodes eta  
Poncio Pilatus, Gentilequin, eta  
Israeleco populuarequin.

28. Eguitcoo lehenago çure  
escuac eta çure conseiluac egui-  
nic içaiteco manatu cituen gauça  
guciac.

29. Orai beraz, Jauna, beha-  
çatçeu héyen mehatchuac, eta  
eguiçu çure cerbitçariec çure  
hitça annontça deçaten ausarcia  
guciarequin;

30. Çure escua hedatcez egui-  
nic içan dadintçat, sendatce eta  
gauça espantagarriric eta icarà-  
garriric, Jesus çure Seme Sain-  
duaren içenaz.

31. Eta othoiztu çuten on-  
doan, bildurie ciren lekhua ica-  
ratu cen; eta guciao içan ciren  
Izpirituz Sainduaz bethear; eta  
annontçatcen çuten Jaincoaren  
hitça ausarcinrequin.

32. Bada sinhesten çutenen  
mulçoa, ez cen bihotz bat eta  
arima bat baicic; eta nihorc ez  
çuen erraitén gozateen çuen gab-  
cetarie batere, harena cela; bai-  
nan gauça guciac heyen artean  
comun ciren.

33. Eta Apostoluec bihurteen  
çuten lekhucotassuna indar han-  
di batequin, Jesus Jaunaren ber-  
riz pizteari; eta gracia handi bat  
cen hetan gucielan gainen.

34. Eeen ez cen heyen artean  
nihor beharretan cenic, ceren  
eta etche edo landa çutenee,  
salcon cituzten, eta gauça sal-  
duen precioa ekhartcen;

35. Eta eçarteen çuten Aposto-  
toluen oinetan; eta emasquida-  
tua cen bakhotchari beharra çue-  
naren arabera.

36. Bada Josesec, ecina içan  
baiteen Apostoluez icen goithi-  
tua Barnabas, erran nahi baita;  
consolacionearen semea, Levita,  
eta Cypriaco sortcez,

37. Baitçuen gozamen bat,  
saldu çuen; eta ekharri precioa,  
eta eçarri çuen Apostoluen oin-  
etan.

## V CAPITULUA.

*Ananiasen eta Saphiraren heriotcea. Eriac sendatuac : Apostoluac presondeguian e-carriac eta largatuac, predicatcen dute eta pairatcen bozcariorequin.*

1. Bada guicon batec Ananias deithua cenac, Saphira bere emaztearequin saldu quen gozamen bat;

2. Eta itehiqui quen preciotic pharte, bere emaztearen laudamenarequin, eta ekharri quen pharte bat, eta ecarri quen Apostoluen oinetan.

3. Bainan Pierresec erran cion : Ananias, nola Satan yabetu da cure bihotçaz cirieatu çaituen arteraino gueçur erraita Izpiritu Sainduari, eta bantzertcea gozamenaren preciotic pharte?

4. Beguiratu bacinu, ez çauçuna egoiten? eta salduric içanez, precioa ez cena cure nausitassunaren azpian? certaco eraztu duçu cure bihotcean holaco chede bat? ez duçu gueçurric erran guiconei, bainan bai Jaincoari.

5. Eta Ananias ençutearequin hitz hauc, erori cen, eta izpirituac egun ceron; horrec casatu quen beldurtassun handibat

hortaz mintçatcen ençun çutenei gociei.

6. Eta cembait guicon gazte yaiquiric hartu çuten, eta eraman camporat, eta ehortei.

7. Eta guerthatu cen hirur orenen ingurumenaren ondoan, haren emaztea ere, yaquin gabe cer guerthatu cen, sarthu cela;

8. Eta Pierresec hitça hartuz, erran cion : erran eçadaçu, hain berceren saldu duçue landa? eta erran quen : bai, hain berceren.

9. Orduan Pierresec erran cion : certaco egun duçue concertu bat quen artean frogatceco Jaunaren Izpiritu? horra atheau cure senharra ehortei duteuen çangoac, eta eramanen çaituzte.

10. Eta ordu berean erori cen haren çangoetarat, eta izpirituac egun ceron. Eta guicon gazteac sarthu ciren ondoan, causitu çuten hil, eta eraman çuten camporat eta ehortei çuten bere senharraren aldean.

11. Eta horrec beldurtassun bandi bat eman quen Eliça guciari; eta gauça hauc ençuten cituzten gociei.

12. Eta miraculu eta gauça espantagarriric eguiten cen yendayaren artean Apostoluen esezuz; eta gucioa boz batetaco ciren Salomónen arkua azpian.

13. Bizquitartean berce taric bat ere ez cen mentur atzen heta rat yuntateea, bainan yendayac laudatzen cituzten goraqui.

14. Eta Jauna baithan sinbes ten çutenen ostea, hain ongui guionez nola emaztez, guehia coteen cen gueroago guehiago.

15. Eta ekharteen cituzten eriac carriquetarat, eta eçarten cituzten ohe chume eta ohetcho batçuetan, amoreagatic Pierres ethortzen cenean, bederen har en itçala iragan çadin hetaric cembaiten gainean.

16. Ondo hetaco hirietaco yendaya ere bileen cen Jerusalemerat, ekharteen cituztela eriac, eta izpiritu lohiaz toleatuac cirenaic; eta guiciac sendatuac ciren.

17. Orduan Sacrificatçailie buru çaguia yaiqui cen, eta harequin cirenaic guiciac ere, cein baiciren Sadduceenen casta, eta bekaitzgoaz betheac içan ciren;

18. Eta Apostuluez yabeturio, eramanaraci cituzten presondegui publicorat.

19. Bainan Jaunaren Aingueruac çabaldn cituen gabaz presondeguko atheac, eta hec eçar riric campoan, erran cioten:

20. Çoazte, eta aguercearequin Templan, annontça çat que yendayari hicu huntaco hitzac.

21. Hori ençunic, sarthu ciren arguia urratcearequin Templan, eta irakhasten çuten. Bainan Sacrificatçailie buruzaguia eta harquin cirenaic ethorriric, bildu çuten conseilua, eta Israeleco baurren Cahar guiciac, eta egorri çuten presondegirat hec ekhar razztecotçat.

22. Bainan sariantac ethorri ciren ondoan, ez cituzten eau situ presondeguijan; eta hola itçuli ciren, eta berria eraman çuten,

23. Ciötela : causitu dugu presondegua hetsia segurtas sun guciequin, eta çaintçaleac ere athen aitcinean ciren, bainan çabaldu dugun ondoan, ez dugu nihor causitu barnean.

24. Eta Sacrificatçailie buru zaguia, eta Templuco Capitainac, eta Sacrificatçailen aitcidariec ençün çutztenean hitz hauc, hainitz nekhatuac içan ciren hortan gainen, ez yaquinez certala hori ethorrico cen.

25. Bainan norbait aguertu cen erran ciotena : horra, presondeguijan eçarri cinduzten guionac, Templan dire, eta han daodela, irakhasten dute yenda ya.

26. Orduan Templuco Capitaina yohan cen sariantequin, eta eramanaraci cituzten borcha-

karic gabe ; ecen beldur ciren harricaturic içaitea yendayaz.

27. Eta eramanaraciric, aguer-raraci cituzten conseiluan. Eta Sacrifiçatçiale buruzaguiac interroatu cituen,

28. Cioela : ez darotçugu debekhatu berechiqui ez irakhastez icen huntan ? eta bizquitartean bete duçue Jerusalem çuen irakhasdeaz, eta gure gainerat ek-harraraci nahi duçue guion ha-ren odola.

29. Orduan Pierresec eta *berce* Apostoluec, ihardestaarequin, erran çuten : behar da lehenago obeditu Jaincoari ecen ez guiccone.

30. Gure aiten Jaincoac ber-riz pitzaraci du Jesus, cein hilraci baitueque, itçatuz zirean.

31. Eta Jaincoac alchatu du bere bothereaz içaitecotçat Prince eta Salbatçiale, emaitecotçat Israeli urriquia eta bekhatuen barkhamendua.

32. Eta lekhuco gaizeo errai-ten dugunaz, eta Jaincoac hura obeditcen dutenei eman duen Izpiritu Sajindua ere, lekhuco da.

33. Bainan hec adituric gauça hauc, carrascateeu cituzten hor-tzac, conseilateen ciren heyen hilarazteco.

34. Bainan Pharisano bat dei-thua Gamaliel, legueco irakhas-

tailea, ohoratua yendaya guiaz, yaiquiric conseiluan, manatu çuen Apostoluac ilqui citezten camporat dembora pochi batent-çat.

35. Guero erran cioten : Israeletar guionac, guardia ema-çue guion hoyen gainean egain behar duquenaz.

36. Ecen dembora hau baino lehen, alchatu cen Theudas, be-re burna cerbait egujten çuela, ceini yuntatu baiteen laur ebuen ingurumeneco guion oste bat : bainan hilic içan da, eta hari yuntatu ciren guiac içan dire barrayatuac eta ez deuse-tarat ecarriac.

37. Hartarie landan aguertru cen Judas Galileendarra, popluaren condatreco egunelan ; eta bildu çuen bere ganat yen-datçe handi bat ; bainan hau ere funditua da, eta hari yuntatu ciren guiac barrayatuac içan dire.

38. Orai beraz erraiten dant-çuet : ez çaque guehiago aur-randa çuen hertçapenac guion hoyen contra, eta utz eçatçue; ecen eguintça hau edo obra hau guionetaric bada, barrayatuco da ;

39. Bainan Jaincoa ganic ba-da, ez duçue barrayatcen abal : eta guardia enmçue çuhauriec

ez çaitetzten causi guerla eguiten Jaincoari. Eta içan ciren haren bozeco.

40. Guero deithuric Apostoluac, manatu cioten, azotatu cituzten ondoan, ez mintçatcez Jesusen icenean; hortaric landan utci cituzten yoaiterat.

41. Eta *Apostoluac* ilqui ciren conseiluaren aiteinetic, bozcariorequin gay bihurtu cirelacotz arbuyuen pairatceco Jesusen iceharençat.

42. Eta ez ciren barateen irak hastetic egun guciez, eta an nontçatctic Jesus-Christo Tempuan, eta etchez etche.

## VI CAPITULUA.

*Çazpien hautatcea. Estebe acusatua blasfemioaz.*

1. Eta egun hartan, nola discipuluac guehiagotcen baitciren, alchatu içan cen elhantza bat Grekez Hebrauen contra, ceren heyen alargunac ahatciac baitciren emazquidatee egun guicie taccoetan.

2. Hartacotz hamabieec Discipuluuen ostea deithuric, erran çuten : ezda combeni Jaincoaren hitça utz deçagun mahainetan cerbitçatcecotçat.

3. Anayac, berhez çaque beraz çazpi guiçon çuen artean, ceinetaz baita lekhucotassun o-

nic, Izpiritu Sainduaz eta çuhurtassunez betheric, ceinei car gut baiguiniro eguiteco hau.

4. Eta gue, aurrendatuco dugu othoitcean, eta hitçaren era bilcean.

5. Eta solas hau agradatua içan cen han cen bilçarre guciari; eta hautatu çuten Estebe, guiconfedeaz eta Izpiritu Sainduaz bethea, eta Philippe, eta Prochore, eta Nicanor, eta Timon, eta Parmenas, eta Nicolas Antiocheco proselitoa;

6. Eta aguerraraci cituzten Apostoluei; ceinec othoitza egui ondoan, eçarri cituzten es cuac heyen gainen.

7. Eta Jaincoaren hitça handitcen cen, eta Discipuluuen ostea hainitz guehiagoteen Jerusalemen; Sacrificatçaille oste handibatec ere obeditcen çuen fedeari.

8. Bada Estebe fedez eta bot herez bethea, eguiten çuen miraculu handiric eta gauça es pantagarriric ycndayaren artean.

9. Eta largatuen *Synagogoa* deithua cen Synagogocoetaric cembait, eta Cyrenienecoetaric, eta Alexandrinenecoetaric, eta Ciliceco eta Aziaco cirenétaric, alchatu ciren iharduquitceco Esteben contra.

10. Bainan ez ceçaqueten itchis

çuhurtassunari eta Izpirituari ceina haren ahoz mintço baitcen.

11. Orduan galquidatu çuzten guicon batçu, ceinec erraiten baitçuten : ençun derocogu erraiten blasfemiozco hitz Moisren eta Jaincoaren contra.

12. Eta alchatu çuten yendaya, eta Caharrac, eta Scribauac, eta aurthiquiz haren gainerat, hartu çuten, eta eraman conseilurat.

13. Eta aguerraraci çuzten lekhuco falso batçu, erraiten çutenac : guicon hau ezda baratcen erraitetic blasfemiozco hitz leku saindu hunen, eta leguearen contra.

13. Ecen ençun diocogu erraiten, Jesus Nazariendar hac arrasatuco duela lekhu hau, eta cambiatuco dituela Moisec eman derauzcun manuac.

14. Eta nola conseiluan yarritic ciren guciec itchequiak baitçuzten beguiac haren gainean, ikhussi çuten haren beguithartea Aingueru baten beguithartea beçala.

## VII CAPITULUA.

*Estebec escudatcen du bere haucia gaizquirequin Juduei, harricatu da othoitctean ga gola heyentçat.*

1. Orduan Sacrificeatçaire bu-

ruzaguiac erran cion : gauça haue hola dire?

2. Eta Estebec ihardetsi çuen : guicon anayac eta aitac, ençun neçäcue : loriazeo Jaincoa aguertu cen gure aita Abrahami, Mesopotomiau cen demboran, Carranen egon cen baino lehen.

3. Eta erran cion : ilqui çaité çure lurretic, eta çure ahaidantetic, eta yein cite erkhatsico derautçudan lurrerat.

4. Ilqui cen beraz Caldeeneco lurretic eta yohan cen egoiterat Carranerat, eta handic, haren aita hil cen ondoan, Jaincoac iraganaraci çuen orai bici çareten lur huntarat.

5. Eta ez çayon eman primantzaric lur huntan, ez choilqui urrhax baten lurrarena, nahiz hitz eman cion gozaménetan emaiteco, eta haren ethorquiçunari haren ondoan, haurric oraino ez çuen dembora batean.

6. Eta Jaincoa mintçatu çayon hunla : çure ethorquiçuna egozen da laur ehun urthe lur arrotz batean, eta han memperatuco dute, eta bidegaiztuco.

7. Baian yuyatuco dut yendaquia ceini ere içanen baita mempecotua, dio Jaincoac ; eta hortaric landan ilquico dire, eta cerbitçatuco naute lekhu huntan.

8. Guero eman cion circoncisionero batutza; eta horren ondoan *Abrahamec* enyendratu cuen Isaak, cein circoncisatu baituen cortei garren egunean; eta Isaakēc enyendratu cuen Jacob, eta Jacobēc hamabi patriarchac.

9. Eta patriarchac içanez becaizgoaz betheac saldu çuten Joseph *eramanic içaiteco* Egyptorat; bainan Jaincoa harequin cen;

10. Eta beguiratu cuen atsekabe guciataric; eta eman cion gracia eta çuhurtcia Pharaon Egyptoco Erreguearen aitcinean eta establitu cuen Gobernari Egyptoaren gainean, eta haren etche guciaren gainean.

11. Bada guerthatu cen Egyptoco lur gucian eta Canaanen gossetē bat eta antisia handi bat; halacoa nun gure aitec ez bait-çuten aurquitcen ahal yatecoric.

12. Bainan Jacobēc aditu cuen-ean erraiten ogui bibi bacela Egyptoan, lehen aldiarentçat egorri cituen gure aitac,

13. Eta *itçuliric* berce aldi bat, Joseph eçagutua içan cen bere anayez, eta Josephen familia aguertua içan çayon Pharaoni.

14. Orduan Josephec egorri cuen bere aita Jācoberen eta ha-

ren familia guciaren bilba, ceina baitcen hiruretan hogoi eta has mabortz yendetaco.

15. Jacob beraz yautsi cen Egyptorat, eta han hil cen, bura eta gure aitac;

16. Ceinac eramanac içan baitciren Sichemerat, eta eçarriac Abrahamec diru gostuz Emmor Sichemen semearen semei eroi cuen hilherrian.

17. Bainan nola Jaincoac Abrahami yuratu cuen aguintçarea dembora hurbilcen baitcen, yendaya guehiagoteen cen eta hainitztu cen Egyptoan,

18. Berce Erregue bataguertu cen arteraino, ceinac ez, bait-çuen eçagutu Joseph,

19. Eta hora amarruz gure yendaquiaren contra, bidecaitzu cituen gure aitac, beren haurrare utz araz arteraino, fundiaraztecotçat leinua.

20. Dembora hartan sorthu cen Moises, çoinec Jaincoa ganic *errecebiliu* bait-çuen edertasun handi bat; eta hacia içan cen hirur hilabethez bere aitaren etchean.

21. Bainan paratuă içan bait-çeen, Pharaonen alabac eraman cuen, eta alehatu cuen bere seme içaitecotçat.

22. Eta Moises ikhassia içan cen Egyptoco yaquintassun gu-

ciez; eta botheretsua cen hitzetan eta obretan.

23. Bainan berrogoi urtheac bethe cituen ondoan, gogoan hartu çuen yoaitoa bere anayen ikuuscatea, Israeleco haurrac.

24. Eta ikhussiz hetarie batceini bidegabe eguiten baitcioleten, hartu quea haren phartia, eta mendecatu çuen mastricaturic cena, Egypcianoa hilcez.

25. Bada uste çuen haren anayec endelgatuco çutela, Jaincoac libroan eçarrico cituela haren medioz; bainan ez çuten endelgatu.

26. Eta biharamunean guerthatu cen heyen artean escatimatcen cirelaric, eta bilhatu çuen bakhean eçartcea, erraiten *ciotela*: güçönac, anayac çarete certaco hoben eguiten duçue batac berceari?

27. Bainan hoben eguiten çuenac bere proximo lagunari, arbuyatu çuen,cioelarie: norc establitu çaitu prince eta yuye gure gainean.

28. Nahi nauçu hil, atzo Egypciano hora hil duçun beçala?

29. Orduan guisa hortaco solas baten gainean Moisesec ihes egün çuen, eta arrotz içan cen Madianeco lurrean, nun içan baitcituen bi haur.

30. Eta berrogoi urthe be-

theac içanez, Jaunaren Aingerua aguertu cion Sinaico mendico eremuan, elhorriaga batean cen su gar baten barnean.

31. Eta Moisesec ikhussi queean, harritua içan een itchurrapen huntaz, eta nola hurbilcen baitcen ikhusteco cer cen, Jaunaren boça içan cion zucendua.

32. *Cioela*: qure aiten Jaincoa naiz, Abrahamen Jaincoa, eta Isaaken Jaincoa, eta Jacoben Jaincoa. Eta Moises ikharetan ecen menturateen behatea cer cen.

33. Eta Jauna erran cion: athera çaiten zapatac çangoetaric; ecen çu çaren lekhua, lur saindu bat da.

34. Ikhussi dut, ikhussi dut Egyptoan den ene yendayaren atsekabea, eta aditu ditut heyen oihuiscac, eta yaotsi naiz heyen largateerat; orai beraz çato, egorrico çaitut Egyptorat.

35. Moises hora, cein utstatac içan baitcen, erranez: norc establitu çaitu prince eta yuye? hora da Jaincoae egortzen dueña princteçat eta libratçailetçat elhorriagan aguertu çayon Aingeruaren medioz.

36. Camporat athera cituen hora da, egülez miraculu eta

gauça espantagarriric ixaso gorrian, eta eremuan berrogoi urthez.

37. Moises hura da erran dueña Israeleco haurrei : quen Jainco Jaunac atheraracico du quen anayetarie Profeta bat ni beçalacoa ; ençun eçaçue.

38. Hura da bilçarrean cena eremuan Sinaico mendian mintçateen çayon Aingueraurequin, eta gure aitequin cena, eta errecebitu quena bicio hitza guri emaitecotçat.

39. Ceinari gure aitec ez baitçuten nahi içan obeditu, bainan utstatu çuten, eta bihurtu ciren bihotcez Egyptorat.

40. Ciotaela Aaroni : eguin eçağunu yainco batçu yohanen direnac gure aitcinean ; ecen ez da quigu cer guerthatu çayon Moises hari ceinac eramanaraci baihuitu Egyptoco lurretic camporat.

41. Egun hartan eguin çuten beraz aratche bat, eta esqueini çuten sacrificioac yainco falsuari, eta bozcariotu ciren beren escuetaco obretan.

42. Hortacotz ere Jaincoa itzuri oen *hetaric*, eta utci cituen ceruco armadaren cerbitçatcerat, izeribaturic den beçala Profeten liburuan : Israeleco etchea esqueini darotaçu sacrificioric

eta bitimariic berrogoi urthez desertuan ?

43. Bainan ekharri duçue Molokeco tabernaclea, eta quen Reinphaneco yaincoaren içarra ; ceinac baidire itchura batçu eguin tuçuenac adoratcecolçat ; hortacotz eramanen çaituztet Babylonaz berce alderat.

44. Lekhucotassuneco tabernaclea içan da gure aitequin eremuan, Moisei manatu cioen beçala erran cioenac eguitez ikhussi çuenaren moldean.

45. Eta gure aitec errecebituric *tabernacle hau*, eraman çuten Josueren guidaren azpian, Jaincoac gure aiten aitcinetic cassatu cituen yendayec gozatcen çuten lurrerat, *nun egon baiteen* Daviten eguneraíno ;

46. Ceinac causitu baitçuen gracia Jaincoaren aitcinean, eta galdeguin Jacoben Jaincoari Tabernacle baten alchatceco haihua.

47. Eta Salomenec equidatu cion etche bat.

48. Bainan Soberanoa ezda egoiten escuez eguin templuetan, Profetaren hitz hoyen araberan :

49. Cerua ene tronua da, eta lurra ene çangoen alquitchoa ; cer etche equidatuco, darotaçure dio Jaunao, edo cein içan ahal

laiteque ene errepausuco le-khua.

50. Ene escuac ez ditu eguiñ gauça hauc guciac?

51. Yende buru gogorrac, eta incircconcisatuac bihotcez eta beharriez, thematcen çarete be-thi Izpiritu Sainduaren contra; eguiten duçue çuen aitec eguiñ duten beçala.

52. Cein da Profeta çuen aitec herstu ez dutena? hil ere dituzte Justuaren ethortcia annont-çatu dituztenac, ceintaz orai içan baitçarete traidoreac eta guize-haileac.

53. Cuec errecebitu duçue-nac leguea Aingueruen medioz, eta ez duçuenac beguiratu....

54. Ençutearequin gauça hauc, heyen bihotça hantu cen supitaz eta hortzac carrascateen cituzten haren contra.

55. Bainan hura Izpiritu Sain-duaz bethea içanez, eta içanez beguiac estecatuac cerurat, ik-hussi çuen Jaincoaren loria, eta Jesus çagoela Jaincoaren escuineco aldean.

56. Eta erran çuen : huna, ikhusten ditut ceruac çabalduac, eta guïçonaren Semea dagoela Jaincoaren escuineco aldean.

57. Orduan oihuca hassi ci-ren goraqui, eta tapatu cituzten beren beharriac, eta guciac boz

batean aurthiqui ciren haren gainerat.

58. Eta herrestatu çuten on-doan hiritic camporat, harricatu çuten; eta lekhucoee ecarri ci-tuzten beren arropac guïçon gazte baten çangoetan deithua Saul.

59. Eta harricatcen çuten Es-tebe, ceinac othoitz eguiten bait-çuen eta erraiten Jesus Jauna! errecebiçaçu ene izpiritua.

60. Eta belhauricaturic, oihu eguiñ çuen goraqui : Jauna, ez aurthic bekhatua hau hoyen gainerat; eta hori erran çuen ondoan, lokhartu cen.

### VIII CAPITULUA.

*Saulec hersten du Eliça. Samarianoen combersioa. Simon magicianoa. Ethiopiano unu-coaren bathayoa.*

1. Bada Saulec goñaquidateen çuen Esteberen hilceari. Bada dembora hartau herstura handi bat eguiñ içan cen Jerusalemen cen Eliçaren contra; eta guciac içan ciren barrayatuac Samariaco eta Judeaco etchadetan, salbu Apostoluac.

2. Eta cembait yaincotiar guï-conec eraman çuten Estebe e-horzteco, eta erabili çuten dolu handi bat haren gainen.

3. Bainan Saulec arrasatcen

cituen Eliçac , sartuz etche gucietan, eta eramanaraciz borchaz guiçonac eta emazteac , eçarten cituen presondeguian.

4. Barrayatuac içan cirenac beraz yoaiten ciren harat hunat annontçateez Jaincoaren hitzaren berri onac.

5. Eta Philippe yautsiric Samariaco hiri batetarat, predicatu cioten Christo.

6. Eta mulzuac arthatsuqui ciren Philippec erraiten çuenari, bihotz berean ençitez hora, eta ikhustez eguiten cituen miraculuac.

7. Ecen izpiritu lohiac atheistacen ciren, oihuca goraqui, debrustatu ciren hainitcetaric camporat, eta paralítico eta maingu hainitz sendaturic ciren.

8. Hortacotz bozario handi bat bacen hiri hartan.

9. Bada cembait dembora hartan bacen hirian guiçon bat deithua Simon , eguiten çuena enganatceco manea, eta harritoen çuen Samariaco yendaya, bere burua equinez yende handi bat.

10. Guciak arthatsic ciren hari, chumenetic hasiric handiene neraino, ciotela : hau Jaincoaren berthute handia da.

11. Eta estecatuac ciren hari, ceren eta aspaldi bartan itxutu baitcituen bere aztquieriaz.

12. Bainan sinhetsi çutenean Philippec erraiten cioten berri onac Jaincoaren Erresumaz eta Jesus-Christoren icenaz, guiçonac eta emazteac içan ciren bathayatuac.

13. Eta Simonec berac ere sinhetsi çuen , eta bathayatua içan cen ondoan , ez cen higuitcen Philipperen hondotic ; eta ikhussiz eguiten ciren gauça es pantagarri eta miraculu handiac, bere baitharic campo een.

14. Bada Jerusalemen ciren Apostoluec, aditu çutenean Samariac errecebibu çuela Jaincoaren hitça , egorri ciotzaten Pierres eta Joannes.

15. Ceinec yautsi ondoan ot hoitz eguiñ baitçuten heyentçat, errecebiceçatentçat Izpiritu Saindua ;

16. Ecen ez cen oraino yautsi hetaric bateren gainerat , bainan choilqui bathayatuac ciren Jesus Jaunaren icenean.

17. Guero phausatu citzayoten escuac heyen gainean , eta errecebibu çuten Izpiritu Saindua.

18. Orduan Simonec ikhussiz Izpiritu Saindua emana içan cella, Apostoluen escuen pausatceaz , esqueini cioten diru ,

19. Erraiten ciotela : eman ecadaçue eni ere bothere hori,

escuac phausatcen dioeztein guciec errecebi deçaten Izpiritu Saindua.

20. Bainan Pierresec erran cion : çure dirua fundit bedi çurequin , uste içan duçunaz gainean Jaincoaren dohaina erosten cela diruarequin.

21. Ez duçu pharteric ez primantçaric eguiteco huntan ; e- cen çure bihotça ezda chuchena Jaincoaren aitcinean.

22. Damut çaité beraz çure gaistaqueria huntaz , eta othoitz-çaçú Jaincoa , amoreagatic ahal bada , çure bihotceco gogoeta içan çaquitçun barkhatua.

23. Ecen ikhusten dut min batean çarela hainitz kharaxa eta gaistaqueriaco estequetan.

24. Orduan Simonec ihardetsi çuen , eta erran : quec othoitz çaque Jauna enetçat , erran ditutçuen gaucataric deus ere yein ez dadintçat ene gainerat.

25. Hec beraz predicatu eta Jaunaren hitça annontçatu çuten ondoan , itçuli ciren Jerusalemerat , eta annontçatu çuten berri ona Samaritanoen hainitz hiri aurquitan.

26. Guero Jaunaren Ainguera mintçatu cen Philipperi , cioelaric : alcha çaité eta çoacieguerdi- rico alderat , Jerusalemetic Gaza eremurat yausten den biderat.

27. Hura beraz , alchaturie , yohan cen ; eta huna Ethiopiano bat , unuhoa , cein baitcen Can- daçan Ethiopianoen erreynaren corteco yaunen lehenetaric bat , haren aberastassun gucien bu- ruzaguia , eta cein Jerusaleme- rat ethorri baitcen adoratcerat ,

28. Itçulcen cen , yarriric be- re luzorgau ; eta irakhurtcen çuen Esaias Profeta.

29. Eta Izpirituac erran çuen Philipperi : hurbil çaité , eta yun- ta çaité horri .

30. Eta Philippe harat lasterca yohanic , aditcen du Esaías Pro- fetaren irakhurtcen ; eta erran cion : endelgateen duçu irak- hurtcen duçuna ?

31. Eta erran cion : nola en- delgatcen ahal dut , norbaitec ez banau guidatcen ? eta othoiztu çuen Philippe igaitez eta yarcez harequin.

32. Bada irakhurtcen çuen izerituraco toquia hau cen : era- mana içan da ardi bat beçala ha- raguintçarat , eta bildots mutu bat beçala murrizten duenaren ganat ; nun ez baitu ahoa idequi.

33. Haren alphaguntean ha- ren condenacionea içan da ur- rundua ; bainan norc condatuco du haren iraupena ? ecen haren bicia alchatya dà lurretic .

34. Eta unuhoa hitza hartuz ,

erran eion Philipperi : othoizten çaitut, nortaz erraiten du hori Profetac? bere buruaz, ala berce cembaitez?

35. Orduan Philippee idequiz bere ahoa, eta hassiric izcritura hutaric, annontçatu eion berri ona Jesusez.

36. Eta nola beren bidean aitcina yoaiten baitciren, heldu ciren ur batetarat; eta unuoa erran çuen : hina ur, cere trabatuco nau bathayaturic içaiteco?

37. Eta Philippec erran çuen : sinhesten balin baduçu çure bihotz gueiaz, hori cilhegi çauçu; eta unuoa ihardestearequin, erran çuen : sinhesten dut Jesus Christo Jaincoaren Seme dela.

38. Eta manaturie bara cecaten luzorga, yautsi ciren biacurraren barnerat, Philippe eta unuoa; eta Philippec bathayatu çuen.

39. Eta athera ciren ondoan uretic camporat, Jaunaren Izpitituac alchatu çuen Philippe, eta unuoa ez çuen guehiago ikhussi; eta bozcariotua aitcina yohan cen.

40. Bainan Philippe causitu cen Azotan, eta iragaitearequin annontçatu çuen berri ona hiri gucietan Cesareerat heldu cen arteraino.

## IX CAPITULUA.

Saulen edo Pauloren combersionea. Pierresec sendatzen du paralítico bat, eta berri pitzarazten Tabitha.

1. Bada Saulec oraino ez içanez bere baithan mehatchu eta sakaila baicic Jaunaren discipuluen contra, eta zucenduric Sacrificatçiale buruzaguiari,

2. Galdeguin ciozcon letra batçu eramaiteco Damaserat Synagoguetarat, amoreagatic aurquiteen baçuen cembait casta hataric, hain ongi guiconac ala emazteac, erakharrarazteco estecatuac Jerusalemerat.

3. Eta nola bidean baiteen eta hurbilcen Damaserat! betbetan haren ingurunean ceruko argubatec distiatu çuen chimista bat tec beçala.

4. Eta eroriric lurrerat, aditu çuen boz bat erraiten cioena : Saul, Saul, certaco hersten nauçn?

5. Eta ihardetsi çuen : nor çare çu Jauna? eta Jaunac erran eion : Jesus naiz, hersten nauçuna; gogor laiquiçu osticatcea aculuaren contra.

6. Eta hora ikharetan eta harritua erran çuen : Jauna cer nahi duçu egtuin deçadan? eta Jaunac erran eion : alcha çajte, eta sar

çaite hirian, eta han erranic içanen da cer egun behar duçun.

7. Eta harequin ibileen ciren guionac baratu eiren icituac, ençutez ongui boça, bainan ez ikhustez nihor.

8. Eta Saul alchatu cen lurretic, eta çabalduric beguiac ez çuen nihor ikhusten; hortacotz guidatu çuten escutic eta eraman Damaserat.

9. Nun egon baitcen hirur egun ikhussi gabe, yan ez edan gabe.

10. Bada bacen Damasen discipulu bat, deithua Ananias, ceini Jaunac erran baitcion iduripenean: Ananias? eta ihardetsi quen: huna, Jauna.

11. Eta Jaunac erran cion: yaiqui çaita, eta çoaci Chuchena deithua den carriarat, eta bilha çäcu Judasen etchean guion bat deithua Saul, cein baita Tarseco; ecen huna ohoizten du.

12. ( Bada *Saul* ere ikhussi çuen iduripenean guion bat sarteen, deithua Ananias, eta escuac haren gainean phausatcen, içan ceçantçat bista.)

13. Eta Ananiasec ihardetsi çuen Jauna! hainitzi ençun dut mintçatcen guion hartaz; eta cembat gaizqui egun duen çure sainduei Jerusalémen,

14. Badu hemen ere botherea Sacrificatçaila aitcindarien ganic, çure icena aiphatçen duten gücien estecatceco.

15. Bainan Jaunac erran cion: çoaci, ecen untci bat çaut herbeci dudana eramaiteco ene icena Gentilen, eta Erreguen, eta Israeleco haurren aitcinerat;

16. Ecen erakhatsico diot cembat içanen duen yassateco ene icenarentçat.

17. Ananias beraz yohan cen, eta sartu cen etchean; eta phausatuz escuac haren gainean, erran cion: Saul ene anaya, ethorteen cinen bidean aguertu çautçun Jesus Jaunac, egozri nau, içan deçaçuntçat bista, eta içan çaiten Izpiritu Sainduaz bethea.

18. Eta ordu berean erori ciren haren beguietaric ezcata batçu beçala; eta berchala içan çuen bista; guero yaiqui cen, eta içan cen bathayatua.

19. Eta yanic berriz yein çaiçcon bere indarrac. Eta Saul egon cen cembait egun Damasen ciren Discipuluequin.

20. Eta ordu berean predicatu çuen Synagoguetan, Christo, Jaincoaren Semea cela.

21. Eta aditcen çuten guiac beren baitharic campo ciren, eta erraiten çuten : ezda hau galaraci dituenac Jerusalemen icen

hau aiphateen çutenac, eta ethori dena hunat eramaitecotçat estecatuac Sacrificatçaire aitcindariei?

22. Bainan Saul azarcen cen gueruago guehiago, eta beequividecen cituen Damasen egoiten ciren Juduac, frogatzu Jesus, Christo cela.

23. Bada dembora pusca batzen ondoan Juduec elcarquidatuçutel garrequin haren hilarazteco.

24. Bainan heyen segadac ethori ciñen Saulen eçaguteetatrat. Bada beguiratcen cituzten atheac gau eta egun, haren hilaraztecotçat.

25. Bainan Discipuluec har turic gabaz, yautsi çuten mur rutic, eçarriric sasqui baten barnean.

26. Eta Saul ethorri cen on doan Jerusalemarat, bilhateen çuen yuntatcea Discipuluei; bainau guciak beldur ciren, ez baitçuten sinhesten Discipulu cela.

27. Bainan Barnabasec hartu çuen, eta eraman çuen Apostoluei, eta condatu cioten nola bidean ikhussi çuen Janna, cein mintçatu baitcayon; eta nola mintçatu cen agueriquiro Damasen Jesusen iceneau.

28. Eta hequin\* cen Jerusa-

lemen, aguerteen cela gucion eçagutcean.

29. Eta mintçatuz agueriquiro Jesus Jaunaren icenean; arrazoinateen çuen Grekei, bainan bilhateen çuten haren hilaraztea.

30. Anayec hori eçaguturic eraman çuten Cesarearat, eta egorri çuten Tarserat.

31. Holat beraz Eliçac, Judea, Galilea, eta Samaria gucion, bakhian ciren, ombidatuac içanez, eta ibiliz Jaunaren beldurrean; eta betheac ciren Izpiritu Sainduaren consolationeaz.

32. Eta guerthatu cen nola Pierresec ikhuscateen baitcituen guciæ, ethorri cen ere Liddian çaoeden sainduetarat.

33. Eta causitu çuen han guicon bat deithua Aineas, cein çortci urthe hartan etçana baitcen ohe chume batean; *ecen* paralitico cen.

34. Eta Pierresec erran cion: Aineas; Jesus-Christoc sendatçaitçala! yaiqui çaitie, eta eguiçu çure ohea: eta ordu berean yaiqui cen.

35. Eta Liddian eta Saron bici ciren guciæ, ikhussi çuten; eta Jaunari combertituac içan ciren.

36. Bada bacen Joppen emazte bat discipulua, deithua Tabitha,

(Grekez erran nahi baita Dorcas) ceina obra onez betheric baitcen eta eguiten cituen amoinez.

37. Eta guerthatu cen egun hartau eritu cela, eta hil; eta garbitu çuten ondoan, ecarri çuten gambara gora batean.

38. Eta Lidda Jopperen hurbil celacotz, discipuluec yaquinic Pierres Liddean cela, egorri cituzten bi guicon haren ganat, othoitztuz ez luzatcez heyen etcherat yoaitoco.

39. Eta Pierres alchaturic, yein cen heyequin; eta ethorri cen ondoan, cramanaraci çuten gambara gorarat; eta alharguna guciace aguertu ciren hura ganat nigarrez, eta erakhatsiz Dorcasec cembañ arropa eta beztimendia eguiten çuen heyequin cenean.

40. Bainan Pierresec guciace atheraraci cituen ondoan, belhaunico yarri cen, eta othoitz egun çuen; guero itçuliric gorphotçaren alderat; erran çuen: Tabitha, alcha çaita eta *Tabithac* çabaldu cituen bere begiac, eta ikhussiz Pierres, yarri cen.

41. Eta Pierresec eman cion escua, eta alchatu çuen; eta guero deithuric sainduac eta alhargunac, eman cioten biciric.

42. Eta hori yaquina içan cen

Joppe gucion; eta hainitzec sinetsi çuten Jauna baithan.

43. Eta guerthatu cen ego cela hainitz dembora Joppen, halaco Simon larru aphainçale baten etchean.

## X CAPITULUA.

*Corneliusen eta berce Gentil batçuen combersioa Pierresez.*

1. Bada bacen Cesarean guicon bat, deithua Cornelius, Italica deitcen cen saldoaren gueraridia baten ehuntaria.

2. Guiçon debota eta Jaincoaren beldur cena, bere familia guciarequin, eginez ere amoina hainitz yendayari, eta Jaincoa othoitzten çuela bethi;

3. *Ceinac* clarqui ikhussi baitçuen iduripenean bederatcigarren orenen ingurumenean, Jaincoaren aingueru bat yein cena hura ganat, eta erran cioenac: Cornelius?

4. Eta Corneliusen içanez beguiac baratuac haren gainean, eta gucia icituric içanez errancion: cer da, Jauna? eta errancion: çure othoitzac eta çure amoianac igan dire Jaincoaren aitcinerat, eta hetaz orhoituda.

5. Orai beraz egoraçu cembait yende Jopperat, eta ekhar-

raraz çäçu Simon, cein baita icengoithitua Pierres.

6. Ostatatua da halaco Simon larru aphainçale baten echean, çoinec baitu bere etchea ixasoa-ren hondoan; hora da erranen dautçuna cer eguiñ behar duçun.

7. Eta noiz ere Corneliusi mintçatcen cen ainguerua yohan baitcen, deithu cituen bere cerbitçarietaric biga, eta bere inguruau çaudenetaric soldado bat Jaincoaren beldur cena.

8. Ceini guciae condaturic egorri cituen Jopperat.

9. Bada biaramunean nola ibilcen baitciren, eta hurbilcen hirirat, Pierres igan cen etchearen gainerat othoitz eguiteco, seigarren orenen ingurumenean.

10. Eta guerthatu cen nola gosse baitcen, hartu nahi içan çuen yana; eta nola etchengoec aphaincen baitcioten yatecoa, suertatu çayon cençuzte bat.

11. Eta ikhussi çuen cerua çabaldua, eta untci bat yausten cela haren gainerat mihisce bat beçala, estecatuar laur buruetaric, eta yausten lurrerat.

12. Ceintan baitcen lurreco laur çangoetaco animale mota guciataric, abre bassetaric, lurtarctaric, eta ceruco chorietaric.

13. Eta boz bat içan çayon

zucendua, cioela: Pierres, alcha çaité, hil eçaçu, eta yan eçaçu.

14. Bainan Pierresec ihardetsi çuen: beguiratuco naiz, Jauna, ecen egundaiño ez dut yan gauça comunic edo liquitsie.

15. Eta boçac erran cion oraino bigarren aldiarentçat: Jaincoac garbitu dituen gauçac, ez ditçatçula itchic liquitsac.

16. Eta hori guerthatu cen hirur alditaraino, eta guero untzia itçuli cen cerurat.

17. Bada Pierres arranguran baitcen bere baithan, yaquiteco cer cen iduripen hartan ikhussi çuen haren sensua, orduan huna, bi gniçon egorriac Cornelius galdeguinez Simonen etchea, heldu ciren athera.

18. Eta oihu eguinic norbaiti, galdeguin çuten Simon, icen goithitua Pierres, han ostatatua cenez.

19. Eta nola Pierresec gogoa-quetacen baitçuen iduripenari, Izpiritua erran cion: horra hirur gniçon galdeguiten çaituztenac.

20. Alcha çaité beraz, eta yauts, eta çoaci heyetarat, guibeladuraric eguiñ gabe; ecen ni naiz egorri ditudanac.

21. Pierres beraz erautsiric Corneliusec egorri çaiçcon yentarat erran cioten: huna, çuec

bilhatcen duquena naiz; cer arraçoinendaco ethorri çarete?

22. Eta erran çuten: Cornelius ebuntaria, guicon yustua eta Jaincoaren beldur dena, eta lekhucotassun onic duena Jidueu yendaqui guciaren ganic, Jaincoaz ohartua içan da, ainguera saindu baten medioz, çure bilha egortceco ethor çaitcentçat haren etcherat, eta çure ençuteco mintçatcen.

23. Orduan Pierresec sarraciric, ostattatu cituen; eta biharamunean yohan cen heyequin; eta Joppeco anayetaric cembait yein ciren harequin.

24. Eta biharamunean sarthu ciren Cesarean. Bada Cornelius iguricateen cituen, deithuric bere ahaideac eta adisquide zaleac.

25. Eta guerthatu cen nola Pierres sartcen baitoen; Cornelius yeiten celaric haren biderat, eta aurthiquiz haren oinetarat, adoratu çuen.

26. Bainan Pierresec alchatu çuen, erraiten cioelaric: alcha çaita, ni ere guicon bat naiz.

27. Guero mintçatcen celaric harequin, sarthu cen, eta aurquitu çuen hainitz yende han cirenac bilduac.

28. Eta erran cioten: badarquique nola ez baita cilhegoui gu-

con Judu bat estecatcea arrotz bat, edo yoaitea haren etcherat, bainan Jaincoac erakhatsi dant ez nuela behar ynyatu guiconic batere, comun edo liquitz.

29. Hortacotz egorri derautaçuenaz gainen bilha, ethorri naiz guibeladuraric gabe, galdeguiten dautuet beraz cer arraçoinendaco egorri derautaçuen bilha.

30. Eta Cornelius ec erran cion: badu ordu huntas laur egun, baruretan nindaguela, eta eguiten nuela othoitza bederatei garren orenean ene etchean; eta huna, guicon bat aguertu çautan ene aitcenarat arropa argubatequin,

31. Eta erran çautan: Cornelius, çure othoitza aditua da, eta Jaincoa orhoitu da çure amoinez.

32. Egoraçu beraz Jopperat, eta handic erakharraraz eçaçu Simon, icen goithitua Pierres, cein ostattatua baita Simon larru aphainçalearen etchean, ixasoreu hondoan, hora ethorriric, mintçatuko çaitu.

33. Hortacotz berehala egorri dut çure ganat, eta ongni egun duçu ethortcez. Bada orai guciak Jaincoaren aitcinean gare aditceco Jaincoaq guri erraiteco manatua derautsun guciac.

34. Orduan Pierresec hitza hartuz, erran çuen : eguiazqui eçagutzen dut Jaincoa ez dela behaçale iduriei;

35. Bainan yendaquia gucian haren beldur dena, eta emaiten dena zucenari, agrada çayola.

36. Hori da egorri duena erraitera Israeleko haurrei, an-nontçatcearequin bakhearen berri ona Jesus-Christoz, cein baita gucien Jauna.

37. Badaquique cer guerthatu den Judea gucian hasiric Galileatic, Joannesec predicatu çuen bathayoaren ondoan;

38. Nola Jaincoac gançetu duen Izpiritu Sainduaz eta indarraz Jesus Nazarianoa, cein iragan baita lekhuz lekhu, ongi eginez, eta sendatuz demonioaren bothcrearen azpian cirenac : ceren Jaincoa harequin baitcen.

39. Eta eguin dituen gauça guciez lekhuko gare, hain ongi Juduen lurrean : nola Jerusalemen ; eta nola hilaraci duten dilindaca eçarriric çur batean.

40. Bainan Jaincoac berriz piztu du hirargarren egunean, eta eman du eçaguturic içai-teco;

41. Ez yendaye guciari, bainan lehenago Jaincoac hautatu cituen lekhueciei, guri, diot,

ceinec yan eta edan baitugu harquin hiletaric piztu den ondoan.

42. Èta manatu gaitu predicatceco yendayari, eta lekhucotassuna bihurtceco hura dela Jaincoaz establitua bicien eta hilien yuye içaitecotçat.

43. Profeta guciee lekhucotassuna bihurteen diote, norcerre sinhesten baitu hartan, errecebituco duela bere bekhatuen barkhamendua haren icenaz.

44. Nola Pierresec atehiquitzen baitquen oraino solas hori, Izpiritu Saindua yautsi cen hitça ençuten çuten gucien gainetarat.

45. Bainan Pierresequin ethori ciren circuncisatu fedexuac, miretsi eiren Izpiritu Sainduaren dohaina barrayatu celacotz Gentilen gainetarat.

46. Ecen aditeen cituzten mintçatzen *hairitz* mintçaye, eta Jaincoaren lorificatzen.

47. Orduan Pierresec hartuz hitza, erran çuen : norc errefusa ahala leçaque bathayoco ura, gueçala Izpiritu Saindua errecebitu dutenei ?

48. Manatu çuen beraz içan cizten bathayatuae Jaunaren Ice-nean. Orduan othoižtu çuten egoitez cembait egun hequin.

## XI CAPITULUA.

*Pierresec arraçoinabihurtcen  
du bere eguintcez. Antiocheco  
Eliçaren ondequidatcea.*

1. Bada Apostoluec eta Ju-dean ciren anayec, yaquin çuten Gentilec ere errecebítu çutela Jaincoaren hitça.

2. Eta Pierres berriz igan cen ondoan Jerusalemerat, circuncisioneacoac liscarvatcen ciren ha-requin,

3. Ciotela : sarthu çare guïcon circoncisaturic içan ez dire-nen etchean, eta yan duçu he-yequin.

4. Orduan Pierres hasi cen heyei condateen gucia bedera bedera, cioela:

5. Othoitzetan nincen Jop-peco hirian, eta cenzuztean iça-nez ikhussi nuen iduripenean, untei bat mihisse handi bat be-çalacoa, estecatua laur burnetaric, yausten cela cerutic eta yeiten niganat.

6. Ceintarat aurthiquiric beguiac, urcusí nuen eta ikhussi lurreco laur çangoetaco anima-letaric, abre bassetaric, lurtar-retaric, eta ceruco chorietaric.

7. Aditu nuen ere boz bat erran çautana : Pierres, alcha-çaita, hil eçaçu, eta yan eçaçu.

8. Eta ihardetsi nuen : begui-

ratuco naiz, Jauna! ecen secu-lan gauça comunic edo liquitsic ezda sarthuco ene ahoan.

9. Eta boçac ihardetsi çautan oraino cerutie : Jaincoac garbitu dituenac ez çaitzula itchic li, quits.

10. Eta hori egui içan cen hirur alditaraino ; eta guero gauça hauc guiac içan ciren itçuliac cerurat.

11. Eta huna, ordu bartan berean hirtur guïcon, egorriac içan cirenac Cesareatic ene ga-nat, aguerquidatu ciren ni nin-cen etcherat :

12. Eta Izpirituac erran çau-tan yoaitez heyequin, guibela-durari gabe ; eta sei anaya haue yein ciren ere enequin, eta sar-thu guinen guïcon haren et-chean.

13. Eta condatu çaucun nola ikhussi çnen bere etchean Aingueru bat aguertu citzayona, eta erran ciona : egoraçu guïcon cembait Jopperat, eta ekharra-razaçu Simon icengoithitua Pier-res ;

14. Ceinac erranen baitauçu gauça batçu ceinetaz içanen bait-çare salbatua, çu, eta çure et-checo guiac.

15. Eta hassi nincenean mint-çateen, Izpiritu' Saindua yautsi cen heyen gainetarat, hastetic

gure gainerat yautsi cen beçala.

16. Orduan orhoitu nintcen Jaunaren hitz huntaz, eta nola errançuen: Joannesec bathayatu du urez, bainan çuec bathaya-tuco duçue Izpiritu Sainduan.

17. Guero beraz eman diote-naz gueroztic guri Jesus-Christo Jauna sinhetsi dugunei eman dauçun beçalaco dohaina, nor ninceen ni, contracatceco Jain-coari?

18. Orduan adituric gauça hauc, einaatu ciren, eta Jaincoa lorificatu çuten, cioetelaric: Jaincoac eman diote beraz Gentilei ere biciraco urriquia.

19. Bada barrayatuac içan ci-renac Esteberen causaz alchatua içan cen hersturaz, iragan ciren Pheniciarat, Cypreat, eta Antiocherat, annontçatu gabe hitça nihori, Juduei baicic.

20. Bainan hetaric Cypriano, eta Cyreano cembait, sarthuric Antiochen, mintçatcen ciren Grekei, annontçatcez berri ona Jesus Jaunaz.

21. Eta Jaunaren escua heye-quin cen, halaco guisaz nun saldo handi batec sinhetsiric, combertitu baiteen Jaunari.

22. Eta fama yein cen Jerusa-lemen cen Eliçaren beharrieta-rat; hortacotz egorri çuten Barnabas iragaiteco Antiocherat.

23. Cein ethorriric harat, eta ikhussiric Jaincoaren gracia, bozcariotu baitcen, eta exortacen cituen guiac egoitez itchi-quiac Jaunari beren bihotz guciaz.

24. Ecen onezco guicona cen, eta Izpiritu Sainduaz, eta fedear bethea; eta yende oste handi bat yuntatu cen Jaunari.

25. Guero Barnabas yohan cen Tarserat, Saulen bilha.

26. Eta hura causituri, era-manaraci çuen Antiocherat, eta guerthatu cen urthe batez osso ossua bildu cirela Eliçarequin; eta irakhatsi çutela yendaya handi bat. Eta Antiochen cen, Discipuluac lehenbicico aldiarentçat içan cirela Guiristino.

27. Bada egün hetan cembait Profeta yautsi ciren Jerusaleme-tic Antiocherat.

28. Eta hetaric bat, deithua Agabus, alchatu cen, eta errançuen Izpirituaz gosete handi batec behar çuela ethorri mundu guian; eta, eguiazqui, ethorri cen Cesar Claudaren azpian.

29. Eta Discipuluac bakhot-chac bere ahalaren arabera, era-baquiçuten egortecceo cerbait Ju-dean ciren anayen sokhorritceco.

30. Hala eguin çuten ere, egorcez çaharrei Barnabasen eta Saulen escuz.

## XII CAPITULUA.

*Jacques hilcen dute, eta Pierres presondeguiian eçartcen Herodesec, cein hilcen baita harrez horchiquidatua.*

1. Dembora harten berean Herodes erreguea hassi cen Eliçacoetaric cembaiti gaizqui eguiten.

2. Eta ezpataz hilaraci çuen Jacques Joannesen anaya.

3. Eta ikhussiz hori agradable ceila Juduei, aurrhendatu çuen hararaciz Pierres ere.

4. ( Bada orrantça gabeco o-guien eguna cen ) eta harraraci çuen ondoan, ecarri çuen presondeguiian, eta eman çuen beguiratcerat laur escuadei, bateotcha laur soldadotaco, nahi quela ecarri Bazeo ondoan pairacuntcan populuaren aitcinean.

5. Holaz Pierres beguiratua cen presondeguiian; bainan Eliçac harençat othoitz eguiten çuen Jaincoari baratu gabe.

6. Bada Herodes haren pairacuntçarat egortceco prest cen demboran, gau harten berean Pierres lo çagon bi soldadoen artean, bi gatbez estecatua, eta athean ciren çaintçalec beguiratzen çuten presondeguiia.

7. Eta huna Jaincoaren ainguera bat guerthatu cen, eta

argui batec distiatu çuen presondeguiia, eta ainguerauc yoric Pierresen sayhexa, atçartu çuen, erraiten cioelarie : yaiqui çaité arhinqui. Eta gatheac erori ciren haren escuetaric.

8. Eta ainguerauc erran cion: guerriçat çaité, eta ecar eçatçu cure çapatac; hori egun çuen guero erran cion : aurthicaçu cure arropa cure gainerat, eta yarraic naçaçu.

9. Hura beraz ilquiric, yarraiqui çuen, bainan ez çaquien ainguerauz eguiten cena eguiazcoa cenez, ecen uste çuen ikhusten quela cembait iduripen.

10. Eta lehen eta bigarren çaintçaguiac iragan cituzten ondoan, yein ciren burdinazco athera, nundic baidohatça hirirat, eta athe hura, çabaldu cen heyei berartaz; eta atheraric, iragan çuten Carrica bat, eta orduberean Ainguera yohan cen haren ganic.

11. Orduan Pierres yeinic bere baithara erran çuen: badajquit orai eguiazqui Jaunac egorri duela bere ainguera, eta beguirattu nauela Herodesen esetic; eta Juduen iguritçapen gneietaric.

12. Eta gogoquetatu ondoan, yein cein Mariaren Joannes, icen goithitua \*Marken amarea

eteberat; nun hainitz bilduac baitciren, eta eguiten çuten ot-hoitz.

13. Eta yo çuen ondoan sarbideco athea, nescato bat, dei-thua Rhoda, ethorri cen ençuterat;

14. Ceinac eçaguturic Pierresen boça, bozcarioz ez çuen sarbidea çabaldu, bainan las-ter eguin çuen etcherat, eta an-nontçatu çuen Pierres atheistan cela.

15. Eta erran cioten : erhoa çare. Bainan seguratcen çuen erraiten çuena egua cela, eta hec erraiten çuten : haren ainguerrua da.

16. Bainan Pierresec aurrhen-datcen çuen yoaiten; eta çabaldu çuten ondoan, ikhussi çuten, eta içan ciren beren bai-tharic campo yarriac.

17. Eta harec kheinu eguinic escuaz ichil eizten, condatu cioten nola Jauna atherat çuen pre-soneguitic, eta erran cioten : annontça çatçue gauça hauc Jacquesi eta anayei. Guero ilquiric handic yohan cen beree leku batetarat.

18. Bainan eguna ethorri-ric, hassarradura handi bat içan cen soldadoen artean, yaquiteco cer eguin ahal othe cen Pierres.

19. Eta Herodesec bilhaturic,

ez baitçuen aurquitcen, haucia eguin çuen ondoan soldadoei, manatu çuen eramanac içan çi-ten pairacuntçarat. Guero yautsi cen Judeatic Cesarearat, nun egotu baitcen.

20. Bada chedetan cen guerla eguiteco Tyriendarrei eta Sido-niendarrei; bainan ethorri ciren huru ganat guciak boz batean; eta berenturic Blasta, cein bait-cen erregueren gambara çaina, galdeguin çuten bakhea, ceren eta heyen lurra hacia baitcen erreguerenetic.

21. Egun berheci batean, He-rodes beztitua arropa erreguezco batez, yarri cen bere tronuan eta hitzaurrecen cituen.

22. Hortan gainen yendaya deadarcaten cen : Jaincoaren boça eta ez guiçon batena!

23. Eta ordu berean Jaunaren ainguera batec yo çuen, ceren ez baitçuen eman loria Jaincoari; içan cen horchiquida-tua harrez, eta arimaz eguin çuen.

24. Bainan Jaincoaren hitçac eguiten çuen aitzinapen eta he-datcen cen.

25. Barnabas eta Saul, aca-batu çuten ondoan beren aldi-maitza, bihurtu ciren Jerusale-merat, harturic berequin Joan-nes, icen goithitua Mark.

## XIII CAPITULUA.

*Barnabas eta Saul egorria. Elimas ixu. Juduen sinhets gogorra. Paulobihurtcen da Gentiletarat.*

1. Bada bacen Antiochen een Eliçan, profetac eta irakhastai-leac, Barnabas, Simeon, deithua Niger, Lucius Cireniendarra, Manahem, cein içan baitcen Herodes Tetrarcarrarequin, eta Saul.

2. Eta nola cerbitçateen baitçuten Jauna beren eguinbide-tan, eta barurteen baitçuten, Izpiritu Sainduac erran çuen : berhez eçadatçue Barnabas eta Saul, deithu ditudan obrarent-çat.

3. Orduan barurturie eta o-thoitça eguinic, eta escuac he-yen gainean pausaturic, utci cituzten yositerat.

4. Hec beraz egorriac içanez Izpiritu Sainduaz, yautsi ciren Seleuciarat, eta handic ixasoz yohan ciren Cyprerat.

5. Eta Salaminen cirelaric, annontçateen çuten Jaincoaren hitça Juduen Synagoguetan; eta baçuten ere Joannes laguntce-cotçat.

6. Guero trebesaturic isla Pa-phoseraino, causitu çuten han halaco engauatçiale bat, Judu

profeta falso bat, deithua Bar-yesu.

7. Cein baitcen Serge - Paulo Gobernadore guiçon zuhurrare-quin, ceinae deitharaci baitci-tuen Barnabas eta Saul, guti-ciatus aditceco Jaincoaren hit-ça.

8. Bainan Elimasec (*erran nahi baita* magoac, ecen Eli-mas icen hune hori erran nahi du,) itchiquiteen cioten, bilhat-cen çuelarie Gobernadorearen itzuraraztea obeditcetic fedeari.

9. Bainan Saul, deithua ere dena Paulo, içanez Izpiritu Sain-duaz bethea, eta içanez beguiac haren gainean baratuac, erran çuen :

10. O guiçon enganioez eta amarruz bethea, demonioaren semea, yusticia guciaren etxaya, ez çare baratuco Jannaren bi-den itçulcetic cein baitire chuchenac?

11. Hortaeotz huna, Jauna-ren escua içanen da çure gai-nean, eta ixu içanen çare ikhussi gabe iguzquia edo cein dembo-retaraino. Eta ordu berean il-huntassun bat erori cen haren gainerat, eta itçuliz alde gue-tarat, bilhateen çuen norbait guidatuco çuena escutic.

12. Orduan Gobernadoreac ikhussiz cer gueñthatu cen, sin-

hetsi çuen, miretsuz bethea içanez Jaunaren irakhasdearentçat.

13. Eta Paulo eta barequin cirenac yohan ciren ondoan Paphosetic, Pergerat yein ciren, Pamphiliaco hiria, bainan Johannes hetaric itzuriric, bihurtu een Jerusalemerat.

14. Eta hec Pergetic abiatu-ric, yein ciren Antiocherat, Pisiadiaco hiria, eta sarturic Synagoguan errepausuko egunean, yarri ciren.

15. Eta leguearen eta Profeten irakhurtzaren ondoan, Synagogueko lehenec egorri cioten erraiterat; guiçon anayac halin bada çuen aldetic exortacionezco hitz cembait yendayarentçat, erraque.

16. Orduan Paulo yaiquiric, eta escuaz kheinu eguinic ichil citezten, erran çuen : gniçon Israeltarrac, eta çuec Jaincoaren beldur çaretenac, ençun eçaque:

17. Israeleco yendaya hunen Jaincoac hautatu ditu gure aitac, eta lorificatu du populua Egyptoco lurrean egoiten cen demboran, eta ilquiaraci cituen beso espantagarri batez.

18. Eta yassan cituen eremuan berrogoi urtheren ingurumena.

19. Eta galaraçiric cazpi yen-

daqui Cananeco lurrean, zathitu cioten lurra zorteaz.

20. Eta laur chun eta berrogoi eta hamar urtheren ingurumaren buruan, eman cioten yuyeac Samuel Profetaraino.

21. Guero galdeguiñ çuten errege bat, eta Jaincoac eman cioten Saül Kisen semea, Benjaminen tribueco guionà, eta *hola* iragan çuten berrogoi urthe.

22. Eta Jaincoac Saül idequiric, alchatu cioten David errequetçat, ceintaz ere bihurtu baitçuen lekhucotassun hau, eta erran : aurquitu dut David, Jesseren semea, guiçon bat ene bihotçaren gogocoa, ceinac eguiñen baitu ene borondate gucia.

23. Haren odoletic içan da Jaincoac, bere hitçaren arabera, atheraraci duena Jesus Israelen Salbatçaille içaitecotçat.

24. Joannesec predicatoricharen ethorquiçuna baino lehen, urriquizeo bathayua Israeleco yendaya guciari.

25. Eta nola Joannesec acabateen baitçuen bere zucenbidea, erraiten çen : nor uste duçue naicela? ez naiz *Christo*, bainan huna, ethortcen da bat ene ondotic, ceinaren çapata lotgarrien lachatceco ez bainaiz gay.

26. Guiçon anayac : Abrahamen ganic yausten cireten haurrac, eta çuen artean Jaincoaren beldur direnac çuei egorria içan da salbamendu hunen hitça.

27. Ecen Jerusalemeco biciarrec eta heyen gobernadoriec hura ez eçagutuz, Profeten hitçac complitu dituzte haren condonatcearequin, *cein hitz irakurtzen baitire errepausuco egun guciez.*

28. Eta nahi bada ez çuten causitzen hartan deus hilcearen gay cenic, ohoztu çuten Pilatus hilaraztez.

29. Eta hartaz izeribaturic ciren gauça guciæ complitu cituzten ondoan, idequi çuten zuhetic, eta ecarri çuten hobi batean.

30. Bainan Jaincoa hiletarie piztu du.

31. Eta ikhussia içan da hainitz egunez harequin Galiletic Jerusalemerat igan cirenez, cein baitire haren leklucoac yendayaren eretcean.

32. Eta annonçateen dautçugu berri ona gure aitei eguinic içan den eguintzaz, Jaincoac complitu duela gure eretcerat, guheyen haurrac guirenac, berriz piztez Jesus,

33. Izcribaturic denaren araber bigarren psalmuan : ene

Sem ea care, egun enyendratu çaitut.

34. Eta *erakhasteco* hiletarie piztu duela, ez berriz itçulceco hobirat hunla erran da : itchi-quico dautçuet Daviti eguinic içan diren aguintza sacratuac.

35. Hortacotz ere erran çuen berce lekhu batean; ez duçu haiçutuco çure Saindua ussaint dadin.

36. Ecen eguiazqui, David, cerbitçatu duen ondoan bere demboran Jaincoaren gogora, lokhartu da, eta ecarria içan da bere aitequin, eta ussaindu da.

37. Bainan Jaincoac berriz piztu duena ezda ussaindu.

38. Yaquin çaque beraz, guicon anayac! hartaz dela annontçatua çautçuenq bekhatuen bar-khamendua.

39. Eta Moiseren legueaz garbituac içan ahal ez çareten guciez, sinhesten duena garbitua da hartaz:

40. Guardia emaque guertha ez daquïquen erranic dena Profetetan;

41. Beha çaque, trufariac, eta mirets çaitenze, eta içan çaitenze gordeac; ecen egünen dut obra bat çuen demboran, obra bat ceina ez baiduçue sinhetsico norbaitec condatcei badautçue.

42. Guero Jüduen synagogua.

tic ilquiric, Gentilec othoiztu  
çuten lehen errepausuco egunean  
annontçatcez hitz hec.

43. Eta bilçarrea berheci cen  
endoan, Jaincoa cerbitçateen çuten  
Juduetaric eta proselitoejarie  
hainiteec, yarraiqui çuten  
Paulo eta Barnabas, ceinec mint  
gatearequin exortateen baitei  
tuzten Jaincoaren gracian irau  
tez.

44. Eta lehen errepausuco e  
gunean, casic hiri guciae bildu  
cen aditeeco Jaincoaren hitça.

45. Bainan Juduec ikhussiz  
oste hura, bekhaizgoaz bethe ci  
ren, themateen cirela Pauloc  
erraiten çuenari, contestatuz  
eta blasfemiatuz.

46. Orduan Paulo eta Barna  
bas ausartciarequin erran cio  
ten: çuei cen lehenbicicoric  
annontçatu behar cena Jaincoaren  
hitça; bainan utstateen duqne  
naz gueroz, eta yuyatcen çare  
tenaz gueroz çuhauriec bicitce  
bethierecoaren indigno, huna,  
itçulcen gare Gentiletarat.

47. Ecen Jaunac hola manatu  
deraucu, ciolaric: establitu çai  
tur Gentilen argui içaitecotçat,  
içan çaitcentçat heyen salba  
mendua lurraren bazterreraino.

48. Eta Gentilec ençunez ho  
ri, bozciariotcén ciren, eta lori  
ficatcen çuten Jaunaren hitça;

eta bicitce bethierecotçat des  
tinatuac içan cirenec, sinhetsi  
çuten.

49. Hola Jaincoaren hitça he  
datcen cen lur guciatarat.

50. Bainan Juduec eraçarri ci  
tuzten emazte yende handietaric  
eta debotetaric cembait eta hi  
rico lehenac; eta muguiquidatu  
çuten herstura bat Pauloren eta  
Barnabasen contra, eta cassatu  
cituzten beren bazterretaric.

51. Bainan hec iharrauxiric  
beren çangoetaric herrautka he  
yen contra, yein ciren Iconiarat.

52. Eta discipuluac bozearioz  
eta Izpiritu Sainduaz betheric  
ciren.

#### XIV CAPITULUA.

*Pauloren eguintzac Iconian,  
Lystrean, Derbean eta An  
tiochean.*

1. Bada guerthatu cen Ico  
nian cirelaric sarthu cirela el  
garrequin Juduen Synagogue  
tan, halaco guisaz mintçatu ci  
ren, nun Judu eta Grek oste  
handi batec sinhetsi baitçuen.

2. Bainan sinhetsi ez çuten  
Juduec, muguiquidatu eta su  
mindu cituzten Gentilen bihot  
zac anayen contra.

3. Bizquitartean egon ciren  
han asqui dembora, mintçatuz  
ausarqui Jaunarentçat, ceinac

bihurteen baitçuen lekhucotas-suna bere graciaren hitçari, e-guiñaraztez heyei miraculu eta gauça espantagarriric.

4. Bainan hirico ostea içan cen partayatua, batçu Juduen alde ciren, eta berceac Apostoluen alde.

5. Eta nola eguin içan baitcen asaldura bat hain ongi Gentilez nola Juduez, eta heyen gober-nadoriez, Apostoluen arbuyat-ceco, eta heyen harricatceco;

6. Hec yaquinic, ihes eguin çuten Lycaoniaco hiriatarat, Lystrearat, Derbearat, eta in-gurumenetaco aldirietarat;

7. Nun annontçatu baitçuten berri ona.

8. Bada Lystrean bacen guiçon bat, alderditua bere çangoetaric, maingu amaren sabelean hasiric, ez baitcen egundaiño ibili, eta çagona yarriric.

9. Guiçon harec aditu çuen Paulo mintçatcen, coinec beguiac haren gainerat baraturic, eta ikhussiz bañuela feda sendaturic içaitecotçat,

10. Erran cion goraqni : al-cha çaité chuchen çure çangoen gainerat eta alchatu cen saltoca, eta ibili.

11. Eta han bilduric ciren yen-dec ikhussirie Pauloc cer eguin çuen, alchatu çuzten beren bo-

çac, ciotela Lycaoneneco mint-çayeaz : Yaincobatçuec bere bu-ruac bardin eguinic guïçonei, gure ganat yautsi dire.

12. Eta deitcen cituzten Bar-nabas Jupiter, eta Paulo Mer-cúra, ceren eta hura baitcen hitça ekhartcen çuena.

13. Eta heyen hiriaren aite-nean cen Jupiterren sacrificat-çailleac ere, eramanic ceçen bat-çu khoroatuac atheco sarbide-raino ostearequin nahi çaitzoten sacrificatu.

14. Bainan Barnabas eta Paulo Apostoluec yaquinic hori, ur-ratu cituzten beren arropac eta aurthiqui ciren ostaren erdirat, deadarca,

15. Eta ciotela : guiçonac! certaco eguiten ditutçue gauça horiec? guiçonac guire gu ere, çuec beçalaco gaitzaldi bereta-rat suyet, eta annontçateen de-rautzuegu gaña ez deus horie-tarie comberti çai tezten Jainco biciari, ceinac eguin baitu cerua eta lurra, ixasoa, eta hetan di-ren gauça guciаc.

16. Ceinac iragan den men-dean, utci baititu yendaqui gu-ciаc ibilcea beren bidetan;

17. Nahi bada ez den utci-a içan lekhucotassunic gabe ongi eguinez, eta guri emanez uriac cerutic, eta uztá ugarituric, eta

hazcurria frangoqui, eta gure  
bihotzac bethez bozcarioz.

18. Eta gauça hauc erraitez,  
doy doya itzuri çuten ostea sa-  
crificateetic.

19. Hortan gainen Antiocheco  
eta Iconiaco Judu cembait gne-  
rathu ciren, escuratu çuten yen-  
daya, eta harricaturic Paulo,  
herrestatu çuten hiritic campo-  
rat uste içanez hila cela.

20. Bainan discipuluac bildu-  
ric haren ingurumenetarat, yai-  
qui cen, eta sarthu cen hirian;  
eta biaramunean yohan cen  
Barnabasequin Derberat.

21. Eta annontçatu çuten on-  
doan berri ona hiri huntan, eta  
eguin hainitz discipulu, bihurtu  
ciren Lystriarat, Iconiarat, eta  
Antiocherat.

22. Azcartuz discipuluuen iz-  
piritua, eta exortatzu irauteaz  
fedeau, eta eçagutaraciz paira-  
cunça hainitcez behar dugula  
sarthu Jaincoaren Erresuman.

23. Eta establitu cituzten on-  
doan Caharrac Eliça bakhot-  
chean, othoitzequin eta barure-  
quin, gomendatu cituzten Jau-  
nari, ceina baithan sinhetsi bait-  
çuten.

24. Guero trebesaturic Pisi-  
dia, yohan ciren Pamphiliarat.

25. Eta annontçaturic hitça  
Pergen, yautsi ciren Attaliarat.

26. Eta handic ixasoz yohan  
ciren Antiocherat, nun içan bait-  
ciren gomendatuac Jaincoaren  
graciari, acabatu çuten obra-  
rentçat.

27. Eta ethorri ciren ondoan,  
eta Eliça bildu çuten ondoan,  
condatu cituzten Jaincoac heyen  
medioz eguin cituen gauça gu-  
ciac, eta nola idequi çuen Gen-  
tilei fedearen athea.

28. Eta han egon ciren hai-  
nitz dembora discipuluequin.

## XV CAPITULUA.

*Apostoluen biltzarrea circon-  
cisionaren gainean eta yus-  
tificacionaren gainean le-  
gueaz.*

1. Bada Judeatic yautsi cire-  
netaric cembaitec irakhasten ci-  
tuzten anayac, *ciotelaric*: ez ba-  
çarete circoncisatuac Moiseren  
legueco hazturaren arabera, ez  
çaitzeteque içan salbatuac.

2. Hortan gainean liscar han-  
di bat eta escatima handi bat  
pizturic Pauloren eta Barnaba-  
sen eta heyen artean, içan cen  
trenaturic Paulo eta Barnabas,  
eta heyetaric cembait iganen ci-  
rela Jerusalemerat Apostolu eta  
Çaharren ganat, eguiteco hu-  
nentçat.

3. Hec beraz egorriac içanez  
Eliçaren ganic trebesatu çuten

Phénicia eta Samaria , condatuz Gentilen combersionea : eta causatu çuten bozario handi bat anaya guciei.

4. Eta helduric Jerusalemerat, Eliçaz içan cireu errecebitnac, eta Apostoluez ; eta Çaharrez, eta condatu ciotzoten Jaincoac egun cituen gauça guciacheyen medioz.

5. Bainan *cioten* : Pharisa-noen themacoetaric sinhetsi duten cembait, yaiqui dire, diotela-ric behar dutela circoncisaturic içan, eta gomendatu Moiseren leguea beguiratcez.

6. Orduan Apostoluac eta Çaharrac bildu ciren examinatceco eguiteco hau.

7. Eta liscar handi baten buruan Pierres yaiqui cen, eta erran *cioten* : guiçon anayac, badaquique hainitz dembora duela Jaincoac hautatu *nauela* gure artean, Gentilec aditceçatentçatene ahotic berri onecó hitça, eta sinhets ceçaten.

8. Eta Jainco bihotz eçagut-çailleac bihurtu diote lekhucotassuna, emaitez Izpiritua Sain-dua, guri beçala;

9. Eta ez du egun diferencia-ric gure eta heyen artean, garbitu dituenean heyen bihotzac fedeaz.

10. Orai beraz certaco frogat-

cen duçue Jaincoa nahiz cargatu discipuluac gure aitec ez guc ekharri ahal ez dugun uztarribatez?

11. Bainan sinhesten dugu içanen garela salbatuac Jesus-Christo Jaunaren graciáz, hala nola hec.

12. Orduan biltzarre gucia ichildu cen ; eta ençuten çuzten Barnabas eta Paulo, ceinec condatzen baitçuten cer gauça es-pantagarri eta cer miraculu Jaincoac egun çuen heyen medioz Gentilen artean.

13. Eta ichildu ciren ondoan, Jacquesec hartu çuen hitça, eta erran çuen : guiçon anayac, ençun neçaçue !

14. Simonec condatu du nola lehenbicicoric Jaincoa hassi den begui onez behateen Gentilei i-dequitceco hetaric yendaya bat haren icenari *donquitua*.

15. Eta hortan dire Apostolu-en hitçac acordatzen, izeribaturic denaren arabera :

16. Hortaric landan itxulico naiz eta berriz equidatuco dut Daviten Tabernacloa, cein erori baita, berrituco ditut egotzundarrac, eta berriz alchatuco dut.

17. Amoreagatic gaineraco guiçonec bilha deçaten Jauna, eta yendaquia guciac ere ceinen gainen galdeguina baita ene ice-

na, dio Jaunac, coinec eguiten baitu gauça haue guciak.

18. Dembora guctic Jaincoari eçagutuac çazco bere obra guciac.

19. Hortacetz bozeco naiz ez emaitez antsiaric Jaincoari combertiteen diren Gentilei,

20. Bainan heyei esribateez paira dizten yainco falsoen liquitsetaric, eta lohquieriatric, eta eta abre ithuetaric, eta odoletic.

21. Ecen Moises denaz, bada hainitz aspaldi danic hiri bakhotchean, yende predicateen dutenic, ikhussiz irakhurtua dela Synagoguetan errepausuko egunguciez.

22. Orduan on uste içan ceia Apostoluei eta Çaharrei Eliça guciarequin, egortcea Antiocherat, Paulorequin eta Barnabasequin, cembait guicon hien artean bereciac; eta egorri çuzten Judas, icengoithitua Barsabas eta Silas, ceinac baitciren lehenetaric anayen artean.

23. Eta izcribatu cioten hetaz molde huntan: Apostoluec, eta Çaharrec, eta anayec, Gentilen arteco anayei Antiochen, Syrian, eta Cilician, agur.

24. Nola aditu baitugu gutaric ilqui diren cembaitec nahasi çaituztetela bere solasez, muguituz çuen arimae, diotela cireoncisa-

turic içan behar dela, eta leguea beguiratu, gucheyei eman gabe manurie batere;

25. İçan gare bozeco, bilduac içanez bihotz berean, çuen ganat egortcez guicon bereci batçu Paulo eta Barnabas gare mai-tequin,

26. Guiçon batçu bere bicia utci dutenac Jesus-Christo gure Jaunaren icenarentçat.

27. Egorri ditugu beraz Judas eta Silas, ceinec adiaracico baitdautçue gauça berac ahoz.

28. Ecen on uste çayo Izpiritu Santuari eta guri, ez çuen gainen eçartcez cargo handiagorie gauça haue baino, ceinac behar baidire.

29. Paira çaitetzan yainco falsoei sacrificatu guacetaric, eta odoletic, eta abre ithuetaric, eta lohquieriatric; ongi egunen duçue horietaric beguiratcez. İçan ongi!

30. Hec beraz abiaturic, yein ciren Antiocherat, eta Eliça bilduric, bihurtu cioten letra hau.

31. Ceina irakhurtu baitçuten consolacione eta bozcario handirequin.

32. Judasec eta Silasec, cein baitciren ere profetac, exortatu çuzten anayac hainitz solasez, eta azcartu cituzten.

33. Eta cembait dembora han egon ciren ondoan, Apostoluen ganat egorriac içan ciren anayez bakhean.

34. Bainan Silasi on uste içan çayon han egoitea.

35. Eta Paulo eta Barnabas ere Antiochen egor ciren, irakathsiz eta annontçatuz, berce hainitcequin, Jaincoaren hitça.

36. Eta cembait egunen buruan, Pauloc erran cion Barnabasi; itçul gaitecen, eta ikuhsat detçagun gure anayac Jaunaren hitça annontçatu dugun hiri gucietan, ikuhusteco nola dieren.

37. Bada Barnabasec nahi çuen hartu Joannes berequin, i cengoithitua Mark.

38. Bainan Pauloc uste çuen ez çutela behar hartu Pamphiliaz gueroz hetaric berecia cena, eta heyequin yohan ez cena obra harrentçat.

39. Hartan gainen makhortu ciren eta bereci, eta Barnabasec harturic Mark, yohan ciren ixasoz Cyprerat.

40. Bainan Pauloc hautatnric Silas laguntcecotçat, abiatu cen handic, gomendaturic içan cen ondoan anayez Jaincoaren graciari.

41. Eta trebesatu çuten Syria eta Cilicia, azcartuz Eliçac.

## XVI CAPITULUA.

*Pauloren eguintçac eta pairacuntçac Lystrean, Troasen, Philippesen etc....*

1. Eta heldu cen Derbearat eta Lystrearat, eta huna, bacen han discipulu bat deithua Timothe, emazte Judu leyal bat ten semea; bainan aita Grek batena.

2. Coinec lekhucotassun on bat baitçuen Lystrean eta Iconian ciren anayetaric.

3. Hortacotz Pauloc nahi içan çuen yohan çadin harequin eta harturic berequin, circoncisatu çuen, lekhu hartan ciren Judenten causaz; ecen gucieb baçaquitän baren aita Greka cela.

4. Hec beraz iragaitearequin hirietan gändig, irakhasten çuten, beguirateez Apostoluec eta Jerusalemeco Caharrec eman manuac:

5. Hola Eliçac azcartuac ciren fedeac, eta guehiagotçen ciren egun guciez.

6. Guero trebesaturic Phrygia eta Galacioco lurra, debekhatua içan cioten Izpiritu Sainduaz hitça annontçatcez Azian.

7. Eta ethorriric Mysiarat, bilhatcen çuten Bitbynirat yoaitea; bainan Jesusen Izpirituac ez çayoten haiçtu.

8. Hortacotz iraganic Mysia, yautsi ciren Troaserat.

9. Nun Pauloc içan baitçuen gabaz iduripen hau : Macedonien guicon bat , aguertu cion haren aitcinerat , eta othoiztu çuen , cioela : iragan çaité Macedoniarat eta lagunt gaitçatçu.

10. Ekhussi çuen ondoan beraz iduripen hori , bilhatu guinduen ordu berean yoaitera Macedoniarat , hortaric loquidatuz Jaunac deithu quintuela heyei berri ona annontçatceotçat.

11. Holaz abiaturic Troaseitic , yohan guinen chuchen Samothracerat , eta biharamunean Neapoliserat.

12. Eta handie Philippeserat , cein baita Macedionaco aldiri huntaco lehen hiria , erdaliri *romanoa* ; eta egon guinen hiri hartan eembait dembora.

13. Eta errepausueo egunean athera guinen hiritie , eta *yohan* othoitzen eguiteco hantzura çuten lekhurat , uraren hondoan , eta yariric mintçatu guinen han bilduric ciren emaztei.

14. Eta batec , deithua Lydia , sutarrai marchanda , ceina baitcen Thyatireco hirico , eta cerbitçatcen baitçuen Jaineoa , aditu *quintuen* ; eta Jaunacbihotça idequi çayon , bihurtcadintçat

arthatsu Pauloc erraiten cituen gaucei.

15. Eta bathayatua içan cen ondoan , bere familiarequin , othoiztu guindutçan , cioelaric : yuyatcen banançu Jaunari leyal naicela , sar çaité ene etchean , eta han egbn ; eta borchacatu guinituen sarcerat.

16. Bada guerthatu cen yoaiten guinlaric othoitzerat , bathuac içan guinen nescatcha batez cein baiteen Pythonen izpiritua , eta çoince ekhartcen baitçuen irabaci handi bat bere nagusiei aztiatuz.

17. Abiatu cen guri yarraiquiteen , Paulo eta gu , deadarca , eta cioela : guicon hauc Jainco Soberanoaren cerbitçariac dire , eta annontçatzen dautçue salbamendaco bidea.

18. Eta hori eguin çuen hainitz egunez ; bainao Paulo hortaz unhaturic , itçuli cen , eta erran izpirtuari : manateen haut Jesus-Christoren icenean atheratcez nescatcha hortaric ; eta athera cen .

19. Bainan haren nagusiec ikhussiz heyen irabazbidea galdua cela , yabetu ciren Pauloz eta Silasez , eta eraman cituzten plazarat yuryen aiteincerat.

20. Eta aguerquidaraci cituzten Gobernadorei , cioetalric :

guiçon haue, eeinac Juduac bai-dire, nahasten dute gure hiria;

21. Ecen annonçatoen dute guri Romanoei errecebiteeco ez beguiratceco cilhequi ez çauz-eun oithurac.

22. Yendaya ere alchatu cen elgarrequin heyen *contra*, eta Gobernadorec urraraciric heyen arropac, manatu çuten içan cizten azotatuac.

23. Eta hainitz azote ukhaldi eman ondoan, ecarri cituzten presondeguiian, manaturic presondegui çaina beguiratcez segurtatuqui.

24. Eta *presondegui* çainac errecebbituric manu hau, ecarri cituen presondegui zokhuaz, eta tincatu ciotzoten çangoac cepo batçutan.

25. Bada gauerdi gainean, Paullo eta Silas othoitzetan çauden, cantatuz Jaincoaren laudarioac; beraz presonerrec aditeen cituzten.

26. Eta betbetan egün içan cen lur ikhara bat hain handia, nun presondeguico ciendumuac cordocatzen baitciren, eta handic lekhora athe guciac çabaldu ciren, eta gucien estecac içan ciren lachatuac.

27. Ceintan gainen presondegui çaina atçarriric, eta ikhussiz presondeguico atheac ç-

balduac, athera çuen bere ezpata, eta hil nahi çuen bere burua, ustez presonerec ihes eguin çutela.

28. Bainan Pauloc oihu egün çeu goraqui, cielaric : ez çacula egün minic; ecen guciac hemen gare.

29. Orduan galdeguinic arguia laster egün çuen *lecoztarat*, eta gucia ikharetan, aurthiqui cer Pauloren eta Silasen oinetarat.

30. Eta ilquiaraciric camporat, erran cioten : Jaunac, cer egün behar dut salbaturic içai-teco ?

31. Erran çuten : sinhets çagu Jesus - Christo Jauna baithan ; eta içanen çare salbatua, çu eta çure etchecoac.

32. Eta annontçatu cioten Jannaren hitça, hari eta haren etcheco guciei.

33. Eta gabeco ordu hartan berean, presondegui çainac hec harturic, garbitu cituen heyen çauriac, eta berehala içan cen bathayatua, hora eta harequilaco guciac.

34. Eta eramanaciric bere etcherat, cerbitçatu cioten yate-rat, eta bozcariotu cen, ceren eta bere etcheco guciequin sinhetsi baitçuen Jaincoa baithan.

35. Eta egundi cen ondoan, Gobernadorec egorri çuzten sa-

riantac, hari erraiteco : larga çaitçur yende horiec.

36. Eta presondegui çainacbihurtu cituen hitz hauc Paulori, *cioelaric* : Gobernadoreegorri dute erraiterat larga citizazten; athera çaitzete beraz orai, eta çoazte bakhean.

37. Bainan Pauloc erran çuen sariantei : azotatu guitçuen ondoan gucienc aitcinean, yuyamenduric gabe, gu Romanoac içan eta, eçarri gaituzte presondegui-an; eta orai eçarteen gaituzte campoan guericean? ezda hola içanen, bainan ethor diztela berac, eta eçar gaitzatela campoan.

38. Eta sariantecebihurtu cituzten hitz hauc Gobernadorei, ceinac beldurtu baitciren, adituric Romanoac cirela.

39. Hortacotz yein ciren heyei barkhamendu galdeguiterat; eta largatu cituzten ondoan, othoitzu cituzten yoaitz hiritic.

40. Orduan atheraric presondeguitic, sarthu ciren Lydiaren etchean, eta ikhussiric anayac, consolatu cituzten, eta *guero abiatus* ciren.

## XVII CAPITULUA.

*Pauloren eguintzac eta pairacuntçat Tessalonican, Beroian eta Athenesen.*

• • •  
1. Guero trebesaturic Amphi-

polisen eta Apollonisen gaindic, yein ciren Thessalonicarat, nun baitcen Juduen Synagogo bat.

2. Eta Paulo, bere hazturaren arabera, haratbihurtu cen, eta hirur errepausuco egnnez lis-carratu cen heyequin Izcriturez;

3. Esplicatuz eta frogatuz behar cela Christoc paira ceçan, eta hiletaric pitz çadin, eta, cion: Jesus hau, cein annontçacen baidautçuet, Christo cen.

4. Eta hetaric cembaitec sin-hetsi çuten, eta yuntatu ciren Paulori eta Silasi, eta ere Jain-coa cerbitçatcen çuten Grek oste handi batec, eta emazte noble-taric ez gutic.

5. Bainan sinhetsi ez çuten Jiduec bekhaizgoaz betheric içanez, hartu çuzten alfer gaisto batçu, eta egunic yende mulzo bat, nahassi çuten hiria, eta bort-chaturic Jasonen etchea, bilhatcen çuten Paulo eta Silas era maitecotçat yendayari.

6. Bainan hec ez causiturić, eraman çuten Jason eta cembait anaya hirico Gobernadoren aitcinerat, deadarca : hoyec ere ceinec igitu bajute mundugucia, yein dire hunat.

7. Eta Jasoneebihurtu ditubere etcherat : eta contra ethorteen dire guciæ Cesaren mana-

cuncei, dioetelaric, badela berce erregue bat, *deitcen dutena Jesus.*

8. Alchatu cituzten beraz yendaya eta hirico Gobernadoreac, ceinec aditeen baitcituzten gauça haue.

9. Bainan Jonasen eta bercen ganic bermea errecebitu çuten ondoan, utci cituzten yoaiterat.

10. Eta berehala anayec eçarri cituzten Paulo eta Silas *hiritic campo gabaz, yoaitecotçat Beroiarat.* Harat helduric sarthu ciren Juduen Synagogoan.

11. Bada hoyec Thessaloniaco Juduac baino onestagoac içan ciren, ecen errecebitu çuten hitça artha guciarequin, bilhaquinduz izeriturac egun guciez, *yaquitecotçat* gauçac erraiten çaitzoten beçala cirenez.

12. Hetaric hainitcec beraz sinhetsi çuten, eta emazte Grek noble batzuee, eta guicon batcuec ere, ez gutic.

13. Bainan Thessalonicaco Juduec yaquin çutencan Jaincoaren hitça annontçatua cela Pauloz Beroian, yein ciren, eta muguiquidatu çuten yendaya.

14. Bainan orduan anayec ilquiaraci çuten berehala Paulo hiritic camporat, ixasoco alde- rat yoaiteco beçala, bainan Silas

eta Timothe egon ciren han o- raino.

15. Eta Paulo laguntzen çutenec, eraman çuten Athene- erat, eta handic abiatus ciren errecebitu çuten ondoan *Paulo ganic manua erraiteco* Sila eta Timotheri yein cizten laster hora ganat.

16. Eta nola Pauloc igurri- catzen baitcituen Athenesen, ha- ren izpiritua khechatzen cen bere baithan, ikhussiz hiri hora ossoqui einana *yainco falsoei.*

17. Lisearcen cen beraz Synagogoetan Jiduequin eta yain- cotiarrequin, eta egun guciez plaza publicoan han causitzen cirenequin.

18. Eta Epicuriaco eta Estoicoaco egoquintsuetaric cembait abiatus ciren mintçatzen harequin, eta batquec erraiten çuten: cer erran nahi du hitzuntzi hunee? eta berce erraiten çuten: iduri du yainco arrotzen annont- çatçaille dela; ceren annontçat- zen baitzayoten Jesus, eta ber- riz piztea.

19. Eta harturic, eraman çuten Areopagoarat, eta erran ci- ten: ez guinezaque yaquin ahal cein den mintçatzen çaren irakhasde berri hori?

20. Ecen beharriac bethetzen derautzutzu halaco gauça erbest

batçuez, nahi dugu beraz yaquin cer erran nahi duten gauça horiec.

21. (Bada Atheniendar guciec eta Athenien ciren arrotzec, ez çuten berceric eguiten baicic ere erraiten eta ençuten cembait berri.)

22. Paulo beraz içanez Areopeagoaren erdian, erran *cioten*; guiçon Atheniendarrac! ikhussten çaituztet sobera debot beçala gauça gucietan.

23. Ecen iragaitearequin eta beondaztearequin çuen deborio-  
nca, ikhussi dut ere aldare bat ceintan gainen izeribaturic haitcen : **EGACUTUA EZ DEN JAINCOARI**; ohoratcen duçuena beraz eçagutu gabe, da annontçateen dautquedana.

24. Mundua eta han diren gauça guciac egun dituen Jaincoa, içanez cerueo eta lurreco Jauna, ezda egoiten escuz egun templuetan.

25. Eta ezda cerbitçatua guiçonen escuez, cerbait behar balu *beçala*, ikhussiz hura dela guciei emaiten duena bicia, hatxa, eta gauça guciac ;

26. Eta odol batetic egun du guiçonqui gucia, bici diztençat lur gucian, lehenago erreglaturic içanez heyen egoitçaren demborac eta cedarriac.

27. Bilha deçatentçat Jauna, *yaquiteco* baldin ere uquitcen abal çutenez hartzamuca, eta causitcen; nahi bada ez den gutaric bat bederaren urrun.

28. Ecen hartaz badugu bicia, hiquidura, eta içatea; çuen lotoscarietaric cembaitec erran duten arabera : haren leinua gare.

29. İçanez beraz Jaincoaren leinua, ez dugu yuyatu behar Jaincotassuna bardin dela urrhiari, edo cilharrari, edo harri guiçonen maneaz eta trebandeaz ebaquiari.

30. Bainan Jaincoac desencusatzu dembora hura, annontçacen du orai guiçon guciei, leku gucietan, urriquit dizten.

31. Ceren eta fixatu baitu e-  
gun bat ceintan yuyatu behar baitu mundu gucia yusticiaren arabera, *hortaco* seinhalatu duen  
guiçonaz; hortaz eman du fro-  
gança segura guciei, hura ber-  
riz pitzaraciz hilen artetic.

32. Bainan aditu citutzenean hitz hauc: hilateric piztea, batçu trufatcen ciren, eta bercec erraiten çuten : ençunen çaitugu oraino hortan gainen.

33. Eta hola Paulo athera cen  
heyen artetic.

34. Batçu bizquitartean yunta-  
tu ciren hari, eta sinhetsi çu-

ten ; ceinen artean ere baiten Denys Areopagita, eta emazte bat deithua Damaris, eta berce cembait heyequin.

### XVIII CAPITULUA.

*Pauloren eguintza Corinthian, etc. Eta Apollosenac Efesian.*

1. Hortaric landan, Paulo abiaturic Athenesetic, yein cen Corinthiarat,

2. Eta han causituric Judu bat, deithua Aquila, sortez Ponteco Iurreco, ceina ez cirelaric aspaldi ethorri baitcen Italiatic Priscila bere emaztearequin, ceren Claudiusec manatu baituen Judu guciac athera cizten Errumatic, zucendu cen heyei.

3. Eta ceren oficio bereco baitciren, egon cen heyequin; eta lanean hari cen. Bada heyen oficioa campiche eguale cen.

4. Eta errepausuco egun güciez ihardunguitcen cen Synagogoa, eta gainquidatcen cituen hain ongi Juduac nola Grekac.

5. Eta Silas eta Timothe yein ciren ondoan Macedoniatic, Paullo içanez Izpiritu Sainduaz bethea, bayezten çuen Juduei Jesus, Christo cela.

6. Eta nola contrestatcen baitçuten, eta blasfemiatcen, inharrauxi cituen bere arropac, eta

erran cioten : çuen odola içan bedi çuen buruaren gainean, hartaric garbi naiz ! banoha orai beretic Gentiletarat.

7. Eta handic ilquiric, sartha cen guicon baten etchean, deithua Justus, çoinec cerbitçatcen baitçuen Jaincoa, eta ceinaren etcheac Synagogoa uquitcen baitçuen.

8. Bainan Crispusec, Synagogoco buruçagniac, sinhetsi çuen Jauna baithan bere etcheeo güciequin; eta berce Corinthiano hainitcec ere hnra adituri, sinhetsi çuten, eta içan ciren' bathanayatua.

9. Bada Jaunac erran cion Paulori iduripen batean; ez çacula beldurric içam, bainan mintça çaitela, eta ez çaitela ichilt.

10. Cerentzeta çurequin bainaiz, eta nihore ez du eçatriko escuac çure gainean eguitecotçat gaizquiric; ceren yendaya handi bat badut hiri huntan.

11. Han egon cen beraz urthe bat eta sei hila bethe, irakhatsiz heyen artean Jaincoaren hitza.

12. Bainan Galion Akhaian Gobernadore cen demboran, Judu guciac boz batean alchatu ciren Pauloren contra, eta era man çuten tribunalerat;

13. Ciotelaric : guicon hunec

sinhets eraguiten du yendei Jaincoaren cerbitçatcea leguearen contra.

14. Eta nola Paulo mintçatu nahi baitcen, Galionec erran çuen Juduei : Juduac ! baliz inyusticia cembait, edo hoben cembait, ençun cineçazquiet yusto liçatequen beçambat ;

15. Bainan questione bada elhez eta hitcez, eta çuen legueaz, çuen eguitcooa da ; eeen ez naiz nahi içan yuye gauça horiez.

16. Eta yoanaraci cituen tribunaletic.

17. Orduan Grek guciec atzituric Sosthenes cein baitcen Synagogoco buruçaguia, yoiten çuten tribunalaren aiteinean, Galionec hetaz casuric eguin gabe.

18. Eta Paulo han egon cen ondoan oraino cembait dembora, despeditu cen anayetaric, eta yohan cen ixasoz Syriarat, eta harequin Priscila eta Aquila, Cenchrean ilea murritzaraci çuen ondoan, ceren eta baitçuen botu bat.

19. Guero heldu cen Epresherat, eta han utci cituen; bainan sarthurie Synagogoan hitz eguin çuen Juduequin ;

20. Ceinec othoiztu baitçuten egoitez guehiago dembora heyequin; bainan ez çuen nahi içan gogaquidatu.

21. Eta despeditu cen hetaric, cioelaric : lehen festa eguin behar dut faltaric gabe Jerusalemen, bainan bihurtuko naiz oraino çuen ganat, Jaincoac nahi badu, hola abiatu cen Ephesetic.

22. Eta noiz ere yautsi baitcen Cesarerat, igan cen *Jerusalem erat*, eta Eliça agurtu çuen ondoan, yautsi cen Antiocherat.

23. Eta han cembait egun egonic, yohan cen, eta trebesatu çuen ordu berean Galaciaco, eta Phrygiaco aldiria, azcartuz Discipulu guciac.

24. Bainan Ephesiorat yein cen Judu bat, deithua Apollos, sortcez Alexandriaco, guiçon hiztun ederra, eta yaquinsua izcrituretan.

25. Cein baitcen yaquindua Jaincoaren bidean; eta nola izpirituz khartsu baitcen, esplicatzen çuen eta irakhasten artharequin Jaunari çavezcon gauçac, nahiz ez çuen eçaguteen Joannesen bathayoa baicic.

26. Hassi cen beraz mintçaten ausarciarequin Synagogoan ; eta Priscilac eta Aquilac aditu çuten ondoan, hartu çuten berequin, eta esplicatu cioten chehequiago Jaincoaren bidea.

27. Eta nola nahi içan baitcen iragan Akhaiarat, hortara exortatu çuten anayec izeribatu

çuten Discipuluei hura errecebiteceaz, eta harat heldu cen ondoan, baliatu cen hainitz sinhetsi çutenei graciaz.

28. Ecen gainquidatecen çuen publicoqui Juduac arraçoinamendu bici batequin, frogatuz Izcriturez Jesus, Christo cela.

### XIX CAPITULUA.

*Pauloren eguintçac Ephesian, eta muguiquida haren contra.*

1. Bada guerthatu cen nola Apollos Corinthian baitcen, Pauloc trebesatu ondoan gaineco aldiri guciac, yein cela Epesiarat, nun causituric Discipulu batçu, erran cioten :

2. Errecebibu duçue Izpiritu Saindua sinhetsi duçuenean? ihartdetsi cioten : ez dugu aditu ere erraiten Izpiritu Saindua emana içan denez.

3. Eta erran cioten : cein bathayoz içan çarete beraz bathayatuac? ihardetsi çuten : Joannesen bathayoaz.

4. Orduan Pauloc erran çuen: egua da Joannesec bathayatu duela urriquimenduzeo bathayoaz, cioelarie yendayari, sinhets ceçaten haren ondoticheldu cena baithan, erran nahi da Jesus-Christo baithan.

5. Eta adituric gauça hauc,

bathayatuac içan ciren Jesus Jau-naren icenean.

6. Eta Pauloc escuac heyen gainean phausatu cituen ondoan, Izpiritu Saindua yautsi cen heyen gainerat, eta hola mintçatu ciren hainitz mintçayez, eta profetisatu çuten.

7. Eta guiçon horiec guciac hamabien inguruna ciren.

8. Guero sarthuric Synago-goan, mintçatu cen ausarciarequin hirur hila bethez, ihardu-quiz, eta sinhets eraguitez Jain-coaren Erresuminaco gauçac.

9. Bainan nola cembait gogortcen baitciren, eta ez baitçuten sinhesten, gaizqui mintçatuz Jaunaren bideaz mulzuaren aitcinean, hura apartaturic hetaric, bereci cituen discipuluac, eta iharduquitcen een e-gun guciez Tyrannus deitcen cen baten escolan.

10. Eta hori eguin cen bi urthez; holaz Azian egoiten ciren guciez, hain ongui Juduec nola Grekec, aditu çuten Jesus Jau-naren litça.

11. Eta Jaincoac eguiten çuen gauça espantagarriac Pauloren escuez;

12. Ekhartcen çuten ere ha-ren gorphutça uquitu çuten mo-canezac eta loihalac erien gainerat, eta beren eritassupeta-

ric sendatuac ciren, eta izpíritu lohiac atheratcen ciren *debrustatueticaric*.

13. Orduan Jduuetaric cembaitec exorcistac, hara huna çabilçanac, enseyatu çuten Jesus Jaunaren icenaren deitcea izpíritu lohiaz debrustatuac cirenengainerat, cioetlaric : conyuraten çaituztegu Pauloc predicationen duen Jesus hartaz.

14. Eta hori eguiten çutenac Seeva Juduaren çazpi seme ciren, cein baitcen Sacrificatçailen buruçuguietaric bat.

15. Bainan izpíritu lohiac ihardestearequin, erran çuen eçagutcen dut Jesus, eta badarquit nor den Paulo; bainan çuec, nor çarete?

16. Eta guïçona ceintan baitcen izpíritu lohia, yauci cen heyen gainerat, eta hetaz naussitaric, hain gaizqui tratatu cituen, nun ihesi yoan baitciren etche hartaric buluciac, eta çaurituac.

17. Bada hori yein cen Ephe-sean egoiten ciren Judu eta Grek gúcien eçagutcetarat; eta gúcias beldurrac hartuac içan ciren, eta Jesus Jaunaren icena loriscatua cen.

18. Eta sinhetsi çutenetaric hainitzac ethortcen ciren, confesatuz eta aishortuz eguintzac beren.

19. Hainitzec ere ibilcatcen cituztenac aztigoaco maneac, ekharri cituzten beren liburuac, eta erre cituzten gúcien aitcinean; contaquidaturic heyen precioa, causitu çuten helcen cela berrogoi eta hamar mila dirupecetara.

20. Holaz Jaunaren hitça hedateen cen hainitz, eta gauçahandiac ekharteen cituen.

21. Bada gauça hauc egün içan ciren ondoan, Pauloc Izpirituz deliberatu çuen iragaitea Macedonian eta Akhaian gaudi, eta yoaitea Jerusalemerat, cioelaric : han içan naicen ondoan, behar dut ere ikhussi Erruma.

22. Eta cerbitçatcen çuteneric biga egorriric Macedonia-rat, Timothe eta Erasta egon cen cembait dembora Azian.

23. Bainan dembora hartin nahasqueria handi bat guerthatu cen, Jaunaren bidea cela casu.

24. Ecen halaco guïçon bat deithua Demetrius, cein lancatcen baitcen cilharrerian, eta eguiten Dianaren templu chumebatçu cilharrez, eta ekhartcen progotchu hainitz oficioco langilei,

25. Hauc bildu cituen, berce lan guisa berecoan hari ciren batçuequin, eta erran cioten : o

guiçonac! badaquique gure irabaci gucia yeiten dela lan hutaric.

26. Bada ikhusten duque eta aditcen nola ez choilqui Ephesean, bainan casic Azia gucian, Paulo hunec bere sinhets era-guiteaz itçuri duela hainitz yende, erranez guiçonen escuz egui-nac direnac, hec ez direla yain-coac.

27. Ezda choilqui irriscua gureçat gure oficioa içan dadin desmenandua, bainan ere Diana yaincosa handiaren Templa i-çan ez dadin guehiago batere estimatua, eta ez bedi guertha haren mayestatea, ceina Azia guciac eta mundu guciac adoraten baitu, içan dadin ezdeustua.

28. Eta gauça haue aditu cituzten ondoan, içan ciren guciac supitaz betheac, eta deadaretcen ciren, ciotelaric : handia da Ephesianoen Diana!

29. Eta hiri gucia nahasqueriaz bethea içan cen; eta aurthiqui ciren tropaca biltoquiarren barnerat, eta eraman çuzten Gaius eta Aristarca Macedoniendarrac, Pauloren bideco lagunac.

30. Eta nola Paulo sartu nahi baitcen populuaren ganat, discipuluec ez çayoten cilheguitu.

31. Asiarcarren arteco cem-

baitec ere, ceina baitciren haren adisquideac, egorri çuten hura ganat, othoizteco ez aguertceaz-biltoquirat.

32. Batçuec beraz oihu eguiten çuten guisa batetarat, eta berceec berce batetarat, ecen bilçarrea nahasia cen, eta hainiteec ez çaquiten ere certaco bili-duac eiren.

33. Orduan Alexandre borchatua içan cen ilquitcea mulçantic eamporat, Juduec premiatuz *mintçatcerat*, eta Alexandrekheinu egninez escuaz, nahi çuen eman cembait escusa yendayari.

34. Bainan eşagutu çuten ondoan Judua cela, gucien boz bat alchatu cen, iraun baitçuen easic bi oren, oihucatuz : handia da Ephesianoen Diana!

35. Bainan hirico Scribauac emaaturic yende oste handi lura, erran çuen : guiçon Ephesianoac, cein da guiçona ez da quienna Ephesianoen hiria donquitua dela Diana yaincosa handiaren cerbitçuari, eta haren iduriari, *cein baita* Jupiter ganic yaustia?

36. Hori beraz içanez ecin ukhatua, behar çarete emaatu, eta ez egün deus lasterregui.

37. Ecen erakharri ditutçuen yende hauc, ez dire ez sacrile-

gioac, ez çuen yaincosaren blasfematzialeac.

38. Bainan baldin Demetrius sec eta harequin diren languilec, badute cerbait erraiteco norbaiten contra, bada audientça, eta bada gobernadorea, deith diten beraz batçnc berceac *harat*.

39. Eta balin baduçue berce cerbait galdeguiteco, hori trenca daiteque zucenqui bildu batean bilçarre.

40. Ecen irriscutan gare acusatnuac içaitea egun iragan den asalduraz; ez guindioquenaz gueroz bihurt ahal arraçoina muguiquida hunetaz, eta gauça hauc erran cituen ondoan, egorri çuen bilçarrea.

## XX CAPITULUA.

*Pauloren piayac eta eguintzac  
Grecian eta Azian.*

1. Bada asaldura baratu cen ondoan, Pauloc erakharri cituen discipuluac, eta hec agurturic abiatu cen yoaitaco Mace doniarat.

2. Eta iragan cen ondoan lur hetaric, eta eguiñ hainitz exortacione, yein cen Greciarat.

3. Eta han egon cen ondoan hirur hilabethe, abiseo içan ciren biburtceco Macedoniarat, ceren eta Jiduec celatac hedatu

baitcioten yohan behar çueanean Syriarat.

4. Eta Sopater Bereenec behar çuen lagundi Aziaraino; eta Thesalonicienataric, Aristarcac eta Secondac eta Gaius Derbanoac, eta Thimotec; eta Azia coetaric, Tychicusec eta Trophimusec.

5. Hoyec beraz yoanic aiteinean, iguricatu guinituzten Troasen.

6. Eta gu, ixasoz abiaturic Philippesetic, ogui alchagarri gabeco egunen ondoan, heldu guinen bortz egunen buruan hetarat Troaserat, eta han egon guinen çazpi egun.

7. Eta asteco lehen egunean discipuluac bilduaciçanez oguiaren haustaco, Pauloc, ceinac abiatu behar baitçuen bihamunean, eguiñ cioten solas bat, iraunaraci baitçayon gauerdi arteraino.

8. Bada bacen arguizagui hainitz bilduric ciren gambara goran.

9. Eta guiçon gazte bat deithua Eutycus, ceina yarria baitcen leihobaten gainean, lokhartueen Pauloren solas luciaren demboran, loac eramanic erori cen lurrerat hirurgarren estayetic, eta alchatua içan cen hila.

10. Bainan Paulo yautsiric,

hedatu cen haren gainerat, eta besarcatu çuen, eta erran çuen : ez çaitetzela trubla ecen haren arima hartan da.

11. Eta berriz igan cen ondoan, eta ogua hautsi, eta yan, eta dembora handiz mintzatu cen ondoan arguia urratceraino, abiatu cen.

12. Eta eraman çuten guicon gaztea bicia, eta içan ciren handizqui consolatuac.

13. Bada untcian sarturic, içan guinen eramanac Asoserat, nun berriz hartu behar baiguinduen Paulo; ecen hola manatu çuen ; erabaquituric eguiteco bide hora oinez.

14. Eta berriz yuntatu guintunean Asosen, harta guinuen gurequin, eta yoan guinen Mitylenerat.

15. Guero handic yoanic lehen egunean leihorreratu guinen Kiosen parrean; biharamunean heldu guinen Samoserat ; eta Trogylan baraturic ethorri guinen handic lehen egunean Miletterat;

16. Ecen Pauloc erabaqui çuen iragaitea Ephesias baratu gabe ez nahiz egon Azian; ceren eta lehiatcen baiten içaiteco, ahal bacen, Mendecoste egunean Jerusalemen.

17. Bada egorri çuen Miletic

Ephesiorat ekharrarázteco Eliçaco Çaharrac.

18. Geinac ethorriric hora ganat. erran cioten : badaquique cer guisaz içan naicen quequin Azian sarthu naieen lehen egunaz gueroz;

19. Cerbitçatuz Jauna humiliassun guciarequin, eta nigar hainitcequin, eta Juduen celataric guerthatu çaroztan pairaçunça hainitzen artean.

20. Deus gorde gabe gayon çautquen gaucetaric bainan heo çuei annontçatuz, eta irakhatsiz publicoqui, eta etchez etche.

21. Othoitz mendatuz Juduac eta Grekac combertitez Jaincoari, eta sinhestez Jesus-Christo gure Jauna baithan.

22. Eta orai huna, içanez itchequiaç Izpirituaz, banoha Jerusalemerat, yaquin gabe guerthatu behar çauzquitan gauçac;

23. Ez bada hiri bakhotchean Izpiritu Sainduac oharteen nauña, dioelaric estequec eta atsekabec iguricatcen nautela.

24. Bainan ez dut deusez ere casu eguiten ; eta ene bicia ez çaut baliosa, ene dembora akhabateen ahal dudan ber bozcariozqui, eta Jesus Jauna ganic errecebiku dudan batzarrea *cein baita* bihurtea lèkhucotassuna Jaincoaren graciaren berri onari:

25. Eta orai huna, badaquit çuetaric batec ere, ceinen artean iragan bainaiz predicatzez Jaincoaren erresuma, ez nauela guehiago ikhussico.

26. Hortacotz lekhucoera emaiten dautçet garbi naicela gucion odoletic.

27. Bada ez naiz guiphidatu çuei annontçatceco Jaincoaren conseilu gucia.

28. Guardia emaçue beraz çuhaurrei, eta saldo guciari ceinaren gainean Izpiritu Sainduac establitu baitçituzte Aphezpicu, bazcatceco Jaincoaren Eliça, ceina arra erosi baitu bere odolaz.

29. Ecen badaquit ni yoan nai cen ondoan, sartuco direla çuen artean oxo batçu hainitz perilosac, ez baidute guiphidatuco arthaldea.

30. Eta alchatuco direla çuen artecoetaric beretaric guicon batçu annontçatuko dutenac irakhasde galqnidatu batçu, cembait discipulu heyen ondotic erakharraraztecotçat.

31. Hortacotz çaudete atçarriac, orhoituz ez naicela hirur urthez baratu, gau eta egun, çuetaric bakhotcha ohartcetic.

32. Eta orai, encanayac, gomendatzen çaituztet Jaincoari, eta haren graciaren hitçari, cein kotheretsu baita çuen ombidat-

cen akhabatceco, eta çuei emateco primantza saindu guciequin.

33. Ez dut guticiatu ez cilharra, ez urrhea, ez nihoren arropa.

34. Eta badaquique çuhauriec escu hauc ornitu darotatela behar nituen gauça guciak, eta cnequin cirenei ere.

35. Erakhatsi derautçet gauça gucieta hola lanean hariz onestu behar direla alderdituac, eta orhoitu Jesus Jaunaren hitcez, çoinec erran baitu : guehiago dohaxu dela eman ahal içaitea, ecen ez deithuric içaita errecebitceco.

36. Eta *Pauloc* erran cituen ondoan hitz hauc, yarri cen bellaurico, eta eguiñ çuen othoitza hequin guciequin.

37. Orduan guciak urthu ciрен nigarretan, eta aurthiquiz Pauloren lephorat, besarcateen çuten :

38. İçanez goibeldua guciiez gainetic erran cioten hitz huntaz; ez çutela guehiago ikhussico. Eta lagundu çuten untcirat.

## XXI CAPITULUA.

*Pauloren piayeac eta eguintzac  
Syrian eta Jerusalemen.*

1. Hola beraz abiaturic, hetaric apartatu guinen ondoan,

yoan guinen chuchen Cooserat, eta lehen egunean Rhodeserat, eta handic Patararat.

2. Eta bathuric han untci bat iragaiten cena Phenician, embarcatu guinen, eta abiatu.

3. Guero ikhussiric Cypre, utci guinduen ezquerrerat, eta yoanez Syriaco alderat, heldu guinen Tyrerat, ecen untciac han utci behar çuen bere carga.

4. Eta han bathuric discipulu batçu; egon guinen çazpi egun bada erraiten çuten Izpirituz Paulori ez igaitez Jerusalemerat.

5. Bainan egun heyen ondoan abiato guinen, eta bidean eman guinen, lagunduric içanez guciez bere emazte eta haurrequin hiritic camporaino, eta belhaurricaturic itsasaldean, egun guinduen othoitza.

6. Eta batçuc berceac agurtu guinen ondoan, igan guinen untciaren gainerat, eta berceac bihurtu ciren beren etchetarat.

7. Eta hola akhabatearequin gure urezco piaya, ethorri guinen Tyrretic Ptolemaiserat, eta anayac agurtu quintuen ondoan, egon guinen egun bat hequin.

8. Eta biaramunean Paulo eta haren lagunquida abiaturic handic, yein guinen Cesarearat; eta sarthuric Philippe Ebanye-

listaren etchean, cein baitcen çazpietaric bat, egon guinen han.

9. Bada bacituen laur alaba biryinac, profetisatzen çutenac.

10. Eta nola han egon baigunen hainitz dembora, ethorri cen Judeatic Profeta bat, dei-thua Agabus;

11. Geina gure ikhusterat yeinic, hartu çuen Pauloren guerricoa, eta estecaturic bere escuac eta çangoac, erran çuen : Izpiritu Sainduac erraiten ditu gauça haue : Juduec hola estecatuco dute Jerusalemen guion guerrico hunen yabea, eta emanen dute Gentilen escuetarat.

12. Aditu quintuen ondoan hitz horiec, gu, eta toquicoac cirene, othoiztu guinduen ez çadin igan Jerusalemerat.

13. Bainan Pauloc ihardetsi çuen : cer hari çarete, nigarrez, ene bihotça atsekabetuz ? ni, prest naiz ez choilqui estecatua içaiteco, bainan ere hilceco Jerusalemen Jesus Jaunaren ice-narentçat.

14. Holaz, ez celacotz içaiten ahal itzuria *hortan gainen* ichildu guinen erraitearequin : Jaunaren borondatea içan bedi eguna !

15. Cembait eginen buruan, prestatu guinen ondoan yoait-

co, igan guinen Jerusalemerat.

16. Eta discipulu etaric cembait yein ciren ere Cesareatic gurequin, erakharriz berequin guiçon bat *deithua Mnason*, Cyprianoa, cein baitcen aspaldico discipulu bat, ceinaren etchean behar baiguinduen ostattatu.

17. Eta heldu guinen ondoan Jerusalemerat, anayec errecebiku guinduzten bozcariorequin.

18. Eta *handic* lehen egunean, Paulo yein cen gurequin Jacquesen etcherat, eta Çahar guciаc harat ethorri ciren.

19. Eta agurtu cituen ondoan, condatu çuen chehequi Jaineoac hartaz Gentilen artean egun ci-tuen gauçac.

20. Hori adituriс, lorificatu çuten Jauna, eta erran çuten *Paulori*: anaya, ikhusten duçu cembat mila Judu den sinhetsi dutenac; bainan guciаc arthaxu egon dire Moisesen leguearentçat.

21. Bada aditu dute erraiten çutaz, irakhasten duçula Gentiletan diren Judu guciаi, uzteaz Moises, erraitearequin ez çutela behar circoncisatu beren haurrac, ez biei leguearen manacunteen arabera.

22. Cér behar da beraz egun? behar da baitezpada bildu *fide-*

*len* ostea, ecen adituco dute erraiten ethorria çarela.

23. Eguię berazerranen daut-çuguna; baditugu laur guiçon egun dutenac botu bat;

24. Har eçatçu curequin, eta garbi çaithe hequin, eta eguitçu gastuac heyentçat, murritz deçatentçat ilea, eta guciec yaquin deçaten ez dela deus çureganic aditu dituzten gaucetaric, bainan aurrendatzen duçula ere leguearen beguiratcen.

25. Bainan Gentilen arteco sinhetsi dutenez, izeribatu du-gu, manaturic ez deus beguirat-cez holacoric, bainan choilqui paira dizten yainco falsoei sacrifatuac direnetaric, odoletic, abre ithuetaric, eta lohiqueria-tic.

26. Pauloc beraz harturic guiçon hec, eta biharamunean garbituric hequin, sarthu cen Templuan, erranez cein egunez heyen garbitcea içan behar cen akhabatua, eta noiz olata esqueinia içan behar cen hetaric bak-hotcharentçat.

27. Eta nola çazpi egunaе het-hetcen baitciren, Aziaco cembait Judeuc ikhussiric Paulo Tem-pluan, alchatu çuten populu guciа, eta yabetu ciren hattaz,

28. Oihuca : guiçon Israele tarrac, lagunt-gaitçatque! huna

guncion hau ceinac toqui gucietan irakhasten baitu mundu gucia populuaren contra, leguearen contra, eta toqui hunen contra, eta ceinac, guehiago dena, erakharri baitu Grek batçu Templurat, eta liquistu du lekhusaindu hau.

29. (Ecen gauça hauc bainolehen ikhussi çuten harequin hirian Trophimus Ephesianoa, eta nste çuten Pauloc erakharri çuela Templurat.)

30. Eta hiri gucia muguiquidatua içan cen, eta populua lastereatu cen harat; eta Paulo atziturie, herrestatu çuten Templitic oamporat; eta hetsi ciotgoten berehala atheac.

31. Bainan nola bilbateen baitçuten haren hilcea, errana yein cen guerraridico capitainari Jerusaleme gucia nahasquerian cela:

32. Eta berehala hartu cituen soldado eta chuntari batçu; eta lasterreguin çuen hetarat; bainan hec ikhussiz capitaina eta soldadoac, baratu ciren Pauloren yoitetic.

33. Eta capitaina hurbildurie, yabetu cen hartaz, eta manatu çuen bi gatbez esteca ceçaten; guero galdeguin çuen nor cen, eta cer egun çuen.

34. Bainan mulçuan batçuec

oihu eguiten çuten guisa batetarat, eta bercec berce batetarat, eta ceren ez baitçuen deus ikhasten ahal segurric harrabotsa cela casu, manatu çuen *Paulo* eramanic içan çadin gaztelurat.

35. Eta yein cencan mailetrat, guerthatu cen eramanua içan cela soldadoez ostearen bortchaca cela casu;

36. Ecen populuaren osteac yarraiuitecen çuen, oihuca : hil araz eçaçu.

37. Eta nola Pauloren gazteluan sarraraztea baitçoatcin, erran cion capitainari : cilhegui cerauta çuri cerbaiten erraitea? eta *capitainac* galdeguin *cion* : badaquiu Grekez mintçatcen?

38. Ez çare iragan egun hotan asaldura bat muguitu duen Egypciano hora, eta eraman eremurat laur mila erhaile?

39. Eta Pauloc erran cion : segurqui Judua naiz, sorcez Tarsecos, ceina baita Cilician, eta hiri famatu hartaco hiritarra; bainan othoizten çaitut, cilheguit çadaçu mintçatcea populuari.

40. Eta cilheguitu cion ondoan, Paulo çagolaric mailen gai-nean kheinu egun çuen escuaz populuari, eta ichiltassun handi bat eguinic, mintçatu cioten Hebraico mintçayeaz, ciolaric :

## XXII CAPITULUA.

*Pauloc eguiten du bere comber-sionearen istoria, eta begui-ratcen da azoteaganic, eca-gutaraciz bere burua Errumaco hiritar.*

1. Guiçon anayac eta aitac, aditçaue ene eranzuquia.

2. Eta aditu çuten ondoan mint-çateen ciotela Hebraico mintça-yeaz, egnin çuten oraino ichiltas-sun guehiago; eta erran çuen:

3. Segurqui Judua naiz, Tar-sen sorthua, ceina baita Cilician, bainan alchatua hiri huntan Gamalielen oinetan, eta arthazqui ikhassia gure aiten legucan, khartsua Jaincoaren *leguearent-çat*, egun quec guciac çareten beçala;

4. Eta perseguitu dut irakhas-de hori heriotceraino, estecatuz eta eçarriz presondeguictan gui-conac eta emazteac.

5. Sacrificatçale buruçaguia bera eta Caharren bilçarrea lek-huco çarozquitan beçala, cei-netaric errecebituric letra batçu *zucenduac* anayezi, hanindohan Damaserat eramaitecotçat han cirenac ere estecatuac Jerusalemerat, gaztigaraztecotçat.

6. Bada guerthatu cen nola ibilcen baininçen, eta Damaserat hurbilcen, eguerdiren gainean,

betbetan argui handi bat cerutic ethorcearequin, distiatu çuela chimista batec beçala ene ingurumenean.

7. Eta erori nincen lurrerat, eta aditu nuen boz bat erraiten çautana: Saul, Saul, certaco-perseguitcen nauçu?

8. Eta ihardetsi nuen: nor çare çu, Jauna? eta erran çau-tan: Jesus naiz Nazarenecoa, quec perseguitcen nauçuna.

9. Bada enequin cirenec on-gui ikhussi çuten arguia, eta guciac harrituac içan ciren, bai-nan ez çuten aditu mintçateen ninduenaren boza.

10. Eta erran nuen: Jausa, cer eguiñen dut? eta Jaunac erran çautan: alcha çaita, eta çoaci Damaserat, eta han erra-nen dantçue cer eguiñ behar duçun.

11. Bada eeren ez nuen deus ikhusten, argui haren içarnea cela casu, enequin cirenec gi-datu ninduten escutic, eta yein nincen Damaserat.

12. Eta guiçon bat *deithua* Ananias, Jaincoaren beldur ce-na leguearen arabera, eta çoinec baitquen lekhucotassun on bat han egoiten ciren Judu guciataric, ethorri cen ene ganat.

13. Eta hurbilcearequin erran çautan: Saul anaya, içan

çaçu bista : eta ordu berean it-  
çuli nituen beguiac hura ganat,  
*eta ikhussi nuen.*

14. Eta erran çautan : gure  
aiten Jainçoac hautatu çaitu ega-  
gutcecotçat haren borondatea,  
eta ikhustecotçat Justua , eta  
aditeeco boça haren ahotic.

15. Ecen lekhuco içanen çai-  
eo guiçon gucien eretcean ik-  
hussi eta aditu ditutçun gau-  
cez.

16. Eta orai certan çaudé?  
alcha çaité, eta içan çaité ba-  
thayatua eta garbitua çure be-  
khatuez, deithuz Jaunaren ice-  
na.

17. Bada guerthatu cen bi-  
hurtu nincen ondoan Jerusale-  
merat othoitz eguiten nuelaric  
Templuan , cenzuztua içan nin-  
cela ;

18. Eta ikhussi nuen *Jauna*  
çoinec erran baitçautan : lehiat  
çaité abiatcea Jerusalemetic ,  
ecen ez dute errecebituco nitaz  
bihurtuco dioteçun lekhucotas-  
suna.

19. Eta erran nuen : *Jauna*  
berec badaquite presondeguiyan  
çərrarazten nituela , eta azota-  
razten Synagoguetan çutan sin-  
hesten çutenac.

20. Eta Estebe çure martyra-  
ren odola ichuri cenean , han  
nincen ni ere , gogaquidateen

nuen haren hilceari , eta begui-  
ratcen nituen hiltcen çutenen  
arropac.

21. Bainan erran çautan : çoa-  
ci , ecen egorrico çaitut urrun  
Gentiletarat.

22. Eta ençun çuten hitz hun-  
taraino , bainan orduan alchatu  
cituzten beren boçac , ciotelaric :  
idec çäçü lurretic holaco guiçon  
bat , ecen ezda combeni bici da-  
din.

23. Eta nola oihu eguiten  
baitçuten goraqui , eta iharraus-  
ten beren arropac , aurthiquit-  
cen çuten herraux airean ;

24. Capitainac manatu çuen  
eraman ceçaten gaztelurat , eta  
manatu çnen eman ceçoten tor-  
mentac azoteaz , yaquitecotçat  
cer arraçoinendaco hola oihu  
eguiten çuten haren contra.

25. Eta bagatu çuten ondoan  
uhalez , Pauloc erran çuen ha-  
ren hondoan cen ehuntariari ,  
cilhegui çautçue guiçon Roma-  
no baten azotatea , eta guciz  
gainetic oraino , yuyatua içan  
ez déna ?

26. Hori ehuntariac adituric ;  
yohan cen capitaina ganat haren  
ohartcerat , cioelaric : ikhusaçú  
cer duçun eguiteco ; ecen gui-  
çon bau Romanoa da.

27. Eta capitaina yein cen  
Paulo ganat , eta erran cion :

erran eçadaçu, Romanoa çare? eta ihardetsi çuen : bai segurqui.

28. Eta capitainac erran cion ; erosi dut hiritargo hau diru han-ditan ; eta Pauloc erran çuen : bainan nic, badut sortezez.

29. Hortacotz azotatu behar çutenac urrundu ciren ordu ber-ean hora ganic ; eta capitainac eçagutu çuen ondoan Errumaco hiritar cela, beldurtu cen, este-caraci çuelacotz.

30. Etabiharamunean yaquin nabi eguiaz cer arraçoinez acu-satua cen Juduez, lacharaci çuen, eta manaturic Sacrificatçail-e aitcindariac eta conseilu gucia-bil çadin, erakharraraci çuen Paulo, eta aguerraraci çuen he-yen aitcinerat.

### XXIII CAPITULUA.

*Paulo yo Sanhedrereren aitcinean. Juduec elcarquidatcen dute haren hilcea. Eramana da Cesarearat.*

1. Eta Pauloc behatuz arretaz conseiluari, erran çuen : guiçon anayac? conciencia onez ibili naiz Jaincoaren aitcinean egun huntaraino.

2. Hortan gainean Ananias Sacrificatçail-e buruçaguiac ma-natu çuen haren hondoañ cire-nei, yo ceçaten beguitartean.

3. Orduan Pauloc erran cion : Jaincoac yoco çaitu, pareta chu-ritua, yarriric çaudelarie ene yu-yatceco leguearen arabera ma-natcen duçunaz gnerez, leguea hautsiz, içan nadin yea.

4. Eta han cirenec erran cioten : arbuyateen duçu Jaincoaren Sacrificatçail-e buruçagnia?

5. Eta Pauloc erran çuen : anayac; ez naquien Sacrificatçailo buruçaguia cenez; ecen iz-cribatua da; ez çare gaizqui mint-çatuco çure populuaren Princeaz.

6. Eta Pauloc yaquinez *hetaric* pharte bat Sadduceanoa cela, eta bercea Pharisaua deadar-catu cen conseiluan; guiçon anayac! Pharisaua naiz, Phari-sauaren semea, esperançarent-çat eta hiletaric piztearentçat eçarria naiz yuyamenduan.

7. Eta hori erran çuen on-doan, muguiquidatu cen nahas-queria bat Pharisauen eta Sad-duceanoen artean; eta bilçarrea içan cen partayatua.

8. Ecen Sadduceanoec errai-ten dute ez dela berriz pizteric, ez aingueruric, ez izpirituric, bainan Pharisäuec sostengateen dute bata eta bercea.

9. Eta eguin içan cen oihu handi bat. Orduan Seribauac Pharisauen alde yaiqui ciren eta

contrestatu çuten; ciotelarie:ez  
dugu causitcen deus gaistoric  
guiçon huntan, bainan izpiritu  
bat edo ainguero bat mintçatu  
baçayo; ez deçagun guerla egui  
Jaincoaren contra.

10. Eta nola egui baitcen  
nahasteria handi bat, capitainac  
beldurrez Paulo phusquetan e-  
çarria içan çadin hetaz, manatu  
çuen soldadoac yauts cizten, eta  
alcha ceçaten heyen artetic, eta  
eraman ceçateu gaztelurat.

11. Eta handic lehen gabean,  
Jauna aguertu cen haren aitci-  
nerat, eta erran cion: Paulo  
içan eçaçu animo; ecen nola le-  
khucotassunabihurtu baitu  
nitaz Jerusalemen, guisa berean  
behar dautaçu erebihurtu Er-  
ruman.

12. Eta egundi cen ondoan,  
Judu cembaitec cinazquida bat  
eguin çuten yuramentuca, ez çu-  
tela yanen ez edanen Paulo hil  
çuten arteraino.

13. Eta berrogoi baino gue-  
hiago ciren cinazquida hau e-  
guin çutenac.

14. Eta zucendu ciren Sacri-  
ficiatçaille aitcindariei eta Çahar-  
rei, eta erran cioten: obligatu  
gare yuramenturequin, madari-  
catuac içaiteco penaren azpian,  
ez guinuela dastatuco deuseta-  
rie, Paulo hil dugun arteraino.

15. Çuec beraz orai yaquin  
araz eçoçue capitainari consei-  
luaren phartez, erakhararaz de-  
çautçuen hura bihar, hobequi  
examinatceco estacurian haren  
eguitecoa, eta prest içanen ga-  
re haren hilceco hurbildu dan  
baino leben.

16. Bainan Pauloren arreba-  
ren semeac yaquinic cinezquida  
hori, yein cen eta sarthu cen  
gazteluan, eta salhatu cion Pau-  
lori.

17. Eta Pauloc ehuntarietaric  
bat deithuric, erran cion: era-  
man çäçu guiçon gazte hau ca-  
pitainari; ecen badu cerbait hari  
salhatceco.

18. Hartu çuen beraz, eta  
eraman çuen capitainari, eta er-  
ran cion: Paulo presondeguian  
denac deithu nau eta othoiztu  
nau guiçon gazte hau çure ga-  
nat ekharraraztea çoinec baitu  
cerbait çuri erraiteco.

19. Eta capitainac harturic  
escutic, urrundu cen, eta gal-  
deguin cion: cer duçu eni sal-  
hatceco?

20. Eta erran cion: Juduec  
cinazquidatu dute çure othoiz-  
tea Paulo egortcez bihar conseilurat,  
hobequiago examinat-  
ceco estacurian cerbaitez;

21. Bainan eż çäçula gogo-  
quidat: ecen lietaric berrogoi

guiçon baino guehiago celatetan daude haren contra, ceinac obli-gatu baitire, yuramenturequin, madaricatuac içaiteco penaren azpian, ez yatea ez edatea, hura hil duten arteraino; eta orai guciac prest dire, iguricatcen dutelaric cer cilheguituco dio-teun.

22. Capitainac beraz egorri çuen guiçon gaztea, gomendatuz ez nihori erraitez gauça horiec eçagutaraci ciotzola.

23. Guero deithuric ehuntari batçu erran cioten: prest itchic çatçue bi chun soldado gabazeo hirur orenetaco, eta hiruretan hogoi eta hamar guiçon çaldiz-coac, eta bi chun artcher, yoaiteco Cesarearat.

24. Eta artha içan eçaque çaldi cembait prest içan dadin, Paulo iganaraciric, eraman de-çatentçat segurtatuqui Felix Go-bernadorearen ganat.

25. Eta izcribatu eion letra hau:

26. Cladius Lysias, Felix gainditu Gobernadoreari, agur.

27. Nola guiçon hau ceina atzituric içan baita Juduez, he-taz hilic içaiteco phunduan baitcen, haldu naiz harat soldado-equin, eta ilqui derotet, eça-gutu ondoan hiritar romanoa cela.

28. Eta yaquin nahiz, certaz acusatcen çuten, eraman dut heyen conseilurat.

29. Nun causitu baitut acusatua cela heyen leguea darocan cerbaitez eta ez çuela yauquitu heriotcea edo presondeguia mереchi duen hobenic batere,

30. Eta içanic ohartua Juduec haren contra hedatu dituzten segadez, berehalaigorri deraut-cut, manaturic haren acusatçialeac erraiteco çure aitcinean haren contra dituzten gauçac: Içan ongui.

31. Soldadoec beraz, manatu içan cioten beçala, hartu çuten Paulo, eta eraman çuten gabaz Antipatriserat.

32. Etabiharamunean itçuli ciren gaztelurat, utciric Paulo çaldizcoen laguntçaren azpian;

33. Ceinac Cesarearat helduri, bihurtu çuten letra Gobernadoreari, eta esqueini ceroten ere Paulo.

34. Eta Gobernadoreac irakhurtu çuen ondoan letra eta galdeguin çuen ondoan Paulori cein probincietaco cen, adituri Ciliciaco cela,

35. Erraneion: adituco çaitut, çure acusatçialeac yein diren ondoan, eta manatu çuen içan çadin beguiratua Herodesen pa-lacioan.

## XXIV CAPITULUA.

*Pauloren accusacionea eta eran-  
zuquia Felix Gobernadored-  
ren aitcinean.*

1. Bada bortz egunen buruan Ananias Sacrificatçiale buruça-guaia yautsi cen Çaharrequin, eta halaco hiztun bat, *deithua Tertullus*, ceimac aguertu baitciren Gobernadorearen aitcinerat Pauloren contra.

2. Eta Paulo deithua içanez, Tertullus hassi cen haren acusateen, ciolaric : gainditu Felix, nola çure medioz goçatcen baitugu bake handi bat, eta hainitz manacuntça on içan baita emanic çure çuhurtassunaz,

3. Eçagutzen dugu hori dembora gucian eta toqui gucietan esquer onequin.

4. Bainan hainitz dembora çuri galaraztecotçat, othoitzen çaitut gure ençuteaz, çure chuchentassunarequin hitz labur hautan :

5. Causitu dugu hau dela guicon bat hainitz perlosa, asaldura pizten duena Judu gucien artean mundu gucian, eta Nazarianoen themaco buruçaguaia dela.

6. Nahi içan du ere profanatu Templa; eta atzitu dugu, eta nahi içan dugu yuyatu gure leguearen arabera.

7. Bainan Lysias capitaina han guerthaturic, idequi deraucu escuen artetic borchaca handi batez.

8. Manatuz haren acusatçai-leao ethor eizten çure ganat, eta çubaurec yaquiten abal duçu bera ganic, interroatuz acusateen dugun gauça guciez.

9. Jiduec gogaquidatu çuten hori, eta erran gauçac hola ci-rela.

10. Eta Gobernadoreac Paulori kheinu egun cion ondoan mintçateeco, ihardetsi çuen : yaquinez baduela ya hainitz urthe yendaya hunen yuye çarela, eguiten dut neure eranzuquia fidancia guehiagorequin ;

11. Eçagutzen ahal duçunaz gueroz ez duela hamabi egun baino guehiago igan naicela Jerusalemerat Jaincoaren adorat-cecotçat.

12. Bainan ez naute causitu Templa iharduquitzen niho-requin, ez populu saldo bat eguiten, nahiiz Synagoguetan, nola hirian.

13. Eta ez laquiquete frogatzen orai acusateen nauten gauçac.

14. Bada aithortzen dautçut hau, thema deitzen duten bi-deaz, cerbitçatzen dudala ene aiten Jaincoa, sihetsiz leguean

eta Profetetan izcribaturic diren gauça guciac.

15. Eta içanez ustea Jaincoa baithan hiletaric berriz piztea, hain ongi yustuen nola inyustuen, ceina hoyec berec iguricatcen baidute, ethorrico dela.

16. Hortacotz ere lanean hari naiz içaiteco conciencia chahu Jaincoaren aitcinean, eta guiçonen aitcinean.

17. Bada hainitz urtheren buruan, ethorri naiz amoina eguitecotçat ene yendayan, eta olatac *Jaincoari*.

18. Eta hortaz ocupatua bainingen, causitu naute garbitua Templan, mulçocaric ez harrabotsic gabe.

19. Eta Aziaco *halaco* Judu batçutaric ciren;

20. Behar çutenac aguertu cure aitcinerat, ene acusatceco, balinbaçuten cerbait ene contra.

21. Edo hoyec berec erran deçaten, causitu badute nitan inyusticia cembait, aguertua içan naicen ondoan conseilurat;

22. Ez bada heyen aitcinean goräqui erran dudan hitz hau; egun çöetaz eguitecotan eçarria naiz, hiletaric berriz piztearentçat.

23. Eta Felixec adituric gauça hauc, egorri çuen berce aldibat taraino, ciolaric; hobequi eca-

gutuco dudan ondoan cer den bide hora, eta Lysias capitaina yautsi den ondoan, eçagutuco dut ossoqui çuen eguitecoa.

24. Eta manatu çuen ehuntari bat Paulo içan çadin beguiratua, bainan içan ceçan ere atsin cembait, eta ez ceçaten debeca, harenataric nibor hora cerbiçatetic, edo hora ganat ethortetic.

25. Bada cembait egunen buruan, Felix yein cen Drusilla here emaztearequin, ceina baitcen Judua, eta egorri çuen Pau Loren bilha, eta aditu çeu mintçatcen Christo baithan den fedeaz.

26. Eta nola mintço baitcen yusticiaz, eta goguriaz, eta ethortceco yuyamenduaz, Felixeo gucia harritua ihardetsi çuen; oraico çoaci; eta astia içanen dudanean, berriz deithuco çaitut.

27. Ustez ere dembora berean Pauloc emanen ciola cembait diru lachoan eçartcecotçat, hortacotz egortzen çuen maiz baren bilha, eta harequin mintçatcen cen.

28. Bada bi urthe bethe ondoan, Felixec içan çuen bere ondoco Porcius Festus, coinec nahiz atsin egun Jiduei, utsi çuen Paulo presondeguian.

## XXV CAPITULUA.

*Pauloc escudatuz Festusen ait-  
cinean gandeitzten da Cesari.*

1. Festus beraz ethorreric pro-  
vinciarat, igan cen hirur eguna  
nen buruan Cesareatic Jerusale-  
menat.

2. Eta Sacrificatçiale buruça-  
guia, eta Juduen arteco lehe-  
nac, aguertu ciren haren ait-  
cinerat Pauloren contra, eta  
oithoizten çuten *Festus*;

3. Eta galdeguiten cioten gra-  
cia hau Pauloren contra, erak-  
harraraz çeçan Jerusalemerat;  
ecen eelatac hedatu cituzten bi-  
dean haren hilceco.

4. Bainan Festusec ihardetsi  
cioten, Paulo ongi beguiratua  
cela Cesarean, eta behar çuela  
jaster berac ere harat bihurtu.

5. Hortacotz, cion, çuen ar-  
tean denetaric ahal dena, yauts  
bedi enequin; eta balinbada cem-  
bait hoben guicon hartan, acusa  
deçatela.

6. Eta egon gabe hequin ha-  
mar bat egun baino guehiago,  
yautsi cen Cesarearat; eta bi-  
haramunean yarri cen tribuna-  
lean, eta mahatu çuen Paulo i-  
çan çadin erakharria.

7. Eta nela harat yein baitcen,  
Jerusalemetic yautsi ciren Ju-  
duec inguratu çuten, cargatzuz

bainitz hoben handiz, ceinac ez  
baitçuzten frogatzen abal.

8. Horri Pauloc ihardesten  
çuen ez çuela bekhaturic egun  
deusetan, ez Juduen leguearen  
contra, ez Templauren contra,  
ez Cesaren contra;

9. Bainan Festusec nahiz at-  
sin egun Juduei, ihardetsi çuen  
Paulori, eta erran: nahi duçu  
igan Jerusalemerat, eta han içan  
yuyatua gauça horietaz ene ait-  
cinean?

10. Eta Pauloc erran çuen:  
aguertzen naiz Cesaren tribu-  
nalaren aitcinerat, nun behar  
baitut içan yuyatua; ez dut bi-  
degaberic batere egun Juduei,  
ongui eçagutzen duçun beçala  
çuhaurec.

11. Baldin egun badiotet bi-  
degaberic, edo egun badut cer-  
bait hilcearen gay denic, ez dut  
eza emaiten hilceari; bainan  
acusatzen nauenetaric deus ez  
bada, nihorc ez neçaque larga  
heyei: gandeitzen dut Cesari.

12. Orduan Festusec hitzera-  
quidaturic conseiluarequin, i-  
hardetsi *cion*: gandeiztu duçu  
Gesani? yohanen çare Cesaren  
ganat.

13. Bada cembait egunen bu-  
ruan, Agrippa Erreguea eta Be-  
reniza yein ciren Cesarearat Fes-  
tusen agurtcerat.

14. Eta han egotu ciren ondoan hainitz dembora, Festusec aiphueguin çuen Erregueri Pau Loren eguitecoaz, ciolaric : guicon bat prisoner utcia içan da Felixez;

15. Ceinaren gainean, nola Jerusalemen bainintcen, Sacrificatçaire aitcindariac eta Juduen Çaharrac aguerquidatu ciren, galdeguinez haren condenacionea;

16. *Bainan* ihardetsi diotet, ez dela Romanoen hantzura norbaiten hilcerat largatcea, acusatua denac bere acusatçaireac aitcinean içan tuen baino lehen, eta içan ahala escudatceco acusacioneaz.

17. Humat ethorri ciren ondoan beraz, epheric batere eman gabe, biaramunean yarria nintçalaric tribunalean, manatu nuen guicon hura içan çadin era-kharria :

18. Eta haren acusatçaireac han içanez, ez cioten eman *acusatuco çutela* uste nuen hobenic batere.

19. *Bainan* baçuten ez daquit cer liscar heyen erreligionearen gainean, eta halako Jesus hil den batez, ceina Pauloc segurateen baituen bici ceda.

20. Bada nola hainitz penetan balnincen yaquitecotçat cer cen,

galdeguin nuen *guiçon huni* na-hi çuenez yohan Jerusalemerat eta han yuyatua içan gauça horietaz.

21. *Bainan* gandeiztu çuela-cotz, galdeguinez guelditua, içaitea Augustaren eçagutocera-rat, manatu nuen begiratua içan çadin, Cesaren ganat egorri nuen arteraino.

22. Orduan Agrippac erran-cion Festusi : ongi nahi nuque ere mintçatu guicon hura. Erran çuen :bihar adituco duçu.

23. Biharamunean beraz Agrippa eta Bereniza yeinic han-digoyequin, eta sarthuric au-dientcian capitainequin eta hirico lehenequin, Paulo erakharria içan cen Festusen manuz.

24. Eta Festusec erran çuen : Agrippa Erreguea, eta quec guciac hemen gurequin çaretenac, ikhusten duçue guicon hau ceinaren contra Jerusalemeco Judu oste gucia yein baitçaut galde-guiterat, hain ongi Jerusale-men nola hemen, oihuca ez çuela guchiago biciterat utci behar.

25. *Bainan* nie causituric ez çuela deus eguin hilcearen gay-cenic, eta berae gaudeitzuric Augustari, erabaqui dut hari egortceco.

26. *Bainan* ez dudalacotz deus securic Emperadoreari izcribat-

ceco, aguerraraci dut çuen aitcinerat, eta bereci qui çure, Agrippa Erreguea, amoreagatic examena eguin ondoan, içan deçadan cer izcriba.

27. Ecen iduriteen çaut ez dela combeni egortcea prisoner bat, sinhalatu gabe eguintçac ceinetan gainen acusatcen baiute.

## XXVI CAPITULUA.

*Pauloc eguiten du bere eranzuquia Agrippa Erreguearen aitcinean.*

1. Eta Agrippae erran çuen Paulori : cilhegui çatu mintçatcea çuretçat. Orduan Pauloc hedatzu bere escua, hunla mintçatu cen bere eranzuquiarentçat.

2. Agrippa Erreguea ! neure burua dohaxu derancat behar dudalacotz ihardetsi egun çure aitcinean, Juduez acusatua naiçen gauça guciez.

3. Eta guciz ceren eçagutça osso bat baduçun Juduen arteco hantzura eta questione guciez; hortacotz, othiezten çaitut ençun neçaçun pacienciarequin.

4. Jerusalemen ene yendayaren artean, ene leben gaztetasunaz gueroz eman dudan bicia, eçagutua da Judu guciez;

5. Ecen badaquite aspaldi,

( nahi badute aithortu,) ene aitcinecoez gueroztic bici içan naicela Pharisau, gure ereligioneco thema chuchenaren arabera.

6. Eta orai aguerquidateen naiz yuyamendura Jaincoac gure aitei eguin duen aguinzaren esperantçarentçat.

7. Cein aguinzara gure hamabi tribuec, cerbitçatcen dutenec Jaincoa gau eta egun, uste baidute helcea, eta esperanza horrentçat naiz, o Agrippa Erreguea, Juduez acusatua.

8. Cer ! itchiquitcen duçue gauça bat ecin sinhestecoa Jaincoac hilac berriz pitz detçan ?

9. Nic uste içan dut ez cela deus eguin behar ez nuenic Jesus Nazarianoaren icenaren contra.

10. Hori eguin ere dut Jerusalemen, ecen prisoner eguin tut sainduetaric hainitz, errebitu nuen ondoan ahala Sacrificeaile aitcindarietaric, eta hilarazten citutzenean, emaiten nuen ene boça.

11. Eta maiz Synagogo gucietan gaztigatcearequin, bortchatcen nituen blasfemacera, eta fulia batec hartua içanez heyen contra, perseguitcen nituen hiri arrotzetaraino.

12. Eta nola hortaco yoaiten

bainincen Damaserat Sacrificat-  
çaile aitcindarietaric ahalare-  
quin eta mandatuarequin ,

13. Ikhussi nuen o Erreguea !  
bidean eguerdi bethean, ceruco  
argui bat, iguzquiaren ingurua  
baino handiagoa, ceinac içarnia-  
tu baitçuenene ingurueta, eta  
bidean enequin cirenenetan .

14. Eta guciаc eroriаc iça-  
nez lurrerat, aditu nuen boz bat  
mintçatcen çautana, eta erraiten  
çuena hebrauezco hitzcunçaz :  
Saul, Saul, certaco perseguit-  
cen nauçu ? gogor çauçu osti-  
catea akhuluен contra .

15. Orduan erran nuen : nor  
çare çu, Jauna ? eta ihardetsi  
çuen : Jesus naiz perseguitcen  
nauçuna .

16. Bainan alcha çaitе, egon  
çaitе chutic, ecen aguertu nit-  
çauçu, çure ministro eta leku-  
co establitceco, hain ongi ik-  
hussi duçun gaucez, nola bercez  
ceinentçat aguertuko bainitçau-  
çu ;

17. Libratcen citudalaric po-  
pulua ganic, eta Gentiletaric,  
ceinetarat egortcen baitcitut o-  
rai,

18. Cabalcecotçat heyen be-  
guiac amoreagatic comberti di-  
ten ilhumbataric arguari, eta  
Satanen botheretic Jaincoari; eta  
errecebi deçaten beren bekha-

tuen barkhamendua, eta nitan  
duten fedeaz santificatu direne-  
tan parte bat.

19. Holaz, o Agrippa Erre-  
guea, ez naiz içan sinhets gogor  
ceruco iduripenari.

20. Bainan annoñçatu dut le-  
henbicicoric Damasen cirenei,  
guero Jersalemen, eta Judeaco  
lur gucietan, eta Gentilei, urri-  
quit diten, eta combertit Jain-  
coari, eguitearequin urriquirat-  
ecco behar diren obrac.

21. Hortacotz Jiduec hartu  
naute Templan eta bilhatu du-  
te ene hilcea :

22. Bainan lagundua içanic  
Jaincoaren laguntzaz, bici naiz  
oraidino, bihurtuz lekhucotas-  
suna chiquiei eta handiei, eta  
deus ez erranez Profetee eta  
Moisesec guerthatu behar direla  
annoñçatu dituztenac baicic ;

23. Behar cela Christoc paira-  
çeçan, eta içan çadin berriż  
piztuetaric lehena ekhartecotçat  
arguia populuari eta Gentilei.

24. Eta mintçatcen celaric  
holá bere eranzuguiarentçat,  
Festusec erran çuen gorąqui :  
cençutic campo çare, Paulo !  
çure yaquintassun handiac eçart-  
cen çaitu cençutic campoan.

25. Eta Pauloc erran çuen :  
ez naiz cençutic campo ; gain-  
ditu Festus ; bainan erraiten di-

tut hitz hauc eguiizcoac eta cen-  
çu onean.

26. Ecen Erreguec badu gauça hoyen eçagutça; eta mintço naiz ausarqui haren aitcinean, ceren onesten baitut gauça hauc guciac yaquin ditçan; ecen hauc ez dire içan eguinac guericean.

27. O Agrippa Erreguea! sinhesten duçu Profetetan? badaquit sinhesten duçula.

28. Eta Agrippac ihardetsi çuen Paulori: sinhets eraguiten dautaçu hurren Guiristino içaitea.

29. Eta Pauloc erran cion: deseatcen nuque Jaincoaren aitcinean, ez choilqui çu, bainan ere egun ençuten nauten guciac, içan lizten, ez choilqui hurren, bainan ossoqui ni naicen beçala, salbu esteca hauc.

30. Pauloc erranic gauça hauc; Erreguea alchatu cen, Gobernadorea eta Berenicearequin, eta hequin yarriac cirenac ere.

31. Eta baztertu ciren ondoan, hitzeraquidatu çuten beren artean, eta erran çuten: guicon hunec ezdu deus egnin hilcearen edo presondeguiaren gaydenic.

32. Eta Agrippa erran çuen Festusi: guicon hau içaiten ahal cen largatua ez balu Cesari gandeitzu.

*Pauloren eta bere lagunen embarcacionea Italiarat; heyen untciaaren deseguitea.*

1. Bada erabaquitua içan ondoan embarcatuco guinela Italiarat, eman çuten Paulo berce prisoner cembaltequin Julus içena çuen bati, Augusta deitzen cen guerraridia baten ehuntaria.

2. Eta iraganic Adramitaco untcia batetarat, abiatu guinen yoaiteco Aziaco alderat, eta Aristarca Macedoniana Thessalonicaco hiricoa, gureguin cen.

3. Ondoko egunean heldu guinen Sidonerat; eta Julusec erabiliz Paulo ikhustaterequin cilheguitu cion yoaitea bere adisquiditarat, hartaz arthea içan ceçatentçat.

4. Guero handic abiaturie, itchiqui guinduen gure bidea Cypreen behereco aldetic, ceren eta baiceac contra baitciren.

5. Eta Ciliciaren eta Pamphyliaren parreko ixasoac iragan ondoan, yein guinen Myrarat, Lyciaco hiria.

6. Nun ehuntariac causitu baitçuen Alexandriaco untcia bat yoaiten cena Italiarat, ceintarat iganaraci baiguintuen.

7. Eta nola yoaiten baiguinen

pissuqui cembaç egunez, nun doi doya heldu baiguinen Gni-deco bistaraino, ceren eta hai-ceac ez baitcaucun buhatcen batere, iragan guinen Cretaren behereco aldetic, Salmoneco alderat.

8. Eta han nekhez ubasterre-tic yoanez, yein guinen toqui batetarat deithua dena Port-ederrac, ceinaren hurbil baitcen Laseaco hiria.

9. Eta nola iragan baitcen hainitz dembora, eta ya ugaraoa perlosa baitzen, ikhussiz barura ere ya iragana cela, Pauloc exortatzen cituen,

10. Erraiten ciotelaric: guionac, ikhusten dut ugaraoa perlosa içanen dela, eta irriscutan içanen garela ez choilqui untcico cargaren galceari, bainan ere gure bicien.

11. Bainan ehuntariac sinhesten quen hobequi unci guidarria eta untciaten nagusia, Pauloc erraiten quena baino.

12. Eta ceren portua ez baitzen ona neguaren han iragai-teco, guehiagoac boceco içan ciren handic abiatceco, *bilhateco* leyborreratcea Phenixen, cein baita Cretaco portu bat, Africaco haicearen eta iguzquia-ren sartceco ipliarren parrean, neguaren han *fagaitecotçat*.

13. Eta eguerdico haicea has-siz buhatcen eztiqui, uste içan çuten burutcietan yoaiten beran chedetan, eta abiaturic, ubasteratu çuten *Creta hurbilago-ric*.

14. Bainan handic lekhora haice hedoiçu bat, deitzen dutena *Euroclydon*, yaiqui cen islaco aldetic.

15. Eta untcia haiceaz era-mana içanez, halaco guisaz nun ez baiteiren burutcietan yoiten ahal, eramanac içan guinen, utciric *untcia haiceari*.

16. Eta iraganic Claudia dei-thua cen isla baten behereco aldetic, nekhe handirequin naus-situ abal içan guinen barkhuaz;

17. Bainan gure ganat tiratric, *marineroac* baliateen ciren erremedio guciez, estecatuz untcia azpitic; eta nola beldur baitciren eror area pholo batetarat, irriatu cituzten belac, eta ek-harriac ciren guisa hortan.

18. Bada ceren uherrituac guinen erauntsi handi batez, ondooco egunean untcia arhindu çuten.

19. Guero hirurgarren egunean aurthiqui quintuen gure escuez untcico tresnac.

20. Eta nola ez baitcaucun aguertu cembajit egunez ez iguzquia ez içarrac, eta erauntsi

bandi batec uherritcen baiguin-tuen ascarqui, salbateeco es-peranza gacia içan çaucún ide-quia.

21. Bainan egotu ciren ondoan hainitz dembora yan gabe, Pau-lo çagolaric orduan heyen artean chutic, erran ciotén : o gu-içonac! segurqui behar hindu-çuen sinhetsi, eta ez abiatu Cre-tatic, itzurtcecotçat erauntsi hau eta galice hau.

22. Bainan orai exortateen caituztet içaitez animo on, ecen çuetaric batec ere ez du galduco bicia, eta untzia bakharrie gal-duco da.

23. Eeen gau huntan berean, cerbitçateen dudan Jaincoae, remarena ere bainaiz, egorri du Ainguera bat aguertu çau-tana,

24. Cioelaric : Paulo ez çacula beldurric içan, aguerquidatuac behar duçue içan Cesari; eta huna, Jaincoae eman derauz-quitçu çurequin embarcatuac di-ren guciad.

25. Hortacotz, o guiconae! içan eçaçue animo on, ecen badut sinheste hau Jaincoa bai-than gauça guerthatuco dela er-rana içan cerautan beçala.

26. Bainan içan behar dugu aurthiquiac isla cembaiten con-tra.

27. Hamalaurgarren gaba e-thorri cen ondoan, nola era-manac baiguinen harat hunat Adriatico ixasoaren gainean; marineroec ustea içan çuten gauer-diren inguruau hurbilcen cirela cembait bazterretarat.

28. Zunda aurthiquiric, cau-situ çuten bogoi besso barna ; guero urrhunchago, aurthiqui-ric oraino zunda, causitu çuten hamabortz besso.

29. Bainan beldurrez eror ugari cembaiten contra, aurthi-qui cituzten guibeleco laur angura eta deseatcen çuten eguna yein çadin.

30. Eta nola marineroec bil-hatcen baitçuten untcitic ihes yoaitea, yautsiric barkhuia ixas-orat, anguren eramaitea yoaiteco estacurian aitcineco alderat,

31. Pauloc erran çuen chun-tariari eta soldadoei : ez badire hauc egoiten untciaren barne-an, ez çaitzeque salba ahal.

32. Orduan soldadoec hautsi cituzten barkhuco amarrac, eta utci çuten erortcerat.

33. Eta argui hatsean, Pauloc exortatu cituen gueiac hart-cez cerhait hazcurri, cioelaric : egun da hamalaurgarren eguna iguricatz, egon çaretela bar-rur, eta ez duçuela deus hartu:

34. Exortateen caituztet be-

raz hartceaz cerbait yanhari, ik-hussiz hori behar dela çnen salbatcecotcat; ecen ezda erorico ile bat çuetaric bateren gaine-tic.

35. Eta erran cituen ondoan gauça haue, hartu çuen ogui, eta esquerrac bihurtu cituen Jaincoari gucien aitcinean, eta hautsiric hassi cen yaten.

36. Orduan guciec harturic animo, hassi ciren ere yaten.

37. Bada baguinen orotarat untcian bi ehun eta hiruretan hogoi eta hamasei lagun.

38. Eta yan çuten ondoan asse ciren arteraino, arhindu çuten untcia, ogui bihia aurthiquiz ixasorat.

39. Eta egundi cen ondoan ez çuten eçagntcen toquia; bainan ohartu ciren ugoleo costaldea çuen bat, eta buruan hartu çuten untciaren han ondartcea abal baçuten.

40. Hortacotz alchatu cituzten angurac, eta utci çuten untcia ixasoari, largatuz dembora berean buztegaco amarrac; eta guibeleco mastaco bela hedatric, yoiten ciren ubazterrera.

41. Bainan eroriric lubesa batetarat, çoinec baitçuen ixaso bi alletaric, han ondartzu çuten untcia, eta untciaren aitcinea han sarturic, egoiten cen azcar-

qui, bainan guibela hausten cen baguen indarraz.

42. Orduan soldadoae boceco içan ciren presoneren hileeco, beldurrez cembait salbaturic i-guerica, ihes eguin ceçan.

43. Bainan ehuntariac debe-khatu cituen, ceren nahi bait-çuen salbatu Paulo, eta manatu çuen iguericatzen ahal cirenac aurthic citen camporat lehenic, eta salba citen lurrerat.

44. Eta berceac yarri ciren taulen batçuen gainean, edo untcipusca cembaiten gainean, eta guisa hortan guciac salbatu ciren lurrerat.

## XXVIII CAPITULUA.

*Pauloren guerthapenac Maltan eta Erruman.*

1. Guisa hortan segurean yar-ric, eçagutu çuten isla Malta deitzen cela.

2. Eta Barbarec içan çuten hainitz umanitate gure alde-rat, ecen piztu çuten su handi bat, eta errecebitu guinduzten guciac; uria eta hotza cirela casu.

3. Eta Pauloc bilduric cher-menta ahur on bat, nola eçarri baitcituen suan, sugue bipera bat ilqui cen handic beroa cela casu, eta lothu cion escutic.

4. Eta Barbarec ikhussi çuten

ondoan animale hura haren es-  
cutic dilindan, errau çuten ba-  
tac berceari; segurqui guiçon  
hau guiçon hilçaile bat da; ix-  
soari escapatu ondoan, ceruco  
mendequioac ez dionaz gueroz  
cilheguicen bicitcea.

5. Bainan Pauloc iharrauxiric  
animalea surat, ez çuen minic  
batere içan;

6. Ijuricatcen çuten hantu  
behar çuela; edo tipusqui hilic  
erori. Bainan hainitz dembora  
iguricatu çuten ondoan, eta ik-  
hussi ez çayola minic batere yei-  
ten, *mintçayez cambiatu ciren*,  
eta erran çuten yainco bat cela.

7. Bada toqui bartan ciren,  
islaco buruçaguiaren göçame-  
nac, deithua Publius, ceinac  
errecebítu baiguintuen, eta os-  
tatatu hirur egunez ontassun  
handi batequin.

8. Eta guerthatu cen Publius  
sen aita eri cela ohian sukharra-  
requin, eta sabeldarzunarequin,  
eta Paulo yohanic ikhusterat,  
eguin çuen othoitza, pausatú  
çaizoom escuae; etasendatu çuen.

9. Hori guerthaturic, islaco  
berce eri guciаc yein ciren ha-  
ren ganat, eta içan cisen sen-  
datuac.

10. Eta eguin caucutен ohore  
handiric, eta gure abiatcean or-  
mitu caucutен behar guinduena.

11. Hirur hila betheren bu-  
ruan abiatu guinen negua han  
iragan çuen Alexandriaco untci  
batean, ceinac baitçuen seina-  
letçat Castor eta Pollux.

12. Eta helduric Syracuserat,  
han egon guinen hirur egun.

13. Handic urheguiz yoha-  
nez, heldu guinen Rhegerat;  
eta egun baten buruan, eguer-  
dico haicea yaiquiric, yein gui-  
nen bigarren egunean Puzole-  
rat.

14. Nun causituric anaya cem-  
bait, othoiztuac içan guinen he-  
quin egoiteco çazpi egun, eta  
guero yein guinen Errumarat.

15. Eta hau ciren anayec içan  
citutzenean gure berriac, yein  
ciren gure biderat Appinseco  
plaçaraino, eta Hirur-Ostalerie-  
tarat; eta Pauloc hee ikhussiz,  
esquerrac bihurtu cituen Jain-  
coari, eta animo hartu çuen.

16. Eta Errumarat heldu gui-  
nen ondoan, ehuntariac largatu  
cituen presonerac pretorioco  
aitcindariari; bainan Paulori,  
haiçu içan cion berhez egoitea  
çaintcen çuen soldado batequin.

17. Bada guerthatu cen hirur  
egunen buruan, Pauloc deiqui-  
datu cituela Juduen aitcindariac;  
eta yein ciren ondoan, erran ci-  
ten: guiçon anayac! nabi bada  
ez dudan deus eguin popula-

ren contra, ez gure aiten ohitzen contra, bizquitartean prisoner arrestatua içan naiz Jerusalemen, eta Romanoen escuetarat largatua.

18. Ceinec interroatu ondoan, nahi ninduten lachoan ecarri, ceren ez baitzen ni baithan hobenic hilcearen gay cenic.

19. Bainan Juduac hortara contrarituz, borchatua içan naiz Cesari gandeiztea; içan gabe chedea bizquitartean acusatcecoene yendaya.

20. Hortacotz çaituztet dei-thu, çuen ikhustecotçat eta mintçatcecotçat; ecen Israeleco esperanzarentçat cargatua naiz gathe hautaz.

21. Bainan ihardetsi cioten: ez dugu errecebbitu Judeatic letraric çutaz mintço denic, ez anayetaric batere ezda yein aiphatu duenic edo erran cembait gaizqui çutaz.

22. Bizquitartean atsinequin adituco dugu çutaric cein den çure sendimendua; ecen thema hori, eçagutua çaucu contra errana dela toqui gucietan.

23. Eta fixatu cioten ondoan eguna, hainitzac yein ciren hura ganat haren ostaturat, ceinei espligateen baitzen hainitz lekhucotassunez Jaincoaren erre-suma eta golcetic arraxeraino

bilhatzen çuen heyei sinhesta-raztea Jesusi derazcon gauçac, nahiz Moisesen legueaz nola profetez.

24. Eta batçuec sinhetsi ci-tuzten erraiten cituen gauçac; eta bercec ez cituzten sinhetsi.

25. Hortacotz ez içanez acord beren artean, itçuli ciren, Pau-loc erran cioten ondoan hitz hau: ongui mintçatu da Izpiritu Saindua gure aitei Esaias profetaz;

26. Cioelaric: çoaci populu hunen ganat, eta erran eçoğu: ençunen duçue çuen beharriez, eta ez duçue adituco; eta behatuz ikhussico duçue, eta ez çarete ohartuco.

27. Eeen populu hären bihotça guicendua da; eta gogorqui aditu dute beren beharriez, eta hetsi dituzte beren beguiac: beldurrez ihus deçaten beguiiez, adi beharriez, endelga bihotçaz, comberti diten, eta senda ditçadan.

28. Yaquin çaque beraz Jain-coaren salbamendu hau egorria dela Gentilei, eta adituco dutela.

29. Gauça horiec erran cituen ondoan, Juduac yohan ciren hura ganic, çutelaric liscar han-di bat beren artean.

30. Bainan Paulo egotu cen bi urthe bethe logatu çuen etche

batean, nun errecebitcen bait-  
cituen ikhusterat yoaiten çai-  
con guiac.

31. Predicatuz Jaincoaren er-

reynua , eta irakhatsiz Jesus-  
Christo Jaunari derazcon gauçac  
mintçatceco ausarcia guciare-  
quin eta debekhuric batere gabe:

# HUTSAC CORREITCECO

PLAMAG  
BERSUAG  
LERRAG.

690



PLAMAG	BERSUAG	LERRAG.				
3	6	3	Ez hais	Iracurt cague	Ez hais	
4	19	1	hil eta,	— —	hil een ondoan,	
5	3	5	bideszac.	— —	haren bideszac.	
11	6	ez painaiz digne :		— —	ez bainaiz gay :	
16	6	tac		— —	eta	
8	15	1	eduzte	— —	eduzte	
	17	4	baicen	— —	baicen	
9	29	2	trebuesa, arazten	— —	trebucarazien	
	30	2	trebuesa, arazten	— —	treburazien	
	33	2	adul-	— —	ez	
14	15	5	errebiaiu	— —	ehasie	
24	19	6	prestutassuna	— —	ehureia	
29	17	3	yustue	— —	yustue	
50	35	1	mahasti	— —	mahasti caineo	
56	6	5	oraine	— —	oraino	
68	7	2	ekharrquin	— —	elkarrequin	
73	19	1.2	erakhusi caque nacione gacior	— —	discipularaz eatec yen-   daya gudiac	
78	16	5	cergatio	hemen eta beretean ira-	ceren eta	
80	21	3	cergatio cioten	curt cague	ceren eta erran cioten :	
81	32	1	cure aita eta cure ama	iracurt cague	cure ama eta cure amayae	
84	12	3	gaiten	— —	gaitateen	
87	5	3	sendatua	— —	sendatea	
	12	2	onrateezaz	— —	urriquicetz	
89	37	2	eta erran :	berha cague	emocute erroree yaterat   Eta erran cioten	
91			asco aldi plama hantua causitueo dueue ikastea	bainan iracurt cague	icunzia edo garbitcea	
103	2	7	eraman	iracurt cague	erakhar	
103	30	3	decaquet	khent cague.	decaqueta	
	33	3	gu;	iracurt cague	harria harriaren gainean	
109	2	4	barriaren gainean	— —	landan	
110	15	1	landa	khent cague.	eta erran cioten :	
112	12	2	bicio	berha cague	ari	
		5	ethorri eizcon	iracurt cague	bertee lekhaoric?	
115	54	4	harri	— —	khenduico	
	63	4	guehiago lekhaoric?	— —	usain gozoaren	
119	3	2	pirriquitaluco	— —	berthuteaz indartua	
121	9	3	usain : gocoaren	— —	ene Jaunaren ama	
122	17	3	berthuteaz : indartua	— —	icamen date	
124	43	2	Jaunaren ama	— —	adiarazten	
	65	3	icamen	— —	oguiz	
126	10	3	ardiestan	— —	othoiztu quen	
131	4	3	egniz	— —	direnene artean	
135	12	6	othoitu quen	— —	Harcet diru	
143	28	2	dire	— —		
144	41	1	Harcet dan	— —		

Pr. M.A.G.	B.R.E.S.T.A.C.	L.E.T.R.O.A.C.		<i>Iracart caue</i>		
145	5	2 erraitean		—	—	eraitean
146	20	1 khargiatu		—	—	erreportatu
147	33	3 ihlooen cen		—	—	ihlo cen
	35	6 bere		<i>khent caue.</i>		
	39	8 hauea		—	—	gauça
148	49	6 en da hila		<i>iracurt caue</i>		hila da
154	17	4 yautsiac		—	—	sumetitnac
164	58	3 harscau		—	—	enseya caeu
		7 preso		—	—	presondeguiian
167	6	1 esqueten		—	—	cocaquen
168	21	2 khurriatu		—	—	erreportatu
175	30	5 Jaincoaren Erresuma. Ez da.		—	—	Jaincoaren erreseuma ez da
177	6	2 cen		—	—	cer
	11	4 beharteen		—	—	hiburteen
182	43	1 ditut		—	—	ditut
	44	3 die		—	—	dut
190	20	3 bediene		—	—	bedi
194	25	1 untei		—	—	untei
195	39	1 urkhatsuac		—	—	itestnac
200	12	3 egunicei		—	—	eguinac
202	29	5 atherateen		—	—	khenteen
203	13	2 edateen		—	—	edaten
211	15	2 kharriatu		—	—	erreportatu
217	62	3 eer		—	—	cen
219	19	3 beguierat cen		—	—	beguirateen
226	2	4 icai		—	—	icaipeco
235	28	2 icena orduan		—	—	icena. Ordnaan
237	1	5 nuntan *		—	—	huntan
238	23	1 Jesusec		—	—	Jesusen
242	20	5 eaituzteere ; celetatu		—	—	eaituztece ere ; elatatu
247	3	5 gabarqui		—	—	gabargui
255	1	1 horen		—	—	horren
259	11	3 behar		—	—	behra
277	6	1 arbatisuqui		—	—	arbatisu
	10	1 arbatisic		—	—	aguinteaz
292	32	3 egaintzaez		—	—	cen
300	29	3 eer		—	—	beren egaintzae
307	18	3 eguintzac beren		—	—	beren egaintzae
309	39	3 hantean bilcarre		—	—	bilcarre hantean
310	24	6 batzarrea		—	—	ministerioa







